

KLASIKOAK, S.A. lukro-asmorik gabeko elkarteak argitaratu du obra hau, elkartearen sustatzaile eta partaideak honako erakunde hauek izanik:

Fundación BBVA

•

Bilbao Bizkaia Kutxa — BBK

•

Gipuzkoa Donostia Kutxa — KUTXA

•

Caja VITAL Kutxa

•

Euskal Herriko Unibertsitatea — UPV/EHU

•

Deustuko Unibertsitatea



Plan de Fomento
de la Lectura



ALDERRAIEN GIDARIA II

MOŠEH BEN MAIMON

Alderraien Gidaria II



Jatorrizko izenburua:

דלאלה האירין מורה הנבוכים

Euskaratzailea: *Xabier Kintana Urtiaga*

Berrikuslea: *Lorea Arrieta Zubillaga*

Hitzaurregilea: *Shalom Rosenberg*

Lehen argitalpena: 2008ko irailean

© Itzulpenarena: Xabier Kintana Urtiaga

© Klasikoak, 2006-V-2

Begoñako Andra Mari, 16 • 48006 Bilbo

Tel.: 94 • 416 14 89 / Fax: 94 • 416 63 48

Erabat debekaturik dago, Copyright-titularren idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren pean, zatika edo osorik obra hau birsortzea edozein bitartekoz edo prozeduraz, erreprografia eta trataera informatikoa barne direla, baita beronen aleak alokapen edo mailegutza publikoaren bidez banatzea ere.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia 2006-VII-15

ISBN: 84-96455-15-7 Obra osoarena

ISBN: 84-96455-19-X Bigarren liburuarena

Lege gordailua: BI.-3800-07

Fotokonposaketa: L&A Diseinua.

Begoñako Andra Mari, 10 • 48006 Bilbo

Inprimaketa: Gestingraf L. B. A.

Ibarsusi Bidea, 3 • 48004 Bilbo

Diseinua eta Maketa: A.I.C.

Infante Don Juan Etorbidea, 26 • 20008 Donostia

*Arabierazko eta hebreerazko hitz eta esaldi batzuk argitzerakoan
eskaini didaten laguntza baliotsuagatik adiskide hauei eskerrak
ematen dizkiet:*

Karmel Avivi

Alexander Feinstein

Shaaan Hares

Mordekhai Mišor

Salah Serour

BIGARREN ZATIA

SARRERA

Yhwh, Unibertsoaren Jainkoaren izenean.

[Filosofo peripatetikoaren hogeita sei baiespen, Jainkoaren existentzia, batasuna eta gorpuzgabetasuna frogatzeko]

Jainkoaren existentzia (gorets bedi!) oinarritzeko, eta Hura ez dela gorputz bat, ez gorputz baten barruko indar bat, eta Bera (handiets bedi Haren izena!) *bat* dela frogatzeko behar diren baiespenak hogeita bost dira; eta guztiak frogagarriak, zalantza izpirik gabe, jadanik Aristotelesek eta berorren segiziokoek, peripatetikoek, bakoitzaren froga eskaintzen zuten eta. Bada, gainera, beste baiespen bat ere, eta hori ere ontzat ematen diegu, gure galderak argitzeko balio duelako, azalduko dudan bezala: baiespen hori *munduaren betierekotasunarena da*.

I. LEHEN BAIESPENA: Edonolako handiera amaigabearen existentzia ezin onartuzkoa da.

II. BIGARREN BAIESPENA: Handiera kopuru amaigabeen existentzia ezin onartuzkoa da, beroriek aldi berekoak izanez gero.

III. HIRUGARREN BAIESPENA: Kausa eta ondorio kopuru amaigabearen existentzia ezin onartuzkoa da, beroriek handierak ez badira ere. Honela, adibidez, honako adimen honek kausatzat beste adimen bat ukaitea; bigarren horrek hirugarren bat; berorrek laugarren bat, eta horrela amaigabeki, agerian da ezinezkoa dela.

IV. LAUGARREN BAIESPENA: Aldaketa lau kategoriatan aurkitzen da: lehenik *substantziaren* kategorian, eta berorren aldaketa jaiotze eta usteltzean datza; bigarrenik *zenbatekotasunaren* kate-

gorian, eta berorri darizkio handitzea eta gutxitzea; hirugarrenik *nolakotasunaren* kategorian, eraldaketan datzana; laugarrenez *lekuaren* kategorian, hots, tokiz aldatzeko mugimenduan, eta aldaketa horri esaten zaio, bereziki, mugimendua.

V. BOSGARREN BAIESPENA: Mugimendu oro aldaketa da eta ahalmenetik egiterako iragatea.

VI. SEIGARREN BAIESPENA: Mugimendu batzuk esentzialak dira eta beste batzuk akzidentalak, zenbaitzuk bortxatik helduak dira, eta badira partzialak ere, eta orduan beroriek mugimendu akzidentaletakoak dira. Esentzialak: gorputz bat toki batetik bestera aldatzea bezalakoak; akzidentalak: halako gorputz batean, toki batetik bestera lekuz aldaturik, legokeen belztasunaz esan daitekeenez; bortxazkoak: indarraz jaurtirik gorantz doan harria mugitzen denean gertatzen den bezala; partzialak: itsasontzian iltzeak egiten duenaren antzekoa, itsasontzia higitzean iltzea bera ere higitzen dela diogu eta. Hortaz, gauza osatu bat bere osoan mugitzen den aldi guztietan, haren osagaiak ere mugitzen direla esaten da.

VII. ZAZPIGARREN BAIESPENA: Aldagarri den guztia zatigarria da, eta horregatik mugikor oro ere zatigarria da, halabeharrez, gorputza izanez. Baina zatigarria ez den guztia ez da mugikorra, eta, beraz, ezin daiteke inola ere gorputza izan.

VIII. ZORTZIGARREN BAIESPENA: Akzidentez mugitzen den guztiak halabeharrez pausatu beharra dauka, horren mugimendua ez baita berorren esentzian; horrexegatik ezinezkoa da mugimendu akzidental horrek betiko irautea.

IX. BEDERATZIGARREN BAIESPENA: Gorputz bat mugiarazten duen gorputza soilki mugitzen da bestea mugiaraztean bera ere mugitzen delako.

X. HAMARGARREN BAIESPENA: Gorputz batean datzala esaten den guztia biotako bat da: Gorputzari esker dirauen zerbait da, akzidenteak bezala, edo gorputzari iraunarazten dion zerbait, itxura fisikoa bezala; kasu bietan gorputzean datzan indar bat da.

XI. HAMAIKAGARREN BAIESPENA: Gorputzari esker dirauten gauza batzuk, gorputza zatitzean zatitu egiten dira, eta, beraz, akzidentalki zatigarriak dira, hala nola, koloreak eta, oro har, gorpu-

tzean zehar hedaturiko indarrak. Era berean, gorputzaren izatea osatzen duten gauza batzuk, arima eta adimena adibidez, ez dira inola ere zatigarri.

XII. HAMABIGARREN BAIESPENA: Gorputz batean hedaturik aurkitzen den indar guztia mugatua da, gorputza bera mugatua delako.

XIII. HAMAHIRUGARREN BAIESPENA: Aldaketa mota ezberdinetan ezer ezin daiteke amaigabea izan, lekualdatzeko mugimendua ez bada, eta hor zirkularra besterik ez.

XIV. HAMALAU GARREN BAIESPENA: Lekualdatzeko mugimendua mugimendu ororen aurretikoa da eta izaeraz lehena, jaiotzeak eta usteltzeak aurretik aldaketa dutelako; eta aldaketa horrek, bere aldetik, aurretik, aldatzen denaren eta aldatu behar denaren arteko hurbiltasuna dauka; eta azken buruan, ez dago hazte ez gutxitzerik aurretik jaiotze eta usteltzerik ez bada.

XV. HAMABOSGARREN BAIESPENA: Denbora mugimenduak lagun duen akzidente bat da, hari berez datxekiona; eta biotatik bata ere ezin daiteke bestea gabe izan. Ez da mugimendurik denboran ez bada, eta pentsaezina da denbora mugimendurik gabe; beraz, mugimendutik landa den oro denboratik kanpokoa da.

XVI. HAMASEIGARREN BAIESPENA: Gorputzik gabekoak ez du kopuruaren ideia onartzen, gorputz baten barruko indar bat ez baldin bada, eta horrela bana-banako indarrak konta daitezke, horien materialak edo subjektuak zenbatuz. Horrexegatik gauza banatuek, ez gorputz ez gorputz baten barruko indar direnek, ez dute inola ere kopuruaren ideia onartzen, haiek elkarren kausak eta ondorioak diren aldetik izan ezik.

XVII. HAMAZAZPIGARREN BAIESPENA: Mugitzen den guztiak halabeharrez mugiarazle bat du, berarengandik kanpokoa, eskuak darabilen harriak bezala, edo barnekoa, animaliairen gorputza bezala, mugiarazleaz eta mugitzen denaz osatua. Horregatik, animalia hiltzen denean, eta bere mugiarazlea, hots, arima, galtzen duenean, mugituak, gorputza alegia, lehen zen bezalakoa izaten segitu arren, behingoan galtzen du mugimendu hori. Baina gauza mugituan datzan mugiarazlea ezkutaturik eta zentzuei nabarmendu gabe dagoenez, uste izan da animalia mugiarazlerik gabe mugitzen dela. Mugitzen den guztiari,

mugiarazlea bere baitan baldin badu, bere buruaren mugitzaile esaten zaio, erran nahi baita, mugitzen dena mugiarazten duen indarra esentziaz haren osotasunean aurkitzen dela.

XVIII. HAMAZORTZIGARREN BAIESPENA: Ahalmenetik egitera diragan guztian, horren eginarazlea, halabeharrez, beragandik kanpoko eragilea da, zeren haren baitan balego eta oztoporik ez balu, ez bailuke une batez ere ahalmenean iraunen, etengabe egiterarazten arituko litzateke eta. Baina gauza bat egiterarazten duena horren baitan baldin badago eta hor egon daitekeen oztopoa kendu bada, zalantzarik gabe, oztopo hori kendu duena izan da, halaber, ahalmen hori egitera iraganarazi duena. Saia zaitez hau ongi ulertzen.

XIX. HEMERETZIGARREN BAIESPENA: Bere existentziarako kausa bat duen gauza orok, beraren esentziari dagokionez, existentzia posiblea dauka; izan ere, horren kausak gertatzen baldin badira, bera ere izanen da; baina horiek agertzen ez badira, edo desagertu badira, edota, haren existentzia beharrezkoa egiten zuen harremana ezereztu baldin bada, gauza hori ez da izanen.

XX. HOGEIGARREN BAIESPENA: *Beharrezko existentzia* daukan oro, beraren esentziari dagokionez, ez du existentzia hori ezein ere kausatik eta inola ere jasotzen.

XXI. HOGEITA BATGARREN BAIESPENA: Bi ideia ezberdinez osatua den orok, halabeharrez, osaera horrexetan dauka bere existentziaren kausa (hurbila), eta, beraz, ez dauka beharrezko existentziarik bere baitan, bere bi osagaien existentziari esker existitzen denez gero.

XXII. HOGEITA BIGARREN BAIESPENA: Gorputz oro, halabeharrez, bi ideia ezberdinez osatua da, eta, nahitaez, akzidenteen eraginpean dago. Haren izatea eratzen duten osagai biak materia eta forma dira, eta eragiten dioten akzidenteak kopurua, itxura eta egoera.

XXIII. Ahalmenean dagoen oro eta bere esentzian nolabaiteko posibilitaterik daukana, litekeena da halako une batean, egitez ez izatea.

XXIV. HOGEITA LAUGARREN BAIESPENA: Ahalmenean den gauza orok halabeharrez materia dauka, posibilitatea, betiere, materian datza eta.

XXV. HOGEITA BOSGARREN BAIESPENA: Substantzia osatu-aren eta banakoaren hastapenak materia eta forma dira, eta hor nahitaezkoa da eragile bat; erran nahi baita, substratua bultzatzen duen mugiarazle bat, halako forma hartzeko prestatzen duena: hori mugiarazle hurbila da, eta edozein materia banakodun egokiarazten du. Horixe da nahitaezko abiapuntua, mugimendua, mugiarazlea eta mugitua aztertu ahal izateko.

Honi buruz behar diren azalpen guztiak emanak dira jada, eta Aristoteles honela mintzatua da preseski: «Materia ez da berez mugitzen»¹. Hauxe da baiespen nagusia, Lehen Mugiarazlearen existentziaz ikertzera daramana.

Aurkeztu dizkizudan hogeita bost baiespen horietatik, batzuk lehen begiratuan argiak eta frogaerrazak dira, hots, oinarrizko nozioak eta, nolabait, horiek zerrendatzean egin diegun aipamen hutsaz, ulergarriak; beste batzuek, aldiz, froga eta premisa ugari behar dituzte, baina horiek guztiak jadanik zalantzarik batere gabe frogatuak izan dira; horietarik zenbaitzuk *Akroasis* deritzon liburuan eta berorren iruzkinetan, eta besteak *Metafisika* liburuan eta berorren komentarioetan. Esana dizut aurretik ez dela ene asmoa tratatu honetan filosofoen liburuak berrizkiriitzea ere, ez eta baiespen urrunenak erakustea ere, gure helbururako baiespen hurbilenak eta beharrezkoenak aipatzea baizik.

Aurreko baiespenei beste bat erantsiko diet, munduaren betierekotasuna beharrezkotzat jotzen duena, eta horri Aristoteleseki egiazko eta besteak baino onargarriago deritzo. Hori hipotesi gisa onartuko diogu, horri buruz geure ideiak azalduko ditugun artean.

Baiespen honek, *hogeita seigarrenak*, honela dio: Denbora eta mugimendua betierekoak dira, iraunkorrak, eta beti existitzen dira egitez. Baiespen honetatik segitzen da, haren iritziz halabeharrez, badela betiereko mugimendua daukan gorputz bat, beti egitez dagoena, eta hori bosgarren *gorputza da*. Horrexegatik dio ortzia ez dela jaiotzen ez eta hiltzen ere; mugimendua, haren ustez, ez jaiotzen ez hiltzen delako. Izan ere –dio berak–, mugimendu orok aurretik beste mugimendu bat du halabeharrez, era berekoa edo beste era batekoa; eta animaliairen lekualdaketak ez duela aurretik inolako mugimendurik pentsatzen denean, hori ez da egia, geldi egon ondoren animalia mugiarazten duen kausa lekualdaketa hori eragiten dioten gauza batzuetaraino heltzen delako: hau da, izaera-aldaketa bat, [animaliari] komeni zaionaren

bila joateko gogoia sorrazten diona; edo aurka datorkionarengandik ihes egiteko nahia, edo bestela bat-batean heldu zaion irudipen edo burutazioen bat, eta halako moldez hiru gauza horietako batek mugiarazten du, horietako bakoitza, bere aldetik, beste mugimendu batzuek eraginik. Badio, era berean, gertatzen den guztian, gertatzeko posibilitateak gertatuari aurrea hartzen diola denboran, eta hortik ondorio batzuk ateratzen ditu bere baiespena berresteko. Berrespen horren arabera, mugikor mugatuak hedadura mugatu batean mugitu beharko du amaigabeko aldiz, betiere hedadura berberaren gainean itzuliz, eta hori ezin gerta daiteke mugimendu zirkularrean ez bada, goian aipaturiko hamahirugarren baiespenean frogatzen den bezala. Beraz, ondorioz, hortik ateratzen da amaigabea hurrenez hurren izan daitekeela, baina ez aldi berean.

Aristoteles etengabe saiatzen da baiespen hau berresten. Nik neuk uste dudanez, ez die eman nahi hura oinarritzeko darabiltzan argudioei indar frogagarririk, baina, haren aburuz, hori da egokiena eta onargarriena. Halere, haren segiziokoek eta haren izkribuen komentatzaileek hari beharrezkoa deritzote, eta ez soilki posible, baina frogatua izan dela. Bestaldetik, *mutakallimīnetako* bakoitza hura ezinezkotzat aurkeztzen saiatzen da; zeren, berek diotenez, ezin pentsatuzkoa baita, ezta *hurrenez hurren* ere, amaigabeko gertakariak izaterik, eta, beraz, haien iritziz, hor lehen nozio bat dago. Ene aburuz, esaniko baiespen hori posiblea da, baina ez beharrezkoa, Aristotelesen hitzen iruzkingileek dioten bezala, ez eta ezinezkoa ere, *mutakallimīnek* nahiko luketenez. Ez da ene helburua hemen Aristotelesen frogak erakustea, ez horri buruz neure zalantzak plazaratzea, ez eta munduaren berritasunaz neure iritzia azaltzea ere. Aitzitik, leku honetan ene asmoa haxe izan da, geure hiru galdera horietarako behar genituen baiespenak agertzea. Beraz, baiespen horiek behin aurretik jarri eta onetsi ondoan, horiei berez darizkien ondorioak azaltzen hasiko naiz.

⌘ LEHEN KAPITULUA

*[Jainko bakarra eta gorputzik gabea, unibertsoaren
lehen mugiarazlea]*

XXV. baiespenetik honako hau ateratzen da: badela mugiarazle bat eta horrek jaiotzen eta hiltzen denaren materia mugimenduan jarri

duela, materia horrek forma har dezan; eta mugiarazle hurbil hori mugimenduan zerk jarri duen bilatzen hasiz gero, halabeharrez, berorri ere, beste mugiarazle bat aurkitu beharko zaio, dela era berekoa, dela beste era batekoa, mugitzea eskuarki «mugimendu» hitza aplikatzen zaien lau kategorietan aurkitzen delako, IV. baiespenean esan genuen bezala. Baina hori ezin luza daiteke amaigabeki, jada III. baiespenean esana dugunez. Hortaz, badakusagu (behealde honetako) mugimendu oro *bosgarren gorputzean* amaitzen dela, eta hortxe gelditzen. Mugimendu horrexetatik dator, eta, kateaketaz, hartaraino heltzen da beheko mundu osoan mugiarazten eta (forma hartzera) egokiarazten duen guztia. Zeruko esferak lekuz aldatzeko mugimendua dauka, gainerako mugimendu guztiak baino lehenagokoa, XIV. baiespenean esan den bezala. Hori dela eta, era horretako leku-mugimendu oro, behealde honetan, zeruko esferaren mugimenduan amaitzen da. Horrela beraz, esan daiteke, adibidez, mugitzen den harri hori, makilak mugiarazi duela; makila eskuak duela mugiarazi eta eskua tendoiek; eta tendoiak giharrek, giharrek nerbioek eta nerbioak bero naturalak eta berau bere baitan daukan [arimazko] formak, zalantzarik gabe, lehen mugiarazlea denak. Mugiarazle hori jardunean hastera bultzatu duena izan daiteke, adibidez, xede bat, hots, harri hori, makilaren bitartez zulo bateraino eramatea, hori estaltzeko, ziztuka jotzen duen haizea hortik sar ez dadin. Haize horren mugiarazlea eta berorren ziztuaren eragilea zeruko esferaren mugimendua da; eta horrela aurkituko duzu jaiotze- eta usteltze-kausa orok iturburua zeruko esferan duela.

Geure gogoetaz, azken buruan, esfera horretara heltzen garenean, berori ere mugimenduan dagoenera, berak ere, bere aldetik, mugiarazle bat ukan behar du, aurretik XVII. baiespenean esan denaren arabera. Horren mugiarazleak berorren barruan edo hartatik kanpoan egon behar du, horixe baita noraezeko hautabidea. Hartatik kanpoan baldin bada, halabeharrez gorpuzduna edo gorputzik gabea izan beharra dauka; halere, azken kasu honetan ezin liteke esan hartatik kanpo denik, hartatik banaturik baizik, gorputzik gabeaz ez baita erraten, esanguraren hedaduraz ez bada, gorputzetik kanpoan denik. Aitzitik, haren mugiarazlea –esferarenaz ari naiz– haren baitan baldin bada, biatarik bat: edo haren gorputz osoan hedaturiko indarra da, eta bera bezain zatigarria, suan beroa bezala, edo bestela harengan kokaturiko indar zatiezina dugu, arima eta adimena bezalatsu, X.

baiespenean aurretik esan denez. Beraz, zeruko esferaren mugiarazleak halabeharrez lau gauza hauetako bat izan beharko du: hartatik kanpoko gorputza, izaki banatua, haren barruan hedaturiko indarra edo indar zatiezina.

Lehen kasua, zeruko esferaren mugiarazlea harengandik kanpoko beste gorputz bat proposatzen duena, onartezina da, azalduko dudana bezala. Izan ere, mugiaraztean bera ere izanen da mugitua, IX. baiespenean esan den bezala; halere, seigarren gorputz hori ere, halaber, mugimendua ematean mugitua izanen denez, beharrezkoa litzateke, halaber, horri zazpigarren gorputz batek bultzada ematea, eta berori ere, bere aldetik mugitua litzateke. Beraz, hortik gorputz kopuru amaigabea ateratu beharko genuke, zeruko esferaren mugimenduaren eragile. Baina hori ezin onartuzkoa da, II. baiespenean esan denaren arabera.

Hirugarren kasua ere, esferaren mugiarazlea haren barruan barreiatutako indarra izan daitekeela uste duena, onartezina da, argituko dudanez. Esfera, alabaina, gorputza izanez eta, beraz, I. baiespenetik ateratzen denez, halabeharrez mugatua, haren indarra ere mugatua izanen da, XII. baiespenak dioenarekin bat, eta hura zatitu egingen da gorputza zatitzean, XI.aren arabera. Hortaz, ezin lezake mugimendua amaigaberik eman, XXVI. baiespenean esanik utzi dugunez.

Laugarren kasuari dagokionez, hau da, zeruko esferaren mugiarazlea haren baitako indar zatiezina izan litekeela dioena, arima gizakiarengan den bezala, era berean ezin onartu daiteke mugiarazle bakar hori amaigabeko mugimenduaren kausa denik, ezin zatituzko indarra izanik ere. Izan ere, hori haren lehen mugiarazlea baldin balitz, mugiarazle hori akzidentalki mugitu beharko litzateke, VI. baiespenean esan den bezala; baina hemen beste azalpen bat gaineratuko dut. Adibidez, gizakia bere arimak, haren forma denak, mugiarazten duenean bere etxeko goiko solairura igotzeko, esentzialki haren gorputza mugiarazten da, arima haren lehen mugiarazle esentziala izanik. Baina arima akzidentalki mugitzen da, gorputza etxearen behealdetik goiko solairura lekuz aldatzean, harekin batera arima ere, etxean zegoena, aldatzen da lekuz, solairu horretara. Alabaina, arima gehiago mugitzen ez denean, hark mugiaraziak ere, hots, gorputzak, mugimendua akzidentala eteten du, bere aldetik, gorputzaren geldialdiarekin arimari heldua zitzaiona. Beraz, arimari heldua zitzaion

mugimendu akzidentala ere amaitzen zaio, akzidentalki mugitzen den oro halabeharrez pausaldian aurkituko delako, VIII. baiespenean esan denez; eta pausaldian dagoenean, hark mugiarazia ere halaxe geldituko da. Hortaz, beharrezkoa da lehen mugiarazle horrek, mugiarazle eta gauza mugiarazia delako multzotik at, bestelako kausa bat ukaitea; mugimenduaren hastapena den kausa hori presente badago, multzo horretan den lehen mugiarazle horrek zati mugiarazia mugimenduan jarriko du; baina absente badago, zati hori geldi egonen da. Hori dela eta, animalien gorputzak ez dira amaigabeki mugitzen, guztiek lehen mugiarazle zatietan bana daukaten arren: haien mugiarazleak bere esentziaz etengabeki mugiarazten ez duelako; eta, aitzitik, mugimendua sortzera bultzatzen duten gauzak harengandik kanpokoak dira: komeni zaiona bilatzeko (gogo) edo atsegin ez duenetik ihes egiteko nahia, berori irudipena edo kontzeptzioa izan, berori eduki dezaketen izakien kasuan. Orduan, horregatik mugiarazten du, eta, mugimendua egitean, bera ere akzidentalki mugitzen da; eta, beraz, halabeharrez pausaldira itzuliko da, jada esana dugun bezala. Ondorioz, zeruko esferaren mugiarazlea era horretara haren baitan balego, ezinezkoa litzateke amaigabeko mugimenduaz hornitua izatea.

Hortaz, gure aurkakoak esan duenez², mugimendu hori amaigabea eta betierekoa baldin bada –eta hori, XIII. baiespenean esan den bezala, hala izan daiteke–, iritzi horrekin bat etorritik, zeruko esferaren mugimenduaren lehen kausatzat, goian aipaturiko *bigarren kasua* onartu beharko da nahitaez, hau da, [lehen mugiarazlea] esferatik banaturik aurkitzen dela, aurreko banaketak eskatzen duen gisan.

Beraz, frogaturik gelditzen da zeruko esferaren lehen mugiarazlea, hark betiereko eta amaigabeko mugimendua baldin badauka, ezin daitekeela inola ere izan ez gorputz bat, ez eta gorputz baten barruko indar bat ere; halatan, mugiarazle horrek ez du mugimendurik, ez esentzialik ez eta akzidentalik ere, eta, horrexegatik, ez da zatigarri ez aldagarria, VII. eta V. baiespenenetan esan denez. Eta hori Jainkoa da –gorets bedi haren izena! –, esan nahi baitut bera dela zeruko esfera mugiarazten duen lehen kausa. Ezin onar daiteke hura bi edo gehiago izatea, gauza banatuek, gorputzik gabeak izanik, ez baitute zenbatzerik onartzen, batzuk beste kausak diren aldetik izan ezik, XVI. baiespenean adierazi denez. Argi dago, halaber, mugimendua ezin aplikatu dakiokenez, denborapean ere ezin egon daitekeela, XV. baiespenaren arabera.

Espekulazio honek, frogen bitartez, honako ondoriootara ekarri gaitu: zeruko esferak ezin liezaiokeela bere buruari betiereko mugimendurik eman, mugimendua eransten dion lehen kausa ez dela gorputz bat ez eta gorputz baten barruko indar bat ere, eta *bat* dela, aldazina, eta horren existentzia ez dagoela denborapean loturik. Horiexek dira filosoforik hoberenek frogen bidez erabaki dituzten hiru galderak.

[Filosofo] *horien bigarren espekulazioa*. Aristotelesek, hasieratik, honako hastapen hau ezarri zuen: gauza osatu bat bi osagai ezberdinez eratua baldin bada, eta osagai biotako bat gauza osatu horretatik at existitzen bada, beste osagaiak ere bakarrik existitu beharra dauka gauza osatu horretatik landa; izan ere, elkarrekin izatea horien existentziarako halabeharrezko baldintza balitz, materia eta itxura fisikoarekin gertatzen den bezala, bietako bat ere ezin existi liteke inola ere bestea gabe. Hortaz, horietako bata bakarrik existitzeak bien arteko loturarik eza frogatzen du, eta hortik nahitaez segitzen da bestea ere [bakarrik] existi daitekeela. Adibidez, ozpineztia existitzen baldin bada, eta, aldi berean, ezta bakarrik, hortik halabeharrez ateratzen da ozpina ere bakarrik existitzen dela. Baiespen hau erakutsi eta gero, honako hau dio: Anitz gauza aurkitzen ditugu mugiarazleaz eta mugiaraziaz osatuak, hots, beste gauza bat mugiarazten eta, mugimendu hori ematean, haiek ere beste gauza batek mugiaraziak direnak; hori argi dago mugimenduan dauden bitarteko gauza guztietarako. Baina, era berean, beste ezer mugiarazten ez duen gauza mugiarazia ere aurkitzen dugu, azken gauza mugitua; beraz, beharrezkoa da, halaber, mugiarazia ez den mugiarazle bat izatea, eta horixe da lehen mugiarazlea. Izan ere, harengan mugimendurik ezin izan daitekeenez, ez da zatigarri ez eta gorputza ere, eta ez da denboraren meneko, aurreko frogaketan erakutsi den bezala.

Hirugarren espekulazio filosofikoa. Gai honi buruzkoa da, Aristotelesen hitzetatik jaso, horiek hark beste helburu baterako esanak izan arren. Hona hemen argudioa: Badira zalantzarik gabe existitzen diren gauzak, eta horiek dira zentzuek hautemaniko izakiak. Izakiei buruz ezin onar daitezke hiru kasu besterik, eta hor beharrezko zatiketa egin beharra dago: 1) Izaki guztiak ez direla ez jaiotzen ez ezereztan; 2) Guztiak jaiotzen eta ahitzen direla, eta 3) Haietako batzuk jaio eta ezereztu eta beste batzuk ez jaio ez ezereztu egiten

direla. Lehen kasua, argi eta garbi dagoenez, ezin onartuzkoa da, begien bistan baitugu izaki asko jaiotzen eta hiltzen direla. Bigarrena ere onartezina dugu, eta hona hemen zergatik: izan ere, izakiak oro jaio eta ezereztuko balira, izaki guztiek banan-banan hiltzeko posibilitatea lukete, baina espezierako posible denak, zuk ongi dakizunez, nahitaez gertatu behar du. Hortik segitzen da izaki guztiak halabeharrez ezereztu beharko ziratekeela eta, behin guztiak desagertuz gero, ezinezkoa litzateke ezer ere existitzea, ez bailegoke ezeri existentzia eman liezaiokeen ezer, eta, ondorioz, ez litzateke ezer ere existituko. Halere, guztiok dakuskigu existitzen diren gauzak, eta geu ere existitzen gara. Beraz, espekulazio honi nahitaez dario ezen baldin badira jaio eta hiltzen diren izakiak, geuk dakusagunez, halabeharrez izan behar dela, halaber, ez jaio ez ezezten den bat ere. Jaio eta hiltzen ez den izaki honek ez duke ezerezteko inolako posibilitaterik ukanen; aitzitik, beharrezko existentzia duke, eta ez existentzia posible hutsa. Ondoren honako hau esana du: beharrezko izakia ezin daiteke halakoa izan bere buruarekiko baizik, edota bere kausarekiko, eta, halatan, azken kasu honetan, bere buruarekiko, existi liteke edo ez, baina, bere kausarekiko, beharrezko existentzia luke, eta ondorioz, bere kausa [egiazko] izaki beharrezkoa litzateke, XIX. baiespenean esan den bezalaxe. Beraz, frogaturik gelditzen da halabeharrezkoa dela izaki bat existitzea non bere existentzia bere buruarekiko beharrezkoa den, eta, bera gabe, ezertxo ere ez litzatekeela inola ere izanen, ez jaiotze eta ezereztepekoa, ez horietatik salbuetsia ere, horrelakorik baldin bada behintzat, Aristotelesek nahi lukeenez, erran bahi baitut, jaiotze eta hiltzetik landa legokeen gauzaren bat, beharrezko existentzia lukeen kausa baten ondorio izanik. Frogaketa honek ez du zalantza, ez gezurtatze, ez kontraesanik onesten, frogatze-metodoaren berri ez dakienarentzat ez bada.

Honen ondoren, erranen dugu beharrezko izaki horren existentziak halabeharrez ez duela kausarik ukan behar, XX. baiespenean gogoratu zen bezala; era berean, ez du bere baitan ideia aniztasunik batere ukanen, XXI.aren arabera, eta horri dario ezin daitekeela gorputz bat izan, ez eta gorputz baten barruko indar bat ere, XXII. baiespenean adierazi denez. Beraz, argi frogaturik geratzen da, espekulazio honen bitartez, badela izaki bat, bere esentziarengatik berarengatik, beharrezko existentzia duena, eta haren existentziak

ez duela kausarik, eta harengan ez da osaketarik, eta, horrexegatik, ez da gorputza ez gorputz baten barruko indarra, eta hori Jainkoa da [gorets bedi haren izena!]. Era berean, erraz froga daiteke ezinezkoa dela esentziazko berezko existentzia [izaki] birena izatea, zeren orduan, horretarako beharko litzatekeen izakia haietako bakoitzaren esentziari erantsiriko ideia bailitzateke, eta horrela haietako bat bera ere ez litzateke izanen bere esentzia hutsaz beharrezko izaki, baizik eta izakiaren espeziea eratzen duen eta batari eta besteari legokiekeen ideia bakar horregatik. Anitz eratara azal daiteke beharrezko izakiak ezin ukan dezakeela inola ere bitasunik, ez antzekotasunagatik, ez eta aurkakotasunagatik ere: horren arrazoia [izaki horren] bakuntasun hutsean eta erabateko betegintzan datza, espeziari dagokionetik ez baitu ezer ere uzten bere esentziazko landa, ez eta kausa ororen erabateko gabeziarekin batera ere. Hortaz, ez dago inolako elkartzerik.

Laugarren espekulazioa, filosofikoa, berori ere. Guztiok daki-gunez, [aurretik] ahalmenean zeuden gauzak egitera iragaten ari direla ikusten ari gara etengabeki. Halere, ahalmenetik egitera iragaten den orok badu, beragandik kanpoan, iraganarazten duen zerbait, XVIII. baiespenean esan den bezala. Era berean, argi dago eraginkor hori lehenago ahalmenean zela eraginkor, eta ondoren egitez izatera iragan zela; eta aurretik ahalmenean izateko arrazoia, edo bere baitatik datorren oztopoa da, edo bestela hor beraren eta berak eragindakoaren arteko harremanen bat falta da, halako moldez non harreman hori agertzean hura eragiten baita. Kasu hauetako bakoitzak, bestalde, nahitaez beharko luke eragile bat edo oztopoa ken lezakeen zerbait, eta gauza bera esan beharko litzateke bigarren eragileaz, edo oztopoaren kentzaileaz ere. Baina berau infinituraino ezin eraman daitekeenez gero, nahitaez heldu beharko da ahalmenetik egitera iraganarazten duen zerbaitengana, bera beti egoera berean iraunez, hartan inolako *ahalmenik* izan gabe, erran nahi baita, haren esentzian bertan ahalmenean aurki daitekeen ezer izan gabe, zeren, haren esentzian batere *posibilitaterik* balitz, izateari utz bailiezaioke, XXIII. baiespenaren arabera. Ezin onartuzkoa da, halaber, halako izakiak materiari ukaitea; izan, *banatua* dateke, XXIV. baiespenean esan denarekin bat etorritz. Izaki banatu hori, zeinengan posibilitaterik batere ez den, baina egitez bere esentziaz dena Jainkoa da (gorets bedi!). Hortaz, gorputz gabekoa izanez, bat da, XVI. baiespenari darraionez.

Hauek guztiok Jainko bakarraren existentzia frogatzeko metodoak dira, gorputzik gabea bera, eta gorputz baten barruko indar bat ere ez dena, [eta hori] munduaren betierekotasuna onarturik ere.

Bada, gainera, frogatzeko beste era bat ere [Jainkoaren] gorputzasuna baztertu eta Haren batasuna ezartzeko. Honako hau da: bi jainko balira, elkarrenik gauzaren bat ukan beharko lukete nahitaez, hau da, bietako bakoitza jainkoa [deiturik] izatea mereziaraziko liekeen zerbait, eta, era berean, elkarrengandik bereiziaraziko lituzkeen beste zerbait, horrela *biga* izan litezen. Baina bietako bakoitzak besteak ez lukeen zerbait balu, bakoitza bi ideiaz osaturik legoke, eta bietarik ezein ere ez litzateke lehen kausa, ez eta berez beharrezkoa ere, eta biek kausak ukanen lituzkete, XIX. baiespenean argitu zen bezala. Aitzitik, bereizgarria haietako batengan besterik ez balitz, gauza biak lituzkeena ez litzateke jada berez beharrezko izakia.

Batasunaren aldeko beste metodo bat. Erakutsirik gelditu da, frogen bidez, unibertso osoa banako bakarraren antzekoa dela, horren atalak elkarri datxezkiola, eta zeruko esferaren indarrak beheko materia honetatik zehar hedatzen direla eta bera *antolatzen*. Berau ezarrita, ezin onets daiteke jainko bata izaki horren atal batarekin eta beste jainkoa beste atalarekin bakarturik gelditzea, atal biak elkarrekin loturik daude eta. Beraz, egin daitekeen banaketa bakarra bata denbora batean eta bestea beste denbora batean aritzea besterik ez da, edo bestela biak batera jardutea, halako moldez non egintza batere ezin gerta litekeen [jainko] biek batera aritu gabe. Baina batak denbora batean eta besteak beste denbora batean jardutea uste izatea absurdoa da arrazoi batzuegatik. Izan ere, bata une batean eta bestea beste aldi batean arituz gero, zein litzateke batak jarduteko eta bestea geldi egoteko kausa eragilea? Eta, aitzitik, bietatik bata bestearen denbora berean aritzea ezinezkoa balitz, horrek esan nahi luke badela beste kausa bat batari jarduten uzten eta besteari galarazten liokeena, denbora berean ez baita ezberdintasunik, egintzaren substratua bat bakarra izanik, bere atalak elkarri atxikiak direla, jada azaldu dugunez. Gainera, bietako bakoitza denborapean lerorke, haien jarduera denborari loturik legoke eta. Era berean, aritzeko unean, haietako bakoitza ahalmenetik egitera lihoake, eta horrela biek egoera batetik bestera iragateko zerbait beharko lukete. Azken finean, bakoitzaren esentzian *posibilitatea* letzake. Baina unibertsoan gertatzen den guztian biak elkarrekin ari direla uste izatea, halako moldez non

batak ezin jardun bailezake bestea gabe, halaber, ezinezkoa da, ondoren azalduko dudanez. Hara, egintza bat [banako] batzuen multzoaz ez bada ezin gerta daitekeenean, multzo horretako ezein banako ez da berez eragile absolutu, ez eta egintza horren lehen kausa ere; aitzitik, lehen kausa multzoaren elkartasunean datza. Halere, frogaturik gelditu da beharrezko izakiak edozein kausatatik landa egon behar duela. Bestalde, osatuaren elkartasunak beste kausa bat behar du, multzoa batuko duena. Ondorioz, multzo hori elkartu duena, hori gabe ez baitago egintza burutzerik, izaki bakarra da, Jainkoa, zalantzarik gabe. Kontrara, multzo hori elkartu duena, bere aldetik, beste multzo bat baldin bada, bigarren multzo horrek lehenak behar ukan zuena bera beharko du, eta horretara, halabeharrez, izaki bakar batengana helduko gara, unibertso bakar honen existentziaren kausagana, existitzeko daukan era edonolakoa izan arren: *ex nihilo* sortua zein beharrezkotasunaz. Beraz, argiro dakusazu, metodo honen bidez ere, unibertso osoaren batasunak haren sortzailea *bat* dela frogatzen digula.

Gorpuzgabetasuna frogatzeko beste metodo bat. 1) Gorputz oro, XXII. baieispenean esan zenez, osatua da, eta osatu orok aldean eragile bat eskatzen du, berori baita haren materian daukan formaren kausa. 2) Era berean, ezin argiago dago, gorputz orok, zatigarria izateaz gain, neurriak dauzkala, eta, beraz, akzidenteentzako substratua dela. Ondorioz, gorputza ezin daiteke *bat* izan, alde batetik, zatigarria delako, eta bestetik, osatua izateagatik, erran nahi baita, bere [gorputz-] adieran bertan bitasuna daukalako, gorputz guztia gorputz orokorraren kontzeptuari erantsiriko ideia batez mugaturik dagoelako, eta, hortaz, haren baitan nahitaez bi ideia dautza. Baina aurretik frogaturik gelditu da beharrezko izakiarengan ez dela inolako osaerarik.

Eta froga hauen ondoren, geure metodoa erakusteari ekingo diogu, agindu genuen bezala.

⌋ BIGARREN KAPITULUA

*[Jainkoaren batasuna eta gorpuzgabetasuna,
mundutik at ere froga daiteke]*

Bosgarren gorputz hori, hots, zeruko esfera, halabeharrez sortzen eta ezerezten den zerbait [bere baitan mugimendua izanez] izanen da, edo bestela, aurkakoak dioenez, sortzen eta ezerezten ez

den zerbait. Orduan, esfera hau sortzen eta ezereztzen den zerbait baldin bada, ez-izateetik sorrarazi duena Jainkoa da (gorets bedi haren izena!). Hori lehen nozio bat da, ez-izan eta gero baden orok halabeharrez izatera ekarri duen zerbait behar duelako, bere burua sorrarazi duela ezin onartuzkoa baita. Halere, esfera hori inoiz gelditu ez geldituko ez bada, betiereko eta etengabeko mugimenduaz, hortaz, beharrezkoa da, aurreko baiespenei jarraikiz, mugimendu iraunkor hori ematen diona ez gorputz ez eta gorputz baten barruko indarra izatea: eta hori, halaber, Jainkoa da (gorets bedi!). Argi dakusazu, beraz, Jainkoaren existentzia (gorets bedi Haren izena!), –beharrezko izakia, kausarik gabea dena, horren existentzia, bere baitan, inolako posibilitaterik gabea izanik–, froga erabakigarri eta egiazkoekin erakutsi dela, eta berdin dio, mundua, ez izan ondoren, *ex nihilo* sortua izateak zein horrela ez izateak. Era berean frogaturik gelditzen da [Jainkoa] bat eta gorputzik gabea dela, aurretik esana genuen bezala, haren batasunaren eta gorpuzgabetasunaren froga nabarmena baita, mundua ezerezetik sortua izan zein izan ez, hirugarren metodo filosofikoan³ erakutsi genuenez, eta, ondoren, metodo horiekin gorpuztasuna ukatu eta batasuna finkarazi dugun bezala.

Filosofoen teoriak osatzeko, iruditu izan zait komeni dela horiek adimen banatuen existentziaz dituzten frogak agertzea, eta, horretan, horiek gure erlijioaren hastapenekin bat datozela: aingeruen existentziaz ari naiz. Gai hau behin amaitu eta gero, *munduaren berritasunaz* prometatu ditudan argudioetara itzuliko naiz. Izan ere, horri buruzko gure froga nagusiak ez dira sendoak eta argiak izanen adimen banatu horien existentzia eta horretarako frogak jakin arte. Halere, ororen aitzinean, aurretiko ohar bat egin beharra dago, Tratatu oso honen iluntasunak argi ditzakeen zuzia bezala, bai aurreko kapituluena eta bai ondotik datozenenak, eta honako hau da:

AURRETIKO OHARRA

Jakizu ez dudala tratatu honetan zientzia fisikoaz jarduteko xederik ukan, ez eta zientzia metafisikoaren gai batzuen sistemak ikertzekorik, edota jadanik frogaturik dagoena berriz ere hemen argitzen ahalegintzeko helbururik ere. Ez nuen asmorik, halaber, zeruko esferen ezarreraren [zientzia] laburbildu eta errazki azaltzeko, edo

horien kopuruaren berri emateko, jada horretaz izkiriaturiko liburuak nahiko baitira, eta arloren batean aski ez balira, horretaz neronek esan nezakeenak ez luke gehiago balioko orain arte esan denak baino. Tratatu honetan ene helburua ez da Sarreran adierazi nizuna besterik, hau da: Torah-ren alde ilunak argitu eta haren gauza ezkutuen egiazko esangura erakustea, adimen arrunten gainetik daudenak. Horregatik, *Adimen banatuen* existentzia eta kopuruaz mintzo naizela dakusazunean, edo esferenaz eta haien mugimenduen kausenaz, edo materia eta formaren benetako kontzeptuaz, edo Jainkoaren Presentziaz, edo antzeko beste gauzez hitz egiten dudanean, ez duzu inondik ere pentsatu behar puntu filosofiko horretaz ikertzeko asmorik dudarik, gai horiek guztiok anitz liburutan ukitu baitira, eta gehienetan egia frogatua dute. Ene helburu bakarra haxe izan da, Legearen iluntasun batzuk argitzeko balio dezakeen laguntza burura ekartzea, horrela arlo hori ulertzeko zailtasun asko askatzeko. Badakizu, jadanik, Sarreragatik, Tratatu honek *Ma'āšēh bĕrē'šīt* (מַעֲשֵׂה בְּרֵאשִׁית 'sorreraren kontaera'n) eta *Ma'āšēh merkābāh* (מַעֲשֵׂה מֶרְכָּבָה 'zeruko gurdiaeren kontaera') azaltzea duela xedea, bai eta profeziaren eta Jainkoaren ezagutzari dagozkion iluntasunak argitzea. Kapitulu batean gairen bat azaltzen ikus nazakezun bakoitzean, jada zientzia fisikoan zein metafisikoan frogatua, edo, soilki, era onargarrienean zerbait aurkezten, edota matematikan azaldua izan den arazoren bat, jakizu gai hori beharrezko giltza dela profezi liburuetako zerbait ulertu ahal izateko, haien alegoria eta misterioaren bat, erran nahi dut, eta horrexegatik aipatu eta argiro azaldua duket, *Ma'āšēh merkābāh* eta *Ma'āšēh bĕrē'šīt* ulertzeko lagungarri gerta daitekeelako, edota profetismoari dagokion hastapenen bat edo erlijioaren sineskeretan onartu behar den egiazko iritziren bat endelegatzeko.

Eta aurretiko ohar honen ondoren, banator neure buruari jarri nion egitekoa betetzera.

א HIRUGARREN KAPITULUA

*[Aristotelesek zeruko esferen mugimenduen kausei buruz
darabiltzan hipotesiez]*

Jakizu Aristotelesek zeruko esferen mugimenduen kausaz adieraziriko iritziak, hortik *Adimen banatuak* existitzen direlako

ondorioa atereaz, ezin froga daitezkeen hipotesiak izanik ere, aipa daitezkeen usteen artean, horiek dudagabeenak direla, Alexandrok⁴ [Afrodisiarrak] *Gauza guztien hastapenak* liburuan dioen bezala. Horietako asko, gainera, azalduko dudana bezala, *Torah*-n agertzen direnekin bat datoz, batez ere *midrašim* ospetsuenen ulerkerekin, horiek, zalantzarik gabe gure jakintsuenak izanik. Horregatik haren iritzi eta frogak aipatuko ditut, horien artetik *Torah*-rekin eta Jakintsuen esanekin (bedeinka bedi haien oroitzapena!) bat datozenak hautatzeko.

7 LAUGARREN KAPITULUA

[Zeruko esferak, arima eta adimenez hornitua. Jainkoak, lehen mugiarazleak, haien gainean «Adimen banatuen» bidez eragiten du; Adimen banatuen kopuruaz]

Zeruko esferak arima daukala argi ageri da, horri buruz gogoeta egiten denean. Halere, hau dantzuenak hori ulertzeko gauza zaila dela uste du, edo [ideia hori] beragandik urrun jaurtitzen, pentsatzen duelarik, «arimaz hornitua» dela diogunean, hori gizakiarena, edo astoarena eta idiarena bezalako arima dela. Baina hitz horiek ez dute horrelakorik esan nahi, eta horien bidez hauxe adierazi nahi da, haren leku-mugimenduak frogatzen duela berak badaukala, zalantzarik gabe, bera mugiarazten duen hastapen bat, eta hori, jakina, arima bat dela. Izan ere –gauzak argiago azal ditzadan–, ezin onartuzkoa da haren mugimendu zirkularra harri baten beheranzko mugimendu zuzenaren antzekoa denik, edo suaren goranzkoaren irudikoa izatea, halako moldez non mugimendu horren hastapena *izaera* bat den, eta ez *arima* bat. Mugimendu natural hori daukanak, bere baitan dagoen hastapenak ez baitu bera mugiarazten bere leku [naturala] bilatzeko eta hartara jotzeko besterik, hots, beste leku batean aurkitzen denean, eta halatan, behin bere tokira heldu eta gero, geldituz gertatzen da⁵; baina zeruko esfera hau inguruka biratzen ari da, betiere bere orbitaren barruan leku berean geldituz. Baina arimaz hornitua izate hutsagatik ez da horrela higitu behar, arimaz horniturik dagoen oro ez baita higitzen izaera batez edo buruzko irudipen batez ez bada. *Izaera* diodanean, hemen hauxe esan nahi dut, [animalia] komeni zaionerantz bultzarazten eta berari aurkakoa duenetik ihes eragiten

diona, eta ez dauka ardura horrela mugiarazten duena harengandik kanpoan izateak, esate baterako, animalia Eguzkiaren berotasunetik alde eginez, edota, egarri delarik, ur-toki bila ibiltzen denean bezala, edo bestela haren mugiarazlea beraren irudimena izatea, animalia, halaber, irudimen hutsak bultzatua izan baitaiteke kaltegarri zein komenigarri zaionarekiko. Alabaina, esfera hori ez da mugitzen kalte egiten dionetik urruntzeko edo mesedegarririk erdiesteko, bera helburuz higitzen den puntua hasierakoa bera baita, hasiera-puntu bakoitza helburuzkoa izanik. Hortaz, haren mugimenduak xede hori balu, behin puntu horretara heldu ondoren, hortxe geldi egon beharko luke, zerbaiten bila edo zerbaitetik iheska mugituko balitz, hori behin ere lortu gabe, mugimendua alferrekoa litzateke eta. Beraz, birakako mugimendu hori buruzko irudipenaren bidez gertatuko litzateke, horrela mugitzera bultzatuko lukeena. Halere, irudipen hori adimenaren bitartez besterik ezin gerta daiteke, eta, beraz, zeruko esferak badauka adimena. Baina ideiaaren bat bururatzen duen adimena daukan oro, eta mugitzeko ahalmena ematen dion arima bat daukana, ez da [nahitaez] mugitzen ideia bat bururatzen duenean; ez baitu buru-irudipen soilak mugimendurik behar. Hori jada *Lehen Filosofian* (edo *Metafisikan*) azaldua da, eta berez argi dago. Izan ere, zerorrek ontzat emanen duzu buruz hainbat gauza bururatzen dituzula, eta horietara mugi zintezkeela, baina, halere, horregatik ez zarela horietara mugitzen, harik eta, bat-batean, bururatu duzun gauza horretara gogorki bultzatzen zaituen nahiren bat etortzen ez zaizun arte, eta orduraino ez zara mugitzen pentsatu duzuna erdiesteko. Garbi dago, beraz, ezen ez arima, zeinen bidez mugimendua egiten den, ez adimena, zeinen bidez gauza pentsatzen den, ez direla nahiko mugimendua sortzeko, horri, pentsaturiko gauzaren nahia eransten ez zaion bitartean. Hortik segitzen da zeruko esferak baduela iruditurikora, hots, maite duen objektu horretara hurbiltzeko nahia, alegia, Jainkoarengana (gorets bedi haren izena!). Ikuspegi horretatik errana da Jainkoak zeruko esfera mugiarazten duela, hau da, esferak hautematen duen objektuarekin bat egin nahi duela, eta berak bururaturiko gauza horrekin, erabat bakuna denarekin, zeinetan ez baita batere aldaketarik ez berrikuntzarik, horri etengabeki ongia dariola. Baina zeruko esferak, gorputz bat den aldetik, ezin dezake hori egin, haren egintza mugimendu zirkularra delako, eta ez besterik, eta gorputzak erdiets dezakeen betegintzarik handiena betiereko egintza ukaitea da. Hori gorputzak ukan dezakeen

mugimendurik sinpleena da, eta ez da ezein ere aldaketarik gertatzen ez haren esentzian ez eta haren mugimendutik sortzen diren ongi eginen jariatzean ere.

Aristotelesek, hau guztiau ezaguturik, beste azterketa bat egin zuen, eta horren bidez frogatu zuen badirela esfera ugari, eta horien mugimenduak elkarretarik ezberdinak direla, lastertasunagatik, gelditasunagatik eta norabideagatik, guztiek elkarrekin mugimendu zirkularra berdinek daukaten arren. Ikerketa fisiko horrek sinetsarazi zuen halako esfera batek, egun bakarrean egiten duen mugimendua betetzeko helburuaz, irudikarazten duena, eta beste esfera batek, bere mugimendu bakarra hogeita hamar urtean betetzen duenak, irudimenaz bururatzen duena ezin daitezkeela berdinak izan. Beraz, hortik *Adimen banatuak* badirelako ondorioa atera zuen, kopuruz esferak bezainbat, eta esfera horietako bakoitzak adimen horrekiko atxikimendua sentitzen duela, haren hastapena baita, eta horrek dagokion mugimendua ematen diola, halako moldez non halako adimenak halako esfera mugiarazten duen. Ez Aristoteles, ez eta beste inork ere, erabaki zuen Adimen horien kopurua hamarrekoa edo ehunekoa izatea; hauxe da esan zuen bakarra: esferak adina direla. Hortaz, haren garaian esferak berrogeita hamar zirela uste zenez gero, Aristotelesek honela esan zuen: «Horrela bada, Adimen banatuak ere berrogeita hamar dira»⁶. Haren garaian matematika arloko ezagutzak urriak zirelako, eta oraindik osamaitu gabeak. Pentsatzen zen mugimendu bakoitzerako esfera bana behar zela, eta ez zekiten esfera bakar baten makurdurak ageriko mugimendu asko sorrarazten dituela, adibidez, luzetarakoa, deklinaziokoa eta horizontearen zirkuluan ageri dena, jaikiera-jaitsieren eremuaren zabaleran. Hori, baina, ez da gure xedea, eta, beraz, itzul gaitezen geure gaira.

Gaur egungo filosofoek *Adimen banatuak* kopuruz hamar direla esan dute, eta hori da beren barruan argizagiak dauzkaten globoak eta *inguruko* esfera zenbatu dituztelako, globo horietako batzuek beren baitan esfera batzuk eduki arren. Hortaz, bederatzi globo zenbatu dituzte, hots, guztia inguratzen duen esfera, izar finkoena, eta zazpi planeten esferak. Hamargarren Adimenari dagokionez, hori Adimen egilea da, eta horren existentzia frogatzen da gure adimenak ahalmenetik egitera iragaten direlako, eta jaio eta hiltzen diren izakiei heltzen zaizkien formengatik, horiek beren materietan ahalmenean besterik ez baitziren.

Hortaz, ahalmenetik egitera iragaten den orok badu beragandik at eragile bat, batetik bestera iraganarazten duena; eta eragile horrek eta berorrek ganean eragiten dion gauzak mota berekoak izan behar dute. Izan ere, zurginak ez du kutxa bat egiten esku-langilea delako, bere buruan kutxa horren figura daukalako baizik, eta zurginak buruan daukan kutxaren itxura horrek iraganarazten du hura ahalmenetik egitera, eta zurari kutxaren itxura objektiboa ematera. Era berean, inolako zalantzarik gabe, itxura ematen duena itxura *banatu* bat da, eta adimenari existentzia demaiona adimen bat da, hau da, *adimen egilea*; halako moldez non adimen egilea elementuekiko eta elementu horiez osatuekiko, edozein esferari dagokion *Adimen banatu* bakoitza esfera horrexeri zaiona bera baita, eta gudan den egitezko adimenaren zeregina, adimen egilearengandik isuria eta zeinen bidez guk adimen egilea hautematen dugun, esfera bakoitzean den adimenarena bezalakoxea da, berau adimen banatuarengandik isuria izanik, eta horrexen bidez esferak adimen banatua hautematen, bururatzen eta harekin asimilatu nahi izaten du, mugimenduan jarritz. Esandakotik segitzen da, halaber, lehenago azaldurikoa, hau da, Jainkoak (gorets bedi!), gauzak egiteko, ez dituela ukitzen; horretara, adibidez, erretzen duenean, hori suaren bitartez egiten du, eta hori zeruko esferaren mugimenduaren bitartez higitzen da, eta esfera, bestalde, *Adimen banatu* baten bitartez. Adimen horiek *aingeruak* dira, *Harengandik* (= Jainkoarengandik) *hurbil direnak*, eta horiexen bitartez mugitzen dira esferak. Halere, *Adimen banatuak*, gorputzik gabeak izanez, beren esentzien ezberdintasunaren arabera zenbakitan ezin eman daitezkeenez gero, hortik ateratzen da, haren (= Aristotelesen) ustez, Jainkoa dela (gorets bedi!) lehen Adimenaren sortzailea, lehen esfera mugiarazten duena, erakutsi dugun eran; bigarrena mugiarazi zuen Adimenak lehen Adimena dauka kausa eta hastapentzat, eta horrela hurrenez hurren, eta hortaz, guregandik den esfera hurbilena mugiarazten duen Adimena adimen egilearen kausa eta hastapena da. Berori da azken *Adimen banatua*, gorputzak ere, esfera gorenetik hasita, elementu eta horien osagaietan amaitzen diren bezalaxe. Ezin onar liteke, ordea, esfera gorena mugiarazten duen Adimenak nahitaez *Beharrezko izakia* izan behar duela, beste adimenekin helburu komun bat daukanez gero, hots, gorputzak mugiaraztea, eta haietako bakoitzak gainerakoetatik zerbaitetan bereizten direla kontuan izanda, hamarretarik bakoitza bi elementuz osaturik dago, eta, beraz, halabeharrez lehen kausa bat izan beharko da osoarentzat.

Horiek dira, bada, Aristotelesen hitzak eta iritziak. Gauza horien gaineko frogak ere erakutsi dira, hala izan daitezkeen neurrian, haren jarraitzaileen liburuetan. Haren hitzei dariena honako hau da, zeruko esfera guztiak gorputz bizidunak direla, arima eta adimena daukatenak; haiek Jainkoa badela pentsatzen eta bera hautematen dutela, bai eta beren hastapenak ere; badirela, halaber, *Adimen banatuak* ere, gorputzik gabeak erabat, guztiak Jainkoarengandik (gorets bedi!) isuriak eta haren eta zeruko gorputz horien guztien bitarteko.

Eta orain, datozen kapituluetan gure Legeak barruan daukana erakutsiko dizut, bai iritzi hauekin bat datorrena eta bai aurkakoa ere.

7 BOSGARREN KAPITULUA

[Izkribu Santuak eta rabbiak zeruko esferez diotena eta Aristotelesek zertan bat datozen]

Eskriturak aldarrikatu du zeruko esferak izaki bizi eta adimendunak direla, erran nahi baitut egiazki eta benetan «hautematen» duten izakiak, hau da, ez direla gorputz hilak, sua edo lurra bezala, ezjakinek uste dutenez; baina, filosofoek dioten bezala, izaki bizidunak dira, eta haren Nagusiari obeditzen diote, Bera mailarik gorenean laudatzen eta goersten dutela: «Zeruek Jainkoaren ospea aldarrikatzen dute» (Sal 19,2); eta hori metafora huts bat dela pentsa lezakeena oso urrun legoke egiaren kontzeptutik, hebreeraz הִגִּיד *higgîd* ‘adierazi’ eta סִפֵּר *sippēr* ‘kontatu, zenbatu’ aditzak ezin erabil baitaitezke batera adimena daukan Izaki batez besterik. Eta hor salmista esferei berez egokiro dagokien zerbaitez mintzo dela, eta ez gizakiek haiei egotzen dieten zerbaitez, honako honek frogatzen du: «Mintzorik eta hitzik gabe, entzun ezinezkoa da haien ahotsa» (*ibid.* 4. berts.); garbi dago, beraz, [esfera] haiei buruz hitz egiten duela, esanez Jainkoa (gorets bedi!) laudatzen eta haren mirestekoak kontatzen dituztela mihi-ezpainetako mintzairarik erabili gabe. Eta hori egia da; izan ere, hitzekin goersten duenak bere barruan bururatu duena adierazten du, eta hortxe datza egiazko goresmena, eta, hori adieraztea besteei jakinarazteko da, edo norberak horrelako hautematea ukan duela agertzeko. Horretaz hau esana da: «Pentsa ezazue zeuen bihotzetan, zeuen ohantzetan zauntzatela, eta zaudete isilik» (Sal 4,5) guk jada

azaldu dugun bezala⁷. Froga hori, Eskritura santutik aterea, ezin dezake inork gaitzets, gizaki ezjakina ez bada. Doktoreek horretaz duten iritziaz den bezainbatean, horrek ez du, nik uste, inolako azalpenik behar, ez eta frogarik ere. Kontsidera itzazu, soilki, *Ilargia bedeinkatzeko* haien izkribua, eta otoitzetan maiz errepikatzen dena, edota *Midrāšim*-etako testuak⁸ pasarte hauei buruz: «Eta zeruko armadak zure aurrean makurtzen dira» (Neh 9,6) eta «Goizeko izarrek elkarrekin kantatzen eta Jainkoaren semeek beren poza leherrarazten zutenean» (Job 38,7). Eta horrela testu anitzetan; esaterako, *Bērē'šît Rabbāh*-n, Jainkoaren hitz hauek direla eta (gorets bedi Haren izena!): «Eta lurra nahas-mahas hutsa zen»⁹ (Has 1,2), תוהא ובוהא 'tôha' we bôha' zen, hau da, 'Lurra aieneka ari zen eta bere zoritxarra deitoratzen zuen. [Lurrak] erran balu bezala: Ni eta haiek [= lurra eta zeruak (Has 1,1)] elkarrekin sortuak izan gara; baina goiko gauzak bizirik daude, eta behekoak, aldiz, hilik». Beraz, argiro diote zeruak gorputz bizidunak direla, eta ez gorputz hilak, elementuak bezala. Garbi dago, era berean, Aristotelesekin zeruko esferen oharmenaz eta bururatzeaz esandakoa bat datorrela gure profeten hitzekin. Bai eta gure Legearen zutabeak diren doktoreenekin ere (bedeinka bedi haien oroitzapena!).

Jakiteko duzu filosofo guztiek ontzat ematen dutela beheko mundu honen gobernuia betetzen dela beraren gainera zeruko esferatik daitson indarraren bitartez, jada esanik dugun bezala¹⁰, eta esferek ezagutu eta hautematen dituztela gobernatzen dituzten gauzak. Eta horixe da, halaber, Legeak adierazi duena, dioela: «Jainkoak zerupeko herri guztiei [zeruko armadak] eman dizkie» (Dt 4,19), eta horrek esan nahi du bitartekoak egin dituela herriak gobernatzeko, eta ez haiek adoratua izan zitezen. Argi esana da, era berean: «Eta egunaren eta gauaren gainean agintzeko (לִימְשׁוֹל *limšol*), eta argia ilunpetik banatzeko» (Has 1,18). *Mamšālāh* מַמְשָׁלָה aditzaren esangura 'gobernatzu menperatzea' da, eta hor *argiaren eta ilunpearen* ideia erantsiriko beste bat dago, beroriek sortze eta suntsitzearen kausa hurbila izanik, [argizagiek sorturiko] argiaren eta ilunpearen ideiaz honako hau esan baita: «eta argia ilunpetik banatzeko» (*ibid.*). Hortaz, ezin onartuzkoa da gauza bat gobernatzen duenak gauza hori ez ezagutzea, hemen 'gobernatu' hitzak daukan benetako esangura kontuan izanda. Gai hori beste nonbait zabalago ukituko dugu baina.

1 SEIGARREN KAPITULUA

[מלאך *mal'āk* 'aingeru' hitzaz eta berorren adierez,
'adimen banatua' z bereziki]

Aingeruen existentziaz den bezainbatean, Eskriturako frogarik ez da hona ekarri behar, horri buruz Torah-k anitz tokitan hitz egiten du eta. Honezkero badakizu אלהים *'Elōhîm* 'epaileak' (edo 'gobernatzailleak') adierazteko hitza dela¹¹; esate baterako: «Alde biek epaileen aurrera (= Jainkoaren aitzinera) eramanen dute» (Irt 22,9). Hori dela eta, izen hori metafora gisa aingeruak aipatzeko ere erabili izan da, bai eta Jainkoa adierazteko ere, Bera baita aingeruen epailea (edo menperatzailea); eta horrexegatik esaten da: «Zeren Yhwh, zuen Jainkoa –giza leinu osoari zuzendurik mintzatuz–, jainkoen Jainkoa baita, –hau da, aingeruena– eta jaunen Jauna –hots, esferen eta argizagien nagusia–», beroriek gainerako gorputz guztien jaunak direlako. Horixe da egiazko esangura, eta ez *'Elōhîm* 'jainkoak' eta *'Adônîm* 'jaunak' gizakiak direla, beroriek haiek baino askoz beherago daude eta¹²; eta, bestetik, «zuen Jainkoa» hitzek giza leinu osoa besarkatzen dute, bai menperatzaileak eta bai menperatuak ere. Beraz, ezinezkoa da horrekin adierazi nahi izatea Hura (gorets bedi!) harriz edo zurez eginiko jainkatzako guztien jauna dela, Jainkoa harriaren, zuraren edota metal zati baten nagusi egitea ez bailitzateke Bera goretsi eta ohoratzea. Baina horrekin esan nahi izan da Jainkoa (gorets bedi!) menperatzaileen menperatzailea dela, erran nahi baita, aingeruena, eta zeruko esferen nagusia.

Lehenago ere, tratatu honexetan, kapitulu bat emana dugu aingeruak gorputzak ez direla erakusteko. Horixe esana du Aristotelesek ere, baina hemen bada, izendatzeko moduan, ezberdintasun bat; berak *Adimen banatuak* deitzen ditu guk *aingeruak* deritzegunak. Eta hark dioenaz, hots, Adimen banatu horiek Jainkoaren (gorets bedi!) eta gainerako izakien arteko bitartekariak direla, eta esferak horiexen bitartekotasunaz mugitzen direla –sortzen den guztiaren jaiotzaren kausa–, horixe da, hain zuzen, liburu santu guztietan agertzen dena, ez baita hor inon aurkitzen Jainkoak (gorets bedi!) ezer egiten duenik, aingeru baten bitartez ez bada. Badakizu מלאך *mal'āk* hitzak 'mezulari' esan nahi duela; eta aginduren bat betetzen duen guztia *mal'āk* bat da; eta halatan, adimenik gabeko

animaliaren mugimenduak ere, Eskrituraren arabera, *mal'āk* baten bitartez betetzen dira, mugimendu hori Jainkoak zeukan xedearekin bat datorrenean, animaliarengan mugimendu hori egiteko indarra jarri du eta. Honela irakurtzen da, esaterako: «Ene Jainkoak bere aingerua (מלאכה *mal'ākeh*) bidali du, eta lehoien ahutzak itxi ditu, minik batere egin ez diezadaten» (Dn 6, 22), eta Balaam-en astemearen mugimendu guztiak ere aingeru baten bitartez egin ziren. Elementuak berak ere מלאכים *mal'ākîm* 'aingeruak edo mezulariak' deituak izan dira, adibidez, «Haizeak mezulari dituzu, eta su-garrak zerbitzari» (Sal 104,4). Beraz, argi dakusazu, *mal'āk* hitz hori honetara erabiltzen dela: 1) gizakien arteko mezulariak adierazteko, esaterako: «Eta Jakobek bere aurretik mezulariak (מלאכים *mal'ākîm*) igorri zituen» (Has 32,3); 2) 'profeta' esateko, adibidez: «Eta Yhwh-ren aingerua Gilgal-etik *Bōkîm*-era igo zen (Ep 2,1), «Eta bere aingerua bidali zuen eta Egiptotik atera gintuen» (Zkiak 20,16); 3) 'Adimen banatuak' adierazteko, profetei ikuspenetan agertzen zaizkienak; 4) animalia-ahalmenak, azalduko dugunez. Hemen aingeruez mintzatzean, soilik Adimen banatutzat hartzen ditugu; eta, egiazki, gure Legeak ez du errefusatzen Jainkoak (gorets bedi!) mundu hau aingeruen bitartez gobernatzen duenik. Hona hemen zer dioten doktoreek Torah-ren hitzei buruz: «Dagigun gizona geure irudira» (Has 1,26), «Jaits gaitezen bada» (*ibid.* 11,7), hor plurala erabiliz: «Honela mintzatzea zilegi baldin bada –diote– Guztiz Santuak (gorets bedi!) ez du deus egiten goiko familiari *begiratu* baino lehen». Eta «*begiratu*» hitza harriduraz ohartzekoa da, horixe bera baitarabil Platonek, Jainkoak Adimenen mundura *begiratu* zuela, eta izatea hortixek jalgi zela dioenean. Pasarte batzuetan soil-soilik honela diote: «Guztiz Santuak (gorets bedi!) ez du ezer egiten goiko familia kontsultatu gabe». *Familia* hitzak 'armada' esan nahi du grezieraz¹³. Era berean, bai *Bērē'šît Rabbāh*-n eta orobat *Midrás Qohèlet*-en ere hau erran da hitz hauez: «haiek jada egin dutena» (Qoh 2,12). Ez da esaten עשׂהו '*asahu* «hark egin du», עשוהו '*asuhû* «haiek egin dute» baizik; eta, horrela mintzatzea zilegi bada, Berak [Jainkoak] eta bere epaimahaiak zure osakide bakoitzaz kontsulta eginik eta bere oinarrian jarri dute, esan zenaren arabera: «Ez al da Bera bizia eman dizun aita, zu egin eta finkatu zaituena?» (Dt 32,6). Era berean, *Bērē'šît Rabbāh*-n ezarria da: «Eta Jauna» esaten den leku guztietan, uler bedi 'Bera eta bere epaimahaia'.

Testu horien guztion helburua ez da, ezjakinek uste duten bezala, Guztiz Gorenak (gorets bedi!) hitz egiten duela, gogoeta egiten, aztertzen, edo kontsulta egiten duela iradokitzea, horrela besteren iritziaz baliatzeko. Izan ere, nola balia liteke Sortzailea berak sorturikoaz? Horrek guztiak, aldiz, argi adierazten du unibertsoaren xehetasunik txikienak ere, animaliaaren atalak barne, aingeruen bitartez egin izan direla, ahalmen guztiak aingeruak dira eta. Zein handia den ezjakintasunaren itsukeria, eta zein arriskugarria! Baldin beren burua *Israelgo jakintsutzat* daukaten horietako bati esanez gero Jainkoak bere aingerua bidaltzen duela emakumearen sabelean sarturik han umekia sor dezan, hori atsegin handiz hartu eta ontzat eman lezake, horrela Jainkoaren handitasuna eta boterea nabari direlakoan, Haren jakintasun handia aitortuz (gorets bedi!). Era berean, aingerua su eta garrezko gorputza dela onar lezake, eta horren neurria unibertso osoaren herenaren adinakoa dela ere bai. Baina esan bazeniezaiot Jainkoak (gorets bedi!) hazian¹⁴ eratzeko indarra jarri zuela, atalak moldatzen eta antolatzen dituen, eta hori *aingerua* dela, edo, bestela forma guztiak adimen egilearen ekintzatik datozela, eta hori dela doktoreek beti aipatzen duten aingerua eta munduko printzea, hark, orde, iritzi hori gaitzetsi egingen luke, ez bailuke egiazko handitasun eta botere honen zentzua ulertuko, gauza batean indar eragileen sorrarazle izanik, zentzuek [indar] horiek ezin hauteman dituzten arren. Halere, doktoreek (bedeinka bedi haien oroitzapena!) azaldua zuten, egiazko jakintsuarentzat, gorputz-indar horietako bakoitza aingeru bat dela, eta areago unibertsoan hedaturik dauden indarrak, eta indar bakoitzak halako zeregin berezi bana daukala, eta ez bina.

Bērē'šīt Rabbāh-n (50) honako hau irakur daiteke: «Irakatsi izan da aingeru bakar batek ez duela bi misio betetzen, ez eta bi aingeruk misio berbera konplitzen ere». Eta, izan ere, horixe da indar [fisiko] guztien izaera. Eta banako indar guztiak, bai fisikoak eta bai psikikoak, aingeruak deituak izan direla areago egiaztatuko dizuna, honako hau da, haiek (= doktoreek) anitz tokitan, eta lehendanik *Bērē'šīt Rabbāh*-n (78) hauxe diote eta: «Egunero Guztiz Santuak (gorets bedi!) aingeru mota bana sortzen du, Haren aurrean kantika bat egin ondoren ezerezten dena». Hitz horien aurka aingeruak *egonkorrak* direla erakuts dezakeen beste pasarte bat jarri denez —eta, izan ere, aingeruak biziak eta egonkorrak direla maiz azaldu da—, honela erantzun da, haien

arteko batzuk iraunkorrak direla eta beste batzuk, ordea, hilkorrak. Eta, horrela da, izan ere, banako indarrak etengabeki jaio eta hiltzen direlako, eta dagozkien espezieak, aldiz, iraunkorrak, hondatu gabeak. Eta esaten da, halaber (id. 85), Juda eta Tamar-en historiaz: «Rabbi Yohanan-ek dio Judak segitu nahi zuela, baina Jainkoak aingeru jagole bat jarri zion, haragikeriaren aurka, erran nahi baita, maitakeriaren aurkakoa». Ahalmen horri ere, era berean, *aingeru* deitu izan zaio. Eta horrela aurkituko duzu beti esaten dutela: «Honetarako edo hartarako aingeru bat», Jainkoak (gorets bedi!) edozein gauzaz arduraraziriko ahalmen oro gauza horretarako jarriko aingerutzat hartzen baita. Bada *Midraš Qohèlet*-en (82a) pasarte bat, hau dioena: «Gizakia lo datzanean, haren arima aingeruarekin hizketan ari da, eta aingerua kerubinekin»; hor, beraz, ulertzen eta pentsatzen dakienarentzat, [doktoreek] argiro esan dute irudimenari ere aingeru deitzen zaiola, eta adimenari, kerubin. Hori oso ederki irudituko zaio gizon ikasiari, baina ez dute inola ere atsegin ukanen ezjakinek.

Bestaldetik, errana dugu jada aingeru bat edonolako eraz agertzen den guztietan, hori *ikuspen profetikoan* gertatzen dela. Aurkituko duzu profeta batzuek aingeruak gizaki soilak balira bezala dakuskitela; esaterako: «Eta hona hemen hiru gizon» (Has 18, 2). Beste batzuei [aingerua] gizon itzel eta beldurgarri gisa agertzen zaie, adibidez: «Jainkoaren aingeru baten antza zuen, oso beldurgarria» (Ep 13,6). Beste zenbaitzuei sua bezala azaltzen zaie, esate baterako: «Eta Yhwh-ren aingerua suzko gar batean agertu zitzaion» (Irt 3,2). Toki berean (*Bērē'šit Rabbāh* 50) areago esaten da: «Abrahami, ahalmen handia zeukanari, giza itxuraz agertu zitzaizkion, baina Loti, ahalmen txarra zeukanari, aingeru itxuraz agertu zitzaizkion». Hor misterio handia datza, profetismoari buruzkoa, eta horretaz komeni dena geroago esanen da. Hor hau ere esaten da: «Haien misioa bete baino lehenago gizonak [bezala azaldu ziren]; eta hura bete ondoren, beren aingeru-izaera hartu zuten berriz ere». Ongi ohar zaitez aingeru bat argiro aipatzen denean, edonolako ekintza ulertu beharra dagoela, eta aingeru-ikuste oro ez dela gertatzen ikuspen profetikoan besterik, eta bera hautematen duenaren egoeraren arabera.

Aristotelesek gai horretaz esandakoan ez da deus ere Legearen aurkakorik. Baina horretan bada puntu bat gure kontra dagoena; [Aristotelesek] uste zuen horiek gauza guztiok *betierekoak* eta

halabeharrez Jainkoarengandikoak direla (gorets bedi!); guk, ordea, hori guztia sorrarazia dela sinesten dugu, Jainkoak Adimen banatuak sorrarazi dituela eta zeruko esferan horiengana erakartzen duen nahimen bat ezarri duela, eta Bera dela, hitz batez, Adimenak eta esferak sorrarazi zituenak, eta horietan gidaritza-indar horiek ezarri dituenak. Aitzinerago haren iritzia jakinen duzu, bai eta egiazko Legeak munduaren berritasunaz irakasten duena.

† ZAZPIGARREN KAPITULUA

*[Adimenek eta esferekin beren egintzaz duten kontzientzia
eta berorren ezaugarriak]*

Azaldurik utzi dugu jada *mal'āk* hitzak balio anitzekoa dela eta bere baitan Adimenak, esferak eta elementuak dauzkala, guztiek [Jainkoaren] agindua betetzen dute eta. Baina ez da pentsatu behar esferak edo Adimenak bestelako gorputz-indar soilen mailakoak direnik, beroriek, izaera bat badira ere, beren jardueraren kontzientziarik gabeak izanik; aitzitik, esferekin eta Adimenek beren egintzen kontzientzia dute, eta, gobernatzeko, askatasunaz baliatzen dira. Halere, haiena ez da gurea bezalako askatasuna ez gobernuak, gurean dena ustekabeak gerta daitezkeen gauza berrien meneko baitatza. Legeak pasarte batzuk dauzka, horretaz ohartarazteko. Horrela, adibidez, aingeruak honela diotso Lot-i: «Ez baitezaket ezer egin...» (Has 19, 22); eta askatzean badiotso: «Hara, hori ere emanen dizut... (*ibid.* 21 *bert.*). Era berean, gainera, honela mintzo zaio: «Izan begirune hari eta ibili haren esanera; ez zaitez haren aurka jar, ez baitizue desobeditzerik jasanen, ene izenean ari denez» (Irt 23, 21). Pasarte hauek guztiok erakusten dizute aipaturiko izaki horiek bere egintzetan kontzientzia osoaz ari direla eta, eman zaizen gobernurako, badauzkatela nahimena eta askatasuna ere, geuk ere, jaiotzetik eman zaigun arloan, ahalmenez jarduteko, nahimena daukagun bezala. Guk, ordea, batzuetan ahalik eta gutxiena egiten dugu, gure gobernuak eta egintzak aurretik gabezia dute, baina hori ez da horrela gertatzen Adimen eta esferetan. Aitzitik, horiek beti ongi dagoena egiten dute, eta haietan ez dago ongia besterik, beste kapitulu batzuetan erakutsiko dugunez, eta dagokien guztia beteginik eta beti egitez agertzen da, existitzen direnetik.

¶ ZORTZIGARREN KAPITULUA

[*Doktore juduek esferei deritzetenaz; Aristotelesen iritzia; jakintsu paganoen astronomiaren maila goragoa*]

Filosofu eta jende gehienek artean hedaturiko iritzi zaharretako baten arabera, zeruko esferen mugimenduak zaratots handi eta ikaragarria egiten du. Horren frogarria emateko, badiote ezen, hemen gure ondoan ditugun gorputz txikiek, arintasunez mugiarazten direnean, azantza handia eta hots beldurgarria sorrazten baldin badute, are arrazoi handiagoz egingen dutela Eguzkiaren, Ilargiaren eta izarren gorputzek ere, horren handiak eta hain lasterrak izanik. Pythagorasen segizioa guztiek uste zuten soinu harmoniatsuak sortzen zituztela eta, haien handitasuna gorabehera, beren artean proportzionatuak zirela, musikaren modulazioen antzera, eta guk hain soinu handi eta itzelak ez entzutearen kausak ere aipatzen dituzte. Uste hori hedaturik dago, halaber, gure nazioan ere. Ez al dakusazu nola azaltzen duten doktoreek Eguzkiak, egunero zeruko esferan zehar ibiltzean, egiten duen zaratotsa? (*Yomā* 20b). Eta hortik gauza bera segitzen da gainerako argizagiekiko ere. Halere, Aristotelek hori ukatu eta hotsik ez dutela frogatzen du. Hori haren *Ortziaz* deritzon liburuan aurkituko duzu, eta hortxe ikas dezakezu. Ez zaitu itsutu behar, ordea, Aristotelesen iritzia eta doktoreena (bedeinka bedi haien oroitzapena!) puntu honetan batera ez etortzeak, uste horrek, hau da, [argizagiek] hots egiten dutela, azken buruan, «esfera geldi dagoela eta argizagiak biraka dabilatzala»ko sineskeran oinarritzen delako (*Pesahīm* 94 b). Baina badakizu horrelako astronomia-arazoetan, munduko jakintsu jentilen iritziari hobe deritzotela berenari baino; eta horrelaxe aitortzen dute argi: «Eta munduko nazioetako jakintsuek Israelgoak garaitu zituzten». Eta hori egia da, honelako gauza teorikoez jardun duten guztiak beren espekulazioaren emaitzaren ondoren mintzatu dira eta; horrexegatik sinetsi behar zaie, frogen bitartez erakutsi dutelako.

¶ BEDERATZIGARREN KAPITULUA

[*Esferen kopuruaz*]

Azaldu dizugu jada esferen kopurua ez zela zehaztu Aristotelesen garaian, eta gure denboran bederatzia esfera kontatu dituztenek, egia

esan, hor globo hori bat bakartzat hartu ukan dute, bere baitan zenbait esfera besarkatzen dituen, astronomia ikasi duenak argi dakusan bezala. Horregatik ez da gaitzetsi behar doktoreetako batek esandako: «Bi ortzi dira, testu honen arabera «Yhwh zure Jainkoarenak dira zeruak eta zeruetako zeruak» (Dt 10, 14) (*Hāgîgāh* 12 b)». Izan ere, hori esan zuenak izar guztietarako globo bakarra kontatu zuen, erran nahi baitut, barruan izarrak dauzkaten esferetarako, eta bigarren globotzat hori inguratzen duen esferarena, izarrik gabearena; horrexegatik esan zuen: «Bi ortzi dira». Eta neure aldetik, aurretiko ohar bat egin behar dizut, kapitulu honetan, eta hurrengoan, egin gogo dudanerako, beharrezkoa; honako hau:

Jakizu Artizarraren eta Merkurioren bi esferai dagokienez, badela, antzinako matematikarien artean, iritzi-ezberdintasuna, hots, Eguzkiaren gainetik ala azpitik aurkitzen ote diren, esfera hauen jarrera ez baita zehazki frogatua. Antzinako guztien ustez Artizarraren eta Merkurioren bi esfera horiek Eguzkiaren gainetik daude. Jakizu eta uler ezazu ongi. Ondoren Ptolomeo etorri zen, eta horiek azpian daudela hobetsi zuen, Eguzkia erdian egotea naturalagoa dela argudiatuz, gainean hiru planeta eta azpian beste hiru ukanez. Geroago, azken garaiotan, Al-Andalusen¹⁵ gizon batzuk agertu ziren matematikan oso adituak, eta horiek frogatu zuten, Ptolomeoren hastapenen arabera, Artizarra eta Merkurio Eguzkiaren gainetik daudela. (*Hābir*) *Ibn 'Aflah*, Sibiliakoak, zeinen semearekin harremanak ukan baintuen, horri buruz liburu ospetsua izkiriatu zuen, eta ondoren, *Abū Bakr ibn Al-Ṣā'ig*-ek, zeinen ikasle batengandik eskolak hartu baintuen, arazo hori aztertu eta argudio batzuk eman zituen –harengandik hartu ditugunak–, eta horien bidez sinesgaitz utzi zuen Artizarra eta Merkurio Eguzkiaren gainean daudelako ustea. Baina *Abū Bakr*-ek ematen duena sinesgaiztasunaren aldeko argudioa da, baina ez ezintasunezkoa. Guztira, nolanahi ere den, kontua da antzinako guztiek Artizarra eta Merkurio Eguzkiaren gainetik kokaturik jartzen zituztela, eta hori zela eta, bost esfera kontatzen zituzten: Ilargiarena, zalantzarik gabe guregandik hurbil dena; Eguzkiarena, halabeharrez haren gainetik; beste bost planetena¹⁶; izar finkoena, eta, azkenik, guztia inguratzen duen esfera, hartan izarrik ez delarik.

Ondorioz, *esfera figuradunen* kopurua, figurak dauzkatenak esan nahi dut, zeinetan izarrak diren –honelaxe deitzen baitzieten

antzinakoek izarrei, «figurak», haien izkribuetatik jakiten denez-, esfera horiek lau dira: izar finkoen esfera, bost planetena, Eguzkiarena eta Ilargiarena; eta horien guztien gainetik esfera huts bat, izarrik ez daukana.

Lau kopuru hau enetzat garrantzi handiko hastapena da, burura etorri zaidan eta inongo filosofoen lanetan argi azalduarik ikusi ez dudana; baina filosofoen izkribuetan eta doktoreen hitzetan zenbait ohar ikusi dut, horri buruz arreta piztu didanik. Beraz, datorren kapituluan horri buruz mintzatuko natzaizu, arazoa azaltzeko.

‘ HAMARGARREN KAPITULUA

*[Ilargipeko munduaren gobernu. Jakobena zurubiaren,
juduen tradizioko aingeruen lau legioen
eta Zakariasen ikuspenaren aipamenak]*

Gauza jakina da, eta filosofoen liburu guztietan halaxe dago barreiatu, ezen, mundu honen gobernuaz mintzo direnean, esaten dutela beheko mundu honen gobernu, jaiotze- eta usteltze-mundu honena erran nahi dut, esferetatik datozen indarretan oinarritzen dela. Hau sarritan esana dugu jada, eta aurkituko duzu doktoreek (bedeinka bedi haien oroitzapena!) horretaz honetara diotela (*Bĕrē’šīt Rabbāh* 10): «Hemen behean den belar mendreena ere ezin dagoke bere *mazzāl*-a¹⁷ ukan gabe, hura bultzatzen eta hazten agintzen diona, halaxe esana baita: «Ba al dakizkizu ortziaren legeak, edo zuk ezartzen ote dituzu horiek lurrean? (Job 38,33)». *Mazzāl* hitzaren bidez ‘argizagi edo astro’ ere adierazten da, *Bĕrē’šīt Rabbāh*-ren hasieran egiazta dezakezunez, hor honela esaten da eta: «Bada bere ibilbidea hogeita hamar egunean amaitzen duen *mazzāl*-a (argizagi edo planeta), eta berea hogeita hamar urtean burutzen duena». Beraz, pasarte horren bitartez erakutsi dute naturako banakoak berak ere halako argizagi batzuen indar berezien eraginpean daudela; izan ere, zeruko esferaren indar guztiak izaki ororen artean banatzen diren arren, halere, espezie bakoitza argizagi partikular baten eraginpean dago eta. Gorputz bakarraren indarrak bezala, unibertso osoa banako bakarra baita, jada esan dugun bezala. Hori dela eta, filosofoek Ilargiak indar handigarria daukala onartu zuten, bereziki ur elementuaren gainean darabilena, eta horren frogaz da Ilargia hazten den neurrian itsasoak eta ibaiak

ere handitu egiten direla ikustea, eta, aldiz, horiek txikitzen, hura urritzen den arabera; eta itsasoen goraldia ilgorarekin bat datorrela, eta beheraldia ilbeherarekin, –eta haren igoera eta jaitsieraz mintzo naiz, haren orbitaren koadranteetan– horri behatu dionak ezin hobeki dakienez¹⁸. Eta beste aldetik, Eguzkiaren errainuek su elementua mugiarazten dutela begien bistako zerbait da, Eguzkiak jotzen duenean mundu zabalean hedatzen den beroagatik eta, leku batetik [Eguzkia] urruntzen edo ezkutatzen denean, hor nagusitzen den hotzagatik. Hau nabarmenegia da eta ez du azalpen luzeagorik behar.

Hori jakinik, burura ideia bat etorri zitzaidan, lau esfera figuradun horien multzotik jarioz indarrak jalgitzen diren arren, hots, jaiotzen diren eta horiek kausa dituzten izaki guztiengana hedatzen direnak, halere esfera bakoitzak bere menean lau elementuetarik bana eduki lezakeela eta gisa horretan halako esfera holako elementu bereziaren indarren hastapena gerta zitekeela, horri bere higidura propioaz, jaiotzeko mugimendua emanetz. Horretara, beraz, Ilargiaren esferak ura mugiaraziko luke; Eguzkiaren esfera suaren mugiarazlea litzateke; gainerako planeten esfera airea mugiaraziko lukeena litzateke, eta haien mugimendu anizkorrak, haien ezberdintasunak, haien atzeramailaketak, haien zuzentasunak eta haien egotaldiak airearen itxuraketa ugariak ekarriko lituzkete, horren aldaketak eta herste eta hedatze lasterrak; azkenik, izar finkoen esferak lurra mugiaraz lezake, eta agian horrexegatik berori hainbesteko zailtasunaz mugitzen da inpresioa eta nahastura errezibitzeko, erran nahi baitut, izar finkoak geldiro mugitzen direlako. Izar finkoek lurrarekin duten harreman hau aipatua izan da, landare-espezieen kopurua izar multzoaren banakoen adinakoa dela esatean.

Beraz, era horretara, daitekeena da [Naturaren] ordena honako hau izatea: lau esfera, horiek mugiaraziriko lau elementu, eta berorietatik jarioz jalgiriko lau indar, oro har Naturan jardunez, jada erakutsi dugunaren arabera. Modu berean, esferen mugimendu ororen kausak lau dira, hauexek: esferaren itxura –haren esferikotasuna erran nahi dut–, haren arima, haren adimena, zeinez bururatzen baitu, jada azaldua dugun bezala, eta adimen banatua, bere nahikundearen objektua. Hau ongi ulertu behar duzu.

Eta hona hemen horren azalpena: itxura [esferiko] hori ez baleuka, ezinezkoa litzateke mugimendu zirkular eta etengabea

ukaitea; etengabeki errepikatzen den mugimenduaren iraunkortasuna ez baita posible, berori mugimendu zirkularra ez bada. Mugimendu zuzena, aldiz, gauza mugitua behin eta berriro hedadura berean eta bakarrean balebil ere, ez litzateke etengabea izanen, elkarren aurkako mugimendu biren artean beti pausaldi bat dagoelako, bere lekuan frogatu denez. Beraz, argi dago beharrezko baldintza dela, hedadura beraren gainean itzultzen den mugimenduaren iraunkortasunerako, gauza mugitua biribilean mugitzea. Baina mugi daitekeen bakarra izaki animatua da; ondorioz, [esferan] arima bat egon beharra dago eta, era berean, ezinbestekoa da mugitzera bultza dezakeen zerbait izatea ere; hori bururatze bat da eta bururatua izan denaren nahikundea, esan dugun bezala.

Baina hori guztia hemen ezin bete daiteke adimen baten bitartez izan ezik; hemen kontua ez baita aurkakotik ihes egitea, ez eta komenigarriaren bila abiatzea ere. Hortaz, halabeharrezkoa da bururatua izan den eta nahikundearen objektua den zerbait egotea, jada azaldua dugunez. Horra hor, beraz, zeruko esferaren mugimendurako lau kausa, eta hartatik jarioz guregana heltzen diren lau indar orokor mota, honako hauek, alegia: mineralak jaioarazten dituen indarra, arima begetatiboarena, arima bizikorrarena eta arima arrazionalarena, erakutsi dugun bezala. Ondorioz, baldin indar horien ekintzak kontsideratzen badituzu, bi eratakoak direla aurkituko duzu, hots, jaiotzeko den guztia jaioarazten dutenak eta jaiorikoa kontserbarazten dutenak, erran nahi baitut, espeziea betiko kontserba dadin eta [espezie bakoitzaren] banakoek zenbait denboraz iraun dezaten. Horixe da Natura deritzona, eta horrexegatik esaten da jakintsua dela, berak gobernatzen dakiela, animalia egiteko arreta daukala, gizakiak artegintzarako duen ahalmenaren antzeko arteaz baliatuz, eta hura kontserbatzen eta ugalarazten arduratzen dela, aurretik haren existentziaren kausa diren eratzeko indarrak sortuz, eta, ondoren, elikatzeke indarrak ere bai, horiek [animaliak] iraun eta ahalik eta luzaroen kontserbatzeko kausak izanik; hitz batez, Jainkozko zerbait datza hor, eta hortixek datoz ekintza bi horiek zeruko esferaren bitartekotasunari esker.

Lau kopuru hau nabarmentzekoa da eta gogoeta eragiten du. Rabbi *Tanḥuma*-ren Midrás-ean honela esaten da: «Zenbat maila zituen zurubiak? – Lau». Pasarte honetaz ari da: «Eta horra, zurubi bat ikusi zuen, mutur bat lurraren gainean ezarria» (Has 28, 12). Midr šim

guztiek aipatzen dute «Han lau aingeru-legio direla» eta hori maiz errepikatzen da¹⁹. Eskuizkribu batzuetan hau irakurri dut: «Zenbat maila zituen zurubiak? –Zazpi»; baina aipaturiko [*Tanhūma*-ren obra horren] kopia guztiak eta *Midrāšim* oro bat datoz esatean hark (= Jakobek) «igotzen eta jaisten» ikusi zituen «Jainkoaren aingeruak» lau besterik ez zirela izan, eta ez gehiago, «igotzen ziren bi eta jaisten ziren bi», laurak zurubiaren maila batean elkartzen zirela, eta lau horiek guztiok lerro berean mantentzen zirela, igotzen ziren biak eta jaisten ziren biak. Hortik atera zuten zurubiaren zabalera, ikuspen profetiko horretan, unibertsoa eta horren (= unibertsoaren) herenaren adinakoa zela; aingeru bakar baten espazioa, ikuspen profetiko horretan, unibertsoaren herena izanik, esana baitzen: «Eta haren gorputza *taršiš* bat (תְּרִישׁ ‘krisolito bat’, ‘bi seiren’) bezalakoa zen» (Dan, 10, 6), eta, beraz, hortik segitzen da laurek beteriko tartea unibertsoa eta [unibertsoaren] herenaren adinakoa zela. Zakariasen alegorietan, aipamen hau egin ondoren «Lau orga ikusi nituen bi mendiren artetik irteten; mendi biak brontzezkoak ziren» (6,1), argitzeko, honako hau gehitzen du: «Horiek zeruko lau haizeak dira, lur guztiaren Jaunaren aurrean zeuden lekutik etorriak (*ibid.* 5,5), eta sortzen den ororen kausa direnak. Bai «brontzeaz» (נְחֹשֶׁת *nehōšet*) eginiko aipamenean, eta bai «brontze leunduaz» (נְחֹשֶׁת קָלָל *nehōšet qalal*, Ez, 1,7) egindakoaz nolabaiteko homonimia ikusi behar da, eta geroago horri buruzko ohar bat ikusiko duzu. Eta «aingerua unibertsoaren herena dela» dioten horretan, haiek *Bērē’šit Rabbāh*-ko testuan hitzez hitz adierazten dutena, oso argi dago, eta jada azaldua dugu Lege tradizionalari buruzko geure lan nagusian²⁰. Izan ere, sorraraziriko gauzen multzoa hiru ataletan banatzen da: lehena: Adimen banatuak, aingeruak alegia; bigarrena, zeruko esferetako gorputzak; hirugarrena lehengaia, erran nahi baitut: gorputz etengabeki aldakorrak, zeruko esferapean direnak.

Horretara ulertu behar du enigma profetikoak konprenitu nahi dituenak, arduragabekeriaren lozorrotik itzarriz, ezjakintasunaren itsasotik salbatua izanez, gauza gorenetera igotzeko. Bere ezjakintasunaren itsasoan igerian aritu eta «gero eta beherago jaistea» (Dt 28,43) nahiago duenak ez du bere gorputza nekatu beharko; baina haren bihotza ez da kezkarik gabe geldituko, eta, noski, beherengo mailaraino amilduko da. Ikusazu ongi esan zaizun hau guztia, eta egizu horretaz gogoeta.

Ⅹ HAMAIKAGARREN KAPITULUA

[Astronomia hipotesietan oinarritua. Jainkoaz landako hirutariko izakiak. Jainkoak mundua nola duen gobernatzeko]

Jakizu, matematikari soil batek aipatu diren astronomia-kontu hauek irakurri eta ulertu baldin baditu, pentsa lezake hor frogara erabakigarri bat datzala horiek esferen forma eta kopurua direla erakusteko. Halere, ez da holakorik, eta ez da hori astronomia zientziak arakatzen duena. Gai horietako batzuek, egiazki, hala direlako frogarik onartzen dute, hala nola Eguzkiaren orbita ekuatorerantz makurtzen dela egiaztatzea, eta hor ez dago zalantzarik batere. Baina esfera exzentriko bat, edo epiziklo bat, badela ez dago frogaturik, eta astronomoa ez da horretaz arduratzen; izan ere, zientzia horren helburua halako sistema bat formulatzea da, horren bitartez argizagien mugimendua beti bat eta zirkularra izan dadin, aurreratze eta atzerapenik gabea, aldatzerik gabe, eta horren ondorioa ikusten denarekin bat etortzea. Horrekin esferen mugimenduak eta kopurua ahal den neurrian gutxitu nahi dira. Izan ere, baldin sistema bat proposa ahal bageneza, horren bitartez argizagi baten mugimendu ikusgarriak hiru esferaren hipotesiaz justifika litzakeena, eta beste sistema bat, gauza bera lau esferaren hipotesiaz justifikatuko lukeena, hoberena da ahalik eta mugimendu gutxien behar dituen sistema hautatzea. Horrexegatik, Eguzkia dela eta, exzentrikotasuna hobesten dugu, Ptolomeok esan zuen bezala, eta ez epizikloa. Bide berean, izar finko guztien mugimendua mugimendu aldaezin bat balitz bezala ikusten dugunez, batzuek besteekiko jarrera mudatu gabe, guztiak esfera bakarrean daudelako ideia berresten dugu, nahiz eta ezinezkoa ez litzatekeen haietako bakoitza esfera berezi banatan egotea, eta guztiek mugimendu uniformeaz polo berberen inguruan biratu. Orduan, adimenen kopurua izarren bezainbestekoa litzateke, esanaren arabera: «Konta al daitezke Haren legioak?» (Job, 25,3), hau da, haien ugaritasunagatik, Adimenek, zeruko gorputzek eta indar guztiek, orok elkarrekin, «Haren legioak» osatzen dituztelako, eta, hortaz, horien espezieek nahitaez kopuruz mugatuak izan behar dute. Baina horrela izanik ere, izar finkoetarako esfera bakarra kontatzeak ez lioke inolako oztoporik egiten gure sailkapenari, planeten bost esferak, beren baitan daukaten esfera-aniztasuna gorabehera,

bakartzat jo ditugun bezalaxe, gure helburua, ongi ulertu duzunez, Naturan sumatzen ditugun indar guztiak multzo bakartzat hartzea baita, Adimenen eta esferen egoera zehatza kalkulatzear arduratu gabe.

Hortaz, dugun xedea, azken buruan, honako hauek erakustea izan da: 1) Sorrarazleaz landa (gorets bedi!), osterantzeko izaki guztiak hiru motatakoak direla: lehen motakoak Adimen banatuak dira, bigarrenekoak zeruko esferetako gorputzak, forma egonkorrentzako substratuak bezalakoak direnak, eta hor forma ez da substratu batetik bestera garraiatzen, substratua bera aldagarria ez delarik; hirugarrenekoak, jaio eta iraungi egiten diren gorputzak dira, materia bakar batek besarkatzen dituenak. 2) Gobernua Jainkoarenagandik (gorets bedi!) Adimenengana daitsala, horietako bakoitzaren mailaren arabera, eta beroriek, jaso dutenetik, zeruko esferetako gorputzen gainean ondasunak eta argiak isurtzen dituztela, eta esferek, azkenik, indarrak eta ondasunak hedarazten dituztela jaio eta iraungitzen diren gorputzen gainean, berek beren hastapenetan jasoriko ondasunen handitasunaren arabera.

Jakin beharra dago sailkapen horretan edonolako ondasuna ematen duen orok, emaille izanagatik, ez duela bere existentziaren helburu bakartzat hori errezibitzen duenari ematea, horrela balitz hori absurdo hutsa litzateke eta. Izan ere, helburua are nobleagoa da helburu horretarako existitzen diren gauzak baino. Hortik segi daiteke jasoago, osamaituago eta nobleagoa are behereagoa denaren mesederako existitzen dela; baina adimena duen gizon orok ezin pentsa dezake holakorik. Halere, nik orain esanen dudanez gertatzen da: Gauza batek halako osamaitze-mailaren bat daukanean, orduan osamaitze horrek gauza bera osamaitua izan dadin bezainbateko hedadura dauka; horregatik beste gauza bati osamaitzerik eman gabe baina, edo, bestela, osamaitzeak gauza horrez gainera, beste gauzaren bat ere osamaitzeko adinako hedadura dauka. Horrela, etsenplu bat aipatzeko, erranen bazenu bezala badela gizon bat soilki bere premiak asetzeko bezainbateko aberastasuna daukana, eta ez duela deus sobera hortik beste batek probetxurik ateratzeko, eta, aldiz, beste gizon batek aski aberastasunik daukala bere soberakinekin beste anitz pertsona aberatsarazteko, halako moldez non beste bati aski eman baitiezaioke, berori ere aberastu eta, oraindik

sobera gelditurik, berorrek beste hirugarren bat ere aberatsarazteko egoeran izan dadin. Gauza bera gertatzen da unibertsoan ere; Adimen banatuak sortzeko jariapena, Jainkoagandik (gorets bedi!) datorrena, Adimen horiei isurtzen zaie, beroriek batzuek besteak sor ditzaten, adimen egilearenganaino heldu arte, horrengan [Adimen] banatuen sortzea eteten da eta. [Adimen] banatu bakoitzetik, halaber, beste sortze bat isurtzen da, esferak Ilargiarenean bukatu arte. Berorren ondoren, jaio eta iraungitzen den gorputza heltzen da, erran nahi baitut, lehengaia eta osaturik dagoena. Esfera bakoitzetik elementuei indarrak doazkie, horien isurtzea gelditu arte, jaiotzeko eta ezerezteko jardunbidean.

Adierazia dugu jada gauza hauek guztiok ez diotela ezertan ere baliorik kentzen gure profetek eta gure Legearen sostengatzaileek esandakoari, gure nazioa nazio jakintsu eta osamaitua zelako, Jainkoak (gorets bedi!), osamaitu gintuen Maisuaren bitartez, aldarrikatu zuen bezala, zioela: «Bai herri jakintsu eta buruargia dela nazio handi hau!» (Dt 4,6). Baina nazio ezjakinetako gaiztoek gure bertute onak ezereztu, gure jakinduria eta liburuak suntsitu eta gure jakintsuak hil zituztenean –halako moldez non ezjakin bilakatu ginen, geure bekatuen erruz mehatxatuak ginen bezalaxe, hitz hauekin: «Eta haien jakintsuen jakinduria galduko da, eta haien adituen zuhurtzia ezkutatuko» (Is 29,14)–, haiekin nahasi ginen, eta haien iritziak guregana heldu ziren, haien ohitura eta jokabideekin batera. Eta portaeraren asimilazioaz honako hau esan zen bezala: «Eta jentilekin nahastekatu ziren eta haien ohiturak berenganatu» (Sal 106, 35), era berean, nazio ezjakinek guregana iraganaraziriko iritziez: «Eta atzerritarrekin itunak egiten dituzte» (Is 2,6), Jonatan ben Uzielek honela itzultzen duena: «Eta [beste] nazioen legeei darraizkie». Hortaz, jendaki ezjakinen iritzien arabera heziak izan garen neurrian, gai filosofiko hauek, gure Legearekiko, herri ezjakin horiei iruditzen zitzaizen bezain arrotzak ziruditen, horrela ez diren arren.

Eta gure azalpenean Jainkoarengandiko eta Adimenengandiko *jariapena* behin eta berriro aipatu denez gero, bidezkoa duzu nik horren egiazko esangura argitzea, erran nahi baitut, *jariapen* hitzarekin adierazten den ideia. Horren ondoren munduaren berritasunaz mintzatzen hasiko naiz.

ᐆ HAMABIGARREN KAPITULUA

[*Jariapena kontzeptua*]

Gauza nabarmena da jaioa den orok halabeharrez kausa eragilea ukan behar duela, hura existitu gabe egon ondoren jaioarazi duena. Eragile hurbil hori ezin izan daiteke hau besterik: gorpuzduna edo gorputzik gabea; halere, edonolako gorputz batek ez dihardu gorputz bezala, baina halakoxe gorputza delako, erran nahi dut, bere formari esker. Horretaz geroago mintzatuko naiz. Eragile hurbil hori, sorturiko gauza horren ekoizlea, bera ere [beste zerbaitengandik] sortua izan daiteke, baina bide hori ezin luza daiteke infinituraino; aitzitik, behin gauza bat jaio eta gero, halabeharrez jatorrizko ekoizle sortugabearengana heldu beharra daukagu, hots, gauza hori sorrarazi zuenarenagana. Baina orduan galdera bat agertzen da, ea horrek zergatik sortu zuen une horretan, eta ez lehenago, bera jada existitzen zenez gero. Beraz, nahitaez egite berri hori lehenago gertatzea ezinezkoa izan behar zuen, egilea gorpuzduna izanez, egilearen eta egintzaren objektuaren artean harremanen bat falta zelako, edo, egilea gorputzik gabea izanik, *materia*k *gaitasunik* ez zuelako. Atariko azalpen hau espekulazio fisikoaren ondorioa da, oraingoz munduaren betierekotasunaz edo berritasunaz arduratu gabe, ez baita hori kapitulu honen xedea.

Fisikan jada erakutsia da beste gorputz baten gainean nolabaiteko egintza eragiten duen gorputz orok ezin dezakeela hori egin hartara hurbilduz ez bada, edo hura hurbilarazten duen beste gauzaren bat hurbilaraziz, egintza hori bitartekoen bidez burutzen bada. Honela, adibidez, orain berotu den gorputz hau, sutara hurbildu delako berotu da, edo, bestela, suak airea berotu duelako eta gorputz hori inguratzen duen aireak hura berotu duelako; eta, halako moldez, aire beroaren masa izan da gorputz hori berotzeko egile hurbila. Horretara erakartzen du imanak burdina harengandik burdinaren inguruko airean zehar hedatzen den indarraren bitartez. Horrexegatik ez du erakarmenik edozein distantziatara, suak ere edozein distantziatara berotzen ez duen bezala, baina soilki beraren eta bere indarraren bidez berotzen den gauzaren arteko airea aldaraz dezakeen distantziara; baina su horretatik datorren airearen berotasuna argizaritik etenik edo urrundurik aurkitzen denean, argizaria ezin da haren eraginez urtu,

eta gauza bera gertatzen da erakarmenaz ere. Halere, bero ez zegoen gauza bat bero dadin, nahitaez beharrezkoa izan da bera berotzeko kausa bat gertatzea: sua agertzea, edo halako distantzia batean, geroago berori aldaturik, jada suren bat aurretik egotea. Horixe da lehenago falta zen harremana, geroago baina, gertatua. Era berean, sortzapen berriei buruz mundu honetan gertatzen den guztiaren kausen bila ari bagara, ohartuko gara horren kausa elementuen nahastea dela, elkarren gainean eragiten duten gorputzak, batzuek besteen ekintzak hartzen dituztela, erran nahi baitut, jaiotzen denaren kausa gorputz elementalen hurbiltze eta urruntzea dela. Eta nahastearen ondorio soila izan gabe jaio dela dakusagunari buruz –eta hori forma guztiak dira–, horretarako ere eragile bat behar da, hau da, forma ematen dien norbait, eta horrek gorputzik gabe izan behar du, formaren eragilea materiari gabeko forma bat delako, bere lekuan azaldu den bezala, eta horren froga ere emana dugu. Hori azaltzeko baliagarria gerta dakizuke ondoko hau: nahastura oro handitzeko eta txikitzeko gai da, eta pixkanaka gertatzen da, baina hori ez da formekin jazotzen, horiek ez baitira mailaka sortzen, eta horregatik ez dute mugimendurik, eta halako une batean agertzen eta ezerezten dira. Beraz, formak ez dira nahastearen ondorioa, baina nahasteak materia forma hartzeko prestatzen du. Formaren eragilea ezin zatituzkoa da, haren egintza beraren espeziekoa delako, eta, beraz, begien bistakoa da formaren eragilea, erran nahi baitut, hura ematen duena, nahitaez forma bat izan behar dela, eta berori [forma] banatu bat. Ezin onartuzkoa da eragile hori, gorputzik gabea izanik, bere eragina harremanen baten bidez eragitea. Izan ere, gorputz bat ez delarik, ezin da hurbildu ez urrundu, eta beste ezein gorputz ere ezingo litzateke hartara hurbildu edota hartatik urrundu, gorpuzdunaren eta gorputzik gabearen artean ez baita, izan, inolako distantzia-harremanik. Hortik nahitaez segitzen da horrelako ekintzarik ezaren kausa materia horrek *eragile banatuaren* ekintza jasotzeko gaitasunik ezean datzala.

Beraz, argi gelditzen da gorputz *elementalek* beren forma *berezien* bertutez elkarren gainean egiten dituzten ekintzen ondorioa haxe dela, materia ezberdinak gorputzik gabea denaren ekintza jasotzeko prestatzea, hots, berenez formak diren ekintzak. Hortaz, *Adimen banatuaren* ondorioak mundu honetan argiak eta nabariak direnez –erran nahi baitut, nahaste hutsez jaiotzen ez diren berrikuntza

natural horiek guztiak—, nahitaez onartu beharko da eragile hori ez dela ari ukituz, ez eta halako distantzia batetik ere, ez baita gorpuzduna, hau da, sortzen den tokian eta barreiatzen den lekuan muga berezirik gabea, edonondik jalgitzen eta inguru guztiak etengabeki ureztatzen dituen, bai hurbil eta bai urrun dagoena. Halakoxea baita adimen hau ere: ez zaio indarrik batere heltzen halako alde edo halako distantziatik etorritik, eta bere indarra ere ez da alde berezi baterantz makurtzen, ez halako distantzia jakinera, ez eta halako denbora zehatz batez ere, beste batez baino gehiago. Aitzitik, haren ekintza etengabea da, eta gauza bat hartarako gaiturik dagoen guztietan, beti existitzen den ekintza hau jasotzen du bere gainean, *jariapen* hitzaz izendatua. Era berean, Sortzailearen gorpuzgabetasuna (gorets bedi!) frogatu denez eta unibertsoa haren obra dela eta Bera haren kausa eragilea dela erakutsi den bezala —jada azaldu dugunez eta oraindik azalduko dugunez—, esan izan da mundua Jainkoaren jariapenetik datorrela eta Jainkoak harengana jarioz isuri duela hartan gertatzen den guztia. Esana da, halaber, Jainkoak bere zientzia profeten gainean jariatzen duela. Horrek guztiak esan nahi du egintza horiek gorputzik gabeko izaki baten obra direla, eta halako izakiaren egintzari *jariapena* esaten zaiola. Hebreerak ere hitz hau erabili du, erran nahi baitut *jariapen* (= שֵׁפָא *šefa'*) Jainkoaz (gorets bedi!) mintzatuz, jariatzen den ur-iturriarekin konparatuz, jada esan dugunez. Izan ere, ezin liteke metafora hoberik idoro *jariapen* esamolde hau baino, *izaki banatuaren* egintza adierazteko. Guk ezin aurki baikenezake hitz bat benetan egiazko ideari legokiokkeen, izaki banatuaren egintza gauza oso zaila delako, izaki banatuaren existentzia bera bururatzea bezain zaila. Eta irudimenak izaki bat gorputz gisa edo gorputz baten barneko indar bat bezala ezin burura lezakeenez, era berean ezin burura lezake egintza bat egin daitekeenik egile baten ukituz, edo halako distantzia mugatutik eta alde berezi batetik ez bada. Hortaz, gizaki batzuen eta jende arruntaren ustez, Jainkoa gorputzik gabea dela onarturik dagoenez, edota ez dela hurbiltzen berak dagienara, pentsatu ukan dute Hark aginduak aingeruei ematen dizkiela eta beroriek egintzak betetzen dituztela ukituz eta gorputzak hurbilduz, geuk dagigunaz aritzen garen bezala, eta, beraz, uste ukan dute aingeruak ere gorputzak direla. Horien artean bada sinesten duenik Jainkoak (gorets bedi!) gauza bat mintzatuz agintzen duela geuk hitz egiten dugunez, erran nahi baitut, letra eta hotsen bitartez, eta orduan gauza hori egin

egiten dela. Hori guztiori irudimenari kasu egitea besterik ez da, eta, egia esan, *sen gaiztoa*²², bizio arrazional edo moral oro irudimenaren emaitza baita, edo haren egintzaren ondorioa. Baina ez da hori kapitulu honen helburua. Aitzitik, gure asmoa *jariapena* esatean zer ulertarazi nahi den jakinaraztea da, bai Jainkoaz mintzatzean, eta bai Adimenez edo aingeruez, guztiak gorputzik gabeak izanik. Esaten da, halaber, zeruko esferen indarrez, horiek beheko mundura jariatzen direla, honela mintzatuz: «zeruko esferen jariapena», berorrek eraginiko ondorioak gorputz batetik helduak izan arren, horregatik argizagiek halako distantzia batera jardunez, erran nahi baitut, haiek [munduaren] zentrotik hurbil edo urrunago dauden neurrian eta beren arteko harremanaren arabera. Hauxe da astrologiaren abiapuntua.

Eta profetek ere, metaforaz, Jainkoaren (gorets bedi!) egintza jariapenaren ideiaz aurkeztu dutela eta, hona hemen pasarte hau: «Bazterrean utzi naute ni, ur biziaren iturria» (Jr 2,13), erran nahi baita ‘biziaren jariapena’, hau da, existentzia, hori, zalantzarik gabe, bizia da eta. Era berean, esana da: «Zuregan da biziaren iturria» (Sal 36,10), hots, ‘existentziaren jariapena’, eta ideia bera adierazten da testu horren bukaeran ere, hitz hauekin: «Zure argian ikusten dugu argia», hau da, ‘Zuri darizun adimen egilearen jariapenari esker, guk pentsatzen dugu, eta beraz, zuzenduak eta gidatuak gara, eta adimen egile horretaz ohartzen gara’. Hau ongi ulertu behar duzu.

𐌆𐌋 HAMAHIRUGARREN KAPITULUA

*[Munduaren jatorriari buruzko hiru teoria: a) teologo ortodoxoena;
b) Platonena eta beste filosofo batzuena;
c) Aristotelesena eta peripatetikoena]*

Mundua betierekoa ala sortua ote deneko galderaz, Jainkoaren existentzia onartzen dutenek hiru iritzi agertu dituzte.

a) Lehen iritzia: Moises gure Maisuaren (bakea bego harekin!) Legea onartzen duten guztiek atxikia: Unibertsoa bere osotasunean, erran nahi dut, izaki oro, Jainkoa salbu (gorets bedi!), ezerez huts eta absoluturik Jainkoak sorrarazi zuela; eta aurretik ez zela Jainkoa (gorets bedi!) besterik existitzen, bakar-bakarrik, eta Hartatik at ez zela deus, ez aingeru, ez esfera, ez eta zeruko esferaren barrukorik

ere; eta ondoren, berak izaki guztiak, diren bezalaxe, sorrarazi ditu, bere nahimen askeaz eta ez beste gauza batez, eta denbora bera ere sorraraziriko gauzen artekoa dela, horrek mugimenduaren aldameneko laguna delako, berori gauza mugituaren akzidente bat izanik, eta gauza hori ere, zeinen mugimenduari denborak laguntzen dion, sorrarazia eta jaioa da, existitu gabe egon eta gero. Eta esaten baldin bada: «Jainkoa bazen mundua sorrarazi baino lehenago» –eta hor «bazen» hitzak denbora adierazten du– eta, era berean, hortik pentsaerak ateratzen badu Haren existentzia munduaren sorrera baino lehenago infinituraino luza daitekeela, horretan guztian denboraren ustea edo irudipena besterik ez dago, eta ez denboraren errealitatea, denbora, zalantzarik gabe, akzidente bat baita, eta gure iritiz, belztasuna edo zuritasuna bezalako akzidente sorrarazien arteko bat da. Eta *nolakotasunaren* espeziekoa ez bada ere, izan, akzidente bat da, mugimenduari atxikia, denbora eta horren egiazko izaera azaltzeko Aristotelesek dioena ulertu duenak argi ikus dezakeenez.

Hemen ideia bat erakutsiko dugu, ukitzen ari garen gairako mesedegarria izanen dena, berorrekin zerikusi zuzenik eduki ez arren. Zientzialari gehienentzat denbora zerbait ilun bihurtarazi duena, haietako batzuk –esaterako, Galeno eta beste zenbait– denborak egiazko existentzia ba ote duen ala ez erabakitzeko orduan aiko-
maiko utziz, honako hau da, bera akzidente bat beste akzidente baten barruan izatea. Izan ere, gorputzetan berehalako eraz existitzen diren akzidenteak, koloreak eta zaporeak bezala, bat-batean ulertzen dira, eta horien ideia hartzen da. Baina beste akzidente batzuetan oinarrituak, adibidez, kolorearen distira, lerroaren kurbadura edo biribiltasuna, gauza oso ilunak izaten dira, eta batez ere substratutzat balio duen akzidentea egoera iraunkorrean aurkitzen ez denean, batetik bestera iraganez, horrela gauza hori lainotsuago geldituz. Eta, izan ere, gauza biok batera gertatzen dira denboran; batetik mugimenduari atxikiriko akzidentea da, berori gauza mugituaren barruko akzidentea izanik. Era berean, mugimendua ez dago belztasunaren edota zuritasunaren egoeran, beroriek egoera iraunkorrean baitaude, baina, aitzitik, mugimenduaren egiazko esentzia, hain zuzen, honetan datza: begi hertsiki-ireki batez ere egoera berean ez irautea. Horrexek bihurtzen du, bada, ilun denbora. Hortaz, gure xedea denbora, gure aburuz, gauza sorrarazia eta jaioa dela erakustea da, gainerako akzidenteak

bezalakoa, eta akzidente horiek barruan dauzkaten substantzien antzekoa. Beraz, Jainkoak mundua sortzeak ezin ekar dezake aldean denborazko hasiera ukaiterik, denbora bera gauza sortuen arteko bat izanez. Beharrezkoa duzu honetaz gogoeta sakona egitea, hori ez dakienari noraezean datozkion objekzioen istiluan sarturik zerori ere aurki ez zaitezen. Izan ere, mundua sortu baino lehenago denbora bazela baldin badiozu, horren betierekotasuna onartzeraz beharturik zaude; izan ere, denbora akzidente bat izanda, halaber beharrez substratu bat behar duena, hortik segituko litzateke, orain existitzen den mundu hau existitu baino lehenago ere, zerbait existitu zela, eta horixe da, hain zuzen, saihestu behar duguna.

Horixe da hiru iritzietako bat, inolako zalantzarik gabe, Moises gure Maisuaren (bakea bego harekin!) Legearen oinarritzko hastapena eratzen duena, haren bigarren hastapena hain zuzen, Jainkoaren batasunaren ondoan, eta ez duzu pentsatu behar hori bestela izan daitekeenik. Gure aita Abraham (bakea bego harekin!) izan zen iritzi hori, espekulazioaren bidez erdietsia, iragarri zuen lehenbizikoa; horregatik honela aldarrikatu zuen: «Yhwh-ren izena, unibertsoaren Jainkoa» (Has 21,33). Eta sineskera hori argi adierazi zuen, zioela: «Zeru-lurren egilea» (Has 14,22).

b) Bigarren iritzia: Mintzatzen entzun ditugun filosofo guztiena da, edo hitzak bederen irakurri dizkiegunena. Ezin onartuzkoa da – hala diote –, Jainkoak ezerezetik zerbait sortzea, eta ezinezkoa da, halaber, haien aburuz, gauza bat erabat ezereztea; erran nahi baita, ezinezkoa da edonolako izaki bat, materia eta forma dauzkana, jaiotzea materia bera aurretik inoiz existitu gabe, eta ezin daiteke desager halako punturaino non materia bera ezerez absolutura iragaten den. Jainkoari horrelakorik egiteko ahalmena egotea, haien aburuz, une berean aurkako gauza bi elkartzeko ahalmena egotea bezalakoa litzateke, edo Haren irudiko bat sorrarazteko ahalmenaren gisakoa, edo Bera gorpuztea, edo diagonal aldearen neurri berekoa daukan koadratu bat sortzea, edo antzeko gauza ezinezkoak. Haien hitzetatik hau esan nahi dutela ateratzen da, hots, ezinezko gauzak ezin sor ditzakeelako, horregatik [Jainkoari] ahalmenik eza ezin egotz dakiokeen bezala –ezinezkoak izaera egonkorra baitauka, egilearen obra ez dena, eta horrexegatik, aldaezina²³– era berean, ezin egotz dakioke [Jainkoari] ahalmenik eza ezerezetik zerbait ezin sorraraz dezakeelako, hori ezinezko gauza

guztien kategorian sartzen delako. Beraz, uste dute badela materia bat, Jainkoa bezala, betierekoa dena, eta hura ezin existi daitekeela Berau gabe, ez eta Berau hura gabe ere. Halere, ez dute horregatik pentsatzen materialak Jainkoaren (gorets bedi!) maila berean denik, baina aitzitik, Jainkoa, haien ustez, hura existitzeko kausa da, eta berori Harentzat buztina eltzegilearentzat bezalakoa da, edota burdina arotzarentzat bezala, eta hartatik nahi duena sortzen du: zeru-lurrak zein beste edonolako gauza bat. Iritzi horren aldekoek pentsatzen dute zerua ere jaioa dela eta iraungitzekoa dela, baina ez zela ezerezetik jalgia, eta desagertzean ez duela ezerezero itzuli behar. Aitzitik, animalien banakoak, jaio eta hiltzen direnean, jada existitzen den materialatik irteten eta existitzen den materia batera itzultzen diren bezala, era berean, zerua jaioa da eta iraungi beharra dauka, eta, haren jaiotze eta iraungitzeari dagokienez, haren pean diren gainerako izakien antzekoa da. Sekta honi datxekzionak talde batzuetan banaturik daude, baina alferrekoa da tratatu honetan horien banaketak eta iritziak aipatzea; halere, sekta honen hastapen orokorra esan dizudana da. Platon bera ere iritzi berekoa da. Aurkituko duzunez, Aristotelesek badiosku *Akroasis* (edo *Fisika*) deritzon obran hark –hau da, Platonek– uste zuela zerua sortua eta iraungikorra zela, eta iritzi berbera aurkituko diozu Timeori egindako liburuan ere. Halere, ez du sinesten guk sinesten duguna, haren iritziak behar bezala aztertu ez eta arduraz ikasten ez dutenek pentsatzen duten bezala, gure iritzia eta harena antzekoak direlakoan. Ez da, baina, horrela: guk zerua sortua dela sinesten dugu, baina ez zerbaitetik, ezerez absolututik baizik; berak, aldiz, aurretik [birtualki] existitzen zela sinesten du, eta zerbaitetik eratua izan zela²⁴. Horrelakoa da bigarren iritzia.

c) *Hirugarren iritzia*: Aristotelesena da, haren jarraitzaileena eta haren obren iruzkingileena. Haren ustez, aipaturiko sekta horren kideekin batera, materialazko ezer ezin sor daiteke [aurretiko] materialrik gabe, baina, aldi berean, gainera, badiote zerua ez dela inola ere sortze eta usteltzepekoa. Hona hemen haren iritziaren laburpena: Haren ustez, unibertso oso hau, den bezalakoa, beti izan da eta izanen da horrelakoa; ez jaio eta usteltzen den izaki egonkorra, hau da, zerua, etengabeki horrelakoxea izanen da; denbora eta mugimendua betierekoak eta iraunkorrak dira, jaiotze eta usteltzerik gabeak; jaio eta iraungitzen denak, hots, Ilargiaren esferapean dagoenak, beti horrela iraunen du.

Hitz gutxitan, lehengai hau berez ez dela sortua, eta ez dela iraungiko, baina bere baitan formak jarraika gertatzen direla, eta halatan, behin forma batetik erantzirik, beste forma batez janzten dela. Azkenik, [unibertsoaren] goiko eta beheko ordena hau ez dela aldatuko, ez dela etenen, eta hor ez dela ezer berririk gertatuko bere izaeran ez denik, eta ezin zaiola absolutuki ezer etorri bere izateko moduari dagokionetik landa. Berak dioenez –ez, noski, hitz hauexekin, baina hau da beraren iritzitik jalgitzen dena–, Jainkoa nahimenez aldatzea edo Hari borondate berria etortzea ezinezkoaren kategoriakoa da, eta unibertso hau guztiau, den bezalaxe, Jainkoak bere nahimenaz existiarazi du, baina, halere, horregatik ezerezetik deus egin gabe. Halaber, pentsatzen du Jainkoa halako batean gehiago ez existitzea edo Haren esentzia aldatzea ezinezkoaren kategoriakoa dela, Haren nahimena aldatzea edo borondate berriren bat etortzea ere ezinezkoa den bezala. Horren ondorioz, hortik segitzen da unibertso hau guztiau, orain den bezalakoa, horrelakoa izan dela betikotasun osoan eta gero ere horrelakoxea izanen dela sekulako.

Hona hemen, laburki esanik, iritzi horiek eta horien benetako esangura, eta horiexek dira unibertso honentzat Jainko bat badela gauza frogatutzat onartzen dutenen aburuak. Jainkoaren (goretsia eta ohoratua izan bedi!) existentzia onartzen ez dutenei dagokienez, hots, gauzak sortu eta iraungi, zoriaren arabera, elkartze eta banatzeaz egiten direla pentsatzen dutenez, eta ez dela unibertsoa gobernatzen eta ordenatzen duen izakirik –hala nola Epikuro, haren sekta eta haren kideak, [Afrodisiako] Alexandrok aipatzen dituenak– ez zaigu inondik ere interesatzen sekta horiez mintzatzea, Jainkoaren existentzia jada frogatua baita, frogek gezurtatu duten oinarri baten gainean beren sistema eraikia duten jendeen iritziak aipatzea alferrekoa litzateke eta. Era berean, alfer-lana genuke bigarren iritziaren aldekoek diotenaren egia erakusten ahalegintzea, hau da, zerua sortua eta iraungikorra dela, horiek [materiaren] betierekotasuna onartzen dutelako, eta, gure ustez, ez dago ezberdintasunik zerua halabeharrez zerbaitetik jaioa dela eta, iraungitzea, haraxe itzuliko dela pentsatzen dutenen, eta Aristotelesen iritziaren artean, uste duelarik zerua ez dela jaioa eta iraungi ere ez dela eginen. Izan ere, Moisesen eta gure aita Abrahamen Legeari darraizkion guztiek, edo haien oinatzen atzetik dabiltzanek, ez dute beste inora jotzen, sineste honetara ez bada: ez dela absolutuki ezer

betierekorik Jainkoaren ondoan, eta ezerezetik izaki bat sortzea ez dela Jainkoarentzat ezinezkoaren kategoriakoa; aitzitik, pentsalari batzuen aburuz, hori beharrezkoa ere bada.

Iritzi ezberdinok erakutsi ondoan, Aristotelesekin bere ustearen alde aipatzen dituen frogak, laburturik, azaltzen hasiko naiz, eta horretarako ukan zituen arrazoiak ere bai.

7^o HAMALAU GARREN KAPITULUA

[Munduaren betierekotasunaz peripatetikoek emandako zazpi frogak]

Ez dut kapitulu bakoitzean errepikatu behar, zuretzat Tratatu hau osatu badut, daukazuna [hezkuntza] dakidalako besterik ez dela; beraz, ez da beharrezkoa non-nahi filosofoen esanak hitzez hitz aipatzea, baina aski da, luzatu gabe, gaiak aipatzea, zure arreta haiek [frogatzeko] zerabiltzaten metodoetan geldiaraziz, *Mutakallimîn*-en iritzietarako egin dudan bezala. Alde batera utziko ditut, Aristoteles salbuetsirik, honi buruz ikertzen jardun dutenak, berorren iritziak baitira aztertzea merezi duten bakarrak, eta egiten diogun eragozpena, edo edonolako punturen batean haren aurka jartzen dugun zalantza ongi oinarriturik baldin badago, areago izanen da eta pisu handiagoa ukanen du Legearen oinarritzko hastapenen kontra doazen gainerako guztien kasuan. Beraz, honako hau diot²⁵:

I.- Aristotelesekin dio mugimendua ez dela jaioa eta ez dela iraungiko –hau da, mugimendua era nagusian kontsideraturik–, zeren, berak dioenez, mugimendua berriki etorria balitz, orduan, datorren gauza guztiak aurrean mugimendua ukanik, [ahalmenetik] egiterako iragatea alegia, eta, ez izan ondoren, izatera heltzea, hortik segituko bailitzateke jada mugimendu bat existitu zela, horren bertuteaz ondoko mugimendua ere existituz. Hortaz, lehenbiziko mugimenduak nahitaez betierekoa izan behar du; bestela segida hori infinituraino helduko litzateke. Hastapen horrekin bat, denbora ez dela jaiotzen ez iraungitzen diosku, mugimenduari laguntzen eta hari atxikia delako, eta horrela, mugimendua ezin gerta daiteke denboran besterik, eta denbora ezin pentsatzekoa da mugimenduarekin batera ez bada, jada frogatu den bezala. Hauxe da hark erabili zuen lehen metodoa, horren ondorioz munduaren betierekotasuna erakusteko.

II.- Haren bigarren metodoa hauxe da: Lehengaia –dio berak–, lau elementuei amankomuna, ez zen jaio, eta ez da iraungiko; izan ere, baldin lehengaia jaioa balitz, beste materia bat eduki beharko zukeen, hartatik jaioa izateko, eta hortik segituko litzateke materia hori formaz hornitua litzatekeela, horixe baita jaiotzaren egiazko baldintza. Baina formarik gabeko materia dela uste dugunez gero, hortik halabeharrez dator ez dela zerbaitetik jaioa izan, eta beraz, betierekoa dela, eta ez dela inoiz iraungiko. Eta horrek, halaber, munduaren betierekotasunera garamatza.

III.- Haren hirugarren metodoa: Zeruko esferaren materialian –dio–, bere osotasunean harturik, ez da inolako aurkakotasunik, mugimendu zirkularrak, erakutsi den bezala, ez baitu kontrakorik; aurkakotasuna, jada azaldu denez, soilik mugimendu zuzenean gertatzen delako. Halere –diosku berak–, iraungitzen den orok bere galtzearen kausatzat bere aurkakoa du, berarengan dena, baina zeruko esferan aurkakotasunik ez denez, berori ez da iraungitzen, eta iraungitzen ez dena, halaber, ez da sortua izan. Eta ondoko baiespenak egiten ditu era absolutuan: sorturiko guztia iraungikorra da; iraungikorra den guztia sortua izan da; sortua ez den guztia ez da iraungitzen; iraungiezin den guztia ez da sortua. Horra hor bada metodo bat, eta horren bidez daukan xedera heltzen da, hots, munduaren betierekotasuna erakustera.

IV.- Laugarren metodoa. Etortzen [edo jaiotzen] den guztian –dio berak–, etortzeko posibilitatea denboraz datorrena baino lehenagokoa da, eta, era berean, aldatzen den guztian, aldatzeko posibilitatea, denboraz, alaketaren aurrekoa da. Baiespen horretatik mugimendu zirkularra betierekoa delako ondorioa ateratzen du, ez duela amaiera ez hasierarik, eta baiespen honetan oinarriturik haren jarraitzaile berriek munduaren [= unibertsoaren] betierekotasuna azaldu dute. Mundua izan baino lehenago –diote–, haren jaiotzak, daitekeena, beharrezkoa, edo ezinezkoa izan behar zuen. Baldin haren jaiotza beharrezkoa izan bada, betidanik existitu da; haren jaiotza ezinezkoa izan bada, ezin izan da inoiz existitu; eta, azkenik, daitekeena izan bada, orduan zein izan liteke posibilitate horren substratua? Izan ere, beharrezkoa zen posibilitatearen substratua izan behar zuen zerbait existitzea, horren bidez gauza horri «daitekeena» esan ahal izateko. Metodo oso sendoa da hori munduaren betierekotasuna ezartzeko. Gaurko *mutakalliminen* arteko azkarrenetako batzuek zailtasuna askatu uste dute, diotela:

posibilitatea egilearengan datza, eta ez egintzaren objektuan. Baina horrek ez du ezer esan nahi, hor bi posibilitate gertatzen direlako. Izan ere, jaiotzen den guztian, jaiotzeko posibilitatea jaiotza baino lehenagokoa da, eta, era berean, zerbait jaioarazi duen egilearengan bazen halako gauza bat jaioarazteko posibilitatea, berak hura jaioarazi baino lehen. Beraz, hor zalantzarik gabe bi posibilitate dira: posibilitate bat material, halako gauza bilakatzekoa; eta posibilitate bat egilearengan, gauza hori egitekoa.

Horiek dira Aristotelesek erabili dituen metodo nagusiak munduaren betierekotasuna erakusteko, abiaburutzat mundua bera harturik. Baina badira beste zenbait metodo ere, haren segiziokoek aipatuak, beraren filosofiatik aterak, eta horietan munduaren betierekotasuna ezartzeko, Jainkoa (gorets bedi Haren izena!) daukate oinarritzat.

VI.- Horietariko bat ondoko hau da: Berek diotenez, baldin Jainkoak (gorets bedi Haren izena!) mundua ezerezetik sortu balu, Jainkoak, mundua sortu aurretik, egile bat *ahalmenezko* eragile izan beharko zuen, hura sortzean, aldiz, *egitezko* egile bihurtuz. Beraz, Jainkoa ahalmenetik egitera iraganen zatekeen eta, horren ondorioz, berarengan posibilitate bat ukan beharko zukeen, eta eragile bat beharko, Bera ahalmenetik egitera iraganaraz zezan. Horrek, noski, zailtasun handia dauka, eta adimen oneko gizon orok horretaz gogoeta egin beharko du, hori askatu eta misterioaren barruan sartzeko.

VI.- Beste metodo bat: Baldin egile batek –diote–, batzuetan denbora batean badihardu, eta beste batzuetan ez, hori ezin izan daiteke hari gerta dakizkiokeen, edo berarengan dautzan, oztopo edo premien arabera besterik. Horrela, oztopoek eragozten diote egin nahi zuena egiten eta premiek, aldiz, lehenago nahi ez zuena gura izatera bultzatzen. Halere, Sortzaileak nahimena aldaraz diezaiokeen beharrianik ez duenez, ez eta gerta edo eten daitekeen oztoporik ere, ez dago arrazoirik halako denbora batean jardun dezan eta beste denbora batean ez; aitzitik, Haren egintzak betiere egitez existitu behar du, Bera ere betierekoa den bezala.

VII.- Beste metodo bat: Jainkoren obrak (gorets bedi!) –diote–, erabat osamaituak dira, ez da haietan inolako akatsik, ez eta deus alferrikerik edo soberazkorik ere. Hori da Aristotelesek

etengabeki errepikatzen duena, dioela: Natura jakintsua da eta ez du ezer alferrik egiten, baina gauza bakoitza ahalik eta hobekienik egiten du. Hortik segitzen da, berek diotenez, unibertso hau daitekeen hoberena eta osamaituena izatea, eta ez dagoela deus bera gaindi dezakeenik. Beraz, beti existitu behar izan du, Jainkoaren jakinduria betierekoa baita, Haren esentzia bezalakoa, edo, hobeki esateko, Haren esentzia Haren jakinduria delako, mundu honen existentzia eskatu duena.

Munduaren betierekotasuna onartzen dutenengandik aurki ditzakezun argudio guztiak, metodo hauetatik eratorriak dira, eta horietako batean bil litezke. Era berean, haxe diote aurkako iritzien absurdotasuna erakutsi nahirik: Nola egon zitekeen Jainkoa (goretsia eta ohoratua izan bedi!) alfer, ezertxo ere egiteke eta aurreko betierekotasun osoan deus sortu gaberik, eta Haren betiereko existentziaren iraupen amaigabe osoan ezer egin gabe egon ondoren, atzodanik unibertsoa sortzen hastea? Eta, esan bazeneza, adibidez, mundu hau baino lehenago Jainkoak beste asko sortu zituela, kopuruz azken esferak barruan eduki litzakeen ziape-garauak bezainbat, eta mundu horietako bakoitza existitu dela ziape-garau horiek bezainbat urtetan, hori guztiori, Jainkoaren (gorets bedi!) existentzia infinituarekiko, Jainkoak mundua atzo sortu zuela esan bazenu bezala izanen litzateke. Izan ere, unibertsoa ezerez absolutuaren ondoan hasi zela diogun unetik, deus gutxi balio du hori orain dela ehundaka mila urte zein duela oso denbora gutxi gertatu zela onartzeak, munduaren betierekotasuna onartzen dutenek batari besteari bezain absurdo deritzote eta.

Are beste argudio bat ere erabiltzen dute, eskuarki garai guztietan jende orok onartu dutenaz baliatuz, eta hortik ateratzen da gauza hori *naturala* dela, eta ez hipotetiko hutsa, guztiak horri buruz bat datoz eta. Gizaki guztiek –dio Aristotelese–, zeruaren betierekotasuna eta egonkortasuna onesten dute zabal-zabalik, eta ez zela sortua eta iraungiezin dela sentitzen dutenez, hor egin dute Jainkoaren egoitza (gorets bedi!) eta izpirituzko izakiena, hau da, aingeruena, eta Jainkoari egotzi diote Haren betierekotasuna adierazteko²⁶. Eta kapitulu berean era honetako beste gauza batzuk eransten ditu, horrela, izan daitekeenaren *iritzi sinesgarri* batzuen bidez²⁷, espekulazioak egiazkotzat onarrarazi zion aburua indartzeko.

Ἡ HAMABOSGARREN KAPITULUA²⁸

[Aristoteles eta munduaren betierekotasuna]

Ene xedea, kapitulu honetan, Aristotelesek bere iritziaren arabera munduaren betierekotasunaz ez duela frogarik ekarri erakustea da. Izan ere, horren gainean ez du okerrik egiten, erran nahi baitut: berak badaki ez duela horretaz frogarik, eta aipatzen dituen argudio eta erakuspen horiek itxura oneko burutazioak dira, arima gehien erakartzen dutenak. Horiek, lehen aipaturiko Alexandrok dioenez, egiaz zalantzarik gutxien sortzen dituztenak dira; baina ez da horregatik pentsatu behar Aristotelesek arrazoiketa horiek benetako frogatzat hartzen zituenik, gizakiei egiazko frogaketaren metodoak, erregelak eta baldintzak irakatsi dizkiena, hain zuzen, bera izanik. Horretaz mintzarazi nauena, ordea, hau da, Aristotelesen oraingo jarraitzaile berri batzuk hark munduaren betierekotasuna frogatu zuela erakusten saiatzen direla ikustea. Filosofo izan gurako gehienak, beraz, arazo honetan Aristotelesen larderiapean daude, hark esandako guztia frogatzen erabakigarria delakoan, eta hor ez dela deus ere zalantzarik; eta haren aurka zerbait esatea edo hari gauzaren bat ezkutatu zaiola edo zerbaitean huts egin zezakeela uste izatea absurdo iruditzen zaie. Horrexegatik pentsatu dut haiekin aritu behar dudala haixen iritziari jarraikiz, eta horretara erakutsi Aristoteles bera ez dela arazo horri frogarik ematen saiatzen. Horrela, adibidez, honako hau dio *Akroasis*-ean: «Gure aurreko fisikari guztiek uste zuten mugimendua ez dela jaioa, eta iraungiezina zela, Platon izan ezik, berorrek mugimendua jaioa eta iraungikorra zela pentsatzen baitzuen; eta, haren iritziz, zerua ere jaioa eta iraungikorra da». Horiek dira bada haren hitzak²⁹⁰. Hortaz, argi dago, arazo hau argudio zorrotzez frogatua izan balitz, Aristotelesek ez zukeela hura antzinako fisikarien iritzian oinarritu beharko, eta, era berean, ez zukeen beharrianik ukanen leku berean esan zituen guztiak esateko, beraren aurka daudenen absurdotasuna erakusteko eta haien aburua gaitzesgarri bihurtzeko. Izan ere, gauza bat frogaturik gelditu den unetik, haren egiazkotasuna ezin daiteke handiagoa egin, eta haren benetakotasuna indartu ere ez, jakintsu guztien berrespena gora behera, eta, bestetik, haren egiazkotasuna ez litzateke txikituko, ez eta haren segurtasuna ahulduko ere, munduko gizaki guztiak haren kontra baleude ere.

Era berean, Aristotelesek bere *Ortziaz eta Munduaz* tratatuan³⁰, zerua ez dela jaioa eta iraungiezin dela azaltzen hasten den tokian, honela dio: «Honen ondoren, zeruari buruz ikertu nahi dugu, eta, hasteko, hau galdetzen dugu: uste al duzu zerbaitetik jaioa dela, ala ez dela izan? Iraungikorra dela, ala ez dela inoiz iraungiko?» Galdera hori jarri ondoan, zerua jaioa dela diotenen argudioak nabarmendu nahirik, berba hauekin segitzen du: «Horrela eginez gero, gure hitzei ongi etorri hobea egingen liekete espekulazioan trebatuek, batez ere, aurkarien argudioak entzun eta gero. Zeren, gure aurkarien argudiorik aipatu gabe, geure iritzi eta geure argudioak ez beste adieraziko bagenitu, horiek gure entzuleei ahulegiak irudituko litzaizkieke onartuak izateko».

Horiexek dira, hitzez hitz, gizon horren [= Aristotelesen] esanak. Eta orain, pentsatzaile zaretenok!, ba al da oraindik, aurretiko adierazpen honen ondoren, gizon horri zer aurpegiratu? Sinets al daiteke, horrelako hitzen ondoan, gai honetaz frogarik izan denik? Pentsa al dezake edonolako gizon batek, eta are arrazoi handiagoaz Aristotelesek, jada frogatua den gauza batek harrera hotza ukan dezakeela, aurretik haren aurkarien argudioak entzun ez badira? Bestaldetik, Aristotelesek, hori bere iritzi soila dela eta horri buruz darabiltzan frogak argudio [dialektiko] hutsak direla esanda, alde batera utz al dezake argudioen eta frogen arteko ezberdintasuna, pentsaerari sendo edo ahul iruditzen zaizkion iritzien eta gauzak frogatzen dituztenen arteko bereizketa? Azkenik, aurkarien aitzinean alderdikierarik eza erakusteko hizlaritza-adierazpen hori, bere iritzia sendotzeko bezala eransten duena, beharrezkoa al da hori guztia frogaketa batean? Ez, segurki; horrekin honako helburu hau lortu nahi du: bere iritzia aurkariena baino egiazkoagoa dela erakustea; edo beste hau uste dutena baino hobea: espekulazio filosofikoak zerua jaio eta iraungitzekoa dela onartzera daramala baina, halere, ez zela inoiz erabat existitu gabea izan –edo [zerbaitetik] eratua izan dela–, eta ez dela [absolutuki] inoiz iraungiko; eta iritzi horietatik aipatzen dituen antzeko beste gauza batzuk. Eta hori, zalantzarik gabe, egia da, haren iritzia, izan, egiatik hurbilago baita haiena baino, izakiaren izaeraz argudioak eman nahi direnean. Baina guk ez dugu horrela pentsatzen, azalduko dudanez. Halere, sekta guztiek, eta filosofoek berek ere, sutsutasunak itsuturik³¹, Aristotelesek gai

hori frogatu duela erakutsi nahi ukan dute ahalegin handiz. Izan daiteke, haien iritziazen arabera, Aristotelesek halaxe egitea, hartaz ohartu ere egin gabe baina, eta geroago [besteak] konturatzea! Niri dagokidanez, zalantzarik batere gabe, iruditzen zait Aristotelesek gai horiez adierazten dituen iritzi guztiak –erran nahi baita, munduaren betierekotasunaz, esferen askotariko mugimenduez eta Adimenen ordenaz–, hori guztia, ene aburuz, ez dela frogagai. Horretara, Aristotelesek ez zuen behin ere pentsatu arrazoiketa horiek frogatzat har zitezkeenik; aitzitik, berak dioenez, frogatzeko metodoen bitartez ez dugula inolako biderik ukanen gai horiei ekiteko, eta ez dute hastapenik batere, argudiatzeko abiapuntutzat erabil dezakegunik.

Badakizu haren hitzen pasarte hau, honela dioena: «eta badira gai batzuk zeintzuen gainean argudiatzerik ez dugun, edo gure ustez bereziki larriak direnak; eta horien *zergatia* azaltzea zail gertatzen zaigu, esaterako, mundua betierekoa den ala ez»³². Horiexek dira haren hitzak. Baina zuk badakizu *Abū Naṣr [Al-Fārābī]*-k etsenplu hori nola ulertarazi duen eta nolako azalpena eskaini dion, Aristotelesek munduaren betierekotasunaz duda egiten zuela[ko ideia] baztertuz. Galenoz³³ mespretxu osoaz mintzatzen da, hark hori gai iluna zela esana zuelako, froga jakinik ez zeukana. *Abū Naṣr*-ek, ordea, pentsatzen du zerua betierekoa dela gauza argi, nabari eta frogagarria dela, bai eta bere azpian dagoena jaio eta iraungikorra dela ere.

Laburbilduz, kapitulu honetara ekarri ditugun metodoetarik batean ere ez dago iritzirik batere ematerik egiazta, gezurta edo zalantzan jar daitekeenik. Aipamen hauek egin ditugu, badakigulako beren burua ezin argiagotzat duten gehienek, inolako zientziarik ulertzen ez badute ere, munduaren betierekotasuna trenkatzen dutela betierekotasun hori aldarrikatu duten jakintsu ospetsuen larderiaz baliatuz, eta, aldiz, profeta guztien hitzak arbuiatzen, berba horiek tankera didaktikoaz emanak ez direlako, Jainkoaren aldetiko adierazpen gisa baizik. Horregatik lagun gutxi jarraiki zaizkio [profeten] bide horri, adimenaz ongi hornituak. Guk, munduaren berritasunaz ezarri nahi duguna, geure Legearen arabera, hurrengo kapituluetan erranen dut.

Ლ HAMASEIGARREN KAPITULUA

[Sorrera ex nihilo-z gertatu zelako teoria, frogaezina izanik ere, munduaren betierekotasunarena baino gertagarriagoa da]

Honako kapitulu honetan gai honetaz pentsatzen dudana azalduko dizut, eta, ondoren, [ezarri] nahi dugunaren frogak ekarriko ditut. Beraz, nik diot, munduaren berritasuna frogatu uste duten *mutakallimīn*-ek beren artean eztabaidatzen duten guztiari buruz, ez ditudala froga horiek onartzen eta ez dudala neure burua engainatu nahi sofisten metodo batzuk «froga» izenaz apainduz. Pertsona batek gauza bat sofismen bidez frogatu nahi badu, horrela ez du nahi duen gauza horren sineskera indartuko, aitzitik, ahuldu egingen du, horren aurka erantzuteko bidea emanez, frogatzako horien baliorik eza agerian jartzean, izpirituak uko egingen baitio frogatu nahi izan den horri sinesteari. Hortaz, hobe da frogarik ez daukan gauza hori ikergai gelditzea, edo, besterik gabe, hautabideko aukera bietako bat [tradizioaren arabera] ontzat ematea. Erakutsiak ditut, jada, *mutakallimīn*-ek munduaren berritasuna ezartzeko darabiltzaten metodoak, eta horien alde kritikagarriez ere ohartarazi zaitut. Era berean, Aristotelesek eta horren jarraitzaileek munduaren betierekotasuna erakusteko esan duten guztia, ene aburuz, ez da froga erabakigarria; aitzitik, horiek zalantza larrien peko argudio hutsak dira, [geroxeago] zerorrek ulertuko duzunez.

Egin gura dudana hauxe da, munduaren berritasuna, gure Legearen iritziarekin bat, jada erakutsi dudanez, ez dela ezinezkoa, eta argudio filosofiko horiek, zeintzuetatik ateratzen den, irudiz, arazo hori ez dela guk esan dugun bezalakoa³⁴, guztiek alde ahulen bat dutela, eta hortik baliorik gabe utz daitezkeela, horiek gure aurka erabiltzea eragotziz. Hau nabarmendu eta gero, eta arazo hau, hots, mundua betierekoa ala sortua ote den, zalantzan geldituz, nik profeziak emandako irtenbidea onartzen dut, espekulatze gaitasunak ezin erdiets ditzakeen gauzak azaltzen dituen; izan ere, erakutsiko dugunez, profezia ez da gauza hutsala, ez eta munduaren betierekotasuna onartzen duenarentzat ere.

Gure ikuspuntutik izan daitekeena dela dioguna erakutsi eta gero, era berean, froga espekulatibo baten bitartez, hori

beste iritzia baino hobea dela azaltzen saiatuko naiz, erran nahi baitut, sorreraren iritzia betierekotasunaren gainean jartzen. Eta erakutsiko dut ezen, baldin sorrera onartzeak ondorio absurdoren batera baldin bagaramatza, are absurdotasun handiagora hel gintezkeela betierekotasuna onets bageneza. Eta orain munduaren betierekotasunaren alde argudiatzen duten guztien frogak suntsitzeko metodo bat aurkezten saiatuko naiz.

ᵐ HAMAZAZPIGARREN KAPITULUA

[Peripatetikoen lehenbiziko lau frogak errefusatzan]

Existitu gabe egon ondoren jaiotzen den gauza berri bakoitza –horren materia lehendik existitu arren, berorrek forma bat erantzi eta beste bat jantzi besterik egiten ez duela–, behin jaio, amaitua izan eta bere behin betiko egoerara heldu eta gero, badauka izaera bat, jaiotzen ari zelarik eta ahalmenetik egitera iragaten ari zenean zeukana ez bezalakoa, eta ezberdina, halaber, [ahalmenetik] egitera iragateko, mugitu baino lehen zeukanetik. Horrela, adibidez, emearen haziak³⁵, oraindik zainetako odola besterik ez den bitartean, izaera bat dauka, ernaltze-unean, arraren haziak ukitu eta mugitzen hasi denean, daukana ez bezalakoa; eta une horretan daukan izaera, halaber, ez da, jaio ondoren animalia osamaituak daukana bezalakoa. Beraz, ezin argudia daiteke inola ere gauza batek daukan izaeraz, behin jaioa, amaitua eta, hitz batez, bere egoerarik hoberenera heldu eta gero, gauza horrek jaiotzeko mugitzen ari zenean zeukan egoeraz baliatuz. Era berean, ez dago argudiatzerik mugitzen ari zeneko unean zeukan egoeraz baliatuz, mugitzen hasi baino lehenagoko egoerari buruz. Horretaz okertzen bazara, eta, egina izatera heldu den gauza baten izaeraz baliatuz, horrek ahalmenean zegoenean zeukan izaeraz argudiatzen segitzen baduzu, zalantza larriak agertuko zaizkizu, gauza beharrezkoei absurdo iritziko diezu, eta gauza absurdoei, aldiz, beharrezko.

Demagun, aipatu dugun gaiari buruzko etsenplu gisa, ondoko uste hau. Gizon bat egoera ezin hobeaz jaio zen, eta horren ama, haurrari zenbait hilabetez bularra eman ondoren, hil egin zen; hortaz, senarra, bera bakarrik, uharte bakarti batean, ume hori hazten

eta hezten arduratu zen, harik eta hura nagusi, adimentsu eta ikasia bilakatu arte. Behin ere emakumerik eta animalia emerik ikusi gabea izanik, egun batean harekin zeuden gizonetako bati honako hau galdetu zion: «Nola existitzen gara, eta nolako eraz eratu gara?». Galdera jaso zuenak honetara erantzun zion: «Gutariko bakoitza gure espezieko eta gure antzeko gizabanako baten sabelean eratua izan da, hori emakumea da, eta halako eta holako itxura dauka; gutariko bakoitza sabelaren barruko gorputz txiki bat zen, eta han mugitzen eta elikatzen zen, eta pixkanaka haziz zihoan, bizirik, halako handitasun-muga batera heldu arte, eta orduan [emakumearen] sabelaren behealdean ate bat ireki zitzaion, eta handik agertu eta irten zen, eta harrezkero etengabe hazten segitu zuen, ikusten gaituzun bezalakoak bihurtu arte». Eta umezurtz horrek nahitaez berriro ere galde egingen du, esanez: «Eta gure arteko banako hori, sabelean txikia zenean, bizirik, mugitzen eta hazten zelarik, jaten eta edaten al zuen, ahotik eta sudurretik arnasa hartzen al zuen, eta kaka egiten al zuen?». «Ez» erantzunen zaio. Baina bera, zalantzarik gabe, hori ukatzen saiatuko da, eta gauza horiek ezinezkoak direla frogatuko du, egiazkoak izan arren, bere nagusi-egoerara helduriko izaki osamaituarengan argudioak oinarrituz. «Gutariko bat –esan dezake–, une batzuetan arnasarik gabe geldituz gero, hilko litzateke, eta haren mugimenduak amaituko. Eta nola pentsa daiteke gutako bat egon litekeela hilabeteetan mintz lodi batean sarturik, gorputz baten barruan, eta horrela bizi eta mugitu? Gutariko batek txolarre bat irents ahal baleza, egiazki txoria berehalaxe hilko litzateke urdailera heltzean, eta areago sabelpean. Gutako bakoitzak ahotik elikadurarik hartuko ez balu, eta edaterik ez baleuka, zalantzarik gabe zenbait egunen buruan hilko litzateke; hortaz, nola egon daiteke gizabanako bat hilabeteetan jan eta edan gaberik? Gure arteko norbaitek, elikatua izan ondoren, bere kaka-iraizkinak aterako ez balitu, egun gutxitan hilko litzateke min izugarrien artean. Beraz, nola egon liteke hura hilabeteetan iraitzi gabe? Gutako bati sabela zulatuko balitzaio, zenbait egunen buruan zenduko litzateke; nola sinets, hortaz, umekiak zilborra irekirik duenik? Eta, azkenik, nola ez ditu begiak irekitzen, ez bere eskuak hedatzen, ez eta oinak luzatzen, uste duzuenez, haren gorputz-adar guztiak onik eta ezein ere txarrik gabe baldin badauzka?». Eta horrela segi dezake bere arrazoiketan gizakia era horretara eratua izatea ezinezkoa dela frogatzeko.

Beha iezaiozu adibide honi, o pentsatzaile, eta egizu horretaz gogoeta! Eta hor aurkituko duzu horixe dela, era berean, gure egoera Aristoteleseko. Izan ere, guk, Moises gure maisuaren eta Abraham (bakea bego haien gainean!) gure aitaren jarraitzaileok sinesten dugu mundua halako eta holako moduaz eratu izan zela, eta halako eraz garatu zela, eta halako gauza bat halako beste baten ondoan sortua izan zela; baina Aristoteles gure kontra jartzen da, horretarako, bere behin betiko egoera osamaitura heldu den eta jada egitez existitzen den izakiaren izaeran oinarrituriko frogekin argudiatuz, baina guk berrargudiatzen diogu bere behin betiko egoerara heldu eta osamaitua izan ondoan, izaki horrek ez duela inondik ere zerikusirik jaio zen unean bera izan zenarekin, eta erabateko ezerezetik sortua izan zela. Hortaz, zer argudio atera liteke gure aurka berak dioen horretatik guztitik? Izan ere, argudio horiek ez dute jotzen hau sinesten duena besterik: bere behin betiko egoerara heldua den izaki horren izaerak, hura sortua dela frogatzen duela, baina esana dizut jada ni neu ez natorrela horretan bat.

Orain haren metodoen hastapenak berriro hartzera noa, eta horrela erakutsiko dizut hortik ez dela inondik ere deus segitzen sinesten dugunontzat Jainkoak mundu osoa ezerezetik atera zuela, ondoren bera eratuz joanez, dakusazun bezain osamaitua bilakatu arte.

Lehengaia –dio berak–, ez zen jaio eta ez da iraungiko, eta gauza jaio eta iraungikorreaz argudiatuz, hura jaioa izatea ezinezkoa dela erakusten du. Eta hori egia da. Zeren guk ez baitugu esaten lehengaia eratua denik, gizakia [giza] hazitik eratzen den bezala, ez eta hark hil beharra daukanik ere, gizakia hiltzen den bezala, hauts bihurturik; aitzitik, guk hura Jainkoak ezerezetik sorrarazi zuela diogu, eta behin sortu eta gero, den bezalakoa dela, erran nahi baitut gauza oro hartatik eratzen dela, eta, hartatik eratua den guztia, iraungitzean, hartara itzultzen dela. Hura (= lehengaia) ez da existitzen formarik gabe eta bera da jaiotzaren eta iraungitzearen azken muga. Berari dagokionez, ez da [zerbaitetik] jaioa, hartatik eratzen den guztia jaiotzen den bezala, eta ez da ezereztuko [beste gauza bat bilakatuz], hartan iraungitzen dena iraungitzen den bezala; aitzitik, gauza sortua da, eta haren Sortzaileak hala nahi duenean, hura ezerez huts eta absolutu bihurtuko du.

Gauza bera erranen dugu mugimenduaz ere, horren izaeraz baliatuz, argudiatu izan baita berori ez dela jaioa eta ez dela iraungiko. Eta hori ere egia da. Izan ere, guk ere badiogu ezin pentsa daitekeela, behin bere izaera aldaezin eta finkoaz existitu eta gero, mugimendua bere unibertsaltasunean, jaiotze eta iraungitzepean egon daitekeenik, jaio eta iraungitzen diren mugimendu partzialak dauden bezala. Arrazoiketa bera erabil daiteke mugimenduaren izaerari berez datzekion guztirako ere. Era berean, mugimendu zirkularraz ez duela hasierarik esaten denean, hori egia da zirkularki mugitzen den gorputz esferikoa behin sortu eta gero, bere mugimenduan ezin asma baitakioke inolako hasierarik.

Beste horrenbeste esanen dugu jaiotzen den orok aurretik ukan behar duen *posibilitateaz* ere, hori ez baita beharrezkoa unibertso [erabat] egonkortu honetan besterik, hemen jaiotzen den guztia zerbaitetik jaiotzen da eta. Baina ezerezetik sortu den gauzak ez dio zentzuari, ez eta adimenari ere, lehenagoko ezer erakusten, aurretik posibilitate bat ukan behar zuela uste izateko.

Eta zeruan ez dela aurkakotasunik gertatzen dioen horretaz ere era berean arrazoituko dugu. Hori ere egia da. Baina azpimarratu behar da guk ez dugula onartzen zerua eratu izan denik, zaldia edota palmondoa eratu diren bezala, ez eta, ondorioz, izaki osatua izanik, iraungi beharra duenik ere, landareak edo animaliak bezala, hor gertatzen den aurkakotasunarengatik.

Funtsezko arazoa, aurretik esan dugunez, honetan datza: izakiak bere egoera hoberen eta osamaituan egonik, ezin eskain dezake argudiorik bere osamaitzea baino lehenago zeukan egoeraz. Guk ez deritzogu absurdo zerua lurra baino lehenago eratu zela edo lurra zerua baino lehenagokoa dela esateari (*Hagîgâh* 12 a), edota zerua hasieran argizagirik gabe zegoela edo halako animalia-espeziea existitzen zela beste halako bat gabe uste izateari, horiek guztiok [unibertsoaren] multzo hori eratu zen garaiari dagozkiolako. Gauza bera gertatzen zaio animalari ere, eratzen ari denean: bihotza barrabilak baino lehenago eratzen da, begi hutsez ikus daitekeenez, eta zainak hezurak baino lehen, bere egoera osamaituan gorputz-atal horietako batek ere gainerakoetatik beregain existitzerik ez duen arren, horiek [guztiok] gabe banakoa kontserbatzea ezinezkoa

litzateke eta. Hori guztiori onartu behar da, [Eskrituraren] testua hitzez hitz hartzen denean ere, horrela izan behar ez badu ere, hori zabalago ukituko dugunean azalduko denez. Gai horretaz arreta berezia jarri behar duzu, hori Legearen inguruan eraiki dudana horma handia baita, horrela inguratutik, haren aurka jaurtitzen diren harrietatik babesturik egon dadin. Baldin Aristotelesekin –erran nahi baitut haren iritzia atxikirik daudenek– gure aurka argudiatuko balu, esanez: «Unibertso (amaitu) honetatik frogarik batere ezin atera daitekeenez gero, orduan, nola dakizue zeuek hori sortua dela, eta [aurretik] bazela beste izaera bat, berori sorrarazi duena?», honela erantzunen genioke: «Horrek ez gaitu ukitzen gure oraingo helbururako. Izan ere, guk ez dugu orain mundua sortua dela ezarri nahi; gura duguna hau da, sortua izan zela daitekeena dela [erakustea]; eta baieztapen hori ez litzateke gezurtatuko unibertsoaren izaeraz argudioak emanez, ez baikaude gu horren aurka. Baieztapen honen posibilitatea ezarrita, emanik uzten dugun bezala, ondoren *sorreraren* iritzia hobesten saiatuko gara. Hortaz, [gure iritzia gezurtatzeko] ez da beste biderik izanen munduaren sorrera ezinezkoa dela frogatzea baizik, ez unibertsoaren izaeraren bitartez, adimenak Jainkoari buruz beharrezko deritzonaz baizik, eta, horretarako, hiru metodo dira, lehenago aipatu dizkizudanak, munduaren betierekotasuna frogarazteko, Jainkoa (gorets bedi!) abiaburutzat harturik. Beraz, datorren kapituluan, horiek zalantzapean nola jar daitezkeen erakutsiko dizut, horietatik inolako frogarik ateratzea ezinezko bihurtu arte.

II HAMAZORTZIGARREN KAPITULUA

[Peripatetikoen azken hiru frogak errefusatzen]

I.- Dioten lehen metodoan, gure iritziaren arabera, ezarri nahi dute Jainkoak ahalmenetik egitera iragan behar ukan zuela, halako une jakin batean, eta ez beste batean, aritu zenez gero³⁶. Oso erraza da objekzio hau gezurtatzea. Izan ere, ondorio hori ezin atera daiteke gauza bat *posibilitate*-egoeraz hornituriko materialiaz eta forma batez osatua dagoenean besterik. Zalantzarik batere gabe, horrelako gorputz bat bere formaz aritzen bada, aritu gabe egon ondoren, bere baitan ahalmenean zerbait ukan zuen, ondoren egitera iragan dena, eta, beraz, eragile baten beharrezana ukan du, materialiaz osaturiko gauzei dagoekienez, hori baiespenean frogatua da eta. Baina materialarik eta

gorputzik gabekoak ez dauka bere esentzian inolako *posibilitaterik*, eta beragan den guztia betiere egitez dago. Hortaz, ezin aplika dakioke arrazoiketa hori, eta harentzat ez da ezinezkoa aritzea zein ez aritzea. Izaki [materiatik] banatuarentzat, hori ez da aldaketa bat, ez eta ahalmenetik egiterako iragatea ere. Horren froga *adimen egileagan* dugu, Aristotelesen eta berorren segiziokoen iritziz, banatua dena, eta, halere, batzuetan aritzen da eta beste batzuetan ez, *Abū Naṣr [Al-Fārābī]*-k *Adimenaz* izeneko tratatuan azaldu duen bezala. Honelako hitzekin mintzo da: «Agerian da adimen egilea ez dela etengabeki ari, aldizka bai eta aldizka ez baizik». Horra hor hitzez hitz dioena, eta hori, bistan denez, egia da. Halere, hori horrela izanik ere, ez dago esaterik adimen egilea aldatzeko gai denik, ez eta ahalmenezko eragile izatetik egiteko eragile izatera iragan denik, une jakin batean lehenago egin ez zuen zerbait egin duelako, ez baita harremanik gorputzen eta gorputzik gabearen artean, ez eta [haien arteko] antzik ere, ez egintzaren unean, ez aritu gabe daudenean ere. Forma materialen egintzari eta izaki banatuarenari [batari eta besteari] «*egintza*» deitzen bazaie, hori homonimia hutsaz gertatzen da, eta, beraz, izaki banatuak halako une batean bete ez duen egintza geroago betetzen badu, ez da hortik segitzen ahalmenetik egitera iragana denik, forma materialetan ikusten dugun bezala.

Agian norbaitek esan berri ditudan hitzetan sofisma bat dela pentsa dezake: Honela esan daiteke: Baldin adimen egilea nahitaez halako une batean ari bada, eta ez beste une batean, hori ez da bere esentziari datzekion zerbaitengatik, materien antolaerarengatik baizik, eta, bere aldetik, egintza betiere antolaturik dagoen guztiaren gainean, eta egintza eragozten duen zerbait baldin bada, hori materiaren antolaeratik datorke, eta ez adimenetik bertatik. Holakorik pentsatzen duenak beki ongi gure helburua ez dela Jainkoa (gorets bedi!) halako une batean eta ez beste batean aritu izanaren arrazoa aurkitzea, eta, etsenplu horri helduz, ez dugu ondorioz ateratzen, adimen egilea, banatua izanik, une jakin batean eta ez beste batean aritzen denez gero, gauza bera gertatu behar dela Jainkoarekin ere (gorets bedi!). Ez dugu holakorik esan, ez eta antzeko ondoriorik atera; eta horrela egin bagenu, hori, egiazki, sofisma bat zatekeen. Baina konkluditu duguna, eta ondorio hori egiazkoa da, adimen egilea, ez indar bat ez eta gorputz bat ere ez dena, une batean aritu eta egintza bera beste une

batean egiten ez duen arren, horren kausa dena delakoa izanik, halere ezin esan daiteke horregatik ahalmenetik egitera iragana denik, ez bere esentzian *possibilitate* bat ukan duenik, ez eta, azkenik, ahalmenetik egitera iraganarazi duen eragile baten beharrezana ukan duenik ere.

Honetara munduaren betierekotasunaren aldekoengandik egin zaigun objekzio larri hori bazterturik uzten dugu. Izan ere, Jainkoa (gorets bedi!) ez gorputz bat, ez gorputz baten barruko indar bat dela sinesten dugunez gero, Harengan ez da aldaketarik gertatzen, lehenago aritu gabe, aritzen denean.

II.- Bigarren metodoak munduaren betierekotasunaren on-dorioa honako honetatik ateratzen du: Jainkoarentzat (gorets bedi!) beharrianik, ustekabekorik, eta oztoporik ere ez izatetik³⁷. Objekzio honen irtenbidea zaila eta, aldi berean, sotila da; kasu egiozu. Jakizu nahimena daukan eta edonolako arrazoiren bategatik ari den eragile batek, bai ari denean eta bai ari ez denean ere, gertatzen zaizkion oztopo edo heltzen zaizkion beharrian batzuegatik aritu beharra daukala. Horretara, konparazione, etxe bat ukan nahi lukeen gizon batek, halere, ez du bera eraikiko oztopoen kausaz, ekaiak eskuan ez dituelako, edo, horiek prest ukanik ere, forma hartzeko gertu ez daudelako, horretarako lanabesak falta dituelako. Gerta liteke, halaber, ekaiak eta lanabesak prest izatea eta, halere, gizon horrek etxea ez eraikitzea, babes premiarik ezaz, eraikitzeo gogorik ez duelako; baina ezusteko halabeharrak gerta balitez, hala nola beroa edo hotza, horiek aterpea bilaraz liezaiokete, eta orduan bai, eraiki nahiko luke etxe hori. Beraz argi dago ezusteko gertakariak nahimena aldaraz dezaketela eta oztopoak ere nahimenaren aurka jar daitezkeela, horri aritzen utzi gabe. Hala eta guztiz ere, hori guztiori gertatzen da, soilik, egintzen arrazoia nahimenetik kanpoko zerbait denean. Baina egintzak nahimenari obeditzea beste helbururik ez duenean, nahimen horrek ez du [kanpoko] gonbidapenik behar, eta, kasu honetan, ez da beharrezkoa nahimena daukana, oztoporik gabe egonik ere, beti ari eta ari jardutea, ez baitu kanpoko helbururik bera aritzera bultzatzen dezakeenik, xedea lortzeko oztoporik ez lukeenean aritzera bortxaturik balego bezala, kasu honetan egintzak haren nahimenari ez besteri obeditzen diolako.

Eragozpen hau jar dakiguke, ordea: Hori guztiori egia da, baina ez al da hortxe bertan aldaketarik, batzuetan nahi eta beste batzuetan

nahi ez izatean? Horri honela erantzuten diogu: Ez, nahimenaren egiazko ideia nahi izatea eta nahi ez izatea baita. Hortaz, nahimen hori izaki materiadun batena baldin bada, horren bidez bilatzen dena kanpoko helburu bat izanik, hori nahimen aldakorra izanen da, oztopoen eta gerta daitezkeen ezustekoen arabera, baina izaki *banatuaren* nahimena, beste ezerk inondik ere ezin muga dezakeena, ez da inola ere aldakor, eta orain gauza bat eta bihar beste bat nahi badu, horrek haren esentziari ez dakarkio aldaketarik, eta ez du [harengandik kanpoan] beste kausarik behar, aritzen denean zein aritzen ez denean ere aldaketarik ez den bezala, jada erakutsi dugunez. Geroago azalduko denez, bai gure nahimenari eta bai izaki banatuarenari ere «nahimen» izena ematen bazaie, homonimia hutsez besterik ez da, nahimen bi horien artean antzik batere ez den arren. Horretara, bada, objektzio hori ere era berean suntsiturik gelditzen da, eta argi dago metodo horretatik ez zaigula bateraezinezkorik heltzen. Eta horixe zen, zerorrek dakizunez, [erdietsi] nahi genuena.

III.- Munduaren betierekotasuna frogarazteko hirugarren metodoa honako hau da: [Jainkoaren] jakinduriak gauza bat agertu behar dela erabakitzen duenean, agertu egiten da; hortaz, Jainkoaren jakinduria Haren esentzia bezain betierekoa izanik, horren ondorioa [halaber] betierekoa izanen da³⁸. Baina arrazoiketa hori oso ahula da; izan ere, ez dakigu zergatik Haren jakinduriak ebatzi zuen esferak bederatzi izatea, ez gehiago ez gutxiago, eta izarrak diren bezain ugariak izatea, ez gehiago ez gutxiago, ez handiagoak ez txikiagoak, eta era berean ez dakigu zergatik Haren jakinduriak, garai aski hurbil batean, unibertsoa existiarazi duen, lehenago existitzen ez zena. Hori guztia Haren jakinduria betiereko eta aldaezinaren arabera; baina guk guztiok ez dakigu deus jakinduria horren legeaz eta berak eskatzen duenaz ere. Gure iritziz, nahimena jakinduriarekin bat dator; [Jainkoarengan] dena gauza bakar eta bera da, erran nahi baitut Haren jakinduria Haren esentzia dela, guk atributuak onartzen ez ditugulako. Gai honetaz gehiago entzun duzu, Aurreikusmenaz mintzatuko garenean³⁹. Kontsiderazio honekin, beraz, aipaturiko absurdoa [guri egotzia] erori egiten da.

Eta Aristotelesekin esan duenaz, hots, antzinako herrietako jendeek aho batez sinesten zutela aingeruak zeruan bizi zirela, eta Jainkoa bera ere zeruan zela –Eskriturak, hitzez hitz dioenez–,

horrek ezin balio dezake zeruaren betierekotasunaren frogatzat, hark nahi zuenez; baina hori esana da zeruak Adimen banatuen existentzia erakusten dizkigula frogatzeko, hau da, aingeruena, eta zerua mugiarazten eta gobernatzen duen Jainkoaren existentzia ere bai, erakutsiko dugunez. Era berean, azalduko dugu, Sortzailearen existentzia frogatzeko, ez dela argudio hoberik zerutik harturikoa baino; eta berorrek, jada esan dugunez, filosofoen aburuaz, hura mugiarazten duen izaki bat existitzen dela frogatzen du, eta berori ez dela gorputz bat, eta gorputz baten barruko indar bat ere ez.

Guk baiesten duguna onargarria dela zuri erakutsi eta gero, eta [gutxienez] ez dela gauza ezinezko bat, [munduaren] betierekotasunaren aldekoek diotenez, datozen kapituluetan gure iritzia espekulazioaren ikuspuntua baino hobea dela agertuko dizut, eta bestelako usteak aldean dakartzan ondorio absurdoak azalduko.

ᵝ HEMERETZIGARREN KAPITULUA

[Ex nihilo-zko sorreraren aldeko frogak.

Aristotelesen teoriaren akats batzuk gezurtatzen dira]

Aristotelesen sistematik, munduaren betierekotasuna onesten duten guztien sistematik bezala, argi ateratzen da unibertso hau *halabeharrez* Sortzailearengandik (gorets bedi!) jarioa dela, Jainkoa (gorets bedi!) kausa dela eta mundu hau ondorioa, eta, beraz, *halabeharrezkoa* dela. Eta Jainkoaz (gorets bedi!) zergatik existitzen den eta horrela nola existitzen den –erran nahi baitut, bat eta gorputzik gabe– esaterik ez dagoenez, era berean ezin esan daiteke unibertsoaz bere osotasunean zergatik existitzen den, ez honela [guk bera dakusagun bezala] nola existitzen den ere, *halabeharrezkoa* baita hori guztia horrela existi dadin, [erran nahi baita] kausa eta horren ondorioa. Eta bientzat ezinezkoa da ez existitzea edo diren ez bezalakoak bilakatzea. Beraz, iritzi honekin bat, gauza orok berak daukan izaera kontserbatu behar du, eta ezein gauzak ezin du, inola ere, bere izaera aldatu. Uste horren arabera, ezinezkoa da edonolako izaki baten izaera aldatzea eta, ondorioz, gauza hauek guztiok ezin jaio izan dira halako asmoa zeukan eta askatasunez horiek horrelakoak izatea nahi zuen izaki baten nahiaz; izan ere, horiek halako asmoaz jaioak izan balira, ez ziratekeen horrela

existituko asmo hori haietan mamitu baino lehen. Baina, gure aburuz, argi daukagu gauzak asmo baten segida direla, eta ez halabeharrez, eta asmogileak haiek aldatu eta bestelako asmoaz era litzakeela. Halere, hori ezin liteke, zentzu absolutuan, *edonolako* asmoa izan, hor ezinezkoaren izaera baitago, egonkorra eta inola ere ezin deuseztekoa, erakutsiko dugunez. Ene helburua, kapitulu honetan, zuri hauxe ikusaraztea da, *frogetara* hurbiltzen diren argudioen bitartez, unibertso honek argiro erakusten digula badela asmoaz diharduen Sortzaile bat, horregatik neronek *mutakallimīn*-en helburua onartu gabe, hots, izakiaren izaera suntsitu, atomoa aldarrikatuz, akzidenteen etengabeko sorrera eta haien hastapenez jada azaldu dizudan guztia, horien xede bakarra *erabakitasuna* ezartzea izanez. Ez da uste izan behar, halaber, haiek jada erran dutenik nerau orain esatera noana, baina, zalantzarik gabe, haien helburua eta nirea bat da. Beraz, jorratuko ditudan gauzez ere mintzo dira, *erabakitasunari* so eginez; baina, haien ustez, landare bat gehiago bada gorria zuria baino, gehiago gozoa mingotsa baino, hori bereizte bat besterik ez da, zeruak, koadratua edo triangeluarra barik, eskuarki daukan itxuraren maila berekoa. Haiek *erabakitasuna* jada dakizkizun beren baiespenen bidez ezarri dute, baina nik, aldiz, *erabakitasuna* ezarriko dut, hori beharrezkoa den lekuan, izakiaren izaeratik jasoriko baiespen filosofikoen bitartez.

Metodo hori ondoko hastapen hau jarri eta gero azalduko dut: beren artean zerbaitean ezberdintzen diren gauza batzuek materia komuna duten aldi guztietan, halabeharrez, materia komun horrez gainera, kausa bat behar izan da gauza horietako batzuek era bateko nolakotasuna eta gainerakoek bestelakoa edukitzea eginarazi duena, edo, hobeki esan, zenbat gauza ezberdin, horrenbeste kausa [behar izan dira]. Baiespen horretan bat datoz [munduaren] betierekotasunaren aldeko guztiak, eta sorreraren aldekoak ere bai. Behin hastapen hau jarri eta gero, begiratzeko nuena azaltzen hasiko naiz, galde-erantzunen bidez Aristotelesen iritzia [eztabaidatuz].

Ororen aitzin, Aristotelesi ondoko galdera hau eginen diogu: Frogatu diguzu Ilargipeko gauza guztiek materia bera eta bakarra daukatela, guztientzako komuna. Hortaz, zein da hemen beheon diren espezieen askotarikotasunaren kausa, eta zein da espezie bakoitzeko banakoen arteko ezberdintasunaren kausa? Horren ganean honela erantzunen digu: Ezberdintasun hori materia horrez osaturiko gau-

zen *nahaste*-neurri ezberdinetik heldu da. Materia komun horrek aurretik lau forma jaso ditu, horietako bakoitza bina nolakotasunekin lagundurik, eta lau nolakotasun horien bitartez hura osatzen duten elementuak [eratzeko] bilakatzen da [materia hori]. Elementuok hasieran zeruko esferaren mugimenduaren eraginez beren artean nahasten dira, eta, ondoren, nahaste epeldua lortu eta gero, nahasiriko gauzetan askotarikotasuna gertatzen da, berotasun, hoztasun, hezetasun eta lehortasun maila ezberdineko [elementuez] osatuak dira eta. Anitz eratako nahaste horien bidez [materiak] jarrera ezberdinak eskuratzen ditu, eta forma horiek, beren aldetik, beste forma batzuk hartzeko gaitzen dute [materia], eta horrela hurrenez hurren. Forma espezifiko bakarraren materiak (= *substratuak*) hedadura handia dauka, bai zenbatekotasunean eta bai nolakotasunean ere, eta hedadura horregatik agertzen dira espezie bereko hain banako ugariak, fisikan jada erakutsi izan denez. Hori guztia egia eta argia da bere buruarekin zintzo den eta bere burua engainatu nahi ez duen edozeinentzat.

Ondoren, oraindik Aristotelesi beste galdera hau eginen diogu: Egia baldin bada materia era askotako formak hartzera egokiarazten duen kausa elementuen nahastea dela, orduan zerk egokiarazi du lehen materia hau, horren zati batek su forma eta beste batek lur forma har dezan, eta bien artean denak ur eta aire forma hartzeko? Orok materia komuna baldin badauka, zerk bihurtu du lurraren materia lur forma izateko egokiagoa eta suaren materia su formarako? Horri Aristotelesekin honela erantzuten dio: Hori egiten duena lekuen ezberdintasuna da, horiek eragin baitizkiote jarrera ezberdinak materia bakarrari. Zirkunferentziatik hurbilen dagoen zatiak horretatik sotiltasun- eta mugimendu lasterreko inpresioa jaso du, horrela bere izaerara hurbilduz, eta behin horrela prestaturik, *su* forma hartzen; baina materia zirkunferentziatik urruntzen eta zentrori hurbiltzen den neurrian, trinkoago bilakatzen da, lodiago eta haren argia ahulagoa; orduan lur bihurtzen da eta, arrazoi berberagatik, *ur* eta *aire*. Eta hala behar da, materia hori leku jakin batean ez dagoela, edo zirkunferentzia bera zentroa dela, eta alderantziz, [esatea] absurdoa litzateke eta. Horixe da, beraz, askotariko formetan materia zehatzarazi diona, erran bahi baitut, forma ezberdinak hartzera egokiarazi duena.

Azkenik, hau ere itaunduko diogu: zirkunferentziaren materia, hau da, zeruarena, elementuena bera al da? Ez, erantzuten du; aitzitik,

hori beste materia da, eta bestelako formak dauzka. Hemengo beheko gorputzei eta hangoei [goikoei], era berean, «gorputz» izena ematen bazaie, hori homonimia hutsez gertatzen da, azken aldiko filosofoek ohartarazi dutenez. Hori guztiori frogaturik dago.

Entzuzu orain, tratatu honen irakurle horrek!, neronek diodana. Badakizu Aristotelesek frogatua duela ekintzen ezberdintasunetik formen ezberdintasuna inferi daitekeela. Hortaz, lau elementuen mugimenduak zuzenak direnez gero, baina zeruko esferaren mugimendua, ordea, zirkularra, gauza nabarmena da batzuen materia ez dela bestearena bera, eta hori espekulazio fisikotik ateratzen den ondorioa da; baina [elementu] hauek, mugimendu zuzenak dituztenak, norabideetan ere ezberdintzen direla ikusirik, batzuk gorantz, beste batzuk beherantz mugituz, eta alde bererantz doazenek ere beren mugimendua lasterrago edo geldoago edukiz, gauza nabaria da formari doakionez ezberdinak direla. Horrela jakiten da elementuen kopurua lau dela⁴⁰. Oso antzeko argudioen bidez zeruko esfera guztiek materia berbera daukatelako ondorioa heltzen da, guztiak zirkularki higitzen direlako. Baina, formaz den bezainbatean, esferak elkarrengandik ezberdintzen dira; izan ere, halako bat ekialdetik mendebaldera mugitzen da, eta beste bat, aldiz, mendebaldetik ekialdera, eta, bestela ere, mugimenduak azkartasun eta geldotasunean ezberdinak dira. Hortaz, honako galdera hau egin dakiok [Aristotelesi]: Esfera guztiek materia komuna edukiz, eta haietako bakoitzak forma bereziko substratu bana, besteena ez bezalakoa, nork zehatzarazi dizkie substratu horiek eta egokitu ditu askotariko formak hartzeko? Ba al da, esferaren atzean *bereizkuntza* hori egotz dakiokkeen zer bait, Jainkoa, alegia, guztiz gorena (maita eta goretz bedi!)?

Zure arreta erakarri behar dut Aristotelesen sakontasun handiaz eta haren ohi ez bezalako ulermenaz ohar zaitezen, eta [azpimarratu] eragozpen honek, zalantzarik gabe, norainoko pisua ukan zuen haren baitan, eta nola ahalegindu zen hortik irteten izakiaren izaera lagungarri ez zuen bideetatik. Izan ere, hark eragozpen hau aipatzen ez duen arren, halere, ezin argiago dago, beraren hitzetatik, erakutsi nahi digula esferen existentzia, sistematikoki, zeruko esferapean dagoenarekin egin duen bezala, halabehar fisikoarengatik gertatu balitz bezala, eta ez, nahi duen xedeari darraion eta [gauzak] bere gogara erabakitzen dituen izaki baten asmoarengatik. Baina ez zuen lortu,

eta hori ez da inoiz lortuko. Ahalegindu egiten da bera honelakoen arrazoia ematen, lehenik, zergatik esferaren mugimendua ekialdetik, eta ez mendebaldetik, abiatzen den; bigarrenik, zergatik [esfera] batzuek mugimendu lasterra eta beste batzuek geldia duten, hori esfera gorenarekin duten kokaeraren arabera izanik; hirugarrenik, zergatik zazpi planetetako bakoitzak esfera batzuk dituen, baina izar finkoen multzo handia esfera bakarrean dagoen. Horren guztia kausak azaltzen saiatzen da, horrela, oro halabeharrez existitzen den ordena fisiko bati darraiola guri erakusteko. Halere, ez du horretatik ezer lortu; izan ere, Ilargiaren esferapeko gauzez erakutsi digun guztia [egiazki] existitzen denarekin eta kausa nabariak dauzkanarekin sistematikoa eta egokia bada ere, eta hori guztia zeruko esferaren mugimendu eta indarren [ondorioko] halabeharraz gertatzen dela esan daitekeen arren, halere, ez du inolako arrazoi nabaririk eman zeruko esferari buruz dioenaz, eta ez ditu gauzak era sistematikoaz erakusten, hortik, ondorioz, *halabeharra* atera dadin. Izan ere, esferak direla eta, badakusagu batzuk, mugimendu lasterragoa dutenak, mugimendu geldiagoa dutenen gainetik direla, eta beste batzuk, mugimendu pausatuagokoak, lasterragoa dutenen gainetik aurkitzen direla, bai eta zenbaitzuek mugimendu berdina dituztela ere, batzuk besteen gainean kokaturik izan arren. Badira oraindik beste gauza batzuk, *halabeharraz* ikuspuntutik abiaturik, oso zail gertatzen direnak, eta horiei tratatu honetan kapitulu berezia eskainiko diet.

Laburbilduz, Aristotelesek, gauza horiek azaldu eta berorien kausak erakusteko esan duenaren ahulezia zalantzarik gabe ezaguturik, bere ikerketaren buruan honako hau jarri zuen, hitzez hitz aipaturik: «Orain aztertu beharreko bi gai ikertu nahi ditugu xeheki, horiez erranen duguna gure adimenaren, gure zientziaren eta gure iritziaren ahalmenaren arabera izanez; baina inork ez gaitu horregatik harro eta ausartegitza hartu behar; aitzitik, filosofiaz dugun ardura eta sutsutasuna miretsi beharko litzateke, eta goi mailako gai nobleak ikertzen dihardugula horiei irtenbide bat ematera heltzen garenean, berau behin-behinekoa izan arren, entzuleak atsegin handia sentitu eta pozarren egon beharko luke»⁴¹. Horrelakoxeak dira haren hitzak. Hortaz, garbi dago dudarik gabe ezagutzen zuela honi buruz zioenaren ahulezia, are gehiago, matematikaren zientzia haren garaian oraindik akastuna zela kontuan izanik, eta orduan ez zekiela zeruko esferaren

mugimenduez gaur egun dakiguna. Iruditzen zaidanez, Aristotelesek *Metafisikan* (XI, 8) esfera bakoitzarentzat *Adimen banatu* bana egotzi behar zaiola dioenean, hori arrazoi berberagatik egiten du, hau da, esfera bakoitzari mugimendu berezia ematen dion zerbait izan dadin. Baina horrekin ez dela deus irabazten erakutsiko dugu.

Eta, aipatu dudan testuan, dioenez, hots, «gure adimenaren, gure zientziaren eta gure iritziaren ahalmenaren arabera» horren esangura azalduko dizut, ez baitut inon argiturik ikusi iruzkingileen aldetik. «Gure iritzia» hitzen bitartez halabehararen ikuspuntua adierazten du, hau da, munduaren betierekotasunaren iritzia. «Gure zientzia» berbeekin gauza nabarmen hau aipatzen du, hor guztiak batera datoz eta, alegia, zeruko gauza bakoitzak halabeharrez kausa bana ukan duela eta hori ez dela zori hutsez gertatzen. «Gure adimena» hitzek hau esan nahi dute: gauza horien kausak, era guztiz zehatz eta akatsik gabe, azaltzeko dugun ezintasuna; baina, halere, horretaz zertxobait esan nahi du. Eta horixe da, izan ere, egin duena, mugimendu unibertsalaren lastertasunaz eta izar finkoen esferaren gelditasunaz dioena, [horien mugimendua] elkarren aurkako norabidean ari delarik, arrazoiketa bitxi eta harrigarria da. Era berean, berak dioenez, esfera bat zortzigarrenetik zenbat eta urrunago egon, horren mugimenduak lasterragoa izan behar duela, eta, halere, ez da beti horrela izaten, erakutsi dizudanez. Eta hori baino larriagoa oraindik, badirela, halaber, zortzigarrenaren azpitik, ekialdetik mendebaldera mugitzen diren esfera batzuk. Beraz, ekialdetik mendebaldera mugitzen direnek haien azpian daudenek baino lasterragoak izan beharko lukete, eta ekialdetik mugitzen direnek are lasterragoak, bederatzigarrenaren [eguneko] mugimendutik hurbilago dauden neurrian. Baina, jada jakinarazi dizudanez, astronomiaren zientzia ez zen haren garaian gaur egun duguna.

Jakizu, bada, mundua denboran sortua izan zela sinesten dugunon iritziaren arabera, hori guztiori erraza dela eta bat datorrela gure hastapenekin; izan ere, guk diogunez, bada izaki erabakitzaile bat, esfera bakoitzaren mugimenduari nahi duen bezalako norabide eta lastertasuna erabaki dizkiona, baina guk ez dakigu halako gauzak jaioarazi zituen Jakinduria horrek jarduteko zein modu darabilen. Baldin Aristoteles esferen mugimenduen ezberdintasunaren arrazoia emateko gai izan balitz, guztia beren elkarrekiko jarrerarekin har-

monian egoteko eran, berak uste zuen bezala, hori zoragarria zatekeen. Orduan, bereizkuntzaren arrazoa mugimenduen arteko ezberdintasunetik letorke, elementuen arteko ezberdintasuna [unibertsoaren] zirkunferentziaren eta zentroaren artean haietako bakoitzak duen jarreran datzan bezalaxe. Baina gauzak ez daude horrela ordenaturik, jada azaldu dizudan bezala.

Zeruko esferan bereizkuntza existitzen dela are nabarmenago egiten duena, eta horregatik inork ezingo lioke bestelako kausa erabakitailerik aurkitu, halako xedeaz diharduen izaki baten asmoa ez bada, argizagiak existitzeko era da. Izan ere, esfera beti mugimenduan dabilela argizagia beti finko egonik, horrek frogatzen du argizagien materia ez dela esferena bera. Jadanik *Abū Naṣr [Al-Fārabī]*, *Akroasis*-ari buruz egin zituen glosetan, honela mintzatu zen: «Esferaren eta argizagien artean bada ezberdintasun bat: esfera gardena da, baina argizagiak ez. Horren kausa honetan datza, materia bien eta forma bien arten ezberdintasun bat da, txikia baina». Horiexek dira haren hitzak. Nik, ordea, ez diot txikia denik, baina haiek elkarrengandik ezberdintasuna handia dutela, ez baitut horren froga gardentasunetik, haien mugimenduetatik baizik. Hortaz, ene aburuz, argi dago hiru materia eta hiru forma direla: 1) berenez, beti geldirik dauden gorputzak, hau da, argizagien gorputzak; 2) beti mugimenduan ari diren gorputzak, esferen gorputzak, hain zuzen; 3) bai mugitu eta bai geldirik egoten diren gorputzak, elementuak alegia. Hortaz, jakin nahi nuke ea zerk batu zituen elkarrekin materia bi horiek –horien artean erabateko ezberdintasuna izanik, niri iruditzen zaidanez, edo oso txikia, *Abū Naṣr*-ek dioenez–, eta batze hori nork prestatu ote zuen. Hitz gutxitan, bi gorputz ezberdin, bata bestean finkatua, horrekin nahasi gabe; hura, aitzitik, azken horretako toki berezi batean mugatua, berorri gogorki datxekiola, [hori guztia] halako xedeaz diharduen izaki baten asmorik gabe gauza harriagarria litzateke. Eta are harriagarriagoak zortzigarren esferako izar ugari horiek, guztiak biribilak, batzuk txikiak, beste batzuk handiak, hemen izar bat, han beste bat, irudiz ukondo baten distantzian, hemen hamar izar elkarrekin metaturik, eta hango alde zabalean, izarrik batere ez. Zein da, beraz, hamar izar dauzkan alde hau eta izarrik batere ez daukan beste alde hori bereziki ezberdintzen duen kausa? Bestetik, esferaren gorputza gorputz bakuna eta bakarra da, ezberdintasunik gabea; hortaz, esferaren zati hori zein kausaz

komeni zaio gehiago berton aurkitzen den argizagiari, beste edonolako bat baino? Hori guztiori, era bereko guztiaren antzera, sinesgaitza litzateke, edo, hobeki esan, ezinezkoaren mugakoa, baldin eta, oro, nahitaez eta halabeharrez, Jainkoarengandik datorrela onartzen bada, Aristotelesek uste duen bezala. Baina, oro halako xedeaz diharduen izaki baten asmoari zor zaiola, eta halaxe egin duela onartuz gero, ez dago zergatik harritu, ez eta gauza sinesgaitzik bat ere, eta ez da hor zer ikertu, galde hau egiten ez baduzu bederen: Zein da asmo horren kausa?

Horretaz jakiten den guztia, laburbilduz, hau da, hori guztia guk ez dakigun arrazoiaren bategatik gertatzen dela, baina ez dela, halere, alferreko lana, ez eta zoriaren ondorioa ere. Izan ere, badakizu zakur edo asto banakoaren zainak eta nerbioak ez direla zoriaren emaitza, eta ez dutela halako neurria zoriz, eta ez dela zori hutsez zain hori lodia eta beste hura mehea gertatzen, ez holako nerbioa abartxo askotan banatzen baina halako bat, ordea, ez, bata zuzen-zuzenik jaistea eta bestea bere buruaren gainean tolestea, hori guztiori ez baita jazotzen halako premia nabariengatik hala komeni delako besterik. Beraz, nola pentsa lezake gizaki adimentsu batek argizagien jarrerak, haien neurriak, haien kopurua eta haien askotariko esferen mugimenduak arrazoirik gabeak direla, edota zoriaren emaitza hutsa? Ez da dudarik gauza horiek guztiok beharrezkoak direla halako xedeaz jardun duenaren asmoarekiko, eta oso ulergaitza da gauzen ordena hau halabehar hutsetik heldua izatea, eta ez *asmo* batetik.

Ez dago, ene ustez, asmoaren froga handiagorik esferen eta esferen atxikiriko argizagien mugimenduen aniztasuna baino; horregatik aurkituko duzu profeta guztiek hartu dituztela argizagiak eta esferak Jainko bat halabeharrez existitzen delako frogatzat. Gauza jakina da tradizioak Abrahamek dioena, hura argizagiei beha egoten zen eta⁴². Isaiasek, hortik atera daitezkeen frogez arreta erakartzeko, honako hau dio: «Jaso begiak gorantz eta ikus: Nork egin du hori guztia?» (Is 40,26). Era berean, Jeremiasek, honela dio: «zeruak egin ditu» (Cfr. Jr 32,17; 10,12; 51,15). Abrahamek esana du «Jainko Jaun zerukoak...» (Has 24,7), eta profeten printzeak. «Zeruaren gainean zamalkatzen dena» (Dt 33,26) jada azaldu dugunez⁴³, eta horixe da, izan ere, egiazko frogak, zalantzarik batere gabea. Bera argitzera noa: zeruko esferapean hainbeste gauza ezberdin baldin badira, horien

materia, erakutsi dugunez, bat izan arren, hau esan dezakezu, horiek bereizi dituztenak esferen indarrak eta materiak zeruko esferarekiko dituen jarrera ezberdinak izan direla, Aristotelesek irakatsi digun bezala. Baina esferetan eta argizagietan diren era askotako ezberdintasunei dagokienez, nork bereizaraz zitzakeen, Jainkoaz (gorets bedi!) landa? Izan ere, baldin inork balerra *Adimen banatuak* izan direla, ez luke deus irabaziko baieztapen horrekin. Adimenak ez dira gorputzak, eta horregatik ezin ukan dezakete esferarekiko leku-jarrerarik; hortaz, esfera bakoitza bere *Adimen banatuarengana* erakartzen duen nahi-mugimendu hori, zergatik esfera batek ekialderantz egiten du, eta beste batek mendebalderantz? Uste al duzu holako Adimen hori mendebaldean izanen dela eta beste hura, aldiz, ekialde partean? Gainera, zergatik izanen da honako esfera hau geldiago eta hango beste hura, ordea, lasterragoa, hor, zerorrek dakizun bezala, beren arteko distantzien araberrako jarraipenik izan gabe? Beraz, nahitaez esan beharko litzateke esferaren izaerak eta berorren substantziak eskatzen dutela halako alderantz eta halako abiaduraz mugi dadila, eta haren nahiaren emaitza halako eraz lorturiko gauza izan dela. Eta horixe da, izan ere, Aristotelesek argiro esan eta aldarrikatzen duena.

Honetara, geure abiapuntura itzuliak gara, eta honela diogu: Esfera guztiek materia bera eta bakarra dutenez, zerk bereizten ditu batzuk besteetatik, izaera zehatz banaz, eta batzuei mota bateko mugimendua eragiten duen nahia, eta beste batzuei beste mota bateko mugimendua eragiten duen aurkako joaera ematen? Ez al da beharrezkoa horiek *bereziki zehazten* dituen zerbait? Kontsiderazio horrek bi galdera hauetara gakartza: Bata, askotarikotasun honen existentziatik atera daiteke ala ez, horiek guztiok, nahitaez, halako xedeaz diharduen izaki baten asmoagatik eginak direlako ondorioa, eta ez *halabeharragatik*? Bigarren galdera honako hau da: Demagun hori guztia halako xedeaz diharduen izaki baten asmoari zor zaiola, atera al daiteke hortik guztia sorrarazia izan dela aurretik existitu gabe egon eta gero?, ala, bestela, ezin daiteke horrelako ondoriorik atera, eta onartu behar da, aldiz, *zehaztasun* hori betidanikoa dela? Izan ere, bigarren iritzi hori [munduaren] betierekotasuna onartzen duten zenbaitzuek ere onesten dute eta. Hurrengo kapituluan galdera biok jorratuko ditut, horretarako behar dena azalduz.

➤ HOGEGARREN KAPITULUA

[*Aristotelesen teoria errefusatzan jarraituz*]

Aristotelesekin frogatua du gauza fisikoa, oro har, ez direla zoriaren gertatzen, eta horretarako ematen duen frogak honako hau da: zoriaren arabera gauzak ez dira etengabeki gertatzen, ez eta sarritan ere; baina gauza [fisiko, hots, natural] horiek guztiok etengabeki gertatzen dira, edo, gutxienez, oso maiz. Zeruari dagokionez, barruan daukan guztiarekin, etengabeki egoera batzuetan aurkitzen da, aldakuntzarik batere gabe, azaldu dugun bezala, ez bere esentzian berean, ez eta lekuz aldatuz ere. Baina Ilargiaren esferapeko gauza fisikoen artean aldaketak gertatzen dira, batzuk etenik gabe, besteak maiz; esaterako, lehen kasuan, berotzen duen sua eta erortzen den harria, eta maizenik, bigarren kasuan, espezie bakoitzeko banakoaren itxurak eta horien egintzak. Hori guztiori argi dago. Baina [munduko] gauza bereziak zoriagatik gertatzen ez badira, nola gerta liteke osotasuna? Beraz, frogaturik gertatzen da izaki horiek ez direla zoriaren emaitza. Hona hemen Aristotelesekin zer dioten, antzinatean mundu hau zoriz etorria eta berez, kausarik gabe sortua dela uste zuten batzuen iritzia gezurtatuz: «Beste batzuekin *berezkotasuna* eman dute zero horren eta mundu guztien kausatzat; izan ere, halakoekin diotenez, berez sortua baita iraultza, gauza guztiak ordena horretan ezberdindu eta eratu dituen. Baina hor bada gauza harrigarri bat: Alde batetik, esaten dute animaliak eta landareak ez direla gertatzen ez jaiotzen zoriari esker, baina horien kausa izaera bat dela, edo adimen bat, edo antzeko gauzaren bat, horiek guztiok, edonolakoak izanik ere, ez baitira jaiotzen hazi edo esperma guztietatik, baina halako hazitik olibondoa jaiotzen dela, eta halako espermatik gizaki bat. Beste alde batetik, zeruaz eta gorputz ikusgai guztien artean egiazki jainkozkoak direnez, hau diote: horiek berez jaiotzeko direla eta ez dutela inondik ere kausarik, animaliek eta landareek ez bezala»⁴⁴. Horiexek dira haren hitzak, eta hortik xehetasun luzeetan sartzen da, horrela pentsatzen dutenen iritzia faltsutasuna erakusteko.

Beraz, argi dago Aristotelesekin uste eta frogatzen duela izaki horiek guztiok ez direla zori hutsez existitzen, eta zoriaren emaitza direla [onartzen duen iritzia] gezurtatzen duena horiek *esentzialki* existitzea da, hau da, horiek badutela [nabarmenki] halabeharrez

horrelakoak izatea nahi duen kausa bat, eta kausa horregatik diren bezalakorik existitzen dira. Horra hor Aristotelesek frogatu eta uste duena. Baina berez jaioak ez direlako, hortik nahitaez segitzen ote den asmo eta nahimen aske baten ondorio direla, ez zait iruditzen Aristotelesek hori uste zuela frogaturik dagoenik; alabaina, halabeharrezko existentzia eta asmo eta borondate batengatiko jaiotza elkarrekin batzea, biak gauza bera eta bakarra eginez, hori aurkako bi gauza batzea bezalatsuko zerbait iruditzen zait. Izan ere, Aristotelesek onartzen zuen *halabeharraren* ideia honako hau da: izakietan arteaz egina ez den orok nahitaez kausa bat dauka, bera den bezala sortu eta eratu duena; kausa horrek bigarren kausa bat dauka, beronek hirugarren bat, horrela jarraikiz, harik eta Lehen Kausagana heldu arte, horrengandik izaki oro etorritz, infiniturainoko [kausen] katea ezin onartuzko litzateke eta. Baina, horregatik, ez du uste munduaren existentzia halabeharrez Sortzailearengandik datorrenik, erran nahi baitut, Lehen Kausarengandik, itzala gorputzetik, beroa sutatik edo argia Eguzkitik heldu den bezala, haren hitzak ulertzen ez dituztenek hartaz dioten bezala. Aitzitik, berak uste du delako halabehar hori adimenetik helduriko adigarria bezalako zerbait dela, adimena adigarriaren eragilea izanik, adigarria den heinean⁴⁵; izan ere, haren (= Aristotelesen) aburuz, Lehen Kausa hori izatearen maila goren eta osamaitueneko adimen bat da. Baina Jainkoak berari dariona *nahi duela*, eta horretan poz eta atsegina⁴⁶ sentitzen duela esan arren, eta Hark ezin zezakeela aurkakoa nahi ukan, horri ezin dakioke *asmoa* deitu, eta ez da hor asmoaren kontzeptua ageri. Alabaina, gizakiak bi begi eta bi esku ukan nahi ditu, eta horretan poz eta atsegina hartzen du; baina banako horrek bi begi eta bi esku baldin baditu, hori ez da [berarengandik helduriko] asmo batengatik, ez eta berak bereziki itxura hori eta halako egintza batzuk nahi dituelako ere. *Asmoaren* eta *erabakitasunaren* ideiak, soil-soilik, hauei aplikatzen zaizkielako, hots, oraindik existitu ez baina, proiektatu edo erabaki den bezala, existi daitezkeen edo ez daitezkeen gauzei. Ez dakit nik azken aldiko filosofoek Aristotelesen hitzak ulertu ote dituzten, gauzek halabeharrez kausa bat dutela dioenean, *asmoaren* eta *erabakitasunaren* esanguran; ala, bestetik, beraiek ote diren asmo eta erabakitasunaren iritzia nahiago ukan dutenak, hori [munduaren] betierekotasunarekin kontraesanean ez dagoelakoan. Eta azalduriko honen ondoren, azken aldiko filosofoen iritziaz arituko naiz.

⌘ HOGEITA BATGARREN KAPITULUA

[Azken aldiko filosofo batzuen iritzia errefusatzan]

Jakizu munduaren betierekotasunari atxikiriko azken aldiko filosofoen artean, badirela Jainkoa (gorets bedi!) munduaren eragilea dela diotenak, haren existentzia nahiago baitzuen [haren ez-existentzia baino], hura asmoz egin duela eta den bezalakoa erabaki duela, baina ezin onar daitekeela hori halako denbora [jakin] batean gertatua izatea, eta ez beste edozein denboratan, eta, aitzitik, hori beti horrela izan dela eta horrela izanen dela. Eragile batek, denboran bere egintza baino lehenagokoa izan gabe, zerbait egitea ezin pentsatuzkoa bihurtzen diguna hauxe da, guk geuk zerbait egiten dugunean, nahitaez horrelaxe izatea, era horretako eragile orotan nolabaiteko *gabetzea* gertatzen da: [lehenik] ahalmenezko eragilea eta, behin aritu eta gero, egitera iragaten da. Baina Jainkoa (gorets bedi!), zeinengan ez baita inolako gabetzerik, ez eta ahalmenean dagoen deusik ere, ez da bere egintza baino lehenagokoa; aitzitik, ez dago inoiz aritzeke, eta Haren esentziaren eta gurearen artean ezberdintasun ikaragarria dagoen bezala, era berean, Haren egintzaren eta Beraren arteko harremana ere ez da gure egintzaren eta gure artekoa bezalakoa. Arrazoiketa bera egiten dute *erabakitasunaren* eta *nahimenaren* gainean ere, ez baitu deus balio zerorrek esateak *egilea*, edo *nahi duena*, edo *asmoz diharduena*, edo *nahiago du* edo *erabakitzen du*, hitz horiek guztiek esanahi bera daukate eta. Ezin onartuzkoa da, oraindik esaten dutenez, haren egintza edo haren nahimena aldakorra izatea, jada azaldu dugun bezala⁴⁷.

Beraz, argi dago zuretzat, ene tratatu honen irakurleori! horiek *halabeharra* hitza aldatu dutela, horren esangura gorde arren. Agian horrela adierazpen ederragoren bat aurkitu nahi zuten, edo hortik hitz itsusiren bat saihestu. Izan ere, unibertsoa bere kausarekin –hau da, Jainkoarekin, Aristotelesek dioenez–, eta hura horren betikotasunaren partaide dela esaten baldin bada, hori mundua Jainkoaren egintzatik, edo Haren asmotik, haren nahimenetik, haren aukeratik eta erabakitik [egina dela] diotenean, [bietan] ideia bera da; baina hori beti den bezala izan da, eta halaxe ere izanen, inolako zalantzarik gabe Eguzkiaren jaikiera egunaren *eragilea* den bezalaxe, denboraz bata bestea baino lehenagokoa izan gabe. Ez da hori baina, guk dakusagunez, asmoaz

dugun ideia; aitzitik, guk horrekin erran nahi dugu mundua ez dela halabeharrez Jainkoarengandik (gorets bedi!) jalgia izan, ondorioa bere kausari darion bezala, horrengandik erabat bereizezina izanik, halako punturaino non hura ezin alda baitaiteke kausak berak aldaketarik ukan gabe, edo [gutxienez] bere baldintzaren batekiko aldatu gabe. Asmoaren ideia honela uler dezazunean, ezagutuko duzu noraino den faltsua mundua Jainkoaren existentziaren halabeharreko ondorea dela esatea, ondorioa kausarena den bezala, eta jakinen duzu Jainkoaren egingtza [aske] batetik edo haren *erabakiz* [existentzen dela].

Gai hau honela erakutsi eta gero, zeruan den askotarikotasun hori arakatzera gatoz, frogatua denez, halabeharrez kausa bat duena; eta [galde egiten dugu] ea kausa horrek, bere existentziagatik beragatik, ezarri eta beharrezkoa egin duen askotarikotasun hori, ala [kausa] hori askotarikotasun horren eragilea ote den eta berori erabaki ote duen, guk, Moises gure maisuaren (bakea bego harekin!) jarraitzaileok, uste dugun erara. Horri geroago erantzunen diogu, aitzinetik aurre-ohar bat egin ondoren, horrekin Aristotelesekin onartzen duen *halabeharraren* adiera azaltzeko, zerorrek horren ideia ukan dezazun, eta berehala munduaren berritasunaren iritziari nik neuk diodan hobespena azalduko dizut, arrazoiketa faltsuetatik garbi dauden espekulazio eta filosofiazko argudioez baliatuz.

Hark lehen Adimena halabeharrez Jainkoarengandik heldua dela baldin badio, bigarren Adimena lehenetik, eta hirugarrena bigarrenetik, eta, era berean, esferan Adimenen jariatzen direla uste badu, eta ordena ongi jakin hori, horri buruzko pasarteetan zuk jada ikasia eta guk hemen laburki azaldua [aldarrikatzen badu], argi dago ez duela horrekin esan nahi gauza hori aurretik existitu dela, eta ondoren horretatik beste gauza bat jaioa dela, haren halabeharrezko ondorioa izanik, ez baitu gauza horietako ezeinen *jaiotzea* onartzen. *Halabeharrezko ondorioa* berbarekin *kausalitatea* besterik ez du adierazi nahi, erran balu bezala: Lehen Adimena bigarren Adimenaren existentziaren kausa da, berori hirugarrenaren existentziaren kausa, eta horrela hurrenez hurren; eta gauza bera da esferez eta lehen materialiaz dioenaz, gauza horiek guztiok ez baitira batzuk besteak baino lehenagokoak eta ez dira inola existitzen, haren aburuz, batzuk besteak gabe. Hori da, esaterako, norbaitek erran baleza bezala *lehen nolakotasunetatik* halabeharrez laztasuna, leuntasuna,

gogortasuna, biguntasuna, loditasuna eta aroltasuna heltzen direla, ez baitu inork dudarik egiten horiek [lehen nolakotasunak], erran nahi baitut, berotasuna, hoztasuna, hezetasuna eta lehortasuna direla, hain zuzen, laztasuna, leuntasuna, gogortasuna, biguntasuna, loditasuna, aroltasuna eta beste antzeko batzuk jaioarazten dituztenak, eta beroriek halabeharrez lehen nolakotasunei jarioak direla, nahiz eta ezinezkoa den, lehen nolakotasunak edukiz, bigarren mailakorik gabeko gorputz bat izaterik. Horrelaxe dio, halaber, Aristotelesekin unibertsoaz, oro har: halako gauza bat halabeharrez beste bati jarioa dela, harik eta Lehen Kausara heldu arte, bera mintzo den bezala, edo Lehen Adimenera, edo zerorrek nolanahi deitzen diozunera. Guztiok hastapen bera eta bakarra dugu gogoan; berak, aldiz, uste du [hastapen horretatik] landa dagoen oro Haren *halabeharrezko* jariapena dela, esan dizudan bezala. Baina guk diogu Jainkoa dela gauza horiek guztiak egin dituen, asmoz eta unibertso hau nahi ukanez, aurretik existitu gabea, orain Jainkoaren nahimenak (gorets bedi!) existiarazi duena.

Eta orain, datozen kapituluetan, mundua sorrarazia delako iritzia hobestera naramaten frogak agertuko ditut.

כב HOGEITA BIGARREN KAPITULUA

[Zailtasunak errefusatzeko segitzen du. Beroriek desagertu egiten dira Jainkoak mundua sorrarazi duelako ideien aurrean]

Bada baiespen bat, bai Aristotelesekin eta bai gainerako filosofoekin ere aho batez onartua: gauza bakunari ezin jario dakiokela gauza bakuna besterik. Gauza osatua baldin bada, gauza batzuk jario dakizkioke, bere baitan dauzkan eta bera osatzen duten gauza bakunen kopuruaren arabera. Sua, adibidez, bi [lehen] nolakotasunez osatua izanik, berotasuna eta lehortasuna, hortik segitzen da bere berotasunaz berotu eta bere lehortasunaz lehortu egiten duela. Halaber, materiaz eta formaz osaturiko gauza bati, osaera anizkuna badu, bere materiaren aldetik gauza asko jario dakizkioke, eta beste asko bere formaren aldetik ere. Baiespen honen arabera, Aristotelesekin dioenez, Jainkoagandik ez da Adimen bakarria baino jariapen gehiago izan.

Bigarren baiespena: Edonolako gauza bat ezin hel daiteke ustekabeen beste edonolako gauza batetik, baina beti halabeharrezkoa

da kausa eta bere ondorioaren artean nolabaiteko harremana izatea. Akzidenteak berak ezin daitezke batzuk besteetatik zoriaren arabera jalgi, hala nola zenbatekotasuna nolakotasunetik, edo nolakotasuna zenbatekotasunetik. Era berean, forma ezin dakioke materiari jario, ez eta materia formari ere.

Hirugarren baiespena: Asmoz eta nahimenaz, eta ez bere izaeraz, diharduen eragile orok egintza ugari eta ezberdinak egin ditzake.

Laugarren baiespena: Elkarren ondoan jarritako substantzia batzuek osatuak *osaketa* egiazkoagoa dauka, askotariko substantzia elkarrekin nahasiez osatuak baino. Horrela, konparazione, hezurrak, haragia, zainak edo nerbioak bakunagoak dira eskuaren edo oinaren multzoa baino. Hori argiegia da, eta ez du zeresan gehiagorik behar.

Aurretiko hauen ondoren, erranen dut ezen Aristotelesek baldin badio lehen adimena bigarrenaren kausa dela, bigarrena hirugarrenarena, eta horrela gainerakoak, hor milaka maila izan arren, adimen horietarik azkena zalantzarik gabe bakuna izanen dela. Hortaz, nondik etor daiteke *osaketa*, Aristotelesen aburuz, [beheko] izaki hauetan halabeharrez gertatzen dena? Harekin bat gatoz berak dioenean ezen Adimenak [Lehen Kausatik] urruntzen diren neurrian, haietan are ideia-osaketa handiagoa aurkitzen dela, haien adigarriak gero eta ugariagoak izanez. Baina uste irizgarri hori harekin onetsiz ere, nola liteke adimenak esferen kausa bilakatzea, haiei jarioak izanez? Zer harreman da esferen materiaren eta Adimen banatuaren artean, berori erabat materiagabea izanik? Eta esfera bakoitzak kausatzat Adimen bana duela ontzat emanik ere, berak esan duen bezala, adimen hori, berak bere baitan pentsatzen duenaz eta beragandik landa dagoenaz, *osaturik* dagoenez gero, –halako moldez non, nolabait, bi elementuz osatua baita, bata beraren azpian dagoen beste adimena, eta besteak esfera eginez–, oraindik galdera hau egin dakioke: Gauza honek, bat eta bakuna izanik, zeini [zerorren ustez] esfera darion, nola ekoitz dezake esfera, bi materiak eta bi formaz osatua baldin badago, hots, [alde batetik] esferaren materiak eta formaz eta [bestetik] esferan finkaturiko argizagiaren materiak eta formaz, alegia? Hortaz, hori guztiori halabehararren bidez gertatzen bada, adimen osatu honetan, era berean, bi atalez

osaturiko kausa bat dela pentsatu beharko genuke nahitaez: bata, esferaren gorputza egin duena, eta bestea, argizagiaren gorputzaren egilea. Are gehiago, argizagi guztien materiak bat eta bera izan beharko luke, baina gerta liteke izar distiratsuak substantzia berezizkoak izatea, eta izar lainotsuak, aldiz, bestelako substantziaz eginak. Edonola ere, gauza jakina da gorputz oro bere materialaz eta formaz osatua dela.

Beraz, argi dago gauzak ez direla gertatzen halabeharraren bidez, berak dioenez, eta esferen mugimenduen ezberdintasunak ez duela zerikusirik beren hurrenez hurreneko ordenarekin ere, batzuk besteen azpian, ikuspegi horretatik *halabeharraren* sistema, lehen aipatu duguna, onartu behar izateko. Baina bada oraino beste gauza bat, gauza fisikoei buruz ezarritako guztia zapuzten duena, zeruko esferaren egoera kontsideratuz gero. Esfera guztien materia *bat* baldin bada, zergatik halako esfera baten forma ez da halabeharrez garraiatzen beste halako baten formara, hemen, Ilargipeko gauzeekin gertatzen den bezala, materiaren gaitasunagatik? Zer dela eta halako forma dago beti halako materia [jakin] batean, orok materia komuna badu? Salbu, Jainkoarren! esfera bakoitzak besteena ez bezalako materia ezberdin bana daukala esan nahi ez bada, eta horrela mugimenduaren forma ez litzateke gehiago froga bat materiaren [batasunerako], hortik hastapen guztiak buruz behera utzirik. Gainera, argizagi guztien materia bat baldin bada, zertan bereizten dira horien banakotasunak, formetan ala akzidenteetan? Baina, bi hipotesi horietarik edozein harturik ere, beharrezkoa litzateke forma edo akzidente horiek, hurrenez hurren, argizagi guztietara banan-banan garraiatzea, materiaren gaitasuna ukatu nahi ez bada behintzat. Hortaz, horrekin ulertuko duzunez, *esferen materia* edo *argizagien materia* erraten badugu, hori ez da hartu behar Ilargipeko materia honen adiera berean, hori homonimia bat besterik ez baita, zeruko gorputz horietako bakoitzak bere existentzia berezia daukalako, gainerakoena ez bezalakoa. Baina, orduan, nola gertatzen da esferek mugimendu zirkular komuna ukaitea, argizagien finkotasunaren aurrean? Halere, onartzen baldin badugu hori guztiori asmoz diharduen izaki baten nahiagatik gertatzen dela, horren Jakinduria ulertezinak eskatu bezala oro erabaki duenagatik, ezin dakiguke galdera horietako batere egin, oro *halabeharragatik*, eta ez nahimen

askeaz, gertatzen dela diotenei egin dakizkiekeen bezala. Baina azken iritzi hori ez dator inola ere bat unibertsoaren ordenarekin, eta ez dago horri atxikitzeko batere arrazoirik ez eta froga nahikorik. Eta ondorioz horri gauza txit sinesgaitzak darraizkio; izan ere, Jainkoak (gorets bedi!), pertsona adimentsu orok era guztietako betegintzaz hornituztat aitoritzen duenak, izaki guztien antolakuntzari buruz, ezingo luke inolako berrikuntzarik egin, eta euli baten hegoa luzatu edota zomorro baten hanka laburtu nahiko balu, ezingo luke egin. Baina Aristotelesek horretaz erranen du Jainkoak ez duela nahi bestela izaterik, eta, gainera, ezin onartuzkoa litzatekeela Hark hori bestelakoa izan ledin nahi ukaitea; hori ez litzateke Hari betegintza handiagorik egozte, eta, aitzitik, ikuspegi batzuetatik akatsa ere izan liteke.

Gizon sutsu askok haien hitzak ez ulertzea aurpegiratuko didaten arren, edo berariaz haiengandik hasantzen naizela, halere ez naiz horregatik isilduko, neure adimen ahularen arabera hartu eta ulertu dudana adierazi gabe, eta, oro har, erranen dizut Aristotelesek Ilargiaren esferapean, Lurraren erdiguneraino, den guztiaz erakutsi zuen guztia, zalantzarik gabe, egia dela, eta inor ez da hortik aldunduko, hura ulertzen ez duena ez bada, edo buruan dauzkan aldezt aurretiko iritziei nola edo hala atxiki nahian dabilena, gauza ageriak ukatzeraino helduz. Baina Ilargiaren esferatik gora, Aristotelesek dioen guztiak, gauza bat edo beste salbuetsirik, aieru hutsa dirudi, eta are arrazoi handiagoaz adimenen ordenaz aipatzen duenak, bai eta metafisikan, frogatzeke baina, onartzen dituen iritzi batzuek ere, hor gauza sinesgaitz ugari izanik, ageri-ageriko errakuntza nabarmenak, nazioen artean hedatuak, eta barreiatu diren beste doktrina kaltegarri batzuk ere bai.

Ez naute zertan kritikatu behar haren iritziari datxezkion zalantzak erakutsi ditudalako. Erranen didazu: Baina ba al dago zalantzen bitartez iritzi bat puskatzerik, edo aurkakoa ezartzerik? Egia esateko, ez; baina gu filosofo horrekin ari gara haren segizikiokoek berorrekin jarduteko gomendatu duten bezala. Izan ere, Alexandrok ongi ezarririk utzi zuen, zerbait frogagarria ez denean, hartaz [hurrenez hurren] elkarren aurkako bi hipotesi jarri behar direla, haietako bakoitzari datxezkion zalantzak ikusi, eta zalantzarik gutxien dituen onartu. Hori gertatzen da –dio Alexandrok–,

iritzi metafisiko frogaezin batzuez Aristotelesek adierazten duen guztiarekin; Aristotelesen ondoan etorririko guztiek aitortu baitute Aristotelesek esandakoak zalantza gutxiago sortzen dituela, horretaz esan daitekeen guztiak baino. Eta horixe bera egin dugu geuk ere; zerua jaioa ala betierekoa jakiteko galderan, elkarren aurkako bi hipotesi horietarik bat ere ezin froga zitekeela etsirik egon ondoren, eta iritzi bietako bakoitzari datxezkion zalantzak plazaratu eta gero, argi erakutsi dizugu munduaren betierekotasunaren iritzia dela zalantzarik gehien sorrarazten dituen, eta oso arriskugarria dela Jainkoaz (gorets bedi!) eduki behar den sineskerarako. Horri erantsiz, derragun munduaren *berritasuna* Abraham gure aitaren eta Moises gure profetaren iritzia dela.

Eta iritzia [barruan dauzkaten] zalantzen bitartez arakatu behar direla erran dugunez, uste dut horretaz xehetasun batzuk argitu behar dizkizudala.

✞ HOGITA HIRUGARREN KAPITULUA

*[Aurkako hipotesien aurrean buruak, aurreusterik gabe,
eduki behar duen jarrera egokia]*

Jakizu, halako iritzi bati datxezkion zalantzen eta aurkako iritziari datxezkion arteko konparazioan, zalantza gutxien sorrarazten dituen hobesteko, ez da kontuan hartu behar zalantza kopuru handiena, horien sinesgaiztasunaren garrantzia eta izakiaren izaeran aurkitzen diren zailtasunak baizik. Hortaz, gerta daiteke era horretako zalantza bakar batek garrantzi handiagoa edukitzea bestelako milaka zalantzak baino.

Ondorioz, konparazio hau, probetxuz ezarri ahal izateko, aurkako hipotesi biak berdin balioesten dituenak egin beharko du; baina norbaitek, bere hezieragatik edo edonolako interesagatik, alde aurretik iritzi horietako bat nahiago balu, halakoa egiarako itsu legoke. Egia da, gizaki kartsua ere ezin daitekeela jo eta ke itsuki ari frogagarriaren aurka; baina era horretako gauzetan maizegi gertatzen da burugogorkeria agertzea. Batzuetan, nahi baduzu, zeure karra erantzi ahal duzu, zeure ohitura alde batera utzi, oinarria soilki espekulazio hutsean hartu, eta aukeran hobespena merezi duena

besterik ez hobestea; baina horretarako, baldintza batzuk konplitu behar dira. Lehenengo eta behin, zeure adimenaren ahalmena eta zeure berezko gaitasunaren helmena neurtzen jakitea; eta horretarako, zientzia matematiko guztiak ikasten eta logikaren erregelak ulertzen saiatu beharko duzu. Bigarrenik, zientzia fisikoak jakin eta horietan sakondu, zalantzazko puntuez ongi jabetzeko. Hirugarrenik, zeure moralara zaindu, gizaki batek, dela bere izaera naturalagatik, dela harturiko ohituraren bategatik, nahikeria eta atseginetara makurturik dagoenean, indarkeria eta kolerara emana denean, bere haserrearen indarra hartzen uzten dienean, horren brida lasaiturik, noranahi doala, urrats baldarrez irrist egin eta behaztopatuko baita beti, bere berezko joeraren aldeko iritzien bila.

Honetaz ohartarazi nahi zaitut, inork liluraraz ez zaitzan; izan ere, gerta daiteke egunen batean norbaitek zu okerrera eramatea, munduaren berritasunaren aurkako dudak sorraraziz, eta hari errazki engaina zaitzan utzirik, erlijioa bere oinarrian zulatzen duen eta, Jainkoarekiko, heresia bat aldarrikatzen duen iritzi bat onartzen duzularik. Beraz, izan zaitez beti zuhur gai honen gainean, eta zarraizkie bi profeta horiei⁴⁸, giza leinuaren sineskera eta gizarte-bizitzari dagokionez, hobetze-zutabe direnei. Ez duzu munduaren berritasunaren iritiztik aldendu behar, frogaketa bidez ez bada; baina hori ez da naturan kausitzen.

Tratatu honen irakurleak ez nazala kritika, munduaren berritasunaren iritzia indartzeko, hemen bokantza handiko hizlarien hitzez baliatu banaiz; izan ere, filosofoen printzea den Aristotelesek berak ere, halaber, bere izkribu nagusietan erretorikaren baliabideak erabili ditu, horrela bere iritzia munduaren betierekotasunaren alde sustengatzeko, eta kasu horretan honako hau egiaz esan daiteke: «Gure lege osamaituak ez ote ditu haien apaundurak merezi? (*Baba' Batra'* 115 b). Hark bere iritzia Sabearren erokeriekin⁴⁹ bermatzen badu, nola ez dugu geurea Moises eta Abrahamen hitzetan oinarrituko, eta horien jarraitzaile guztiengan?

Kapitulu bat agindu nizun⁵⁰, hor azaltzeko nolako zalantza larriak jar dakizkiokeen giza zientziak zeruko esferaren mugimenduen ordenaren kontua eman dezakeela uste duenari, horiek halabeharrezko lege batez, ordena eta kateaketa argiak dituenaz, heltzen diren fenomeno fisikoak direlakoan. Orain bada, hori azaltzera natorkizu.

75 HOGEITA LAUGARREN KAPITULUA

[Zeruko esferen mugimenduak ikertzeko zailtasunaz]

Astronomiari dagokionez, badakizkizu *Almagesto*⁵¹ liburuaren edukietatik ene ikasgaietan, irakurri eta ulertu dituzunak; baina ez dugu denborarik ukan bestelako ikasketetan hasteko⁵².

Honezkero badakizu mugimenduen erregularitasunaz konturatzeko eta argizagien ibilera fenomeno ikusgaiekin bat etor dadin hipotesi bi hauetako bat onartu behar dela, epiziklo bat edo esfera exzentriko bat, edo biak batera. Baina azpimarratu nahi dizut hipotesi bi horietako bakoitza erregela orotarik landa eta zientzia fisikoak irakasten duenaren aurka dagoela. Lehenengo eta behin, halako esfera baten inguruan biraka dabilen epiziklo bat, ezartzean, berori daraman esferaren zentroaren inguruan biratu gabe, ilargirako eta bost planetetarako uste izan denez, horrek nahitaez *errotazioa* dakar aldean; hau da, epizikloa birika eta etengabeki lekuz aldatzen ari dela, gauza erabat onartezina eta saihestu nahi izan dena, hau da, badela han (= zeruan) lekuaz aldatzen den zerbait. Hori dela eta, *Abū Bakr ibn Al-Sa'ig*-ek, astronomiaz egin zuen hitzaldi batean, epizikloaren existentzia ezin onartuzkoa dela esan zuen; eta aipaturiko [errotazioaren] ondorioaz mintzatu ondoren, epizikloaren existentziatik letorkeen gauza onartezin horrez gainera, ezin onartuzko beste ondorio batzuk ere letozkeela adierazi zuen. Ondoan azalduko dizkizut: 1) Itzuli bat legoke mundu honena ez den zentro baten inguruan, eta, halere, unibertso honen funtsezko hastapen baten arabera mugimenduak hiru dira: erditik abiatzen den mugimendua, beste bat erdirantz doana eta beste bat erdiaren inguruan. Baina, epiziklo bat balitz, horren mugimendua ez litzateke eginen ez erditik, ez bertarantz ez eta haren inguruan ere. 2) Aristotelesekin zientzia fisikoan ezarritako hastapen baten arabera, beharrezkoa da, nahitaez, zerbait finko egotea horren inguruan mugimendua izan dadin, eta horregatik beharrezkoa da Lurra finko egotea; baina epizikloa existituz gero, hori mugimendu zirkular bat litzateke, zerbait finkoren inguruan ez lebilkeena.

Aditua dut *Abū Bakr*-ek bazioela halako sistema astronomiko bat aurkitua zuela, epiziklorik gabea, eta hor guztia

soil-soilik esfera exzentrikoen bitartez azaltzen zela; halere, ez dut hori haren dizipuluaren ahotik behin ere entzun. Edonola ere, aurkitu balu ere, ez zukeen horrekin gauza handirik irabaziko, exzentrikotasuna ere Aristotelesek ezarritako hastapenetatik urruntzen baita, eta ez dago horiei deus eransterik. Eta ohar hori enea da. Izan ere, exzentrikotasunean ere, esferen mugimendu zirkular bat aurkitzen dugu, unibertsoaren erdiaren inguruan egiten ez dena, munduaren zentrotik aldentzen den irudimenezko puntu baten inguruan baizik; eta hori ere zerbait finkoren inguruan ez dabilen mugimendua litzateke. Egia da astronomian jakintzarik ez dutenek erakutsi nahi dutela, irudimenezko puntu horiek, lehen begiratuan lirudikeenez, Ilargiaren esferaren barruan direnez gero, exzentrikotasunak ere unibertsoaren erdiaren inguruko mugimendua onartzen duela; eta gogoz onartu nahi genieke mugimendua sutan edo airean aurkitzen den puntu baten inguruan egiten dela, hori zerbait finkoren inguruko mugimendua ez litzatekeen arren. Baina azaldu behar diegu exzentrikotasunen neurriak jada *Almagestoan* frogatuak izan direla, hor onartu diren hipotesien arabera; eta azken aldiko filosofoek egiazko frogaketaz, zalantza izpirik gabe, exzentrikotasun horien neurria, Lurraren diametro-erdiarekiko, zein den erakutsi dute, gainerako [argizagien] distantziak eta handierak ere ezarri dituzten bezalaxe. Horren ondorioz, argi gelditu da Eguzkiaren errotazioaren puntu exzentrikoa halabeharrez Ilargiaren esferaren ahurtasunetik landa dagoela eta Merkurioren esferaren ganbeltasunaren azpian. Era berean, Marte biratzen deneko puntua, erran nahi baitut, haren esfera exzentrikoaren zentroa, Merkurioren esferaren ahurtasunetik at eta Artizarraren esferaren ganbeltasunaren azpian aurkitzen da. Halaber, Jupiterren exzentrikoaren zentroa distantzia berorretan aurkitzen da, hau da, Merkurioren eta Artizarraren esferen artean. Saturnori doakionez, haren exzentrikoaren zentroa Marte eta Jupiter artean kokaturik dago. Badakusazu, beraz, eztabaida hauek guztiok espekulazio fisikotik zeinen urrun diren! Hori guztiori argi geldituko zaizu esfera eta argizagi bakoitzerako jakiten diren distantziak eta handierak ikas ditzazunean; eta horren balioespena Lurraren diametro-erdiaz egiten da, eta horrela guztia proportzio berean kalkulatzeko, bestelakorik ezarri gabe exzentrikotasunaren eta esfera bakoitzaren artean.

Baina bada zerbait bitxiagorik ere, edo, hobeki esateko, ilunagorik: bi esfera, bata bestearen barruan direnean, alde guztietatik bata bestean sarturik baina bakoitzak zentro bana duela, txikia handiaren barruan mugi daiteke, horregatik handia ere mugitu gabe, baina ezinezkoa da handia bere edozein ardatzen gainean mugitzea txikia ere mugitu gabe, eta horrela, handia mugitzen den aldi guztietan, bere mugimenduarekin txikia ere eramaten du, mugimendua zentro bietatik iragaten den ardatzaren gainean egiten denean izan ezik. Hortaz, baiespen frogagarri honengatik, hutsa ez dela existitzen frogatu izan delako arrazoiagatik eta, azkenik, exzentrikotasunaren hipotesiagatik, hortik nahitaez segitzen da, esfera nagusia mugitzean, bere barruan daukan txikiagoa ere mugimendu berberaz eta bere ardatzaren inguruan mugitu behar dela. Eta halere, ez dugu aurkitzen hori horrela gertatzen denik, baina, aitzitik, aurkitzen duguna honako hau da, esfera biotatik, bata edukitzaile eta bestea edukia, bat ere ez dela mugitzen ez bestearen mugimenduarengatik, ez azken horren zentroaren inguruan, ez berorren poloen inguruan ere, eta zeinek bere mugimendu berezia duela. Horrexegatik onartu behar izan da, bi esferen artean badirela gorputz batzuk, esferetakoak (= planetak) ez bezalakoak. Baina, zenbat iluntasun ez lirateke hor geldituko, hori egiazki horrela balitz! Non koka litezke, ustez, esfera pare bakoitzaren artean liratekeen gorputz horien zentroak? Eta gorputz horiek ere mugimendu berezia ukan beharko lukete. *Jada Ṭabīt (Ibn Qurra)*-k tratatu berezi batean hori erakutsi du, eta, esan dugunaren arabera, frogatu ere bai, esfera pare bakoitzaren artean gorputz esferiko bana onartu beharra dagoela. Ez dizut hau guztiau azaldu, ene ikastaldiak hartzen zenituenean, ulertarazi nahi nizun helburuan zu ez nahastearren.

Artizarraren eta Merkurioren latitudeari buruzko *makurtasun* eta *zeihartasunaz* den bezainbatean, ahoz eta argi erakutsi dizut ezinezkoa dela pentsatzea horrelako zerbait nola existi daitekeen [zeruko] gorputz horietan. Ptolomeok argi aitortu zuen zailtasun hori, zerorrek ikusi duzunez, hitz hauekin mintzatuz: «Inork ez dezala pentsa hastapen hauek eta antzeko beste batzuk zailtasunez gerta daitezkeenik, hemen, arterioz eta nekez bete daitezkeen sotiltasun bihurriez lorturiko gauzatzat aurkeztu duguna kontuan izanik; ez baita giza mailako gauzak eta jainkozkoak

elkarrekin konparatzerik⁵³. Horiexek dira haren hitzak, zerorrek dakizun bezala.

Seinalatuak dizkizut jada erran dizudan guztia egiaztatzeko tokiak, exzentrikoen zentroak diren puntu horien behaketaz erran dizudana salbuetsirik, non kokatzen diren jakiteko, ez baitut inoiz autore bat kausitu horretaz arduratu denik. Baina hori argi geldituko zaizu esfera bakoitzaren diametroaren neurria jakin dezazunean, hori bi zentroen arteko distantzia baita, Lurraren diametro-erdiarekiko, *Al-Qabīṣī-k Distantzien Tratatuan* frogatu duenez, eta distantzia horiek aztertzean konturatuko zara azpimarratu dizudanaren egiaz.

Ohar zaitez, beraz, hau guztiau noraino den ilun. Eta Aris-totelesek zientzia fisikoa dioena egia baldin bada, ez dago epiziklorik ez exzentrikorik ere, eta oro Lurraren zentroaren inguruan ari da biraka. Baina, orduan, nondik letozkieke planetei mugimendu ezberdin horiek guztiok? Posible al da, nolabait, mugimendua erabat zirkularra eta berdina izatea, eta, aldi berean fenomeno ikusgaiei erantzutea, hori hipotesi bietako batekin edo biekin batera [azalduz] ez bada? Are gehiago, Ptolomeok Ilargiaren epizikloaz eta munduaren zentrotik eta are [zirkulu] exzentrikoaren zentrotik ere landa den puntu baterantz duen desbideratzeaz dioena ontzat hartuz gero; hipotesi horien arabera eginiko kalkuluak ez dira minutu batez ere okertzen, eta horien egia eklipseen errealitateaz berresten da, beti ere hipotesi horien bitartez kalkulatuak, berorien arabera haien [gertatzeko diren] garaiak, denborak eta ilunduraren neurriak ere finkatuz. Eta nola pentsa liteke, bestalde, planeta baten [jtxurazko] atzeramailaketa, haren beste mugimenduekin, epizikloaren hipotesirik gabe? Nola, azkenik, burura daiteke badela han (= zeruan) biraketa edo mugimendu bat finkoa ez den zentro baten inguruan? Eta hor egiazko alderraitasuna datza.

Ahoz azaldua dizut jada hori guztiori ez dagokiola astronomoari, ez baita horren zeregina esferak nolako formaz existitzen diren jakinaraztea; aitzitik, duen xedea halako sistema bat erakustea da, horren bidez mugimendu zirkularrak, beti-batekoak eta ikusmenaz hautematen denarekin bat datozenak onartzea posible izanez, errealitatea horrela izan edo ez. Badakizu *Abū Bakr ibn Al-Ṣā'ig*-ek, fisikaz eginiko hitzaldian, duda hori adierazi zuela: Ea Aristotelesek zeruaren exzentrikotasuna ba ote zekien, eta, hura isilpean gorde,

soilik *makurduratik* heltzen denaz arduratuz, exzentrikotasunaren ondorioak ez baitu ezberdintasunik makurdurarenarekin, ala ez ote zekien. Egia esateko, jakin, ez zekien, eta ez zuen horretaz inoiz mintzatzen ere entzun, haren garaiko zientzia matematikoak akastunak zirelako. Entzun balu, segur aski gogorki gaitzetsiko zukeen; eta seguratu balitzaio, erabat alderrai geratuko zatekeen, gai horri buruz berak ezarririkoa kontuan izanda. Lehenago erran dudana, hemen errepikatzaera noa: Aristotelesek Ilargipeko gauzez esandako guztiak lotura logikoa dauka; horiek kausa ezaguneko gauzak dira, eta batzuk besteetatik deduzitzen dira, eta jakinduriak eta Natura aurretik zuhurki ezagutzeak hor duten tokia ageri eta nabaria da. Zeruan den guztiaz, gizakiak ez daki horretaz deus, teoria matematiko gutxi batzuk ez bada, eta zerorrek badakusazu hori zer den. Eta poesiazko hitzez baliatuz erranen dut: «Zerua Jaunarena da; Lurra, berriz, Adamen haurren esku utzi du» (Sal 115,16), hau da, Jainkoak ez bestek dakizki zeruaren egiazko izaera, horren substantzia, horren forma, horren mugimenduak eta horren kausak; baina zerupean den bezainbatean, gizakiari hori ezagutzeko ahalmena eman zion, hori bere mundua baitu, bera jarria izan zen egoitza, eta horrexen atala bera ere bada. Eta egia, hori da, ezinezkoa gertatzen baitzaigu zeruaz arrazoitzeko behar diren elementuak ukaitea, hura (= zerua) guregandik hain urrun eta goregia izanik bere leku eta mailagatik; eta hortik atera daitekeen froga orokorra bera ere, hots, berak bere Mugiarazlearen existentzia frogatzen digula, hori jakitera ere giza adimenak ezin dira heldu. Baina burua nekatzea bere helmenetik haragoko gaiekin, horraino iristeko tresna egokirik ere duelarik, zentzu onik eza eta nolabaiteko eromena litzateke. Gauden bada geure ahalmenean dugunari adi, eta arrazoimenak ezin hartzekoa utz diezaiogun Jainkoarengandiko iradokizun gorena jaso zuenari, hartaz hau esatea merezi ukan zuenari: «Ahotik ahora hitz egiten diot» (Zkiak 12,8).

Hauxe da gai honetaz erraten dakidan guztia; litekeena da, baina, beste norbaitek frogaketaren bat ukaitea, enetzat ilun egon den egia agerian jarriko diona. Egiari egin diezaiokedan omenaldirik handiena hauxe da, gai horiekiko neure alderraitasuna adieraztea, eta horietako bakar baterako ere, argi eta garbi aitortu, ez dudala entzun, ez jakin, batere frogaketarik.

𐌆𐌿 HOGEITA BOSGARREN KAPITULUA

[Munduaren betierekotasunaren teoriari buruzko gogoeta batzuk.

Ex nihilo-zko sorrera]

Jakizu ez dugula munduaren betierekotasuna saihesten. Legearen testuak mundua sortu dela aldarrikatzen duelako; munduaren berritasuna adierazten duten testuak ez baitira ugariagoak Jainkoaren gorpuztasuna aipatzen dutenak baino. Munduaren berritasunari buruz, gainera, alegoriazko ulerkerak egiteko biderik ere ez genuke faltako, eta horiek ez litzaizkiguke debekatuko; aitzitik, hemen ulertarazteko era hori erabil genezake, [Jainkoaren] gorpuztasuna baztertzeo egin genuenez. Litekeena da, gainera, hori errazagoa izatea, eta erabat gai izanen ginateke testu horiek horrela ulertarazi eta munduaren betierekotasuna ezartzeko, [beste] testuak ulertarazi eta Jainkoaren (gorets bedi!) gorpuztasuna saihestu dugun bezala. Baina bi arrazoik bultzatu gaituzte, ordea, hori ez egitera eta berori ez onartzera. *Bata* honako hau da: Jainkoaren gorpuzgabetasuna frogatua da, eta alegoriazko ulerkerara nahitaez jo behar da hitzez hitzezko esangura frogaren bitartez gezurtaturik gertatzen den aldi guztietan, [aurretik] hori ulertarazi beharrekoa dela gauza jakina denean. Baina munduaren betierekotasuna ez da frogatua izan, eta, beraz, ez da komeni, halako iritzi bat gailentzeko, testuak bortxatu eta horiek alegoriaz ulertaraztea, horren aurkakoa ere, bestela arrazoituz gero, berdin gailenaraz liteke eta. Hona bada arrazoi bat. *Bigarren arrazoi*a hau da: Jainkoaren (gorets bedi!) gorpuzgabetasunean dugun usteak ez du hankaz gora jartzen geure erlijioaren oinarriarik bat bera ere, eta ez du gezurtatzen, halaber, profetek aldarrikatuetaarik ezertxo ere. Ez dago ezer aurka, ezjakinek diotena ez bada, hots, hori [Eskriturako] testuekin bat ez datorrela, baina, erakutsi dugun bezala, ez du deus aurkakorik, eta Eskrituraren helburua bera dauka. Baina [munduaren] betierekotasuna onartzeak, Aristotelesek uste duen bezala, hau da, halabeharrezko zerbait balitz bezala, halako moldez non Naturaren ezein lege ezin alda eta ezer bere ohiko ibilbidetik ezin irten litekeen, hori erlijioa bere oinarritik zultzea litzateke, mirari guztiei gezurrezko iriztea eta erlijioak esperarazten edo beldurrarazten duen oro ukatzea, ez badira, Jainkoarren!, mirariak ere alegoriaz ulertarazi nahi, musulmanen artean *bātīnī*-ek⁵⁴ egiten duten bezala, horrek halako eromenera

eramanen gaituzke eta. Halere, azaldu dugun bigarren iritziaren arabera, *betierekotasuna* onartzen baldin bada, hots, Platonen ustea⁵⁵, horren arabera zerua ere jaioa eta iraungikorra izanik, iritzi horrek ez ditu gure erlijioaren oinarriak deusezten, ez eta miraria ukatzen, eta bai, aitzitik, bera ontzat ematen. Testuak beren adiera horretan harturik, Torah-ko eta bestelako anitz pasartetan antzeko esakerak aurki daitezke, horrekin lotuak, eta horiek horren aldeko frogatzat ere eman litezke. Halere, ez gaitu ezerk horretara behartzen, iritzi hori frogatzerik balego izan ezik; baina frogatua izan ez denez, ez gara iritzi horretara makurtzen, eta ez diogu inolako jaramonik ere egiten. Testuak beren hitzez hitzezko esanguran hobesten ditugu, erranez erlijioak geurez ezin erdiets dezakegun zerbait jakinarazi digula, eta gure baieztapenen egiazkotasuna mirariak berresten duela.

Jakin behar da, munduaren berritasuna onartzen den unetik, mirariak oro posibleak izanik, Torah [-ren irakaspena] ere posible egiten dela, eta gai horri buruz egin litezkeen eragozpen guztiak, halaber, ezerezten. Hortaz, galde egingen balitz: Zergatik agertu zaio Jainkoa halako gizonari eta ez halako beste bati? Zergatik eman dio Jainkoak Lege hau nazio berezi bati, gainerakoei gauza bera egin gabe? Zergatik eman zuen halako garai batean eta ez du eman lehenago ez geroago? Zergatik agindu du halako gauza batzuk egiteko eta beste batzuk galarazi? Zergatik [Jainkoak] nabarmendu du profeta, kontatzen diren halako mirariekin, eta ez beste batzuekin? Nolako helburua zuen Jainkoak bere Lege hau ematean? Eta azkenik, zergatik ez dio gure izaerari iradoki aginduriko edo galaraziriko gauza horien sentimendua, Haren helburua horixe bazen? Galdera hauen guztion erantzuna honako hau litzateke: «Hala nahi zuelako», edo «Haren Jakinduriak hala eskatzen zuelako». Mundua itxura honekin eta nahi ukan zuen unean jaioarazi zuen bezala, horri buruz zeukan nahimenaz eta halako itxurak eta halako garaia bereziki hautarazi zion Jakinduriaz, guk deus ezin jakin dezakegun bezala, era berean ezin dakikegu ezer Haren nahimenaz eta Haren Jakinduriak eskatu duenaz ere, [Jainkoak] aurreko galdera horien objektua egitea erabaki duenean. Baina, mundua honelakoa *halabeharrez* dela onetsiz gero, nahitaez galdera horiek guztiak egin beharko lirateke, eta hortik ez legoke irteterik erantzun desegokiekin izan ezik, aldean Legearen testu horien guztion gezurtatzea eta ukazioa ekarritz, horien hitzez hitzezko esanahia ezein

gizaki adimentsuk dudatan ezin jar ditzakeen arren. Hori dela eta, iritzi hori [ontzat hartzea] ekidin da, eta horregatik gizon jainkozaleek eman dute beren bizia, eta gero ere emanen, gai honi buruz gogoeta eginez; izan ere, inoiz munduaren berritasuna frogatuz gero, Platonen iritziaren arabera besterik ez balitz ere, filosofoek gu gezurtatzeko erraniko guztia eroriko litzateke; eta, era berean, Aristotelesen iritziaren arabera, munduaren betierekotasuna frogatzerik ukan balute, erlijio guztia eroriko litzateke, eta [jendea] beste iritzi batzuetara eramana izanen. Jada erakutsi dizudanez, auzi honen menean dago guztia zintzilik.

כ HOGEITA SEIGARREN KAPITULUA

[*R. Eliezer-en Aforismoen pasarte batez, lehengaiaren betierekotasunaz*]

Rabbi Eliezer Handiaren aforismo ospetsuetan, ר' אליעזר פרקי *Pirqê R. Ėlî'èzer* izenburuaz ezagunetan, pasarte bitxi bat ikusi dut (3. kap.), Moises gure maisuaren (bakea bego harekin!) Legeari darraizkionen izkribuetan inoiz aurkitu dudana bitxiena, hain zuzen. Entzuzu bada nola mintzo den: «Nondik sortu ziren zeruak? [Jainkoak] bere jantziaren argia hartu eta hura zabaldu zuen, mantu baten antzera; eta handik zeruak hedatuz joan ziren, esana den bezala: «Argiz inguratua zara soineko batez bezala; oihal-etxola bezala hedatu duzu zerua» (Sal 104,2). Nondik sortu zen lurra? «Bere loriaren tronupetik» elurra hartu eta jaurti zuen, esana den bezala: «Elurrari diotso: izan hadi lur!» (Job, 37,6). Horiexek dira aipaturiko pasartean darabiltzan berbak. Nik baneki jakintsu horrek uste zuena! Uste al zuen, beharbada, ezin onar daitekeela gauza bat ezerezetik sortua izatea eta beharrezkoa dela materia bat, jaiotzen den guztia hortixek eratzeko? Eta horregatik bilatzen ari zen zerua eta lurra *nondik sortuak izan ziren?* Baina, horren erantzuna edonola ulerturik ere, horri nahitaez galdera hauek egin beharko zaizkio: «Nondik sortua zen Haren *jantziaren argia?* Nondik sortua zen *Haren loriaren tronupeko elurra?* Nondik sortua zen *tronua* bera?». Izan ere, «Bere jantziaren argia»rekin sortu gabeko zerbait adierazi nahi izan balu, eta, era berean, [haren ustez] «loriaren tronua» bera ere sortu gabea izan zela, hori [aburu] oso gaitzesgarria litzateke, horrekin munduaren betierekotasuna onetsiko zukeelako,

gutxienez Platonen iritziaren arabera. «Loriaren tronuari» dagokionez, doktoreek bereziki esaten dute sorturiko gauzetako bat dela, hori era aski bitxiaz adierazten duten arren, erranez, munduaren Sorrera baino lehenago sortua dela⁵⁶. Eskriturako liburuak, aldiz, ez dira [haren] Sorreraz mintzatzen, Daviden (bakea bego harekin!) hitzak salbuetsirik; «Yhwh-k zeruetan ezarri du bere tronua» (Sal 103,19). Baina pasarte hau oso egokia da alegoriaz ulertarazteko. Testuak hor zehazki adierazten duena Haren betiereko iraupena da: «Baina Zu, o Yhwh! Betiko bizi zara, zure tronuak belaunaldiz belaunaldi dirau (NK, 5,19). Beraz, R. Eliezerrek tronuairen betierekotasuna onartu balu, berorrek Jainkoaren atributu bat besterik ez luke adieraziko, eta ez sorturiko gorputz bat; baina, orduan, nola liteke *atributu* batetik gauza bat jaiotzea? Edonola ere, harrigarriena haren esaldi hau da: «Haren jantziaren argia».

Hitz gutxitan, pasarte hori teologoari, fededun zientzialariari, erabat nahasia gertatzen zaio. Neronek ere ez nekike horretaz azalpen nahikorik ematen, eta aipatu baldin badizut, hor okerbidean sar ez zaitezen besterik ez da. Nolanahi ere den, [egileak] mesede handia egin digu, argiro baitio zeruaren materia lurrarena ez bezalakoa dela, eta biak materia oso ezberdinak direla. Bata, bere goratasun eta handitasunagatik, Jainkoari (gorets bedi!) egozten zaio eta «Haren jantziaren argi»tik heldu da⁵⁷; bestea, Jainkoaren argi eta distiratik urrundua, beheko materia da, «Haren loriaren tronupeko elurretik» etorria. Horrexek bultzatu ninduen Torah-ren hitz hauek «Eta oinazpian zafirozko lauzaz eginiko solairua bezalakoa zuen» (Irt 24,10), honetara ulertaraztera: ikuspen profetiko horretan beheko lehengaiaren egiazko funtsaz ohartu zirela; izan ere, jada azaldu dizudanez, Onqelosek, «haren oinazpian» [hitzak] tronuari dagozkiola uste du, eta horrek argi erakusten du *tronupeko zuri* hori lurreko materia zela⁵⁸. R. Eliezerrek, hortaz, gauza bera errepikatu du, are argiago mintzatuz, hots, bi materia direla, goikoa bata eta behekoa bestea, eta gauza guztien materia ez dela bat bakarra. Hor misterio handia datza, eta ez da gutxietsi behar Israelgo doktorerik handienek horretaz agertu dutena, hori Izatearen misterioetakoa baita, eta Torah-ren sekretuetarik bat. *Bērē'šît Rabbāh*-n (12) honako hau irakurtzen da: «R. Eliezerrek honela dio: zeruan den guztiaren sorrera zeruetatik dator, eta lurrean dagoen guztiarena lurretik heldu da.». Ohar zaitez

ongi nola jakintzu honek argiro dioen lurrari dagokion guztiak, hau da, Ilargiaren esferapean den orok, materia komun bakarra daukala, eta zeruen materia eta han aurkitzen den guztiarena beste bat dela, lehena ez bezalakoa. Haren *Aforismoetan* ukitu berri hau eransten du, materia horietako baten handitasunari buruzkoa, Jainkoaren ondokoa, bai halaber bestea akatsak aipatu, eta berorren inguruko espazioarenak ere bai. Eduki ezazu hau ongi gogoan.

𐌆 HOGEITA ZAZPIGARREN KAPITULUA

[Munduaren Sorreraz eta berorren iraunkortasunaz]

Jada erakutsi dizut munduaren berritasunean sinestea erlijio ororen nahitaezko oinarria dela, baina mundu honek, berez sorkari berri denak, egunen batean iraungi ere egin behar duela, hori, gure aburuz, ez da fede-artikulu bat, eta horren betierekotasunean sinetsiz ere, ez litzateke horregatik gure sineskeretako bat ere hautsiko. Agian erranen duzu: «Ez al da frogatu, bada, jaiotzen den guztia iraungikorra dela? Hortaz, jaioa denez, iraungi beharra dauka». Baina, jakizu ongi gu ez gaudela horrela arrazoitzera beharturik; ez baitugu esan bera jaio denik gauza fisikoak jaiotzen diren bezala, hots, lege natural baten menean. Izan ere, gauzen ibilbide naturalaren arabera jaio denak, iraungi ere, Naturaren ibilbidearen arabera egin behar du, zeren bere izaerak bera orain den bezalakorik lehenago ez existitzea eta gero halakatzeari eskatu duen bezala, era berean eskatzen baitu [gauza hori] ez dadila betiere existi horrela, gauza nabaria baita existitzeko era hori ez zaiola betiereko komeni. Halere, gure erlijioaren tesiaren arabera —gauzen existentzia eta horien galtzea Jainkoaren (gorets bedi!) nahimenari, eta ez *halabeharrari*, egozten dio eta—, iritzi horren bidetik, ezerk ez gaitu behartzen hau onartzera, hots, Jainkoak (gorets bedi!) aurretik existitu gabeko gauza bat ekoitzi ondoren, gauza hori nahitaez suntsitu behar duela. Aitzitik, hori, alde batetik, Haren nahimenaren menean izanen da, hura suntsitu edo kontserbatzeko libre baita, edota Haren jakinduriak eska dezakeenaren menean. Beraz, daitekeena da hura betiko kontserbatzea eta Berarenaren (gorets bedi!) antzeko iraunkortasuna ematea. Badakizu [konparazione] jakintsuek izendatuki aldarrikatu dutela loriaren tronua gauza sortua dela, eta, halere, ez dute sekula erran izateari noizbait utzi behar dionik. Inork ez

du behin ere aditu, ezein profetaren ez doktoreren mintzaldian, loriaren tronuak iraungi edo bere izatea eten behar duenik, eta Eskrituraren hitzek, bestalde, haren betiereko iraupena aldarrikatzen dute. Era berean, *hautatuen arimek*, gure aburuz, sortuak izanagatik, ez diote inoiz existitzeari utziko⁵⁹. *Midrāšim*-etako hitzez hitzeko esanahiari datxekzion [jakintsu] batzuen ustez, haien gorputzek ere amaigabeko atsegin iraunkorrez gozatuko dute betierekotasun osoan, Paradisuko bizilagunez jende batzuek duten sineskera ezagunaren antzera⁶⁰.

Laburbilduz, [filosofiazko] espekulazioak honako ondorio honetara gakartza: mundua ez dela, halabeharrez, suntsitzekoa. Hortaz, ez da gelditzen gai hau profeten eta doktoreen aurreikuspenen argitan aztertzea besterik: Aurretik esana al da, ala ez, hutsik egin gabe, mundua suntsitu eta ezereztua izanen dela? Izan ere, gure arteko jende arrunt gehienek uste dute hori aurretik esanik dagoela eta mundu honek, oso-osorik, iraungi beharra daukala. Baina, azalduko dizudanez, hori ez da horrela; aitzitik, testu ugarik horren iraunkortasuna aldarrikatzen dute, eta, hitzez hitz harturik, irudiz [munduak] iraungi behar duela adierazten duen guztia, garbi dago alegoria besterik ez dela. Hitzez hitzeko ulerkeraren aldekoen batek hori ukatzen badu, erranez unibertsoaren [etorkizuneko] suntsipenean nahitaez sinetsi beharra dagoela, ez da horregatik halakoa begirunerik gabe tratatu behar. Halere, hau jakinarazi behar zaio: munduaren suntsipena halabeharrezkoa baldin bada, hori ez dela sortua zelako arrazoiagatik, eta, bere ustez, [suntsitzea] onartu behar bada, fede oneko sineste hori halako alegoria batean adierazirikoan oinarritzen dela, berak hitzez hitz harturik. Ez dago hor inolako arriskurik erlijioarentzat.

כז HOGEITA ZORTZIGARREN KAPITULUA

[Salomon-en doktrina –berarenak omen diren jakintza-liburuetan– munduaren betierekotasunaz eta berorren iraunkortasunaz]

Gure sineskideetako askok uste izan dute Salomonek (bakea bego harekin!) munduaren betierekotasuna onesten zuela. Baina harrigarria da, Moises gure maisuaren (bakea bego harekin!) erlijioari atxikiriko gizon batek, [munduaren] betierekotasuna onar zezakeela pentsatu ahal izatea. Eta inork susma baleza hor [gure] erlijioaren

doktrinetatik saihestua zela –Jainkoak gorde gaitzala!–, nola onets zezaketen bera profeta eta doktore guztiek? Nola ez zioketen erasoko eta hura gaitzetsiko puntu horren gainean behin hil eta gero, *atzerriko emakumeen kausaz* eta beste gauza batzuegatik egin zuten bezala? Hori hartaz pentsarazi zuena doktoreen esatera hau (bedeinka bedi haren oroitzapena!) izan da: «*Qohelet* liburua kendu nahi zen, haren hitzak heretikoen esanetara makurtzen direlako» (*Wayiqra' Rabbāh* 28). Horrela da, zalantzarik ez; erran nahi baitut, liburu horrek, bere hitzez hitzezko esanahian harturik, badauzkala Legearen esanekin bat ez datozen iritziak, azaldu beharra dutenak. Baina [unibertsoaren] betierekotasuna ez da horietarikoa; ez da [liburu horretan] pasarterik batere hori iradokitzen duenik, eta are gutxiago aurki daiteke bertan munduaren betierekotasuna argi aldarrikatzen duenik ere. Halere, pasarte batzuetan [munduaren, unibertsoaren] iraunkortasuna aipatzen da, eta hori egia da, eta iraunkortasuna adierazten duten pasarte horiek ikusita, pentsatu izan da Salomonek hura sortu gabea zela sinesten zuela, baina ez da horrela. Iraunkortasunari buruzko pasarte honako hau da: «baina munduak beti dirau» לעולם *le'ôlām* (Qoh 1,4); eta xehetasun horretaz ohartu ez direnak azalpen honetaz baliatu dira: «aurretik finkatu zaion denboraz». Era berean, Jainkoaren hitz hauez (gorets bedi!): «Lurra diraeino» (Has 8,22) badiote hor ere aurretik finkarazi zaion denboraren irauteaz ari dela. Baina jakin nahi nuke zer ulertzen den Daviden hitz hauez: «Lurra bere oinarrietan sendo ezarri du, ez dagian sekula kolokarik» (Sal 104,5); izan ere, עולם ועד *'ôlām wā'ed* ‘menderen mendetan’ esaldiak ere betiko iraunkortasuna adieraziko ez balu, Jainkoak ere (gorets bedi!) iraute mugatua ukan lezake, Eskriturak Haren irauteaz honako hau dio eta: «Jauna errege izanen da betierean» (Irt 15, 18). Baina jakin behar da 'ôlām ‘mende, *saeculum*’ hitzak ez duela betiko iraupena adierazten עד *'ed* ‘betiko’ partikula daramanean izan ezik, dela atzean jarriarik, עולם ועד *'ôlām wā'ed* ‘sekulako eta betiko’, dela aurretik loturik עד עולם *'ed 'ôlām*. Horretara, Salomonen עומדת לעולם *le'ôlām 'omèdet* ‘betiko dirau’ esaldiak are gutxiago adieraziko luke Davidenak baino: בל תמוט ועד *bal timmôt wā'ed*. Izan ere, Davidek (bakea bego harekin!) argi erakutsi du zeruaren iraunkortasuna eta haren legeak eta barruan daukan guztia aldaezinik egonen direla beti. Honela dio: «Gorets ezazue Yhwh zeruetatik... Hark agindurik sortu baitziren; betidanik betidaino ezarri zituen» (Sal 148, 1,5-6), eta horrek esan nahi du Hark emandako

legeak ez direla behin ere aldatuko, $\eta\eta$ *h.oq* ‘arau, lege’ hitzak lehenago ere aipatu diren *zeruko eta lurreko legeen* oroigarria da eta. Baina, aldi berean, horiek sortuak direla aitortzen du, dioela: «Hark agindurik sortu baitziren». Jeremiasek hauxe esana du: «Jaunak ipini du Eguzkia, egunez zerua argitzeko, Ilargi eta izarrei legeak [ezarri dizkie] gaeuz argi dagiten... lege horiek ene aurrean inoiz desagertuko balira, era berean Israelgo askaziak berak ere ene aitzinean nazio izateari utziko lioke betiko» (Jr 31, 35-36). Horrela adierazia du, halaber, lege horiek, sortuak izanagatik ere, ez direla desagertuko.

Ikertzen segituz gero, Salomonen testuez landa (bakea bego harekin!), beste leku batzuetan ere aurkituko da [doktrina hau] berretsirik. Baina Salomonek berak esan zuen, halaber, Jainkoaren obra horiek, hau da, mundua eta haren baitan daukana, betiko irautez egonen direla beren izaeran, *eginak* izan arren: «Jainkoak egin duen guztiak betierean iraunen du; ezin dakioke ezer erants, ez eta deus ken ere» (Qoh 3,14). Beraz, bertset honen bidez mundua Jainkoaren obra dela jakinarazi du, eta betiko iraupena duela, eta horren iraunkortasunaren kausa ere ematen du, dioela: «ezin dakioke ezer erants, ez eta deus ken ere»; eta horixe da «betierean iraunen du»elako zergatia. Erran balu bezala, alda daitekeen gauza, berberak daukan eta konpondu behar zaion akatsen batengatik dela aldakor, edo berak sobera edo alferrik daukan zerbaitengatik, halako moldez non soberazko hori kendu behar zaion. Baina Jainkoaren obrek (gorets bedi!), erabat osamaituak izanik, —eta horrexegatik ezinezkoa gertatzen da haiei ezer erantsi edo kentzea—, diren bezalakoxerik diraute nahitaez, haietako ezer aldatu beharrik gabe. Irudi luke, halaber, Sorreraren helburua ere seinalatu nahi ukan duela, edo heltzen zaizkion aldaketak justifikatu, bertsetaren bukaeran honako hau erranez: «Eta Jainkoak hori egin du Hari beldur izan dakion», horrela, gerta daitezkeen mirariak aipatuz. Eta ondoren, hau esatean: «Izan dena, orain ere halaxe da, eta izanen dena, jada izana da, eta Jainkoak jarraipen hori du nahi» (Qoh 3,15), horrekin adierazi gura du Jainkoak (gorets bedi!) unibertsoaren iraunkortasuna nahi duela eta berorren osagaiek elkarrekiko lotura gorde dezatela.

Jainkoaren obren osamaitzeaz (gorets bedi!), eta horiei ezer erantsi edo kentzeko ezintasunaz, jakintsuen Printzeak berba hauekin aldarrikatu zuen, zioela: «Bera Harkaitza [da], Hark egina guztiz bikaina» (Dt 32,4); erran nahi baitu, Haren obra guztiak, hau da, Hark

sortuak oro, erabat bikain eta osamaituak direla, haietan ez dela inolako akatsik nahasten, eta ez daukatela deus soberazko edo alferrekorik. Era berean, sorkari horientzat eta horiexen bidez konplitzen den guztia, oso-osorik bidezkoa eta [Jainkoaren] Jakinduriak eskatzen duenaren arabera da, Tratatu honetako kapitulu batzuetan erakutsiko den bezala.

כ HOGEITA BEDERATZIGARREN KAPITULUA

[Mundua segur aski suntsituko delako ideia, Izkribu Santutik kanpoko. Gogoeta eta lekukotasun batzuk]

Ikusazu, norbaitek mintzatzen entzuten duen pertsona baten hizkuntza ulertzen ez duenean, badakiela, zalantzarik ez, gizon hori hizketan ari dela, baina ez du konprenitzen dioena. Are larriagoa da, ordea, batzuetan hizkuntza horretan berba batzuk entzutea, hitz egiten duenaren mintzairan halako esanahia dutenak, eta entzulearen hizkuntzan, zori hutsez, hitz horiek solaskideak adierazi nahi zuena ez bezalako edo aurkako esangura izatea; eta, halere, entzuleak uste du hitz horrek, mintzo denarentzat, berarentzat daukan esangura bera daukala. Horrela, konparazione, arabiar batek hebrear bati *'ābāh* esaten entzun baliezaio, arabiarrek pentsa lezake besteak gauza bat nahi ez eta onartu nahi ez duen norbaitez mintzatu nahi duela⁶¹, baina, aitzitik, hebrearrek esan nahi duena besterik da, halakoak gauza hori atsegin duela eta nahi duela. Horixe berori gertatzen zaio, halaber, jende arruntari profeten hizkeraz; neurri batean, hitz batzuk ez ditu inola ere ulertzen, baina, [profeta] batek erran zuen bezala: «Goi-agerpen guztiak liburu zigilatu baten hitzak bezalakoak gertatzen zaizkizue» (Is 29,11); beste neurri batean, alderantziz, edo bestelako adieran, ulertzen du [beste profeta batek] esan duenez: «Eta zuek Jainko biziaren hitzak alderantziz ulertu dituzue» (Jr 23, 36). Jakizu, halaber, profeta bakoitzak bere hizkera propioa darabilela, nolabait pertsonaia horren berbeta [berezia] dena; era berean, heldu zaion goi-agerpen pertsonalak ere, horrela mintzarazten dio bera uler dezakeenari.

Atariko hitz hauen ondoan, jakin behar da Isaiasen mintzaldietan sarritan gertatzen dena –oso gutxitan, ordea, gainerako profeten

hizketaldietan—, hots, dinastia baten amileraz edota nazio handi baten hondamenaz hitz egin nahi duenean, era honetako esaldiez baliatzen dela: «Argizagiak erori dira, zerua dardarka ibili da, Eguzkia ilundu da, Lurra suntsitua eta bere onetik aterea da» eta gisa bereko metafora ugariz ere bai. Arabiarren artean, norbaiti zoritxar handia gertatu zaionean esaten den bezala: «zerua lurraren gainera erori zaio»⁶². Era berean, dinastia baten goraldia eta haren fortunaren berriztapenaz mintzo denean honelako metaforak erabiltzen ditu: «Eguzkiaren eta Ilargiaren argia handitzea, zeruaren eta lurraren berriztatzea» eta gisa bereko beste esaldi batzuk. Era berean, [beste profeta] batzuek, gizabanako baten edo nazio baten hondamendia kontatzen dutenean, Jainkoari (gorets bedi!) egozten dizkiote haien aurkako kolerazko eta haserre biziko jarrerak; baina herri baten zorioneko goraldia azaltzean, aldiz, Jainkoari poz- eta alaitasun-jarrerak egozten dizkiote. Honela diote, gizakien aurkako Haren egoeraz mintzatzean: «Irten, jaitsi, orroa egin, ostotsez jo, bere ahotsa durundarazi zuen», eta hauen irudiko beste hitz batzuk; eta honela ere esaten dute: «agindu, erran, jardun, egin zuen», eta beste antzeko batzuk, erakutsiko dudanez. Bestaldetik, profetak halako leku bateko bizilagunen hondamena kontatzen duenean, inoiz edo behin giza leinu osoa jartzen du leku horretako bizilagunen tokian; eta horretara, Isaiasek honela dio: «Eta Yhwh-k gizakiak urrunduko ditu» (Is 6,12), horrekin Israelen suntsipena adierazteko. Sofoniasak ere adiera berean honetara dio: «Gizona, Lurraren gainetik ezereztuko dut, eta neure eskua Judaren aurka hedatuko dut» (1, 3 eta 4). Honetaz ongi jabetu beharra daukazu».

Eta [profeten] mintzamolde hori, oro har, azaldu eta gero, erran dizudana egia dela erakusteko, horren froga emanen dizut.

Isaias (bakea bego harekin!), Jainkoak Babiloniako inperioaren amilera iragartzeko kargua eman zionean, Senakerib-en suntsiketa eta berorren ondoren agertu zen Nabukodonosor-ena⁶³, eta haren erreinuaren amaiera, eta haien erregealdien amaiera netorriko zitzazkien ezbeharrak eta, behin borrokan galdu ondoren, garaitzailearen ezpatatik ihesi doanari heltzen zaizkion zoritxarrak azaltzen hasi zenean, honela mintzo da: «Zeruko izarrek eta haien konstelazioek ez dute gehiago argirik emanen; Eguzkia, atera orduko, ilunduko da, eta Ilargiak ez du argirik eginen» (Is 13,10). Eta azalpen berean honako hau eranstean du: «Dardara eraginen diet zeruei eta Lurra bere oinarrian ikaratuko, Yhwh

Armadetakoaren haserreaz, Haren sumin goriaren egunean» (*ibid.* 13). Ez dut uste, ezjakintasuna, itsukeria, metaforen eta hizlaritzako adierazpenen hitzez hitzeko atxikimendua gorabehera, inork pentsatu duenik zeruko izarrak eta Eguzkiaren eta Ilargiaren argia aldatu zirela Babiloniako erresuma hondatu zenean, edo Lurra bere zentrotik irten zitekeela, profeta mintzo zen bezala. Hori guztiori ihesi zihoan gizon baten egoeraren deskribapena da, halakoak, zalantzarik gabe, argi oro beltz baitakusa, gozotasun guztiari mingots irizten eta Lurra hertsiegi aurkitzen, zerua ere gainera datorkiola irudituz.

Era berean, kontatzen duenean israeldarrak nolako zapalkuntza eta morrontza egoeran geldituko ziren Senakerib gaiztoaren egunetan, berorrek «Judako hiri harresidun guztiak» eskuratu behar zituenean (*ibid.* 36,1), eta jendea gatibu eta lur jota gelditu, haien aurka errege horren aldetik elkarren segidan zer-nolako zoritxarrak helduko ziren, eta Israelgo herriak horren eskutik nola hil beharko zuen, honela adierazten du: «Izua, hobia eta sarea zure aurka, herriko jendea. Eta izuaren hotsetatik ihes eginen duena hobira eroriko da; hobiaren barrutik irten dadina sarean harrapatutik geldituko da, zeru goietako ur-jauziak ireki eta Lurraren oinarriak kordokatzen ari dira eta. Lurra gogorki astindua izanen da, hautsia, kraskatua. Lurra hordi baten antzera zabuka ibiliko da ...» (Is 24, 17-20). Pasarte honen bukaeran, Jainkoak Senakeribi eginen diona deskribatzean, haren harrokeriazko nagusitasuna Jerusalemen aurka [eginiko espedizioan] galtzean, eta Jainkoak hiri horren aitzinean nolako lotsaz nahasiko duen, honela dio alegoriaz: «Ilargia gorritu eta Eguzkia lotsaturik egonen da, *Yhwh Šeb'ôṭ* errege izanen da eta» (*ibid.* 23). Jonatan Ben Uziel-ek (bakea bego harekin!) hitz horiek zuzenki ulertu zituen; eta esan zuen Jerusalemen aurka eginiko espedizioan Senakeribi heltzeko zitzaiona heltzean, orduantxe jakinen zutela argizagien adoratzaileek hori Jainkoaren obra zela, eta harriduraz txunditurik geldituko zirela: «Ilargiaren adoratzaileak –dio– gorrituko dira, Eguzkiaren aitzinean makurtzen direnak umiliaraziak izanen, Jainkoaren erresuma agertuko da eta...».

Ondoren, Senakerib hil eta gero, israeldarrek gozatuko zuten lasaitasuna, haien lurren emankortasuna eta birlandaketa, eta Ezekiasen agintepean erresumak edukiko zuen gorakada azaltzean, badio, alegoriaz, Eguzkiaren eta Ilargiaren argia handitua izanen

zela; izan ere, garaituaz esan zuen bezala, Eguzkiaren eta Ilargiaren argia iluntasun bihurtuko zitzaiola, era berean argizagi bion argia garailearentzat handiago egiten da. Beti aurkituko duzu, lagun bati zoritxarren bat gertatzen zaionean, horren begiak iluntzen, haren bistako distira galtzen, *ikusmenaren izpiritua* lurrunen ugaritasunagatik uhertzen baita, eta, aldi berean, ahuldu eta mehetzen, arimaren tristura eta estuasun handia dela eta. Aitzitik, alaitasunean, arima hedatzen eta [ikusmenaren] izpiritua argitzen denean, gizakiak nolabait argia lehen baino argiago dakusa. Eta hau esan ondoan: «Siongo jendea, Jerusalemen bizi zarena! Jada ez duzu gehiago negarrik egingen...», pasartearen amaieran honako hau eranstean du: «Ilargiaren argia orduan Eguzkiaren argia bezalakoa izanen da, eta Eguzkiaren argia, zazpikoitza, zazpi egunetako argia bezalakoa, Yhwh-k bere herriaren zauria bendatu eta haren zigorren sakia osatuko duenean» (Is 30,19-26); erran nahi baita: Senakerib gaiztoaren eskutik izandako erorialditik altzaraziko dituenen. Eta «zazpi egunetako argia» hitzak direla eta, iruzkingileek diotenez, horrekin ‘argitasun kopuru handia’ adierazi nahi da, hebrearrek «zazpi» erabiltzen baitute «kopuru handia» adierazteko⁶⁴. Baina niri neroni iruditzen zait horrekin Salomonen garaian izandako *Tenpluaren dedikazioaren* zazpi egunak aipatu nahi dituela, ordura arte nazioak ez baitzuen inoiz halako zorion, goraldi eta poztasun orokorrik gozatu. Eta horregatik dio haien zorion eta goraldia zazpi egun haietakoa bezain handiak izanen direla.

Israeldarrak zapaltzen zituen Edom gaiztoaren hondamena deskribatzean duenean, honetara dio: «Haien hildakoak bazterretan jaurtiko dituzte, eta haien gorpuei kiratsa jarioko zaie, eta mendiak haien odolean urtuko dira. Zeruko armada osoa hauts bihurtuko da, ortzia liburu-bilgu baten antzera biribilduko da, eta haien armada guztia eroriko da, mahats hostoak eta pikondoaren fruitu zimelak erortzen diren bezala. Zeren, ene ezpata, zeruan, hordi baitago eta, horra, Edomen gainera eroriko da» (Is 34, 3-5).

Hortaz, kontsidera ezazue, begiak dituzuenok, ea ba ote den testuotan ezer ilunik, edota zeruari etorriko zaion gertaeraren bat kontatzen ote duen, ala hori ez ote den metafora bat, horrekin haien erresuma suntsitua izanen dela, Jainkoaren babesa kenduko zaiela, haien fortuna eroriko dela, eta haien handikien karguak bat-batean eta berehala ezereztuko direla adierazteko. Erran balu bezala, beren

finkotasunagatik, jarreraren goratasunagatik eta gorabeheretatiko urruntasunagatik izarren antzekoak ziren pertsonaiak, behingoan amilduko zirela, «mahastiaren hostoa erortzen den bezala», etab. Hau argiegi dago, era honetako Tratatu batean aipatu beharrik izateko, eta are gutxiago, horri buruzko azalpenetan gelditzeko. Baina beharrak horretaratu gaitu, jende arruntek eta are beren buruak aditutzat daukaten batzuek bertset horretatik argudioak ateratzen dituztelako, horren aurrean eta atzean aurkitzen denaz kontu gutxi eginik, eta hori zeri buruz esana den pentsatu gabe, horrekin Eskriturak soilki zeruaren amaiera iragarri nahi ukan baligu bezala, haren jaiocera kontatu zigun bezala.

Era berean, Isaiasek israeldarrei Senakeriben eta harekin ziren jende eta errege guztien hondamendia, gauza jakina denez, eta berek Jainkoaren (gorets bedi!) laguntza soilaz ukanen zuten garaipena iragartzean, honela esan zien alegoriaz mintzatuz: Ikusazue nola zeru hori ezdeusten den, eta lurra ere higatzen; bertakoak hil egiten dira, eta zuek laguntza jasotzen duzue. Erran balu bezala, Lur osoa besarkatua zeukatenak eta ustez zerua bezain gotorrak zirenak, hiperbolez, supituki iraungi eta joanen direla, kea joaten den bezala, eta haien monumentu ikusgarriak, irudiz Lurra bezain iraunkorrak, galdu egingen zirela, jantzi zaharra galtzen denez. Bere mintzaldiaren hasieran honela dio: «Jainkoak Sion kontsolatuko baitu, eta haren kondarrez urrikalduko... Entzun nazazu, neure herri horrek... Ene justizia hurbil da, ageri da jada ene salbazioa... Jaso itzazue zuen begiak zeruetarantz, beha iezaiozue behera Lurrari, zeruak kea bezala ezerezten dira, lurra arropa bat bezala higatzen da, eta bertakoak, halaber, hiltzen dira; baina ene salbazioak betiereko iraunen du eta ene justizia ez da inoiz hautsiko» (Is 51, 3-6).

Israeldarren erresumaren berrezarpenaz, haren egonkortasunaz eta iraupenaz mintzatuz, zeru berri bat eta lur berri bat sorraraziko dituela dio Jainkoak, bere hizkeran betiere errege baten erresumaz ari baita, haren jabetzako mundu bat balitz bezala, erran nahi baita: zeru bat eta lur bat. Eta kontsolamenduak honela hasi ondoren: «Nik, neronek zaituztet kontsolatzen» (*ibid.* 12. bert.), ondoren haxe dio: «Neure hitzak ahoan jarriko dizkizut eta neure eskuaren itzalaz estaliko zaitut, zeruak hedatzeko, lurra oinarritzeko eta Sioni hau esateko: Zu zara ene herria» (*ibid.* 16. bert.). Israelen nagusitasunak iraunen

duela eta ahaltsu entzutetsuengandik hasanduko zela adierazteko, honela dio: «Mendiak aldenduko dira...» (*ibid.* 54,10). Mesiasen erreinuaren betikotasunaz mintzatuz eta Israelgo erresuma ez dela behin ere suntsituko esateko, honela hitz egiten du: «Zure Eguzkia ez da behin ere jaitsiko...» (*ibid.* 60,20). Laburbilduz, hizkera mota honen esangura ulertzen duenarentzat, horiek gisa bereko metaforak dira, maiz errepikatuak, eta Isaiasek bere hitzaldietan sarritan erabiliak. Eta horretara, erbestealdiaren gorabeherak eta xehetasunak deskribatzean, eta, horren ondoren, boterearen berreskurapenaz eta nahigabe ororen amaieraz mintzatzean, honela dio alegoriaz: Beste zeru bat eta beste lur bat sortuko ditut; oraingoak ahantziak izanen dira eta haien oroitzapena ere ezabatuko. Ondoren, hori bere mintzaldiaren segidan azaltzen du, dioela: *sortuko ditut* gisako hitzak darabiltzadanean, horrekin erran nahi dut zuentzat etengabeko poz eta alaitasunezko egoera eratuko dudala dolu eta nahigabe hauen ordezt, eta ez dela gehiago pentsatuko lehenagoko samintasunetan. Entzuzu ideien kateatzea, eta nolakoak diren horri buruzko hurrengo bertsetak. Aurretik, gaiarekin hastean, honela dio: «Yhwh-ren bihozberatasuna gogoratuko dut, Yhwh-ren laudorioak goraipatuko...» (*ibid.* 63,7). Horri darraiola, lehenik Jainkoaren (gorets bedi!) ontasunak kontatzen ditu, esanez: «Berak eskuratu, jaso eta betidanik egun guztietan eraman ditu», eta pasartearen gainerako guztia (*ibid.* 9. bert.). Gero gure matxinada azaltzen du: «Baina matxinatu ziren eta Haren izpiritu santua mindu zuten», eta ondokoa ere bai (*ibid.* 10. bert.). Geroago, etsaiak nola menperatu gaituen kontatzen du: «Gure etsaiek zure santutegia ohondikatu dute; gu [haien antzekoak] gara, gure gainean ez baituzu agintzen», bai eta darraiona ere (*ibid.* 18-19. bert.). Ondoren gure alde otoitz egiten du, eta honela dio: «Ez zaitez gehiegi haserre, o Yhwh!», eta segidakoa (*ibid.* 64,8). Horren ondoan, frogatuak izan gareneko zigor larria nola merezi ukan dugun gogorarazten du, egiara deituak izan eta horri erantzun ez diogulako, eta hau dio: «Utzi diet aurki nazaten, ene bila ez zebiltzanei» (*ibid.* 65,1). Gero, barkamena eta bihozberatasuna agintzen du, hitz hauekin: «Honela mintzo da Yhwh: mahats mordoan muztioa aurkitzen denean bezala...», eta ondokoa (*ibid.* 8. bert.). Segidan zapaldu gaituztenak mehatxatzen ditu, dioela: «Hara, ene zerbitzariak janen dute, baina zuek gose izanen zarete...» (*ibid.* 13. bert.). Eta, azkenik, hau eransten du: nazio honen sineskerak zuzenduko direla, bera Lurraren gaineko bedeinkagarria

izanen dela eta lehenagoko zertzeladak ahantziko dituela, hitz hauek erabiliz: «Eta bere zerbitzariei bestelako izena emanen die. Lurrean bedeinkatua izatea nahi duenak egiazko Jainkoagan bedeinkatuko da: lehenagoko estuasunak ahantziak eta ene begietarako ezkutaturik egonen dira eta. Horra, zeru berriak eta lur berria sorraraziko ditut eta ez da lehenagokoaz gehiago pentsatuko, eta ez da hartaz gogoratuko. Baina zaudete pozik eta alai zaitezte sorrarazteko dudanagatik, Horra, Jerusalementzat alaitasuna eta beraren jendearentzat poztasuna sortzera noa. Eta Jerusalemengatik poztuko naiz...» (*ibid.* 15-19).

Hortxe duzu orain, bada, gai honen guztiaren azalpen argia, eta zergatik, «Horra, zeru berriak eta lur berria sorraraziko ditut» esan ondoren, berehalaxe hori azaltzen duen, erranez: «Jerusalementzat alaitasuna eta beraren jendearentzat poztasuna sortzera noa». Eta atariko hitz horien ondoan, honako hau dio: Fedearen eta berorri datzekion alaitasunaren zirkunstantzia horiek, nik sorraraziko eta Lurraren gainetik hedatuko direla prometatuek, betiko iraunen duten bezala, –Jainkoagan izaten den fedea eta fede horrek dakarren alaitasuna, horiek heldu zaizkienengan ezin eten ez alda daitezkeen bi zirkunstantzia direlako– hau gehitzen du: Fede eta alaitasun egoera hori, neronek Lurraren gainean orokor izan beharko dela iragarria, betiereko eta egonkorra izanen den bezala, era berean iraunen du zuen arrazak eta zuen izenak ere. Eta hona ondoan zer dioen: «Eginen ditudan zeru berriek eta lur berriak ene aitzinean iraunen duten bezala, dio Yhwh-k, horrelaxe iraunen du zuen arrazak eta zuen izenak ere» (*ibid.* 66,22). Inoiz gertatzen baita arrazak iraun dirauela, baina izena, orde, galtzen. Horretara, konparazione, anitz jende aurki ditzakezu, zalantzarik gabe persiarren edo grekoen leinukoak, baina halere izen berezi batez ezagunak izan gaberik, beste nazio batek hurrupatuak izanik. Bada hor, ene ustez, [Moisesen] Legearen betierekotasunaren aipu bat, horri esker izen berezia dugu eta.

Metafora hauek maiz Isaiasengan aurkitzen direnez gero, guztiak aztertu behar ukan ditut; baina inoiz edo behin beste profeta batzuen testuetan ere aurkitzen dira.

Jeremiasek honela dio, Jerusalemen suntsiketa deskribatzean, gure arbasoen bidegabekeriengatik gertatua: «Lurrari begiratu nion, eta, horra, hutsa eta anabasa besterik ez zen» (Jr 4,23).

Ezekiel ere era berean mintzo da, Egiptoko erresumaren hondamena eta Faraoiaren amilera, Nabukodonosorren eskutik, azaltzean: «Zure argia itzaltzean, zeruak estaliko eta izarrak ilunduko ditut. Eguzkia hodeipean gordearazi eta Ilargiak ez du gehiago bere argia emanen. Zuregatik zeruan distiratzten diren argizagi guztiak ilundu eta lurraren gainean ilunbea hedaraziko dut, dio Yhwh Jaunak» (Ez 32,7-8).

Joelek, Petuelen semeak, honetara dio, bere garaian heldu zen oti multzo handiaz mintzo zelarik: «Haien aurrean lurra dardarka ari da, zeruak ikaratzen dira, Eguzkia eta Ilargia ilundu eta izarrei distira gutxitzen zaie» (Jl 2, 10).

Amosek hau dio, Samariaren suntsiketa dela eta: «Egun Hartan, dio Yhwh Jaunak, Eguzkia eguerdian ezkutaraziko dut, eta eguargiaren erdian lurra ilunbez estaliko. Zuen jaiak dolu bilakaraziko ditut... » (Am 8,9-10).

Mikeasek ere, Samariaren hondamendiaz mintzatuz, hizla-ritzako baliabideak darabiltza, dioela: «Hona, Yhwh bere lekutik jalgitzen da, jaitsi eta Lurraren gailurren gainetik dabil. Haren azpian mendiak urtzen dira» (Mik 1,3-4).

Hageo honela mintzo da, persiarren eta mediarren erresumaren amileraz: «Zeru-lurrak astinduko ditut, itsasoa eta lehorra, eta jende guztiak irauliko...» (Ag 2,6-7).

Joabek Edom-en aurka eramandako espedizioa dela eta, [Eskriturak edo Davidek] nazio horren lehenagoko ahulezia eta eroraldi handia kontatzen du eta nola israeldarrak garaituak eta ihesari emanak izan ziren, eta garaile atera daitezen, otoitz honela egiten duen: «Lurra astindu duzu, arrakalatu duzu; osa itzazu haren arraildurak, erortzen ari da eta» (Sal 60,4). Era berean, jendeak erabat suntsitu arte iraungitzen direnean, guk ez dugula deusen beldur izan behar adierazteko –gu geu Guztiz Gorenaren laguntzan (gorets bedi!) oinarritzen garelako, eta ez geure borrokan eta geure indarrean, [Moisesek] esan bezala: «Yhwh-k salbaturiko herria» (Dt 33,29)–, honela dio: «Horregatik ez gara ezeren beldur, Lurrak dardara egin edo mendiak itsasoan hondoan kordokatzen badira ere» (Sal 46,3). Egiptoarren itsasperatzea dela eta, honako esaldiak aurkitzen dira. «Urek ikusi zintuzten, o

Jainkoa! Eta dardarka hasi ziren, eta amildegiak berak ere ikaratu ziren... Zure bozaren ostotsak leher egin zuen zirimolan... eta Lurra dardaraz inarrosten zen» (Sal 77, 17 eta 19). «Zure koleraren sumina ibaien aurka bizten ote da, Yhwh?» (Hab 3,8). «Haren sudurtziloetatik kea igo zen...» (Sal 18,9). Eta gauza bera Deborah-ren kantikan ere: «Lurra ikaratu zen...» (Ep 5,4). Honetariko beste pasarte asko ere aurki daitezke, nik aipatu gabeak, baina era berean azalduko dituzu.

Joelen hitzak direla eta, «Eta zeruan eta lurrean mirariak eginen ditut, odola, sua, kezko zutabeak. Eguzkia ilunpe bilakatuko da eta Ilargia odol, Yhwh-ren egun handi eta ikaragarria heldu baino lehen. Eta Yhwh-ren izenari hots eginen diona salbatuko da, Sion mendian eta Jerusalemen babeslekua ukanen du eta» (Jl 3,3-5), ni neu Senakeriben hondamendia, Jerusalemen aurkako espedizioan, aipatu nahi duela pentsatzera makurtuko nintzateke. Baina hori onartu nahi ez baduzu, litekeena da hori Gog-en suntsiketaren deskribapena izatea, Jerusalemen aitzinean Mesias erregearen egunetan, nahiz eta, pasarte honetan aipatzen den guztia, hilkintza handia, suzko suntsiketa eta bi argizagien eklipsea besterik ez izan. Agian, erranen duzu: Nola liteke, gure azalpenaren arabera, Senakeriben hondatze-egunari «Yhwh-ren egun handi eta ikaragarria» iriztea? Jakin behar da baina, garaipen edo zoritxar handiren bat gertatzen den egun bakoitzari «Yhwh-ren egun handi eta ikaragarria» deitu ohi zaiola. Joelek, era berean, larroti horiek haien aurka heldu ziren egunaz mintzo zelarik, gauza bera dio: «Handia da Yhwh-ren eguna eta oso ikaragarria: Nork paira lezake?» (Jl 2,11).

Begiz jotzen genuen helburua garbi dago: mundu honen [etorkizuneko] suntsipena, orain daukan egoeraren aldaketa, edo bere izaeraren beste edonolako aldaketa, ondoren egoera aldatu horretan iraun dezan, ez du inolako oinarririk profeten testuetan, ez eta doktoreen hitzaldietan ere; izan ere, beroriek hau esan arren «Munduak sei mila urtez iraunen du eta mila urtez suntsiturik egonen da» (*Roš ha-šanah* 31a), ez da adiera horretan ulertzen existitzen den guztiak ezerezeroa itzuli behar duela, *eta mila urtez suntsiturik egonen da* hitz horiek berenez denborak iraun dirauela erakusten dute eta. Gainerakoaz, hori iritzi pertsonal bat da eta gauzak ikusteko modu huts bat. Ordea, doktore guztien lanetan etengabeki hauxe aurkituko duzu, eta oinarritzko hastapen horretatik *Mišnāh* eta Talmudeko Jakintsu

guztiek beren argudioak ateratzen dituzte, hots, honako esaera honen arabera «Deus berririk ez eguzkipean» (Qoh 1,9) ez dela inolako berrikuntzarik gertatuko ezerगतik ere. Hori hain da egia, ezen, «zeru berriak eta lur berria» hitzak⁶⁵, horiei oker ulertzen zaien esanguran, onartzen dituenak ere, halere, hau aitortuko du: «Egunen batean izanen diren zeru-lurrak ere jada sortuak dira eta badira», errana baita: «ene aitzinean dira». Ez da «izanen dira» esaten, «dira» baizik; eta halakoak argudiotzat «Eguzkipean ezer berririk ez» hitzak hartzen ditu. Ez ezazu pentsa horrek nik erakutsi dudanari kontra esaten dionik; aitzitik, daitekeena da horrekin haxe adierazi nahi izatea, [profetak] aginduriko zirkunstantzia horiek orduan sorrarazi beharko dituen egoera fisikoa sortua zela jada *Sorrerako sei egunetatik*, eta hori egia da.

Egoera aldatu horretan irauteko ezerk ez duela bere izaera aldatuko esan badut, hori izan da, soil-soilki, mirariak direla eta, neure erresalbua egiteko; izan ere, makila⁶⁶ suge eta ura odol bilakatu arren, eta esku garbi eta prestua zuri bihurtu⁶⁷, hori kausa naturalen ondorioa izan gabe, halere, fenomeno horiek eta antzeko beste batzuek ez zuten, ordea, iraun eta ez ziren beste izaera bilakatu; eta, aitzitik, hau esan da: «Munduak bere ohiko ibileraz dabil» (‘*Abōdāh zārāh* 54 b). Horixe da ene aburua ere, eta, ene ustez, sinetsi behar dena. Egia esan, doktoreak (bedeinka bedi haien oroitzapena!) mirariei buruz era harrigarriaz mintzatu dira *Bērē’šīt Rabbāh* eta *Midraš Qohēlet*-en ikus dezakezun pasarte batean. Baina adierazi nahi duten ideia honako hau izan da: mirariak berak ere, nolabait, Naturan dautzala. Izan ere, haiek diotenez, Jainkoak unibertso hau sorrarazi eta hor gaitasun fisiko horiek jarri zituenean, aldi berean, gaitasun horietan mirari guztiak jaioarazteko ahalmena ere jarri zuen, gertatzen diren une zehatzean gerta daitezen. Profetaren seinalea, hortaz, honetan datza, Jainkoak halako jazoera gertatuko dela edo gauza batek halako ekintza hartuko duela iragarri beharko duen denbora jakinarazten diola, Sorreraren hasieratik haren izaeran ezarririk zegoenaren arabera.

Hau egiazki horrela baldin bada, pasarte horren egilearen ikusmira handiaren ideia bikaina ematen digu, eta edozein gaitasun fisiko Sorrerako egintza baino geroago aldatua izan zitekeela ontzat emateari erabat zail zeritzola, edota [Jainkoak] beste nahiren bat ukan zezakeela hura guztia horrela ezarri eta finkaturik egon ondoren. Haren

iritzia, dirudienez, honako hau zen, konparazione, uraren izaeran etengabea eta jaria korra izatea ezarririk zegoela, beti goitik behera, egiptoarrak urperatuak izan ziren garaian izan ezik; orduantxe ez beste erdibitu beharra zeukan.

Honetara, pasarte horren benetako esangura zein den azpimarratu dizut, eta hori guztiori [esana dela Naturako] edozein gauzaren eraberritzea onartu beharra saihesteko. Pasarte honetaz honako hau erran da: «Rabbi Jonatanek erran zuen: Jainkoak (bedeinka bedi!) Itsasoari baldintza horiek jarri zizkion israeldarren aitzinean ireki zedin, izkiriatuaren arabera: «Eguna zabaltzean, urak ohiko lekura itzuli ziren» (Irt 14,27). R. Jeremiassek, Eleazarren semeak, honela esan zuen: «Ez zizkion Jainkoak gaitasun horiek soilik itsasoari ezarri, *Sorrerako sei egunetan* sorturiko guztiari baizik; horixe baita hitz hauen esangura: «Ene eskuek zeruak hedarazi dituzte, eta neuk agintzen diot bertako armada osoari» (Is 45, 12). «Itsasoari bana dadila agindu diot, suari Hanania, Mixael eta Azariasi kalterik ez egiteko, lehoiei Danieli minik ez egiteko, arrainari Jonas oka eragiteko» (*Bě'rē'sīt Rabbāh* 5). Eta era bereko analogiaz azaldu behar dira gainerako mirariak ere.

Orain, beraz, arazoa argi dago eta [ene] aburua garbiro erakutsirik ere bai. Izan ere, Aristotelesek in bat gatoz haren iritziaren erdiaz: onartzen dugu unibertso hau beti existituko dela eta iraunen duela Jainkoak (gorets bedi!) eman nahi ukan dion izaera honekin, eta hortik deus ere ez dela inola ere aldatuko, xehetasunen batean eta mirariz ez baldin bada, Jainkoak (gorets bedi!) erabat aldatzeko edo ezerezteko, edo haren gaitasun fisikoetarik nahi lukeena eteteko ahalmena eduki arren; halere, hasiera bat izan zen, eta aurretik ez zen ezer existitzen, Jainkoa izan ezik. Haren Jakinduriak Sorrera gertaraztea eskatu du, Berak gertarazi zuen unean, eta sorrarazia ez zedila ezereztua, eta haren izaera ez zedila ezertan ere alda, Jainkoak [alda zitezen] nahi zituen xehetasuntxo batzuetan salbu, guk hein batean jada ezagunak, baina, etorkizunari dagozkiola, beste neurri batean oraindik ezezagun zaizkigunak. Horixe da gure iritzia eta horixe gure Legearen oinarritzko hastapena. Baina Aristotelesek uste du, [unibertsoa] iraunkorra eta ezin suntsitzekoa den bezalaxe, era berean, betierekoa eta sortu gabea dela. Halere, esana dugu jada eta argiro erakutsi ere bai, hori ezin etor daitekeela bat *halabeharraren*

legearekin ez bada; baina halabeharra [aldarrikatzea] Jainkoarekiko heresia litzateke, jadanik azaldu dugunez.

Behin eztabaida honaino helduta, kapitulu bat eskainiko dugu Sorreraren kontakizunean aurkitzen diren testuez ere ohar batzuk egiteko, honako Tratatu honen xede nagusia *Ma'āšēh bēre'šīt*-en eta *Ma'āšēh merkābāh*-n azal daitekeena argitzea besterik ez baita; baina horri, aurretik, bi baiespen orokor jarriko dizkiogu.

Horietako bata honako hau da: Torah-n Sorrerako egintzaz kontatzen den guztia ez da beti hitzez hitzeko esanguran hartu behar, jende arruntek uste duten bezala; zeren, horrela izan balitz, zientzia-gizonak ez ziratekeen horri buruz hain zuhurrak izanen, eta Doktoreek berek ez zuketzen horrenbeste gomendatuko gai hori ezkutatzea eta jende arruntei ez agertzea. Izan ere, testu horiek, hitzez hitz harturik, ideiak nahastera eta Jainkoari buruzko iritzi okerrak asmatzera eramaten dute, bai eta erlijio gabetasun hutsera eta Torah-ren oinarriak ukatzeraino ere. Egia esan, halakoak ez dira irudimen hutsaz eta zientziarik gabe kontsideratu behar, eta ez da egin behar *daršanīm* (= דרשנים 'predikatzaleak') eta iruzkingile gizagaixo horien antzera, pentsatzen dutelarik, zientzia hitzen esangura ulertzea besterik ez dela, horien begietarako, bikaintasuna hitz ugari eta zailekin mintzatzean baitatza; baina benetan egin behar dena, ordea, horretaz egiazko adimenaz gogoeta egitea da, frogatzea helburua duten zientzietan eta profeten misterioak ikertzen jardun ondoren. Halere, gai horretaz zerbait ikasi duenak ez du hori jendarteratu behar, *Mišnāh*-ri buruzko Iruzkinean zenbait aldiz adierazi dudana bezala. Honela esana da espresuki: [Hasierako] Liburuaren lehen hitzetatik honaino «Jainkoaren maiestateak gauzak estali behar ditu» (*Bēre'šīt Rabbāh* 9)⁶⁸. Horixe da *Midrás*-ean, [Sorrerako] seigarren egunaren kontakizunaren ondoan adierazten dena. Hortaz, erran duguna argiro frogaturik gelditzen da. Halere, Jainkoaren manuak [ikerketan] nolabaiteko bikaintasuna erdietsia duen guztia hori besteen artean hedatzera nahitaez behartzen duenez gero, geroxeago profeziari buruzko kapituluetan azalduko dugun bezala, misterio horietatik zerbait ulertzera heldu den jakintsu orok, dela bere espekulazio propioaz, dela bera haraino eramane duen gidari baten bitartez, horretaz mintzatu beharra dauka; baina argiro berba egiten galarazi zaionez, aieruzko aipamen hutsak egiten ditu. Era horretako aieru, aipamen eta oharrak aurki daitezke maiz gure

Maisuetako batzuen (bedeinkatua izan bedi haien oroitzapena!) hitzaldietan, beste batzuen hitzekin eta beste gai batzuekin batera nahasirik agertu arren. Hori dela eta, misterio horietarik nik neuk ez dut gaiaren oinarriko hitz bakarra besterik aipatzen, gainerakoa duin direnentzat utzirik.

Bigarren baiespena hauxe da: Profetak, erran dugun bezala, beren mintzaldietan homonimoak eta beren lehen adieran ez bezalako zerbait esan nahi duten hitzez baliatzen dira, berba horiek erabiltzean gogoan etimologiaren bat edukiz. Horretara, konparazione, מקל שקד *maqṣēl šōqēd* ('arbondola-makila'), beste berba hauen ordeztu erabiltzen da: שוקד אני *šōqēd 'anî* ('adi zain nago') (Cfr. Jer 1,12), profeziari buruzko kapituluetan azalduko dudanez. Era berean, gurdia kontatzen⁶⁹ חשמל *hāšmal* hitza (Ez 1,7), esan genuen bezala, eta רגל עגל *rēgel 'ēgel* ('aretze baten hanka') eta קלל נחשת *nehōšet qālāl* ('dirakien brontzea'), Zakariasek errana bezala (6,1): mendiak brontzezkoak ziren» eta antzeko beste esaldi batzuk.

Eta baiespen bi hauen ondoan, agindu dudana kapitulua ematera nator.

ל HOGITA HAMARGARREN KAPITULUA

[*Sorrerari buruz Bibliak egiten dituen oharpenez*]

Jakizu badela alderik *lehenengoaren* eta *hastapenaren* artean⁷⁰. Izan ere, *hastapena*, hasieratzat balio dion gauzan existitzen da, edo gauza horrekin batera, denboraz horren aurrekoa izan ez arren; horretara, adibidez, bihotza animalia hastapena dela esaten da, eta elementua, aldiz, bera elementu den [gauza]ren hastapena. Batzuetan ideia hau adierazteko lehenengoa hitza ere erabiltzen da. Beste batzuetan, halere, «lehenengoa» denboran aurrekoa denari esaten zaio soil-soilki, aitzineko hori ondorengoaren kausa izan gabe. Horrela, kasurako, «etxe honetan bizi zen lehenengoa Urlia zen, eta horren ondoren, Berendia izan zen», horregatik bata bestearen hastapena dela esaterik ez dagoen arren. Hebreeraz aurrekotasuna adierazten duen hitza תחלה *tehillāh* da; adibidez, «Yhwh-k Oseasi eginiko lehenbiziko mintzaldia» (Os 1,2), eta 'hastapen, hasiera' adierazten duena ראשית *rē'šît*, ראש *rō's* 'buru' hitzetik eratorria, bere jarreragatik animalia

hasiera da eta⁷¹. Hortaz, mundua ez zen sortu denborazko hasiera batean, guk azaldu dugunez, denbora bera gauza sortuetako bat izanik; horregatik errana da בראשית *bēre'šît* (Has 1,1), hor ב- *be-* zatikiak ‘-an’ esangura duela⁷². Bertset honen egiazko itzulpena honako hau da: «Hasieran Jainkoak [unibertsoaren] goia eta behea sorrarazi zituen», horixe da munduaren berritasunaz bat datorren azalpen bakarra. Eta zenbait doktorek izkiriaturik utzi dutenaz, denbora unibertsoa sortu baino lehenago existitzen zela eta, hor aurki dezakezuna oso iluna da. Izan ere, jada azaldu dizudanez, hori Aristotelesen iritzia litzateke, horrenustez ezinezkoa baita denborarentzat hasierarik bururatzea, baina hori absurdoa da. Holako iritzia onartzera bultzatu zituen Eskrituran *egun bat, bigarren eguna* (Has 1,5-8) moduko hitzak aurkitzeak. Baina horrela uste zuenak testua hitzez hitz hartzen zuen; izan ere, oraindik biraka zebilen esferarik, ez Eguzkirik ez bazen, zerekin neur zitekeen *lehenengo eguna*? Hona hemen testua, hitzez hitz (*Bēre'šît Rabbāh* 3): «Lehen eguna: hortik segitzen da, dio R. Yehudah-k, Simonen semeak, *denboren ordena* aurretik existitzen zela. Eta R. Abbahu-k dio hortik ateratzen dela Guztiz Santuak (bedeinka bedi Haren izena!) jada mundu batzuk sorrarazi eta suntsiaraziak zituela»⁷³. Bigarren iritzi hau lehena baino gaitzesgarriagoa da. Bi horiei zail zer iruditzen zitzairen ulertuko duzu, alegia, Eguzkia izan baino lehenago denbora existitzea; baina berehala azalduko zaizu bi horiei, antza, ilun iruditzen zitzaienaren irtenbidea. Ez bazen, Jainkoarren! doktore horiek denboren ordenak halabeharrez betierekotasun osoan existitu behar zuelako iritziari eutsi nahi izatea! Baina, orduan, hori [munduaren] betierekotasuna onartzea litzateke, eta Legeari atxikia den pertsona orok hori erabat arbuiatu beharra dauka. Pasarte horri R. Eliezer-enaren antzekoa deritzot: «Nondik sortu ziren zeruak?...». Hitz gutxitan, gai hauetan, ez da kontuan hartu behar halako batek esan zezakeena. Jada jakinarazia dizut erlijio osoaren oinarritzko hastapena zein den, Jainkoak mundua ezerez absolututik sorrarazi zuela, eta ez denborazko hasiera batean; denbora, aldiz, sorturiko zerbait da, zeruko esferaren mugimendua laguntzen duelako, eta berori ere sortua da.

Jakin behar da, halaber, את *et* zatikiak, אֶת הַשָּׁמַיִם וְאֶת הָאָרֶץ *et hāšāmāyim we-ēt hā'āres*. (Has 1,1) pasartean, doktoreek anitz tokitan adierazi dutenez, ‘-rekin’ esangura duela. Horrela erran nahi dute Jainkoak zeruarekin batera zeruan den guztia ere sorrarazi zuela,

eta Lurrarekin batera Lurrak daukan guztia ere bai. Badakizu, era berean, argi diotela zerua eta lurra aldi berean sortu zirela, pasarte hau aipatuz: «Nik dei egin nien, eta han izan ziren elkarrekin» (IS 48,13). Honetara, bada, dena aldi berean sortu zen, eta ondoren gauzak elkarrengandik bereizten hasi ziren mailaka. Haien ustez, lurrean une berean askotariko haziak erein dituen laborariaren antzerakoa da, [hazi] horietako batzuk biharamunean, beste batzuk bi egun geroago, eta beste zenbaitzuk hiru egunen buruan erneak izanik, ereintza osoa aldi berean egina izan arren. Iritzi horren arabera, eta dudarik gabe egiazkoa da, R. Yehudah ben Simon, erran zuena erratera bultzatu zuen zalantza ezereztan da, lehen, bigarren eta hirugarren egunak zerekin neurtu ziren ulertzea zaila iruditzen zitzaiolako. Doktoreak (bedeinka bedi haien oroitzapena!) *Bĕrē'šît Rabbāh*-n garbi mintzatu ziren *argiaz*, Torah-k lehenbiziko egunean sortua zela dioenez (Has 1,3), hitz hauek esanez: «Hor dira argizagiak (*ibid.* 14.bert.), lehenbiziko egunetik sortuak, baina laugarren egunera arte ez zituen eseki [zeru-sabaian]». Gai hau, hortaz, argiro azaldua da.

Oraindik jakin beharrekoa da, halaber, 'ères 'lurra', balio anitzeko hitza dela, eta era zabalean eta berezian ere erabiltzen dela. Eskuarki Ilargiaren esferapean dagoen guztiari dagokio, hau da, lau elementuei, eta, era berean, bereziki, soilki horietako azkenari ere bai, hots, lurrari. Hori frogatzen da honela esana delako: «Eta lurra nahas-mahas hutsa zen, leize handiaren gain ilunpea, eta Jainkoaren arnasa...» (Has 1,2). Hortaz, horiei guztioi 'ères 'lurra' deritze, eta ondoren hau dio: «Eta lehorrari 'ères 'lurra» izena eman zion Jainkoak (*ibid.* 10. bert.). Hor ere misterio handia datza, «eta halako izena eman zion Jainkoak» aurkitzen duzun guztietan, helburua hori beste gauza [orokor] batetik bereiztea izaten delako, hor gauza biek izen berbera izanik. Horrexegatik itzuli dizut [lehen] bertseta «Hasieran Jainkoak [unibertsoaren] goia eta behea sorrarazi zituen», eta horrela 'ères 'lurra' hitzak, lehen aldian, 'beheko mundua' esan nahi du, erran nahi baitut, lau elementuak, baina, «Eta lehorrari 'ères 'lurra' izena eman zion Jainkoak» dioenean, ordea, hor lur hutsaz mintzatzen da. Beraz, hau garbi dago.

Ohatzeko da, era berean, lau elementuak zeruaren ondo-ondoren aipatzen direla, jada esana dugunez, ארץ 'ères 'lurra' lehenbiziko izenaz adieraziz. Izan ere, honela agertzen dira: ארץ 'ères 'lurra', מים *máyim*

‘ura’, רוּחַ *rûah* ‘arnasa, haizea’ eta חֶשֶׁךְ *həššək* ‘ilunpea’. Eta *həššək* ‘ilunpea’ hitz honi dagokionez, *su elementala* adierazten du, eta ez da beste gauzarik pentsatu behar; horrela [Moisesek] hau esan ondoren: «Eta hark suaren (אֵשׁ ‘*aeš*’) erditik esaniko hitzak entzun dituzue» (Dt 4,36), honako hau dio: «ilunpe (חֶשֶׁךְ *həššək*) artetik zetorren ahots hura entzutean» (*ibid.* 5, 20 edo 23). Eta beste leku batean: «Ilunpe sorta guztiak (= zoritxarrak) harentzat gertu daude, [gizakiak] biztu gabeko suak irentsiko du» (Job 20,26). *Eta su elementala* [ilunpe] izen horrekin adierazi da, argitsua ez delako, baina soilki gardena; zeren, su elementala argitsua balitz, gauean atmosfera osoa su-garretan ikusiko baikenuke. Aipatu izan dira [elementuak] beren kokaera naturalen arabera: [aurrenik] *lurra*, berorren gainean *ura*, *airea* urari datzekiola, eta sua airean gainean; izan ere, airea «uraren azalaren gainean» (Has 1,2) aipatzen denez gero, «leize handiaren gaineko ilunpea» (*ibid.*) zalantzarik gabe airearen gainean zegoen⁷⁴. [‘Airea’ adierazteko] רוּחַ אֱלֹהִים *rûah ‘Ēlōhîm* (= ‘Jainkoaren arnasa edo hatsa’) erabiltzearen arrazoia honako hau da, hura מְרַחֵף *merahēfet*, hots, ‘mugimenduan’ zebilelako, eta mugimendua betiere Jainkoari egozten zaio; adibidez: «Eta Yhwh-rengandik haizea atera zen» (Zkiak11,31); «Zeure haizeaz putz egin duzu» (Irt 15,10); «Eta Yhwh-k mendealdeko haizea bihurrazten zuen» (*ibid.* 10,19); eta beste anitz pasartetan ere bai. Eta *həššək* ‘ilunpea’ lehen aldian (Has 1,2) [su] elementuaren izentzat erabilia, ondoren, ‘ilunpea’ adierazteko aipatzen den *həššək* hori ez bezalakoa denez, hori azaldu eta bereizteko, hau esaten da: «eta ilunpeari gau izena eman zion» (*ibid.* 5. bert.), erakutsi dugunez. Hortaz, hau ere argi gelditzen da.

Era berean, jakin beharrekoa da, «Eta sabai azpiko urak sabai gaineko uretatik bereizi zituen» (7. bert.) pasartea ez dela leku-banaketa hutsaz ari, [ur] batzuk goian eta besteak behean egonez, guztiak izaera berberarekin, baina, aitzitik, esan nahi da elkarrengandik bereizketa fisiko baten bitartez banatu zituela, hau da, *formaz*, eta aurretik *ur* izena eman zion zatiaz, berorri jantzarazi zion forma fisikoaren bidez, aparteko gauza bat egin zuela, beste zatiari bestelako forma emanaz. Azken hau egiazko ura da, eta horrexegatik honela esana da: «Eta ur multzoari itsaso izena eman zion» (Has 1,10), eta honekin agerian uzten dizu lehen *ura*, «uren gainean» (2. bert.) hitzetan aipatua, ez dela itsasoetakoa, baina zati

bat, atmosfera gainekoa, halako formaz bereizi zela, eta beste zatia [beheko] ur hau dela. Beraz, «Eta sabai azpiko urak sabai gaineko uretatik bereizi zituen» (7. bert.) eta beste hau «eta bereizi zuen Jainkoak argia ilunpeetatik» (4. bert.) antzekoak dira, forma batez bereiztea adierazteko. Ortzia (רָקִיעַ *raqi'a*) bera uraz eratua zen, esan denez: «Erdiko tanta (edo multzoa) gotortu zen» (*Běre'sît Rabbāh* 4). «Eta Jainkoak ortziari zerua eman zion izen» (8. bert.) esaldiak, halaber, azaldu dizudan xedea dauka, hots, homonimia nabariaraztea eta horrekin ulertarazi «zerua eta lurra» esaerako zeru hori (1. bert.) ez dela guk eskuarki zerua deitzen duguna, «zeruetako ortzipecan» (20. bert.) hitzetan berresten denez, ortzia eta zerua ez direla gauza bera adieraziz. Homonimia horregatik egiazko zeruari ere batzuetan «ortzia» esaten zaio, egiazko ortziari inoiz «zerua» deitzen zaion bezala; hori dela eta, hau esan da: «Eta ezarri zituen [argizagiak] zeruetako ortzian» (17. bert.). Argi dago, hitz hauen bidez –jada frogatua denez– argizagi guztiak, bai eta Eguzkia eta Ilargia ere, esferaren barruan finkatuak direla, unibertsoan hutsik ez baita; ez dira aurkitzen esferaren azalean, jende arruntak pentsatzen duenez, «zeruetako ortzian» esaten baita, eta ez «zeruetako ortziaren gainean». Beraz, argi dago, hasieran bazela halako materia komun bat, *ura* zeritzona, ondoren, hiru formaz bereizi zena: zati batek itsasoak eratu zituen, beste batek ortzia eta hirugarrena ortzi horren gainean gelditu zen; azken hori oso-osorik Lurretik landa. Arazo honetan beste metodo bat erabili da, ezohiko misterioak adierazteko. Ortziaren gainetik dagoena ur izen bakarraz deitzea, berori [hemengo beheko] ur berezia izan gabe, doktoreek ere (bedeinka bedi haien oroitzapena!) errandakoagatik izan da: «Lau sartu ziren [Jakituriaren] paradisuan...» (*Hagîgāh* 14b). Rabbi Aqibak honela erran zien: «Marmol hutsezko harrietara hel zaiteztenean, ez ezazue esan: «ura, ura!, izkiriatura baita: «Iruzurgilea ez da ene etxean biziko; gezurretan dabilenak ez du ene begien aitzinean iraunen» (Sal 101,7). Egizu bada gogoeta, gogoeta egiten dutenetakoa baldin bazara, R. Aqibak pasarte honi eman dion argitasunaz, berorren mamia osoa erakutsiz, *Meteorologia*-n frogatu den guztia ongi aztertu eta konprenitu ondoren, gai bakoitzari buruz esanikoa kontuan izanda.

Arretaz egin behar duzu gogoeta, halaber, zer dela eta, bigarren egunean ez den «ongi zegoela» (כִּי טוֹב *ki tōb*) esaten. Badakizkizu

honi buruz doktoreek (bedeinka bedi haien oroitzapena!) emandako iritziak, haien ulertzeko metodoaren arabera⁷⁵; errandakoen arteko hoberena honako hau da: «Uraren egintza ez zela amaitua» (*Bērē'sīt Rabbāh* 3). Ene aburuz ere, horren arrazoia oso argia da: Sorrerako egintzetako batez mintzatzen den bakoitzean, horren existentzia luzatzen eta iraunarazten denean, eta bere behin betiko egoerara heldua delarik, horretaz «ongi zegoela» esaten da. Baina ortzi hori eta berorren gainean ari dena, *ura* deritzona, zerorrek dakusazunez, iluntasunez inguraturik daude. Izan ere, hitzez hitz eta gaingiroki hartzen bada, hori ez da inola ere existitzen, gure eta beheko zeruaren artean ez baita beste gorputzik, elementuak izan ezik, ez eta urik ere atmosferaren gainean. Eta zer izanen litzateke baldin norbaitek pentsa baleza ortzi hori eta bere gain daukana zeruaren gainean direla? Orduan gauza are ezinagoa eta ukigaitzagoa izanen litzateke. Baina, beste alde batetik, arazo hori bere adiera esoterikoan eta egiazki adierazi nahi zenaren arabera, erabat iluna gertatzen da, hori misterio ezkutuatarik bihurtu beharra zegoelako, jende arruntak jakin ez zezan. Hortaz, halako gauza batez nola esan zitekeen «ongi zegoela»? «ongi zegoela» hitzek ez dute beste adierarik, gauza hori unibertso honen existentzia eta luzapenerako ageriro eta nabarmenki mesedegarria dela ez bada. Baina bere benetako adiera ezkutua daukan gauzak, eta kanpoaldean den bezalakorik agertzen ez denak, zer-nolako onurarik dakarkie gizakiei, hartaz «ongi zegoela» esan ahal izateko? Beste azalpen bat ere eman behar dizut: eta hauxe da, gauza horrek Sorreraren garrantzizko atal bat osa badeza ere, halere, ez da helburu bat, unibertsoaren irautearen luzapenerako begien aurrean eduki behar dena, halakoaz «ongi zegoela» esateko modukoa; aitzitik, hori bat-bateko premia bategatik [egina da], lurra agerian gera zedin. Honetaz ongi jabetu beharra daukazu.

Oraindik jakin behar duzu, doktoreen azalpenen arabera (*Bērē'sīt Rabbāh* 13), Jainkoak ez zituela belarrak eta zuhaitzak lurretik ernearazi, hura euriaz ureztatu arte, eta horrela pasarte hau «eta lurruna zerion lurrari» (Has 2,6) aurreko gertaera batez mintzo da, agindu honen aitzinekoaz: «Eman bitza lurra belar berdea» (*ibid.* 1,11). Horregatik Onqelosek honetara itzultzen du: «Eta lurretik lurruna jalgia zen». Horixe da, bestaldetik testuari berari dariona: «ez

zegoen oraindik landarerik lurreen ezta belar ernerik ere» (*ibid.* 2,5). Beraz, argi dago.

Zuk badakizu, irakurleorrek, jaiotzearen eta usteltzearen kausa nagusiak, zeruko esferen indarren ondoren⁷⁶, argia eta ilunpea direla, beroriek eragiten dituzten bero eta hoztasunarengatik. Zeruko esferaren mugimenduaren ondorioz elementuak elkarren artean nahasten dira, eta horien nahasketa, argiaren eta ilunpearen arabera, aldakorra da. Hortik jaiotzen den lehenbiziko nahastetik bitariko hasperenak heldu dira, goiko fenomeno guztien lehen kausa direnak, horien arteko bat euria izanik, eta badira, halaber, mineralen kausa, eta ondoren landareen osajerarena, horri animaliena darraiola, eta, azkenean, gizakiarena. Ilunpeek beheko mundu osoko izakien izaera eratzen dute, eta argia [akzidentetzat] heltzen zaio. Aski duzu, argirik ezaz, guztia gelditasunean lotzen dela ikustea. Eskriturak, Sorreraren Kontakizunean, ordena berberari segitzen dio, hortik ezertan ere saihestu gabe.

Oraindik jakin beharrekoa da, doktoreek honela diotela (*Roš ha-šanah* 11a): «Sorrerako obra guztiak bere garaiera bikainean, beren adimen osoaz eta beren edertasun guztiarekin»; erran nahi baita, sorrarazi den guztia bere zenbatasunezko bikaitasunean sortua dela, bere forma bikainarekin eta nolakotasunik ederrenekin. Horixe da לצביוֹנָם *le-sibyonām* (=‘bere edertasunean’) hitzak adierazten duena, צְבִי *ṣebî* ‘edertasun’, ‘apaingarri’ berbatik heldurik; adibidez: «herrialde guztien artean ederrena» (Ez 20,6). Jakizu, bada, ongi hori, garrantzi handiko hastapena baita, erabat egiazkoa eta argia.

Gogoeta sakona eragiteko gaia izan behar du, halaber, sorrerako sei egunetan, gizakiaren sortzeaz mintzatu ondoan, «ar eta eme egin zituen» (Has 1,27) erranez, eta sorreraren kontakizuna erabat amaitu ondoren, zioela «Honela burutu ziren zeruak eta lurra beren segizio guztiarekin» (*ibid.* 2,1), kapitulu berria irekitzeak, Eva Adamengandik nola izan zen sortua izan kontatzeko. Hor bizitzako zuhaitza eta jakinduriako zuhaitza aipatzen dira, sugearekiko gertakaria eta hortik heldu zena, eta hori guztia Adam Edeneko baratzean kokatua izan ondoren gertatu balitz bezala aurkezten da. Doktore guztiak jazoera hori ostiralean izan zelakoan bat datoz, eta deus ere ez zela aldatu, inola ere, sorrerako sei egunen ondoren. Horregatik ez da ezer harrigarririk

ikusi behar gauza horietan, jada errana dugunez, ordura arte ez baitzen inolako izaera egonkorrik.

Horrez gainera, beste gauza batzuk ere erran zituzten, neronek ulertarazi behar dizkizudanak, toki ezberdinetatik bildurik, eta era berean zure arreta gai batzuetara erakarri beharra daukat, haiek ere (bedeinka bedi haien oroitzapena!) gurea erakarri zuten bezala. Jakin behar duzu doktoreen mintzaldietatik hemen aipatuko dizudan guztia bikaintasun goreneko hitzak direla, horien interpretazioa horien hartzaileentzat argi zegoela, eta zehaztasun handikoak direla. Hori dela eta, ez naiz azalpenetan urrunduko eta ez dut horiek erakusten luzaz jardunen, *sekretu bat ez agertzeko*⁷⁷; baina aski izanen da, zu bezalako gizon batek uler ditzan, horiek halako ordena batean eta ohar laburren batez aipatzea.

Horretara, Adam eta Eva elkarrekin sortuak izan zirela diote (*Bēre'sīt Rabbāh* 8), bizkarrez bizkar loturik, eta, [izaki bikoitz hori] erdibiturik, Jainkoak erdia hartu zuela, Eva zena, eta hori besteari (Adami) eman ziola laguntzat. Hortaz, *אחת מצלעותיו* 'ahat mi-sal'otāiiv (Has 2,21) hitzek hau esan nahi dute: «haren bi aldeetako bat», eta horren frogatzat *צלע המשכן* *ṣel'a hamiškan* «egoitzaren bestaldera» (Irt 26,20) aipatu izan da, Targum-ak «Tabernakuluaren aldean» ematen duena, eta hortaz, haien iritziz, hemen «haren aldeetako batetik» itzuli beharko litzateke. Uler ezazu ongi argi erran dela haiek nolabait bi zirela eta, halere, ez zutela bat besterik osatzen, hitz hauen arabera: «ene hezurraren hezur, eta ene haragiaren haragi» (Has 2,23), eta hori areago berretsi da biei izen bakarra ematean «Emakume izango da deitua, gizakumeagandik izan baita hartua»⁷⁸ (*ibid.*), eta haien batasuna are gehiago nabarmentzeko, erran zen: «eta bere emazteari atxikiko zaio, eta biga haragi bakarra izanen dira» (*ibid.* 24-25. bert.). Zeinen ezjakin handiak diren honetan guztian, sakonean, halako ideia bat datzala ulertzen ez dutenak! Hortxe duzu bada, azaldurik.

Beste gai bat, haiek *Midraš*-ean (*Pirqē*, R. Eliezer 13) azaldua eta jakin beharrekoa honako hau da: Sugea –hala diote berek– zaldizko batek zamalkatzen zuela, eta berori gamelu bat bezain handia zela; eta haren zaldizko horrek Eva erakarri zuen, eta zaldizko hori *סמאל* *Samma'el* zen. Izen hori Satani egokiarazten diote. Diotenez, konparazione, Satanek gure aita Abraham tentatu nahi zuen, Isaak

[holokaustoan] eskaintzea onar ez zezan, eta, era berean, Isaak ere bai, bere aitari obedi ez ziezaion, eta arazo honetan, hau da, Abrahamen sakrifizioan (עֲקִידָה *‘āqēdāh*) honela mintzo dira: «*Samma’el* gure aita Abrahamen ondora hurbildu eta erran zion: «Baina, zaharriori, burutik al zaude?...» (Bērē’šît Rabbāh 56). Hortaz, argi dago *Samma’el* Satan dela. Izen horrek, נַחֲשׁ *nāḥāš* ‘sugea’renak bezala, halako ideia bat adierazten du, eta berori Eva engainatzera nola etorri zen kontatzean, honela diote: «*Samma’el* haren gainean jarririk zegoen, baina Guztiz Santuak (Bedeinka bedi!) gameluaz eta haren zaldizkoaz barre egiten zuen».

Ohartu beharra daukazu, halaber, sugeak ez zuela inolako harremanik ukan Adamekin eta ez zitzaiola mintzatu ere, baina hitz egin eta tratatu Evarekin besterik ez zuela egin; eta Evaren bitartez heldu zitzaion kaltea Adami eta sugeak berori galbidera eramanez. Sugearen eta Evaren artean erabateko etsaigoa gertatu zen, eta bataren eta bestearen ondorengoen artean ere bai, Evaren ondorengotza, zalantzarik gabe, Adamena izan arren. Eta are nabarmengarriagoa da bataren ondorengotza bestearenarekin kateatzen duena, [alde batetik], *burua* eta [bestetik] *orpoa* izatea. Hau ere garbi dago.

Hona hemen oraindik pasarte harrigarri horietako bat, hitzez hitzezko esangura erabat absurdoa duena, baina, Tratatu honetako kapituluak osotoro konpreni ditzazunean, horren alegoria, jakinduriaz betea, miretsiko duzu, gauzen izaerarekin bat datorrena. «Sugea Evarengana hurbiltzean, kutsatu egin zuen. Israeldarrak Sinai mendian izan zirenean, haien kutsadura bertan behera gelditu zen; baina jentilena, Sinai mendian izan ez zirenena, ez zen ezabatu» (*Šabbat* 146a)⁷⁹. Egizu honetaz ere gogoeta.

Jakin beharreko beste pasarte bat hauxe da: «Bizitzako zuhaitzak [hedaduran] bostehun urteko ibilaldia dauka, eta Sorrerako urak oro haren gainean isurtzen dira (Bērē’šît Rabbāh 15). Horri buruz erran da neurri hori haren enborraren lodiera adierazteko dela, eta ez haren adarren hedadura. «Hitz horien helburua –diote– ez da haren abarrieria, haren enborra (קֹרֶת *qortô*) baizik, bostehun urteko ibilaldia daukana». *Enbor* hitzarekin haren zuraje lodi eta zutikakoa adierazten da; eta esaldi osagarri hori erantsi dute, gaiaren azalpena biribildu eta argitasun handiagoa emateko. Beraz, hau ere argi dago.

Hurrengo pasarte hau ere jakin behar da: «Jakinduriako zuhaitzaz den bezainbatean, Guztiz Santuak (bedeinka bedi!) ez dio hori behin ere ezein gizakiri agertu eta ez dio sekula agertuko (*Bēre'šīt Rabbāh* 15)». Eta hori egia da; existitzen denaren izaerak hala behar du eta.

Ondoko pasarte honek ere merezi du bera ikas dezazun: «Eta Yhwh Jainkoak gizona hartu zuen –hau da, ‘igo zuen’– eta Edengo baratzean ezarri zuen (וַיַּנִּיחֵנּוּ *wayaniḥenu*) (Has 2,15), hau da, atsedena (לֹהֵא הַנֶּחָל *ha-neyāh. lo*) eman zion» (*ibid.* 16). Ez da testu honetan ulertu Hark toki batetik hartu eta beste leku batera ipini zuenik, baizik eta haren izaeraren maila goratu zuela jaio eta iraungitzen diren izakien artean, eta halako egoera batean kokatu zuela.

Azpimarratzea merezi duen beste puntu bat, hau da, Adamen seme biak Kain (קַיִן *Qain*) eta Abel (הָבֶל *Hebel*) izenekin nolako jakinduriaz deituak izan ziren, Kain izan baitzen Abel «landan» hil zuena (Has 4,8); biak hil ziren, baina erasotzailea barkaberatasunez tratatu zen, eta ez zen existentzia iraunkorrik izan Set-entzat (שֵׁת *Šet*) besterik: «Yhwh-k beste ondorengo bat eman dit (שֵׁת *šat* = *Šet*)» (*ibid.* 25. bert.). Eta hau guztiau justifikatua da⁸⁰.

Zure arreta merezi duen beste pasarte bat hauxe duzu: «Eta gizonak izenak jarri zizkien...» (Has 2,20), non irakasten baitigu hizkuntzak egiunezkoak direla eta ez *naturalak*, uste izan denez⁸¹.

Eta, azkenik gogoeta eragin behar dizute, halaber, zeruaren eta Jainkoaren arteko harremana adierazteko erabiltzen diren lau izenek, hots: בָּרָא *bārā* ‘sorrarazi’, עָשָׂה *‘āšāh* ‘egin’, קָנָה *qānāh* ‘erdietsi, eduki’ eta אֵל *’Ēl* ‘Jainkoa’. Esan egiten da, adibidez, «Jainkoak zeru-lurrak sorrarazi zituen» (Has 1,1); «Yhwh Jainkoak zeru-lurrak egin zituenean» (*ibid.* 2,4); «zeru-lurren egile (edo edukitzaile)» (*ibid.* 14, 19 eta 22); «betiereko (edo unibertsoaren) Jainkoa (=אֵל *’Ēl*)» (*ibid.* 21,33); «Zeru-lurren Jainkoa (=אֱלֹהֵי *’Ēlōhē*)» (*ibid.* 24,3). Eta adierazpen hauei dagokienez «ezarri dituzun ilargi-izarrak» (Sal 8,4); «Ene eskuinak zeruak hedarazi zituen» (Is 48,13); «Zeruak hedaratzen dituzu» (Sal 104,2), horiek guztiak עָשָׂה *‘āšāh* ‘egin’ aditzean bildurik daude. Eta יָצַר *yāšar* ‘eratu’ aditzari dagokionez, ez da adiera horretan agertzen, eta horregatik uste dut aditz hori egituraketa eta itxuraketarako, edo beste akzidentetarako, erabiltzen

dela, egitura eta itxura ere akzidenteak dira eta. Horrexegatik esaten da: «Argia eratu duena» (Is 45,7), berori akzidente bat baita; «mendiak eratu dituen»-k (Am 4, 13) ‘haien itxura egiten duena’ erran nahi du; gauza bera gertatzen da «Yhwh Jainkoak moldatu zuen...» (Has 2,7-9) pasartean ere. Baina unibertsoaren osotasuna, hau da, zerua eta lurra, besarkatzen dituen izakiaz mintzatzean, בָּרָא *bārā* ‘sorrarazi’ aditza erabiltzen da, gure iritziz ‘ezerezetik ekoitzi’ esan nahi duena. Era berean עָשָׂה *‘āsāh* ‘egin’ ere erabiltzen da, eman zaizkien forma bereziei dagokiela, erran nahi baitut, ezaugarri fisikoetarako. Eta קָנָה *qānāh* ‘erdietsi, eduki’ aditza aplikatu zaie, Jainkoa (gorets bedi!) haien gainean nagusitzen delako, jabea bere jopuen gaineko nagusia den bezala; horrexegatik «Lur osoko Jauna» (Jos 3,11) deitu izan da, edota, soilki אֲדֹנָי *Ādôn* ‘Jauna’ (Irt 23,17; 34,23). Baina *jaunik* ezin izan daitekeenez, aldi berean, *jabetzarik* ukan gabe –eta horrek aurreexistitzen zen materia bazela uste izatea bezalakoa litzateke–, בָּרָא *bārā* ‘sorrarazi’ eta *‘āsāh* ‘egin’ aditzak eraili izan dira. Eta אֱלֹהֵי הַשָּׁמַיִם *‘Ēlōhê hašāmāyim* ‘zeruetako Jainkoa’ eta אֵל עֹלָם *‘Ēl ‘ōlām* ‘Unibertsoko Jainkoa’ esaten denean, hori Jainkoaren (gorets bedi!) bikaintasunaren eta azken horien bikaintasunaren ikuspegitik egiten da. Bera אֱלֹהִים *‘Ēlōhîm* da, hau da, ‘gobernatzaila’, eta haiek gobernatuak. Ez da hor nagusigoaren ideia ikusi behar, hori קֹנֵה *qōnēh* ‘edukitzaila’ da eta, baina *‘Ēlōhîm* Jainkoak (gorets bedi!) izaki gisa daukan eta haiekiko (= bere sorkariekiko) duen mailaren ikuspegitik, Bera baita Jainkoa, eta ez zerua. Hau ongi ulertu behar duzu. Ohar labur hauek, gai honi buruz aurretik esandakoarekin eta gero ere esanen denarekin, nahiko izanen dira Tratatu honetako xederako, bai eta irakurlearentzat ere⁸².

לא HOGITA HAMAİKAGARREN KAPITULUA

[שַׁבָּת *Šabbat*-aren betekizunaz]

Beharbada, badakikezu zergatik errepikatu izan den hainbeste aldiz *Šabbat*/Larunbataren legearen gainean, eta zer dela eta [horren hausteak] harrikatzea dakarren, halako moldez non Profeten Printzea horregatik [lagun batzuk] hilarazteraino heldu baitzen. Hirugarren mailan datza, Jainkoaren existentzia eta dualismoaren ukapenaren

ondoren, Hura ez besteko izaki bat adoratzeko debekuak ez baitu beste helbururik batasuna sendotzea baino. Badakizu, ene hitzengatik⁸³, ideiak ez direla kontserbatzen, aldean beraiek jende arruntan artean finkarazten, hedarazten eta iraunarazten dituzten ekintzez lagundu ezean. Horrexegatik agindu zaigu egun hori ohora dezagun, munduaren berritasunaren hastapena ezarria eta jakinarazia izan zedin, unibertsoa gizaki guztiek egun berean hartuko zuten atsedenen bidez. Eta horren kausa galdetuz gero, hauxe litzateke erantzuna: «Zeren sei egunetan egin baitzituen Yhwh-k...» (Irt 20,11).

Baina agindu horri bi kausa eman zaizkio⁸⁴, bi ondorio hauekin: lehen Dekalogoan (Ir, 20) Larunbata gorestekoa, hau esaten da: «Zeren sei egunetan egin baitzituen Yhwh-k...», baina Deuteronomioan (5,15) hau dator: «Izan gogoan zeu ere esklabo izan zinela Egiptoko herrian...; eta horregatik Yhwh zure Jainkoak agintzen dizu Larunbata gordetzeko». Eta hori zuzena da. Izan ere, lehen pasarteari darion ondorioa egun hori duindu eta gorestea da, esana denez: «Horregatik bedeinkatu du Yhwh-k larunbata eta santutu» (Irt 20,10); hitz hauek adieraziriko kausaren ondorioa, alegia: «Zeren sei egunetan egin baitzituen Yhwh-k...». Baina hortik lege bat egin bazaigu, guri egun hori gordetzeko agindurik, hori beste kausa honetatik datorren ondorioa da: «Gu ere esklabo izan ginelako Egiptoko herrian», non ez genuen lanik egiten geure aukeraz eta nahi genuenean, atsedena hartzeko libre ere ez ginelarik. Beraz, aisia eta atsedena agindu zaigu, horrela bi gauza biltzeko: lehenik, iritzi egiazko bat onartzea, zein baita, munduaren berritasuna, berehalakoan eta den gogoetarik mendreenaz Jainkoaren existentziara garamatzana; bigarrena, Jainkoak egin digun ongiaz oroitzea, *Egiptoko zametatik atera eta atsedenaldea ematean* (Irt 6, 6-7). Nolabait, iritzi espekulatibo bat berretsi eta gorputzari ongi egiteko mesedea da.

ל HOGITA HAMABIGARREN KAPITULUA

[Profeziari buruzko hiru iritzi]

Gizakiek profeziaz dituzten iritziak jende arruntek munduaren betierekotasunaz edota berritasunaz dituztenak bezalakoak izaten dira. Erran nahi dut, Jainkoaren existentzia zin-zinez sinesten dutenen artean

munduaren betierekotasunaz edo berritasunaz hiru iritzi [ezberdin] agertzen diren bezala, jada azaldu dugunez, era berean profeziari buruz ere hiru iritzi ditugu. Ez naiz Epikuroren aburuan geldituko, berorrek, Jainkoaren existentzian sinesten ez zuenez gero, are gutxiago sinets baitzezakeen profezian. Ene helburua, beraz, ez da haxe besterik: Jainkoarengan sinesten dutenen usteak aipatzea.

I.- *Lehen iritzia*, profezian sinesten duten jende paganoena da, eta gure erlijioa jende arrunt batzuek ere onartzen dute. Horien arabera, Jainkoak (gorets bedi!) gizonen artean nahi duena hautatu, profeta bihurtzen eta misio bat ematen dio; eta deus gutxi balio du, horiek diotenez, gizon hori jakintsu edo ezjakin, zahar edo gazte izateak. Halere, halakoek baldintza hau ipintzen dute, gizon hori prestu eta ohitura onekoa izatea; izan ere, orain arte inork ez du esan Jainkoak profeziaren dohaina gizon gaizto bati eman dionik, aurretik hori bide onera ekarri gabe behinik behin.

II.- *Bigarren iritzia* filosofoena da⁸⁵, hots, profezia nolabait giza izaeran datzan bikaintasun bat dela, baina gizakiak ez duela betegintza hori erdiesten jardueraren bitartez ez bada, horrek egitera iraganarazten baitu espezieak ahalmenean⁸⁶ daukana, hor aiurritik edota kanpoko kausaren batetik helduriko eragozpenen bategatik oztoporik agertzen ez bada. Izan ere, bikaintasun baten existentzia halako espezie batean besterik posible ez denean, hori ez da espezie horretako banako bakoitzean bere azken punturaino zertan garatu; halere, beharrezkoa da, gutxienez, espezie horretako banakoren batean existitzea; eta izaeraz bikaintasun horrek, gauzatzeko, kausa erabakitzaile bat behar badu, orduan hori beharrezkoa da. Iritzi horren arabera, ezinezkoa da ezjakina profeta bilakatzea, ez eta gizon bat, bezperan profeta izan gabe, biharamunean bat-batean halakoa gertatzea, aurkikuntza egin duen batek bezala. Aitzitik, haxe gertatzen da: goi mailako izaki bat bere nolakotasun arrazional eta moraletan betegina, aldi berean irudimenik osamaituena badauka eta [geroago] ulertuko duzun eran prestatua bada, nahitaez profeta izanen da, hori geure izaeraz daukagun bikaintasuna delako. Hortaz, iritzi honen arabera, ezinezkoa da banako bat, profeziarako gai izanez eta prestatu egonez gero, profeta ez izatea, aiurri osasuntsuko banakoak jangai onez elikatuz gero, bere baitan odol ona eta antzeko gauzak ez sortzea ezinezkoa den bezalaxe.

III. – *Hirugarren iritzia*, gure Legearena eta gure erlijioaren funtsezko oinarria dena, iritzi filosofiko horren antzekoa da erabat, puntu bakar batean izan ezik. Izan ere, guk uste dugu profeziarako gai izan eta hartarako prestaturik dagoena, halere, gerta daitekeela profeta ez izatea, hori Jainkoaren nahimenaren pean dagoelako. Ene aburuz, hor mirari guztietan bezala gertatzen da, eta maila bereko arazo da. Berezkoa du gizaki orok, osaera naturalagatik, baldin [profeziarako] gai bada eta bere hezkuntzaz eta ikasketez trebatua izanez gero, benetan profeta bilakatzea; eta baldin hori ukatzen bazaio, eskua mugitzeko ezindurik dagoenaren antzerakoa da, Jeroboami gertatu zitzaion bezala (1 Er 13,4), edo ezin ikus dezakeenaren antzera, Siriako erregearen armadari jazo bezala, Eliseoren bila zihoanean (2 Er 6,18). Eta gure funtsezko oinarriaz, hots, buru prestatu eta nolakotasun moral eta arrazionaletan osamaitu beharra dagoela eta, horixe da [Doktoreek] diotena: «Profezia ez datza gizon jakintsu, sendo eta aberatsarengan besterik» (*Šabbat* 92a). Hori jada *Mišnāh*-ri buruzko Iruzkinean eta geure obra nagusian erakutsia dugu⁸⁷, hor jakinaraziz profeten ikasleak etengabeki saiatu izan direla beren buruak prestatzen. Baina prestaturik dagoenak, halere, eragozgarriren bat ukan dezake eta horrexegatik profeta ez bilakatzea, Baruk ben Nerya-ren historiatic ikas dezakezun bezala. Berori Jeremiasen jarraitzailea zen, eta berorrek trebatu, irakatsi eta prestatu zuen, baina, profeta izateko gogo handia izanagatik, dohain hori ukatu zitzaion, berak esan zionez: «Negar-zotinka nekaturik nago eta inondik ere atsedetik ez!» (Jer 45,3), eta Jeremiasen bitartez honela erantzun zitzaion: «Honela erranen diozu: «Hau dio Yhwh-k... Zuk gauza handiak eskatzen dituzu zuretzat. Ez itzazu eska!» (*ibid.* 4-5). Egia esan, pentsa daiteke horrekin adierazi nahi izan dela profetia Barukentzat handitasun goregia zela; eta gauza bera ageri da Negar Kantetako pasarte honetan ere: «Eta Haren profetek ere ez dute Yhwh-rengandiko agerpenik jasotzen» (NK 2,9), eta hori uler liteke haiek erbestean zeudelako, erakutsiko dugunez. Baina anitz pasarte aurkitzen ditugu, bai Bibliako testuetan eta bai Doktoreen hitzetan ere, guztiak oinarritzko hastapen honi ekinez, hau da, Jainkoak profeta Berak nahi duena eta Berak gura duenean bilakarazten duela, berori gizon guztiz bikaina eta egiazki goi mailakoa izanez gero; jende arruntan arteko ezjakinez den bezainbatean, ez baitzaigu hori posible iruditzen –erran nahi baitut Jainkoak horietarik bat profeta bihurtzea– Hark asto bat edo igel bat profeta bihurtzea ere posible ez litzatekeen

bezala. Hortxe datza gure hastapena, hots, saiatzea eta nork bere burua hobetzea nahitaezkoa dela, eta hortik ez bestetik heltzen da [profeta izateko] ahalbidea, Jainkoaren ahalmenarekin elkartu beharrekoa.

Eta ez zaitzala pasarte honek okerrera eraman: «Nik zu amaren errailetan sortu aurretik zintudan ezagutu, eta amaren sabeletik irten baino lehenago sagaratu zintudan» (Jer 1,5); horixe baita profeta guztien egoera, erran nahi baita, beharrezkoa dutela hasiera-hasieratik berezko gaitasuna ukaitea, erakutsiko den bezala. Eta «ni gaztetxo (נַעַר *na'ar*) bat naiz» hitzei dagokienez, badakizu hebreeraz Josef jainkotiarriari *na'ar* deitzen diola, orduan hogeita hamar urte zituen arren, bai eta Josueri ere, hirurogeietara hurbiltzen bazen ere. Izan ere, [azken horretaz] urrezko zekorraren arazoaren garaian honela esaten da: «Eta Josue gaztea (*na'ar*), Nun-en semea ez zen etxolatik aldentzen» (Irt 33,11). Moises gure maisuak orduan laurogeita bat urte zituen eta ehun eta hogeiraino bizi izan zen. Baina Josue, haren ondoan oraindik hamalau urtez bizi izan zena, ehun eta hamar urteko adinera heldu zen. Beraz, argi dago, erran den aldi horretan, Josuek gutxienez berrogeita hamazazpi urte zituela, eta, halere, *na'ar* deitzen zaio.

Ez zaitu okertu behar, halaber, promes profetikoetan aurkitzen denak ere, hor hau esaten baita: «Neure izpiritua haragi [= hilkor] ororen gainera isuriko dut, eta horrela zuen semeek eta zuen alabek profetizatuko dute» (Joel 2,28), [profetak] hori hitz hauekin azaltzen baitu, era horretara profeziaren izaera argituz: «Zuen zaharrek ametsak eginen dituzte eta zuen gazteek agerpenak ikusiko» (*ibid.*). Izan ere, zerbait ezezagunik iragartzen duenari, dela magiaren edo azti-iragarmenaren bidez, edo dela egiazko amets baten bitartez, *profeta* deitzen zaio; eta horregatik Baal-enak eta Ašera-renak ere profeta izena hartzen dute. Ez al dakusazu Jainkoak (gorets bedi!) honela dioela?: «Zure artean profeta edo ameslari bat jaiki baledi...» (Dt. 13,1).

Sinai mendiko agerraldiaz den bezainbatean, [israeldar] guztiek, mirariaren bidetik, su handia ikusi eta zaratots itzel eta izugarriak entzun zituzten arren, halere ez ziren horregatik profeziaren mailara heldu, hartarako garbi zeudenak besterik, eta hori ere neurri ezberdinetan. Hori ongi dakusazu pasarte honetan: «Igo zaitez Yhwh-rengana zu, Aaron, Nadab, Abihu eta Israelgo hirurogeita hamar zahar» (Irt 24,1). Hark [= Moisesek] (bakea bego haren ganean!)

leku gorena dauka, erranaren arabera: «Moises ez beste hurbilduko da Yhwh-rengana, baina haiek ez dira hurreratuko» (*ibid.* 2). Aaron haren ondotik jarri da; Nadab eta Abihu Aaronen azpitik daude, hirurogeita hamar zaharrak Nadab eta Abihuren azpian, eta gainerakoak haiek baino beherago, beren bikaintasun mailaren arabera. Doktoleen pasarte batek hau dio: «Moises esparru berezian da, eta Aaron beste batean, ezberdina»(מכילתא *Mekiltá*, Irt 19,24) .

Eta Sinai mendiko agerraldiaz mintzatzeraz heldu garenez gero, aparteko kapitulu batean Eskriturako testuek eta Doktoleen hitzaldiek, ongi aztertzen direnean, eskaintzen dituzten argibideak erakutsiko ditugu.

לג HOGEITA HAMAHIRUGARREN KAPITULUA

[*Sinaiko agerpenaz*]

Enetzat argi dago Sinai mendiko agerraldian ez zitzaiola Israel osoari bere osotasunean heldu Moisesi iritsi zitzaion guztia. Hitz, aldiz, Moisesi ez besteri egiten zitzaion; horregatik Dekalogoan singularreko bigarren pertsona erabiltzen da eta Bera (Bakea bego haren gainean!) mendiaren oineraino jaitsita, entzun zuena jakinarazi zion jendetzari. Torah-ren testuak honela dio: «Orduan ni Yhwh-ren eta zuen artean nengoan, Haren hitzak ekartzeko» (Dt 5,5). Eta areago ere bai: «Moises mintzo zen eta Yhwh-k ostotsaren bitartez erantzuten zion» (Irt 19,19). Eta *Mekiltá*-n izendatuki esaten da hark agindu bakoitza berak entzun zuen bezala errepikatu ziela. Torah-ren beste pasarte batek hau dio: «Jendeak ikus dezan ni zurekin mintzo naizela...» (*ibid.* 9), eta horrek garbi frogatzen du hizketa harekikoa zela; haiek «ahots gogor» hura entzun zuten baina ez zituzten hitzak bereizi, eta adituriko ahots gogor horretaz erran zen: «Haren ahotsa entzun zenutenean» (Dt 5,20). Eta hau ere bai: «Eta hitzen ahotsa entzun zenuten, inolako irudirik ikusi gabe baina; ahotsa besterik ez» (*ibid.* 4,12); ez da erran, ordea, «zuek hitzak entzun zenituen». Hortaz, entzuniko hitzen kontua den guztietan ez da entzuten zen ahotsa besterik aipatu nahi: Moises zen hitzak entzun eta adierazten zizkiena. Horixe da Torah-ren testutik eta Doktoleen hitzaldi askotatik argi eta garbi ateratzen dena.

Halere, azken horien esanetatik bada baieztapen bat, *Midrāšim*-etako leku askotan eta Talmudean ere aipaturik datorrena; honako hau, hain zuzen: «Ni naiz eta zuk ez duzu ukanen, entzun zuten Guztiahaldunaren ahotik» (מכֹּת *Makôt* 24a). Horrekin erran nahi dute hitz horiek zuzenik heldu zitzaizkiela, Moises gure maisuari bezalaxe (bakea bego haren gainean!), eta ez zela bera jakinarazi zizkiena. Izan ere, hastapen bi horiek, erran nahi baitut, Jainkoaren existentzia eta Haren batasuna, giza espekulazio hutsaren bidez erdiets daitezke, eta frogaren bidez jakin daitekeen guztia, absolutuki maila berekoa da, bai profetarentzat eta bai hori dakien beste edozeinentzat ere, hor batak bestearen gaineko nagusitasunik ukan gabe. Beraz, bi hastapen horiek ez dira soilki profeziaren bidez ezagunak izaten, Torah-ren testuak dioen bezala: «Ikusarazi zaizkizu, ezagut zenitzan...» (Dt 4,35). Gainerako aginduak direla eta, *iritzi gertagarrien* eta tradizioz onarturiko gauzen mailakoak dira, eta ez *gauza ulergarrien* mailakoak⁸⁸.

Baina, horretaz esan zezaketena gorabehera, Bibliako testuek eta Doktoreen hitzek erakusten dutena haxe da: israeldar guztiek agerraldi horretan hots bakarra eta aldi batean besterik ez zutela entzun; eta hots horrexen bidez entzun zituztela Moisesek eta Israel osoak bi aginduak: «Ni naiz, eta zuk ez duzu ukanen», Moisesek beren mintzaira propioan errepikatu zizkienak, letra adigarriak bereziki ebakiz. Doktoreak (bedeinka bedi haien oroitzapena!) horren alde egitean hitz hauetan oinarritu dira: «Behin mintzatu zen Jainkoa, eta bi gauza hauek entzun nizkion» (Sal 62,12), eta argiro erran dute, מִדְרָשׁ חֲזִית *Midraš Hāzît*-aren hasieran (*Kant. Rabbah* 3), haiek ez zutela Jainkoarengandik (gorets bedi!) beste ahotsik entzun, eta horixe da Torah-k berak dioena: «ahots sendoaz, eta ez zuen gehiagorik erantsi» (Dt 5,19 edo 22. bert.). Lehen ahotsa entzun ondoren gertatu zen haiek izandako izu-laborriaz eta beldur ikaragarriaz kontatzen dena, honako hitzok esanez: «Eta esan zenidaten, Yhwh-k, gure Jainkoak egiaz erakutsi dizkigu... Baina zergatik hil orain?... Hurbil zaitez zeu eta entzuzu...» (Dt 5 21-25). Orduan berak, hilkorrik ospetsuenak, bigarren aldiz, gainerako aginduak, banan-banan jaso zituen, eta mendiaren oinerraino jaitsirik jakinarazi zizkien hotsandiko ikuskizun haren erdian. Haiek suak ikusi eta ahotsak entzun egiten zituzten, erran nahi baitut, *ahotsak eta tximistak* (Irt 19,16) hitzekin adieraziak, ekaitza eta tronpetaren durundu handia bezala; eta hor entzuten ziren ahots batzuk aipatzen diren guztietan, esaterako «Eta

herri osoak ahotsa entzuten zuen» (Irt 20,15), hori ez da tronpetaren zarata edo ostotsarena besterik. Baina «Betierekoaren ahotsa», erran nahi baitut, «sorraraziriko ahotsa»⁸⁹, zeinen bitartez [Jainkoaren] hitza jakinarazi zitzaien, ez zuten behin besterik entzun, Torah-k hitzez hitz dioenez eta Doktoreek, jada erakutsi dizudan lekuan, jakinarazten duten bezala. Ahots hori entzun ondoren «beren arimak ihes egin zien» (*Kant. Rabbāh* 5), eta horrexen bitartez hauteman zituzten lehen agindu biak.

Jakin beharra dago, halere, ahots horretaz den bezainbatean ere, haien hautemate-maila ez zela Moises gure maisuarena bera (bakea bego haren gainean!). Misterio horren gainean zure arreta erakarri behar dut eta jakinarazi hori gure nazioak tradizioz onarturiko gauza dela, eta gure Jakintsuek ere badakitena. Izan ere, hitz hauek aurkitzen dituzun pasarte guztietan «Eta Yhwh-k Moisesi hitz egin zion, zioela», Onqelosek [hitzez hitz] honela itzultzen ditu: וּמַלְלָהּ *umalal h' yat kol pitgamû*. «eta Yhwh mintzatu zen», eta, era berean «Eta Yhwh-k hitz hauek guztiok esan zituen» (Irt 20,1) וְכָל פְּתֻמָּיָהּ *umalal h' yat kol pitgamû*. Ordea, israeldarrek Moisesi esandako hitzak: «Eta ez diezagula Jainkoak hitz egin» (Irt 20, 16 edo 19) hark «Ez dakigula hitz egin Jainkoaren aldetik» gisa itzultzen ditu. Horrela berak (bakea beuka gainean!) horren bitartez azaldu dizugun ezberdintasuna nabarmendu dizu. Badakizu Onqelosek, berak espresuki esan zuenez, gauza miresgarri eta gogoangarri hauek R. Eliezerren eta R. Josueren ahotik ikasi zituela, hots, Israelgo doktoleen artean nagusienengandik.

Hori guztiori jakin eta gogoratu behar duzu, ezinezkoa baita Sinai mendiko agerraldian hemen egin den baino sakonago barneratzea, [agerraldi] hori Torah-ren misterioetako bat da eta. Hautemate horren egiazko izaera eta lagun dituen zirkunstantziak oso ilunak dira guretzat, aurretik ez baita inoiz antzekorik izan, eta etorkizunean ere ez da horrelakorik izanen. Jakizu hori ongi.

לְ HOGEITA HAMALAU GARREN KAPITULUA

[Irt 23,20-ren azalpena, aingerua profetaren ararteko]

Torah-n datzan eta honela dioen pasarte honi dagokionez: «Hona non igorriko dudan neure aingerua zure aurrean ibil dadin» (Irt

23,20) Dt 18,18an azaltzen da, non irakurtzen den Jainkoak Moisesi Sinai mendiko agerraldian: »Zu bezalako profeta bat sorraraziko diet...». Eta horren froga aingeru horretaz esaten dena da: «Izan begirune berari eta ibili haren esanera...» (Irt 23, 21), zalantzarik gabe jendetzari zuzenduriko agindua berau, baina aingerua ez zitzaion jendetzari agertu, eta ez zion hari [zuzenik] inolako agindu ez debekurik adierazi, horien bidez ohartarazteko beraren aurka ez zutela oldartu behar. Hitz horien esangura, hortaz, ezin daiteke hau besterik izan: Jainkoak (gorets bedi!) jakinarazi ziela haien artean profeta bat izanen zela, eta hari aingeru bat etorriko zitzaiola, mintzatzeraz, eta aginduak eta debekuak jakinaraziko zizkiola. Beraz, Jainkoak aingeru horren aurka, zeinen hitza profetak adieraziko digun, ez oldartzeko agintzen digu, Deuteronomioan (18,15) argiro esan zaigunez: «Eta bera entzunen duzu»; bai eta honetan ere: «Eta hark (= profetak) ene izenean esandako hitzak entzun nahi ez dituenari...» (*ibid.* 18,19), eta horrexek azaltzen ditu berba hauek «ene izena daramalako» (Irt 23, 21).

Hau guztia [esan zitzaion] honakoaz ohartarazteko: Ikusi duzuen ikuskizun ikargarri hori, hots, Sinai mendiko agerraldia, ez da zuentzat iraun behar duen zerbait; horren antzekorik ez da izanen etorkizunean, eta ez da beti surik ez hodeirik ere izanen, orain den bezala «etengabeki tabernakuluaren gainean» (Irt 40, 38). Baina zuen profetei igorriko diedan aingeru batek herrialdeak konkistatuko dizkizue, lurra zuen aitzinean hedaraziko du, eta zer egin behar duzuen jakinaraziko dizue, burutu beharrekoa eta saihestu behar duzuenaz. Horrexegatik emana da, halaber, etenik gabe azaltzen jardun dudana hastapena ere, hau da, Moises gure maisua salbuetsirik, profeta guztiei agerpena aingeru baten bitartez heltzen zitzaielaz. Jakizu hori ongi.

לֵּה HOGITA HAMABOSGARREN KAPITULUA

[*Moises, profeta*]

Mundu guztiarentzat argiro erakutsirik utzi ditut⁹⁰ *Mišnāh-ri buruzko Iruzkinean* eta *Mišnèh Tôrāh*-n Moises gure maisuaren profeziaren eta gainerako profeten profeziaren arteko lau ezberdintasunak, eta horren begien bistako frogak nabarmenak eman ere

bai. Beraz, ez da errepikatu behar, eta, hori, bestalde, Tratatu honen xedeetatik landa dago.

Jakinarazi behar dizut Tratatu honen kapituluetan profeziaz erran dudan guztia ez dagokiola Moises baino lehenagoko eta haren ondoan etortzeko ziren guztien profeta-izaerari besterik. Baina Moises gure maisuaren profeziari buruz, kapitulu hauetan ez dut hitzik batere erranen, ez zuzenik ez eta zeharkako aipuez ere. Izan ere, ene aburuz, anfibologiak besterik ez zaio Moisesi eta, aldi berean, gainerakoei *profeta* izena ematen; eta, ene ustez, gauza bera gertatzen da haren mirariekin gainerakoen mirariekiko, haren mirariak beste profeten mirarien mailakoak ez direlako. Eta haren profezia beraren aurreko guztiena ez bezalakoa zelako froga, Legetik aterata, hitz hauetan datza: «Agertu nintzaion Abrahami, Isaaki eta Jakobi... baina ez nien neure egiazko izena agertu, Yhwh» (Irt 6,3), hor jakinarazten baitzaigu haren hautematea ez zela inondik ere patriarken antzekoa, handiagoa baizik, ez eta, are arrazoi handiagoaz, aurreko profeten parekoa ere⁹¹. Eta haren profezia eta beraren ondorengo guztiena ere ezberdina zela erranik dago adierazpen soil gisa: «Eta ez da Israelen sortu Moises bezalako profetarik, norekin Yhwh-k aurpegiz aurpegi tratatzen baitzuen» (Dt 43,10). Beraz, argi erranik dago haren hautematea eta beraren ondoren israeldarren artetik etorri beharko zuten guztiena ezberdina zela, horiek, halere, «apaizen erresuma eta herri santua» izan arren (Irt 19,6), «horien erdian Yhwh zelarik» (Zkiak 16,3), eta, beraz, are arrazoi handiagoaz gainerako nazioen artetik. Haren mirariak eta beste edozein profetarenak, oro har, elkarrengandik honetan bereizten dira: profeta horiek egiten zituztenak, edo horien alde eginikoak, pertsona batzuek besterik ez zituzten ezagutzen, esaterako, Eliasek eta Eliseok egindakoak. Ez al dakusazu nola, Israelgo erregeak horri buruz argitasunak eskatzen dituen eta Gehaziri horri buruz galderak egiten dizkion, ziotsola: «Hortaz, konta iezazkidazu Eliseok egin dituen gauza handi guztiak; eta horiek kontatzen ari zenean... Eta Gehazik erran zuen: Ene errege jauna, hori duzu emakumea eta horixe Eliseok biziarazi zion semea» (2 Erg 8,4-5). Eta horrelakoxeak dira gainerako profeta guztien mirariak, Moises gure maisuarenak izan ezik; horregatik Eskriturak, berorri buruz, honela dio, oraingoan ere adierazpen moduan, ez dela egundaino beste profetarik agertuko mirariak jendaurrean, adiskidearen zein etsaiaren aitzinean, Moisesek

bezala, egingen dituenik. Horixe da erran dena: «Eta ez da Israelen sortu Moises bezalako profetarik –esaten da– ... inor ez horren parekorik mirariak eta egintza harrigarriak egiten... Israelgo herri osoaren aurrean» (Dt 34,10-12). Hor gauza biak batera lotu eta elkartu dira: ez dela inoiz agertuko hark bezalako hautematea ukanen duen beste profetarik, eta inork ez duela egingen hark egin duenik ere. Ondoren, mirari horiek «Faraoiaren, haren zerbitzari guztien eta herrialde osoaren aurrean» egin zirela adierazten da, hots, haren aurkarien aitzinean, bai eta israeldar guztien aurrean ere, bere aldekoen aitzinean «Israel osoaren begietan», hura baino lehenago ezein profetarekin gertatua ez zena, eta horren egiazko iragarpenak hori ez dela berriz beste inorekin gertatuko jakinarazten du.

Ez zaitzala okerrera eraman Josuek zenbait orduz geldiarazi zuen Eguzkiaren argiaz esan denak: «Eta Israelen aurrean esan zuen» (Jos 10,12); hor ez baita «Israel osoaren» esaten, Moisesen kasuan esan den bezala. Era berean, Eliasek, Karmel mendian, lagun talde txiki baten aurrean jardun zuen. Eta «zenbait orduz» erran badut, hori da כִּיּוֹם תָּמִים *keyôm tāmîm* ‘egun osoan beste’ hitzek (Jos 10,13) ‘izan daitekeen egunik luzeena’ esan nahi dutelako, *tāmîm* berbak ‘osoa’ adierazten du eta. Beraz, hori da erran balitz bezala, Gabaongo egun hura haientzat eskualde hartako uda-egunik luzeena bezalakoa gertatu zela.

Behin zeure gogoan Moisesen profezia eta haren mirariak leku berezian jarri eta gero –hor bai hautematea eta bai egintzak ere ohi ez bezalakoak baitira– , eta hor guk bere egiazko osotasunean ezin konpreni dezakegun maila bat badela barneratu ondoren, ulertu ahal ukanen duzu hurrengo kapitulu guztietan profezia eta hor profetek duten maila ezberdinez erranen dudana, [Moisesen] goren maila hori salbuetsirik.

ל HOGEITA HAMASEIGARREN KAPITULUA

[Profeziaren kontzeptua: profeten betebeharrak eta maila]

Jakizu profezia, egiazki, Jainkoaren jariapen bat dela (gorets bedi!), adimen egilearen bitartekotasunaz lehenik arrazoimenaren eta ondoren irudimenaren gainean hedatzen dena, eta gizakiaren maila

gorena da eta beraren espezieak erdiets dezakeen bikaintasunaren gailurra, eta egoera hori irudimenaren osamaitzerik jasoena da. Hori ez da edozein gizakirengan gertatzen, eta ezin hel daiteke horretara soilik espekulazio-zientzietan sakonduz eta nork bere ohiturak hobetuz, horiek guztiok onenak eta ederrenak balira ere, horri irudimenaren bikaintasunik handiena elkartzen ez bazaio bere hasierako eraketan. Badakizu gorpuzteko gaitasun horien osamaitzea –eta horietako bat irudimena da–, gaitasun hori daraman organoak ukan dezakeen gorpuzkerarik hoberenaren arabera izaten dela, horren proportziorik ederrenaren eta horrexen materiaren garbitasunik handienaren arabera; behin hori galduz gero, ez dago hori konpontzerik edo akatsa ordezkatzetik erregimen baten bitartez. Izan ere, konpontzeko erregimenak bere eratzearen hasieratik gorpuzkera txarra ukan duen organoa, gehienez ere, halako osasun-maila batean kontserba dezake, baina horregatik ukan lezakeen eraketarik hoberenera eramane gabe; baina ments hori haren desproporzioetik, haren jarreratik edo substantziazatik heldu bada, erran nahi baitut, bera formatu den materiatik bertatik, orduan ez dago hori erremediatzeko biderik. Ongi dakizu hori guztiori, eta beraz, alferrekoa litzateke gai horretan azalpen luzeei ekiten saiatzea.

Jakin dakizkizu, halaber, irudimenaren egintzak, hots, gauza hautemangarrien oroitzapena gordetzea, horiek elkarrekin lotzea eta, haren izaerari bereziki dagokiona, irudiak errepikatzea; haren jarduera handiena eta nobleena ez da gertatzen zentzuak gelditzen eta jarduteari uzten diotenean besterik: orduan nolabaiteko inspirazioa heltzen baitzaio, haren jarreraren arabera, eta horixe da egiazko ametsen kausa, eta profeziarena ere bai. Horretan ez da ezberdintasun espezifikorik, gehiago eta gutxiagokoa baizik. Badakizu Doktoreek behin eta berriro esan dutena: «Ametsa profeziaren hirurogeirena da» (ברכות *Berakôt*, 57b). Halere, ezin jar daiteke proportziorik bi gauza espezifikoki ezberdinen artean, eta, hortaz, ez litzateke zilegi izanen, konparazione, hau esatea: gizakiaren bikaintasun-maila honenbeste edo hainbeste aldiz handiagoa da zaldiaren baino. Ideia hau *Berē'shīt Rabbāh*-n (17) errepikatu dute, diotela: «Ametsa profeziaren fruitu heltzaka da», eta hori, izan, konparazio harrigarria da. Izan ere, fruitu heltzaka (נובלית *nôbelet*) fruitua bera bezalakoxea da, baina erabat zoritu baino lehen eroria. Era berean, loaldian irudimenaren egintza

profezia-egoeran bezalakoa da, baina oraindik aski izan gabea eta bere osamaitze mugara heldu gabea. Baina zertarako irakatsiko dizut Doktoleen hitzekin (bedeinka bedi haien oroitzapena!), Torah-ko testuak bazterrean utzirik? Esate baterako: «Zuetako batek profetizatuz gero, ni ikuspenez agertuko natzaio, eta ametsetan hitz eginen diot» (Zkiak 12,6). Hemen Jainkoak (gorets bedi!) profeziaren egiazko izatea ezagutarazten digu, *ametsetan* edo *ikuspenez* heltzen den bikaintasun bat dela jakinaraziz. Ikuspen hitza (מראה *mar'āh*), ikusi (ראה *ra'h*) hitzetik heldu da, eta irudimenak, hain bikainki heltzen zaionez gero, gauza hori kanpoan benetan balitz bezala dakusa, eta jatorria bere barruan daukan gauza hori kanpoko hautemateetik heldu zaiola iruditzen zaio. Atal biotan, erran nahi baitut, *ikuspenean* eta *ametsen*, sarturik daude profeziaren maila guztiak, geroago erakutsiko denez. Gauza jakina da, gizakia, itzarririk dagoenean eta bere zentzuez baliatuz, arduratzen deneko gauza, gogoz darabilena eta haren nahiaren helburu dena, haren irudimenak ere erabiltzen duela loaldian, adimen egilea haren gainean hedatuz, haren prestakuntzaren arabera. Alferrekoa litzateke horren adibideak ekarri eta areago esatea ere, hori edonork dakien gauza argia baita, zentzuen hautematea bezala, eta horren aurka zentzu oneko gizonetarik inork ez du deus esaten.

Atariko kontu hauen ondoren, jakin beharra dago hemen giza banako batez ari garela, horren burmuinaren substantzia, bere jatorrizko eraketan, oso ongi proportzionaturik daukana, bai bere materiaren eta bai bere zati guztien bana-banako gorpuzkeraren garbitasunagatik, bere zenbatekotasunagatik eta jarreragatik, beste ezein organoren aldetik bere gorpuzkeran inolako eragozpenik pairatu gabe. Ondoren, gizabanako horrek eskuraturik eduki beharko lituzke zientzia eta jakinduria, ahalmenetik egitera iragan ahal izateko, bai eta giza adimen erabat bikaina eta giza ohitura garbi eta berdinak⁹² ere, bere nahi guztiak mundu honetako misterioen zientziara eta horren kausak jakitera isuririk. Era berean, pentsamendua beti gauza nobleetara begira eduki beharko luke, Jainkoaren ezagutzaz besterik arduratu gabe, Haren egintzen mirespenaz eta horri buruz sinetsi behar denaz, eta haren pentsamendua eta nahia animaliazko den orotatik gabeturik egotea, hau da, jateak, edateak, bizikidetzak eta, oro har, ukimenak ematen dituzten atsegin guztietatik, zentzu hori Aristotelesek bere *Etika*-n⁹³ bereziki guretzat lotsagarria dela esan du eta. Eta arrazoi

handiz esan ere bai! Egia hutsa baita zentzu hori lotsagarria izatea! Izan ere, guk ez dugu [zentzu] hori animaliak garen aldetik besterik, gainerako abereen antzera, eta ez dauka bere baitan deus gizatasunaren ideiaz bat datorrenik. Zentzuen bidezko gainerako atseginez den bezainbatean, hala nola usaimen, entzumen eta ikusmenarenak, horiek gorputzarenak izan arren, hor batzuetan gizaki mailako giza plazer bat aurkitzen da, Aristotelesek azaldu duen bezala. Gure oraingo helburuan ez den zerbaitez mintzatzen luzatu gara hemen, baina hori beharrezkoa zen, maiz jakintsu ospetsuen pentsamenduak zentzu horren atseginez arduratzen direlako, eta horiek desiratzen, eta gero harritu egiten dira profeta izatera ez heltzeaz, profezia gizakiaren izaeran datzan zerbait delakoan. Beharrezkoa litzateke, halaber, halako gizabanakoaren alferreko handinahikerietatik askaturik egotea, erran nahi baitut, agintzeko gogotik edo herriko jendeek goretsia izan eta horien omenaldiak eta menpetasuna eskuratzeko nahitik, beste helbururik gabe. Izan ere, hobe da gizaki guztiak beren jarreraren arabera kontsideratzea: eta, horrela, batzuk baserriko abereen antzekoak dira, eta beste batzuk basapiztien gisakoak, baina gizaki osamaitu eta bakartiak⁹⁴ ez du horiez pentsatzen, beroriek ekar diezaioketen kaltetik babesteko ez bada, halabeharrez haiekiko arazoren bat badauka, edota, nolabaiteko premiarik baleuka, inoiz halakoek eskain diezaioketenetik probetxua atera ahal izateko. Beraz, itxuratzen aritu garen bezalako gizabanako batengan, ahalik eta maila goreneko irudimenaz bete-betea diharduela, horren gainean, banakoak espekulatzeko daukan bikaintasunaren arabera, adimen egilea isuriz, gerta baledi Jainkozko gauza harrigarriak hautematea, ez luke besterik ikusiko Jainkoa eta Haren aingeruak baino, eta hortik erdietsiko lukeen zientziaren xede bakarrak egiazko iritziak eta gizakien arteko harreman onak bideratzeko portaera-arauak lirateke.

Gauza jakina da guk jarri ditugun hiru baldintzetan, hau da, arrazoimenaren hobekuntza, ikasketen bidez lortua, irudimenarena, bere jatorrizko eraketan, eta ohiturena, pentsamendua gorputzaren atsegin guztietatik aldendu eta nahia era guztietako handikeria ergel eta kaltegarrietatik moteltzen denean erdietsia, gizon osamaituek batzuek besteen gainean nagusitasun nabarmena daukatela, eta hiru gauza horien bana-banako nagusitasunarengatik izaten dira profeta guztiak, mailari dagokionez, batzuk besteak baino gorago.

Badakizu gorputzeko gaitasun oro bai txikitu, ahuldu eta hondatu eta bai indartu egin ohi direla, eta irudimena, zalantzarik ez, gorputzeko gaitasunetako bat da; horregatik aurkituko duzu profetek tristura, haserre eta antzeko beste sentimenduen eraginpean profetizatzeari uzten diotela. Badakizu, halaber, Doktoreek esaten dutela «profezia ez datorrela ez tristurak dirauen artean ez eta beheraldietan ere» (*Šabbat* 30b), eta gure patriarka Jakobek ez zuela batere goi-agerpenik ukan bere dolu-egunetan, haren irudimena Josefen galeraz arduraturik zegoelako, eta Moisesek, gure profetak (bakea bego haren gainean!), ez zuela lehenago bezalako goi-agerpenik ukan, esploratzaileen zorigaitzoko gertaeraz gero, harik eta basamortuko belaunaldia, jende borrokazalea, oso-osorik zendu zen arte (תַּעֲנִית *Ta'anit* 30b), haien bidegabekeria handiaz erabat jorik zegoelako, haren kasuan (bakea bego haren gainean!) irudimena haren profezia ezertarako sartzen ez bazen ere, baina adimen egilea haren pertsonaren gainean isurtzen zen gaitasun horren bitartekotasunik gabe. Izan ere, anitzetan errana dugunez, hark ez zuen parabolak bidez profetizatzen gainerako profeten antzera, beste nonbait azalduko denez, hori ez baita kapitulu honen xedea. Era berean, aurkituko duzu profeta batzuk, halako denbora batez profetizatzen jardun ondoren, profeziaren dohainetik gabeturik izan zirela, gertakariren bat zela eta, hark ezin iraun zezakeelako. Horixe da, dudarik ez, gatibutasunaren garaian profezia etena izateko funtsezko eta berehalako kausa; izan ere, gizon batek, edonolako zirkunstantzian, ukan al dezake etsitzeko eta tristatzeko arrazoi larriagorik, esklabo, hots, inoren jabetzapekoa izatea baino, alegia, animalia-irrits lizun oso-beteak eta egiazko arrazoimenik eza beren baitan elkarturik dauzkaten gizon ezjakin eta fedegabeen menpeko izatea, «eta ezin ezer egin» (Dt 28,32). Horrekin mehatxaturik egon gara, eta horixe da hitz hauekin erran nahi izan dena: «Noraezean ibiliko dira, itsasoz itsaso, iparraldetik eguzkialdera, Yhwh-ren hitzaren bila (gorets bedi!); baina ez dute aurkituko» (Am 8,12); eta hau ere bai: «Haren errege eta printzeak jentilen eskuetan daude, Legerik gabe, eta profetek berek ez dute Yhwh-rengandik agerpenik jasotzen» (NK 2,9). Hori egia da, eta horren arrazoia ageria; tresna ez baitzen gehiago ibilian aritu. Eta arrazoi berberagatik profezia berriz ere etorriko zaigu Mesiasen garaian (ager bekigu laster!), promesaz agindu zaigun bezala.

𐤀𐤋 HOGEITA HAMAZAZPIGARREN KAPITULUA

[Gizakiarengan ageri den Jainkozko iradokizun eta goi-jariapenaz]

Beharrezkoa da zure arreta guregana heltzen den Jainkozko jariapen honen funtsezko izaeraren gainera eramatea, horren bitartez pentsatzen baitugu, eta, bestalde, horrexek egiten ditu gure adimenak batzuk besteak baino goragoak. Izan ere, batzuetan gizabanako bati bera hobetzeko neurri nahikoaz heltzen zaio, harago joan gabe, eta beste batzuetan berorren hobekuntzarako baino neurri gehiagoz, gainerakoen hobekuntzaren mesedetan. Eta gauza bera gertatzen da izaki guztietan ere: horietako batzuek besteak gobernatzeko adinako hobekuntza daukate, baina horrenbeste hobekuntzarik gabeek besteei utzi behar diete gobernatzen, jada azaldu dugunez.

Hori horrela izanik, jakin behar duzu adimen egilearen jariapen hori [gizakiaren] arrazoimenaren gainean besterik isurtzen ez bada, horretarik irudimenaren gainean deus isuri gabe, dela jariapena bera aski ez delako, dela irudimena bere jatorrizko eraketan akastuna delako, horregatik adimenaren jariapena jasotzeko ezgai izanik, hortik espekulazioan diharduten jakintsuen saila heltzen dela. Baina baldin jariapen hori aldi berean gaitasun bi horien gainean isurtzen bada, erran nahi baitut, arrazoimenaren eta irudimenaren gainean, jada erakutsi dugunez eta filosofoen arteko beste batzuek ere erakutsi duten bezala, eta irudimena bere jatorritik bikaintasun osoan sortua bada, hortixek datorke profeten saila. Eta, azkenean, jariapena soilik irudimenaren gainean isurtzen bada, eta arrazoimena, aldiz, atzendurik gelditzen, dela bere jatorrizko eraketagatik, dela ariketarik ezagatik, hortik legeak egiten dituzten estatu-gizonak sortzen dira, aztiak, igarleak eta egiazko ametsen egileak; eta, era berean, baliabide harrigarrien eta antze ezkutuen bitartez mirariak egiten dituztenak agertzen dira, horregatik jakintsuak izan gabe, eta horiek guztiok hirugarren sail honetakoak dira.

Honetaz ere sakonki jabetu beharra daukagu, hots, hirugarren sail horretako batzuei, itzarririk daudenean ere, itxuragabeko ikuspen harrigarriak, amets eta inarrospenak etortzen zaizkiela, ikuspen profetikoen antzekoak, eta horrela beren buruei profeta irizteraino

heltzen direla; eta itxuragabeko ikuspen horietan hautematen dutenaz atsegin handia hartzen dute, ikasi beharrik gabe zientziak eskuratu dituztelakoan, eta espekulazio-arloan garrantzi handia duten gauzetan nahasmendu ikaragarria sartzen dute, era harrigarriaz gauza egiazkoak eta itxuragabekeriak elkarrekin nahasiz. Eta hori guztia haiengan irudimena oso sendoa delako; baina arrazoimena, aldiz, ahula eta deus jaso gabea; erran nahi dut ez dela inola ere ahalmenetik egitera iragaten.

Gauza jakina da hiru sail horietako bakoitzean badirela maila ugari. Lehen bi sailtako bakoitza bi ataletan banatzen da, erakutsi dugun bezala. Izan ere, sail bietako bakoitzari heltzen zaion jariapena, biotarik bat: soilik gizabanakoa hobetzeko adinakoa da, eta ez gehiago, edo bestela aski sendoa da, eta hortik gizabanakoari soberakina ere gelditzen zaio horrekin besteak ere hobetzeko. Lehen sailari, hau da, jakintsuenari, dagokionez, banakoaren arrazoimenarengainean isurtzen dena, batzuetan nahikoa izaten da harekin adimen oneko pertsona ikasia egiteko, hots, jakinduria eta bereizmena dauzkana, baina besteei irakasteko eta obrak izkiriatzeko ere zaletasunik gabea, horretarako gogo eta trebetasunik ezaz, eta beste batzuetan, aldiz, haren gainera isurtzen denak badauka indar nahikorik nahitaez obrak izkiriarazteko eta besteen irakasle izatera bultzatzeko ere. Gauza bera gertatzen zaie bigarren sailekoei ere: inoiz halako profetak badauzka goi-agerpen batzuk, bere burua hobetzeko besterik balio ez diotenak; eta, inoiz, ordea, goitik jasoriko agerpen horrek beste gizakiei dei egitera eta irakastera behartzen du bera, haien gainera ere bere hobekuntzaren zati bat hedaraziz. Beraz, argi dago neurriz gaineko hobekuntza hori gabe ez ziratekeela egin zientziei buruzko liburuak, eta profetek ez zieketela gizakiei deirik egin egia jakitera. Izan ere, jakintsu batek ez du beretzat ezer izkiriitzen, bere buruari jada dakiena irakasteko, baina adimen egile horren izaeran etengabeki komunikatzeko joera datza, eta jariapen hori banako batetik bestera hurrenez hurren hedatzea ere bai, harik eta halako batengana heldu arte, zeinetan horren eragina gehiago ezin luza daitekeen, gizabanako hori bere pertsonan hobetzera mugatuz, Tratatu honen kapituluetakoa batean, adibide baten bidez, jada azaldu dugun bezala. Gai horren izaerak horren gehiegizko jariapena jaso duena nahitaez beste gizakiekin komunikatzera behartzen du, bera dantzutela edo ez dantzutela, inoiz bere burua arriskuan ere

jarriz. Horrela, profeta batzuk aurki ditzakegu gizakiei predikatzen, hilaraziak izan arte, lasaitasunik eta atsedunik ematen ez zien jainkozko iradokizun horrek eraginda, aldean zoritxar handiak ukanik. Horrexegatik ikus dezakezu Jeremias aldarrikatzen ezen, bere garaiko gizon sinesgogor eta bihurriengandik pairatzen zuen gaitzespenaren ondorioz, bere profeta-misioa alde batera utzi nahi zuela, eta haiek mespretxatua zuten egiaira joateko dei gehiagorik egin ez, baina ezinezkoa gertatzen zitzaiola hori egitea: «Eta egun osoan Yhwh-ren hitza enetzat lotsa eta ahalkeizuna da. Eta neure buruari hau erran nion: ez naiz Hartaz gehiago oroituko, ez naiz berriz Haren izenean mintzatuko», baina ene barruan su kiskalgarri bezalako zerbait datza, ene hezurretan sartua; hura pairatzen nekaturik nago, baina ezin dut» (Jr 20,8-9). Gisa berean mintzo da beste profeta bat, dioela: «Jaunak, Yhwh-k, hitz egin du; nork ez du, bada, profetizatuko?» (Am 3,8). Horretan sakondu behar duzu.

לֵּה HOGETA HAMAZORTZIGARREN KAPITULUA

[Ausartzia santua eta igartzea, egiazko profetengan nabari diren gaitasunak; berorien irudimena eta adimen-maila]

Jakizu gizaki bakoitzak halabeharrez badaukala ausarmena, eta hori gabe ez lukeela pentsaerak bera mugiaraziko kalte egiten diona berarengandik baztertzeraz. Ahalmen hori, ene ustez, arimaren ahalmenen artean, ahalmen fisikoen artean iraizmena⁹⁵ den gisakoa da. Ausarmena indarraren eta ahultasunaren arabera aldatzen da, gainerako ahalmenen antzera, eta, horretara, aurkituko duzu halako gizon bat lehoiaren aurka abiatzen dela, eta beste halako bat sagu baten aurretik iheska doala; bada armada bati bakarrik erasotzen dionik, eta emakume batek oihu egiten dionean beldurrez dardarka hasten denik ere. Beharrezkoa da, halaber, bere jatorrizko eraketatik bertatik bere gorpuzkeran aurrez nolabait berezko jarrera edukitzea, eta hori, pentsatzeko era bereziren batekin, handitu egingen da, eta horrela, ahalmenean dagoena kanporatzeko ahaleginaren poderioz jalgiko da, eta, beste pentsaera batekin, aldiz, txikituko, ariketarik ezagatik. Txiki-txikitandik ezagun da haurrek gaitasun hori sendoa ala ahula duten.

Era berean, [profeta guztiengan aurkitzen den] *igarmen* hori gizaki guztiengan izaten da, baina gehiago eta gutxiagoko neurrian aldatzen da, batez ere gizakia biziki kezkatzen duten gauzei doakienez, eta horiek bereziki bere pentsamenduan darabiltzanean. Adibidez, halako batek halako zirkunstantzian era horretara mintzatu edo jardun duela igartzen duzu, eta egiazki horrela izan da. Halako gizakia aurkitzen duzu, asmamen eta igarmen handi eta zehatzak dauzkana, eta halatan, irudimenez badela uste duen ia guztia, iruditu zaion bezalakoa da benetan, edo, gutxienez, zati batez bederen. Horren kausak ugariak dira, eta hori lehenagoko, geroagoko eta oraingo zirkunstantzia askoren kateketaz heldu da; baina igarmen horren indarrak, adimena premisa horietatik guztietatik zehar ibiltzen da, eta hortik ondorioak hain denbora laburrean ateratzen dituenek, badirudi hori ez dela istant baten arazoa besterik. Gaitasun horri esker iragartzen dituzte gizaki batzuek etortzeko diren gertaera larriak.

Gaitasun biok, erran nahi baitut, ausarmenak eta igarmenak, halabeharrez profetengan oso sendoak izan behar dute. Adimen [egilea] haien gainetik hedatzen denean, gaitasun biok indar oso handia hartzen dute, eta badakizu horrek norainoko eragina duen, hots, gizon bakar bat, bere makilarekin, errege handi baten aitzinean ausarki aurkezteraino, nazio bat hark jarriko esklabotasunetik askatzeko, horregatik beldurrik ez izu-laborririk sentitu gabe, hau esan zitzaiolako: «Ni zurekin izanen naiz» (Irt 3,12). Egoera hori haiengan (= profetengan) asko aldatzen da, baina ezinbestekoa dute. Honela esan zitzaion Jeremias: «Ez izan haien beldur... Ez zaitez haien aurrean ikara... Horra, gaurdanik zu gotorleku-hiri egin zaitut» (Jr 1,8. 17-18). Eta gauza bera Ezeieli ere: Ez zaitez haien beldur izan eta ez ikaratu haien hitzengatik» (Ez 2,6). Horretara, guztiak (bego bakea haien gainean!) ausartzia handiz horniturik aurkitzen dituzu. Era berean, igarmen handiari esker, etorkizuna berehala iragartzen dute; baina honetan ere haien artean maila ezberdinak izaten dira, zerorrek ongi dakizunez.

Jakin behar da egiazko profetek, zalantzarik ez, badituztela, halaber, espekulazio-hautemateak ere, baina, halako izaera berezikoak izanik, gizakiak, espekulazio hutsak, ezin litzake erdiets halako jakinduriara daramaten kausak, hala nola aurreratsen dituztenean gizakiak, uste hutsez eta igartze arruntak, ezin aurreratsen litzakeen

gauzak. Izan ere, irudimenaren gainean hedatzen den goiargi horrek, hura halako punturaino osamaitzen du eta haren egintza etorkizuna igarri eta hori zentzuen bidez hautemanikoa eta zentzu horien bidez irudimenara etorria balitz bezala heltzen da, eta goiargi berberorrek arrazoimenaren egintza ere osamaitzen du, eta egintza horren bidez gauzen benetako izatea jakitera heltzen da, eta horiek hautematen ditu espekulazio-baiespenen bitartez erdietsia baleuka bezala. Egia hori da alderdikieriarik gabeko iritzia ukan nahi duen edozeinek onartu behar duena, gauza guztiek elkarren lekukotasun eta frogatzat balio dute eta. Hori are gehiago dagokio arrazoimenari. Izan ere, adimen egilea egiazki zuzenik beraren gainean hedatzen baita, [ahalmenetik] egitera iraganaraziz, eta arrazoimenaren bidez iristen da, hain zuzen, hedapen hori irudimenara. Hortaz, nola erdiets lezake irudimenak halako hobekuntza hori, zentzuen bidez heltzen ez zaiona hautematen uzten diona, aldi berean arrazoimenarekin beste horrenbeste gertatu gabe, hots, premisen, ondorio logikoaren eta gogoetaren bidez ezin hauteman dezakeena hautemateko hobekuntzarik ez baleuka? Horixe da, bada, profetismoaren egiazko ideia, eta horrelakoak dira doktrina profetikoaren ezaugarriak ezartzeko balio duten iritziak. Eta, profetez esan berri dudana, aurretik egiazko profetak izan behar dutelako baldintza jarri baldin badut, hori izan da, hirugarren mailako jendeaz neure erreserbak egiteko, horiek ez baitute nozio arrazionalik, ez zientziarik, itxuragabeko ametsak eta iritzi oker hutsak baizik. Era berean, litekeena da holakoek hautematen dutena behiala eduki zituzten ideiak besterik ez izatea, eta beren oraingo amets itxuragabeetan haien arrastoren bat gordetzea, beren irudimenean dagoen guztiaren ondoan; eta horrela, itxuragabeko amets horietako asko ezereztu ondoan, antzinako ideia horiek bakarrik geldituak izatea, horiek gauza berriak eta kanpotik helduriko zerbait bezala irudituz. Nik bere ondoan etxean milaka animalia eduki dituen gizon batekin konparatuko nuke, eta horiek etxetik kendu ondoren, berorien arteko bakar bat utzirik, banako horrekin bakarrik gelditzean, gizonak pentsatuko balu bezala hori etxera sartu berri zaiola, baina benetan ez da horrela izan, alderantzizkoa baizik, hots, horixe da etxetik irten ez den bakarra. Hortik uste oker galgarrienak etorri dira, eta bereizmena zeukatela pentsatzen zuten anitz jende galbidera abiarazi ere bai. Horrela aurkituko dituzu beren ideien egiazkotasuna berek ukan dituzten ametsetan oinarritzen

dituzten pertsonak, eta lo zeutzala ikusirikoa iruditzen zaie itzarrik zeudenean berek hauteman edo entzundako ideia ez bezalakoa zela. Horrexegatik ez zaie inolako jaramonik egin behar arrazoimen osamaitua ez dutenei eta espekulazioaren goren mailara heldu gabeei: izan ere, espekulazioaren maila horretara iritsi denak ez bestek erdiets baititzake, ondoren, bestelako ezagutzak ere, Jainkoak bere adimena haren gainera isurtzen duenean. Horixe da egiazko profeta, eta וְנִבִּיאַ לְבָב חֲכָמָה *wenabî lebab ḥokmah* hitzekin (Sal 90,12) argiro adierazia, hau da «egiazko profeta bihotza jakituriaraz beterik daukana da». Honetan ere sakondu beharra daukazu.

ל HOGEITA HEMERETZIGARREN KAPITULUA

[Moisesen Legearen gaintasuna]

Eta profeziaren esentziaz mintzatu eta gero, bere errealtate osoan jakinarazi dugunez, eta Moises gure maisuaren profezia (bakea bego haren gainean!) gainerakoenetik bereizten dela erakutsi ondoren, erranen dugu [Moisesen] hautemate bakar horrek eduki duela nahitaezko ondorioztat gu Legera deitzea. Izan ere, Moisesek (bakea bego haren gainean!) egin zigun deiaren antzekorik ez zuen inork inoiz egin Adamez gero Harengana heldu arte guk ezagutzen ditugunetarik artean, eta haren ondoren ere ez du gure profetetarik inork holakorik egin. Era berean, gure Legearen funtsezko oinarria da ez dela sekula halako beste bat izanen; horregatik gure iritziz, ez da inoiz izan ez izanen beste Legerik, Moises gure maisuarena (bakea bego haren gainean!) izan ezik. Eta hona hemen azalpena, profezia-liburuetan eta gure tradizioetan aurkitzen denaren arabera. Moises gure maisuaren (bakea bego haren gainean!) aurreko profeta guztien artean, hau da, patriarkak, Sem, ‘Eber, Noe, Matusalem eta Henok, horietarik inork ez zion gizaki mota bati sekula erran honelakorik: «Jainkoak zuengana bidali nau eta hau eta hori erran diezazuedala agindu dit, hau eta hori egiten galarazten dizue, eta beste hori egin dezazuela agintzen». Horren lekukotasunik ez du Torah-ko testu batek ere ematen, eta egiazko ezein tradizioak ere ez dakar; aitzitik, [aurreko profeta] horiek ez zuten Jainkoarengandik agerpenik jaso jada azaldu dugun adieran

izan ezik, eta haietako norbaitek goiargi sakonagorik erdietsi bazuen, hala nola Abrahamek, gizakiak bildu eta, irakaste eta zuzentzearen bitartez deitzen zituen berberak hautemana zuen egiara. Horrela irakasten zien Abrahamek gizakiei, espekulazio-frogen bidez, munduan Jainko bakar bat besterik ez zela, hura zela harengandik kanpoan den oro sorrarazi zuena, eta ez zela argizagien figurarik adoratu behar, ez eta sorturiko gauzetarik batere. Horixe zen gizakiei barruan sartzen ziena, mintzaldi eder eta onginahiaeren bitartez; baina ez zien behin ere esaten: «Jainkoak zuengana bidali nau eta [hau eta hori] agindu edo galarazi dit». Hori horrela izanik, erdaintzea harentzat, haren semeentzat eta zerbitzarientzat agindu zitzaionean, berak erdaindu egin zituen, baina ez zien gainerakoei beste horrenbeste egin zezatela eskatu profetia-deiren batez. Ez al dakusazu Eskriturako testuak ere hau esaten: «Berau hautatu dut...» (Has 18,19)?, eta hortik argi ageri da agindu bidez besterik ez ziharduela; eta era berean zuzentzen zizkieten gainerako gizakiei beren deiak Isaakek, Jakobek, Levik, Qehat-ek eta Amram-ek ere. Doktoreek ere, [Moises] baino lehenagoko profetez mintzatzean, honela diote: «‘Eberren epaimahaia, Matusalemen epaimahaia, Matusalemen eskola», profeta guztiok (bakea bego haien gainean!) gizakiak hezitzaile, irakasle eta gidarien bidez hezten zituztelako, behin ere erran gabe, ordea, «Yhwh-k agindu dit: mintza zakizkie halakoaren ondorengoei».

Horrela gertatzen zen, bada, Moises gure maisua (bakea bego haren gainean!) baino lehenago. Moisesi dagokionez, badakizu erran zitzaiona eta berak erran zuena, eta herriko jende guztiari adierazi ziona: «Gaur ikusi dugu Jainkoak gizakiari hitz egiten...» (Dt 2,21 edo 24). Eta Moisesen ondoan (bakea bego haren gain!) etorririko gure profeta horiei guztiei buruz, badakizu beren harreman guztietan nola mintzo diren, eta predikari gisa aurkezten direla, gizakiei Moisesen Legeari jarraitzeko eskatuz, bihurri agertzen zirenak mehatxatuz eta hari jarraitzen ahalegintzen zirenei promesak eginez. Eta beti horrela izanen dela uste dugu, errana den bezala: «Ez dago zeruan...» (*ibid.* 30,12), «guretzat eta gure ondorengoentzat betiko» (*ibid.* 29,28). Eta, horrela izan behar da, izan ere, gauza bat bere espezieko hoberena baldin bada, espezie bereko beste edozein gauza, hobekuntzan, hura

baino eskasagoa besterik ezin daiteke izan, dela neurri egokia gainditzen duelako, edo dela haren azpitik gelditzen delako. Esate baterako, gorpuzkera berdina baldin bada espezie batean izan daitekeen berdinena, berdintasun horretatik landa legokeenak huts egingen luke murritzasunez edo soberatasunez. Gauza bera gertatzen da Lege honekin, *berdina* (= bidezkoa, zuzena, hots, guztiei berdin aplikatzekoa) iritzi zaiona, honela esatean: «arau eta agindu zuzenak» (*ibid.* 4,8), zerorrek dakizunez צִדִּיקִים *ṣaddiqîm* hitzak ‘zuzenak, zintzoak’ esan nahi du eta. Izan ere, erlijio-praktika horietan ez dago zamarik, ez gehiegikeriarik, monjeen edo peleginen bizitzan etab. dagoen bezala, ez jatunkeriara edo arinkeriara daraman akatsik (= biziorik) ere, horrela gizakiaren hobekuntza, horren ohitura eta ikasketetan, txikituz, antzinako herri guztien [erlijio-] legeek egiten zuten bezala. Tratatu honetan [Moisesen] legeetarako alega daitezkeen motiboez mintzatuko garenean, horien *berdintasun* eta *jakinduriaz* behar diren argitasun guztiak ukanen dituzu; horrexegatik errana da: «Yhwh-ren Legea ezin hobea da» (Sal 19,8). Horiek zama astunak jartzen dituztela eta oinazeak dakartzatela esaten denean, hor irizpen okerra dago. Gizaki osamaituentzat horiek, egia esan, errazak direla erakutsiko dut; horregatik erran da: «Zer da Yhwh-k, zure Jainkoak eskatzen dizuna...? (Dt 10,12); eta hau ere bai: «Israel, eremu soil bat ote naiz zuretzat...?» (Jer 2,31). Hau guztiau, noski, gizaki bertutetsuekiko errana da. Gizaki fedegabe, gogor eta despotei dagokienez, horiei gauzarik kaltegarrien eta latzena iruditzen zaie despotismoa eragozten duen epaile bat egotea, grina gaiztoetako gizakientzat ere den gauzarik gogorrena lizunkeria beren gogara aritzea galaraztea den bezala, eta horrela ibiltzeagatik gaztigua jaso beharra. Eta horrela biziotsu den gizaki orok bere usteltze moralarengatik atsegin duen gaiztakeria debekatzen dionari zama pisua deritzo. Ez da, beraz, Legearen erraztasuna edo zailtasuna neurtu behar gizaki gaizto, zital eta ohitura usteletakoaren grinaren arabera; aitzitik, Lege hori gizaki osamaituaren ikuspegitik kontsideratu beharra dago, hark berori gizaki guztientzako eredutzat jarri nahi du eta. Hori da guk Jainkoaren Legea deitzen duguna, eta hortik at dagoen guztia erregimen politikoei dagokie, grekoen legeak, sabearren eta beste jende batzuen erokeriak, politikarien lana da, eta ez profetena, maiz azaldu dudana bezala.

Თ BERROGEIGARREN KAPITULUA

[Gizakia gizartekide; gizabanakoen ugaritasuna; beroriek gobernatzen dituzten legeak; Jainkoaren Legea]

Argi eta garbi erakutsi da, bada, gizakia berez izaki lagunkoia dela, eta horren izaerak elkarrekin eta gizartean bizitzea eskatzen duela. Ez da gainerako animalien antzekoa, horientzat elkarrekin bizitzea ez baita premiazkoa. [Giza] espezie horren askotariko osaera horregatik –zerorrek dakizunez, bera denik osatuena baita– horren banakoen artean era askotako ezberdintasuna da, eta halatan horien artean ia ez dago, moralaren edonolako mailan, bi banako baterakide aurkitzerik, bi aurpegi erabat berdinik ezin aurki daitekeen bezala. Horren kausa gorpuzkeren aniztasunean datza, horrek bakoitzaren materietan ere ezberdintasuna sorrarazten baitu, bai eta formak lagun dituen akzidenteetan ere, forma fisiko bakoitzak aldean halako akzidente berezi batzuk lagun dituelako, materiarekin doazenez gainera. Banako batetik bestera hain aldaketa handirik ez da ezein ere animalia-espeziaren baitan aurkitzen; aitzitik, espezie bakoitzeko banakoen arteko ezberdintasuna ez da oso nabarmena, gizakiarengan izan ezik. Izan ere, bi gizabanako aurki daitezke, nolakotasun moral bakoitzean hain ezberdinak, non erran baitaiteke bi espezie ezberdinekoak direla, eta, horrela, esaterako, halako banako gupidagabe bat aurki dezakezu, bere koleraren suminduran bere semetxoari lepoa motz diezaiokeena; eta beste bat, aldiz, bere sentiberatasun handiegiagatik, eltxo bat edo narrasti bat hil behar duela pentsatze hutsarekin hunkituko litzatekeena; eta gauza bera gertatzen da akzidente gehienekin ere.

Hortaz, giza espezieak, naturaz, bere banakoengan aldean horrelako aniztasuna duenez gero, eta haren izaerari gizarteko bizitza beharrezkoa zaionez, erabat ezinezkoa gertatzen da gizartea osamaitua izatea, hor banakoen egintzak arautu ahal ditzakeen gidari bat ez bada, gutxiegiak gehituz eta gehiegiak gutxituz, guztiek, erregela berberaren arabera, etengabeki bete beharreko ekintzak eta ohiturak agindu ahal izanez, horrela aniztasun naturala hitzarturiko harmonia handiak estal dezan, eta gizartea ordena onean izan dadin. Horrexegatik erran dut Legea, naturala ez izanagatik, halere, alde batzuetatik, naturalaren kategorian sartzen dela, Jainkozko jakituriak, existitzea nahi ukan duen espezie hori kontserba dadin, horren

banakoen izaeran *zuzentzeko ahalmena* edukitzea sartzea erabaki duelako. Zuzendaritza hori [goitik] iradoki zaion banakoa bera izan daiteke, hau da profeta edota legegilea; baina, izan daiteke, halaber, horiek agindu dutena obeditu eta betearazi behar duena, jendeak praktikan [lege] horri jarraiki eta egitera iraganaraziz, eta holakoak dira lege hori onartzen duen subiranoa eta [egiazko] profetarengandik lege hori, osorik edota zati batez, bereganatzen duen profetatzakoa. Eta berorrek zati bat onartu eta beste zatia baztertzen du; baina hori izaten da horrela egitea errazagoa zaiolako, edo, bekaizkeriaz, gauza horiei berari goi-agerpenez iradokirik heldu zaizkiola eta ez dituela inorengandik hartu sinetsarazi nahi duelako; izan ere, badira pertsona batzuk halako hobekuntzaz zaleturik, horri hobezina iritzi eta berori laketesten dutenak, eta horrela nahi dute gainerakoek pentsa dezaten berak hobekuntza horretaz horniturik daudela, inolako bikaintasunik ez dutela ongi jakin arren. Eta horretara, gizon asko ikusiko dituzu besteren poemarekin harro agertzen direnak, berek egina dela erranik; eta horixe da, halaber, jakintsuen obra batzuekin eta zientzia-emaitez ez gutxirekin ere gertatzen dena, hots, pertsona bekaizti eta alferrek, beste batek asmatutik zer bait haien eskuetara helduz gero, berek asmatua balitz bezala aurkeztu ohi dutela. Gauza bera jazotzen da hobekuntza profetiko horrekin ere; izan ere, halako gizon batzuk aurkitzen ditugu, beren burua profetatzat aurkezten dutenak, eta Jainkoak inoiz agertu ez dizkien gauzak erraten dituzte, esaterako, *Şidqîyâh ben Kena'anâh*-k bezala, eta beste zenbaitzuk ere, profetizatzeke ahalmena beren buruei egotziz, Jainkoak, zalantzarik gabe, adieraziak zituen gauza batzuk erranez, baina beste batzuei agertuak, *Hananîyâh ben 'Azzûr*-ek, adibidez, egin zuen bezala, gauza horiekin, harropuzkeriaz, beren buruak apainduz.

Hori guztiori txit nabarmena eta oso argia den arren, halere, erakutsi eginen dizut, ezer ilunik gera ez dakizun, eta bereizteko irizpidea ukan dezazun, horren bitartez ohiko legeen erregimenak Jainkozko Legearenak eta, hantustez profeten hitzez jabeturik, horiek mailegatu dituzten gizonengandik datozenak elkarrengandik banatzen jakin dezazun. Eta egileek bereziki beren gogoetaren emaitzatzat aitortu dituzten legeei dagokienez, ez duzu horretarako inolako argudiorik behar, aurkariaren aitorpenak frogak oro salbuesten dituelako. Hortaz, ezagutarazi nahi dizkizut, soilki, erregimen profetiko gisa aldarrikatzen

direnak, eta, zatiz bederen, egiazki profetikoak direnak, erran nahi baitut, Jainkozkoak, zatiz legegintzazkoak, eta zatiz plagiatuak.

Beraz, baldin lege baten xede bakarra, egileak horren ondorioak halaxe kalkulatu dituelako, Estatua eta horren egitekoak ordena onean jarri eta bidegabekeria eta indarkeria saihestea bada, hor gauza teorikoetan inola ere eragin gabe, arrazoimenaren hobekuntzaz konturik egin gabe, eta iritziez –berauek osasungarriak zein erikorrak izan– arduratu gabe, aitzitik, helburu osoa gizakien elkarrekiko harremanak, alde guztietatik, arautu eta horiek legegilearen iritziaren arabera, nolabait ustezko zoriona lortzea izanik, [horrelako lege bat aurkitzen baduzu], jakinen duzu lege hori legeria hutsezkoa dela, eta horren egilea, erran dugunez, hirugarren mailakoa dela, hau da, irudimenaz gainera, beste hobekuntzarik ez dutenetakoa.

Baina, baldin lege bat aurkitzen baduzu, horren erabaki guztiak, gorputzaren interesak, oraintsu aipatuak, hobetzeaz gainera, fedea ere hobetzera zuzenduak izanik, ororen gainetik Jainkoaz (gorets bedi!) eta aingeruez iritzi osasungarriak hedaraziz, gizakia jakintsu, adimentsu eta arretatsu bihurtzeko joeraz, berorrek izaki guztiak beren egiazko egoeran ezagut ditzan, orduan jakinen duzu erregimen hori Jainkoarengandik (gorets bedi!) jalgia dela eta lege hori jainkozkoa dela. Hala eta guztiz ere, jakin beharko duzu, oraindik, ea [lege hori] aldarrikatzen duena bera ere gizaki osamaitua ote den, eta berari goitik iradoki ote zaion, ala pertsona hori horrelako mintzaldiez harrotu eta horiek bere buruari faltsuki egozten dizkion. Hori egiaztatzeko, pertsona horren nolakotasuna norainokoa den aztertu behar da, horren egintzei beha egon eta portaera ikertu. Horretaz ukan dezakezun irizpiderik hoberena haxe izanen da, pertsona horrek gorputzaren plazerei buruz duen gaitzespen eta mespretxua, horixe baita zientziagizonen lehen pausoa, eta, are gehiago, profetena, batez ere, guretzat lotsagarria den zentzuari dagokionez, Aristotelesekin dioen bezala, eta, bereziki, hortik heldu den [haragizko] elkartzearen orbanagatik. Hori dela eta, Jainkoa horretaz baliatu da sasiprofetak salatzeko, horren bila zebiltzanekin egia ezagut zezaten, eta, okerturik, gal ez zitezen. Horren adibidea *Ṣidqīyāh*-gan duzu, hots, *Ma'asēyah*-ren semearengan, eta *Aḥab*-engan, *Qōlāyāh*-ren semearengan, horiek profetizatze ahalmena zutelako estakuruaz gizakiak erakarri eta besteri agerturiko mintzaldi profetikoak aldarrikatu zituzten eta;

baina, aldi berean, haragikeriaren atsegin zitalera emanak ziren, beren adiskide eta jarraitzaileen emazteekin adulterioa egiteko punturaino, harik eta Jainkoak moztarra kendu zien arte, beste batzuk ere salatu zituen bezala, eta halatan Babiloniako erregeak errearazi zituen, Jeremiasek argiro dioenez: «Eta horrela, Judatik Babiloniarra erbesteratuengan madarikazio hau geldituko da: «Erabil zaitzala *Yhwh*-k *Šidqîyāh* eta *Aḥab*-ekin bezala, horiek Babiloniako erregeak sutan erre baitzituen, Israelen gaiztakeriak egin zituztelako, beren lagun hurkoen emazteekin adulterio egin eta, nik agindu gabe, ene izenean gezurrez hitz egin zutelako. Nik badakit eta lekukoa naiz. *Yhwh*-k esana» (Jr 29, 22-23). Uler ezazu, beraz, horretan datzan asmoa.

מַרְאֵה BERROGEITA BATGARREN KAPITULUA

*[Ikuspen profetikoaren kontzeptua;
Izkribu Santuetan ageri diren lau moduak]*

Ez dut zertan azaldu behar ‘ametsa’ (חלום *ḥalôm*) zer den. ‘Ikuspenera’ri (מַרְאֵה *mar’āh*) dagokionez, esate baterako: «ni ikuspenez agertuko natzaio» (Zkiak 12,6), *ikuspen profetikoa* (מַרְאֵה הַנְּבוּאָה *mar’ēh ha-nebî’āh*) moduan ere ezaguna, eta Eskrituran, halaber יְדִיָּהּ *yad Yahwh* ‘Jainkoaren eskua’ deitua, bai eta מַחֲזֵחַ *maḥazēh*⁹⁶ ere, hori profeta, itzarri dagoenean, harrapatzen duen eragite eta beldurrezko egoera da, Danieli buruz hitz hauekin adierazten denez: «Ikuspen handi hori ikusi nuen eta ez zen nigan indarrik gelditu, aurpegia zurbil, ahulik eta kemenik gabe», eta honela segitzen du: «konorte gabe ahuspez lurrera erori nintzen» (Dan 10,8-9). Ondoren, aingeruak hitz egin eta, jaikiarazten duenean, hori ikuspen profetikoan gertatu zen oraino. Horrelako egoeran, zentzuak ez dira jardunean ari, eta [lehenago aipaturiko] jariapen hori arrazoimenaren gainean hedatzen da, eta hortik irudimenaren gainera, eta halatan berori hobetzen eta lanean hasten da. Batzuetan goi-agerpena ikuspen profetiko batekin hasten da, eta, horren ondoren, eragite eta zirrara bortitz horiek, irudimenaren egintza osamaituaren ondorio, handituz doaz, eta orduantxe heltzen da egiazko goi-agerpena. Horixe da Abrahami gertatu zitzaiona, agerpen horretaz mintzatzean honela esaten hasi zen eta: «*Yhwh*-k Abrahami ikuspenez hitz egin zion» (Has 15,1), eta amaitzean: «eta Abrahami

logura handia etorri zitzaion (*ibid.* 12. bert.), eta ondoren: «Eta erran zion Abrahami...» (*ibid.* 13-16 bert.).

Jakizu bada, goi-agerpen bat ukan dutela kontatzen duten profeten artean, batzuek hori aingeru bati eta beste batzuek Jainkoari (gorets bedi!) egozten diotela, bai eta, zalantzarik gabe, aingeru baten bitartez adierazi zaienean ere. Doktoreak horretaz mintzatuak dira, diotela: «Eta Yhwh-ek erran zion (Has 25,23) aingeru baten bitartez» (*Bērē'šīt Rabbāh* 63) Jakin behar da [Eskriturako] pasarte batek norbaitez aingeru bat mintzatu zitzaiola edota Jainkoaren hitza helarazi zitzaiola dioskun bakoitzean, hori ezin izan zitekeela amets batean edo ikuspen profetiko batean ez bazen.

Liburu profetikoetan erabiltzen diren adierazpideek profetei hitza lau erataraz jakinaraz zekiekeela aurkezten digute. *Lehenengo era*, profetak mintzaldi hori aingeru batengandik, amets ez edota ikuspenez, preseski heldua dela dioenean. *Bigarren era*, aingeruaren hitzak aipatzen dituenean, hori amets batean ala ikuspen batean gertatu dela preseski erran gabe, bi era horietako batean ez bada, ez dela goi-agerpenik jakintzat emanez: «Ikuspenez agertuko natzaio, eta ametsetan hitz eginen» (Zkiak 12,6). *Hirugarren era*, aingeru bati barik, hitza Jainkoari (gorets bedi!) egozten zaio, Berberak adierazia, baina hitz hori ikuspenez edo ametsetan heldu zitzaiola erranez. *Laugarren eran*, profetak Jainkoak hitz egin edo agindu ziola zerbait egin zezala edo nolabait mintzo zedila besterik ez dio, zehazki aingerurik ez ametsik aipatzeke, oinarri hori gauza jakina delako konfiantzaz, hots, ezin ere profeziarik eta goi-agerpenik ez dela behin ere etorri ametsetan edota ikuspen batean, aingeru baten bidez.

*Lehenbiziko era*z ondoko pasarteotan adierazten da: «Eta Jainkoaren aingeruak dei egin zidan ametsetan» (Has 31, 11); «Eta gaueko ikuspen batean Jainkoak Israeli (= Jakobi) erran zion» (*ibid.* 46,2); «Eta Jainkoa gauean Balaam-engana etorri eta erran zion» (Zkiak 22,9-12). *Bigarren erarako*, honako etsenplu hauek aipa daitezke: «Eta Jainkoak Jakobi erran zion: Jaiki zaitez eta igo Betel-era» (Has 35,1); «Eta Jainkoak erran zion: Jakob duzu izena» (*ibid.* 10. bert.); «Eta Yhwh-ren aingeru batek zerutik hots egin zion»; «Deitu zion, bigarren aldiz, Abrahami Yhwh-ren aingeruak» (*ibid.* 22,11-15); «Eta erran zion Jainkoak Noeri» (*ibid.* 6,13); «Eta

mintzatu zitzaion Jainkoa Noeri, ziotsola» (*ibid.* 8,15). Hirugarren eraren adibide bat honako pasarte honetan aurkitzen da: «Yhwh-k Abrahami ikuspenez hitz egin zion» (*ibid.* 15,1). *Laugarren* erari dagokionez, ondoko etsenplu hauek ageri dira: «Eta erran zion Yhwh-k Abrahami» (*ibid.* 12,1), «Eta Yhwh-k erran zion [Jakobi]: Itzul zaitez zeure gurasoen herrialdera» (*ibid.* 31,3); «Eta Yhwh-k erran zion Josueri» (Jos 3,7); «Eta erran zion Yhwh-k Gedeoni» (Ep 7,2). Eta eskuarki horrela mintzo dira profeta gehienak: «Eta Yhwh-k erran zidan» (Is 8,1); «Eta Yhwh honela mintzatu zitzaidan, zioela» (*ibid.* Ez 24,1); «Yhwh-ren hitza heldua zen» (2 Sm 24,11; 1 Erg 18,1); «Eta horra, Yhwh-k hitz egin zion» (1 Erg 19,9); «Hura Yhwh-ren hitza zen» (Ez 1,3); «Yhwh-k Oseasi eginiko lehen mintzaldia» (Os 1,2); «Yhwh-ren eskua ene gainean izan zen» (Ez 37,1; 40,1). Horietariko adibide asko dira.

Lau era horietako baten arabera agertzen den guztia profezia da, eta berori esaten duena, profeta. Baina, honela esaten denean: «Jainkoa Urliari gaueko amets batean etorri zitzaion», hor ez da profeziarik eta pertsona hori ere ez da profeta. Izan ere, horrekin adierazi nahi da, soilik, pertsona horri Jainkoaren aldetik abisu bat helarazi zaiola, eta ohar hori amets baten bitartez egin zela adierazten zaigu. Eta Jainkoak halako pertsona bat, beste bat salbatzeko edo bera hondatzeko, mugiarazten duen bezala, era berean, ametsetan ikusten denaren bitartez, Berak sorrarazi nahi dituen gauza batzuk jaioarazten ditu. Noski, jakin badakigu, zalantzarik gabe, Laban aramearra erabateko gaiztoa zela eta, aldi berean, idolozailea; eta Abimelek-i doakionez, bere herrikoen artean jainkozale ospea bazuen ere, Abraham gure aitak haren hiriaz eta haren erresumaz honako hau erran behar ukan zuen: «Segur aski leku honetan ez zegok Jainkoarekiko begirunerik» (Has 20,11); eta, hala eta guztiz ere, haietako biez, erran nahi baitut, Laban eta Abimelek-ez, honako hau erraten da: «Eta Jainkoa Abimelek-i ametsetan etorri zitzaion» (*ibid.* 3. bert.), eta gauza bera Labanez ere: «Gaueko amets batean» (*ibid.* 31,24). Beraz, honetan sakondu beharra dago eta «Jainkoa etorri zen» eta «Jainkoak erran zuen» adierazpenen arteko ezberdintasunaz kontuz ohartu, eta «gaueko amets batean» eta «gaueko ikuspen batean» hitzen artekoaz ere bai. Izan ere, Jakobez honako hau esaten da: «Eta gaueko ikuspen batean Jainkoak Israeli erran zion» (*ibid.*

46,2), baina Laban eta Abimelek-ez, aldiz: «Eta Jainkoa etorri zitzaion... gaueko amets batean». Horrexegatik Onqelosek honela itzultzen du: «Eta hitza etorri zen Yhwh-ren aldetik», eta ez dio inola ere azken bioz mintzatzean «Eta Jainkoa agertu zen».

Kontuan izan, halaber, aldizka hau ere erraten dela: «Yhwh Urliari mintzatu zitzaion», pertsona horri buruzko aipamen zuzenik egiteke, eta hor agerpenik behin ere izan gabe, adierazpena profeta baten bitartekotasunaz eginez. Horrela, adibidez, pasarte hau dela eta: «Eta Yhwh-ri galde egitera joan zen» (*ibid.* 25,22) bereziki esana da «Eber-en eskolara» [joan zela] (*Běre'šît Rabbāh* 63), eta horrexek erantzun zion, eta, beraz, berorrez mintzatzen da hau esaten denean: «Eta Yhwh-k erran zion» (*ibid.* 23. bert.). Eta egia izan arren «Eta Yhwh-k erran zion» *mal'āk* ('aingeru' edo 'mezulari') baten bitartez ere errana dela, hori honela ulertaraz daiteke, hots, *mal'āk* hori Eber bera dela, profetari ere *mal'āk* deitzen zaiolako, erakutsiko dugunez. Litekeena da, era berean, horrela Eberri profezia zeramakion aingerua adierazi nahi izatea, edota era horretara erakutsi nahi izatea Jainkoari egozten zaion mezu bat ageri den guztietan hor aingeru baten bitartekotasuna onartu beharra dagoela, eta hori, oro har, profeta guztiez erran daitekeela, jada azaldu dugunez.

𐤁𐤏𐤃 BERROGEITA BIGARREN KAPITULUA

[Jainkoa aingeruei agertzen: berori egiazki ulertarazteko modua]

Jada erakutsia dugu, aingeru baten agerrera edo berorrek eginiko solasaldiren batez hitz egiten den bakoitzean, hori ezin daitekeela ikuspen profetiko edo amets bat besterik izan, hori espresuki adierazia izan zein izan ez, lehenago erran den bezala. Horretaz ongi jabetu beharra duzu eta hor ongi sakondu. Gutxi balio du hasieratik norbaitez aingeru bat ikusi duela esateak, edo irudiz lehenik gizakitza hartu zuela eta azkenean nabarmen gertatu zitzaiola hura aingerua izan zela adierazteak. Azken buruan, ikusi zen eta hitz egin zuen hura aingeru bat izan zela aurkitzen duzun guztietan jakin behar duzu eta seguru egon hura hasiera-hasieratik *ikuspen profetiko* edo *amets profetiko* bat izan zela. Izan ere, ikuspen profetikoan, edo amets profetikoan, batzuetan profetak Jainkoa

dakusa berari mintzatzen, azalduko dugun bezala; beste batzuetan aingeru bat dakusa berari hitz egiten diola; bestetzueta norbait mintzo zaiola dantzu, hitz egiten dion pertsona hori ikusi gabe baina, eta beste batzuetan gizaki bat dakusa berarekin hizketan, eta ondoren nabarmen ageri zaio hitz egilea aingerua zela. Azken mota horretako profezian gizaki bat jarduten edo mintzatzen ikusi duela kontatzen du, eta geroago aingerua zela jakin duela.

Hori garrantzizko hastapena da, eta doktore gorenetakoa batek, R. Hayya Handiak, horri eutsi dio, Torah-ren pasarte hau kontuan harturik: «Behin batean Yhwh agertu zitzaion Abrahami Mamreren artadian...» (Has 18,1); izan ere, hasieran Jainkoa agertu zitzaiola laburki erran ondoren, agerrera hori nolako itxuraz gertatu zen azaltzen hasten da, eta esaten da lehenik hiru gizon ikusi zituela, haien aurrera korrika joan zela, mintzatu zitzaizkiola eta berak ere hitz egin ziela. Ulerkera hori ematen duenak dioenez, Abrahamen hitz hauek ere «Ene Jauna! Zure begietarako grazia lortu badut, ez zaitetz horrela iragan zeure zerbitzari honen aurretik» (*ibid.* 3. bert.) ikuspen profetikoan hark haietako bati erran zionaren aipamena dira: «Haietako nagusienari—dio— mintzatu zitzaion» (*Bērē'sīt Rabbāh* 48). Gai hau ere barneraino ikasi beharra daukazu, misterio sakona dauka eta. Era berean, Jakob en historian, hau esaten denean «Eta gizon batek haren aurka egin zuen borroka» (*ibid.* 32,25), uste dut hori agerpen profetiko bat dela, azkenean (29. eta hurrengo bertsetetan) argi esaten baita aingerua zela. Gauza bera gertatzen da Abrahamen historian, hor hasieran «Jainkoa agertu zitzaiola» laburki kontatzen delarik, ondoren hori nola izan zen azaltzen hasirik. Era berean, Jakobi buruz, hau esaten da: «Jainkoaren aingeruak harengana heldu ziren» (*ibid.* 2. bert.); ondoren, «harengana heldu ziren» arte gertatu zena azaltzen hasten da, eta dioenez [Esauri] mezulariak igorri zizkion, eta hau eta bestea egin ondoren, «Jakob bakarrik gelditu zen» (*ibid.* 25. bert.), hor lehenago «harengana helduriko aingeru» horiek berak zirelako, eta borroka hori, eta berorri datzekion elkarriketa osoa ikuspen profetiko honetan gertatu ziren. Halaber, Balaam-ekin «bidean» (Zkiak 22,22 eta hurr.) gertatu zen guztia ere, astemearen hizketa barne, ikuspen profetikoan izan zen, azkenean argi esaten baita (32. bert.) «Yhwh-ren aingeruak hitz egin ziola». Are gehiago, Josueren [liburuko] hitz horiez ere «Begiak jaso eta aurrean gizon bat

zegoela ikusi zuen» (Jos 5,13) nik uste dut hori ikuspen profetikoan jazo zela, ondoren (14 eta 15. bert.) argiro esaten baita hura «Yhwh-ren armadako printze bat» zela. Eta [Epaileen] pasarte honi buruz «Eta Yhwh-ren מלאך *mal'āk* 'mezulari' bat Gilgal-etik igo zen... Eta Yhwh-ren mezulariak hitz horiek Israel osoari esan zizkionean...» (Ep 2, 1 3ta 4), doktoreek izkiriatu dutenez, hemen aipatzen den Yhwh-ren mezulari hori *Pinh'ās* da; honela adierazi dute: «Hori *Pinh'ās* da, horren gainean Jainkoaren maiestatea jaistean, Jainkoaren aingeru (= מלאך *mal'āk* 'mezulari') bat zirudiena (ויקרא רבה *Wayikrâ Rabbah* 1). Azaldua dugu jada *mal'āk* izena balio anitzekoa dela eta profetari ere *mal'āk* esaten zaiola, ondoko testuetan, adibidez, egiten den bezala: «Eta bere *mal'āk* (= aingerua) bidali zigun eta Egiptotik irtenarazi gintuen (Zkiak 20,16); «Orduan Hageo-k, Yhwh-ren *mal'āk-ak* (= bidaliak), Yhwh-ren aginduz hitz egin zuen» (Hag 1,13); «Eta iseka egin zuten Jainkoaren *malakīm*-ez (= mezulariez)» (2 Kr 36, 16). Eta Danielek dioenean «Eta Gabriel, aurretik ikuspen batean hegan lasterka ikusia nuen pertsonaia hura, enegana heldu zen arratsaldeko eskaintza-ordu inguruan» (Dan 9,21), hori guztia ere ikuspen profetikoan gertatzen da; eta ez duzu pentsatu behar aingeru bat agertu izan dela, edo aingeru baten hitzak entzun direla, ikuspen edo amets profetiko batean ez bada, hasieran [pasarte honetan] jarri den bezala: «Ikuspenez agertuko natzaio, eta ametsetan hitz eginen» (Zkiak 12,6). Aipatu dudanetik aipatu ez ditudan beste pasarte batzuetarako frogatzen atera ahalko duzu.

Profeziarako behar den prestakuntzaz lehenago esan dugunagatik, eta *mal'āk* izenaren homonimiaz ere aipatu dugunagatik, Hagar egiptoarra ez zela profeta jakinen duzu, eta *Manoah* eta haren emaztea ere ez zirela profetak⁹⁷ (Epail 13,2 eta hur.), hauteman zuten edo haien izpiritua jo zuen hitza בַּת קוֹל *bat qôl* (= 'oihartzuna') gisako zer bait izan zelako, hots, doktoreek sarritan aipatzen dutena, alegia, pertsona ez prestatuari hel dakiokkeen egoera berezia. Eta hor okertzeko bidea eman duena homonimia izan da, baina horixe da, hain zuzen, Torah-ko zailtasun gehienak argitzen dituen hastapena. Ondo gogoan eduki esatera honek «Eta Yhwh-ren aingeruak iturriaren ondoan aurkitu zuen...» (Has 16,7) antz handia duela Josef-ez esan zenarekin:»Eta gizon batek aurkitu zuen landatik alderrai zebilela) (*ibid.* 37,15), eta *Midrāšîm* guztiek diote hori aingeru bat zela.

מג BERROGEITA HIRUGARREN KAPITULUA

[Parabola profetikoak; horien exegesia]

Gure obretan erakutsia dugu jada profetek batzuetan beren profeziak parabola itxuraz aurkezten dituztela, eta hori izaten da [profetak] gauza bat parabolaz dakusalako, eta ondoren parabola horren esangura ikuspen profetiko bereberean azaltzen zaio. Hori da amets bat ukan duen gizon bati, amets horrexetan bertan, itzarri dagoela iruditu balitzaio bezala, amets hori beste bati kontatu diola eta horrek esangura azaldu diola, dena amets bat besterik izan ez den arren. Horri «amets baten barruan azalduko ametsa» esaten zaio (ברכות *Berakôt* 55 b), baina, halere, beste amets batzuen esangura, ordea, itzartzean besterik ez da ezagutzen. Era berean, parabola profetikoen zentzua batzuetan ikuspen profetikoan bertan azaltzen da, Zakariasekin nabarmen ageri den bezala, aurretik zenbait parabola aurkeztu ondoren, honela esan zuen eta: «Eta mintzatu zitzaidan aingerua itzuli eta iratzarri ninduen, bere loalditik iratzartzen den gizon bat bezala, eta galdetu zidan: Zer dakusazu?... (Zak 4,1-2); ondoren [aingeruak] parabola hura azaldu zion. Eta hori garbi dago, halaber, Danielengan ere, berorrez, hasieran honela erran baitzen: «Amets bat eta ikuspenak ukan zituen Danielek ohean zetzala» (Dan 7,1); eta parabola horien guztion berri eman eta horien azalpena ez jakiteagatik zein nahigabeturik zegoen adierazi ondoan, azkenean aingeruari galde egin eta berorrek, ikuspen bereberean, azalpena jakinarazten dio: «Zutik zeuden haietako batengana hurbildu eta horren guztiaren egiazko esangura azal ziezadala eskatu nion» (*ibid.* 16. bert.). Eta «amets bat ikusi zuela» adierazi eta gero, gertakari guztiari חזון *hāzôn* 'ikuspena' deritzo, berak dioen bezala, hura aingeru batek amets profetiko batean azaldu ziolako. Hori dela eta, ondoren, honako hau dio: «Nik, Danielek, ikuspen bat (= *hāzôn*) ukan nuen, lehen izandakoaz gainera» (*ibid.* 8,1). Hori argi dago, חזון *hāzôn* hitza חזה *hāzāh* aditzetik etorria delako, מראה *mar'āh* berba ere ראה *rā'āh* ('ikusi')-tik heldu den bezala, eta aditz biek zentzu berbera daukate ['ikusi' alegia], eta horrela, ez dago ezberdintasunik מראה *mar'āh*, מחזה *mahāzeh* eta *hāzôn* artean. Hemen ez da [profeziarako] hirugarren biderik, Torah-n aipatzen diren bi hauetatik landa: «Ikuspenez agertuko natzaio, eta ametsetan hitz egingen» (Zkiak 12,6); mailak besterik ez, erakutsiko denez⁹⁸. Halere, parabola profetikoetan, maiz horietariko

askoren esangura ez da ikuspen profetikoan azaltzen, baina, edonola ere, profetak, itzartzean, [horien] intentzioa ezagutzen du, Zakariasek ikuspen profetiko batean hartu zituen *makulu*en kasuan bezala.

Jakin behar da, profetek esangura parabolikoa daukaten gauzak dakuskiten bezala, esaterako, Zakariasen lanparak (Zak 4,2), edota berorren *zaldia*k eta *mendia*k (*ibid.* 6,1-7); Ezekielen *bilkaria* (Ez 2,9); Amosek ikusiriko *horma*, berun-hariaren arabera egina (7,7), Danielek ikusi zituen *animalia*k (7 eta 8 kap.); *zirakien eltzea*, Jeremiasek ikusia (1,13) eta antzeko beste parabola batzuk, horien bitartez halako ideia batzuk tankeratzeke, era berean, gauza batzuk ikusten dituzte, horien izenak, berorren etimologia edo balioaniztasunagatik gogorarazten duena azal dezaketenak, eta horrela irudimenaren egintza, nolabait, balio anitzeko izena daraman gauza bat ikustaraztea izaten da, horren adieretako batek beste batera gidatzen duela, hori ere alegoria mota bat izanik. Horrela, Jeremiasek *מקל שקד* *maqqēl šāqēd* ‘arbondolmakila’ bat ikusi zuela dioenean, haren asmoa *שקד* *šāqēd* hitzaren balioaniztasunetik zerbait ateratzea da, ondoren haxe dio eta: «Halaxe egonen naiz ni ere erne (= *שוקד* *šōqēd*)...»⁹⁹ (Jr 1,11-12); eta hor ez da ‘makila’ ez ‘arbondolondo’ ideiez ari. Era berean, Amosek *כלוב קיץ* *kelûb qāyis* ‘saski bete uda-fruitu’ dakusanean, hortik denbora bete delateratzeko da, honela dio eta: «Heldua da amaiera (= *קץ* *qēs*)...» (Am 8,2). Are harrigarriagoa da, arreta sorrarazteko, halako izen bat erabiltzea, horren letrak, alderantzizko ordenaz, beste bati egokiaraziz, bi izen horien artean etimologiaz inolako harremanik eta esanguraloturarik ere izan gabe; esaterako, Zakariasen parabolan aurkitzen den bezala, berak, ikuspen profetiko batean, artaldea alhatzera eramateko, bi makuluak hartu eta batari *נעם* *nō’am* ‘mesede, grazia, edertasun’ eta besteari *חובלים* *hōbelîm* ‘suntsitzaileak’ izenak ematean (Zak 11, 7)¹⁰⁰. Helburuz, parabola horrek iradoki nahi du nazioak, bere jatorrizko egoeran, Jainkoaren mesedea zeukala, eta Hark gidatzen eta gobernatzen zuela, eta [herriak] pozik eta atseginez obeditzen zuela, eta Jainkoak, haren alde egonez, maite zuela, erraten den bezala: «Gaur Yhwh goretsi duzu... eta Yhwh-k goretsi zaitu...» (Dt 26,17-18), [nazioak] Moisesek eta horren ondoko profetek zuzendua eta agindua zenean; baina geroago [herriak] jarrera aldatu eta Jainkoari obeditzea txarretsi zuen, eta halatan Jainkoak ere gaitzetsi zuen hura, eta haren buruzagiak *suntsitzaile* bihurtu zituen, Jeroboam eta Manases bezala.

Horixe da etimologiazko esangura, מַחְבֵּלִים *ḥôbelîm* hitza כְּרָמִים *kerāmîm*-ekin (= ‘mahastien suntsitzaileak’, Kant 2,15) lotzen delako. Ondoren, era berean, *ḥôbelîm* hitza dela eta, Jainkoaren Legea gaitzesten zutela eta Jainkoak haiek gaitzesten zituela iradokitzen du. Baina adiera hori ezin atera daiteke *ḥôbelîm*-etik, *ḥ-b-l* letren lekualdaketa ez bada, eta, ondorioz, parabolak daukan gaitzespen- eta higuintze-ideiaz honako hau erraten da: «Orduan ene arimak ardi haiengandik alde egin zuen, eta haien arimak gaitzetsi ere egin ninduen» (Zak 11,8), hor *ḥ-b-l* letrak *b-h-l* gisa lekualdatuz.

Metodo honen arabera, ezohiko gauza harrigarriak kausitzen dira, horiek ere misterioak izanez, נְחֹשֶׁת *nehôšet*, קָלָל *qālāl*, רֵגֶל *règel*, עֵגֶל *ègel* eta חֶשְׁמַל *ḥašmal* hitzetan, *Merkābāh*-n erabiliak. Beste pasarte batzuetan ere bestelako berba batzuk ere aurkitzen dira, eta, ohar honen ondoren, mintzaldiaren multzoan argiak irudituko zaizkizu, pasarte bakoitzean horiek ongi aztertzen baldin badituzu.

מ BERROGEITA LAUGARREN KAPITULUA

[Errebelazio erak profetaren irudimenean]

Profezia ez da gertatzen ikuspen edo amets baten bitartez ez bada, anitzetan erran dugunez, eta, beraz, ez dugu hau zertan errepikatu behar. Oraingoan erranen dugu ezen profetak, goi-argiturik sentitzen denean, batzuetan parabola bat ikusten duela, jada maiz azaldu dugun bezala. Batzuetan uste du Jainkoa (gorets bedi!) dakusala, ikuspen profetikoan mintzo zaiola, Isaiasek dioenez: «Eta Jaunaren ahotsa entzun nuen esaten: Nor bidaliko dut eta nor joanen da gure aldetik» (Is 6,8). Beste batzuetan aingeru bat mintzatzen dantzu eta bera dakusa, eta hori maiz gertatzen da, pasarte hauetan bezala: «Eta Jainkoaren aingeruak erran zidan...» (Has 31,11); «Eta hark erran zidan: Ez al dakizu gauza horiek zer adierazten duten? Eta mintzo zitzaidan aingeruak erantzun zidan...» (Zak 4,5); «Eta orduan santuetako bat mintzatzen entzun nuen» (Dan 8,13); eta hau oso sarritan gertatzen da, eta ezin daitezke adibide guztiak hona ekar. Beste alde batzuetan profetak berari mintzo zaion gizaki bat dakusa, Ezekielen kasuan erraten den bezala: «Eta gizaki bat ikusi nuen, brontzekoa zirudiena.... Eta gizaki horrek erran zidan: Gizasemea,...(Ez 40,3-4), hasieran hau erran ondoren:

«Yhwh-ren eskua ene gainean izan zen» (*ibid.* 40,1). Beste batzuetan, azkenik, profetak, ikuspen profetikoan, ez dakusa figurarik batere, baina berari zuzentzen zaizkion hitzak dantzuzki, Danielengan bezala: «Eta giza ahots bat entzun nuen Ulai [ibaiaren] erdian deika» (Dan 8,16), eta Elifazek erran zuen bezala: «Isiltasunean ahots bat entzun nuen» (Job 4,16), eta Ezekielek ere bai: «Eta mintzo zitzaidana entzun nuen» (Ez 2,2), hitz egiten ziona ez baitzen berak ikuspen profetikoan hautemanikoa; baina, bere esanetan, hauteman zuen ohi ez bezalako gauza harrigarri hori zehaztasunez azaldu ondoren, goi-agerpenaren gaiaren eta formaren berri ematen hasi zen, esanez: «Eta hitz egiten zidana entzun nuen».

Hasieran [goi-agerpen profetikoen] banaketa honetaz mintzatu ondoan, testuen bidez justifikatuaz, erranen dut profetak bere ikuspen profetikoan dantzuzkien hitz horiek batzuetan bere irudimenak oso bortitz aurkezten dizkiola, gizaki batek ostots sendo bat dantzuela, edo lurrikara bat edo tximista bat dakusala, amets egiten duenean bezala, maiz era horretako ametsak izaten dira eta. Beste aldi batzuetan, ikuspen profetikoan dantzuzkien hitzak ohiko hizketa arruntaren antzekoak izaten dira, eta, beraz, ez du hor deus bitxirik aurkitzen. Hori argi agertuko zaizu Samuel profetaren historian, horrek uste ukan baitzuen, Jainkoak (gorets bedi!) goi-argialdi batean deitua izatean, 'עלי 'Eli apaiza izan zela hurrenez hurren hiru aldiz dei egin ziona. Ondoren, Eskriturak horren kausa azaltzen du, erranez, ondorio hori eragiten ziona, hots, 'Eli zela uste izatekoa, hauxe zela: berak oraindik ez zekiela Jainkoaren hitza profetei era horretara ager zekiekeenik, ez baitzitzaion artean misterio hori argitu. Horren arrazoia emateko, beraz, honela dio: «Samuelek ez zuen oraindik Yhwh ezagutzen, ez baitzitzaion ordura arte Yhwh-ren hitza goitik agertu» (1 Sm 3,7). Horrek erran nahi du hark oraindik ez zekiela eta ez zitzaiola ordura arte goitik agertu horrelaxe agertzen zela Jainkoaren hitza. Eta «ez zuela oraindik Yhwh ezagutzen» dioenean, erran nahi du ordura arte ez zuela inoiz ikuspen profetikorik bat ere ukan, profetizatzen denaz hau errana zen eta: «Ikuspenez agertuko natzaio» (Zkiak 12,6). Beraz, bertset horren ulerkerak, berorren zentzuari dagokionez, honako hau litzateke: «Samuelek ez zuen inoiz lehenago profetizatu, eta jakin ere ez zekien goi-argipen profetikoaren modua hori zenik». Horretan sakondu beharra daukazu.

𐌆𐌆 BERROGEITA BOSGARREN KAPITULUA

*[Goi-agertze edo hautemate profetikoaren hamaika maila;
horiek hiru multzotan ikertzen]*

Profeziaren egiazko zentzua aurretik erakutsi eta gero, espekulazioak eskatzen duenez, eta, gure Legean ageri denarekin batera, beharrezkoa da profeziaren mailak zenbat diren azaltzea, bi oinarri hauen arabera. *Profeziaren mailak* deitzen diet, eta horrek ez du erran nahi hor edonolako maila duena profeta denik; aitzitik, lehenengo eta bigarren mailak profeziara heltzeko pauso hutsak dira, eta pauso horietatik batera heldu dena ez da horregatik kontuan hartzen lehenago aipaturiko profeten artean. Eta inoiz profeta deitu bazaio, hori nolabaiteko orokortasunagatik besterik ez da, profetengandik oso hurbil dagoelako.

Maila horiek direla eta, ez zaitez engaina, baldin eta liburu profetikoetan aurkitzen baduzu profeta batek goi-iradokizuna maila horietako baten arabera jaso duela, eta, ondoren, erraten bada profeta berberorrek agerpen bat bestelako maila baten eraz ukan duela, zeren gerta baitaiteke profeta batek erranen ditudan maila horietako baten eraz agerpen bat ukan ondoren, hurrengo aldi batean beste agerpen bat jasotzea, aurreko agerpena baino maila apalogokoa. Izan ere, profetak bere bizitza osoan, etenik gabe, profetizatzen ez diharduen bezala, eta, aitzitik, aldi batean profetizatzen aritu ondoren, beste aldi batzuetan iradokizun profetikoa joan egiten zaionez, era berean, gerta dakioke une batean goi-mailaren baten arabera profetizatzea eta, ondoren, beste une batean, aurrekoa baino maila beheragoko baten eraz profetizatzen jardutea. Izan daiteke, halaber, bere bizitza osoan goiko maila horretara behin besterik ez iristea, eta, ondoren, horretaz [betiko] gabeturik gelditzea, eta litekeena da, era berean, bere iradokizun profetikoa erabat amaitu arteraino behe-mailako era apala baizik ez kontserbatzea, iradokizun profetikoak profeta guztiengandik lehenago edo geroago alde egiten baitu nahitaez haien heriotza baino lehen, Jeremias buruz aldarrikatu den bezala, erranez: «Yhwh-ren hitza Jeremiasen ahotik eten zenean» (Esd 1,1), eta Davidez erran zenez, hitz hauekin: «Hauexek dira Daviden azken hitzak» (2 Sm 23,1). Eta ondorio bera aplikatu dakieke gainerako guztiei ere.

Aurretiko ohar hau egin ondolan, erraniko maila horiek aipatzen hasiko naiz, eta haxe diot:

I.- *Lehen maila*: profeziarako lehen pausoa gertatzen da gizabanakoak aldean Jainkoaren laguntza duenean, horrek bera mugiarazi eta egintza bertutetsu, handi eta garrantzizko batera bultzatuz, esaterako, gizon bertutetsuen gizartea gaiztoen gizartetik askatzera, edota ongia jende multzo baten gainera barreiatzera, eta halako moldez gizon horrek bere baitan zer bait aurkitzen du, bera keinatzen eta obratzera eragiten diona. Horri *Yhwh-ren izpiritua* deritzo, eta egoera horretan dagoen banakoaz *Yhwh-ren izpiritua hartaz jabetu dela*, edo *Yhwh-ren izpirituak hura jantzi duela* erraten da, edo *Yhwh-ren izpiritua haren gainean datzala*, edo *Yhwh harekin dagoela*, eta antzeko beste esaldi batzuk ere bai. Halakoa izan zen Israelgo epaile guztien maila, haiez, oro har, erran zenean: «Eta Yhwh-k epaile bat ipintzen zienean, Yhwh harekin zegoen eta zapalkuntzarik askatzen zituen...» (Ep 2,18), eta halakoa izan zen, halaber, Israelgo errege bertutetsu guztien maila ere. Hori, bereziki, anitz epaile eta erregeri buruz adierazi izan da, adibidez: «Eta Yhwh-ren izpiritua Jefteh-en gainean izan zen» (*ibid.* 11,29); eta Samsonez erraten da: «Yhwh-ren izpiritua hartaz jabetu zen» (*ibid.* 14,19); eta, halaber, erranik dago: «Eta hitz horiek entzun bezain laster Yhwh-ren izpiritua Saulengan sartu zen (1 Sm 11,6); eta gauza bera erraten da Amasa-z ere, izpiritu santuak eraginik, Davidi laguntzera joateko: «Eta izpirituak Amasai, hogeien burua zena, jantzi zuen; eta hots egin zuen: «Zuri, Isai-ren seme horri, eta zure herriko jendeari, bakea!...» (1 Kr 12,18). Jakizu era horretako indarra beti ukan zuela aldean Moises gure maisuak, behin heldutasunera ailegatuz gero; horregatik egiptoarra hiltzera bultzaturik sentitu zen eta auzikide bietatik arrazoirik ez zuena gaitzestera ere bai. Indar hori harengana hain handia izanik, beldur izan zen, eta handik ihes egin eta gero ere, Madian-era, arrotz eta herabe, heldu zenean, bidegabekeria bat ikustean, ezin egon zen hori zuzentzen jardun gabe, hura jasan ezinik, errana den bezala: «Eta Moisesek, altxaturik, haien alde egin zuen! (Irt 2,17). Bide beretik, antzeko indarra zeukan Davidek ere, behin oliaduraz igurtzia izan ondoren, Eskriturak dioenez: «Eta une hartatik aurrerantzean, Yhwh-ren izpiritua Daviden gainera etorri zen» (1 Sm 16,13); horrexegatik eraso zion adoretzuki lehoiari, hartzari eta filistindarrari. Baina *Yhwh-ren horrelako izpiritu* batek ez

zion haietariko inori sekula iradoki inolako hitz profetikorik; aitzitik, indar horrek gizaki sendotua nolabaiteko ekintza betetzera besterik ez darama, baina ez edonolakora, zapaldua laguntzera baizik, berori pertsonaia bat zein gizarte osoa izan, edo, gutxienez, horretara daraman zerbaitera. Izan ere, egiazko ametsa egiten duten guztiak horregatik profeta ez diren bezala, era berean, nola edo halako gauza bat egiteko, esaterako, ondasunak lortzeko edo norbere helbururen bat erdiesteko, Jainkoaren laguntza ukan dutenetako edozeinez ezin daiteke erran, aldean «Yhwh-ren izpirituak» urgazten dionik, edo «Yhwh harekin dagoenik», ez eta eginikoa «izpiritu santuaren» bidez egin duenik ere. Guk, aitzitik, ez diogu horrelakorik lan noble eta garrantzi handikoren bat egin duenaz besterik, edota, gutxienez, hartara eraman dezakeen zerbait burutu duenaz, esaterako, Josefek egiptoarraren etxean eginiko «zorioneko egintza» hura bezala (Has 39,2), berehala helduko ziren gertaera garrantzitsuen iturburua, gauza nabarmena denez.

II.- *Bigarren maila* gertatzen da gizabanako bati gauza bat bere barrura sartu dela eta mintzarazten duen indar berri bat heldu zaiola iruditzen zaionean, halako moldez non jakinduriatzko hitzak erraten dituen, edo [Jainkoaren] gorespenekoak, edo aurretiko abisu osasungarriak, edo erregimen politikoaz edo metafisikari buruzko mintzaldiak, eta hori guztiori itzarri dagoela, zentzuek ohi bezala dihardutenean. Horrelako gizakiaz «izpiritu santuaren bidez» mintzo dela erraten da. Era horretako izpiritu santuaren bidez prestatu zituen Davidek *Salmoak* eta Salomonek bere *Esaera Zaharrak*, *Qohelet* eta *Kantiken Kantika* osatu zituen. Era berean, eta horrelako izpirituari esker eratu ziren *Daniel*, *Job*, *Kronikak* eta beste hagiografoen liburuak ere; horrexegatik כְּתוּבִים *Ketûbîm* («Izkribuak») deitzen zaie, horrekin ‘izpiritu santuaren bitartez izkiriatuak’ izan zirela adierazi nahirik. Honela erran da espresuki: «Esterren liburua izpiritu santuaren esanera izkiriaturia izan da» (מְגִלָּה *Megilah* 7a). Eta horrelako izpiritu santuaz mintzatuz erran zuen Davidek: «Yhwh-ren izpiritua enegan mintzatu da, eta haren hitza mihiaren gainean dut» (2 Sm 23,2), eta horrela adierazi nahi da Hark erranarazi zizkiola hitz horiek. Era horretakoak ziren, halaber, hirurogeita hamar agureak, haiez erran baitzen: «Eta izpiritua haiengan pausatu zenean profetizatzen hasi ziren, baina ez zuten iraun» (Zkiak 11,25), eta gauza bera Eldad eta Medad-ez ere (*ibid.* 26. bert.). Halaber, apaiz nagusi oro, *Ūrîm* eta *Tummîm*-en bidez¹⁰¹

galdetua, maila honetakoa zen, erran nahi baita –doktoreek diotenez– : «Jainkoaren handitasuna harengan pausatua da, eta izpiritu santuaren bidez mintzo da» (יִמְאָ Yomâ 73 b). Maila horretakoa da, era berean, *Yahziel*, Zakariasen semea, hartaz Kroniketan hau erraten delarik: «Haren gainera Yhwh-ren izpiritua etorri zen batzarraren erdian. Eta erran zuen: Entzuzue Judako [gizaki] oro eta Jerusalemeko bizilagun guztiok, eta zu, Josafat erregea! Honela mintzo zaizue Yhwh...» (2 Kr 20,14-15). Era berean, Zakarias, Yehoyada' apaizaren semea, maila honetakoa zen, hartaz hau erran zen eta: «Eta Jainkoaren izpirituak Zakarias, Yehoyada' apaizaren semea, jantzi zuen, eta [herriko] jendearen aurrean zutik jarrita, erran zion. Hau dio Jainkoak...» (*ibid.* 24,20). Gisa berean Azarias, Oded-en semea, zeinez errana baita: «Yhwh-ren izpiritua Azarias, Odeden semearen gainean zen; eta Asa-ren aurrera irten zen...» (*ibid.* 15,1-2). Eta modu berean aipatzen diren guztiez ere bai. Eta jakin behar da, Balaam ere, ona izan zen bitartean, maila honetakoa zela. Horixe da hitz hauekin adierazi nahi izan dena: «Eta Yhwh bere hitza ezarri zuen Balaamen ahoan» (Ziak 23,5), erran balitz bezala «Yhwh-ren izpirituaz mintzo zen», eta adiera horrexetan dio berak bere buruaz: «Yhwh-ren hitzak dantzuzkiena» (*ibid.* 24,4). Ohartarazi behar dugu David, Salomon eta Daniel ere maila honetakoak direla, eta ez daudela Isaiasen, Jeremiasen, Natan profetaren, *Ahijah* silondarraren eta horien antzekoen maila berean; izan ere, horiek, erran nahi baita, Davidek, Salomonek eta Danielek, ez zuten hitz egiten eta ez zuten deus erraten izpiritu santuaren bitartez besterik. Eta Daviden hitzoi dagokienez, «Jakoben Jainkoak erran du, Israelgo harkaitzak hitz egin dit» (2 Sm 23,3), adiera honetan ulertu behar dira, hots, Hark profeta baten bitartez promesak egin zizkiola, dela Natan edo beste baten bidez; honako pasarte honetan bezala: «Eta Yhwh-k erran zion» (Has 25,26), eta beste pasarte honetan bezalaxe: «Eta Yhwh-k erran zion Salomoni: Horrela pentsatu eta ene ituna hautsi duzunez gero» (1 Erg 11,11), eta hor, zalantzarik gabe, mehatxu bat datza, hari *Ahijah* silondarraren edo beste profeta baten bitartez helarazia. Era berean, Salomonez hau erraten denean: «Yhwh agertu zitzaion Salomoni Gabaon-en, gaueko amets batean, eta erran zion...» (*ibid.* 3,5), hor ez da egiazko profezia bat ageri. Ez da beste pasarte honetan bezala: «Yhwh-ren hitza Abram-engana heldu zen ikuspen batean» (Has 15,1), ez eta beste honetan bezala ere: «Eta Jainkoak erran zion Israeli gaueko ikuspenetan» (*ibid.* 46,2), eta Isaiasen eta

Jeremiasen profezietan bezala ere ez. Izan ere, horietako bakoitzak zeinek bere goi-agerpena jaso zuen arren, agerpen horrexek jakinarazi zion hura profezia bat zela eta [Jainkoarengandik] agerpen bat heldua zitzaiola. Baina Salomoni buruzko kontakizun honetan azkenean hauxe esaten da bereziki: «Salomon itzartu zen, eta hura ametsa izana zen» (1 Erg 3,15); eta bigarren kontakizunean ere, honela erraten da: «Eta Yhwh bigarren aldiz agertu zitzaion Salomoni, Gabaonen jada agertu zitzaionez» (*ibid.* 9,2), eta hor argi errana zen hura amets bat izan zela. Hori maila bat beheragoa da, honela aipatzen den hau baino: «Amets batez hitz eginen diot» (Zkiak 12,6); zeren, amets batean iradokizun profetiko bat dutenek ez baitiote inola ere horrela deitzen profezia ekarri dion ametsari, baina argiro aldarrikatzen dute hura [Jainkoagandiko] agerpen bat izan zela. Horrelaxe adierazi zuen gure aita Jakobek; izan ere, behin ere amets profetikotik itzartu eta gero, ez zuen inola ere esan hura amets bat izan zenik, baina argiro jakinarazi zuen: «Egiazki Yhwh leku honetan da...» (Has 28,16), eta [geroago] hau dio: «Jainko ahalguztiduna Luz-en agertu zait, Kaanango herrian» (*ibid.* 48,3), horretara goi-agerpena izan zela aldarrikatuz; baina Salomonez den bezainbatean, hau erraten da: «Salomon itzartu zen, eta hura ametsa izana zen». Eta, gisa berean, Daniel ikus dezakezu, eta ametsak ukan dituela azaltzen du; eta haietan aingeru bat ikusi eta haren hitzak entzun arren, haiei *ametsak* deritze, haietatik hartu zituen goi-aginduak jaso eta gero ere: «Orduan –dio–, Danieli misterioa gaueko amets batean agerrarazi zitzaion» (Dn 2,19). Geroago, hauxe dio: «Ondoan ametsa izkiriatu zuen... Begira nengoen neure gaueko ikuspenean» (*ibid.* 7,1-2); «Eta neure buruko ikuspen horiek aztoratu ninduten» (*ibid.* 15. bert.); eta badio, halaber: «Ikuspenaz harriturik nengoen, baina inork ez zuen jakin» (*ibid.* 8,27). Zalantzarik gabe hor maila beherago bat ageri da, honela aipatu diren maila hauetan baino: «Amets batez hitz eginen diot» (Zkiak 12,6). Horrexegatik erabaki zen gure sineskidegoan¹⁰² Danielen liburua Hagiografoen artean kokatzea, eta ez Profeten artean. Ohartarazi behar nizun, hortaz, Danielek eta Salomonek ukan zuten ikuspen profetiko gisako horretan ametsetan aingeru bat ikusi zuten arren, ez zutela berek ere hura egiazko profeziazat hartu, gauza batzuen egiazkotasuna jakinarazi behar zuen ametstzat baizik, eta hori izpiritu santuaren bitartez mintzo direnen kategorian kokatzen da, hots, bigarren maila osatzen duen horretan. Hori dela eta, Hagiografoen sailkapenean ez da ezberdintasunik egiten

Esaera Zaharrak, Qohelet, Daniel, Salmoak eta Rut eta Esterren liburuen artean, guztiok izpiritu santuaren bidez izkiriatuak izanik, horiek aipatzeko *Profetak* hitz orokorra erabiliz.

III.- *Hirugarren maila.* «Yhwh-ren hitza heldu zitzaidan» diotenen edo esangura bertsuko beste adierazpenez baliatzen direnen lehen maila da, eta hori gertatzen da profetak amets batean parabola bat hautematen duenean, egiazko profeziarako, lehenago esan diren baldintza guztiekin, amets profetiko horrexetan parabolaren bidez adierazi nahi izan zaion zentzua azaltzen zaiolarik, Zakariasen parabola gehienetan gertatzen den bezala¹⁰³.

IV.- *Laugarren maila,* amets profetiko batean hitz argi eta bereiziak entzuten direnean izaten da, horiek esaten dituen ikusi gabe ordea; horixe da Samueli, bere lehen agerpena ukan zuenean, gertatu zitzaiona, gai horretaz jada errana dugunez¹⁰⁴.

V.- *Bosgarren mailan,* pertsonaia batek amets batean hitz egiten dio, Ezekielen profeziarako batean erraten denez: «Eta gizakume horrek erran zidan: Gizaseme hori...» (Ez 40,4)¹⁰⁵.

VI.- *Seigarren mailan* ametsean aingeru bat mintzo zaio; eta horixe da profetei gehienetan gertatzen zaiena, erran den bezala: «Eta Jainkoaren aingeruak erran zidan ametsetan...» (Has 31,11).

VII.- *Zazpigarren maila;* hau gertatzen da, amets profetiko batean Jainkoak hitz egiten diola iruditzen zaionean¹⁰⁶, hala nola Isaiasek hau dioenean: «Jauna ikusi nuen... zioela: Nor bidaliko dut» (Is 6,1-8), eta Mikeasek, Yimlaren semeak, hau erran zuzenean: «Yhwh ikusi dut...» (1 Erg 22,19; 2 Kr 18,18).

VIII.- *Zortzigarren maila* gertatzen da ikuspen profetiko batean [profetak] goi-agerpen bat ukan eta parabolak hautematen dituen, esaterako, Abrahamek animalia zatikatuen arteko ikuspenean bezala (Has 15, 9-10).

IX.- *Bederatzigarren mailan* ikuspen batean hitzak dantzuzki, Abrahamez esaten denez: «Eta horra, Yhwh-ren hitza heldu zitzaion, zioela: Hau ez da zure oinordekoa izanen» (Has 15,4).

X.- *Hamargarren maila* gertatzen da ikuspen profetikoan mintzo zaion pertsonaia bat dakusanean, adibidez Abraham Mamreren artadian, edota Josue Jerikon bezala.

XI.- Hamaikagarren mailan aingeru bat berari mintzatzen dakusa, esaterako, Abrahamek Isaak sakrifikatzeko unean gertatu zenez. Hauxe da, ene aburuz, liburu santuetan aldarrikatzen diren profetek erdietsi duten maila gorena, betiere banakoaren adimenaren nolakotasunen bikaintasuna, erran denaren arabera, espekulazioaz lortua, ontzat emanik, hortik Moises gure maisua salbuetsirik (bakea bego haren gainean!). Eta ikuspen profetikoan ere ba ote den posible profetak Jainkoaren hitza entzun uste izatea, ene iritziz, hori sinesgaitza da, eta irudimenaren egintzaren ahala ez da horraino heltzen; izan ere, ez dugu horrelako egoerarik aurkitu ohiko profetengan. Horregatik Torah-k honela dio: «Ikuspenez agertuko natzaio, eta ametsetan hitz eginen diot» (Zkiak 12,6). Beraz, hitza ametsean besterik ez da kokatu, eta ikuspenean, aldiz, adimen egilearen batasuna eta jariapena, eta hori *אֵלֵינוּ אֵלֵינוּ 'ēlāiṿ 'etwaddā'* ('neure burua ezagutaraziko nuke') eseraz adierazirik dago, *יָדָע yāda'* 'ezagutu, jakin' aditzaren era bihurkariaz. Baina ez da argi esaten ikuspenean Jainkoagandiko hitzak entzun daitezkeenik.

Profetak entzun omen zituen hitzen lekukotasuna eskaintzen duten testuak aurkiturik, eta, halere, ikuspen batez ari dela argi dagoenean, jada errana dut, susmo hutsaz baina, gerta daitekeela hor, hitzak ametsetan entzutea baina ez ikuspen batean esaten den lekuan, profetari iruditzea Jainkoa bera dela berari mintzo zaiona; eta hori guztiori hitzez hitzeko adierari narraiola. Halere, onar liteke hitzak entzuten direneko ikuspen oro, lehenik, izan ere, ikuspena zela, baina ondoren lozorro sakona izatera iragan zela, amets bilakatu arte, berba hauei buruz azaldu dugun bezala: «Eta lozorroan murgildu zen Abram» (Has 15,12), eta hori, doktoreen arabera, «profeziaren lozorroa da» (*Bērē'šīt Rabbāh* 17). Hortaz, hitzak entzuten ziren aldi guztietan, edonolakoak izanik ere, hori amets batean gertatzen zen, testuak dioenez: «eta ametsetan hitz eginen diot» (Zkiak 12,6); baina ikuspen profetikoan, aldiz, ez ziren parabolak besterik hautematen, edota adimenaren adierazpenak, espekulazioaren bidez lortzen diren antzeko gai zientifikoak jakinaraziz, jada erakutsi dugunez, eta horixe da [hitz hauekin] esan nahi zena «Ikuspenez agertuko natzaio» (*ibid.*). Beraz, azken ulerker horren arabera, profeziaren mailak, kopuruz, zortzi lirakeke, eta horietarik gorena eta osamaituena, oro har, profetak iradokizuna ikuspen batez jasotzen duenean gertatuko litzateke,

horretan mintzo zaiona pertsonaia bat besterik izan ez arren, jada errana den bezala.

Agian eragozpen hau eginen didazu, erranez: «Profeziaren mailen artean, aipatua duzu, profetak Jainkoak zuzenik bidaliriko hitzak entzuten lituzkeen kasua, esaterako, Isaiasena eta Mikeasena. Baina, nola izan daiteke hori, guk oinarriz onartu badugu profeta orok ezin dezakeela Jainkoaren hitza entzun, aingeru baten bitartez ez bada, Moises gure maisua salbuetsirik (bakea bego haren gainean!), berorrez honela errana baita: «Ahotik ahora hitz egiten diot» (Zkiak 12,8)? Jakizu bada, horrelaxe dela, izan ere, eta hemen bitartekaria irudimena dela, profetak ez baitu Jainkoa berari mintzatzen entzuten amets profetikoan besterik, baina Moises gure maisuak, aldiz, Hura entzuten zuen «estalkiaren gainetik, itun-kutxaren gaineko bi kerubinen artetik» (Irt 25,22), horretarako, irudimenaz baliatu gabe. Azaldua ditugu jada *Mišnèh Tôrāh*-n [Moisesen] profezia horren ezberdintasunak, «ahotik ahora» (Zkiak 12,8) esaera, «gizonak bere lagunari hitz egiten dion bezala» (Irt 33,11) hitzak eta beste batzuk. Hortxe dukezu, beraz, non ikas, eta ez da beharrezkoa jadanik errana errepikatzea.

𐤎𐤁 BERROGEITA SEIGARREN KAPITULUA

[Ikuspen profetikoaren xehetasunen esangura]

Banako bakar batengandik espezie bereko banako guztiez ondorioa atera daiteke, eta horretariko banako bakoitzak halako forma duela ikasi ere bai. Hori esanda, hauxe dut helburu: profeten harremanetan gertatzen diren forma bakar batetik era bereko gainerako harreman guztiak ere atera ditzakezula erakustea.

Aurretiko ohar horren ondoan, jakin behar da ezen, gizon batek, amets batean, halako herri batera bidaia egin duela ikusi uste duen bezala, eta han ezkondu eta bertan denbora zati batez egon ondoren, seme bat jaio zaiola, halako izena jarri diola eta holako egoera eta zirkunstantzietan zegoela, era berean, profetari ageri zaizkion parabola profetiko horiek, edo parabolak halako egintza bat behar duenean ikuspen profetikoan egituratzen direnak, bai eta profetak betetzen dituen gauza batzuk, egintza ezberdinen eta toki batetik besterako lekualdatzeen artean parabolikoki aipatzen diren denbora-

tarteak, hau guztiau, ene ustez, ez da existitzen ikuspen profetikoan ez bada, eta kanpoko zentzuatarako ez dira benetako egintzak. Gauza horietako batzuk liburu profetikoetan era absolutuaz aipatzen dira, multzo osoa ikuspen profetikoa zela jakina zen unetik alferrik baitzen parabolaren xehetasun bakoitzean hura ikuspen profetikoan gertatua zela errepikatzen jardutea. Horretara, profetak hau esanda: «Eta Yhwh-k erran zidan», ez du hori amets batean izan zela aldarrikatu behar; baina jende arruntak uste du egintza horiek, lekualdatze horiek, galde-erantzun horiek, hori guztia, azken buruan, zentzuen hautemate-egoeran gertatu dela, eta ez ikuspen profetikoan.

Hortaz, etsenplu bat ekarriko dizut, zeinen gainean inor ezin okertu izan den, eta era bereko beste adibide batzuk erantsiko ditut; eta etsenplu horietatik nik aipatu ez dudana ere beste ondorio batzuk atera ahalko dituzu. Argi dagoena eta inori okertzeko biderik ematen ez diona honako hau da, Ezekielek dioena: «Neure etxean jarria nintzen eta Judako zaharrak ene aurrean ziren... Izpirituak ni lurraren eta zeruaren artean altxatu eta Jerusalemara sarrarazi ninduen, Jainkozko ikuspenean» (Ez 8,1-3). Era berean, honela dioenean: «Jaiki eta haranera irten nintzen» (*ibid.* 2,23), hori ez zen *Jainkozko ikuspenetan* besterik, Abrahamez ere esaten den bezala: «Eta hura kanpora atera zuen» (Has 15,5), hori ere «ikuspen batean» gertatuz (*ibid.* 1. bert.). Gisa berean, «Eta haranaren erdian jarri ninduen (Ez 37,1) dioenean ere, «Jainkozko ikuspenetan» gertatu zen. Ezekiel, bera Jerusalemara sarrarazi zuen ikuspen honetan, hitz hauekin mintzo da: «Begiratu eta horman zulo bat ikusi nuen. Eta erran zidan: «Gizakumea, beraz, zula ezazu horman», eta horma zulatu nuen eta ate bat agertu zen» (*ibid.* 8,7-8). Eta gauza bera «Jainkozko ikuspenetan» horma zula zezala agindu zitzaiola iruditu zitzaionean, handik sar zedin eta han zer egiten ari zen ikus zezan, eta ondoren berak hura zulatu zuenean, berberak dioenez, Jainkozko ikuspen horiexetan, tartetik sartu eta ikusi zuena ikusi zuenean ere, hori guztia ikuspen profetikoan; eta era berean Jainkoak honela diotsonean ere: «Har ezazu lurrezko adreilu bat... etzan zaitez zeure ezker aldera... har ezazu, halaber, garia, garagarra...» (*ibid.* 4,1,4-9), eta hau erraten zaionean ere bai: «Eta pasa ezazu bizar-labana zeure buruaren eta bizarraren gainean...» (*ibid.* 5,1), horrek guztiorrek erran nahi du, ikuspen profetikoan iruditzen zitzaiola betetzen zituela egin zitzaala agindu zitzaizkion egintzak.

Utikan Jainkoagandik bere profetak ergelen irrigarri eta laidagai uztea, eta erokeriak egiteko agintzea ere! Erants diezaiogun horri, hori [Legeari] desobeditzea eskatzea litzatekeela, bera apaiza izanez, bi aldiz lege-hausle gertatuko bailitzateke [motz lezakeen] adats edo bizarraren alde bakoitzetik¹⁰⁷. Baina hori guztioi ikuspen profetikoan besterik ez zen gertatu. Era berean, hau esaten denean: «Isaias ene zerbitzaria ibili zen bezala, biluzik eta oinutsik» (Is 20,3), hori ez zen jazo, «Jainkozko ikuspenetan» izan ezik. Arrazoimen ahuleko gizakiek ez bestek sinesten dute pasarte horietan guztiotan profetak kontatzen duela [benetan] halako gauzak egin zitzaala agindu zitzaiola eta berak egin zituela; eta horrela kontatzen zuen agindu zitzaiola [Jerusalemeko] Tenpluko mendiaren gaineko horma zula zezala, bera orduan Babilonian izan arren, eta gaineratu zuen [benetan] hura zulatu zuela, berak dioen bezala: «eta horma zulatu nuen, eta han ate bat aurkitzen zen» (Ez 8, 7-8). Alabaina, bereziki dioenez, hori «Jainkozko ikuspenetan» gertatu zen. Abrahamez ere irakur daitekeenez: «Yhwh-k Abrahami ikuspenez hitz egin zion» (Has 15,1), eta ikuspen profetiko berean hau esaten da: «Eta kanpora aterarazirik, erran zion: Begira ezazu zerurantz eta konta itzazu izarrak!» (ibid. 5. bert.). Garbi dago ikuspen profetikoan iruditzen zitzaiola aurkitzen zen lekutik kanpora eramana izan zela, handik zerua ikusiz, eta ondoan erran zitzaiola: «Konta itzazu izarrak!». Horixe da kontakizuna, zerorrek dakusazunez. Beste horrenbeste esan nezake Jeremiasi eman zitzaion aginduaz ere, gerrikoa Eufratesen ezkutatzera joan zedin; behin ezkutatu eta gero, denbora luzearen buruan haren bila joan eta usteldu eta deseginik aurkitu zuen. Horiek guztiok ikuspen profetikoaren parabolak dira; izan ere, Jeremias ez zen Israelgo herrialdetik Babiloniara abiatu, eta ez zuen Eufrates ikusi. Gisa berean, Oseasi igorritako hitzak ere: «Har ezazu emaztetzat prostituta bat eta sorraz itzazu harengandik prostituzioko haurrak» (Os 1,2), eta haurren jaiotzaren kontakizun hori guztia eta jarri zitzaizkien halako eta holako izenak, den-dena ikuspen profetiko batean gertatu zen. Izan ere, horiek parabolak besterik ez direla aldarrikatu denetik, ez da arrazoirik horko edozein xehetasun benetan gertatu zela susmatzeko, erran dena aplikatzen ez baldin bazaigu: «Eta ikuspen oro zuentzat liburu zigilatu baten hitzak bezalakoa da» (Is 29,11). Halaber, iruditzen zait Gedeoni buruz, ardi-larruaz eta beste gauza miragarriaz kontatzen dena, ez zela gertatu ikuspen batean besterik. Halere, ez nioke horri ikuspen

profetiko deituko, zentzu absolutuan bederen. Izan ere, Gedeon ez zen profeten mailaraino iritsi, eta, beraz, nolatan hel zitekeen mirari horiek egiteraino? Haren merezimendu handiena Israelgo epaileen arteko bat izatea izan zen –[doktoreek] hura «munduko gizonik behereenetarik» bat iritzi diote eta (*Roš-hašanah* 25a)– jada azaldu dugunez¹⁰⁸. Baina hori guztiori ez zen amets batean baizik gertatu, Labanen eta Abimeleken ametsaren antzera, horiez ere mintzatu gara eta. Modu berean Zakariasek dioena: «Haragitarako ardiak alharazi nituen, egiazki behartsuenak, eta bi makila nituen hartu» (Zak 11,7), kontakizun horri darraionarekin, hau da: «gozotasunez eskaturiko alokairua, alokairuaren onartzea, kontaturiko dirua, altxorrera jaurtia» (*ibid.* 12 eta 13. bert.), hori guztiori, ikuspen profetikoan iruditzen zitzaion egiteko agintzen zitzaiola, eta halaxe egin zuen ikuspen profetikoan edo amets profetikoan. Hori dudarik gabeko gauza da, edonork jakin behar duena, daitekeena eta ezin daitekeena elkarrekin nahasten dituenak izan ezik.

Jada azaldu dudanetik aipatzeke utzi dudanari buruzko ondorioak atera ditzakezu: guztia espezie bereko eta metodo berekoa dela, dena *ikuspen profetikoa* dela. Hortaz, halako ikuspen batean egin zuela, edo entzun zuela, irten edo sartu zela, edo esan zitzaiola, jaiki, jesarri, igo edo jaitsi zela, bidaiatu edo galdetu zuela, edo galdetua izan zela, den-dena ikuspen profetikoan gertatzen zen. Aipaturiko egintzek luzaro iraun badute ere, eta halako garaiei, halako banako bereziei eta halako leku jakinei buruzkoak izan arren, egintza hori parabola bat dela argi dakusazun unetik, badakikezu hori guztiori ikuspen profetikoan gertatua dela.

𐤁𐤁 BERROGEITA ZAZPIGARREN KAPITULUA

Hiperboleak eta metaforak profeten izkribuetan

Argi eta garbi dago, inolako zalantzarik gabe, profetek, maizenik, parabolaren bitartez profetizatzen dutela; horretarako tresnak, hots, irudimenak, ondorio hori dakarrelako. Era berean, beharrezkoa da metaforez eta hiperboleez zerbait jakitea, horiek batzuetan liburu profetikoaren testuetan agertzen dira eta. Holakoak hitzez hitz hartuz gero, hiperbole edo handiespenak direla jakin gabe, edo esaeraren

bateko hitzak beren jatorrizko esanahiaren arabera hartzen badira, hori *metafora* bat dela ohartu gabe, hortik absurdoak sor daitezke. Doktoreek oso argi errana dute: «Eskriturak mintzaira handiesgarria darabil», hau da, hiperbolea, eta frogatzat berba hauek aipatzen dituzte: «Haien hiriak handiak dira eta horien harresiak zeruraino altxatzen dira» (Dt 2,8) (*Hulîn 90b*), eta hori zuzena da. Hiperbole mailakoak dira, halaber, hitz hauek: «Zeruko txoriak berria eramanen du» (Qoh 10,20). Era berean errana da: «...horren garaiera zedroenaren parekoa zen...» (Am 2,9). Mintzatzeko modu hori profeta guztien hitzetan maiz aurkitzen da, erran nahi baitut, hiperbole eta handiespen gisa erabiliriko esaldiak, eta ez xeheki eta zehaztasunez hitz egiteko.

Halere, ez dira mota horretakoak Torah-k ‘Og-ez dioena: «haren ohea, burdinazko ohea» (Dt 3,11); עֶרֶשׁ ‘*èrēs* hitza ‘ohea’ baita, hala nola «gure ohea (עֶרְשֵׁנוּ) ‘*èrēsenu*) berdatzen ari da» (Kant 1,6). Halere, gizaki baten oheak ez du beti berorren neurri zehatza ukaiten, berori ez baita bera estaltzeko jantzi bat. Aitzitik, ohea beti handiagoa da bertan datzan pertsona baino, eta gauza jakina da, lagun horren luzera, eskuarki, heren batez gainditu ohi duela. Beraz, ohe horren luzera bederatzi ukondokoa baldin bada, bertan datzanaren luzera, oheen ohiko proportzioaren arabera, sei ukondo ingurukoa izanen da, edo pixka bat gehiago. «Giza ukondoaren arabera» (Dt. *loc. cit.*) perpausak ‘gure arteko pertsona baten, hau da, ohiko gizakien arteko baten ukondoaren neurriaz’ erran nahi du, eta ez ‘Og-en ukondoaren arabera, eskuarki banako orok bere gorputz-atalak proportzionaturik dauzka eta. Beraz, horrekin adierazi nahi zen ‘Og-en garaiera gainerako gizakien arteko pertsona batena baino bi aldiz handiagoa zela, edo apur bat gehiago. Zalantzarik gabe, espezieko banakoei begira, hori anomalia da, baina ez da, inola ere, ezinezkoa.

Torah-k lagun batzuen adinez dioenaz den bezainbatean, ene iritziz, aipaturiko pertsona berezi horrek, eta berak bakarrik, erdietsi zuen urte kopuru hori, baina gainerako gizakiek ez zuten adin natural eta ohikoa gainditzen. Gizabanako horren anomalia kausa askotatik etor zitekeen, elikatzeke zuen moduagatik edo haren dietagatik, edo bestela hor mirari baten ondorioa ikusi beharra dago. Ez dago horretaz bestelako azalpenik.

Era berean, arreta handia eskaini behar zaie *metaforaz* erran diren gauzei ere. Horien arteko batzuk argiak eta nabarmenak dira

eta ez dute inorentzat iluntasunik, konparazioe, honako hau esaten denean: «Mendi-muinoak poz-oihuka hasiko dira zuen aurrean, eta landako zuhaitzek orok txaloak joko dizkizute» (Is 55,12), begien bistako metafora berau. Gauza bera hau esatean ere: «Altzifreak berak ere pozik daude zuregatik...» (*ibid.* 14,8), eta Yehonatan ben Uzielek honela parafraseatua: «erregeak berak ere poztu dira zuregatik, ondasunetan aberats direnak», hor alegoria bat ikusiz, esaldi honetan bezala: «behien esnegaina eta ardien esnea» (Dt 32,14). Honelako metaforak ugari-ugariak dira liburu profetikoetan: horietako batzuk jende arruntentzat ere ageriak dira, baina badira, halaber, beste batzuk metaforatzat hartzen ez dituenak. Izan ere, inork ezin lezake dudarik egin hitz hauetan «Yhwh-k bere altxor ona irekiko dizu...» (Dt 28,12) metafora bat gordetzen dela, Jainkoak ez baitu altxorrik barruan euria daukanik. Gisa berean, hau esaten denean: «Zeruko ateak ireki eta haien gainean mana-euria erorarazi zuen» (Sal 78,23-24), inork ez du pentsatuko zeruan ate bat denik, bere orriak eta guzti, baina hori *antzekotasunaren* arabera esana dela, berori metaforaren forma bat izanik. Era berean, honela ulertu behar dira esaldi hauek: «Zeruak ireki ziren» (Ez 1,1); «edo ezaba nazazu izkiriatu duzun liburutik» (Ir 32,32); «neure liburutik ezabatuko dut» (*ibid.* 33. bert.); «ezaba bitez bizien liburutik» (Sal 69,29). Hori guztiori *antzekotasunaz* esana da, eta ez Jainkoak liburu bat duenik, hor izkiriatu edota ezabatzeko, jende arruntek uste duen bezala, hor metafora bat datzala ohartu gabe.

Hori guztiori kategoria berekoa da, eta aipatu ez dudana, kapitulu honetan esan dudanaren parean jarriko duzu; gauzak zeure adimenaz banatu eta bereizi behar dituzu, eta horrela ulertu egingen duzu alegoriaz esanikoa, metaforaz aipatua, hiperbolez esana eta hitzen jatorrizko esanguraren arabera zehazki adierazia. Horretara, profetia guztiak argiak eta nabarmenak agertuko zaizkizu, zure sineskerak arrazoizkoak, ongi ordenatuak eta Jainkoaren gogokoak izanen dira, Hari (gorets bedi!) egia ez beste baitzaio laket, hala nola gezurra duen gorrotagarri. Ez daitezela zure ideiak eta pentsamenduak nahas, iritzi onartezinak, egiatik oso hastanduak, onetsiz, ez eta horiek erlijiozkotzat hartu! Erlijioaren aginduak ez dira egia hutsa besterik, horiek behar bezala konprenituz gero, esanaren arabera: «Zure aginduak zuzenak dira betiereko» (Sal 119,144), eta hau ere bai: «Ni Yhwh naiz, eta zuzenaz mintzo naiz» (Is 45,19). Gogoeta hauen bitartez, ihes egingen

duzu, halaber, Jainkoak sorrarazi ez duen mundu baten irudimenetik eta ideia usteldu batzuetatik, horietako zenbaitek erlijiorik ezera eraman baitzaitzake, eta Jainkoarengan akatsak onartzera, esaterako gorpuztasunaren, atributuen eta grinaren zirkunstantziak, azaldu dugun bezala¹⁰⁹, zerorrek mintzaldi profetiko horiek gezurra direla sinetsi ezean. Horra daraman gaitz guztia, hemen nabarmendu ditugun gauzez ez arduratzetik sortzen da; baina, aldi berean, horiek *Torah-ko sekretuak* dira, eta horretaz laburki mintzatu garen arren, erraza gertatuko zaizu, aurrekoengatik, horiexen xehetasunak jakitea.

מ BERROGEITA ZORTZIGARREN KAPITULUA

[Jainkoa, Lehen Kausa, bigarren mailako kausen gainean zuzenik eraginez aurkeztua, Izkribu Santuaren mintzairan]

Begien bistakoa da, erabat, jaio den orok, halabeharrez, baduela bera jaioarazi duen kausa hurbil bat; kausa horrek, bere aldetik, beste kausa bat dauka, harik eta gauza ororen lehen Kausara heldu arte, hau da, Jainkoaren nahimeneraino. Hori dela eta, batzuetan, profeten mintzaldietan, bitarteko kausa horiek guztiok isilean gorde eta gertatzen den banako egintza zehatza Jainkoari zuzenik egotzen zaio, erranez hori Jainkoak berak (gorets bedi!) egin duela. Hori guztiori gauza jakina da, eta jada mintzatuak gara horretaz, egiazko filosofoen arteko beste batzuk bezala, eta horixe da gure teologo guztien iritzia.

Atariko ohar horren ondoren, entzuzu kapitulu honetan azalduko dizudana eta egiozu kasu berezia, Tratatu honetako kapitulu guztiei, oro har, eskaini behar diezun arretaz gainera. Hona hemen erakutsi nahi dizudana: Jakizu kausa hurbil guztiak, zeintzuetatik jaiotzen baita jaiotzen dena, kausa horiek direnak direla, esentzialak zein naturalak, apetzakoak edo ustekabekoak eta ausazkoak, –*apetzakoa* hitzarekin erran nahi dut jaiotzen denaren kausa gizakiaren erabakimen askea dela–, eta kausa hori edonolako animalia baten borondatea besterik ez bada ere, kausa horiek guztiok profeten liburuetan Jainkoari egotzen zaizkio; eta haien [= profeten] kontatzeko eran, halako egintza Jainkoak egin, agindu edo esan duela adierazten da soil-soilki. Gauza horietarako guztietarako *esan, mintzatu, agindu, deitu, bidali* aditzak

erabiltzen dira, eta kapitulu honetan gai horretara erakarri nahi ukan dut zure arreta, hain zuzen. Izan ere, ezarri izan den bezala, halako animalia arrazoigabe baten borondateari eragin diona Jainkoa denez gero, animalia arrazoidunak erabakimen askea edukitzea egin duena ere Bera izanez, eta, azken buruan, Berbera izanik, halaber, gauza naturalen ibilbidea erabaki duena, –zoria gauza naturalen soberakin bat besterik ez baita, erakutsi den bezala, gehienetan Naturaren, erabakimen askearen eta borondateren partaide izanez– horregatik guztiagatik, kausa horietatik heltzen den ondorioaz erran behar da Jainkoa dela halako gauza agindu duena, edo «Gauza hori izan bedi» erran duena. Horretaz guztiaz etsenplu batzuk aipatuko dizkizut, [orain arte] bereziki ukitu ez dudana horiekin konpara dezazun.

Beti ere beren ibilbideari darraizkion gauza naturalez mintzatuz, esate baterako, airea beroa denean urtzen den elurraz, eta haizeak jotzen duenean mugitzen den itsasoko uraz, honela esaten da: «Bere hitza igortzen du eta urtu egiten ditu» (Sal 147,18); «mintzatu eta ekaitz-haizea jaikiarazi zuen, uhinak altxaraziz» (Sal 107,25); eta erortzen den euriaz esana da: «Eta hodeiei aginduko diet haren gainean euririk ez isurarazteko...» (Is 5,6).

Gizakiaren erabakimen askea kausatzat daukanaz hitz eginez, adibidez herri boteretsu batek beste herri baten aurka egiten duen gerraz, edo gizabanako batez, berori beste banako bati kalte egiteko asmoz mugitzen hasten denean, hitzez irain besterik egiten ez badio ere, honela esaten da: «Neure armadari, gerrarako sagaratuari agintzen diot, eta neure adoretzuei deitzen, ene haserre betearaz dezaten» (Is 13,3), Nabukodonosor¹¹⁰ gaiztoaren eta berorren armaden tiraniari buruz mintzatuz. Eta beste toki batean: «Jende hipokritaren aurka igorriko dut» (*ibid.* 10,6). Eta Simeï Gera-ren semearen arazoan, honela esaten da: «Yhwh-k erran baitio: Madarika ezazu David» (2 Sm 16,10). Josef bertutetsuaz, leotzetik askatuaz, honela dio: «Errege bat bidali zuen, askaraz zezan» (Sal 105,20). Mediar-persiarrek kaldearren gainean izandako garaitiaz, esana da: «Babiloniaren aurka basatiak igorriko ditut, sakabana dezaten» (Jr 51,2). Eliasen historian, Jainkoak emakume bati hura elikatzeaz ardura dadin agintzen dionean, honetara diotso: «Emakume alargun bati zu elika zaitzala agindu diot» (1 Erg 17,9). Josef jainkozaleak hau dio: «Ez nauzue zuek hona ekarri, Jainkoak baizik» (Has 45,8).

Animalia baten borondatea kausatzat daukanaz mintzatuz, eta bere animalia-premiengatik mugimenduan jartzen denaz, hauxe esaten da, adibidez: «Eta agindu zion Yhwh-k arrainari» (Jon 2,11); harengan nahimen hori Jainkoak piztu zuelako, eta ez hura profeta bihurtu edota hari agertu zitzaiolako. Era berean, Joel Patuel-en semearen egunetan heldu ziren otiez ere esana da: «Sendoa baita Haren hitzen betearazlea» (Jl 2,11). Gauza bera esaten da Edom-go herrialdeaz jabetu ziren basapiztiez ere, hura Senakerib-en¹¹¹ egunetan erraustua gertatu zenean: «Eta zozketa egin die eta Haren eskua neurtzeko sokaz banatu du» (Is 34,17). Eta hemen, *esan*, *agindu*, *bidali* hitzetarik bat ere erabili ez badu ere, esangura erabat berdina da, eta horrela iritzi beharko diezu egitura bereko perpaus guztiei ere.

Ustekabeko eta zori hutsezkoak diren gauzei dagokienez, honela esaten da, adibidez Rebekaren historian: «Eta eman dakiola emaztetzat zure ugazabaren semeari, Yhwh-k erran duen bezala» (Has 24,51). David eta Yehonatan-en historian hauxe esaten da: «Zoaz, Yhwh-k joan zaitezen nahi du eta!» (1 Sm 20,22). Eta Josefen historian: «Eta Jainkoak zuen aurrera bidali nau» (Has 45,7).

Argiro dakusazu, bada, kausen xedapenari buruz –beroriek nola erabaki diren arduratu gabe, hots, esentziazko kausak, edo akzidentalak, edo erabakimen askekoak, edo animalia baten borondatezkoak izanik ere–, bost adierazpen hauek erabiltzen dira: agindu, esan, mintzatu, bidali eta deitu. Jakizu hori ongi, eta egizu gogoeta horretaz pasarte bakoitzean, komeni den bezala, eta orduan anitz absurdo ezereztuko dira, eta halako pasartearen benetako zentzua ezagutuko duzu, egiatik urrundua zela zirudien arren.

Heldua naiz jada profeziaz, horren parabolez eta adierazpenez erran nahi nizunaren azken burura. Horixe da Tratatu honetan gai horretaz erranen dizudan guztia. Orain, Ahalguztidunaren laguntzarekin, goazen beste gai batzuk ukitzera.

ALDERRAIEN GIDARIA: BIGARREN ZATIAREN AMAIERA

HIRUGARREN ZATIA

LEHEN ZAZPI KAPITULUETARAKO SARRERA

Yhwh, Unibertsoaren Jainkoaren izenean

Behin eta berriro adierazi dugu Tratatu honen helburu nagusia *Ma'āšeh Bērē'sīt* edo «Sorreraren kontraera»z eta *Ma'āšeh Merkābāh* edo «zeruko gurdiaren kontakizuna»z azal daitekeena azaltzea¹ dela, betiere obra hau nortzuentzat osatu den begi aurrean izanik. Era berean, erakutsi ukan dugu gai bi horiek «Legearen sekretuetarik» batzuk direla, eta zerorrek ongi dakizu gure doktoreek (bedeinka bedi horien oroitzapena!) zenbateraino gaitzesten dituzten sekretu horiek ezagutarazten dituztenak, argiro erranez, gainera, Legearen sekretuak ezkututzen dituenak, espekulazioan trebe diren izpirituentzat argi eta nabariak, sari handia ukanen duela. פסחִים *Pesāḥîm* deritzon tratatuaren bukaeran (119a), hitz hauek ulertaraztean: «Horren irabazia Yhwh-ren aurrean jarriak direnentzat izanen baita, ase arte elikatuak izan daitezen» eta וְלִמְכַסֶּה עֵתִיק *we-li-mekassèh 'ātiq* ‘aberastasunez jantzarazteko’ (Is 23,18), eta hau eranstean dute: «Zahar adintsuak agerturiko gauzak estaltzen dituenarentzat, hau da, Legearen sekretuak». Ulertu beharra dago, buru argia baldin baduzu, horren bidez zer irakaspen eman nahi ukan diguten. Beste nonbait erakutsia zuten *Ma'āšeh Merkābāh-k* norainoko sakontasuna duen eta zein erdietsezina den jende arrunten adimenerako; eta aldarrikatua da ezen hura ulertzeko onetsi izan den pertsonarentzat argi dagoena ere, erlijioak hori irakastea eta bestetzeui ulertaraztea galarazten duela, ez bada ahoz esanik eta nolakotasun bereziaz aski horniturik dagoen gizabanako bakar bati, eta kasu

horretan ere, lehenengo hasi-masiak besterik ez². Arrazoi horrexegatik jakinduria hau erabat iraungi da gure erkidegoan, horren aztarnarik txikiena ere ezin aurkituz. Eta, izan ere, holaxe gertatu behar zuen, ez baitzen iraganarazten doktore batengandik beste batengana baizik, behin ere izkribuz jarri gabe.

Eta horrela baldin bada, nola molda naiteke aski argi iruditu zaidanaz edo erabat begien bistakoa denaz arreta iratzartzeko, neronek ulertu dudanaren arabera? Edonola ere, bai zurekiko eta bai gizaki alderrai ororekiko ere, ene aldetik koldarkeria handia zatekeen enetzat argi dagoenaz deus izkiriatu ez banu, eta halako moldez, ezin saihestuzko ene heriotza heltzean, hori guztia galduko litzateke; nolabait, egia zor zaionari berori ezkutatzea bezalako zerbait litzateke, eta oinordekoari bere ondareagatik inbidia ukaitea, izaera gaitzesgarria salatzen duten gauzak biok. Bestaldetik, esana dugu jada erlijioak debekatu egiten digula gai hau argiro azaltzea, zentzuak berak agintzen digunaz gainera. Erants diezaiogun horri, horretaz usnatu uste dudana ez dela susmo eta iritzi pertsonal bat besterik. Ez dut Jainkoagandik inolako goi-agerpenik jaso, hor erran nahi izan dena benetan horixe dela jakinarazi didanik, eta ez dut, halaber, ezein ere maisurengandik ikasi nik horretaz pentsatzen dudana; aitzitik, liburu profetikoen testuak, doktore horien erranak eta ditudan baiespen espekulatibo horiek dira, azken buruan, gauzak zalantzarik gabe horrela direla sinestarazi didatenak. Halere, daitekeena da gauzak bestela izatea eta horietan beste zerbait adierazi nahi izatea.

Hortaz, pentsaera zuzenaz eta Jainkoaren laguntzaz gidaturik, alderdi honetan, ondoren aipatuko dudan jarrera hobetsi dut: Ezekielen berben gainean (bakea bego haren gainean!) azalpen bat emanen dizut, edozein etorri berriri testuak dioenari ez diola ezer eransten irudi dakioketena, hitzak hizkuntza batetik bestera itzuli besterik egin ez banu edota testuaren hitzez hitzezko esanahia laburtu banu bezala; baina Tratatu honen hartzaileak, behin kapitulu bakoitza behar bezain zuzenik ulertu ondoren, hori arakatzen badu, zentzu osoa argi agertuko zaio, enetzat ere argi dagoen bezalaxe, eta deus ere ez da hor misterio izanen harentzat. Horixe da bakoitzari probetxugarri izateko egin ahal izan den guztia, betiere gauzak argiro irakasten saiatu gabe, eta behar bezala, gaia edonolakoa izanik ere.

Aurretiko ohar honen ondoren, eratxiki iezaiezu zeure adimena gai noble goren eta handi honetaz jardunen duten kapituluei, hori «dena

zintzilik daukan euskarria eta guztia oinarritzen deneko zutabea» da eta.

⌘ LEHEN KAPITULUA

[Ezekielen ikuspeneko חַיְיטָה *ḥayyôṭ-en* lau «aurpegia» ulertzeaz]

Gauza jakina da gizaki batzuen aurpegierak beste animalia batzuen antzekoak direla³, eta, horrela, nolabait, lehoi-aurpegiaren itxurako gizabanakoak ikus ditzakezu, halako beste bategatik idi-aurpegia duela esan daiteke, eta era honetako beste batzuk; eta animalien aurpegi diruditen bisaia horiengatik jasotzen dituzte gizakiek ezizenak. Hori dela eta, «*idi-aurpegia, lehoi-aurpegia, arrano-aurpegia*» esaerek (Ez 1,10) ez dute giza aurpegi bana besterik adierazten, espezie horien itxurakoak. Horren alde bi froga aipa daitezke: lehen haur da, *ḥayyôṭ* ('animalien figurak') oro har, esan ondoko: «Eta hona haien itxura: giza irudikoak ziren» (*ibid.* 5. bert.), *ḥayyôṭ* horietako bakoitzaz «giza aurpegia, arrano-aurpegia, lehoi-aurpegia eta idi-aurpegia» zuela gaineratzen da. Beste froga bigarren *merkabāh*-n ematen den azalpena da, esanez: «Bakoitzak launa aurpegi zituen, lehenak kerubin-bisaia, bigarrenak giza aurpegia, hirugarrenak lehoi-aurpegia, laugarrenak arrano-aurpegia» (Ez 10,14). Beraz, argiro errana du hasieran *idi-burua* deiturikoa *kerubin-aurpegia* dela; baina כֶּרֶב *kerub* hitzak gizon gazte bat adierazten du, eta hortik, beste bi aurpegiez ere ondorioak atera daitezke. Hemen *idi-burua* isilik utzi du, eta hori izan da, halaber, halako etimologia batez arreta erakartzeko, guk jadanik aipatuaz⁴. Ez litzateke zilegi esatea, hemen agian beste figura batzuen hautemateaz ari dela, bigarren deskribapen horren bukaeran hau dio eta: «*Ḥayyāh* (= 'animalia, bizidun') berbera zen, Israelgo Jainkoaren gainean, Kebar ibaiaren ondoko ikusia nuena» (20. bert.)» (*ibid.* 10,20). Horra hor bada, argiturik, lehenengo eta behin azaldu behar genuena.

⌘ BIGARREN KAPITULUA

[Ezekiel 1-eko lehen ikuspenaren azalpena *ḥayyôṭ*, 'izaki bizidunak' eta אֲפַנִּים '*ôfannîm*, 'gurpilak']

Berak (= profetak) lau *ḥayyôṭ* ikusi zituela kontatzen du, haietako bakoitzak launa aurpegi, launa hego eta bina esku zituela,

eta חיה *ḥayyāh*⁵ bakoitzaren egituraren multzoa giza irudia zen, erran den bezala: «Giza itxurakoak ziren» (Ez 1,5). Era berean eskuak «giza eskuak zirela» (8. bert.) aipatzen da, gauza jakina baita gizakiaren eskuak arte-lanak egin ahal izateko moduan eratuak direla, zalantzarik gabe. Ondoren, haien oinak zuzenak zirela dio, eta horrek erran nahi du ez zutela artikulaziorik; horixe da, hitzez hitz, *oin zuzenak* berben esangura (7. bert.). Doktoreek, halaber, honela diote: «Haien oinak zuzenak ziren, eta horrek irakasten digu goiko izakiak ez direla jesartzen» (*Bērēšît Rabbāh* 65). Honetaz ere ongi jabetu beharra daukazu. Gainera, dioenez, oin-zolak, ibiltzeko organoak alegia, ez ziren giza oinenak bezalakoak; eskuak ez besterik omen zituzten giza eskuen antzekoak, baina oinak biribilak ziren, «zekor baten oinaren zola bezalakoak» (7. bert.). Geroago, hauxe dio, lau *ḥayyôt* horien bikote bakoitzaren artean ez zegoela zirrikiturik ez bitarterik, elkarri atxikirik baitzeuden, errana den bezala: «Bata besteari datzekiola» (9. bert.). Halere –eransten du–, elkarri eutsiak egon arren, haiek aurpegiak eta haien hegoak gorantz banaturik ageri ziren, erran den bezala: «Haien aurpegiak eta haien hegoak goi aldetik banaturik zeuden» (11. bert.). Ohar zaitez ongi «goi aldetik» adierazpenaz, haien gorputzak baitziren elkarri datxezkion bakarrak, baina haien bisaia eta hegoak banaturik, baina goiko aldetik besterik ez. Era berean horiek distiratsuak zirela dio «brontze leunduaren gainazala bezalakoak» (7. bert.), eta, gainera, argitsuak ere bai, errana den bezala: «Haien itxura suzko ikatzen antzekoa zen, zuziak bezala iratxeak» (13. bert.). Hauxe da, hitz gutxitan, *ḥayyôt* haien egituraz, haien substantziaz, haien itxuraz, hegoez, eskuez eta oinez dioena.

Ondoren *ḥayyôt* horien mugimenduak nolakoak diren azaltzen hasten da, eta honetara aipatzen ditu: *ḥayyôt*-en mugimenduetan, dio, ez dago birarik, ez okertzerik, ez eta kurbarik ere; aitzitik, era bereko mugimendu soila zen, erran den bezala: «Haiek ez ziren beren ibilbidean okertzen» (12. bert.). Horren ondoan badio *ḥayyôt*-ak nor bere aurpegiaren norabideari zerraiola, hori hitz hauekin adierazirik: «bakoitza bere aurpegiaren aldera zebilen» (9. bert.). Honetara, argi dio *ḥayyāh* bakoitza ez zihoala bere aurpegiak begiratzen zuen aldera besterik. Baina nahi nuke jakin zein aurpegiz ari den, *ḥayyāh* bakoitzak aurpegi batzuk zituen eta. Edonola ere den, laurak ez zebiltzan norabide berean, horrela izan ez balitz, ez baitzion haietako bakoitzari

mugimendu berezi bana egotzi, erranez: «Bakoitza bere aurpegiaren aldera zebilen». Halaber, berak dioenez, *ḥayyôt* horien higitzeko era lasterkako mugimendua zen, eta atzera etortzean ere antzeko lasterketaz itzultzen omen ziren. Hori da berba hauekin adierazten duena: «Eta *ḥayyôt*-ak lasterka ibiltzen eta itzultzen ziren» (14. bert.) (רָצָא וְשׁוּב *rāšô' wā-šôb*) *rāšô' hitza* רָצָא *rāšā* (= 'laster egin zuen') 'aditzaren era infinitiboa baita, eta *šôb*, aldiz, שׁוּב *šāb* aditzarena (= 'itzuli zen'). Ez ditu וְשׁוּב הָלַכְתָּ *hālok wā-bô* (= 'joan eta etorri') aditzak erabiltzen, baina bai haien mugimendua lasterketa bat eta atzerako itzulera zela, eta hori irudi honekin azaltzen du, erranez: «tximistaren irudiz», hau da, בָּזָא *bāzāq*, hitz horrek בָּרָא *bārāq* (= 'tximista')-ren esangura bera dauka eta. Hortaz, honela dio: «Tximistaren antzekoak», horren mugimendua, irudiz lasterrena, leku batetik abiatutik lasterka hedatzen baita, eta, ondoren, lastertasun berberaz, atzera ere bere abiapuntura jo eta itzuliz. Yonatan ben Uzielek «lasterka ibiltzen eta itzultzen ziren» hitzak honela azaltzen ditu: «Munduaren itzulia egiten zuten eta atzera zetozen, tximistaren agerrera bezain lasterrak». Profetak gaineratzen du *ḥayyāh*-k atzeranzko itzultze-mugimendu hori egiten badu, hori ez dela bere baitatik datorren mugimendua, baina bestelako zerbait, erran nahi baitut, Jainkoaren asmokoa. Beraz, dioenez, Jainkoaren asmoaren arabera, *ḥayyāh*-k mugitu beharko zueneko aldea «lasterka ibiltzen eta itzultzen ziren» hitz horiekin adierazten zen mugimendu laster hori zuzentzen zenekoa zen. Horrexegatik erraten da *ḥayyôt*-ez: «[Jainkoaren] asmoak (רוּחַ *ruah*) nora nahi, *ḥayyāh*-k haraxe mugitu behar zuen, beren ibileran atzera egin gabe» (12. bert.). Eta *ruah* (= 'haizea, arnasa, izpiritua'), hitzak ez du hemen 'haizea' erran nahi, 'asmoa' baizik, balio anitzeko berba honi buruz mintzatzean jada erakutsi genuenez⁶. Beraz, horrek erran nahi du *ḥayyāh*, bere ibilbidean, Jainkoaren asmoak ematen zion norabideari zerraiola. Era berean azaldu du Yonatan ben Uzielek (bakea bego haren gainean!) pasarte hori: «asmoak (רְעוּא *ra'awa*) nora nahi, *ḥayyāh*-k haraxe mugitu behar zuen, beren bidetik okertu gabe». Baina «asmoak nora nahi... haraxe...» hitzak beste zentzu honetan ere uler litezkeenez, hots, Jainkoak nahi ukan dezakeela *ḥayyāh* behin halako norabidean joan dadin, eta hurrengoan beste batean, aurrekoaren aurkakoa, joatea, profetak (= Ezekielek) puntu ilun hau berrazaltzen du, eta diosku ez dela hor iluntasunik, eta יהִיָּה *yihyèh* (= 'izanen da') adizkerak hemen הִיָּה *hāyāh* formaren esangura duela, hots, 'izan zen', hebreeraz maiz

gertatzen denez. Ondorioz, berak dioenez, Jainkoak *ḥayyāh*-a ibil zedin nahi zuen norabidea aurretik erabakirik zegoen, eta, hortaz, *ḥayyāh*-a Jainkoak hura ibiltzea nahi zuen norabidean zebilen, eta [Jainkoaren] nahimena beti bera zen norabide horri buruz. Ideia hau azaldu eta bere mintzaldia osatzeko, haxe dio beste bertset batean: «Izpirituak haiek nora joanarazten zituen, haraxe zihoazen, eta asmoa (hitzez hitz, אֲפָנִים *’ôfannîm* ‘gurpilek’) haiek beti haraxe joatea zen» (20. bert.). Azalpen ohargarri honetaz jabetu beharra daukazu. Hona hemen, bada, nola kontatzen duen lau *ḥayyôt*-en mugitzeko era, haien itxurak deskribatu eta gero.

Ondoren beste deskribatze bati ekiten dio, eta, *ḥayyôt*-ez gainera, beste gorputz bat, haiei atxikia, ikusi zuela dio. Gorputz hori lurrarekin loturik zegoen, eta, era berean, beste lau gorputz eratzen zituen, horiek ere lau aurpegi zituztela. Ez dio inolako itxurarik ematen, ez gizakiarena ez eta beste ezein animaliaarena ere; gorputz handiak zirela besterik ez dio, itzelak eta ikaragarriak, haiei batere irudi berezirik egotzi gabe, haien gorputzak begiz beterik zeudela erranez. Horiei *’ôfannîm* (= ‘gurpilak’) deritze, dioela: «Eta, *ḥayyôt*-ei begira, haietako bakoitzaren ondoan, אֲפָן *’ôfân* (= ‘gurpil’) bat ikusi nuen, bere lau aurpegiekin, lurraren gainean jarria» (15. bert.). Hortaz, argi dio hura gorputz bakarra zela, eta haren mutur bat *ḥayyôt*-en ondoan zela, eta bestea lurraren gainean, eta *’ôfân* horrek lau aurpegi zituela. Eta honela segitzen du: «*’ôfannîm*-en era eta itxura, turkesaren kolorea bezalakoa zen, eta lau-laurek antz berbera zuten» (16. bert.). Honetara, *’ôfân* batez mintzatu ondoan, berehalakoan lauez hitz egiten du, eta horrekin argi erakusten du *’ôfân*-ak zeuzkan lau aurpegiak lau *’ôfannîm* zirela; eta ondoren, lau *’ôfannîm*-ek itxura bakar eta berbera zeukatela, hori berba hauekin adierazirik: «eta lau-laurek itxura bera zeukaten». Jarraian, *’ôfannîm* horiei buruz, batzuk besteekin osaturik zeudela, hitz hauekin erranez: «Haien era eta itxura *’ôfân* bat beste baten barruan balego bezalakoa zen» (16. bert.). Hori *ḥayyôt*-ei buruz behin ere ageri ez den esaldia da, haiez mintzatzean ez baitu תוֹךְ *tôk* (= ‘barruan, erdian’) hitza erabiltzen, baina badio batzuk besteei zetxezkiela, mintzatzeko era honetaz baliatuz: «Bata besteari datzekiela» (9. bert.), eta *’ôfannîm*-ak, aldiz, «batzuk besteekin osaturik zeudela» dio, *’ôfân* bat beste *’ôfân* baten barruan aurkituko balitz bezala. Eta *’ôfannîm*-en gorputz osoa «begiz beteak» zegoela eta, litekeena da horrela erran

nahi izatea, hain zuzen ere, [benetan] begiz beterik zeudela. Baina era berean, izan liteke, [horrek adieraztea] kolore askotakoak zirela, pasarte honetan bezala: «Eta haren kolorea (וְעֹנִי *we'ênô*) bedelioaren antzekoa zen» (Zkiak 11,7); edo gerta daiteke horrekin 'antza' adierazi nahi izatea, antzinako doktoleen mintzairan aurkitzen dugun כַּעַן שְׁגָנוּב *ke'ên šegānûb*, כַּעַן שְׁגָזוּל *ke'ên šegazûl* gisako esaldietan bezala, erran nahi baita 'lapurtuaren antzekoa', 'kenduaren irudikoa', edo, azkenik, horrek adieraz lezake 'askotariko zirkunstantzia eta nolakotasunak', pasarte honetan bezala: «Baliteke Jainkoak בַּעֲנִי *be'ênî* ('ene begiari', hau da, 'ene egoerari') begiratzea» (2 Sm 16,12). Horra hor bada 'ôfannîm-ez eskaintzen duen azalpena.

Et 'ôfannîm-en mugimenduz den bezainbatean, horiengan ez zela kurbadurarik dio, ez itzulera, ez desbideratzerik ere, eta guztiak zuzeneko mugimenduak zirela, beti berberak. Honela mintzo da: «Eta zebiltzanean beren lau aldetara abiatzen ziren, beren ibileran itzuli gabe» (17. bert.). Ondoren dioenez, lau 'ôfannîm horiek ez omen ziren berenez mugitzen, ḥayyôṭ-ak bezala, baina aitzitik, ez zeukaten beren baitan beste mugimendurik kanpotik hartzen zuten bultzadaz harturikoa izan ezik. Behin eta berriz ideia hau errepikatzen du, eta zenbait aldiz halaxe berresten. Eta 'ôfannîm-en mugiarazleak ḥayyôṭ-ak zirela adierazten du, eta halatan, metafora batez baliatuz, erran nezake 'ôfān-aren eta ḥayyāh-ren arteko harremana, gorputz bizigabe bat animalia baten aurreko eta atzeko hankekin lotzen denean sortzen dena bezalakoa zela: eta horrela, animalia hori mugitzen den aldi guztietan, berorren atalekin loturiko enbor edo harri hori ere mugimenduan izanen da. Honela dio: «Ḥayyôṭ-ak zebiltzanean, 'ôfannîm-ak ere berorien inguruan ere biratzen ziren, eta ḥayyôṭ-ak lurraren gainetik jaikitzen zirenean, 'ôfannîm-ak ere altxatzen ziren» (19. bert.); eta hau eransten du: «Eta 'ôfannîm-ak haiekin batera jaikitzen ziren» (20. bert.), horren kausa azalduz: «Ḥayyôṭ-en izpiritua (רוּחַ *ruah*) 'ôfannîm-engan zelako» (20. bert.). Eta ideia hau errepikatzen du, bera berretsi eta hobeki ulertarazteko, dioela: «Haiek [= ḥayyôṭ-ak] zebiltzanean, bazebiltzan besteak ere [= 'ôfannîm-ak]; eta haiek gelditzen zirenean, beroriek ere gelditzen ziren, eta lurretik altxatzen zirenean, 'ôfannîm-ak ere jaikitzen ziren haien aurrean, ḥayyāh-ren izpiritua 'ôfannîm-engan zelako (21. bert.). Mugimendu horien ordena honako hau da: ḥayyôṭ-ak mugitzen ziren, Jainkoaren

asmoaren arabera, mugitu behar zuten aldera; eta *ḥayyôṭ*-en mugimenduarekin, *’ôfannîm*-ak ere mugimenduan jartzen ziren, haiei zerraizkiela, haiei atxikirik baitzeuden, *’ôfannîm*-ek berez *ḥayyôṭ*-enganantz mugitzerik ez zutelako. Ordena hori honela azaltzen du: «Izpirituak haiek nora joanarazten zituen, haraxe zihoazen, eta asmoa (hitzez hitz, אֲפָנִים *’ôfannîm* ‘gurpilek’) haiek beti haraxe joatea zen, *’ôfannîm*-ak ere jaikitzen ziren haien aurrean, *ḥayyôṭ*-en izpiritua (רוּחַ *ruah*) *’ôfannîm*-engan zelako» (20. bert.). Aipatua dizut jada Yonatan ben Uzielen parafrasia (bakea bego haren gainean!), honela dioena: «asmoak (רְעוּא *ra’awa*) nora nahi, *ḥayyāh*-k haraxe mugitu behar zuen...».

Eta *ḥayyôṭ*-en deskribaketa hau, haien itxurena eta mugimendua, amaitu eta gero, eta *ḥayyôṭ*-en pean dauden, beroriei datxekzien eta beren mugimenduan darraizkien *’ôfannîm*-ez mintzatu ondoren, hirugarren hautemate bati ekiten dio, beste deskribatze batera itzuliz, hau da, *ḥayyôṭ*-en gainean dagoenera. Eta lau *ḥayyôṭ* horien gainean «ortzi bat» zela dio, eta ortzi horren gainean, «tronu gisako zerbait», eta tronutzako horren gainean «giza itxurako figura bat» (26. bert.).

Hori da, oro har, Kebar ibaiaren bazterrean ukan zuen ikuspenaz eskaintzen duen deskribaketa.

ג HIRUGARREN KAPITULUA

[Ez 10-eko bigarren ikuspenaren azalpena: כְּרוּבִים *kerûbîm* deritzenak]

Ezekielek (bakea bego haren gainean!) *Merkābāh*-ren deskribaketa egin ondoan, liburuaren hasieran eskaintzen duen bezala, bigarren aldiz hautemate berbera ukan zuen, ikuspen profetiko batean Jerusalemera eramana izan zenean, eta hor lehen aldian azaldu ez ziren gauza batzuk azaltzen dizkigu. Horretara, *ḥayyôṭ* berbaren ordeztu, כְּרוּבִים *kerûbîm* hitza darabil, eta lehenago aipatuak zituen *ḥayyôṭ* horiek ere aingeruak direla, hau da, *kerûbîm*-ak (= ‘kerubinak’)⁷. Beraz, honela dio: «kerubinak zebiltzanean, *’ôfannîm*-ak ere haien aldean mugitzen ziren, eta kerubinek, lurraren gainetik igotzeko, beren hegoek jasotzen zituztenean, *’ôfannîm*-ak ere ez ziren haien aldetik aldentzen» (Ez 10,16). Eta era horretara mugimendu bi horien arteko lotura berresten du, jada erran dugunez. Ondoren, hau dio: «Kebar ibaiaren ondoan

Israelgo Jainkoaren pean ikusiak nituen *ḥayyôṭ* berberak ziren, eta horiek kerubinak deitzen zirela jakin nuen» (20. bert.), eta halatan, figura berberak eta mugimendu berberak deskribatu eta gero, *ḥayyôṭ*-ak kerubinak direla, eta kerubinak *ḥayyôṭ*-ak direla adierazten du. Bigarren azalpen honetan beste ideia batere erakusten du, hots, *’ôfannîm*-ak *galgallîm*-ak⁸ direla: «*’ôfannîm*-ei *galgal* erraten zietela entzun nuen» (13. bert.). Ondoren, *’ôfannîm*-ak direla eta, hirugarren ideia bat adierazten du, haiez hau dioela: «Burua nora higitu, haraxe ere mugitzen ziren, beren ibilbidean alderatu gabe» (11. bert.). Beraz, argiro dio *’ôfannîm*-en nahitaezko mugimendua «burua nora higitu, haraxe» egiten zela, hots, jada adierazi den bezala: «[Jainkoaren] asmoak nora nahi, *ḥayyāh*-k haraxe mugitu behar zuen». Ondoren, *’ôfannîm*-ei buruz laugarren ideia bat gaineratzen du, hitz hauekin: «*’ôfannîm*-ak beren inguru osoan begiz beterik zeuden, eta laurek [= kerubinek] *’ôfān* bana zeukaten» (12. bert.), aurretik errana ez zuena. Eta bigarren ikuspen honetan, gainera, hau dio, *’ôfannîm*-ez mintzatuz: «haien haragia, haien gorputza, haien eskuak, haien hegoak» (*ibid.*). Hasieran ez zuen hitzik esan *’ôfannîm*-en haragiaz, ez eskuez, ez hegoez ere, haien gorputz hutsez baizik, eta azkenean badio haragia, eskuak eta hegoak zituztela, nola edo halako figurarik egotzi gabe, ordea. Bestetik, bigarren ikuspen honetan, *’ôfān* bakoitza *kerûb* banarekin harremanetan dagoela adierazten du, eta badio: «*’ôfān* bana kerubin bakoitzaren ondoan» (9. bert.). Eta azkenean hemen lau *ḥayyôṭ*-ek bat bakarra osatzen dutela, batzuk besteei atxikiak ziren eta: «*Ḥayyāh* (= ‘animalia’) berbera zen, Israelgo Jainkoaren gainean, Kebar ibaiaren ondoan ikusia nuena» (20. bert.). Era berean, *’ôfannîm*-ak honela aipatzen ditu: «Eta *’ôfān* bat aurkitu nuen, lurraren gainean jarria» (1,15), hori, berberak dioenez, lau *’ôfān* izan arren (1,16; 10,9), batzuk besteei atxikiak zirelako eta «laurek itxura berbera zutelako» (1,16). Horiek dira, bigarren ikuspen honetan *ḥayyôṭ* eta *’ôfannîm*-ei buruz berak eransten dituen azalpenak.

7 LAUGARREN KAPITULUA

[Yonatan ben Uziel-en iritzia *’ôfannîm*-ei buruz]

Yonatan ben Uzielek (bakea bego haren gainean!) onarturiko iritzi batez zure arreta erakarri behar dut. Hau argi eta garbi erran

zela ikusirik «'ôfannîm-ei *galgal* (= 'gurpila' edo esfera') erraten zietela entzun nuen» (10,13), 'ôfannîm-ak 'zeruak' direla adierazi zuen, eta, hortaz, 'ôfân beti גלגל *galgala*' (= 'esfera') gisa itzuli zuen eta, 'ôfannîm, aldiz, גלגליא *galgalaya*' (= 'esferak') moduan. Ene ustez, ulerkera hori berrestera bultzatu zuena, zalantzarik gabe, Ezekielek (bakea bego haren gainean!) 'ôfannîm-ez esandakoa (1,16) da, hots, *taršîš*⁹ kolorekoak zirela, kolore hori, gauza jakina denez, zeruei egozten zaiena baita. Baina testu honekin topo egitean «Eta, *h.ayyôt*-ei begira, haietako bakoitzaren ondoan, 'ôfân bat aurkitu nuen, lurraren gainean jarria» (1,15), batere zalantzarik gabe 'ôfannîm-ak lurraren gainean direla adierazten duena, hori azaltzeko zail gertatu zitzaion. Bere ulerkerari eutsirik, ordea, *lurra* hitza 'zeruaren gainalde'tzat azaltzen du, hori, gainalde horren gainean dagoenarekiko, horko zorua baita, eta, horrela «'ôfân bat lurraren gainean jarria» berbak 'zeruaren goialdearen gainean jarria' itzuli zituen. Hori haren ulerkera dela jakin beharra dago. Iruditzen zaidanez, Yonatanek (bakea bego haren gainean!) *galgal* hitzak, hasieran, 'zerua' adierazten zuela uste ukaiteak ekarri du ulerkera hori. Baina, ene iritziz, hori honela da: *galgal* hitzak 'biraka ibili' ideia adierazten du, adibidez: «Eta harkaitzen gainetik biraka erabiliko zaitut» (Jr 51,25); «eta harria birarazi zuen» (has 29,10). Horregatik hau errana da: «Ekaitzaren aurreko hauts-zirimolak (= כגלגל *kegalgal*) bezala» (Is 17,13). Biraka dabilelako, eta horrexegatik deitzen zaio burezurrari גולגולת *gulgôlet*¹⁰, biribil antzekoa baita. Hortaz, esfera oro lasterka biratzen delako, edozein gauza esferikori ere *galgal* esaten zaio, eta horregatik zeruei גלגלים *galgallîm* iritzi zaie, biribilak direlako, erran nahi baitut, esferikoak direlako; eta, horrela, doktoreak, irudizko adieran, honela mintzo dira [patuaz]: «biraka dabilen *galgal* (= 'gurpil') bat da» (*Šabbat*, 151 b). Arrazoi berberagatik txirrikari ere *galgal* esaten zaio. Beraz, Ezekielek hau dioenean: «'ôfannîm-ei *galgal* erraten zietela entzun nuen» (10,13), hori haien itxura jakinarazteko da, ez baitie beste ezein figura ez itxurarik egozten, eta *galgallîm* direla besterik ez diosku. Eta haiek *taršîš* bezalakoak (1,16) zirela eta, hori ere 'ôfannîm-ak bigarrenez deskribatzean argitzen du, dioela: «Eta 'ôfannîm-en itxura *taršîš* harri bat bezalakoa zen» (10,9), Yonatan ben Uzielek (bakea bego haren gainean!) honela itzulia: «harribitxi baten antzekoa. Halere, badakizu Onqelos esaera berberaz baliatu

zela «zafirozko lauzen zorua bezalakoa» (Irt 24,10) itzultzeko: «harribitxizko lana bezalakoa». Beraz, ez dago ezberdintasunik «*taršīš* harri baten kolorea bezalakoa» eta «zafiroaren zuritasuna daukan lana bezalakoa» hitzen artean. Ongi ulertu behar duzu hau.

Ez duzu txartzat hartuko Yonatan ben Uzielen ulerkera (bakea bego haren gainean!) hemen aipatu dizudan arren, orain neronek beste bat, erabat ezberdina proposatzea. Izan ere, doktoreen arteko asko, bai eta gaur egungo iruzkingileen artean ere, ez datoz bat hark eginiko adierazpen batzuekin, eta profetek ukituriko anitz gairi buruz emandako ulerkerekin. Eta nola ez da hauetan ere horrela izanen, hain gai ilunak izanda? Bestaldetik, ez diotsut ene ulertzeko era hobetsi behar duzunik: saia zaitez nik eginiko oharren bitartez bera egiazki nola ulertu behar den bilatzen, eta nirea ere konprenitzen. Jainkoak ez bestek baitaki bi ulerkera horietatik egiazkoa zein den.

7 BOSGARREN KAPITULUA

[Ezekielen ikuspenaren hiru hautemateak:

ḥayyôṭ, 'ôfannîm eta goi-mailako izakiak; doktoreen usteak]

Arreta eskaini behardiozuprofetak errandako honi: «Jainkoaren [aldetiko] ikuspenak» (Irt 1,1); ez dio *ikuspena*, singularrean, *ikuspenak* baizik, era ezberdinetako hautemate asko zirelako, hau da: hiru hautemate, *'ôfannîm*-ena, *ḥayyôṭ*-ena eta *ḥayyôṭ*-en gaineko gizonarena. Hautemate horietako bakoitzaz honela dio: «Ikusi nuen». *Ḥayyôṭ*-enaz hau dio: «Ikusi nuen eta iparraldetik ekaitz-haizea zetorren» (*ibid.* 4.bert.); *'ôfannîm*-enaz: «*Ḥayyôṭ*-ak ikusi nituen eta *'ôfān* bat, lurraren gainean jarria» (15. bert.), eta azkenik, mailaz *ḥayyôṭ*-en gainean zegoen gizonaren hautematea dela eta, hau dio: *חַשְׁמַל* *ḥašmal*¹¹ kolorearen antzekoa ikusi nuen... eta haren giltzurrun aldea...» (27. bert.). Hiru aldiok kendurik, *Merkābāh*-ren deskribapenean ez du inoiz «ikusi nuen» esaldia errepikatzen. *Mišnāh*-ko doktoreek gai hau azaldua dute jada, eta horiexek dira horri buruz ene arreta erakarri dutenak. Izan ere, berek diotenez, zilegi da lehen hautemate biak, hots, *ḥayyôṭ*-ena eta *'ôfannîm*-ena, azaltzea; baina hirugarren hautemateaz, hau da, *ḥašmal*-arenaz eta

horri dagokionaz, ez da horren «lehen hasi-masiak» besterik irakatsi behar. Halere, gure doktore santuak uste du hiru hautemateak sartzen direla *Ma'āšeh Merkābāh*-n, eta ez dela horiez lehen hasi-masiak (edo kapitulu-izenburuak) besterik azaldu behar. Hona hemen horretaz diotena (*Hăgîgāh* 13a): «Noraino [irakats daiteke] *Ma'āšeh Merkābāh*? Rabbi Meir-ek dio: Azken «ikusi nuen» arte (Ez 12,7). Rabbi *Yishāq*-ek hau dio: *hāšmal* hitzera arte, lehen «ikusi nuen»-etik (4. bert.); *hāšmal* berba honetara arte irakats dakioke [dizipuluari], eta hortik aurrera lehen hasi-masiak besterik ez. Badira hau diotenak ere: Lehen «ikusi nuen»etik *hāšmal*-era lehen hasi-masiak irakasten dira; hortik aurrera, soilik bere adimenarekin ulertzen duen jakintsua baldin bada [ikas dezake], bestela ez. Beraz, horien hitzen arabera, argi dago hautemate ezberdinak direla, «ikusi nuen» berbarekin hiru aldiz adieraziak, eta azken hautematea, zeinetan erraten den «*hāšmal* kolorearen antzekoa ikusi nuen...» (27 bert.), hau da, bitan zatituriko gizonaren figura, horri buruz hau erranez «eta haren giltzurrunen aldea eta hortik behera...» (*ibid.*), hori hautemateetarik azkena eta haien arteko gorena dela. Doktoreak, halaber, ez datoz bat ea horretaz edonolako aipamenez irakats ote daitekeen, erran nahi baitut, lehen hasi-masiak besterenganatzeko, ala horien bidez ere hirugarren hautemate horren irakaskuntza erabat galarazirik ote dagoen, «soilik bere adimenarekin ulertzen duen jakintsuak» ez bestek ikasi beharrekoa. Era berean, zerorrek dakusazunez, jakintsuak beren artean zatiturik daude, eta eztabaidatzen dute, lehen bi hautemateak ere, hau da, *ḥayyôt*-ena eta *'ôfannîm*-ena, hitz argiz azaltzea zilegi den ala hor eta lehen hasi-masiak besterik ez diren irakatsi behar, aipamenez eta era ezkutuaz.

Hiru hautemate hauen ordenaz ere arreta berezia jarri beharra daukazu. Lehen buruan *ḥayyôt*-en hautematea ipini da, eta hori da horiek beren nobletasun eta kausalitateagatik lehentasuna dutelako, erraten den bezala: «*Ḥayyôt*-en izpiritua *'ôfannîm*-engan zelako» (1,20), eta are beste gauza bategatik ere bai. Eta *'ôfannîm*-en ondoan hirugarren hautematea dator, *ḥayyôt*-ek baino maila goragoa daukana, azaldu den bezala. Ordena horren kausa, hauxe da: hasierako hautemate biek, ikaskuntzan, hirugarren hautemateari aurrea hartzen diote, berorrek bere argudioak haiengandik jasotzen dituelako.

1 SEIGARREN KAPITULUA

*[Ezekielen ikuspenak
eta Isaiasenak elkarrekin duten
funtsezko antza]*

Jakizu Ezekiel (bakea bego haren gainean!), *Merkābāh* deskribatzean irakasten saiatu zaigun gai pisutsu eta garrantzitsu hau, iradokizun profetikoak bera hori guri irakastera bultzaturik, Isaiasek berak ere (bakea bego haren gainean!) irakatsi digula gaingiroki, xehetasun horietan sartzea beharrezkoa zela uste izan gabe. «Tronu garai eta goi batean Jauna ikusi nuen –dio berak–; haren mantu-hegalek tenplua gainditzten zuten; Haren gainean serafinak ziren» (Is 6, 1-2). Jada doktoreek (gorets bedi haien oroitzapena!) hau guztiau azaldu ziguten, eta gauza bera azpimarratu zuten, hots, Ezekielek ukan zuen hautematea Isaiasek ukan zuen berbera izan zela. Hori bi gizonekin konparatu dute, hiritarra bata eta baserritarra bestea, erregea zaldi gainean ikusi dutenak; hiritarrak, hiriko biztanleek erregea zaldi gainean ibiltzeko darabilen moduaren berri badutela jakinik, hori ez azaltzeaz desenkusutzen da eta hau besteri ez dio: «Erregea ikusi dut»; besteak, aldiz, baserriko jendeei, haren lagun-segizioa nolakoa den inondik ere ez dakitenez gero, xehetasun guztiakin azaltzen die erregea zaldiz itzegotzeko era nolakoa den, bai eta haren tropen, haren zerbitzarien eta haren aginduak betearazten dituztenen egoera ere. Hori ohar oso baliagarria da. Hona hemen *Hāgîgāh*-n (13a) hori errateko darabiltzaten hitzak: «Ezekielek ikusiriko guztia Isaiasek ere ikusia du; baina Isaiasek erregea ikusi duen hiritarra dirudi, eta Ezekielek, aldiz, erregea ikusi duen baserritarra». Litekeena da testu horren egileak berori [kapituluaren] hasieran erran dudana bezala ulertzea, hau da, Isaiasen garaikideek xehetasun horiek guztiok azaldu beharrik ez ukaitea, eta haientzat «Jauna ikusi nuen...» erratea aski izatea, baina erbestealdiko jendeek xehetasun guztion premia sentitzea. Baina litekeena da, halaber, horrekin egileak Isaias Ezekiel baino osamaituagoa zela adierazi nahi ukaitea, eta hautemate hori, Ezekiel asaldatzen eta hain ikaragarri iruditzen zitzaiona, Isaiasentzat, ordea, erabat gauza jakina izatea, eta horregatik ez zuela bereziki kontatu beharrik, gizon osamaituek ongi dakiten gauza izanik.

† ZAZPIGARREN KAPITULUA

[Ezekielen ikuspenaren alderdi batzuei buruzko oharpenak]

Aztertu beharreko puntuen arteko bat, *Merkābāh*-ren haute-mateak urtearekin, hilabetearekin eta egunarekin daukan lotura da, bai eta lekuarekikoa ere. Beraz, arrazoia aurkitu behar da, eta ez da pentsatu behar hori zentzugabeko gauza denik.

Oraindik kontsideratzekoa da, ororen gakoa baita, honako hau: «Zeruak ireki ziren» (Ez 1,1)¹²; profetengan (bedeinka bedi haren oroitzapena!) sarritan aurkitzen dena; erran nahi dut «ireki» eta «ateak ireki» adierazpenak metafora eraz erabiltzea; esaterako: «Ireki itzazue ateak» (Is 26,2); «Zeruko ateak ireki zituen» (Sal 78,23); «Jaiki zaitezte, betiereko ateok!» (idem. 24,9); «Ireki iezazkidazue justiziaren ateak!» (idem. 118,19), eta beste hainbat pasarte.

Beste gauza bat, horren gainean zeure arreta jartzeko, honako hau da, deskribatze hau oso-osorik ikuspen profetikoa izan arren, –errana den bezala: «Eta han haren gainean Yhwh-ren eskua izan zen»¹³ (Ez, 13)–, guztiarekin ere, kontakizunaren atal ezberdinetakoa mintzatzeko eran alde nabarmenak dira. Izan ere, *ḥayyôt*-ez hitz egitean, honela dio: «Lau *ḥayyôt*-en antza (דמות *demût*)» (ibid. 5), eta ez, soilki, «lau *ḥayyôt*»; eta era berean badio: «Eta *ḥayyôt*-en buru gainean ortziaren antzekoa zen» (22. bert.); era berean «tronu antzeko zerbait, zafiro harriaren antzekoa» (26. bert.), eta are gehiago «gizaki antzeko irudia» (ibid.). Pasarte horietan guztiotan, beraz, ‘antza’ hitza (*demût*) erabiltzen da, baina ‘*ôfannîm*-ez mintzatean, ez da inola ere erraten «*ôfân* baten antzekoa», ez «*ôfannîm*-en antzera»; aitzitik, garbiki, egiazko forma existentziaduna ematen du. Eta ez zaitzatela engaina hitz hauek: «Laurek antz berbera zuten» (16. bert.), pasarte horrek ez baitu joskera bera ez eta lehen aipatu dugun adiera berbera ere. Azken ikuspenean, ideia hori berretsi eta azaldu ere egiten du. Ortziarekin hasita, hartaz era absolutuan mintzo da, beraren xehetasunak banan-banan erranez: «Kerubinen buru gainean zegoen ortziaren gainean, tronu antzeko zerbait ikusi nuen, zafiro harriaren antzekoa» (10,1. bert.). Hor, beraz, ortziaz era absolutuan hitz egiten du, eta ez dio: «Ortziaren antzekoa», *ḥayyôt*-en antzekoaren gainean» lekua ematean bezala. Tronuaz den bezainbatean, «haien (= kerubinen) gainean tronu

antzeko zerbait ageri zela», eta horrek adierazten du lehenik ortzia hauteman zuela, eta horren ondoren agertu zitzaiola, gainean «tronu antzeko» zerbait. Hau ongi ulertu behar duzu.

Adi begiratu behar diozun beste puntua honako hau da: lehenbiziko ikuspenean, *ḥayyôṭ*-ek, aldi berean, hegoak eta giza eskuak zituztela dio, baina bigarren ikuspenean, zeinetan *ḥayyôṭ*-ak kerubinak zirela azaltzen duen, hasieran haien hegoak besterik ez zuen hauteman, eta, ondoren, giza eskuak agertu zitzaizkiela: «Kerubinengan giza eskuaren itxura agertu zen –dio berak– haien hegoen azpian» (Ez 10,8), eta hor 'itxura' (תבנית *tabnîṭ*) hitza antza (דמות *demût*) berbaren esangura berean hartua da. Eta haien (= eskuen) kokaera «haien hegoen azpian» zen. Horretaz ongi jabetu behar duzu. Era berean, ongi kontuan hartu behar duzu nola, 'ôfannîm-ez mintzatzean, argiro dioen «eta haiekin aurrez aurre gurpilak altxatu ziren» (10,19) haiei inolako itxurarik egotzen ez badie ere.

Honela dio, halaber: «Euri-egunean hodeietan eratzen den ostadarra bezalakoa, halakoxea zen inguru osoaren handitasunaren itxura; era horretara ageri zen Yhwh-ren loriaren irudiaren agerrera» (1,28). Gauza jakina da azalduko ostadarraren materia eta horren egiazko izaera: horixe da konparazio eta alegoriari buruz daukan etsenplu bitxiena, eta hori, zalantzarik gabe, indar profetikoari egotzi behar zaio¹⁴. Horretaz ongi jabetu beharra duzu.

Zure arreta erakarri behar du, halaber, hark «tronuaren gaineko giza irudia» bi zatitan banatzeak, goikoa «*ḥašmal*-aren kolorea bezalakoa» eta behekoa «suaren antzekoa» izanez (Ez 1,27 eta 8,2). Eta *ḥašmal* hitzari dagokionez, [doktoreek] bi ideiaz osaturiko berbatzat azaldu dute, hots, *ḥaš* eta *mal*, hau da, 'lastertasuna'ren ideia, *ḥaš*-en bidez adierazia, eta 'ebakitzea'rena, *mal*-ek emana (*Hagîgâh* 13a eta b); horrela, bi ideia ezberdin biltzeko helburua zegoen, alegoriakzko eraz bi alde aipatuz, goikoa eta behekoa. Era berean, bigarren azalpen batere eskaintzen digute, erranez, hori 'mintzatu' eta 'isildu' [esan nahi duten bi hitzetatik eratorria dela; haiek diotenez, «haiek (= *ḥašmallîm-ak*) aldizka isilik daude eta aldizka hitz egiten dute», eta 'isiltzea'ren ideia (*ḥaš*) «luzaro egon naiz isilik» (Is 42,14) pasartetik etorrarazten dute, ideia biak aipatzeko hotsik gabeko hitz bat eskainiz. Eta «aldizka isilik daude eta aldizka hitz egiten dute» erratean, zalantzarik gabe

sorturiko gauza batez ari dira. Beraz, onartuko duzu horren bidez haxe adierazi digutela, «tronuaren gaineko giza irudi hori», bi zatitan banatua, ez dela Jainkoaren imajina, berori osatze ororen gainetik baitago, gauza sortu baten irudia baizik. Horrela, profetak berak hau dio: «horretara ageri zen Yhwh-ren loriaren irudiaren agerrera» (1,28). Baina «Yhwh-ren loria» ez da Yhwh bera, maiz azaldu dugun bezala. Beraz, hautemate horietan alegorikoki aurkezten duen guztia ez da Yhwh-ren loria besterik, hau da, *Merkābāh* (=‘gurdia’), eta ez «haren gainean dagoena», zeren Yhwh (gorets bedi!) ezin irudika baitaiteke. Hau ongi ulertu beharra dago.

Kapitulu honetan ere lehen hasi-masi batzuk eman dizkizut, eta horiek elkarrekin biltzen badituzu, gai honetarako multzo baliagarria osatuko dute. Tratatu honetako kapituluetan honaino erran dugun guztia adi irakurtzen baduzu, gai gehiena, edo gai osoa ere, ulertuko duzu, zentzu iluneko xehetasun gutxi batzuk eta zenbait errepikatze salbu; baina izan daiteke azterketa are sakonago batek horiek ere argitzea, eta orduan deus ere ilunik ez gelditzea. Ez ezazu enegandik espero, kapitulu honetatik aurrera, gai honi buruzko hitz bat bera ere gehiago, ez klarki ez eta aieruz ere, horren gainean erran zitekeen guztia errana baita jada, eta hor inoiz ausartegi ere sartu naiz. Hortaz, ekin diezaiegun orain beste gai batzuei, Tratatu honetan horiek azaltzea espero dut eta.

¶ ZORTZIGARREN KAPITULUA

[Materia eta berorren akatsak. Zenbait gogoeta]

Jaio eta iraungitzen diren gorputzak oro ez dira ustelkizun beren materiaren aldetik ez bada; aldiz, formaren aldetik eta forma bere baitan kontsideraturik, ez dira usteltzekok, iraunkorrak baizik. Izan ere, badakusazu forma espezifiko guztiak betierekoak eta iraunkorrak direla; usteltzeak ez dio formari ukitzen, akzidentez besterik, erran nahi baitut, berori materiari lotua den neurrian. Materiak bere egiazko izaeran gabeziari etengabeki atxikirik egon behar du, eta horrexegatik ez du [banakako] ezein ere formarik gordetzen, eta beti ari da forma bat erantzten, beste bat janzteko¹⁵.

Salomonek (bakea bego haren gainean!), bere jakinduriatz, ondo ederto adierazi zuen hori materia emakume adulteriogile batekin

konparatu zuenean (cf. Es 6,26); izan ere, materia, formarik gabe inola ere ezin existi daitekeena, beti emakume ezkondu bat bezalakoa da, beti senarrarekiko loturapean estekaturik, behin ere askatasunik gabe. Baina emakume desleiala, ezkondu egon arren, beti ari da beste gizon baten bila, hura bere senarraren lekuan jartzeko, eta bera erakartzeko maltzurkeria mota guztiak erabiltzen ditu, harik eta harengandik bere senarrarengandik erdiesten zuena lortu arte. Eta horixe da, halaber, materiaren izaera, berak daukan forma edonolakoa izanik ere, horrek ez du hura beste forma bat hartzeko egokitu besterik egiten, eta materia etengabeki mugitzen ari da, daukan forma erantzi eta beste bat lortzeko. Eta hori erdiesten duenean, beste horrenbeste gertatzen da.

Gauza nabaria da suntsitze, usteltze edo akats ororen kausa ez dela materia besterik. Horrela, adibidez, gizaki baten makertasuna, naturaz kontra moldaturiko gorputz-atalak, haren funtzioen ahulezia, etenaldi edo eragozteak, hori guztiori jaiotzetikoa zein istripu baten ondorioa izan, haren materia ustelkorren ondorioa da, eta ez haren formarena. Era berean, animalia oro hilkizun edo gaixokizuna bada, hori haren materiarengatik besterik ez da, eta ez haren formaren kausagatik. Gizakiaren hobea eta bekatu guztien kausa bakarra haren materiaren datza, eta ez haren forma; baina haren bertute guztiak, aldiz, haren formatik heldu dira. Horrela, konparazione, gizakia bere sortzaileaz ohartzen bada, gauza adigarrien berri baldin badu, bere grina eta haserreak bridatzen baldin badaki, eta egin behar denaz eta saihestu behar denaz gogoeta egiten badu, hori guztia haren formaren ondorioa da. Baina jateko, edateko eta sexurako nahikunde desordenatua, bai eta gizakiaren bizio moralak oro ere, hori guztia bere materiaren datorkio. Alabaina, horrela dela argi eta garbi dagoenez, eta Jainkoaren jakinduriak formarik gabeko materiaren ezin izatea nahi ukan duenez, eta forma horietarik, materiaren gabe, bat bera ere ezin izatea ere, eta giza forma guztiz noble hau, jada azaldu dugunez, «Jainkoaren antz eta irudia» dena, lurreko materia uher eta ilunpetsu horrekin noraezean loturik egonik alegia, gizakiari berak akastun eta ustelkor daukan guztia sorrarazten dionarekin, giza forma hori materiaren gaineko boterea, nagusigoa eta manua eman zitzaion, horrela hura menperatu, haren nahiak hertsatu eta, ahal den neurrian, bere egoerarik hoberean eta arauzkoenera eramanez.

Horri dagokionez, mota batzuetako gizakiak dira. Zenbait pertsona beti ari dira nobleena hobesteko ahaleginetan, hilezintasunaren bila, haien forma nobleak eskatzen duenez, eta, beraz, ez dute pentsatzen gauza adigarrien ulertzeaz besterik, gauza guztiez egiazko iritzia ukaiteaz eta beren gainean jariatzen den Jainkoaren adimenarekin biltzeaz, forma horrek bere existentzia hortik ateratzen du eta. Materiaren nahikundeak [era horretako gizakiak] hark daukan zikin eta nabarmenki lotsagarria bultzatzen dituen bakoitzean, horeroriak izateagatik samintzen eta ahalketzen dira, gorritu egiten dira horrelako porrotagatik eta ahalegin guztiak egiten dituzte lotsa hori gutxitu eta hartatik bide guztietatik ihes egiteko. Hori da errege batek, haserre bizitan, gizon bati, bera umiliatzearen, leku batetik bestera simaurra garraiatzeko agindu balio bezala; gizon horrek bere ahalegin guztiak egingo litzuke bere burua umilialdi horretan ezkutatzeko, eta agian sats pixka bana ez urrunegira garraiatzen saiatuko litzateke, bere esku eta jantziak lohi ez litezen, eta bera inork ikus ez lezan. Horrelaxe ari dira gizon askeak. Baina esklaboak poz handia hartuko du eta ez du pentsatuko horrekin lan nekagarriak agindu diotenik; oso-osoan simaur eta sats artean sartu, aurpegi-eskuak zikindu eta jendaurrean bere zama eramanen du irribarrez eta esku-zartaka. Holakoxeak dira, halaber, gizakien izaera ezberdinak ere. Erran dugun bezala, badira gizaki batzuk, zeintzuen begietarako, materiaren nahikundeak oro ahalkegarri, lohikeria eta noraezean pairatu beharreko akatsak diren, eta oso bereziki ukimena, Aristotelesek erran duen bezala, guretzat lotsagarria dena, horren eraginez jan, edan eta sexu-harremanak nahi ukaiten ditugu eta. Beraz, beharrezkoa da hori guztiori ahalik eta gehien urritzea, hortik ihes egitea, horiek nahigabez besterik ez egitea, horiez ez mintzatzea eta horrelako gauzei buruz jarduteko bilerarik ez eratzea. Are gehiago, gizakiak [materiaren] nahikunde horiek guztiak meneratu behar ditu, ahalik eta gehien gutxitu eta ezinbestekoa baino onartu ez. Gizakia den aldetik, gizakiak helburutzat beraren [egiazko] xede dena hartu beharra dauka, erran nahi baita, gauza adigarriak ulertzea, horien arteko objektu garrantzitsuena eta nobleena, ahal den neurriraino bederen, Jainkoa, Haren aingeruak eta Beraren beste obrak konprenitzea izanik. Horiatariko gizakiak betiere Jainkoarekin egoten dira, eta horiez hau errana da: «Erran nuen: jainkoak zarete, guztiok Goi-goikoaren seme zarete» (Sal 82,6). Hori da gizakiari eskatzen zaiona, erran nahi baitut, horixe da haren azken kausa. Gainerakoez

den bezainbatean, Jainkoarengandik belo batez aldendurikoez, hots, ezjakinen kopuru ugariaz, alderantzizkoa gertatzen da: gauza adigarriez ez dute inolako pentsu ez gogoetarik egiten, eta beren azken helburua den zentzu hori asebetetzea dute, guri lotsarik handiena sorrazten diguna, erran nahi baitut ukimena, eta halatan haien pentsamenduek, haien gogoetek jataldiak eta haragikeria dute xede bakarra. Horrela argi erran da jan-edanetara eta haragizko nahikerietara emandako doilor hauez: «Ardotan itotzen dira, eta pattarragatik galdurik dabilta» (Is, 28,7); «Mahai guztiak oka eginez beterik daude eta ez da inon tarte garbirik» (*ibid.* 8. bert.); «Eta emakumeak dituzte agintari» (*ibid.* 3,12), Sorreraren hasieratik eskatu zitzaienaren guztiz aurkakoa, hain zuzen: «Irritsak zeure senarrarengana bultzatuko zaitu, eta hura ukanen duzu nagusi» (Has 3,16). Era berean, profetak haien grina gogorra pintatzen du, erranez: «Nor bere lagun hurkoaren emaztearen atzean irrintzika» (Jr 5,8); «guztiak adulteriogileak dira eta» (*ibid.* 9,1). Horregatik Salomonek (bakea bego harengan!) Esaera Zaharren liburu osoa haragikeriaz eta edari hordigarriaz ohartarazteko eman zuen, bizio biotan murgilduak baitira Jainkoarengandik urrunduak eta Haren haserrepekoak, haiez hau erran da eta: «Ez baitira Yhwh-renak» (*ibid.* 5,10); «Ken itzazu neure aurretik, joan daitezela!» (*ibid.* 15,1).

Eta pasarte honi dagokionez: «Emazte bertutetsua, nork du aurkituko?...» (Es 31,10), alegoria hori guztia erabat argia da. Norbaitek materia on eta egokia baldin badauka, berori ez meneratzeaz gainera bere oreka ere kentzen ez diona, hori Jainkoagandiko dohaina da. Oro har, erran dugun bezala, materia egokia gobernatzea erraza da; baina hura desegokia baldin bada, halere ez da ezinezkoa bera, ariketen bitartez, meneratzea. Horretara jotzen dute Salomonen eta besteen abisuek; era berean, Legearen oharrek eta debekuek materiaren nahikunde guztiak zapaltzea beste helbururik ez dute. Hortaz, egiazko gizakia izan nahi duenak, eta ez giza itxura eta antza dauzkan piztia, ahalegin guztiak egin behar ditu materiaren nahikeria guztiak gutxitzeko, jan, edan, haragizko gurari, haserre eta nahikunde eta koleratik heltzen diren gainerako bizio guztiei doakienez; haiez [lotsaz] gorritu eta mugak jarri beharko dizkie. Eta ezinbestekoa denaz, jateaz eta edateaz alegia, elikatzeke premia hutserako mesedegarriena duenarekin gelditu beharko du, atseginari beha egon gabe. Era berean, ez du horrekin mintzagairik egin behar, ez eta horretaz jarduteko

bilerarik ere. Badakizu nola gaitzesten zituzten gure doktoreek «erlijiozkoak ez ziren oturuntzak» (פסחים *Pesahîm* 49a), eta gizaki bertutetsuek, *Pinhâs* ben Yaîr bezalakoek, ez zutela inoiz inorenean jaten (חולין *Hûllîn* 7b); gure doktore santuak berarekin jan zezala nahi zuelarik, behin bere etxera gonbidatu zuen, baina hark onartu ez. Edaria dela eta, hori janaria bezalakoa da, biek xede berbera dute eta. Edari hordigarriak hartzeko bilera bat egiteak, zure begietarako, are lotsagarriagoa izan behar du, jende biluzien bilera bat baino, beren biluzgorritasun osoa erakutsi eta beren [libratzeko] premiak eguargiz eta leku berean eginen lituzkeena. Izan ere, sabela libratzea gizakiak inola ere ezin saihesten dezakeen gauza beharrezkoa da, baina horditzea, ordea, gizaki biziotsuak bere gogoz burutzen duen egintza da. Lotsariak agerian izateko ahalkea konbentzio hutsezkoa da, eta ez dagokio arrazoimenari; baina adimena eta gorputza usteltzea arrazoimenak gaitzesten ditu, eta horrexegatik, [egiazko] gizakia izan nahi duenak horri gaitziritzi beharko dio, horretaz mintzatu ere egin gabe.

Haragizko harremanei buruz, ez diot deus erantsi behar '*Abôt*-ez egin nuen iruzkinean adierazirikoari, hor erakusten baitut gure Lege jakintsu eta garbiak hori noraino gaitzesten duen, nola galarazten duen hartaz hitz egin, edo, inola ere eta ezein estakuruean ere, hartaz mintzagairik egitea. Badakizu doktoreek diotela Eliseo profeta (bakea bego harengan!) «santu» esan zitzaiola horretan inoiz pentsatzen ez zuelako, halako moldez non ez zitzaion behin ere haragikeriazko ametsik heldu; eta badakizu, halaber, Jakob-ez diotela (bakea bego harengan!) «ez zuela behin ere hazi-isuririk ukan Ruben sorrarazi baino lehen» (*Bere'sît Rabbâh* 98). Horiek gure erlijio-kideen artean hedaturiko tradizioak dira, horien bidez giza moralaren ohiturak eskura ditzaten. Badakizu doktoreen errana: «Bekatuari buruzko pentsamenduak are bekatu bera baino txarragoak dira» (יומא *Yomâ* 29a), eta badut horretaz azalpen oso jakingarria: bekatu bat egiten duen gizakiak ez du bekatu egiten bere materiari datxekzion akzidenteen eraginez besterik, erakutsi dugun bezala, erran nahi baitut, bere animalitasunagatik egiten du bekatu; baina pentsamendua gizakiaren propietateetako bat da, eta haren formari dagokio. Beraz, bere pentsamendua bekatuaren gainera badarabil, bere bi parteetarik nobleenarekin egiten du bekatu. Horrela, esklabo ezjakin bat bidegabeki lan egitera behartzen duenaren errua, ez da gizaki libre eta gailen bati lan eragiten dionarena bezain larria,

zeren giza forma hori eta berorri dagozkion propietate guztiak ez baitira enplegatu behar horien duin denerako besterik, hau da, gorenik dagoenarekin lotzeko, eta ez beherenera jaisteko.

Badakizu, halaber, zein zorrozki debekatzen den gure artean lizunki mintzatzea, eta hala izan behar da, mintzaira izakiaren propietateetako bat baita, eta eman zaion onura bat, eta horren bitartez bereizten da, erran den bezala: «Nork eman dio ahoa gizakiari?» (Ir 4,11); eta profetak errana du: «Jaunak, Yhwh-k, mihi trebatua eman dit» (Is 50,4). Hortaz, gure hobekuntzarako, ikasteko eta irakasteko eman zaigun dohain hori ez da erabili behar bizio handienerako eta gauza lotsagarrienerako, gu ere jentil ezjakin eta erlijio gabeek beren poesia eta kontakizunetan erraten dituzten gauza guztiak errateko punturaino heldurik, hori guztia haiei ongi doakien arren, ez ordea, beren gainean hau errana dutenei: «Enetzat apaiz-erresuma izanen zarete, eta nazio santua» (Ir 19,6). Eta baldin inork bere pentsamendua eta hitza guretzat lotsagarria den zentzu horri aplikatzen badizkio, horrela, behar baino gehiago edarian edo sexu-jokoan pentsatzeraino joanez, edo lehenago aipaturiko bertsoak errateraino, eman zaion hobariabaz abusatzen du, eta horretaz baliatzen da ongilearen aurka altxatu eta Haren aginduak desobeditzeko, eta horrela, halakoak hau erran zaien antzekoa dirudi: «Eta eskubeteka ematen nizkion zilarra eta urrea Baal-en zerbitzurako erabiltzen zituen» (Os 2,10).

Uste dut, halaber, azal dezakedala zergatik erraten zaion gureari «hizkuntza santua», ez baita pentsatu behar hori, gure aldetik, hitz hutsa dela edota oker bat, egia baizik. Izan ere, hizkuntza sakratu honetan ez zen hitzik batere sortu gizonen edo emakumeen sexu-organoa adierazteko, ez eta ugaltzeko egintzarako ere, ez eta hazia, gernua ez gorotza aipatzeko ere. Gauza horietarako guztietarako, ez da hebreeraz jatorrizko hitzik batere sortu, baina irudizko adieraz eta aieruz adierazten dira. Horrekin jakinarazi nahi izan da ez dela horrelako gauzez mintzatu behar, eta, ondorioz, izenik eman ere ez; eta aitzitik, horiez hobe dela isilik egotea, eta berorien gainean mintzatu beharra dagoenean, bestelako berbez baliatu behar da, horiek egiteko premia izanez gero, halaber, sekreturik handienaz estaliz. Gizonaren atal horri גִּיד *gîd* deitu zaio, hots, ‘nerbio’, analogiaz erabilia, [pasarte honetan] errana den bezala: «Zure lepoa burdinazko nerbioa bezalakoa da» (Is 48,4). Era berean, שֹׁפָכָה *sofkāh* ere deritzo, ‘isurlea’ alegia,

bere zereginagatik. Emakumearen organoa adierazteko קבֹּתָה *qabatah* ‘haren sabela’ edo ‘haren urdaila’, קֶבֶה *qebah* urdailaren izena baita. Eta רֶחֶם *rèḥem* [‘alua’ gisa erabilia] umekia sortzen den erraien alde da, hots, ‘umetokia’. Iraizkinen izenak hauek dira: צוֹאָה *sô’āh* ‘gorotza’, יָצָא *yāsā’* ‘irten’ aditzetik eratorria da, eta gernuarena, aldiz, מֵיִם רַגְלִיִּים *máyim ragláyim* ‘oinetako ura’¹⁶, eta haziarena זֶרַע שִׁכְבָּת *šikbat zèra’*, hots, ‘hazi-etzanaldia’. Ugaltzea dakarren egintzak berak ez du batere izen berezirik, eta hauekin adierazten da: יִשְׁכַּב *yīškab* ‘etzan’, יָבֵעַל *yib ‘al* ‘esposatu’, יִקַּח *yiqah* ‘emaztea hartu’ edo יִגְלֶה *yegleh* ‘erwāh’ ‘biluztasuna agertu’. Ez zaitzala יִשְׁגַּל *yīšgal* ‘elkarrekin bizi’ aditzak okerrera eraman, hori egintza horren izentzat har zenezake eta. Ez da holakorik, berorren eratoria, שֶׁגַּל *šēgāl*, maitasun-eskariak onartzen dituen neska gaztea besterik ez delako; adibidez: «Emaztea (edo erregina) zure eskuinean da» (Sal 45,10), eta יִשְׁגַּלְעֵנָה *yīšgalênāh* aditzak ere (Dt 28,30), כְּתִיב *ketib*-en arabera, honako hau erran nahi du: ‘emaztetzat hartuko du zeregin horretarako’.

Kapitulu honetako zati gehienez Tratatu honen helburutik urrundu gara gai moral eta erlijiosoak azaltzeko; baina horiek obra honen planean bete-beteaz sartzen ez diren arren, kontakizunaren hariak berak eraman gaitu horraino.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

[Materia, gure adimenaren belo]

Materia belo handi bat da, eta nobleena eta garbiena izan arren, erran nahi baitut esferen materia izan arren, ez du uzten adimen banatua ikusten bera egiazki den bezala, eta are gehiago, noski, geurea dugun materia ilun eta uher honek. Hori dela eta, gure adimenak Jainkoa, edo Adimen banatuetakoa bat, ikusi nahi duen bakoitzean, hori belo handi hori jartzen da tartean.

Horixe da, hain zuzen, profeten liburu guztietan esaten dena: Jainkoagandik belo batek banatzen gaituela, eta Hura hodei batez, lainoz, ilunpean, lanbroz, edo antzeko beste aipamenez ezkututzen zaigula erratean, materiagatik Jainkoa hautemateko dugun ezintasuna aipatzen da. Hori da gogoan zegoena hau erratean: «Hodei bat eta lainotasuna da Haren inguruan» (Sal 97,2), eta hori oztipoa gure

substantziaren opakatasunean datzala adierazten da, eta ez Jainkoa gorputz bat denik, Bera ikusten eragozten duten lainoez eta hodeiez inguratua, alegoriak hitzez hitz harturik, dioen bezala. Alegoria berbera berba hauetan ere errepikatzen da: «Gordelekutzat hartu zituen ilunpeak» (Sal 18,12). Era berean, Jainkoa (gorets bedi!) «hodei lodi baten barruan», «ilunpeetan», «lanbroan» eta «laino artean» ageri zela erraten denean, hor ere ideia berberori adierazten dela ulertu behar da; izan ere, ikuspen profetiko batean hautematen den guztia alegoria bat baita, ideiarenean bat adierazteko. Eta [Sinai mendiko] agerrera ikaragarri hau beste edozein ikuspen profetiko baino handiagoa eta analogia orotatik landa egon arren¹⁷, ez zen, ordea, ideia adierazi gabea izan, eta oso bereziki Jainkoa (gorets bedi!) «hodei itxi batean» (Irt 19,9) agertu zenean. Baina hor azpimarratu nahi da Haren egiazko izaera hautematea ezinezkoa gertatzen zaigula, inguratzen gaituen materia ilunarengatik, eta ez Haren ingurukoagatik, Bera (gorets bedi!) ez baita gorputz bat. Bestaldetik, gauza jakina da, eta gure arteko erkidegoan txit ezaguna, Sinai mendiko bileraren eguna hodeitsu, lainotsu eta euri finekoa izan zela, errana den bezala: «Zu Seirtik ateratzean, o Yhwh, Edomgo zelaietan barrera aurrera egitean, lurra ikaratu egin zen, ortzia dardaratu eta hodeiei euria zerien» (Ep 5,4). Daitekeena da, beraz, «ilunpea, hodei eta lainoa» hitzekin (Dt 4,11) horixe adierazi nahi izatea, eta ez ilunpeek Jainkoa (gorets bedi!) inguratzen zutela, Haren inguruan ez baita ilunik batere, baina, aitzitik, argitasun distiratsu eta iraunkorra, eta horren isurpenak ilunpeak oro argitzen ditu, alegoria profetikoetan erran den bezala: «Eta Haren loriaren distirak lurra argitzen zuen» (Ez 43,2).

’ HAMARGARREN KAPITULUA

[Gaitzak gabeziak dira. Jainkoa gaizkiarekiko harremanean]

Mutakallimīn-ek, jada jakinarazi dizudanez, ez-izatea (edo gabezia) dela eta, ez dute ez-izate absolutua besterik bururatzen, baina gaitasun-gabeziei ez deritzete gabezia, eta, aitzitik, uste dute gabezia eta gaitasuna, esaterako, itsutasuna eta ikusmena, heriotza eta bizitza, elkarren aurkako bi gauzatzen hartu behar direla; horiek, haien aburuz, bero eta hotza bezalakoak dira eta. Horrexegatik diote, zentzu absolutuan, ez-izateak ez duela eragilerik behar, egintza baita nahitaez

eragilea behar duen bakarra, eta hori, nolabaiteko ikuspegitik, egia da¹⁸. Baina, ez-izateak eragile beharrik ez duela dioten arren, halere, badiote, beren hastapenarekin bat, Jainkoak itsuarazi edo gorrarazten duela, bai eta mugimenduan zegoena geldiarazten ere, gabezia horiek, haien iritiz, badiren errealitateak dira eta.

Beharrezkoa da, horri buruz gure iritzia zein den jakinaraz diezazugun, espekulazio filosofikoak eskatzen duenaren arabera. Zerorrek ondo dakizunez, [mugimenduaren] oztopoa kentzen duena, nolabait, mugiarazlea da¹⁹; eta, adibidez, baldin norbaitek habe baten azpitik zutabe bat kenduz gero, berori berezko pisuagatik erortzen bada, orduan, zutabea kendu duenak habe mugiarazi duela diogu, *Akroasis*-ean errana den bezala. Era berean, halako gaitasun bat geldiarazi duenaz gabezia horren egilea dela erraten dugu, gabezia hori errealitate bat ez den arren. Horrela, gauean lanpara itzali duenaz ilunpeak sorrarazi dituela diogu, eta ikusmena suntsitu duenaz itsutasuna ekarri duela, ilunpeak eta itsutasunak, gabeziak izanik, eragile-beharrik ukan ez arren. Azalpen honen arabera ulertu behar dira Isaiasen hitzak: «Ni naiz argia eratu eta ilunpeak sorrarazi nituena, bakea egin eta zoritxarra sorrarazten dudana» (Is 45,7), ilunpeak eta gaizkia gabeziak dira eta. Ohar zaitez ez dioela «ilunpeak egiten dituen», ez «zoritxarra egiten duena», horiek ez baitira existentzia positiborik duten gauzak, eta, beraz, ezin dakieke עֲשָׂה *‘āšāh* ‘egin’ aditza aplikatu. Aitzitik, biotarako בָּרָא *bārā* ‘sorrarazi’ aditza darabil, hebreeraz ez-izanarekin lotua, errana den bezala: «Hasieran Jainkoak sorrarazi zituen...» (Has 1,1), hau da, ‘ezerezetik aterarazi’. Ez-izana eragile baten egintzarekin harremanetan ipintzen den bakoitzean, erakutsi dugun eran izaten da. Horrexetara ulertu behar dira, halaber, hitz hauek: «Nork eman dio ahoa gizakiari, nork egin du mutua, gorra, argikuslea edo itsua?» (Irt 4,11). Baina pasarte hau bestela ere uler daiteke, hots: «Nork du gizakia hiltun, edo hitzik gabea sorrarazi». Eta orduan hori litzateke halako edo holako gaitasuna jasotzeko materia desegokia ekoiztea, eta Hartaz gabezia hori burutu zuela esan liteke²⁰. Bide beretik, norbaitek pertsona bat heriotzatik salba zezakeelarik, hori egin ez balu, hura hil zuela erran liteke²¹. Nolanahi ere den, argi dukezu eragile baten egintza ezin lot daitekeela inola ere gabeziarekin, eta «gabezia bat egitea» ezin daitekeela erran, zeharkako egintza baten adieran ez bada, jada

azaldu dugunez. Baina eragile batek zuzenki egiten duena nahitaez egiazko existentzia daukan zerbait da; eta egintza horrek, edonolakoa izanik ere, existitzen den zerbait izan behar du.

Atariko honen ondoren, oroit zaitez frogatua dela gaitzak ez direla gaitz zerbaitekiko besterik, eta gaitz oro, edonolako izaikiarekiko, gauza horren ez-izatean datzala, edota haren ongitasunaren baldintzetako baten gabezia. Horrexegatik errana da, oro har, gaitz guztiak gabeziak direla. Gizakiarengan, konparazione, heriotza gaitz bat da, eta haren ez-izatea da; halaber, haren eritasuna, haren txirotasuna, haren ezjakintasuna, harekiko gaitzak dira, guztiak haren gaitasunaren gabeziak direlako. Eta orotariko tesi honen banabanako kasu guztiei so eginez gero, ez duela behin ere hutsik egiten aurkituko duzu, ez bada gabeziaren eta gaitasunaren artean, edota aurkako biren artean ere bereizten edo gauzen izaera inondik ere ez dakienarentzat izan ezik; esaterako, osasuna, oro har, oreka gisako zerbait dela, hau da, harremanaren mailakoa eta proportzio horren absentsia eskuarki gaixotasuna izaten dela ez dakienarentzat bezala. Heriotza, bizidun guztiekiko, formaren gabezia da; eta, era berean, beste izakien artean ezerezten den guztiari dagokionez, suntsitzea ez da bere forma gabe gelditzea besterik.

Premisa hauen ondoan, erabateko segurtasunez onartu beharko da ezin daitekeela inola ere erran Jainkoaz (goretsia eta handietsia izan bedi!) Berak gaizkia zuzenki egiten duela, erran nahi baitut, Jainkoak hasiera-hasieratik gaizkia egiteko asmorik duenik. Hori ezina da; aitzitik, Haren egintzak oro on hutsak dira, Berak (gorets bedi!) ez baitu izatea besterik egiten, eta izate oro ongia da. Gaitz guztiak gabeziak dira, egintza orotatik at, guk erakutsi dugun moduan ez bada, hots, Jainkoak materia hori berorri berez dagokion izaerarekin sorrarazten duen neurrian, hau da, betiere gabeziarekin loturik egonda, jada dakigunez²², eta horrexek bihurtzen du hura usteltasun ororen eta gaitz guztien kausa. Hori dela eta, Jainkoak materia hori eskaini ez dion gauza oro ez da hiltzen eta ez da ezein ere gaitzen menekoa izaten ere. Horretara, Jainkoaren egiazko egintza ongia da, hori izatea baita. Horrexegatik, munduko ilunpeak argitu dituen liburuak honela dio, hitzez hitz: «Eta egin zuen guztia ona zela ikusi zuen Jainkoak» (Has 1,31), zeren, behe-mailako materia horren izatea ere, bere izaeraz gabeziari loturik dagoen arren, heriotzaren

eta gaitz guztien iturria dena, hori gorabehera, ongi bat da, jaiotzaren iraunkortasuna eta izatearen elkarren ondoko ugaltze etengabea kontuan izanda. Hori dela eta, Rabbi Meir-ek «oso ona zela» hitzak «Eta heriotza ongi bat da» gisa ulertarazi zituen (*Bēre'sīt Rabbāh* 9), aipatu dugun ideiaren arabera.

Gogoan ukan kapitulu honetan erran dizudana eta saia zaitez hori ulertzen. Orduan argi ikusiko duzu honetaz profetek eta doktoreek erran duten guztia, hots, on guztiak Jainkoaren zuzeneko egintzatik datozela. *Bēre'sīt Rabbāh*-n honela irakurtzen da (51): «Goitik ez da gaitzik ezer jaisten».

נ' HAMAİKAGARREN KAPITULUA

*[Ezjakintasuna, ezaguerarik eza den aldetik,
giza gaitzen iturri]*

Gizaki batzuek joera, grina, iritzi eta sinesteen kausaz besteei egiten dizkieten kalte handiak oro gabezia batetik helduak dira, guztiak ezjakintasunetik datozelako, hau da, jakinduriarik ezetik. Etaitsuak, ikusmenik ezagatik etengabeki oztopoz oztopo ari denez, bere burua eta besteenak ere zauritzen ditu, bidean gidatzeko inor ez badu, eta, era berean, gizakien arteko taldeek, zeinek bere ezjakintasunaren neurrian, beren buruei eta besteenei ere kalte handiak ekartzen dizkiete, giza leinuentzat pisu handikoak. Baldin jakinduria balute, horixe baitagokio giza formari, ikusmena begiari dagokion bezala, beren buruei eta besteri ere kalterik ez egitera bultzaturik sentituko lirateke, egia jakiteak etsaigoa eta gorrotoa eteten dituelako, eta gizakiei elkarri kalte egiten eragozten, profetak iragarri zuen bezala, zioela: «Otsoa bildotsarekin egonen da, eta pantera antxumearen ondoan etzanen...; behia eta hartzemea larrera alhatzera elkarrekin joanen dira..., eta bularretako haurra jolasean ibiliko da...» (Is, 11, 6-8). Ondoren horren kausa azaltzen du, [esanez] etsaitasun, liskar eta tirania horiek etenen direla gizakiek orduan Jainkoaren egiazko ezagutza ukanen dutelako. Hortaz, honela dio: «Ene mendi santu osoan ez du inork kalterik ez hondamendirik eginen, Yhwh-ren ezagutzak Lur osoa beteko du, urak itsasoa bezala» (ibid. 9. bert.). Jakizu hau ongi.

ב' HAMABIGARREN KAPITULUA

[Gaizkia ez da ongia baino ugariago unibertsoan.

Gizakia gaitz askoren eragile. Hirutariko gaitzak]

Jende arruntari maiz iruditzen zaio mundu honetan gaitz gehiago dagoela onak baino; eta halatan nazio gehienek ideia hori beren solas eta poesia ez gutxitan adierazten dute, diotela mundu honetan ongia aurkitzea zaila dela, eta gaitzak, aldiz, ugariak eta iraunkorrak direla. Oker hori baina, ez da jende xehearen baitan gertatzen, beren burua jakintsutzat daukaten batzuen artean baizik. Al *Rāzi*-ren liburu famatu batean²³, *الالهية* *Al-'Ilāhiyyāt* (= 'Jainkozko gauzak', edo 'gai metafisikoak'), erokeria eta ergelkeria multzo handiaren erdian, honako tesi hau jartzen du: munduan gaizkia ongia baino ugariagoa dela, eta baldin gizakiaren ongi egotea eta ongi egote horrek ematen dizkion atseginak erkatzen badira heltzen zaizkion min, oinaze, eritasun, elbarri, nahigabe eta zoritxarrekin, hau aurkituko duzu, horren existentzia, hots, gizakiarena, ezarri zaion zigor eta gaitz handi bat dela. Eta iritzi hori sendotzeko, zorigaitz horiek guztiok kontatzen ditu, egiaren adiskideek Jainkoaren onginahiaz eta Haren ontasun ageriaz sinesten duten guztiaren aurka jotzeko, berauek Hura ongi absolutua dela eta Hari darion guztia, zalantzarik gabe, ongi hutsa dela diote eta.

Erabateko oker horren kausa, honetan datza: ezjakin horrek, jendetzaren artean dituen kideek bezala, unibertsoa giza banako hutsaren bidez besterik ez du kontsideratzen. Ezjakin orok uste du unibertso osoa bere probetxurako besterik ez dela existitzen, bera baino inor gehiago ez balitz bezala. Beraz, berari gertatzen zaiona nahi ez bezalakoa baldin bada, benetako bakarra gaizkia dela pentsatzen du erabat; baina baldin gizakiak unibertsoa kontsidera eta irudika baleza, eta hor zein toki txikia duen baleki, egia argi eta nabari agertuko litzaioke. Izan ere, gizakiek unibertsoan litzatekeen gaitz ugaritasun horri buruz, aldarrikatzen duten erokeria neurgaitz hori, ez dute era berean onartzen aingeruei buruz, ez esfera ez argizagiei buruz, ez eta haiez osatzen diren elementu, mineral edo landareei dagokienean, eta animalia mota ezberdinei buruz ere ez, eta haien gogoetak ez dira giza leinuko zenbait banakoren gainean besterik ari. Baldin norbaitek, janari kaltegarriez elikatuta, legenarra harrapatzen badu, harritu egiten

dira gaitz larri horrek jota egoteaz, eta [beren buruei galdetzen diete] gaitz hori nola gerta daitekeen. Era berean, zurtu egiten dira baldin norbait, sexu-gehiegiakerien ondorioz, itsu gelditzen bada, eta gogor deritze gizon hori itsutasunak jota gelditzeari. Beste adibide batzuk ere aipa nitzake. Baina arazoari so egiteko egiazko era, honako hau da: existitzen diren giza leinuko banako guztiak, eta areago gainerako animalia motetakoak, batere baliorik gabeak dira unibertsoaren osotasun iraunkorrarekiko, argiro errana denez: «Gizakia putz baten antzekoa da...» (Sal 144,4); «are gutxiago har hutsa den gizakia, hartxo baten pareko den gizasemea» (Job 25, 6); «zer izanen da buztinezko etxeetan bizi direnez?» (*ibid.* 4,19); «Nazioak, Harentzat, suilera [erortzen den] ur-tanta bezalakoak dira» (Is 40,15); eta oraindik liburu profetikoetako beste anitz pasarte ere mintzatzen dira garrantzi handiko gai honetaz, gizakiari berak zein gutxi balio duen jakinarazteko oso mesedegarriak. Eta berorrek ez du inola ere oker pentsatzera eraman behar, unibertsoa beretzat besterik ez dela existitzen sinesten duela; gure ustez, ordea, unibertsoa berorren sortzailearen nahimenagatik existitzen da, eta giza leinua hor deus gutxi da goiko munduarekiko, erran nahi baitut, esfera eta argizagiekin erkatuz gero. Aingeruez den bezainbatean, ez da haien eta gizakien artean inolako erkatzerik. Gizakia izaki gertagarrietarik nobleena besterik ez da, hots, gure beheko mundu honetakoen artean nobleena; erran nahi dut, elementuez osaturiko guztia baino nobleagoa. Horrela, bada, haren existentzia harentzat on handia da eta Jainkoaren aldetiko mesedea, eman dizkion nolakotasunak eta hobekuntzak direla kausa. Gizabanakoak jotzen dituzten gaitz gehienak berengandik heltzen zaizkie, erran nahi baitut, akastunak diren gizabanakoengandik. Horiek geure bizioak ditugu, deitoratzeko eta laguntza eskatzeko era ematen digutenak. Baldin sufritzen badugu, hori guk geure gogoz geure buruei egiten dizkiegun gaitzengatik gertatzen da, baina horiek Jainkoari egozten dizkiogu (urrun bedi holako ideia guregandik!), Jainkoak bere liburuan aldarrikatu duenez, dioela: «Suntsitzen badu, hori Hari egoztekoa al da? Ez, Haren hurrei, haien hobenei» (Dt 32,5) Salomonek ideia bera adierazi du, dioela: «Gizakiari zentzugabekeriak okertzen dizkio bideak, eta [gero] Yhwh-ren aurka haserretzen zaio bihotza» (EsZah 19,3).

Are argiago azaltzeko, gizakia jotzen duten gaitz guztiak, ene ustez, hiru mota hauetako batean koka daitezke:

Lehen mota: gizakiari jaiotze eta usteltzepean dagoenaren izaeragatik beragatik heltzen zaizkionak dira, erran nahi baitut, bera materiazko izakia delako. Hori dela eta, gizabanako batzuk eritasunek eta elbarriek jorik daude, horiek jaiotzetikoak izan edota elementuetan gertaturiko aldaketengatik helduak dituztelako, esaterako, airea usteltzea, zeruko suak edo lurrikarak. Jada azaldu dugunez, Jainkoaren Jakinduriak nahi ukan du jaiotza *usteltzearen* bidez besterik ez gertatzea, eta *bana-banako* usteltzerik gabe ez litzateke jaiotza espezifikoa iraunkorrik izanena. Horretara, argi dago oro ondasun eta ongi nahi hutsa dela, eta [Jainkoari] ongia besterik ez dariola. Hezur eta haragizkoa izanik, horrekin batera, inpresio orotatik babesturik egon eta materiaren ezein akzidenteren peko ez izatea nahi duenak, horretaz konturatzen ez bada ere, ez du aurkako bi elkarrekin batzea besterik gura, zeren, batetik inpresioen pean egon nahi du, eta aldi berean ez du egon nahi. Izan ere, inpresiorik jasotzeko gai izan ez balitz, ez zatekeen jaiotzaren emaitza izanena, eta berarengan existitzen dena banako [bakar] bat litzateke, eta ez espezie bateko banako batzuk. Zein egia handia den Galenok bere *Gorputz-atalen funtzioez* Tratatuaren III. liburuan dioena! «Ez dezazula pentsa, alferreko liluramenaz –dio berak–, hileroko odolaz eta haziaz hiltzen ez den edota sufritzen ez duen animalia bat era daitekeenik, edo etengabeko mugimendua ukan dezakeenik, edo eguzkia bezain distiratsua izan daitekeenik». Galenoren pasarte horrek arreta erakartzen du baiespen orokor baten kasu berezi bati buruz; honako hau da: «edonolako materiaren era daitekeena materia espezifikoa horrek eduki dezakeen erarik hoberenean eratzen da, eta espezieko banakoek duten akatsa banakoaren materia bereziaren akatsetik heldu da». Hortaz, odolaz eta haziaz era daitekeen gauzarik goren eta hoberena giza espezia da, izaki bizidun, arrazional eta hilkor gisa duen izaera ongi ezagunarekin; beraz, azken gaitz mota horrek nahitaez existitu beharra dauka. Halere, aurkituko dugunez, mota honetarik gizakiei heltzen zaizkien gaitzak urriak dira eta oso gutxitan gertatzen. Izan ere, hiri batzuk kausituko dituzu milaka urteren ondoan ez uholdepean ez sutan egon direnak; milaka gizaki, erabat osasuntsu jaiotzen direnak, eta elbarri jaiotzen den gizona *anomalía* bat da, edo, gutxienez –norbaitek *anomalía* hitza arbuiatzen badu, berori erabiltzea gaitzetsiz– [halako gizakia] salbuespen oso bakana da, eta hori ez da egoera onean jaiotzen direnen ehuneko bat, ez eta milako batere izatera heltzen.

Bigarren motako gaitzak gizakiek elkarri pairarazten dizkio-
tenak dira, hala nola batzuek besteen gainean eragiten duten tirania
bezalakoak. Gaitz hauek lehen motakoak baino ugariagoak izaten dira,
eta horien kausak asko eta aski jakinak dira; era berean guregandik
heltzen dira, baina horiek sufritzen dituenak ezin dezake horren aurka
deus egin. Halere, munduko ezein hiritan ere ez dira era honetako
gaitzak hedaturik egoten, ez eta banakoen artean maiz gertatzen ere;
aitzitik, bakanak izaten dira, esaterako, banako batek gauean beste
banako bati ustekabeen erasotzen dionean bezala, hura hil edo hari
ebasteko. Mota honetako gaitzek gerra nagusietan besterik ez dute
jende asko harrapatzen; baina hori ere ez da maiz gertatzen Lur osoa
kontuan izanda.

Hirugarren motako gaitzak gutariko bakoitzari geure
eraginez heltzen zaizkigu, eta hori sarritan gertatzen da. Gaitz
horiek bigarren motakoak baino askoz ere ugariagoak dira. Gizaki
guztiek deitoratu dituzte mota honetako gaitzak, eta oso gutxi
izanen dira beren buruen aurrean horien errudun sentitzen ez
direnak. Horiek sufritzen dituztenek egiazki gaitzespena merezi
dute, eta [profetaren] hitzak egotz dakizkieke: «Hori zeuen eskutik
heldu zaizue» (Mal 1,9). Gai hori dela eta, hau errana da: «Bere
burua hondatu nahi duenak ez bestek egiten du hori» (EsZah 6,32),
eta era honetako ezbeharrez erran zuen Salomonek: «Gizakiaren
ergelkeriak bere bideak okertzen ditu» (*ibid.* 19,3). Bestaldetik,
gisa honetako gaitzez mintzatuz, argi erran du gizakiak berak
erakartzen dituela: «Bestetik, hauxe aurkitu dut, Jainkoak gizakia
zuzena egin zuela, baina beroriek bilatu dituztela anitz pentsaera
errudun» (Qoh 7,29); eta pentsaerok ekarri dizkiete gaitz horiek.
Era berean horretariko gaitzak direla eta, honako hau erran izan
da: «Egiazki, zoritxarra ez da hautsetik irteten, ez eta sufrimendua
zorutik ernetzen ere» (Job 5, 6). Ondoren, berehala aldarrikatzen
da gizakia dela era horretako gaitzak sorrarazten dituen, erranez:
«Gizakia baita zorigaitza dakarrena» (*ibid.* 7. bert.). Gaitz mota hau
bizio guztien ondoren heltzen da, erran nahi baitut, janari, edari eta
sexu-grinaren nahikeria desordenatuagatik, gauza horiez gehiegi
edo aldizkakotasunik gabe gozatzen denean, edo elikagaiak kalitate
txarrekoak direnean; hortxe baitatza gorputzerako eta arimarako
eritasun guztien kausa. Gorputzaren eritasunez den bezainbatean,

hori begien bistan da. Erregimen txar horretatik heltzen diren arimaren eritasunak bi arrazoiren ondorio dira. Lehenik, gorputzak pairatzen duen aldaketak nahitaez arimaren gaineko eragina dauka, berori gorputzaren indar (= ahalmen) bat den aldetik, eta zentzu horretan errana da arimaren ohiturak gorputzaren egiturari darraizkiola. Bigarren arrazoa da beharrezkoak ez diren gauzekin ohitzen dela arima eta haietara egokitzen, halako moldez non ez banakoaren ez eta espeziaren kontserbaziorako ere beharrezkoa ez dena desiratzeko joera hartzen baitu. Hortaz, nahikeria hori mugarik gabekoa da, zeren, gauza beharrezkoak oro murriztuak eta mugatuak badira ere, soberazkoak, aldiz, mugarik gabe baitira. Esaterako, zilarrezko ontzi batzuk ukan nahi badituzu, atseginagoa da urrezkoak izatea; badira kristalezkoak dituztenak, eta litekeena da esmeraldaz eta errubiez eginak ere egotea, materia horiek eskuragarriak diren neurrian. Horretara, gizaki ezjakin eta arrazoimen okerreko oro etengabeki nahigabeturik eta tristuraz ari da bestek lorturiko luxua ezin erdiets dezakeelako; eta maiz arrisku handietan sartzen da, adibidez itsas bidaietan edota erregeen zerbitzuan, alferrikako luxu horiek eskuratzeko xedeaz. Baina behin bide horietan barrena sarturik dagoelarik, zorigaitzek jotzen dutenean, Jainkoaren dekretuaz eta patuaz kexatzen da, fortunaren aurka marmarka hasten da eta haren justizia txikia deitoratzen du, aberastasun handiak lortzera lagundu ez diolako, horien bitartez ardo ugari eskuratu eta horrekin horditzeko eta urrez eta harri bitxiz jantziriko ohaide asko ere bai, pizgarri gerta dakizkion, haragikeriaz behar baino gehiago gozatzeko, unibertsoaren helburu bakarra gizon txatxar horren atsegina balitz bezala. Horra noraino heltzen den jende arruntan okerra; Jainkoari ezintasuna aurpegiratzen diote izaera honetako unibertsoa sortu duelako, berek uste dutenez, nahitaez halako gaitzak dakartzana, edozein gizaki biziotsuri bere grina zitala lortzera laguntzen ez diolako, ez eta haren arima gaiztoa bere nahikerien mugara heltzera ere, beroriek, jada azaldu dugunez, amairik gabeko desirak izanik. Baina gizaki bertutetsu eta ikasiek badazagute unibertsoa argitzen duen jakinduria, eta bera ulertzen dute, Davidek (bakea bego harengan!) aldarrikatu zuen bezala, zioela: «Yhwh-ren bidezidor guztiak ontasun eta egia dira Haren ituna eta legeak gordetzen dituztenentzat» (Sal 25,10), erran nahi baita, gauzen izaera eta Legearen aginduak arretaz gordetzen dituztenek, horien

xedea ezaguturik, orotan ageri den ontasuna eta egia ulertzen dute; hori dela eta, gizakiak diren aldetik zertarako eginak diren, hartara jotzen dute, hau da, *hautematera*. Gorputzaren premiek beharturik, beharrezkoa dutena bilatzen dute: «Ogia, jateko, eta jantzi bat, estaltzeko» (Has 28,20), soberazkorik nahi gabe. Premiazkora mugatuz gero, hori gauza erraza da, eta lan handirik egiteke lortzen da. Hor zailtasun eta nekerik ikusten baduzu, hori gehiegi-nahiaren ondorioa da, eta, hortaz, beharrezkoa ez denaren bila ahalegintzen garelarik, premiazkoa duguna lortzea ere zail gertatzen zaigu; izan ere, zenbat eta geure nahikundeek soberazkoaren gainera eramatenago gaituzten, arazoa are nekagarriagoa gertatzen zaigu, eta geure indarrak eta ondasunak beharrezko ez diren gauzetan gastatzen ditugu, premiazkoa bera ere aurkitu gabe.

Beraz, kontsideratu behar duzu nolako egoeran gauden erdietsi nahi denari buruz. Izan ere, animalia batek zenbat eta gauza bat premiazkoago ukan, are maizago aurkitzen da eta prezio merkeagoan; eta gauza bat hain beharrezkoa ez den heinean, aldiz, aurkitzeko zailagoa eta garestiagoa izaten da²⁴. Esaterako, gizakiarentzat beharrezkoak airea, ura eta elikadura dira; baina, halere, beharrezkoena airea da, hori gabe ezin egon baitaiteke bizirik une batez ere, hiltzeke; baina, urik ez duela, egun bat edo bi pasa ditzake; eta, era berean, airea da, zalantzarik gabe, aurkitzeko errazena eta merkeena. Baina uraren premia larriagoa da elikadurarena baino, eta, horrela, gizon batzuek, edanez gero, jan gabe lau zapabost egunetan iraun dezakete. Eta ura edozein hiritan ugariago eta prezio merkeagoan aurki daiteke janaria baino. Eta gauza bera gertatzen da elikagaiekin ere: beharrezkoenak errazago eta merkeago edireten dira, leku berean, hain premiazkoak ez direnak baino. Baina musketaz, anbarraz, errubiez eta esmeraldez den bezainbatean, ez dut uste zentzu oneko pertsona batek horiei gizonarentzako beharrezko iritziko dienik, medikuntza-trataera baterako ez bada behintzat; eta orduan ere, horien ordeztu, antzeko beste gauza batzuk ere erabil daitezke, zenbait belar eta hauts mota, adibidez.

Hortxe ageri dira Jainkoak (gorets bedi!) animalia ahul honenganantz ere erakusten duen eskuzabaltasun eta ontasuna. Baina, guztiz gain, oso nabarmena da animalien artean jarri dituen justizia eta berdintasuna. Izan ere, Naturaren legeek ez dute uzten

edozein animalia-espezietako banako bat bereiz dadin espezie bereko gainerako animalietatik berak daukan gaitasun partikular bategatik, edo berak gehiago ukan lezakeen soin-atal batengatik. Aitzitik, animalien gaitasun fisiko edo psikiko eta bizitzakoak oro, halako banako batek dituen gorputz-atalak bezalaxe, funtsean halako beste batek dituenak berak dira; eta nonbait akatsen bat badu, hori akzidentala da, Naturaz kanpoko kausaren bategatik gertatua, eta hori ere arraroa da, jada azaldu dugunez. Naturaren bideari darraizkion banakoen artean, ez dago batere ezberdintasunik gehiagotik gutxiagora, bana-banako materien jarrera ezberdinetik heldua ez bada; eta hori espeziearen materiari datxekion izaeraren ondorio beharrezko bat da, eta ez doakio banako bati beste bati baino gehiago. Alabaina, batek musketa-puxika asko eta urregorritz apainduriko jantziak ukan, eta beste bat bizitzako gehiegikeria horiek gabe egoteagatik, hor ez dago ez bidegabekeriarik ez eta indarkeriarik ere. Soberazko hori erdietsi duenak ez du horregatik bere substantzian abantailarik batere lortu, eta ez dauka gezurrezko lilurapen edo jostailu bat besterik; eta bizitzako behar-ez-direnkeriak ez dituenak ez da, nahitaez, murriztu bat: «Asko bildu zuenak ez zuen sobera, ez eta gutxi bildu zuenak ere eskas. Bakoitzak jateko adina zuen» (Irt 16,18). Horixe da maizenik edonon eta edonoiz gertatzen dena, eta ez da salbuespenari begira egon behar, jada azaldu dugunez.

Aurreko gogoeta bi horien bidez Jainkoak (gorets bedi!) bere sorkariengana darabilen ontasuna ezagutuko duzu; [alde batetik] beharrezkoa dutena aurkiarazten die, horren garrantzi-mailaren arabera, eta [beste aldetik] haien sorreratik bertatik espezie bereko banakoen artean berdintasuna ezarri du. Egiazko ikuspuntu horretatik erran zuen Jakintsuen Printzeak: «Haren bide guztiak justiziazkoak dira» (Dt 32,4), Davidek ere erranez: «Yhwh-ren bidezidor guztiak ondasun eta egia dira» (Sal 25,10), jada erran dugun bezala. Davidek, halaber, hauxe dio bereziki: «Ona da Yhwh guztientzat, eta Haren bihozberatasuna beraren obra ororen gainean hedatzen da» (Sal 145,9), onik handiena, zentzu absolutuan, Hark gu existiaraztea baita, eta, animaliarengan gobernatzeko ahalmena sortzean, bere bihozberatasuna erakutsi du, azaldu dugun bezala.

Ლ HAMAHIRUGARREN KAPITULUA

[Gizakiak ezin diezaioke unibertsoari azken kausarik aurki.

Gizakia ez da kausa hori]

Maiz gizaki osamaituen izpirituak alderrai egon dira unibertso honen azken helburua zein ote den jakin nahian; baina galdera hori, eskola guztien arabera, alferrekoa dela erakustera noa. Eragile batek asmoz diharduenean, hark eginikoak nahitaez azken helburua ukan behar du, hartarako egina baita; hori argi dago espekulazio filosofikoaren ikuspuntutik eta ez du frogarik behar. Era berean, garbi dago asmoz eginikoa lehenago existitu gabe egon ondoren sortua dela. Eta azkenik, argi dago, halaber, eta guztiek hala onartzen dute, beharrezko izakiak, behin ere existitu gaberik egon ez denak eta sekula horrela egonen ez denak, ez duela eragilerik behar, jada erakutsi dugun bezala²⁵. Hortaz, egina izan ez denez, ez zaio azken helbururik bilatu behar. Hori dela eta, ez dago galdetzerik ea zein den Sortzailearen (gorets bedi!) existentziaren azken xedea, Bera ez baita gauza sortua. Beraz, argi dago, premisa horien arabera, ezin bila dakiokeela azken helbururik gauza sortuari besterik, hots, izaki adimendun batek asmoz egindakoari ez bada; erran nahi dut, bere etorkia adimen batengandik hartu duen orori, nahitaez horren azken kausa zein den bilatu behar zaio; baina sorturiko gauza bat ez denean, ezin bila dakioke azken kausarik, erran dugun bezala.

Atariko honen ondoan, ulertuko duzu ez dagoela unibertsoaren osotasunari azken xedea bilatzerik, munduaren berritasunaren alde gaudenon aldetik, ez eta bera betierekoa dela uste duen Aristotelesen aldetik ere. Izan ere, berorrek munduaren betierekotasunaz duen iritziaren arabera, ezin bila lekiokoe azken helbururik unibertsoaren ezein zatiri, zeren, uste horren arabera, ez baita zilegi galdetzea zein den zeruen azken xedea, ez zergatik duten halako neurria eta kopurua, ez zergatik lehengaia halako izaerazkoa den, ez halako animalia- edo landare-espezie baten azken xedea zein den, gauza horiek guztiok, haren aburuz, betiereko beharrianetik helduak baitira, eta hori aldaezina da betiko. Zientzia fisikoak izaki bakoitzak naturan duen azken helburua ikertzen duen arren, ez da hori guk kapitulu honetan darabilgun azken xedea. Izan ere, zientzia fisikoan oso ongi azaltzen da izaki bakoitzak naturan nahitaez halako helburua ukan behar duela, baina azken xede

hori, lau kausetarik nobleena, espezie gehienetan ezkutaturik gelditzen dela. Aristotelesek etengabeki aldarrikatzen du naturak ez duela deus alferrik egiten; erran nahi baita, naturaren obra orok nahitaez halako helburua ukan behar duela. Eta, preseski dioenez, landareak animalien probetxurako sortu ziren. Era berean, beste zenbait gauzari buruz, batzuk besteen mesederako existitzen direla azaldu du, hori, bereziki, animalien gorputz-atalei dagokiela.

Jakizu gauza fisikoetan den helburu horren existentziak nahitaez eraman dituela filosofoak natura ez bezalako beste hastapen bat onartzera, Aristotelesek adimenezko edo jainkozko hastapena deitzen duena, eta horixe da zerbait beste zerbaiten alde egiten duena²⁶. Jakin behar da, halaber, alderdikierarik gabeko gizakiaren begietarako, munduaren berritasunerako froga sendoenetako bat haxe dela, frogatu izan dela, gauza fisikoez den bezainbatean, haietako bakoitzak baduela halako xede bana, eta holako gauza bat beste halako baten probetxurako existitzen dela, eta horrek frogatzen du asmoz diharduen izaki baten nahia; baina nahi hori ezin irudika daiteke ekoizpen berri baterako ez bada.

Eta orain berriro nator kapitulu honen gaira, hau da, azken kausara. Beraz, hau diot: Aristotelesek azaldu du, maila fisikoetan, eragilea, forma eta helburua ez direla gauza *bat* besterik, erran nahi baitut, guztiok espezifikoki bat direla. Horretara, adibidez, Zayd-en formak berorren seme den 'Amr gizabanakoaren forma egiten du; hark bere espeziearen forma bat 'Amr-en materiari ematen dio, eta 'Amr-en azken xedea giza itxura ukaitea da. Gauza bera gertatzen da, haren ustearen arabera, ugaldutik beharra daukaten espezie fisikoetako banako guztiekin, haiengan hiru kausek ez baitute bat besterik osatzen. Baina hori guztiori lehen xedea da. Halere, naturalista guztiek pentsatzen dute badela halabeharrez espezie bakoitzerako azken xede bat, berori zein den jakitea oso zaila izan arren; eta, noski, are [jakiteko] zailagoa unibertso osoaren azken helburua. Aristotelesen hitzetatik badirudi haxe atera daitekeela, beraren ustez espezie horien azken xedea jaiotzearen eta usteltzearen iraupenean datzala, hori noraezekoa baita [beheko] materia horren bilakabidea betierekotzeko, horretatik ezin baitaiteke banako iraunkorrik batere irten, baina, halere, azken buruan, hortik jaio daitekeen guztiak jaio behar du, erran nahi baitut, izan daitekeen gauzarik hoberena, azken xedea betegintzara heltzea da eta.

Argi dago materia horretatik jaio daitekeen gauzarik hoberena gizakia dela, eta bera dela izaki osatu horietarik azkena eta osamaituena. Hortaz, Ilargipeko izaki guztiak berarengatik existitzen direla erranen balitz, hori egia litzateke ikuspuntu honetatik, hots, gauza aldagarrien mugimendua [amaigabeko] jaiotzari begira gertatzen dela onartuz gero, horrela hobekuntza-mailarik gorenera heltzeko. Baina ezingo litzaioke Aristotelesi galdetu, munduaren betierekotasunaz duen doktrina ikusita, zein den gizakiaren existentziaren azken helburua. Izan ere, jaioriko banako bakoitzaren lehen xedea, haren iritziz, bere espeziearen formaren hobekuntza izanez, forma horretatik irtendako egintzak erabat beteginak dituen banako orok jada bere azken xedea osorik eta osamaituki erdietsia dauka. Espeziearen azken helburua, jaiotze eta usteltze segida etengabearen bidez, forma hori iraunaraztea da, eta horrela betiere jaiotza berri bat gerta dadin, bakoitzak hobekuntza handiagoa lortzea du helburu. Beraz, argi dago, betierekotasunaren doktrinaren arabera, ez dagoela unibertso osoaren azken xedea bilatzerik.

Baina badira, geure iritziaren arabera, unibertso osoa, existentziarik gabea izan ondoren sorrarazia izan dela sinesten dugunon bidetik, galdera hori egitea komeni dela pentsatzen dutenak, hau da, unibertso honen guztiaren azken kausa bilatu nahi dutenak. Eta ondorioz, uste dute unibertso osoak ez duela beste xederik giza espeziearen existentzia baino, berorrek Jainkoa adora dezan, eta egina izan den guztia ez dela harentzat besterik egin, eta, halatan, zeruko esferetik berek ez lukete beren mugimendu zirkularra beteko hari baliagarria izateko eta behar duen guztia sortzeko helburuaz besterik. Profeten liburuetako pasarte batzuk, hitzez hitz harturik, iritzi honen aldeko berme sendo gisa ageri dira: «Berak eratu eta egin du [lurra] bizileku izan zedin» (Is 45,18); «Ez al nituen nik eguna eta gaua ezarri eta zeru-lurren legeak xedatu?» (Jr 33,25); «Oihal-etxola bezala zabaldu ditu [zeruak] bertan bizitzeko» (Is 40,22). Hortaz, baldin zeruko esferak gizakiaren mesederako existitzen badira, are arrazoi handiagoaz dirateke animalien eta landareen espezieak ere. Baina, pertsona adimendunei dagokien bezala, iritzi hori aztertuz gero, ontzat hartu beharko da zalantzazkoa dela. Izan ere, uste hori lukeenari galde hau egin lekiok: Azken helburua gizakiaren existentzia denez gero, Sortzaileak gizakia egin al zezakeen aurretiko prestalan horiek gabe

ala berori ezin zitekeen sortua izan horien ondoan besterik? Hori ahal zitekeena zela erantzunez gero, eta Jainkoak, adibidez, gizakia sor zezakeela zerurik izan gabe ere, orduan honela galde egin liteke: orduan, zertarako balio zioten berenez azken helbururik ez zuten gauza horiek guztiok, beroriek gabe ere berdin existi zitekeen zerbaiten mesederako besterik sortuak ez zirenak? Baina, den-dena gizakiarengatik jaioa dela eta gizakiaren azken helburua, jada erran denez, Jainkoa (gorrets bedi!) adoratzea dela onarturik ere, oraindik hau itaun liteke: Zertarako izan behar du Jainkoak adoratua, sorkari guztiek Bera adora eta erarik hoberenean hauteman balezate ere, horregatik bere hobe zintasuna handiagoa izango ez bada, eta Berarengandik landa ezertxo ere existi ez baledi ere, horregatik akatsik batere ezin egotz balekio? Eta horri ihardetsiz gero kontua ez dela Haren hobekuntza, gurea baizik, hobekuntza horretan baitatza gure ondasunik gorena, oraindik beste galdera hau egin liteke: Nolako helburuz existitu behar dugu hobekuntza horrekin? Azken kausaren galdera horrek, hortaz, nahitaez ondorio honetara eramanez gaitu: «Jainkoak horrela nahi ukan duelako», edo «Haren jakinduriak horrela eskatu duelako», eta hori egia da. Izan ere, hor aurkituko duzu Israelgo jakintsuak, beren otoitz-erritualetan, honela mintzo direla: «Zuk gizakia [sorerreraren] hasieratik ohoratu duzu eta zure aurrean jar dadin erabaki duzu. Nork galde diezazuke zergatik egin zenuen? Eta gizakia zintzoa baldin bada ere, hortik zer probetxu dukezu?»²⁷. Beraz, horrekin aldarrikatu dute unibertsoak, Haren nahimen bakarraz landa, ez duela beste azken kausarik. Baina, horrela baldin bada, orduan munduaren berritasunaren sineskerak unibertso hau, beraren kausa eta berorien ondorioei dagokienez, bestela sorrarazia izan zitekeela onartzera behartzen gaituenez gero, hortik absurdo hau aterako litzateke, hots, izaki guztiak, gizakia izan ezik, inolako helbururik gabe existituko liratekeela, begi aurrean ukan den xede bakarra, hau da, gizakia, gainerako izaki horiek gabe existi liteke eta.

Horrexegatik, ene ustez, iritzi egiazko bakarra, erlijio-sineskeren araberakoa eta iritzi espekulatiboekin bat datorrena, honako hau da: Ez da sinetsi behar izaki guztiak gizakiaren mesederako existitzen direla; aitzitik, gainerako izakiak oro zein bere izateko arrazoiak sortuak izan direla, eta ez beste zerbaiten mesederako. Era berean, munduaren sorrera onartzen duen gure iritziaren arabera ere, ezin aurki liteke

izaki espezie guztien azken helburua, guk diogunez, unibertsoaren atal guztiak Jainkoak (gorets bedi!) bere nahimenaz sortuak baitira, eta batzuek beren xedea beren baitan daukatela, beste batzuk helburua bere baitan daukan beste zerbaiten mesederako existitzen direlarik. Eta giza espeziea existi dadin nahi ukan duenez gero, nahi ukan du, halaber, zeruko esferak eta horien argizagiak existitzea, bai eta, era berean, aingeruak ere izan daitezten. Izaki orotan, xedetzat izaki hori bera ukan du, eta gauza baten existentzia aurretik beste gauza bat izan gabe ezinezkoa gertatzen zen aldi guztietan, aitzinetik hori sortzen zuen, esaterako, sentikortasuna, arrazoimena baino lehenagokoa dena. Iritzi hori ere profeten liburuetan adierazi izan da, adibidez: «Dena egin du Yhwh-k berarentzat» (Es 16,4), eta hor izenordaina (berarentzat) osagarriari (dena) dagokioke. Halere, subjektuari balegokio (Yhwh), esangura honakoa litzateke: 'Jainkoaren (gorets bedi!) esentziaren kausagatik, hau da, Haren nahimenaren kausagatik, hori Haren esentzia baita, Tratatu honetan jada azaldu denez²⁸. Erakutsia dugu, halaber, Jainkoaren esentziari (gorets bedi!), halaber, loria deitzen zaiola, pasarte honetan bezala: «Erakustazu, otoi, zeure loria» (Irt 33,18). Horren arabera, «Dena egin du Yhwh-k berarentzat (edo bere esentziaren kausagatik)» pasarteak beste honen antzekoa litzateke: «Nire izena daramaten guztiak, eta neure loriarako neuk sortu, eratu eta egin nituenak» (Is 43,7); erran nahi baita, 'Sorreratik egotzi zaidan guztia neure nahimen soilaren kausaz egin nuen'. «Eratu eta egin nituenak» hitzak azaldu dudanari dagozkio, hau da, izaki batzuen izatea ez dela posible beste zerbaiten existentziaren ondoan ez bada; beraz, erran balu bezala: «Lehenengo gauza hau sorrarazi dut, nahitaez aurretik etorri behar zuena, esaterako, materia, materiakzko izaki ororen aurretik izan beharrekoa; ondoren, aurreko gauza horretan, edo beraren ondoan, xedez existiarazteko nuen guztia egin dut, hor ene nahimen hutsaz landa bestelako arrazoirik izan gaberik».

Gidatuak izan nahi dutenentzako gidari ezin hobea den liburua arakatzen baduzu –eta horrexegatik deritzo תּוֹרָה *Tôrâh*, hots, 'irakaspena'–, hortxe aurkituko duzu, Sorreraren kontakizunaren hasieratik azkeneraino, aipatu dugun ideia hori. Izan ere, hor ez da inola ere aldarrikatzen halako gauza bat beste gauza bati begira egin izan zela, baina erraten da Jainkoak (gorets bedi!) sorraraziriko unibertsoaren zatiek zeinek bere xedearen araberrako existentzia

zeukatela. Horixe da hitz hauen adiera: «Eta egin zuen guztia ona zela ikusi zuen Jainkoak»; ongi baitakizu hitz hauei buruz azaldu duguna: «Eskritura gizakien mintzairaren arabera adierazten da», eta **טוב** *tôb* ('ona') geure asmoaren araberakoa adierazteko hitza da²⁹. Multzoaz hau erraten da: «Eta egin zuzen guztia oso ona zela ikusi zuen Jainkoak» (Has 1,31); sortua zen guztia [bere asmoan zuen] xedearen araberakoa baitzen, hor deus ere akastunik izan gabe³⁰, eta horixe da **מֵעֹד** *me'ôd* (=‘oso, guztiz’) hitzaz adierazten dena. Izan ere, gerta daiteke gauza bat ongi egotea eta une batez gure asmorako baliagarria izatea, baina gero, bere xedea bertan behera gelditzea. Beraz, egin zituen guztiak Sortzailearen asmoaren eta Haren xedearekin guztiz bat zetozeala adierazten zaigu, eta etengabe Berak hasieran pentsatuaren arabera zirautela. Ez zaitzala okerbidera eraman argizagiei buruz erranikoak: «lurrari argi egiteko eta egunaren eta gauaren nagusi izateko» (Has 1,17-18), eta ez ezazu pentsa horrek hau esan nahi duenik: ‘halako zeregina bete zezaten [argizagiek]’³¹; aitzitik, horrekin haien izaera adierazi besterik ez da gura izan, hots, Sortzaileak haiei eman nahi ziena, erran nahi baita, argitsu izatea eta [beheko mundu hau] gobernatzea. Hori dela eta, gizakiaz mintzatuz, honako hau errana da: «Eta menpera itzazue itsasoko arrainak...» (*ibid.* 28. bert.); horrek, ordea, ez du erran gura gizakia horretarako sortua denik, baina Jainkoak (gorets bedi!) ezarri zion izaera adierazi besterik ez du egiten. Eta landareez erraten bada horiek Hark gizakiei eta beste animaliei eman dizkiela (*ibid.* 29 bert.), hori Aristotelesekin eta beste batzuekin ere aldarrikatua da, eta begien bistan da landareak ez zirela sortuak izan animalien probetxurako besterik, beroriekin ezin baitira egon elikatzeke. Baina ez da beste horrenbeste gertatzen argizagiekin, erran nahi baitut, ez direla existitzen gure mesederako, ez eta hortik hobaririk hel dakigun ere, zeren, jada azaldu dugunez, «argi egiteko eta nagusi izateko» hitzek ez baitute adierazten hortik jalgi eta beheko mundu honen gainean hedatzen den baliagarritasuna besterik, gauza batetik bestera etenik gabe iragaten diren mesedeen izaeraz esan dizudanaren arabera. Eta etengabeki heltzen ari den hobari hori, heltzen zaion gauzari buruz kontsideratuz gero, irudi luke gauza hori, mesedearen jasotzailea, bere barruan daukan on eta bikaintasuna ekarri dionaren azken kausa dela. Horrela, edozein hiritarrek pentsa lezake erregearen azken xedea bere etxea gauean lapurretatik jagotea dela, eta hori, neurri bateraino, egia da, haren

etxea gauean babesturik egonez eta mesede hori erregearengandik heltzen zaionez, horrek irudi luke erregearen azken helburua haren etxea zaintzea dela. Zentzu horrexetan azaldu behar dugu testu bakoitza, horren hitzez hitzezko esangurak goi-mailako gauza bat bera baino beheragoko baten probetxutan egina dela adieraz dezanean, horrek erran nahi baitu, soilki, azken gauza hori bestearen izaeraren beharrezko jarraipena dela.

Horretara, unibertso oso honen sorrera Jainkoaren nahimenaz (gorets bedi!) erabakia izan zela sinetsi behar dugu, eta ez da beste inolako kausarik bilatu behar, ez eta bestelako helbururik ere. Jainkoaren existentziaren azken kausa ezin bila daitekeen bezala, haren nahimenaren azken kausa ere ezin aurki daiteke, horren bertutez sortu den eta sortzeko den guztia den bezalakoa da eta. Beraz, ez da uste oker hori eduki behar, hots, zeruko esferak eta aingeruak gure kausaz existitzen direlako. Jada [profetak] jakinarazi digu gure balioa zein den: «Nazioak harentzat suilean ur-tanta dira» (Is 40,15); eta, izan ere, baldin zeure substantzia eta zeruko esferena, argizagiena eta Adimen banatuena kontsideratzen badituzu, egia ezagutuko duzu eta jakinen gizakia (beheko) materia honetatik jaio den izakirik osamaituena eta nobleena dela, baina bere izatea esferenarekin, eta are arrazoi handiagoz, Adimen banatuenarekin konparatuz gero, bera ere deus gutxi dela, errana den bezala: «Bere zerbitzariez ere erabat fidatzen ez bada, aingeruengan ere hutsegiteak aurkitzen baditu, zer ez [du aurkituko] buztinezko etxeetan bizi direnengan, horien oinarria hautsaren gainean izanik?» (Job 4,18-19). Jakin beharra dago pasarte horretan aipatzen diren zerbitzariak ez direla giza leinukoak, ondoren datorren zatiak frogatzen duenez: «zer ez [du aurkituko] buztinezko etxeetan bizi direnengan, horien oinarria hautsaren gainean izanik?». Izan ere, testu horretan aipaturiko zerbitzariak aingeruak dira; eta are berezikiago, pasarte horretan ukituriko aingeru horiek, zalantzarik gabe, zeruko esferak dira. Elifazek berak ideia hori beste mintzaldi batean aldarrikatzen du, era honetara: «Egia da –dio berak–; ez da bere zerbitzariez fidatzen, eta zeruak berak ez dira Haren begietarako aski aratz; hortaz, are gutxiago fidatuko da gizakiarengan [יִשְׂרָאֵל 'isra'el], izaki gaitzesgarri eta ustelduarengan, eta gaiztakeria [אוֹלָה 'awlāh] ura bezala edaten duenarengan» (*ibid.* 15,15-16). Argi gelditzen da, beraz, Haren 'santuak' eta Haren 'zerbitzariak' gauza bera direla, eta horiek

ez direla giza leinukoak; Haren ‘aingeruak’, beste bertset batean ere aipatuak, zeruak direla, eta תחלה *tahālāh* ‘akatsa’ hitza eta ‘ez dira Haren begietarako aski aratz’ perpausa esangura berekoak direla, erran nahi baita, izaki materialak direla. Baina materiariak aratzenaz eta distiratsuenaz eginak balira ere, Adimen banatuekiko, uher, lainotsu eta distira gabeak dira. Eta, aingeruez mintzatuz, esaten bada: «Egia da, ez da bere zerbitzarietz fidatzen», horrek esan nahi du holakoek ez dutela existentzia sendorik, horiek, gure iritziaren arabera, sorraraziak izan direlako, eta, era berean, munduaren betierekotasuna onartzen dutenen ustez, kausa baten ondorioak dira, eta unibertsoan duten zereginak ez du sendotasunik ez finkotasunik ere Jainkoarekiko (gorets bedi!), Berau baita, zentzu absolutuan, beharrezko izakia. Ondoko hitzok «are gutxiago fidatuko da gizakiarengan, gaitzesgarri, usteldua», beste hitz hauen parekoak dira «zer ez [du aurkituko] buztinezko etxeetan bizi direnengan» erran balu bezala: «are gutxiago fidatuko da izaki gaitzesgarri eta usteldu horretaz, gizakiaz [שׁי’ ’iš]», gaiztakeriaz kutsatua, beretariko guztien artean hedatua, hau da, gabeziarekin elkartua. Eta ‘*awlāh* hitzak ‘okerkeria’ edo ‘gaiztakeria’ erran nahi du, pasarte honetan bezala: «Zuzentasunaren herrian gaiztakeriaz ari da» (Is 26,10). Hemen ’iš berbak, אדם *ādām* bezala, ‘gizona’ adierazten du, inoiz ’iš hitz horrekin ‘gizakia’ ere izendatzen delako; esaterako: *make* ’iš «Gizaki bat (*virum*) hil eragiteraino jo dezana» (Irt 21,10).

Hona hemen bada, sinetsi behar dena. Izan ere, gizakiak bere burua ezagutzen duen neurrian, ez da berez okertzen, eta izaki bakoitza bera den bezalaxe ulertzen du, lasaitu egiten da, eta haren pentsamenduak ez dira nahasten gauzei berez ez daukaten helbururik aurkitu nahian, edo, oro har, beste helbururik ez daukan gauzarako, Jainkoaren nahipeko, edo horrela deitzea nahiago baduzu, Jainkoaren jakituriaren meneko existentziaz landa, bestelako xederik topatzen ahaleginduz.

י״ HAMALAU GARREN KAPITULUA

[Lurraren eta gizakiaren txikitasuna esferen eta argizagien multzoan]

Era berean, gizakiak kontsideratu behar duen beste gauza bat, berberak zenbat balio duen konturatu eta bide okerretik ez abiatzeko,

esferen eta argizagien neurriei buruz jadanik azaldua da, eta horietatik urruntzen gaituzten luze-labur ikaragarriak ere bai. Izan ere, luze-labur guztiak Lurraren hemidiametroarekiko neurtzeko era erakutsi denez gero, hortik heldu da, Lurraren zirkunferentziaren neurria, eta, ondorioz, haren hemidiametroarena, jakinak izanda, distantzia guztiak, halaber, jakinak izanen direla. Beraz, frogaturik gelditu da Lurraren erdigunetik Saturnoren esferaren gailurraren arteko distantzia zortzi mila eta zazpiehun urteren inguruko bidea dela, bakoitzak hirurehun eta hirurogeita bosna egun dituela, ibiltegun bakoitzeko, gure legearen arabera berrogeina milia zenbatuz, horietako bakoitzak ohiko bina mila ukondo izanik. Kotsidera ezazu, bada, distantzia handi eta ikaragarri hori; horretaz errana du Eskriturak: «Ez da, bada, Jainkoa zeruetako gorenean? Eta begira ezazu izarren erpina zeinen gorarik dagoen!» (Job 22,12). Horrek hauxe erran nahi du: Ez al dakusazu zeruaren goratasunak frogatzen duela zeinen urrun gauden Jainkotasuna [nolakoa den] bururatzetik? Izan ere, gorputz banatu batetik hain urruntasun handitan bagaude, halako moldez non haren substantzia eta beraren eragin gehienak ezezagun gertatzen zaizkigun, zer ez da izanen horien Egilea hautemateaz, berori gorputz gabea izanik? Frogatu den urruntasun handi hori gutxienezkoa besterik ez da, zeren Lurraren erdigunetik eta izar finkoen ahurtasunaren arteko tartea ezin baitaiteke absolutuki txikiagoa izan, eta litekeena da are zenbait aldiz handiagoa gertatzea. Izan ere, esferen gorputzen lodiera ez da oraindik frogen bidez zehaztua izan bere gutxienekoan besterik, *Distantzien* tratatuen emaitzetatik ateratzen den bezala, eta horrela ezin erabaki daiteke zehaztasunez esferen arteko gorputzen lodiera, טבִּיט *Ṭabīt*-en iritziz, arrazoimenak izar-bikote bakoitzaren artean onarrarazten diguna, gorputz horiek ez baitute tartean [erreferentziazko] izarrik, horien bitartez froga hori egin ahal izateko. Izar finkoen esferari dagokionez, horien lodierak gutxienez lau urteko ibilbidea eratuko luke, izar horietako batzuen neurritik atera daitekeen ondorioaren arabera, horietako bakoitzaren bolumena Lur globoarena baino laurogeita hamar aldiz handiagoa, eta are gehiago ere, izan daitekeelako. Baina litekeena da esfera horren lodiera are handiagoa gertatzea. Eta bederatzigarren esferari dagokionez, hots, [esfera] guztien eguneko mugimendua eragiten duenari, ez da deus jakiten horren neurriaz; izan ere, izarrik ez duenez, ezinezkoa gertatzen zaigu horren handiera jakitea.

Beraz, kontsideratzekoak dira zein handi eta neurgaitzak diren zeruko izaki gorpuzdun horien dimentsioak, bai eta zeinen ugariak diren ere! Hortaz, Lur osoa, izar [finko]en esferarekiko, puntutxo ezdeus bat besterik ez bada, nolakoa izanen da, bada, giza espeziearen tokia sorrarazitako gauza guztien multzoan? Eta, hortaz, nola pentsa lezake gutariko batek horiek guztiok beraren mesederako eta beragatik existitzen direla, eta beraren lanabes izan behar dutela? Eta hori gorputzen arteko konparazio bat besterik ez delarik, zer izango litzateke Adimen banatuen izaera kontsideratzen baduzu?

Halere, horri buruz, filosofoen iritziaren aurka honako argudio hau egin liteke: esfera horien azken xedea, adibidez, gizaki bat edo horien talde bat gobernatzea dela uste bagenu, hori, espekulazio filosofikoaren arabera, absurdoa litzateke; baina horien azken helburua giza leinua gobernatzea dela pentsatzen dugunez gero, ez dago inolako absurdotasunik [uste izateko] bana-banako gorputz handi horiek bestelako espezieen banakoak existiarazteko ordenaturik daudela, horien kopurua, filosofoen doktrinaren arabera, infinitua izanez. Hau, garau baten pisuko jostorraz txiki bat fabrikatzeko, langile batek egiten dituen burdinazko tresnekin, kintal banakoekin, konpara liteke. Hori, orratz bakar bat fabrikatzeko balitz, zalantzarik ez, nolabaiteko ikuspuntutik, emaitza txarra litzateke, zentzu absolutuan hala izan ez arren; baina kontsideratzen baldin bada, pisu handiko tresna horien bidez fabrikatzen dituen orratz ugariak kintal askotako pisua daukatela, tresna horiek egitea, azken buruan, zuhurki jokatzeko eta emaitza oneko egintza da. Era berean, esferen azken xedea jaiotzea eta usteltzea iraunaraztea da, eta berorien azken helburua, jada erran den bezala, giza espeziearen existentzia da. Ideia honen alde Bibliako testuak ditugu eta tradizioak ere bai. Halere, filosofoak objekzio horri erantzuteko objekzio hau egin dezake: Baldin, batetik, zeruko gorputzen eta, bestetik, jaiotze- eta usteltzepeko espezieetako banakoen arteko ezberdintasuna handitasunean eta txikitasunean besterik ez baletza, objekzioa oinarriturik legoke; baina batzuk besteetatik substantziaren nobleziagatik bereizten direnez, guztiz absurdoa litzateke nobleena behearen eta zitalenaren existentziarako tresna gertatzen dela [uste izatea].

Beraz, laburbilduz, objekzio honek laguntza eskain diezaioke munduaren berritasunaz dugun sineskerari, eta horixe izan da, hain zuzen, kapitulu honetan erabili dudana helburu nagusia. Bestetik, beti

aditu izan dut astronomiaz pixka bat arduratzen direnek gehiegikeria iritzi diotela doktoreek (bedeinka bedi haien oroitzapena!) distantziez errandakoari; izan ere, berauek argi diote esfera bakoitzaren lodierak bostehun urteko ibilbidea eratzen duela, eta esfera biren artean badela, halaber, bostehun urteko bidea³². Hortaz, zazpi esfera³³ direla kontuan harturik, zazpigarren esferaren –haren alde ganbilaz ari naiz– eta Lurraren erdigunearen arteko distantziak zazpi mila urteko bidea eratuko du. Hori entzuten duen edozeinek pentsa lezake hitz horietan gehiegikeria handia datzala, eta distantzia horrek ezin ukan dezakeela halako neurririk. Baina urruntasun horrekiko luze-laburrez egin izan den frogaketaz onartu beharko duzu Lurraren erdigunearen eta Saturnoren esferaren –hau zazpigarrena izanik– behealdearen arteko distantziak zazpi mila eta hogeita lau urte inguruko bidea eratzen duela. Gorago aipatu dugun distantziaz den bezainbatean, zortzi mila eta zazpiehun urteko bidea eratzen duena zortzigarren esferaren ahurtasuneraino heltzen da. Eta doktoreek esfera bikote bakoitzaren artean badela halako distantzia erraten dutenean, hori esferen artean diren gorputzen loditasunaz ulertu beharra dago, eta ez hor hutsarte bat denik.

Ez duzu eskatu behar haiek astronomiaz erran duten guztiak errealtatearekin bat etorri behar duenik, garai haietako zientzia matematikoak osamaiturik ez zeudelako, eta gauza horiez hitz egitean, ez zuten hori egiten aurretik profetengandik zetorren tradizioen bat jasoa zutelako, baina haiek gai horietan orduko jakintsuak zirelako, edota beren garaiko jakitunei halaxe entzunak zizkietelako. Hori dela eta, haiengan egiaren arabeko hitzak aurkitzen baditugu, ez dut erranen egiazkoak ez direnik ez eta zoriz erranak direnik ere; aitzitik, izaera nobleko eta beti zintzo izan nahi duen gizakiak, ahal den neurrian bederen, besteren hitzak errealtate frogatuaren arabera ulertarazi behar ditu.

𐤇 HAMABOSGARREN KAPITULUA

[Ezinezkoaren izaeraz. Jainkoarekin duen harremana]

Ezinezkoak izaera egonkorra dauka, beti bat dirauena, eta ez da eragile batek egina, eta ezin alda daiteke inola ere; hori dela eta,

Jainkoak berak ere ezingo luke horren gainean inolako ahalmenik ukan. Horretan ez da pentsalarien artean inolako eztabaidarik, eta hori ez dakiten bakarrak nozio ulergarriak aditzeko gai ez direnak besterik ez dira. Eta filosofoen artean batzuetan bateratasunik ez da, baina hori gauza imajinagarri batzuei buruz besterik ez da gertatzen, horiek, pentsalari batzuen ustez, ezinezkoaren kategoriakoak direlako, Jainkoak berak ezin alda ditzakeenak, baina, beste batzuen iritziz horiek daitekeenaren eremukoak lirатеke, eta Jainkoak hala nahi izanez gero, bere ahalguztiz beroriek ere existiaraz litzake. Horrela, esaterako, une berean eta subjektu berean aurkakoak bateratzea, nagusien aldaketa, erran nahi baita, substantzia akzidente eta akzidentea substantzia bihurtzea, edo gorputzezko substantzia bat akzidenterik gabe existitzea, hori guztia, pentsatzaile guztien iritziz, ezinezkoaren kategorian sartzen da. Era berean, Jainkoak ezin diezaioke bera bezalako bati existentziarik eman, edo bere burua existentzia gabe bihurtu, edo bera gorpuzdun bilakatu, edo aldatu, eta ezin lekiok holakorik egiteko ahalmena onar. Eta [Jainkoak] akzidente bat, bakarrik eta substantziarik gabea, sor ote lezakeen galderari dagokionez, pentsatzaile sekta batek, *mutazilik*, gertagarri iritzi diote, baina beste batzuek ezinezkotzat jo zuten. Egia da, baina, substraturik gabeko akzidente baten existentzia onartzen dutenak ez direla horra espekulazio hutsez eramana izan, baina halako erlijio-doktrina batzuk, espekulazioak bortizki gaitzetsiak, gordetzearren, eta horregatik hipotesi horretaz baliatu beharra ukan zuten. Era berean, aurretiko materiaren batez baliatu gabe, gauza gorpuzdun bat ekoiztea, gure ustez, daitekeenaren kategorian sartzen da; baina filosofoen iritziz³⁴ hori ezinezkoa da. Halaber, filosofoek erranen dute ezinezkoaren arlokoa dela diagonal alde baten berdina daukan lauki bat ekoiztea, edo lau angelu zuzen lauz inguraturiko angelu solido bat, eta antzeko beste gauza batzuk egitea. Baina matematikaren berri ez duten eta gauza hauetaz, ideia bururatu gabe, [izendatzeko] hitz hutsak besterik ez dakiten askok, horiek egingarri direla pentsatuko dute.

Jakin ahal banu³⁵ ba ote den hemen mundu guztiaren gogoko ate ireki bat, halako moldez non bakoitzak sostenga lezakeen burura letorkiokeen edozein gauza posible dela, eta beste batek, aldiz, gauza hori, bere izaeratik beragatik, ezinezkoa dela! Edo bestela, ba al da ezer ate hori ixten eta barrura sartzen galarazten duenik, eta halatan

gizakia gauza hori bere izaeragatik ezinezkoa dela esatera behartzen? Eta hori azertu beharreko froga-harria zein litzateke: irudimena ala adimena? Eta nola bereiz daiteke irudimeneko eta adimeneko gauzen artean? Izan ere, gizakia maiz beste pertsona batekin edo bere buruarekin ez dator bat posible iruditzen zaion gauza batez eta bere izaeragatik beragatik posible deritzonaz, baina erantzun lekioket irudimena dela, eta ez adimena, gauza hori posible izatea irudiarazten diona. Hortaz, ba al da ezer irudimenaren eta adimenaren artean irizpidetzat har daitekeenik? Eta zerbait hori batetik eta bestetik landa dago, ala, bestela, adimenak berak bereiziarazten digu ezagunaren eta irudituaeren artean? Honek guztionek azterketa sakonagoa merezi luke, baina ez da hori gure kapituluaren helburua.

Halere, argi dago, iritzi eta sistema guztien arabera, badirela gauza ezinezkoak, existentzia ezin onar dakiekeenak, eta horiei buruz ezin zaio Jainkoari ere botererik onartu; baina Jainkoak ezin alda ditzakeela egia izanik ere, ez da hor ikusi behar ez ahultasunik ez ahalik eza, eta, beraz, berenez beharrezkoak dira eta ez dira eragile baten emaitza. Era berean, garbi dago hor ezin izan daitekeela desadostasunik izan, kategoria bietako batean jar litezkeen gauzetan ez bada, hots, ezinezkoaren ala daitekeenaren kategorian. Ongi jabetu beharra duzu honetaz.

Მ HAMASEIGARREN KAPITULUA

[Filosofoen jarrera Jainkoaren orojakintzari buruz]

Jainkoak (gorets bedi!) Bera ez den guztiaz eduki dezakeen jakintza dela eta, filosofoek heresia handia egin dute, eta oker horretatik ezin irten daitezke ez horiek ez eta berorien iritzia berenganatu dutenak ere. Heresia horretara bultzatu dituzten zalantzak ulertarazi nahi dizkizut, bai eta horiei buruz gure erlijioak daukan doktrina ere, guk Jainkoaren orojakintza dela eta, haiek darabiltzaten uste oker eta absurdoei kontrajartzen dieguna. Iritzi horretara jaitsarazi eta herrestan eraman dituen, lehenengo eta behin, lehenbiziko ikuspegiari giza bizimoduan nabari uste den ordenamendurik eza da; izan ere, gizaki bertutetsu batzuek zoritxarrez eta minez beteriko bizitza daramaten bitartean, badira, aldiz, gizagaizto batzuk bizimodu zoriontsu eta atseginez gozatzen dutenak. Horrek bultzatu zituen orain entzunen

duzun dilema planteatzera. Haiek diotenez, bi gauza hauetako bat onartu behar da: edo Jainkoak ez dakiela deus bana-banako zirkunstantzia horiez eta ez dituela hautematen, edo, bestela, hautematen dituela eta baduela horien berri. Hor dilema hertsia datza. Baldin, ondoren, balerrate Hark hautematen eta ezagutzen dituela, hiru kasuotarik bat onartu beharko litzateke nahitaez: edo Hark arautzen dituela eta hor ordenarik onena, osamaituena eta beteginena ezarri duela; edo, ezin arau ditzakeela eta hor ezin duela deus egin; edo, azkenik, horiek ongi ezagutu eta hor araua eta ordena ona sar ditzakeen arren, halere, ez dela horretaz arduratzen, beroriez axolatu ez eta gaitzetsi egiten dituelako, edota haiez jeloskor sentitzen delako. Horretara, badakusagu gizakien artean badela besteri ongia egin diezaiokeenik, eta badakiela beste horrek bere ongi-egina jasotzeko duen premia ere; baina halere, izaera gaiztoagatik, grinagatik edo bekaizkeriagatik, mesede horregatik jeloskor, ez dio ematen. Begien bistan da kasu horietako bat onartu beharra dagoela. Izan ere, gauza baten berri duen gizakia, edo ezagutzen duen gauza horren ibilbideaz arduratzen da, edo, bestela, horretaz arduragabetzen da, etxean, adibidez, katuen jardueraz, edo are izaki apalagoez axolagabetzen den bezala; baina arazo batez arduratzen dena bera ere gerta daiteke inoiz hura gobernatzeko gai ez sentitzea, hori egin nahi izan arren. Kasu ezberdinok banan-banan aipatu ondoren, azkenean, kategorikoki onartu zuten gauza baten ezagutza duenari buruz ontzat eman daitezkeen hiru hipotesietatik bi ezinezkoak direla Jainkoarenagan (gorets bedi!), hau da: Bera ahalmenik gabea izatea, edo den bezalako guztiahalduna izan arren, (ezagutzen dituen gauzez) ez arduratzea; hori eginez gero, Harengan bi akats onartzea litzatekeelako, hau da, bizioa edo ezintasuna. Eta urrun dira Harengandik bata eta bestea! Aipaturiko kasu guztiotatik, beraz, [Jainkoari buruz] bi besterik ez dira gelditzen: edo ez daki absolutuki ezer gizakion gorabeheretz, edota badakizki eta erarik hoberenean arautzen ditu. Baina guk horiek ordenarik, erregularik eta behar den jarraipenik gabe ikusten ditugunez, ondorioz, hortik ateratzen dugu, dena delako arrazoiarengatik, ez duela inola ere zirkunstantzia horien berri. Horra hor, beraz, [filosofo horiek] hasieratik heresia handi horretara erorarazi zituen. Haien hipotesietatik laburbildu dizudan guztia, haien errakuntza zertan oinarritzen den nabarmenduz, Alexandro Afrodisiarraren tratatuan aurkituko duzu, *Aurreikusmenaz* izenekoan.

Harritu zaitu ikusteak nola erori diren [filosofoak] berek saihestu nahi zutena baino zerbait okerragoan, eta nola ez zuten berberek jakin guri etengabeki irakasten eta azaltzen saiatzen zirena. Eta saihestu gura zutena baino zerbait okerragoan eroriak direla erran dut, baina hori izan da Jainkoari [giza arazoez] arduragabetasuna eta utzikeria ez egozteagatik, Hark gauza horiek ez dakizkiela eta beheko mundu honetan gertatzen dena Harentzat misterio hautemanezina dela aldarrikatu dutelako. Horren ondoren, erran badut haiek gure arreta etengabeki erakarri nahi zuten gaia bera ere ez zekitela, hori izakia gizakien ikuspuntutik kontsideratu dutelako izan da, giza banakoak baitira beren buruei gaitzak ekartzen dizkieten edo materiaren noraezko izaeratik hartzen dituztenak, filosofo horiek etengabeki esaten eta irakasten dutenez. Horri buruz jakin behar zena azaldua dugu jada³⁶. Hastapen on guztiak birrintzen dituen eta egiazko teoria oro desitxuratzen duen oinarri horren gainean jarri eta gero, saiatu izan dira horren absurdotasuna saihesten, Jainkoari bana-banako gauza horiek jakitea, arrazoi askorengatik, ezinezkoa gertatzen zaiola argudiatuz. Hasteko, gauza partikularrak soilik zentzuen bidez, eta ez adimenaz, hautemanak omen dira, baina Jainkoak ez du ez du zentzuei esker hautematen. Ondoren, gauza partzialak kopuruz infinituak dira, eta jakintza, berez, besarkatzea da; baina jakintzak ezin dezake infinitua besarka. Azkenik, denboran gertatzen diren gauzek, zalantzarik gabe partzialek, Jainkoarengan halako aldaketa eragin lezakete, etengabeko jakintza-aldaketa eta berriztapena lekarkioketelako. Torah-ri eusten diogun sinlesleok onartzen dugunez, ordea, Jainkoak gauza horiek izan baino lehenagotik dakizki, eta horregatik absurdo bikoitza aurpegiratzen digute: lehenengo eta behin, jakintzak, objektutzat, ez-izate hutsa ukan ahal izatea; bigarrenik, ahalmenean dagoena jakitea eta egitez dagoena jakitea gauza bakar eta berbera dela. Haien iritziek, baina, elkarren aurka jo dute: batzuek diote Jainkoak espezieen berri besterik ez dakiela, eta besteek, aldiz, ez dakiela deus ere bere esentziatik kanpo, eta, halatan, azken uste horren arabera, Harengan ez legoke askotariko jakiterik. Eta izan dira, azkenik, filosofo batzuk, gure antzera, Jainkoak (gorets bedi!) gauza oro dakizkiela, sinesten zutenak, eta ez zaiola ezertxo ere ezkutatzen. Horiek dira Aristoteles baino lehenagoko gizon handi batzuk, Alexandrok bere tratatuan ere aipatuak; baina berak haien iritzia gaitzesten du, erranez [uste] horren aurka dagoen gauza nagusia haxe dela, badakuskigula gizaki

bertutetsuak gaitzek joak, eta gizon gaiztoak era guztietako zorionez aseak.

Laburbildurik, argi dago [filosofo] guztiek gizakien zirkuntantziak halako moldez ordenaturik aurkitu balituzte, non hor gizon arruntek berek ere horien ordena ona estima lezaketen, ez ziratekeen abiatuko espekulazio horietan, ez eta batzuk besteak errefusatzeko. Baina espekulazio honi hasiera eman diona gizaki bertutetsuen eta gaiztoen kondizioak kontsideratzea izan zen, haien ustez ondo arauturik ez zeudenak, gure artean ezjakinek zioten bezala: «Betierekoaren bidea ez da zuzena» (Ez 33,17).

Behin [Jainkoaren] orojakintzaren eta Aurreikusmenaren teoriak elkarrekin loturik daudela erakutsi ondoan, pentsalariek Aurreikusmenaz dituzten iritziak azalduko ditut, horren ondoren, Jainkoak gauza partikularrez ukan lezakeen ezagutzaren aurka aipatu diren zailtasunak argitzen saiatzeko.

ἥ ἡΜΑΖΑΖΠΙΓΑΡΡΕΝ ΚΑΠΙΤΟΥΛΙΑ

[Jainkoaren aurreikusmenari buruzko bost iritzi]

Gizakiek Aurreikusmenaz dituzten iritziak guztira bost dira. Horiek guztiok antzinakoak dira; erran nahi dut horiek profeten garaian entzuten diren iritziak direla, egiazko Legea, iluntasun guztiak argitzen dituen, agertu zenetik.

I.- *Lehen iritzia*: Unibertso oso honetan den guztiaz arduratzen den Aurreikusmenik ez dagoela dioena da; hor den guztia, bai zerua eta bai gainerako gauzak ere, zoriz, halako antolaeren arabera, sortua dela, eta hor ez dela ezein ere izakirik deus arautzen, gobernatzen edo jagoten duenik. Horrelakoa da Epikuroren iritzia ere, atomoei atxikia, horiek elkarrekin zoriaren arabera nahasten direlako ustean, eta hortik sortzen dena ere, halaber, zoriaren emaitza dela pentsatuz. Israelgo sinesgabeak berak ere aburu horretakoak izan dira, eta horiez hauxe errana da: «Yhwh ukatu dute, eta [halakorik] ez dela erran dute» (Jr 5,12). Aristotelesek iritzi hori ezin onartuzkoa dela frogatu zuen, gauzen existentzia ezin daitekeela zoriari esker gerta, eta, aitzitik, badela izaki bat horiek ordenatzen eta gobernatzen dituen. Lehenago ere gai hori ukitua dugu jada³⁷.

II.- *Bigarren iritzia*: Horri eusten diotenen arabera, zenbait gauzatarako, halako Aurreikusmena nabari da, eta horiek gidatzen eta ordenatzen dituen izaki baten gobernupean daude, baina beste gauza batzuk zoriaz gertatzen dira. Hori da Aristotelesen ustea, eta horrek Aurreikusmenaz pentsatzen duena hemen laburbildurik azaltzera noakizu. Uste du Jainkoak bere Aurreikusmena (gorets bedi!) esferen eta beroriek barnean dauzkaten gauza guztien gainean hedarazten duela, eta horregatik beren bana-banako gorputzek [argizagiek] beti diren bezalakoak dirautela³⁸. Alexandrok dio Aristotelesen iritziz Jainkoaren Aurreikusmena Ilargiaren esferan gelditzen dela, eta hori munduaren betierekotasunaren funtsezko doktrinarekin lotzen den abarra da. Izan ere, berak uste du Aurreikusmena izakien berezko izaerari dagokiola; beraz, zeruko esferak eta beroriek barnean dauzkaten gorputzak iraunkorrak izanik, Aurreikusmenaren ekintza, horiekiko, beroriek egoera horretan beti aldaezinik irautea da. Baina izaki horiek beste izaki batzuei existentzia ematen dieten bezala –eta hor horien espezieak bai, baina ez banakoak³⁹, iraunkorki existitzen dira– era berean, bada Aurreikusmen horri darion jariapen bat, espezieak kontserbatu eta iraunarazteko, banakoen betiraunkortasuna ezinezkoa izan arren. Halere, espezie bakoitzeko banakoak ez daude kondenaturik erabateko abandonura; aitzitik, [Ilargipeko] materia hori hazkuntzaren forma hartzeko bezain aratza gertatzen denetik, aldi berean, bera halako denbora batez kontserbatzen duten indarrez horniturik dago, eta komeni zaiona berarenagana erakarri eta onuragarri ez duena bere aldetik egotzi egiten du. Eta are aratzagoa baldin bada, sentimena jasotzeko moduan, orduan bera kontserbatzen eta gordetzen duten beste indar batzuek horniturik dago, eta beste gaitasun batez ere bai, gogokoa duenera joateko eta gaitzesten duenetik ihes egiteko mugimendua ematen diona; gainera, banako bakoitza espeziearen premien arabera horniturik dago. Azkenik, are araztasun handiagoa badauka, *Adimenaren* forma hartzeko heinean, orduan beste ahalmen batez horniturik egonen da, eta horren bidez gizaki bakoitzak, bere hobekuntza-mailaren arabera, gobernatzen, pentsatzen eta, banakoaren iraupena luzarazteko eta espeziea kontserbatzeko balio ukan dezakeenaz, gogoeta egiten du. Espezie bateko kide guztiei gertatzen zaizkien gainerako mugimenduei dagokienez, holakoak, Aristotelesen ustez, zoriaren arabera gertatzen dira, eta ez gobernatzen eta agintzen duen Izaki baten obra. Horretara,

adibidez, indar handia edo apalagoa daukan haizeak jotzen badu, zalantzarik gabe halako zuhaitzaren hostoak eroraziko ditu, halako beste baten abarrak hautsi, horma baten harriak erautsi, halako landarea hautsez estaliko, bera ezereztu arte, eta halako urei eraginen die eta haren gaineko ontzia urperatu eta bidaiari guztiak, edo, parte bat bederen, bertan itoko. Haren ustez [Aristoteleseaz ari da] ez da inolako ezberdintasunik hostoaren edo harriaren erorkeraren eta ontziaren barruan zeuden gizon bikain eta prestuen urperatzearen artean. Era berean, ez du ezberdintasunik egiten haien gainean bere gorotza eginez inurri saldo bat hilarazten duen idi baten eta, oinarriak arrakalatzen zaizkiolako, lurrera erautsi eta haren barruan otoitz egiten ari diren guztien heriotza dakarren eraikin baten artean. Ez dago alde handirik, haren iritziz, sagu batekin topo egin eta bera irensten duen katuaren, eulia jaten duen armiarmaren eta profeta bat aurkitu eta bera zatikatzen duen lehoi gosetiaren artean⁴⁰. Hitz gutxitan, hona hemen haren ustearen mamia: Bere jardueran, jarraitasunez, etenik gabe eta bere ibilbidean inolako aldaketarik gabe ikusten zuen guztia, zeruko esferen kondizioen antzera edo halako erregelari, salbuespenez ez bada, beti darraionaren gisa, gauza fisikoetan gertatzen den bezala, [Aristotelesek] halako erregimen bati egozten zion, hau da, Jainkoaren Aurreikusmenak aldean beti laguntzen ziola; baina berak erregeletatik hastandurik eta nolabaiteko ordenarik gabe ikusten zuen guztia, hala nola, esaterako, landare, animalia zein giza espezie bakoitzaren zirkunstantziak, hark zioen zoriaren ondorioa zela eta ez ordenamendu batena, hau da, Jainkoaren Aurreikusmenak ez zuela hor laguntzen. Are gehiago, kondizio horiek Aurreikusmenaren pekoak izatea ere ezinezkotzat jotzen zuen, hark munduaren betierekotasunaz zerabilen pentsaerari atxikirik, horren arabera, baden guztia den ez bezalakoa izatea ezinezkotzat iritziz. Gure artean ere urte hori onartzen zuten heretiko batzuk izan dira, eta horiexek dira hau erran zutenak: «Yhwh-k Lurretik urrundu da» (Ez 9,9).

III.- *Hirugarren iritzia*: Bigarrenaren aurkakoa da. Hori da unibertsoan ez dagoela inondik ere ezer uste dutenen iritzia, ez xehetasunetan ez eta halabeharrez heltzen den guztian ere, aitzitik, guzti-guztia borondate baten, asmo baten eta erregimen baten ondorioa dela. Halere, argi dago, gauza bat, gobernatua izateko, ezaguna izan behar dela. Hori da 'aşari-en sekta musulmanaren doktrina; eta iritzi

horretatik absurdo handiak heldu dira, horiek onartzen dituzten jarraitzaileen gainean pisu handia dutenak. Izan ere, holakoak Aristotelesekin bat datozen, berorrek hosto baten erorkeraren eta gizaki baten heriotzaren artean berdintasuna baitakusa: eta halaxe dela diote; halere, haizeak ez du zori hutsez putz egiten, aitzitik, Jainkoa izan da hura mugiarazi duena. Eta ez da haizea hostoak erorarazi dituen; baina hosto bakoitza Jainkoaren iritzi eta dekretuaren ondorioz erori da, eta Bera izan da une horretan eta leku horretara erorarazi duena, eta halatan haren erortze-denbora ezin aurrera ez atzera zitekeen, eta ez zegoen beste ezein tokitan erortzerik, hori guztiori betierekotasun osotik halaxe erabakirik zegoelako: Iritzi horren arabera, beharturik egon dira animalien mugimendu zein geldialdi oro aurretik xedaturik dagoela onartzera, eta gizakiak ez duela inondik ere boteretik gauza bat egiteko edo ez egiteko. Era berean, iritzi honetatik segitzen da horrelako gauzetan posibletasunaren kontzeptua desagertu egiten dela, eta horiek guztiak edo beharrezkoak edo ezinezkoak direla; eta, izan ere, hori onartzera behartuak izan dira, eta erran dute guk posible deitzen duguna, hala nola Zayd zutik dagoela eta Amr iristen ari dela, guri gizakioi dagokigunez besterik ez dela posible baina Jainkoari dagokionez (gorets bedi!), ez dagoela ezer absolutuki posiblea denik, eta guztia *beharrezkoa* edo ezinezkoa dela. Iritzi honetatik segitzen da, halaber, lege erlijiosoek ez dutela baliorik, zeren gizakiak, zeinentzat lege erlijioso guztiak eginak izan diren, ez baitauka inondik ere obratzeko ahalmenik, ez manatu zaiona betetzeko, ez eta galarazi zaiona ez egiteko ere. Sekta horretako jendeek nahiko luketenez, Jainkoak (gorets bedi!) atsegin ukan zuen [profetak] bidaltzea, agintzea, galaraztea, mehatxatzea, esperantzak ematea eta beldurra sartzea, gure gogara aritzeko inolako ahalmenik ukan ez arren; hortaz, ezinezko gauzak egitera behar gaitzake, eta litekeena da, Haren agindua bete arren, gu zigortzea, edota, Hari desobediturik ere, sarituak gertatzea. Azkenean, iritzi honetatik ateratzen da Jainkoaren egintzek (gorets bedi!) ez dutela azken helbururik. Gauza absurdo hauen guztien zama pisua jasaten dute iritzi horretan egoteagatik, eta honi eusterraino heltzen dira: pertsona bat, jaiotzetik itsua edo legenarduna, ikusten badugu, hori merezi izateko aurretik inolako bekaturik ezin egotz diezaiokeguna, hau erran behar dugu: «Jainkoak horrela nahi ukan du». Eta, gizaki bat bertutetsua eta erlijiora emana torturapean hiltzen dela baldin badakusagu, halaber, erran behar dugu: «Jainkoak

horrela nahi ukan du», eta ez dago horretan injustiziarik batere, haien ustez zilegi baitu Jainkoak bekaturik egin ez duenari gaztigu ematea eta bekatariari ongia egitea. Jakinak dira gauza hauen gainean horiek darabiltzaten arrazoiketak.

IV.- *Laugarren iritzia*: Gizakiak bere gogara jarduteko ahala duela uste dutenen ustea da; eta horregatik, haien iritziz, Legeak aipatzen dituen aginduak eta galarazpenak, sariak eta zigorrak, guztiak ongi ezarririk daude. Jainkoaren egintzak oro jakinduria batetik datozela sinesten dute, ezin egotz dakiokeela injustiziarik eta ongi diharduen gizakiari ez diola gaztigurik ematen. *Mutaziliak* ere iritzi horri darraizkio, nahiz eta, horien aburuz, gizakiak jarduteko duen gaitasuna absolutua ez izan. Era berean, onartzen dute Jainkoak (gorets bedi!), hosto horren erorkeraren eta inurri horren mugimenduaren berri baduela eta Aurreikusmena izaki guztien gainetik hedatzen dela. Iritzi horrek ere absurdoak eta kontraesanak dauzka. Absurdoari doakionez, hona hemen: Gizaki bat jaiotzetik gaixorik badago, oraindik bekaturik egin ez arren, erraten dute hori Jainkoaren jakinduriaren ondorioa dela, eta banako horrentzat hobe dela horrelakoa izatea gorputzez behar bezain osasuntsua izatea baino. Ez dakigu horrelako onura hori zertan datzan, nahiz eta heldua izan, ez bera zigortzeko, mesedea egiteko baizik. Berdintsuki erantzuten dute gizaki bertutetsua hiltzen denean ere: hori dela beste munduan haren saria are handiagoa izan dadin. Eta urrunago ere joanak dira: galdetzen zaienean ea zergatik Jainkoa gizakiarekiko zuzena den, eta beste sorkari batzuekin ez, eta zein bekaturengatik animalia honi burua moztu zaion, erantzun absurdo honetaz baliatzen dira, hots, hori harentzat [animaliarentzat] hobe dela, horrela Jainkoak beste bizitzan saria eman diezaion. Bai –diote–, hil izan diren arkakusoez eta zorriek berek ere horregatik Jainkoaren eskutik ordainez sariren bat jaso behar dute; eta, era berean, sagu errugabe hau, katu edo gabirai batek irentsia bada, Jainkoaren jakinduria izan da –berek diotenez–, hori horrela gerta zedin eskatu duena, eta Jainkoak, gertatu zaionagatik, beste bizitzan saritu eginen du.

Ene aburuz, Aurreikusmenari buruzko hiru iritzi horien aldekoengatik ez da gaizki erran behar, horietako bakoitza premia larri banaz eramana izan baita daukan iritzi horretara. Aristotelesek, izakiaren izaera kontuan harturik, nabarmena dirudienari eutsi

zion. *'Ašariek* baztertu nahi ukan dute Jainkoari (gorets bedi!) edozein gauzatan ezjakina dela egoztea, ez baita egokia Hark halako xehetasuna badakiela esatea eta, aldiz, ez duela bestelako baten berri. Hortaz, aipaturiko absurdo horiez baliatu ziren, eta onartu zituzten. *Mutazilik*, beren aldetik, Jainkoari (gorets bedi!) inikitatea eta injustizia egoztea baztertu nahi ukan zuten, baina ez zioten komenigarri irizten zentzu onaren aurka jartzeari, eta, horrela, onartu egiten zuten bekatu egin ez duenari oinazeak ematean ez dela inikitaterik. Ez zuten sinesten, halaber, onar zitekeenik Profeta guztien misioak eta Legearen goi agerpenak ez zutela arrazoi ulergarririk. Ondorioz, absurdokeria horien zama jasan beharra zeukaten, kontraesan horiei atxikirik egonez; izan ere, onartu behar zuten Jainkoak (gorets bedi!) gauza guztiak dakizkiela eta, aldi berean, gizakiak jarduteko askatasuna duela, eta horrek, erraz uler daitekeenez, kontraesan nabarira darama.

V.- *Bosgarren iritzia*: Gurea da, erran nahi dut, gure Legearena. Azaldu eginen dizut horretaz gure profeten liburuek diotena eta gure Doktoreek, oro har, onartzen dutena. Jakinaraziko dizut, halaber, gure jakintsu modernoetako batzuek pentsatu dutena, eta, azkenik, neronen pentsaera bera ere. Nik diot, beraz, Moises gure Maisuaren (bakea bego haren gainean!) Legearen funtsezko hastapenetako bat, hari darraizkion guztiek onetsia, gizakiak jarduteko ahalmen absolutua duela, erran nahi baita, gizakiak bere izaeraz, bere aukeraz eta bere borondateaz gizakiak bere helmenean den guztia egiten duela, hor berriki sorturiko beste ezein gauzak parterik ukan gabe. Era berean [iritzi horren arabera], animalien espezie guztiak beren borondate bakarraz mugitzen dira; Jainkoak horrela nahi zuelako, erran nahi dut, izaki arimadun guztiak Haren betiereko eta hasierako borondatearen arabera mugitzen direla zein bere gogara, eta gizakiak nahi duen guztia egiteko ahala daukala, edo berak gurago duena, egiteko gai den egintzen artean. Hori funtsezko hastapena da, Jainkoari esker, gure Erkidegoaren barruan behin ere eztabaidagai izan ez dena. Era berean, Moises gure Maisuaren Legearen oinarritzko hastapenetakoa da ezin dakiokela inola ere Jainkoari (gorets bedi!) egotz injustiziarik batere, eta gizakion gainera heltzen diren zoritxarrak edo datozkien mesedeak, banaka zein askori batera, merezi dutenaren arabera, epaiketa zuzen baten ondorio dira, eta horretan ez da injustiziarik batere. Hortaz, banako batek eskua arantza batez zauriturik eduki eta

berori berehala aterako balu, hori zigor baten ondorioa litzateke, eta poztasunik txikiena hartuz gero, hori sari baten ondorioa luke. Hori guztiori ongi merezirik legoke, Eskriturak dioen bezala: «Haren bide guztiak justiziazkoak dira eta» (Dt 32,4), guk hori zergatik merezi izan den jakin ez arren.

Hona hemen, bada, iritzi ezberdinen laburpen xumea. Giza banakoei gertatzen zaizkien askotariko zirkunstantzietan, Aristotelesekin zori hutsa besterik ez dakusa; *'ašariēn*, ustez, aldiz, hori [Jainkoaren] borondate bakarraren ondorioa da; *mutaziliek* [Jainkoaren] jakinduriaren ondorio deritzote, eta guk [israeldarrok] hor banakoak bere eginengatik merezi ukan duenaren ondorioa dakusagu. Hori dela eta, *'ašariēn* ustez, ontzat har liteke Jainkoak gizaki zuzen eta bertutetsua beheko mundu honetan sufriaraztea eta [gainera] beste mundu horretan omen den su horretara betiko kondenatzea, «Jainkoak horrela nahi ukan duelako», beste arrazoirik gabe. Baina *mutaziliek* hori injustizia litzatekeela pentsatzen dute, eta sufritu duen izakiak, berori inurri bat izan arren, lehenago erran dudanez, ordaina ukanen duela; horrela sufriarazi diona Jainkoaren Jakinduria izan baita, ordainez bere saria jaso dezan. Gure aldetik, azkenik, ontzat ematen dugu gizakiari heltzen zaion guztia merezi ukan duenaren ondorioa dela, Jainkoa injustiziaren gainetik dagoela eta ez duela gure artean zigortzen zigor hori merezi ukan duena besterik. Horixe da Moises gure Maisuaren Legeak hitzez hitz dioena, hots: guztia merezimenduaren arabera dela, eta gure doktore gehienak ere iritzi horrekin bat datoz. Izan ere, horiek honela diote, hain zuzen: «Ez da heriotzarik bekatu gabe, ez eta zigorrik ere krimenik gabe» (*Šabbat* 55a); eta era berean, honela mintzo dira: «Gizakia berak erabili duen neurri berberaz neurtzen da», *Mišnāh*-ko testuaren arabera (*Sôṭâ* 1,5). Hainbat pasartetan argi irakur daiteke Harentzat (gorets bedi!) justizia gauza erabat beharrezkoa dela, hau da, gizaki gupidatsua saritzen duela bere gupida eta zuzentasun-egintza guztiengatik, horiek profetak batek gomendatu ez badizkio ere, eta banakoaren egintza gaizto bakoitza gaztigatzen duela, hori profeta batek galarazi ez arren; hori injustizia eta bidegabekeria galarazten dituen sentimendu naturalak debekatzen duelako. «Guztiz Santuak –diote– ez dio ezein ere sorkariri merezi duena kentzen» (*Babâ kama* 38b). Eta hau ere badiote: «Santu Hutsa (= Jainkoa) (gorets bedi!) [barkatzen] eskuzabala dela dioen guztiak erraiak urraturik edukitzea

mereziko luke. Egia da Jainkoak bihotz-zabaltasuna darabilela, baina zor zaiona eskatzen du» (*Běřěšit* R. 67). Bestaldetik hau errana da: «[Erljioak] aginduriko betebeharra konplitzen duena ezin konpara daiteke, hori agindurik izan gabe betetzen duenarekin» (*Qiddušin* 31a). Beraz, argiro diote: [Erljioak] manatu ez diona betetzen duenak ere bere saria jasoko du. Hastapen hau behin eta berriro errepikatzen da haien hitzetan; baina doktoreen berbetan zerbait gehiago ere ageri da, Torah-ko testuan ez datorrena, hots: zenbaitzuek «maitasunezko zigorrak» (*Berakôt* 5a) izenarekin adieraziak. Iritzi horren arabera, batzuetan gizakia zoritxarrek joko lukete, ez ordea aurretik bekatu egin duelako, baina horren [etorkizuneko] saria are handiagoa izan dadin. Horixe da *mutazilien* ustea ere. Baina Torah-ko ezein testuk ez du hori berresten. Ez duzu probaren ideiatatik okerrean erori behar, hau esana izan arren: «Jainkoak Abraham probatu zuen» (Has 22,1), edo «Berak nahigabetu zintuen eta gosea sufriarazi zizun...» (Dt 8,3). Geroago ulertuko duzu gai honetaz erran duguna. Gure Legea ez da giza banakoen baldintzez besterik arduratzen, eta antzinako denboretatik ez zen gure erkidegoan inoiz entzun mintzatzen beste ordainketa horretaz, hots, animalientzako sariaz. Gure Doktoreetako inork ez du holakorik aipatu, baina *gaonim* modernoek arteko batzuek (bedeinka bedi horien oroitzapena!), hori mutaziliengandik entzunda, onetsi egin dute, bai eta sinesgaitzat eman ere.

Orain funtsezko hastapen honetaz neronek pentsatzen dudana azaltzera natorkizu, hau da, Jainkoaren Aurreikusmenaz. Mintzatuko natzaizun sinesgai honetan ez naiz oinarrituko frogatzeko argudioetan, baizik eta Jainkoaren Liburuan eta gure profeten izkribuetan begien bistako zela iruditzen zitzaidan asmoan. Neronek onesten dudana iritziak aurrekoek baino sinesgaiztasun txikiagoa dauka eta hurbilago aurkitzen da adimenaren arrazoimenetik. Horregatik uste dut, beheko mundu honetan –erran nahi baitut Ilargiaren esferapean–, Jainkoaren Aurreikusmenak giza espezieko banakoak besterik ez dituela babesten, eta espezie bakar honetan banakoen baldintza guztiak, heltzen zaizkien ongia eta gaizkia bezala, merezimenduen arabekoak izaten direla, errana den bezala: «Haren bide guztiak justiziazkoak dira eta» (Dt 32,4). Beste animaliei eta, are arrazoi handiagoaz, landareei eta gainerako izakiei, dagokienez, ni Aristotelesen iritziarekin bat nator. Ez dut inola ere sinesten halako hosto bat Aurreikusmen baten

ondorioz eroria denik, ez halako eulia holako armiarmak jan duenik Jainkoaren dekretuaren ondorioz eta Haren bat-bateko borondate bereziagatik, ez eta Zaydek jaurti duen gorroa halako eltxoaren gainean eroria denik, [Jainkoaren] epai edo dekretu baten ondorioz hura hilaraziz, ez eta Jainkoaren nahi bereziagatik halako arrainak ur gainetik halako harra irentsi duenik; aitzitik, hori guztiori, ene aburuz, zori hutsaren ondorioa da, Aristotelesek pentsatzen duenez. Baina, ene aburuz, Jainkoaren Aurreikusmena Jainkozko jariapenari darraio; eta [Jainkozko] Adimenaren jariapen hori lotzen zaion espeziea, horrela adimenaz hornituriko izaki bat eginez, zeini agertzen baitzaio izaki adimendun bati agertzen zaion guztia, [espezie hori, diot] Jainkoaren Aurreikusmenarekin lagundurik doa, eta egintza guztiak neurtzen ditu, horiek saritu edota gaztigatzeko. Jakina, hark (= Aristotelesek) dioenez, egia da itsasontzi bat bere eskifaiarekin urperatzea eta teilatua etxeko bizilagunen gainera amiltzea zori hutsaren ondorioak izan direla, baina ez da zoriaren ondorioa izan, gure iritziz, batzuk itsasontzira sartuak izatea eta besteak etxe horren barruan eseririk egotea; aitzitik, [hori heldu da] Jainkoaren borondatearen ondorioz, jende horiek, Jainkoaren epaiketen arabera, merezi zutenez, Haren jarduteko erregelak gure adimenerako ezin erdietsiak izanik⁴¹.

Hori sinestera eraman nauena hau izan da, ez dudala Profeten Liburuetan batere testurik aurkitu Jainkoaren Aurreikusmena, giza banakoaz landa, edozein animaliarengana ere hedatzen dela dioenik. Batzuetan, profetak harritu egiten dira Aurreikusmena giza banakoen gainera hedatzeaz, gizakia, eta are arrazoi handiagoaz beste edozein animalia, ezdeusegia delako Jainkoa hartaz ardura dadin: «Zer da, bada, gizakia, horren ardura ukan dezazun?» (Sal 144,3); «zer da, bada, [izaki] hilkorra, hartaz oroi zaitezen?» (Sal 8,5). Halere, badira testu batzuk Aurreikusmena giza banako guztiengana hedatzen dela eta haien egintza guztiak gainbegiratzen dituela garbiro diotenak; esaterako: «Hark bihotz guztiak eratu ditu eta haien egintza orori adi dago» (Sal 33,15); «Zuk begiak zabalik dituzu gizaseme guztien ibilbidea ikusteko, nori bere portaeraren arabera emateko» (Jer 32,19); «Bakoitzaren bidearen gainean dauzka Hark begiak, eta bere urrats guztiak dakuski» (Job 34,21). Torah-k berak ere Aurreikusmena aipatzen du giza banakoekiko, eta berauen egintzen azterketaz; adibidez: «Ene bisita-eguna hel dadinean, kontu eskatuko diet beren bekatuengatik»

(Irt 32, 34); «Ene aurka bekatu egin duena, horixe ezabatuko dut neure liburutik» (*ibid.* 33. berts.); «Halakoa hilaraziko dut» (Lv 23,30); «Neure begirada (= haserrea) horren aurka itzuliko dut» (*ibid.* 20,6), eta beste hainbat pasarte. Abrahamez, Isaakez eta Jakobez kontatzen diren gertaera guztiak aurreikusmen partikularren etsenplu argiak dira. Eta (arrazoimenik gabeko) animalien banakoei dagokienez, egoera, zalantzarik gabe, Aristotelesek pentsatzen duen bezalakoa da; horregatik zilegi da, eta halaxe agindua ere bai, horien lepoa moztu eta geure zerbitzura eta gogara erabiltzea. Eta Aurreikusmenaren ardura ez dela animalien gainera heltzen, Aristotelesek dioen adieran besterik, profetaren hitzek frogatzen dute, Nabukodonosorren tirania eta berorrek gizakietan egiten zuen sarraski handia ikusita, hau erran baitzuen: «Jauna –erran zuen–, badirudi gizakiak baztertuak eta abandonaturik utziak balira bezala, arrainak eta lurreko narrastiak legez», hitz horiekin holako espezie horiek abandonuan daudela adierazi nahirik. Hona hemen nola mintzo den: «Gizakiak itsasoko arrainak bezala egiten dituzu, nagusirik gabe dagoen narrastiaren antzeko; guztiak bere amuaz arrantzatzen ditu...» (Hab 1,14-15). Halere, profetak dio, ez dela [gizakiekin] horrela gertatzen; ez dira abandonatuak izan ez eta Aurreikusmenak haiengandik urrunduak ere, baina haiek gaztigatu beharra zegoela, heldu zaiena merezia zutelako: «Zu, O Yhwh –dio– ez duzu hiltzen utziko justizia egiteko ezarri duzuna, o ene Harkaitza!, eta zigortzeko jarri duzuna» (*ibid.* 12. bert.).

Ez da pentsatu behar iritzi hori honetariko pasarteek baliogabetzen dutenik: «Abereari bere bazka ematen dio...» (Sal 147,9); «lehoikumeek orro egiten dute beren ehiziaren aurrean...» (Sal 104,21); «zeure eskua ireki eta bizidun oro asetzen duzu ongi nahiaz» (Sal 145,16); edo Doktoeen beste honegatik ere: «[Bere tronuan] eserita, oro elikatzen du, bufaloen adarretatik intsektuen arrautzetaraino» (*Šabbat* 107b). Antzeko pasarte ugari aurkituko dituzu, baina hor ez duzu deus kausituko ene iritzia baliogabe utz dezakeenik, pasarte guztiotan espezieez arduratzen den Aurreikusmenaz ari delako, eta ez banakoez, eta hor, nolabait esateko, Jainkoaren ontasuna (gorets bedi!) deskribatzen da, espezie bakoitzari behar duen elikadura eta bizirauteko bideak prestatzen dizkiona. Hau argi eta ageria da, eta Aristotelesek uste du era horretako Aurreikusmena badela nahitaez. Hori da, behintzat, Alexandrok Aristotelesez adierazten duena, hots,

espezie bakoitzarentzako elikagaiak banakoek eskuar dituztela, bestela, hori gabe, espeziea, zalantzarik gabe, hilko litzatekeelako, horretaz gogoeta pixka bat eginez gero argi dagoenez. Eta doktoreek hau diotenean «animaliak tormentatzea Legeak galarazten du» (*Baba' Mesîâ* 32b), pasarte honi buruz ari dira: «Zergatik jo duzu zeure astemea? (Zenb 22,32), gure hobekuntza moralaren ikuspegitik izan da, gogorkeriazko ohitura gogorrik har ez dezagun, [animaliei] alferrik eta inolako probetxurik gabe sufriaraz ez diezaiegun, aitzitik, edozein animaliarekiko errukia eta bihozberatasuna erabil dezagun, premia dagoenean izan ezik, esaterako: «zure arimak haragia jatea nahi duenean» (Dt 12,20); baina ez dugu leporik moztu gogorkeria edo atseginagatik. Ez luke balio ene iritziaren aurka beste galdera hau egiteak: «Zergatik Jainkoa gizakiez arduratzen da eta ez ditu berdin zaintzen gainerako espezieak ere?», galde hori egiten duenak, era berean, bere buruari beste hau ere egin liezaioke eta: «Zer dela eta eman zion Jainkoak gizakiari adimena eta ez die, era berean, gainerako animalien espeziei eman?». Jakina, azken galdera horri aurreko hiru iritzietako batekin erantzun lekioko: «Jainkoak horrela nahi ukan duelako», edo «Naturak horrela eskatzen zuelako». Baina erantzun berberak eman litezke lehen galderarako ere.

Ene iritzia azken ondorioetaraino ulertu behar duzu. Jakina, inondik ere ez dut pentsatzen ezer izan daitekeenik Jainkoak (gorets bedi!) ez dakienik, edo Hari egotz dakioken ezintasunik; baina uste dut Aurreikusmena Adimenaren menean dagoela eta berorrekin hertsiki loturik. Izan ere, Aurreikusmena ezin jario dakioko izaki adimentsu bati besterik, eta bereziki hobeintasun-mailarik goreneko Adimen ezin hobea[ren jabe] denari; hortik segitzen denez, [Jainkozko Adimenaren] jariapen horretatik zerbaiten partaide denak ez besterik jasoko du onurarik Aurreikusmenean, Adimenaren partaide den neurrian. Horixe da, ene aburuz, arrazoimenarekin eta Legearen testuekin bat datorren iritzia. Urreko usteei dagokienez, gehiegi edo gutxiegi onartzen dute. Gehiegizkoek erabateko nahasbidera gidatzen dute, adigarria ukatzera eta sentigarria zalantzan jartzera; aurkakoek, mugatuegiak izanik, barruan Jainkotasunari buruz doktrina oso kaltegarriak dauzkate, giza existentziaren ordena suntsitzen eta gizakiaren nolakotasun moral eta arrazional guztiak ezabatzen dituzte, eta hemen giza banakoei buruz Aurreikusmena onartzen ez dutenen iritziaz mintzatu nahi dut,

gizakiok beste animalien espezieetako banakoen maila berean jartzen dituzte eta.

ח' HAMA ZORTZIGARREN KAPITULUA

[Espezia eta gizabanakoak Jainkoaren aurreikusmenari dagokionez]

Animalien espezie guztien artetik Aurreikusmenaren ardura bereziak jasotzen dituen bakarra giza espezia dela behin ezarri eta gero, hona hemen eransteako dudana: gauza jakina da adimenetik kanpo ez dela espezierik; aitzitik, espezia eta beste unibertsalak adimenari dagozkio, eta izpiritutik landa den guztia izaki indibiduala edo banakoen multzoa da. Hori jakinik, era berean, ezagutuko da giza espeziari loturik aurkitzen dugun jainkozko jariapenak, erran nahi baitut, giza adimenak, bere bana-banako adimenen bitartez besterik ez daukala existentziarik, hau da, [Jainkozko Adimenetik] Zayd, 'Umar, *Ḥalid* eta Bakr-en gainera izandako jarioagatik.

Hori horrela izanik, aurreko kapituluan erran dudanagatik, hortik segitzen da gizaki batek, bere materiaren izaeragatik eta ariketagatik, jariapen horretaz zenbat eta parte handiagoa ukan, Aurreikusmenak hura areago babestuko duela, egia baldin bada, erran dudan bezala, Aurreikusmena Adimenaren menean dagoela. Beraz, Jainkoaren Aurreikusmenak ez ditu modu berean babestuko giza espezieko banako guztiak; aitzitik, batzuez beste batzuez baino hobeki arduratuko da, haien giza hobekuntza handiagoa edo txikiagoa den arabera. Gogoeta horretatik segitzen da, nahitaez, Aurreikusmenak profetak ardura handiz babestuko dituela eta arreta hori haiek profezian duten mailaren arabera aldatuko dela; halaber, goi-mailako gizakiak eta bertutetsuak babestuko ditu, horien gorentasun eta bertute-maila kontuan izanik; izan ere, Jainkozko Adimenaren jariapenaren halako maila bat izan da profetei hitz eragin diena, gizaki bertutetsuen egintzak gidatu dituen, edo goi-mailako gizakien jakinduria zientziaren bidez hobetu duena. Gizaki ezjakin eta bekatariez den bezainbatean, jariapen hori gabeak izanik, egoera erdeinagarrian aurkitzen dira eta animalien beste espezien mailan jarriak dira; «Hitz egiterik ez duten abereen antzekoa da» (Sal 49, 13 eta 21); horregatik horiek hiltzeari gauza arin iritzi zitzaion, eta halaxe ordenatua ere bai, guztien onerako. Erran berri den hori erlijioaren

oinarrietako bat da, erran nahi baitut, hastapen honen gainean eraikia da, hots, Aurreikusmenak gizaki bakoitzaz bederazka arduratzen eta bera zaintzen du, zein bere merezimenduaren arabera.

Adi egon testu bakoitza Aurreikusmenaz nola mintzo den, patriarken egoerak, haien zereginen xehetasunik txikienetaraino ere, zainduz, haien ondasunak bezala, Aurreikusmenaren babes honetaz egin zitzaizkien promesen arabera. Abrahami hau erran zitzaion: «Ni zure ezkutua naiz» (Has 15,1); Isaaki: «Zurekin izanen naiz eta bedeinkatuko zaitut» (*ibid.* 26,3); Jakobi: «Zurekin izanen naiz eta noranahi zoazen gordeko zaitut» (*ibid.* 28,15); profeten printzeari: «Ni zurekin egonen naiz» (Irt 3,12); Josueri: «Moisesekin izan naizen bezala, zurekin izanen naiz» (Jos 1,5). Adierazpen horiekin guztiokin adierazten da Aurreikusmenak haien gainetik begiratzen zuela, haien hobekuntza-mailaren arabera. Goi-mailako gizakiez arduratzen den eta ezjakinak saihesten dituen Aurreikusmenaz haxe errana da: «Gizaki jainkotiarren pausoak zaintzen ditu, baina gaiztoak ilunpeetan hiltzen dira; ez du gizakiak bere indarraz garaitzen» (1 Sm 2,9). Horrek erran nahi du ezen zenbait banako zorigaitzetatik gordeak badira, eta beste batzuk hor erortzen, hori ez dela haien gorputz-indarrei eta haien antolaera fisikoei esker: «ez baitu gizakiak garaitzen bere indarrari esker»; baina bai, aitzitik, bere hobekuntza edo akats moralengatik, hau da, Jainkoarengana hurbiltzen edo Harengandik urruntzen diren ginoan. Horregatik Harengandik hurbil daudenek dute babesik hoberena: «Gizaki jainkotiarren pausoak zaintzen ditu», Harengandik hastandurik daudenak zoriaren kolpe guztien arriskupean daude, ezerk istripuetatik babestu gabe, ilunpeetan dabilenari bezala, erremediorik gabe galbidera abiaturik. Goi-mailako gizakiak babesten dituen Aurreikusmenaz honako hau ere errana da: «Haien hezur guztien ardura hartzen du» (Sal 34,21); «Yhwh-ren begiak zintzoen gainean adi jarriak dira» (*ibid.* 16. bert.); «Dei degidanean, sorotsi eginen dut» (Sal 21,15). Gai hau ukitzen duten testuak, erran nahi dut, giza banakoak, beren hobekuntza-neurriaren eta beren gorentasunaren arabera, zaintzen dituen Aurreikusmenari buruzkoak, ugariegiak dira banan-banan aipatu ahal izateko. Filosofoak ere gai hauetaz mintzatu dira; horrela, *Abū Nasr (al-Fārābī)*, Aristotelesen *Nikomakorentzako Etika*-z eginiko iruzkinaren sarreran, hitz hauekin mintzo da: «Beren arimak bertuterik bertute iraganarazteko gaitasuna dutenak, Platonek

erran duenez, horiexek dira Jainkozko Aurreikusmenak gehien babesten dituenak».

Badakusazu orain arrazoitzeko era honek nola ekarri gaituen profeta guztiek honetaz erran zutenaren egia aitortzera, hots, Aurreikusmenak banako bakoitza bereziki babesten duela, zein bere hobekuntzaren neurriaren arabera, eta hori, espekulazioaren ikuspuntutik, beharrezkoa dela, egia baldin bada, errana dugun bezala, Aurreikusmena Adimenaren menean dagoela. Hortaz, ez dirudi onartzekoa denik halako sekta filosofiko batzuek eusten dioten iritzia, hau da, Aurreikusmenak [giza] espeziea babesten duela, baina ez banakoak; izan ere, ulermenetik kanpoan benetako existentzia duten bakarrak banakoak izanik, banako hauei datxekie Jainkozko adimena, eta, ondorioz, Aurreikusmena bera ere halako banakoentzat existitzen da.

Azter ezazu kapitulu hau arretarik handienaz, eta orduan erlijioaren hastapen nagusi guztiak hobezinak eta espekulazioaren eta filosofiaren iritziekin bat datozela irudituko zaizkizu, onartezinak desagertuko eta zuk Aurreikusmenaren ideia argi eta egiazkoa ukanen duzu.

Pentsalariek Aurreikusmenaz eta Jainkoak (gorets bedi!) munduaren gobernaeraz duten aburua erakutsi eta gero, orain gure erlijioekideek Jainkoaren orojakintzaz daukaten iritzia ere laburki azalduko dizut, eta horretaz neure kontutik pentsatzen dudana ere bai.

ᶓ HEMERETZIGARREN KAPITULUA

[Jendeak eta pentsalari batzuek Jainkoaren orojakintzaz dituzten zalantza batzuk. Onen eta gaiztoen arazoa Izkribu Santuaren argitan]

Jainkoak (gorets bedi!) berarengan hobekuntza guztiak eduki behar dituela, eta Berarengandik akats guztiak saihestu behar direla ezbairik gabe, lehen nozio bat da. Era berean, ia maila bereko kontzeptua da zerbait ez jakitea akats bat dela, eta Hura (gorets bedi!) ezin daitekeela zerbait jakin gabe izan. Baina pentsatzaile batzuk, ausarkiegi, Hark gauza bat badakiela eta beste bat, ordea, ez dakiela esatera eraman dituen, jada erran dudanez, haxe da: holakoek uste

ukan dute giza banakoen kondizioek ordena ona falta dutela; eta kondizio horiek, gehientzat, kondizio naturalak ez eze, aldi berean gogoeta egitea eta hautamen askea dituen gizakiaren menean daude.

Profetek jada erran zutenez, ezjakinak, Jainkoak gure egintzen berri ez duela frogatzeko, gaiztoen ongitasun eta trankiltasunean oinarritzen dira, eta horrek eraman dezake gizaki zuzena pentsatzera ez duela ezertarako balio berak ongia egiten jarduteak eta bestek egiten dizkion kontrakarrak dakartzkion nahigabeak. Baina profeta batek [Asaf] (bakea izan bedi harekin!) badiosku, gai honetaz gogoeta luzeak egin eta gero, ulertu zituela gauzak beren azken irteeragatik, eta ez beren hasieragatik. Hona hemen haren gogoeten segida, horri buruz: «Eta honela diote: Nola jakin dezake Jainkoak? Nola izanen du Guztiz Gorenak horren berri? Horra hor gaizto horiek, beti zoriontsu, fortuna eskuratu dutenak. Alferrik garbitu dut, beraz, neure bihotza, eta neure eskuak ikuzi, araztasunez» (Sal 73, 11-13). Eta ondoren hau dio: «Gogoetatsu nenbilen hori ulertu nahirik; hori ene begietarako alferreko nekea zen, harik eta Betierekoaren misterioan sartu eta halakoen azkenaz konturatu nintzen arte. Bide irristakorretan jarri dituzu... Une batean bezala hondamendian erori dira! (*ibid.* 16-19. bert.). Malakiak ere gogoeta berberak egiten ditu: «Ene aurka hitz jasanezinak erraten dituzue... Ez du ezertarako balio, diozue, Jainkoa adoratzek; zer probetxu du Haren aginduak bete eta armadetako Yhwh-ren aitzinean doluz ibiltzek? Eta orain fedegabeei zoriontsu deritzegu... Baina Jainkoaren beldur direnek elkarri hitz egiten diote... Orduan iritzia aldatuko duzue...» (Mal 3, 13-18). David ere bere denboran hedaturik zegoen iritzi honetaz mintzo da, ondorioz, nahitaez, gizakien elkarrekiko injustizia eta gogorkeria zekartzanaz. Iritzi horren aurkako argudioak ematen eta Jainkoak (gorets bedi!) horren guztiaren berri baduela frogatzen ahalegintzen da: «Alarguna eta arrotza erhaiten dituzte –dio–, eta umezurtzak hiltzen dituzte; eta honela diote: Yhwh-k ez dakusa hori, Jakoben Jainkoak ez du aditzen. Baina zuek, herriko ergelenok, zaudete adi! Burugabeok! Noiz zentzatuko zarete? Belarria egin zuenak ez ote du entzunen? Eta begia eratu duenak ez ote du ikusiko? (Sal 94,6-9).

Azken argudio hauen zentzua azalduko dizut, beren erasoetan profeten esanei erasoka ari direnek [Daviden] hitz horiek zein gutxi ulertzen dituzten erakutsi eta gero. Duela zenbait urte, mediku batzuek,

gizon adimentsu eta gure erlijio-kideek, Daviden berba horiengatik (bakea bego haren gainean!), beren harridura adierazi zidaten. Arrazoitze horretatik –zioten haiek–, hauxe segituko litzateke: ahoa egin zuenak jaten duela, birrikak sorrarazi dituenak oihu egiten duela⁴², eta gauza bera gainerako organoez ere. Baina zerorrek, Tratatu honen irakurle horrek, ikusiko duzu zein urrun zeuden pertsona horiek argudio hori zuzenik ulertzetik, eta entzuzu horren zentzua zein den. Argi dago edonolako tresna fabrikatzen duenak lanabes horrekin burutu behar duen obraren ideia ez baleuka, ez litzatekeela gauza izanen erabilera horretarako tresna hori fabrikatzeko. Eta, esaterako, errementariak jostintzaren berri zehatzik ez baleuka, ezingo luke jostorratza fabrikatu josteko balio duen forma bakarrean, eta gauza bera gertatzen da gainerako tresnekin ere. Hortaz, zenbait filosofok zentzuen bitartez hautematen diren bana-banako gauzak Jainkoak ez dituela hautematen pentsatzen zutenez, eta Jainkoak (gorets bedi!) ez du zentzu batez hautematen, baina hautemate adimentsuaz, berak [= Davidek] haien aurka zentzuen existentziaren bidez egiten du, erranez ezen begiak hautematen duen era Jainkoarentzat ezin argituzko misterioa balitz, nola sorraraz ote zezakeen organo hori, begien bidez hautemateko xedea daukana? Izan ote zen zori hutsa humore garbia eta ondoren antzeko beste humore bat sorrarazi zituen, horien hurrengo, mintz bat, halaber zori hutsak zulatua zukeena, eta, azkenik, irekigunearen aitzinean mintz garden eta gogorra ⁴³jarri zuena? Guztira, gizaki adimentsu batek pentsa ote lezake, begiaren humoreak, mintzak eta nerbioak, hain zuhurki antolatua eta beren multzoan, helburuz, ikusteko egintza hau edukiz, zori hutsaren ondorio sinplea izan daitezkeela? Ez, noski; hor Naturaren asmo bat da nahitaez, mediku eta filosofo guztiek aitortu duten bezala. Baina Naturak ez du adimenik, ez eta [hortaz] antolatze ahalmenik ere, eta horretan bat datoz filosofoak; baina antolakuntza artistiko hori, filosofoen ustez, hastapen intelektual bati dario, eta, gure iritziz, izaki adimentsu baten obra da, eta horrexek hornitu ditu halako ahalmenez gaitasun natural bat daukan oro. Hortaz, baldin Adimen horrek delako objektu hori hauteman eta ezagut ez baleza, kasu horretan nola sorraraz edo jaioaraz zezakeen Berarengandik Natura bat Berberak ezagutuko ez lukeen xede bati begira? Beraz, arrazoiak deitzen ditu [Davidek] halakoak «ergelak eta zentzugabeak». Ondoren, hori gure hautematearen akatsa dela azaltzen du. Jainkoak (gorets bedi!), Adimen hau, zeinen bidez

hautematen dugun, eman digunak, Haren egiazko izaeraz jabetzeko dugun ezgaitasunak gugan zalantza larriak sorrazten dizkigun arren, Jainkoak badaki geugan dugun akats hori, eta ez dira kontuan eduki behar eraso horiek, gure gogoaren ahultasunaren ondorio direnak: «Gizakiari Jakinduria irakasten dionak, Yhwh-k, badaki gizakien pentsamenduak hutsalakeriak besterik ez direla» (ibid. 10,11).

Kapitulu honetan ene helburu bakarra izan da espekulazio hori antzina-antzinakoa dela erakustea, eta Jainkoak [giza arazoan] berri duela ukatzen duten ezjakinen oker horretaz ari naiz, giza banakoen kondizioak, beren naturagatik daitekeenaren kategorian direnak, ordena onik gabeak direlako: «Eta Israelgo seme-alabek –erran zen– Yhwh-en aurka ezkutuki gauza deitoragarriak egin zituzten» (2 Erg 17,9). Eta *Midrás*-ean, [honetaz hau erraten da]: «Zer zioten? Zutabe honek –zioten–, ez dakusa, ez du ulertzen, eta ez du hitzik egiten», hau da, iruditzen zitzaion Jainkoak [giza] kondizioak ez dakizkiela, eta profetei ez diela ez ordenarik ez eta debekurik ere. Honen guztiaren kausa, eta, haien ustez, horren froga dena, honetan datza: giza banakoen kondizioak ez direla gutariko bakoitzak izan beharko luketela uste duen bezalakoak. Gauzak ez zirela beren gogara gertatzen ikusita, honela zioten: «Yhwh-k ez gaitu ikusten» (Ez 8,12), eta Sofoniak honetara dio, haiez mintzatuz: «Beren bihotzean hau diotela: Yhwh-k ez du ez ongi ez gaizkirik egiten» (Sof 1,12).

Jainkoaren (gorets bedi!) orojakintzari buruz [benetan] pentsatu behar denaz, neure iritzia geroxeago erranen dizut, eskuarki akordioa egoten deneko hastapenak zuri jakinarazi eta gero, gizaki adimentsuak inola ere ezin saihests ditzakeenak.

➤ HOGEIGARREN KAPITULUA

[Jainkoaren Zientzia. Giza arrazoimenak ez dauka hura ulertzerik]

Bada gauza bat guztiak akort daudena, Jainkoari (gorets bedi!) ezin dakioketela hel jakintza berririk, halako moldez non orain jakin dezan lehenago ez zekiena. Ezin ditzake, halaber, ez eta atributuak onartzen dituztenen artean ere, zientzia askotariko eta ugariak eduki. Hori frogatua izanik, guk, Torah-ren aldekoak, diogu, Hark (gorets bedi!), zientzia bakarraren bidez, gauza askotarikoak eta

ugariak dakizkiela, eta, Jainkoaz den bezainbatean, dakizkien gauzen aniztasuna ez dakarrela aldean, inondik ere, askotariko zientziak ere jakin beharra, gure kasuan gertatzen denez. Era beran, guk diogu ezen berriki gertatzen diren gauza guztiak Jainkoak badakizkiela gertatu baino lehen, eta bazekizkiela betierekotasun osotik ere. Beraz, ez zaio zientzia berririk batere heltzen; izan ere, Berak badaki halako banakoa, orain existitzen ez dena, halako garai batean existitu eginen dela eta, denbora batez existitu eta gero, ezerezera itzuliko dela; Haren zientzia ez da inola ere handitzen pertsona hori existentziara iristen denean, Berak jada aurretik zekien bezala. Beraz, ez da ezer ezezaguna zuenik; aitzitik, zerbait jaio bada, horren etorkizuneko jaiotzaren berri bazekien betierekotasun osotik, gertatu den bezala.

Baina sineskera horretatik segituko litzateke [Jainkozko] zientziak badauzkala xedetzat existitzen ez diren gauzak ere, eta infinitua bera besarkatzen duela. Eta hori da, izan ere, sinesten duguna. Horixe da, hain zuzen, guk sinesten duguna. Guk diogu ez dela ezinezkoa Jainkoaren zientziak oraindik existitzen ez diren gauzen gainean ere hedaturik egotea, Hark horien etorkizuneko existentzia aurretik jakinda, beroriek jaioarazteko gai izanik. Inoiz existitzen ez dena, horixe da, Jainkoaren zientziarekiko, ez-izate absolutua, zientzia horrek xedetzat ezin eduki dezakeena, gure jakinduriak guretzat existentziarik ez daukana xedetzat ezin eduki dezakeen bezalaxe. Baina egiazko zailtasuna Jainkoaren zientziak infinitua besarkatzen duela onartzea da. Pentsatzaille batzuk baiespen honetaz baliatu dira: halako zentzu batean, Jainkoaren zientzia espezieari dagokiola, eta hortik espezieko banako guztiengana hedatzen dela; iritzi hori izan da espekulazioaren bidetik teologo guztiek nahitaez onartu behar ukan dutena. Halere, filosofoek sendoki sostengatu ukan dute Jainkoaren zientziak ezin dezakeela ez-izatea xedetzat eduki, eta ezein ere zientziak ezin dezakeela infinitua besarka. Halere –haien esanetan–, Jainkoari ezein ere zientzia berririk ezin hel dakiokenez, ezin onartuzkoa da Berak heldu berri diren gauzetatik batere ikastea, eta, ondorioz, ezin jakin ditzake gauza egonkorrak eta aldaezinak besterik. Horietako batzuei beste zalantza hau ere heldu zaie: Gauza egonkorrak besterik ez dakizkienez gero, Haren zientzia anizkuna litzateke, horrela jakiniko gauzen ugaritasunak aldean zientzia-anizkuntasuna bailekarke, jakindako gauza bakoitzari zientzia berezi

bana legokiokeelako. Ondorioz, haien ustez, Hark ez luke bere esentzia besterik ezagutuko.

Neure aldetik, pentsatzen dut oztopo eta nahaste hauen guztion kausa honako hau dela, gure zientziaren eta Jainkoaren (gorets bedi!) zientziaren artean halako harremana ezarria dela, eta horrela, sekta bakoitzetik, gure zientziarako ezinezkoa den guztia kontsideraturik, iruditu zaie Jainkoaren zientziaz ere gauza bera gertatzen dela, edo gutxienez, hor zailtasunak aurkitu dituzte. Laburbilduz, puntu honetaz filosofoei errua bota behar zaie beste edozein talderi baino gogorkiago, beroriek baitira Jainkoaren esentzian (gorets bedi!) aniztasunik ez dela frogatu dutenak, Jainkoak bere esentziatik kanpo ez duela atributurik, eta, alderantziz, Haren zientzia Haren esentzia dela eta Haren esentzia Haren zientzia. Horiek dira, halaber, azaldu dugunez, gure adimenak Haren egiazko errealitatea bere osotasunean atxikitzerik ez duela frogatu dutenak; nola, bada, pentsa dezakete Haren zientzia ulertzea, berori bere esentziatik kanpoko zerbait ez bada? Guk esaten dugunean gure adimenak ez direla gai Haren esentzia ulertzeko, ez dugu horrekin esaten [adimen] horiek ez direla gai, halaber, Hark gauzak nola ezagutzen dituen ulertzeko. Izan ere, ezagutza hori ez da gurearen mota berekoa, hari analogiaz irizteko. Aitzitik, gauza erabat ezberdina da; eta hor esentzia bat, nahitaezko existentziaduna, dagoen bezala, esentzia horretatik, filosofoen iritziz, izaki guztiak nahitaez jarioak izanik, edo gure aburuz, ezerezetik Harengandik kanpoan den guztia, lehenago existitu gabea, sorrarazi duenez, era berean guk diogu esentzia horrek berarengandik kanpoan dagoen guztia hautematen duela, eta existitzen denik ezer ez duela ezezagun, baina gure zientziaren eta Harenaren artean ez dela deus amankomunik. Zientzia hitzaren homonimia izan da oker hori ekarri duena, hor ez baita izenaren berdintasuna besterik; izan ere, hor ez da izen-berdintasuna ez bada, eta egiazko esanguran erabateko ezberdintasuna gertatzen da. Horrexek eraman du absurdora, uste izan delako gure zientziari dagozkion gauza guztiak Jainkoarenari ere badoazkiola pentsatzeagatik.

Ene ustez, era berean, Legearen testuei darienez, Jainkoak edozein izaki posible existentziara helduko dela jakinik ere, horrek ez du izaki posible hori posibletasunaren izaeratik irtenarazten; aitzitik, izaera horrek iraun dirau, eta berori gauza posibleetatik jaioko dela [aurretik] jakiteak ez du nahitaez eskatzen beroriek

berehala bi era posibleetako bataz gauzatzea⁴⁴. Hor datza Moisesen legearen funtsezko hastapenetako bat, eta horretaz ez dago ez dudarik ez eta iritzi ezberdinik ere. Horrela ez balitz, ez zatekeen erranen: «Balustrada bat jarriko duzu zeure sabaiaren inguruan...» (Dt 22,8), eta era berean: «Hura gerran hil dadin beldurrez eta beste bat harekin ezkon ez dadin» (*ibid.* 20,7). Legeria sakratu guztia, berorrek agintzen duena eta berorrek galarazten duena hastapen honetatik abiatzen da, hots, Jainkoaren aurrezientziak ez duela posible dena bere naturatik irtenarazten; baina hori gure adimen ahulentzat ulertzeko oso zaila da.

Ikusazu orain zenbat puntutan ezberdintzen den Jainkoaren zientzia gure zientziatik, Legearen aldekoen ikuspuntutik: 1) Zientzia horrek, bat izanik, mota ezberdinetako objektu ugari besarkatzen ditu. 2) Oraindik existitzen ez denari ere aplikatzen zaio. 3.) Infinitu denari aplikatzen zaio. 4) Berriki gertaturiko gauzak hautematean aldaketarik ez du; eta halere, irudi luke gauza bat existituko dela jakitea ez dela jada existentziara heldua dela jakitea bezalakoa, azken kasu horretan zerbait gehitu baita, hots, ahalmenean besterik ez zegoena, egitera iragatea. 5) Gurea Legearen iritziaren arabera, Jainkoaren aurrezientziak (gorets bedi!) ez du daitezkeen bi kasu horietako bata hautatzen, Hark biotako zein gertatuko den zehazki jakin arren. Hortaz, jakin nahi nuke zertan duen gure zientziak Harenaren antzik, Haren zientzia atributu gainjarria dela sinesten dutenen iritziaren arabera ere. Ba al da hemen izenkidetasunaz besterik? Jakina, gure iritziaren arabera, Haren zientzia ez dela inondik ere Haren esentziari erantsiriko zerbait diogunon aburuz, Haren zientziaren eta gurearen artean ezberdintasun substantziala egon beharra dago, Zeruaren substantziaren eta Lurrarenaren artean dena bezalakoa. Horixe da, hain zuzen, profetek argiro erran dutena: «Gure pentsaerak ez dira zuenak, zuen bideak ez dira nire bideak, dio Yhwh-k. Izan ere, Zeruak Lurraren gainetik jasoak diren bezala, horrela ere ene bideak zuen bideen gainetik dira iogoak, eta ene pentsaerak zuen pentsaeren gainetik» (Is 55, 8-9).

Laburbildurik, hona hemen ene pentsamendua: Jainkoaren egiazko esentzia ulertu gabe ere, halere Haren izakia izaki guztietarik osamaituena dela jakin badakigunez, inondik ere akatsik ez duena, ez aldaketarik ez eta grinarik ere, era berean Haren zientzia egiazki zerik den ulertu ez arren, hori Haren esentzia baita, badakigu, halere, Hark

ezin dezakeela aldizka jakin eta aldizka ez jakin; erran nahi baitut, ezin etor dakiokela ezein zientzia berririk, haren zientziak ezin eduki dezakeela aniztasunik ez amaierarik, existitzen diren gauzetarik batere ezin gerta dakiokela ezezagun eta gauza horiez daukan jakintzak oso-osorik uzten duela haien izaera, eta posibleak posibletasunaren izaera kontserbatzen duela. Eta esakune horen multzoan kontraesana daukala dirudien ezer baldin badago, hor geure zientziaren bidez juzgatzen dugulako besterik ez da, Jainkoaren zientziarekin zerikusirik ez duena, izena salbu. Era berean, asmoa hitza, homonimia hutsaz, aplikatzen zaio guk egiteko gogoia dugunari, eta Jainkoak (gorets bedi!) egin nahi duenari ere. Era berean, Aurreikusmena berba ere kezkatzen gaituenari homonimiaz erraten diogu, bai eta Jainkoak (gorets bedi!) aurretik ikusia duenari ere. Egia da, ondorioz, zientzia, asmoa eta aurreikusmena hitzek, guri dagozkigula, ez dutela Jainkoari egozten zaizkionean duten zentzu bera. Bi aurreikusmenak, edo bi zientziak edo bi asmoak zentzu bakar eta berdinean hartzen direnean, orduan heltzen dira zailtasunak eta jada aipatu ditugun zalantzak ere; baina guri egozten zaigun guztia Hari egotzirikoa ez bezalakoa dela jakiten denean, egia ageri-agerian gelditzen da. Jainkoari egozten zaizkion gauzen eta guri egotziriko gauza berberorien arteko aldea oso garbiro adierazi da hitz hauen bitartez: «Zuen bideak ez dira nire bideak» lehenago erran dugun bezala.

𐌆 HOGEITA BATGARREN KAPITULUA

[Jainko Sortzailearen zientzia artistarenaz konparatua. Jainkoarena: a priorizko zientzia, gizakiena: a posteriorizkoa]

Artistak berak ekoitzi duen obraz daukan ezagueraren eta beste [pertsona] batek obra berberorrez daukanaren artean ezberdintasun handia da. Izan ere, obra hori artistaren jakintzaren arabera burutua baldin bada, berori bere jakintza burutzean, bere jakintzari jarraiki besterik ez du egin artistak; baina obra hori ikusi, [aztertu] eta horretaz erabateko jakintza erdiesten duen beste edozeinentzat, zientzia obrari darraio. Horrela, esaterako, kutxa hau egin duen artistak, zeinetan uraren jarioaz pisu batzuk mugiarazten diren, horrela egunean edo gauean zenbat ordu iragan diren seinalatuz, horrek badaki eta ezin hobeki ulertzen du zenbat ur isuri behar den, jario horren jarrera-

aldaketa, hor tiratzen diren hariak eta jaisten den bola bakoitza ere. Eta mugimendu horiek guztiak dakizki, baina hori ez da une horretan heltzen diren mugimenduak dakuskielako, baizik eta une horretan gertatzen diren mugimendu horiek beraren zientziaren arabera heltzen direlako. Baina ez zaio hori gertatzen makinari adi eta so dagoenari; horrek dakusan mugimendu bakoitzean jakite berria eskuratzen duelako, eta berorren jakitea behaketari esker, eten gabe handituz doa eta jarraitasunez berriztatzen, harik eta, horrela, makina osoaren berri zehatzak jakin arte. Mugimenduak infinituak direla uste baldin baduzu, behatzaileak ezingo luke sekula lortu horiek osorik eta erabat ikasi. Ezinezkoa da, halaber, behatzaileak mugimendu horietarik bat bera ere jakitea, horiek gertatu baino lehen, dakiena behin gertatu eta gero besterik ez baitaki.

Gauza bera izaten da unibertsoaren osotasunaz eta horrek gure zientziarekin eta Jainkoarenarekin (gorets bedi!) duen harremanaz ere. Izan ere, guk geuk dakiguna, izakiei behatu ondoan besterik ez dakigu; hori dela eta, gure zientzia ez da hedatzen ez etorkizuneko gauzen gainean ez eta infinitua denaz ere; baina gure jakituria berriztatu eta aniztu egiten da guk ikasten ditugun gauzen arabera. Baina Jainkoaz (gorets bedi!) ez da gauza bera gertatzen, erran nahi baitut Hark gauzez daukan jakinduria ez zaiola gauzetatik heldu, horrela zientzien aniztasuna edo berriztapena edukiz; aitzitik, gauza horiek Haren zientziapekoak dira, berori [= Jainkoaren zientzia] haiek baino lehenagokoa baita, eta [bestelako zientzia horiek] diren bezalakoak ezarriak dituelako: izaki banatuak, materialzko banako iraunkorrak edota materialzko izakiak, banan-banan aldakorrak, baina [elkarrekiko multzoan] ordena hilezin eta aldaezinari darraizkionak. Hau dela eta, Jainkoarengan (gorets bedi!) ez da zientzia anizkunik, eta Haren jakindurian ezin daiteke deus berririk gerta, aldaezina da eta; izan ere, Hark, bere esentzia aldaezinaren errealitate guztia ezaguturik, badaki, horrexegatik, Haren egintzetatik nahitaez datorkeen guztia ere. Hori nola egiten den ulertzeko ahaleginak egiten saiatzea gu Bera [= Jainkoa] izateko ahaleginak egitea litzateke, eta gure hautemateko era Harena bera izatea. Horretara, beraz, egia zintzoki bilatzen duenak sinetsi behar du ez dagoela inondik ere ezer Jainkoak (gorets bedi!) ez dakienik; aitzitik, Haren zientziarako, dena agerian dago, hori Beraren esentzia baita, baina guri guztiz ezinezkoa gertatzen zaigu

era horretako hautemateak ezagutzea. Nolakoa den bagenek, geuk ere edukiko genuke hautemate era hori eskaintzen duen adimena, baina hori ez da ezein ere izakirengan gertatzen, Berak salbu (gorets bedi!), Jainkoaren esentzia bera baita. Uler ezazu ongi hau guztiau, gauza oso sakona baita, bai eta egiazko iritzia ere, eta horretan barrena sartuz gero, ez da errakuntzarik ez gezurrezko itxurarik aurkituko, eta [iritzi] horrek ez du deus sinesgaitzik eskaintzen, eta horretan ez zaio Jainkoari [gorets bedi!] batere akatsik egozten.

Jakina, maila goreneko arazo larri hauetarako ezin daiteke inolako frogarik eskain, ez gure ikuspuntutik, hots, Torah sinesten dugunon aldetik, ez eta filosofoen iritzietatik, problema honetan oso sakabanaturik dauden arren. Frogatzerik ez daukaten gai guztietan, beraz, honetarako erabili dugun metodoari segitu behar zaio, erran nahi baitut, Jainkoaren orojakintzaren problemari. Uler ezazu hori ongi.

𐤁𐤇 HOGEITA BIGARREN KAPITULUA

[Joben liburuaren argudioaz:

munduan den gaitz fisiko eta moralaren azalpena]

Joben historia, hain bitxia eta harrigarria, loturik dago gure gaiarekin; erran nahi dut hori parabola bat dela, gizakiek Aurreikusmenaz dituzten iritziak erakusteko xedea duena. Badakizu doktore batzuek espresuki diotena: «Job ez da inoiz existitu, eta hori parabola hutsa besterik ez da» (*Baba' Batra* 15a). Egiazki existitu zela eta [benetako] historia izan zela sinesten dutenek ere ez dakite zein denbora eta lekutan gertatu zen. Doktore batzuek patriarken denboran existitu zela diote; beste batzuek, Moisesen garaian; beste zenbaitzuek Daviden denboran; eta beste batzuek, azkenik, Babiloniatik itzuli zirenetako bat zela diote. Horrek guztiorrek benetan ez zela existitu diotenen iritzia indartu besterik ez du egiten. Laburbilduz, existitu bazen edo ez bazen ere, kontua da irakurle guztiak alderrai sentitzen direla historia horregatik, kontatu zaigun bezala; hori dela eta, Jainkoaren zientziaren eta berorren Aurreikusmenaren aurka argudiatu dute, lehenago aipatu dizudan bezala, hau da, gizaki bertutetsu eta osamaitua, bere egintzetan erabat zintzoa, eta bekatuetatik ihes egiteko

ardurarik handiena duena, halere zoritxar handiek joa, kolpez kolpe, bere ondasunetan, bere seme-alabengan eta bere pertsonagan ere, hori inolako bekaturengatik merezi gabe. Halere, bi iritzien arabera, hau da, Job existitu zela edo ez zela, liburuaren aitzinsolaseko hitzak, erran nahi baitut, Satanen mintzaldia eta Jainkoak berorri zuzentzen diona, eta Job haren boterepean uztea, hori guztiori, gizaki adimentsu ororentzat, zalantzarik gabe, parabola bat da. Halere, hori ez da beste hainbat parabola bezalako bat, pentsamendu sakonak, «unibertsoaren misterioa eratzen duten gauzak»⁴⁵, loturik dauzkan parabola bat baizik, eta horiek iluntasun handiak argitzeko eta egia gorenak erakusteko balio dute. Horren gainean erran daitekeen guztia erranen dizut⁴⁶, eta doktoreen hitzak (bedeinka bedi haien oroitzapena!) ekarriko ditut hona, parabola garrantzitsu honetaz ulertu ahal ukan dudan guztiaz ene arreta iratzarri dutenenak.

Lehenik hitz hauek kontsideratu behar dituzu: «Bazen 'Ūs-ko herrian gizon bat» (Job 1,1), eta hor homonimo batez baliatzen da, 'Ūs-*ez* alegia; izan ere, hori gizon baten izena da: «Haren lehen semea: 'Ūs (Has 22, 21), bai eta 'gogoeta egin, pentsatu' erran nahi duen aditzaren agintaldia ere, adibidez: 'uṣû 'ēṣāh, 'har ezazue aholkua' (Is 8,10); erran balu bezala: «Egizu gogoeta parabola honetaz, pentsa ezazu horretaz, saia zaitez horren zentzuan barneratzen, eta ikusazu iritzi zuzena zein den». Ondoen kontatzen da «Jainkoaren semeak» (= aingeruak) Jaunaren aitzinera aurkeztera etorri ziren, eta haien artean Satan ere aurkitzen zen». Ez baita esaten «Jainkoaren semeak eta Satan Jaunaren aitzinera aurkeztera etorri ziren», horrek guztiak maila berean zeudela adieraziko lukeelako, baina honela mintzo da: «Jainkoaren semeak Jaunaren aitzinera aurkeztera etorri ziren, eta haien artean Satan ere zegoen» (Job 1,6 eta 2,1). Berba egiteko era horrekin, norbait, harengan pentsatu gabe, bertaratu dela adierazten da, haren etorrera aurretik eskatu edo haren bila joan gabe, baina etor zitezela eskatu zaienak heldu zirenean, horiekin batera etorria. Ondoren erraten denez, Satan Lurraren gainetik hara eta hona zebilela; beraz, ez dago inolako harremanik haren eta goiko munduaren artean, horretara sartzeko erarik ez du eta. Horixe da hitz hauen esangura: «Lurraren gainetik osterata bat egin eta handik ibiltzetik nator» (*ibid.* 1,7; 2,2); bera ez baitu osterarik egiten ez eta ibiltzen ere Lurraren gainetik besterik. Ondoren kontatzen da gizon zintzo eta prestu

hori Satanen esku artera eramana izan zela, eta Jobengan, haren ondasunean, haren seme-alabengan eta haren pertsonagan heldu ziren zoritxar guztiak Satanengatik gertatu zirela. Lehenagotik adieraziko ideia horrela erakutsi eta gero, pentsalariek gai honetaz erran dutena azaltzen hasten da; lehenik Joben iritzia ematen da, ondoren beste uste batzuk, haren lagunei egotziak. Argi eta garbi azalduko dizkizut iritziz ezberdin horiek, haien artean, gertaera hori dela eta, Satanen kausaz, [haien] ideietan hain nahaste handia sorrarazi zutenak, baina halere, bai Jobek eta bai haien lagunek ere pentsatzen zuten hor Jainkoa bera (gorets bedi!) bere kontutik aritua zela, eta ez Satanen bitartekotasunaz. Kontakizun horretan harrigarriena hauxe da, ez zaiola Jobi inolako zientziarik egotzen, eta ez zaiola *zuhur*, *aditu* edo *jakintsu* deitzen; aitzitik, ohitura onak eta bere egintzetan arteztasuna besterik ez zaio egotzen. Izan ere, bera jakintsua izan balitz, egoerak ez zukeen harentzat deus ilunik ukanen, geroago erakutsiko denez.

Oraino azpimarratu nahi dut Joben zoritxarrak nolabaiteko mailaketaz aurkezten direla, gizakien izaeren arabera. Izan ere, badira gizaki batzuk beren ondasunak galtzean ikaratzen ez direnak, eta horri kasu gutxi egiten diotenak, baina beren seme-alaben heriotzan pentsatzeak ikaratzen ditu eta horren tristurak hiltzen ditu. Badira beste batzuk beren haurren heriotza ere etsipenaz pairatzen dutenak, baina ez dago izaki sentikorrik minak jasan ditzakeenik. Gizaki guztiek, erran nahi baitut, gizaki arruntek, ahoz Jainkoa (gorets bedi!) lorifikatzen dute eta justu eta ongile deritzote zoriontsu eta aise sentitzen direnean, bai eta oinaze jasangarriaren pean ere. Baina Jobi bezalako zorigaitzak heltzen zaizkienean, orduan, badira, beren ondasuna besterik galtzen ez dutelako, fedea galdu eta unibertso osoa ordenarik gabe dagoela pentsatzen dutenak; beste batzuek, beren ondasunak galdu dituztelako nahigabeturik, segitzen dute [Jainkoaren] justizian eta [unibertoaren] ordena onean sinesten, baina beren haurren galtzeaz probatuak izatean, ezin dute hori etsi; azkenik, beste zenbait etsi egiten dute, eta beren fedeari eusten diote, bai eta beren seme-alabak galtzen dituztenean ere, baina horietako inork ezin paira ditzake gorputzeko minak kexatu eta protestatu gabe, mihi az edota gogoaz.

Eta «Jainkoaren semeak» aipatzen dituen testuaz mintzatuz, pasarte bietan esaten denez: «Yhwh-en aitzinera aurkeztera etorri ziren» (*ibid.* 1,6 eta 2,1); baina Satanez den bezainbatean, lehen eta bigarren

aldian haien artean etorri zen arren, ez da hari buruz, lehenbiziko aldian להיִצָב *le-hityasēb* ('Yhwh-ren aitzinean aurkezteko') esaera erabiltzen, baina bigarren aldian (2,1), ordea, honela esaten da: «Eta haien artean bazen Satan ere», «Jaunaren aitzinera aurkeztera» (Job 2,1). Ongi ulertu behar da ñabardura hori, eta konturatuko zara zein garrantzitsua den; orduan ezagutuko duzu ideia hauek guztiok Jainkoaren nolabaiteko iradokizunez aurkitu ditudala. Izan ere, «Yhwh-ren aitzinera aurkeztea» hitzek adierazten dute han zeudela Haren borondatetik jalgiriko agindupean loturik. Era berean, Zakariasek, «irteten ziren lau gurdiez» mintzo delarik, honela dio: «Aingeruak, erantzunez, erran zidan: Horiek dira Lur guztiaren Jaunaren aitzinean מהיִצָב *me-hityasēb* aurkezten diren lekutik irteten diren lau haizeak» (Zak 6,5). Argi dago, beraz, Jainkoaren semeek eta Satanek ez dutela maila bera unibertsoko izakien artean; aitzitik, Jainkoaren semeak egonkorragoak eta iraunkorragoak dira, baina berak ere (= Satanek) badu Unibertsoan nolabaiteko maila, haienaren azpian.

Parabola horretako gauza miresgarrien artean ohartzekoa da, Satan bereziki Lurraren gainetik hara eta hona zebilela erran ondoren, hor egiten ziharduen egintzez mintzatuz, arimaz jabetzea galarazia zuela adierazten dela, Lurreko gauza hauek guztiok haren esku jarri zirela, baina haren eta giza arimaren artean badela hesi bat. Hori da berba hauen esangura: אֶךְ אֵת נַפְשׁוֹ שֶׁמֹר *ék êt nafšo šemor* «Gorde ezazu, soilki, haren arima» (Job 2,6). Azaldua dizut jada, gure hizkuntzan, נֶפֶשׁ *nēfēš* hitza ('arima, bizia') balio anitzekoa dela, eta heriotzaz gero gizakiarengandik gelditzen denari esaten zaio, eta horren gainean ez du Satanek boterarik.

Ohar horiek egin eta gero, entzuzu jakintsuengandik jalgiriko hitz ikasgarri hau, horiei «jakintsu» izena egokiro eman baitakieke, [hitz] horrek ilun den guztia argitu, estalirik zegoen guztia agerian jarri eta «Torah-ren misterio» gehienak erakutsi ditu eta; horiek Talmudean (*Baba 'Batra'* 16a) diotenaz hitz egin nahi dut: «Rabbi Simeonek, Laqīš-en semeak, honela dio: «Satan, makurdura gaiztoa eta herioaren aingerua gauza bakarra eta bera dira». Pasarte horrek erran dugun guztia argitzen du, eta horrela, ulertzen dakienarentzat ez da deus ere ilun geldituko. Beraz, argi dago hiru izen horiek ideia bera eta bakarra adierazten dutela, eta hiru gauza horietako bakoitzari egotziriko egintza guztiak gauza bakar eta beraren egintza direla. Era

berean mintzatu ziren *Mišnāh*-ko antzinako doktoreak ere: «Ondoko hau irakatsi da: jaitsi eta seduzitu egiten du, ondoren igo eta salatzen du, eta azkenean, baimena lortu eta gero, bizia kentzen du». Horrela ulertuko duzu Davidek, ikuspen profetikoan, izurritean ikusi zuena: [aingerua] «bere eskuan ezpata biluzi bat Jerusalemara begira zuela» (1 Kr 21,16), ez zitzaion agertu halako ideia bat erakusteko baizik, eta ideia horrexetaz ikuspen profetiko batean ere hitz egiten da, Yehošu‘a Apaiz Nagusiaren semeek eginiko bekatua dela eta: «Eta bere eskuinean Satan zuen, akusatzaille» (Zak 3,1). Pasarte horri darraiola, Satan Jainkoarengandik zeinen urrun dagoen argitzen da: «Yhwh-k gaitzets zaitzala, o Satan! Berak Jerusalem hautatu du eta! (*ibid.* 2. bert.). [Pertsonaia] berbera da Balaam-ek ikuspen profetikoan bere bidean ikusi zuena, hau esan zionean: «Hona, bidea zuri ixteko irten naiz» (Zkiak 22, 32). Gogoan ukan behar da Satan hitza שָׂטָן *sātāh* ('desbideratu') aditzetik heldua dela; adibidez, «Ez igaro handik, iragan zaitetz harengandik urrun» (EsZah 4,15); erran nahi dut, berba horrek 'desbideratu, saihestu, urrundu' esangura daukala; eta, izan ere, Satan da, zalantzarik ez, egiaren bideak saihestu eta [jendea] okerbideetan galtzea eragiten duena. Ideia berberori hitz hauekin adierazi izana da: «Giza bihotzaren nahikundeak, nerabazarotik gaitzerakoak baitira» (Has 8,21). Ongi dakizu zeinen hedaturik dagoen gure erlijioan «Joera on» eta «gaiztoaren» ideia, eta ezaguna duzu doktoreen errana: «Zure bi joerengatik» (*Mišnāh Berakôt* 9, 5). Bestaldetik, joera gaiztoa giza banakoarengan jaiotzetik bertatik sortzen dela diote : «Bekatua atean zelatan dago» (Has 4,7), eta Eskriturak dioenez: «nerabazarotik» (*ibid.* 8,21), baina joera ona, aldiz, ez zaio heltzen bere adimena hobetu arteraino⁴⁷. Horrexegatik, giza gorputzaren eta beronen ahalmen ezberdinen parabolan honako hau diote, pasarte honetan bildurik: «Bazen hiri txiki bat, barruan jende gutxi zeukana» (Qoh 9,14). Joera gaiztoari «errege handia» erraten zaio, eta joera onari «gizon behartsu, baina jakintsua». Gauza horiek guztiok testu ongi jakinetan aurkitzen dira, doktoreengandik jalgiak⁴⁸. Halere, haiek joera gaiztoa Satan dela jakinarazi digutenez gero, zalantzarik gabe, aingeru bat dena –eta, izan ere, aingeru gisa aipatua da, «Jainkoaren semeen» artean kokatzen da eta–, joera onekoa ere, egia esan, aingerua da. Horrela, beraz, mundu guztiak dakienez⁴⁹, doktoreek diotenean gizaki bakoitzak bina aingeru lagun dituela, bata haren eskuinean eta bestea ezkerrean, hori ulertu behar da: jarrera onekoa eta jarrera gaiztokoa; eta, izan ere, *Šabbat*

tratatuaren *Gemara*-n (119b) honetara diote zehazki: «Bata ona, bestea gaiztoa». Ikusazu zenbat gauza miresgarri agertzen zaizkigun esaldi horrekin, eta zenbat ideia faltsu dituen desagerrarazten.

Orain uste dut Joben historia sakonki azaldu eta argitu dudala. Baina era berean erakutsi nahi dizut zein den Jobi egotziriko iritzia eta zein den haren adiskide bakoitzari egotzirikoa ere, horretarako, haien bana-banako hizketaldian bilduriko frogak ekarriz. Ez zaie beste hitzei jaramonik egin behar, mintzaldiaren osotasunerako beharrezkoak direnei, Tratatu honen hasieran jada erran dizudan bezala.

כג HOGITA HIRUGARREN KAPITULUA

[Jobek eta berorren adiskideek Jainko orojakile eta justiziagileaz zerabilten eztabaidaz. Horri buruzko bost iritzien sailkapena]

Behin Joben historia hori [egiazkotzat] onartuta, lehenik bost pertsonaiak batera datoz, hau da, bai Jobek eta bai beronen adiskideek ere Jobi etorri zitzaion guztia Jainkoak (gorets bedi!) ezagutzen zuela uste zuten, eta Hark erakarri zizkiola zorigaitz haiek. Guztiek ontzat ematen zuten, ordea, Jainkoa injustiziaz garbi zegoela eta Hari bidegabekierarik egotea ere ez zegoela. Horiexek dira maiz errepikaturik agertzen diren ideiak, bai eta Joben hitzetan ere. Eta bost gizonek beren hizketan elkarren artean darabiltzaten hitzak kontsideratzen badira, pentsa liteke batak dioena gainerako guztiek diotenarekin bat datorrela, eta ideia berberak errepikatu eta gurutzatzen direla. Joben aldetik [ideia] horiek ez dira eteten, berak dauzkan min eta oinaze bortitzak kontatzeko ez bada, haren zuzentasuna, haren justiziaren, izaera noblearen eta haren egintzen ontasuna gorabehera. Beren aldetik, adiskideek, egiten dizkioten mintzaldietan, pazientziarako aholkuak, kontsolamenduak eta berba gozoak tartekatzen dituzte, erranez isilik egon beharko lukeela, bere hitzei brida lasaitu gabe, norbere antzeko batekin eztabaidaka ari den baten antzera, eta Jainkotasunaren epaiak etsipenez onetsi. Horri ihardetsiz, badiotse jasaten dituen min bortitzek eragozten diotela pairakor eta jarraikia izaten, eta behar den bezala mintzatzen. Haren adiskide guztiak bat datoz esaten ongia egiten dutenak sarituak izaten direla, eta gaizkia dagitenak, aldiz, horregatik zigortuak. Baldin

bekatari bat ageri bada –diote– zorionean bizitzen, gauza segura da etorkizunean horren kontrakoa izanen duela; hilko da, eta zoritxarra harengana, haren seme-alaben eta haren leinuaren gainera eroriko dira. Alderantziz, gizaki jainkotiarra ezbeharrean ageri bada, Jainkoak, zalantzarik gabe, haren ordaina emanen dio; ideia hau Elifaz, Bildad eta Sofarren hitzaldietan aurkituko duzu errepikaturik, eta hirurak bat datoz iritzi horretan. Baina historia horren guztiaaren xedea ez da hori, horren helburu nagusia haietako bakoitzak arazoaz uste zuena eta gertatuaz zeukan iritzia jakinaraztea baita, eta hor gizonik zintzoena eta zuzenena ezbeharrik handienek eta bortitzenek jota dakusagu.

Joben iritziz, gertatu horrek frogatzen du gizaki bertutetsua eta fedegabea berdinak direla Jainkoaren aitzinean (gorets bedi!), Berak giza leinua mespretxatu eta bazterrean uzten duelako. Horregatik erraten da, beste gauza batzuen artean: «Gauza bera da; horrexegatik erran dut: bai gizaki zintzoa eta bai fedegabea suntsitzen ditu; bat-batean izurriak hiltzen badu, errugabeen zorigaitzaz barre egiten du» (Job 9, 22-23); hau da, supituki uholdea heldu, eta [bidean] aurkitzen dituen guztiak hiltzen eta eramaten baditu, Berak errugabeen zoritxarraz barre egiten du. Ondoren iritzi hau berresten du, dioela: «Bata bere indarren osotasunean hiltzen da, dena trankil eta lasai; haren ontziak esnez beteak... Bestea bere arimaren mingostasunean hiltzen da, zorionaz gozatu gabe. Elkarrekin hautsetan etzanen dira, eta harrek bata eta bestea estaliko dituzte» (*ibid.* 21,23-26). Eta frogatzat gaiztoen egoera arrakastatsua eta horien zoriona aipatzen du, eta horren gainean asko luzatzen da, erranez: «Horretaz pentsatzean –dio berak–, ikaratu egiten naiz eta dardarak ene haragia hartzen du. Zergatik jainkogabeak bizirik daude, eta zahartzen dira, indarra areagotuz? Haien ondorengoek haien aurrean [bizirik] diraute...» (*ibid.* 6-8.bert.). Erabateko zoriontasun hori azaldu ondoren, honela diotse bere solaskideei: «Onar dezagun hori zuek pentsatzen duzuen bezala dela, fedegabeko zoriontsu horren haurrak bera [= gurasoa] jada ez denean hiltzen eta haien oinatzak berak ere desagertu egiten direla; zer kalte helduko zaio gizon zoriontsu horri bere familiari gertatuko zaionagatik bera jada izanen ez denean?». «Zer ardura dio atzean uzten duen bere familiak beraren hilabeteen kopurua jada bete denean?» (*ibid.* 21. bert.). Ondoren, hil eta gero ez dela deus itxaron behar dio, eta horrela, ez dela besterik ezer gelditzen, baztertua izatea ez bada. Orduan bere harridura agertzen du,

Jainkoak, hasieran, gizakia sorraraztean, ezer ahanzi gabe utzi arren, halere, hura gobernatzea alde batera utzi duelako, eta honela dio: «Ez al nauzu iragazi, esnea bezala, eta gatzatu, gazta gisa...? (*ibid.* 10,10). Hori da Aurreikusmenari buruz izandako iritzietako bat. Doktoreek, ongi dakizunez, Joben adierazpen horri guztiz gaitzesgarri deritzote, hargatik honelako adierazpenak eginez: «Joben ahoko hautsa», «Jobek platera bere ertzetik irauli nahi zuen», Jobek hildakoen piztuera ukatzen zuen», «Job biraoak jaurtitzen hasi zen» (*Baba' Batra' 16a*). Halere, Jainkoak Elifazi honela diotsonez gero: «Zuek nitaz egokiro mintzatu ez zinatelako, Job ene zerbitzariaren antzera» (*ibid.* 42,7), doktoreek, hori justifikatzeko, honela diote: «Gizakia, sufritzen duenean, ez da [egiten duenaren] erantzule» (*id.* 16b), hau da, Job barkagarria zela zituen oinaze ikaragarriengatik. Baina hitz horiek ez zaizkio egokitzen parabola horren zentzuari. Egiazko kausa orain azalduko dizudana besterik ez da: Jobek iritzi erabat oker horretatik atzera egin eta horren faltsutasuna berberak frogatua zuen. Hura ez zen lehen unean jalgiriko iritzia baino, batez ere zoritxarrak jotako eta barru-barrutik bere errugabetasuna zekien gizon batena, eta hori ez du inork zalantzapean jarriko; horrexegatik egotzi zitzaion Jobi iritzi hori. Halere, hark ez zituen mintzaldi horiek guztiok egiten ezjakintasun-egoeran zegoen bitartean baizik, Jainkoa tradizioz besterik ezagutzen ez zuelako, gizaki erlijioso gehienek ezagutzen duten bezala; baina Jainkoarengandik egiazko ezagutza lortu zuenean, egiazko zorionaz jabetu zen, alegia, Jainkoaren ezagutzaz, Hura dazaguten guztientzat gordea, eta zorigaitz horietatik guztietatik batek ere ezin dezake gizakiarengan zapuztu. Irudizko beste zorion horiek, hala nola osasuna, aberastasuna eta haurrak, Jobek helburutzat hartuak zeuzkan, Jainkoa tradizioz besterik ezagutzen ez zuenean, eta ez hausnarketaz; hori dela eta ibili zen alderrai, mintzaldi gaitzesgarri horiek eginez. Horixe da, bada, haren hitzen esangura: «Zutaz mintzatzen entzuna nuen, baina orain ene begiek ikusi zaituzte; horregatik [hori guztiori] ukatzen eta damu dut hauts-errautsetan egona naizelako» (*ibid.* 42, 5-6 bert.).⁵⁰ Hitzok, esangurari jarraikiz, honela osatu behar dira: «Horregatik mespretxatzen dut lehenago nahi ukan nuen guztia, eta damu dut hauts eta errautsetan egon izana»; egoera hau baita egozten zaiona: «Eta errautsaren gainean eseria zen» (2,8). Beraz, azken hizketaldi horregatik, ageri da egiazko ezagutza, jarraian hartaz erantsia: «Zuek nitaz egokiro mintzatu ez zinatelako, Job ene zerbitzariaren antzera».

Elifazek gertaera horretaz zuen ustea, era berean, Aurreikusmenaz izaten ziren iritzietako bat zen. Izan ere, haren arabera, Job jo zuten zorigaitz guztiak, mereziak zituen, berak zori hori mereziarazi zioten bekatuak egin zituelako. Hau da hark Jobi erranikoa: «Zure gaiztakeria ez al da handia, eta zure bidegabekeriak ez al dira amaigabeak?» (22,5). Beste toki batean honela diotso Jobi: «Zure eginen zuzentasunak eta portaera bertutetsuak, zeintzuez harro zauden, ez dute esan nahi nahitaez Jainkoaren aitzinean gizon osamaitua zarenik, halako moldez non ezin zaren zigortua izan: «Egia, ez da bere zerbitzariez ere fidatzen, eta aingeruengan ere akatsak aurkitzen ditu. Zer ez du aurkituko hautsaren gainean eraikitako lurrezko etxeetan bizi direnengan?» (4,18-19). Elifazek pentsamendu hori behin eta berriro darabil, hau da: gizakiari gertatzen zaion guztia merezia duela uste du, baina gaztigua mereziarazi diguten faltak gure hautematek kanpo daude, eta ez dakigu, halaber, zigor hori nola ekarri diguten ere.

Arazo horren gainean Bildad Šuhi-ren iritzia konpentsazioa onartzearen aldekoa da. Horregatik honela diotso Jobi: «Zoritar handi hauek, zu garbi bazaude eta bekaturik egin ez baduzu, zuri are sari handiagoa mereziarazteko arrazoiak dute, eta, egiazki, ordainik ederrena ukanen duzu. Hori guztiori, beraz, zuretzat ona da, etorkizunean gozatuko duzun zoriona are handiagoa izan dadin». Hori da Jobi egiten dizkion hitzen esangura: «Garbia eta zuzena bazara, gaurdanik gainetik babestuko zaitu eta zure justiziaren egoitza berreginen du, eta aurreko ondasuna urri geldituko da, etorkizun oparoa ukanen duzu eta» (8,6-7). Badakizu Aurreikusmenari buruzko iritzi hori oso hedatua dela, jada erakutsi dugunez.

Sofar Na'amati-ren iritzia guztia Jainkoaren borondate bakarraren pean dagoela onartzen duenarena da, Jainkoaren egintzetan ez dela arrazoirik batere bilatu behar, eta ez dela galdetu behar zergatik hau edo beste gauza bat egin duen. Horregatik, Jainkoak egiten duen guztian ez da justiziazko arrazoirik bilatu behar, ez eta Haren jakinduriaren eskakizunik ere, Haren handitasunari eta egiazko esentziari nahi duena egitea baitarie, baina gu ez gara gai Beraren jakinduriaren sekretuetan barrena sartzeko, horrek Bere borondatearen arabera aritzea eskatzen baitu, beste inolako arrazoirik gabe. Hau da Hark Jobi diotsona: «Ai Jainkoak hitz egiten balu, eta ezpainak zabaldu, zuri mintzatzeko! Jakinduriaren sekretuak

erakutsiko lizkizuke, giza adimenarentzat sakonegiak direnak... Jainkoaren barren-barrena ikertu nahi al duzu, eta Ahalguztidunaren handitasuna besarkatu?» (11,5-7).

Dakusazunez, beraz, horretaz gogoeta egiten baduzu, historia hau, gizakiak horrenbeste aztoratu dituen, zuhurki ezarria izan da, lehenago Aurreikusmenari buruz erakutsi ditugun iritzi ezberdinak ekartzeko. Iritzi horiek bereiz aurkeztu dira, eta antzinateko gizonetako bati –bere bertute eta zientziagatik ospetsua zenari– egozten zaizkio, [kontakizun] hori, azken buruan, parabola bat izanez gero, edo haiek egiazki horrela mintzo zitezkeen, benetako historia baldin bada. Horrela Jobi egotziriko iritzia Aristotelesenarekin bat dator; Elifazena, gure erlijioarenarekin; Bildaden iritzia *mutazilien* doktrinarekin; azkenik, Sofarrena *'ašari*enarekin.

Horiek Aurreikusmenari buruzko antzinako iritziak dira. Ondoren iritzi berria agertzen da, Elihu-ri egotzia. Horregatik azken hori haiek baino goragotzat jotzen da, eta haien arteko gazteena izan arren, jakinduriaraz gainditzen zituen. Hasteko, Jobi agirika egiten dio, eta ergelkeria aurpegiratzen dio harrokeria erakustegatik eta jo zuten zoritxarregatik harritua zelako, berak ongia besterik egin ez arren, bere eginengatik luzaro harro agertu ondoren. Ondoren, Joben hiru adiskideek Aurreikusmenari buruz darabiltzaten iritziak zaharreriatzat jotzen ditu, eta hitz bereziki misterioetsuez baliatzen da; horrela, irakurlea, haren berbak kontsideraturik, hasieran harritu egiten da eta pentsatzen du, Elifaz, Bildad eta Sofar jada esandakoari ez diotela ezertxo ere ez eransten, eta, aitzitik, haien ideiak beste hitz batzuekin eta garapen handiagoaz errepikatu besterik ez duela egiten. Izan ere, Jobi errieta besterik ez dio egiten, Jainkoaren justizia eta unibertsoaren gauza miresgarriak azaldu eta esaten dio Jainkoari (gorets bedi!) ez diotela erasaten ez gizaki fededunaren bertuteak ez eta fedegabearen bekatuak ere; baina gauza horiek guztiak jada erranak zituzten Joben adiskideek. Halere, horretaz hausnartuz, eskaintzen duen ideia berria ulertuko duzu, haren asmoa zena, haietako inork aurretik adierazi gabea. Baina ideia horrekin haiek erran zuten guztia errepikatzen du, haiek guztiek, Jobek eta beronen adiskideek, bakoitzak besteek adieraziriko ideia errepikatzen duten bezala, jada erran dizudanez; eta horren helburua haietako bakoitzaren iritziak daukan berezitasuna estaltzea da, horrela jende arruntari irudi dakion guztiak iritzi bakar

eta berean bat datozela, horrela izan ez arren. Elihuk eransten duen ideia eta haietako inork ordura arte adierazi ez zuena, berak, alegoriaz, aingeru baten bitartez aurkezten du. Berak dioenez, gauza frogatua eta ongi jakina da gizaki bat gaixorik, hilzorian, egoera larrian, aurkitzen denean, baldin aingeru bat badu, edonolakoa izanik ere, haren alde egiten duena, beronen bitartekotasuna aintzat hartua izanen da, eria sendatu eta salbatuko da, eta egoerarik hoberenera itzuliko. Halere, horrek ezin dezake beti iraun, eta hor ezin daiteke etengabeko bitartekotasunik egon, betiko, bi edo hiru aldiz baizik. Honela dio: «Baina aingeru bat aurkitzen badu beretzat, bitartekari bat...» (33, 23); eta suspertzen ari denaren aurreranzko egoera eta osasun onera itzultzeak dakarkion poza azaldu eta gero, hau eransten du: «Hau dena bi aldiz, hiru aldiz egiten du Jainkoak gizakiarentzat» (*ibid.* 29. bert.). Hor ideia bat datza, Elihuk ez bestek adierazia, baina, bestaldetik, ideia hori [adierazi] baino lehen, hau eransten du iradokizun profetikoa nola heltzen den adieraziz, dioela: «Jainkoa behin eta birritan mintzo da, baina jendeak ez du jaramonik egiten. Ametsetan, gau-ikuspenetan, gizakia lozorroan geratzen denean...» (*ibid.* 14-15. bert.). Ondoren iritzi hori berresten du, eta hori nola ulertu behar den erakusteko, fenomeno fisiko sail bat azaltzen ditu, esaterako, ostotsa, tximista, euria, haize-boladak. Hor izaki biziei buruzko anitz gauza tartekatzen ditu, adibidez, izurriteaz mintzatuz: «Bat-batean hiltzen dira gau erdian...» (34,20), lehertzen diren gerra handiak : «Itaunketa beharrik gabe birrintzen ditu handikiak, eta beste batzuk jartzen haien lekuan» (*ibid.* 24. bert.), eta antzeko beste gauza asko.

Era berean, Jobi heldu zitzaion goi-agerpenean, zeinen bidez harentzat argi gelditu baitzen irudikatu zitzaion guztian oker zegoela, etengabeki gauza fisikoak deskribatu besterik ez da egiten, direla elementuak, direla meteorokoak, dela animalien espezie ezberdinen izaera, eta ez besterik. Hor eter aldeko eskualdeak, zeruetakoak, Orioneakoak eta Pleiadeetakoak aipatzen dira, gure atmosferan duten eraginagatik, Jainkoak Joben arreta Ilargipeko munduko objektuen gainean besterik erakartzen ez duelako. Horretara, Elihuk ere bere oharra animalia-espezie ezberdinez egiten ditu: «Berak –dio– lurreko animalien bitartez irakasten digu, eta zeruko hegaztien bidez zuhur bihurtzen gaitu» (35,11). Mintzaldi horretan, batez ere Leviatan deskribatzen luzatzen da, ibili, igeri eta hegan egiten duten animalien

askotariko gorputz-ezaugarrien konbinazioa dena. Gauza horien bidez erran nahi da gure adimenak ez direla heltzen jaiotze- eta usteltze-mundu honetako gauza fisiko horiek nola sortu diren ulertzera, ez eta haiengan den indar fisikoaren jatorria zein den bururatzerara ere. Horiek ez dira geuk egiten ditugun gauzen antzekoak; eta nola ezar genezake konparaziorik Jainkoak (gorets bedi!) horiek gobernatzen eta zaintzen dituen moduaren eta guk geure gobernu eta ardurapean jarri dena gobernatzen eta jagoten dugun moduaren artean? Izan ere, komeni da puntu honetan gelditu eta Jainkoari ez zaiola ezer ezkutatzeko sinestea, Elihuk dioenez: «Haren begiak gizakiaren bidean gainean jarriak daudelako eta haren urrats guztiak ikusten. Ez dago ilunperik, ez itzal edo gerizperik gaizkileen gordeleku izan daitekeenik» (34, 21-22). Baina Jainkoaren Aurreikusmenaren ideia ez da gure aurreikusmenarena bezalakoa, eta Berak sorraraziriko gauzen gobernuaren ideia ez da guk darabilgun gobernuarena bezalakoa; bi gauza horiek ez dira definizio berean sartzen, alderrai ibiliz uste izaten den bezala, eta, izen berbera salbuetsirik, ez dute zer ikusirik elkarren artean, gure egintzak eta Jainkoarenak antzik ez duten eta definizio bakarrean ezin sar daitezkeen bezala. Eta Naturako obrak artelanak ez bezalakoak direnez, era berean, Jainkoaren gobernu, Aurreikusmena eta asmoa, gauza fisiko horiek objektutzat dituztenak, gure giza gobernu, gure aurreikusmena eta gure asmoa ez bezalakoak dira, berorien objektu diren gauzekiko.

Joben liburuak, bere osotasunean, fedeko artikulua hau ezarri eta gauza fisikoetatik atera daitezkeen frogen gainean arreta erakartzeko xedea du, oker ez zaitezen eta, zeure irudimenean, Jainkoaren jakinduriaren eta gurearen artean konparaziorik jar daitekeela pentsa ez dezazun, edo [sinets ez dezazun] Jainkoaren asmoa, Aurreikusmena eta gobernu gure asmo, gure aurreikusmen eta gure gobernuaren irudikoak direnik. Horretaz ongi jabetuko denak ezbehar guztiak ongi jasanen ditu. Nahigabeek ez diote Jainkoaz dudaraziko, eta [ez dio bere buruari galdetuko] Jainkoak horren berri ba ote duen ala ez, [gizakiaren] ardura daukan ala bazterrean uzten duen; aitzitik, are maitasun handiagoa eraginen diote, agerpen profetiko honen amaieran errana den bezala: «Beraz, damutzen naiz esandakoaz, hauts eta errautsetan eseririk» (42,6), eta doktoreek (bedeinka bedi haien oroitzapena!) adierazten dutenez: «[Beren eginkizunak] Jainkoaren

amoreagatik bete eta oinazeak poztasunez jasaten dituztenak» (Šabbat 88b). Erran berri dudana Tratatu hau irakurtzeak merezi duen arretaz kontsideratzen baduzu, eta ondoren Joben liburua aztertzen, horren zentzua ulertu eta horko ideia guztiak laburki bildu ditudala konturatuko zara, alde batera utzirik estilo-apaindura hutsa eta alegoria biribiltzeko besterik balio ez duena, Tratatu honetan maiz azaldu dizudanez.

75 HOGIITA LAUGARREN KAPITULUA

[Jainkoak igortzen dituen proben balioa, esangura eta helburua]

Proba-ren kontzeptua ere oso iluna da eta erlijioaren zailtasun handienetako bat eratzen du. Legea horretaz sei pasartetan mintzo da, kapitulu honetan erakutsiko dizudanez. Jende arruntek probaren ideia eskuarki ulertzen duten moduaz, hots, Jainkoak gizaki bati, berorrek bekaturik egin gabe, sari handiagoa emateko, zoritxarrak igortzen dizkiola, hori ez da espresuki aipatzen Legearen ezein testutan, eta, Pentateukoaren sei pasarteetan artean ez dago bat besterik, hitzez hitz harturik, horrelako gauza bat sinetsaraz lezakeenik; horren zentzua geroago azalduko dut. Iritzi hori Legeak hastapenez ezartzen duenaren aurka ageri da, errana baita: «Jainko leiala da bera, bidegabekeriarik gabea» (Dt 32,4). Iritzi arrunt hori ez dute, halaber, doktore guztiek onartzen, horien arteko batzuek hau diote eta: «Ez dago bekatu gabeko heriotzarik, ez eta gaztigu gabeko krimenik» (Šabbat 55a). Izan ere, azken iritzi hori da adimena duen gizaki erlijioso orok onartu behar duena, Jainkoari bidegabekeriarik egotzi gabe, eta Zayd (= Uria) bekatu guztietatik garbi dagoela eta gizaki ezin hobea dela sinetsi gabe, heldu zaiona inondik ere merezi ez duena. Erran diren pasarteetan Pentateukoak aipatzen dituen probei dagokienez, horien helburua, itxuraz, esperientzia bat eta inkesta bat egitea da, halako gizakiaren edo halako nazioaren fede-maila jakiteko, edo haren debozio-neurria jakiteko. Baina hortxe datza, hain zuzen, zailtasunik handiena, eta batez ere Isaaken sakrifizioaren historian, Jainkoak eta bi pertsonok besterik ez zekitena, haietako bati hau erran zitzaion eta: «Orain badakit Jainkoaren beldur zarela» (Has 22,12). Eta gauza bera beste pasarte honetan ere: «Izan ere, horrela probatu nahi zaituzte Yhwh-k, zuen Jainkoak, Bera bihotz-bihotzez maite duzuen ikusteko» (Dt 13,4), eta beste pasarte honetan

ere bai: «Zure bihotzeko asmoak ezagutzeko» (*ibid.* 8,2). Orain, baina, zailtasun horiek guztiok argituko dizkizut.

Jakizu, Torah-n proba bat ukitzen den bakoitzean, horrek ez duela beste xede eta helbururik gizakiei zer egin behar duten edo zer sinetsi behar duten jakinaraztea baizik. Beraz, proba, nolabait errateko, halako egintza bat konplitzea da, baina hor ez zaio horrenbeste begiratzen egintza berari, hortik segitzen den eta eredutzat hartu behar den etsenpluari baizik. Horretara, hau dioenean: «Bihotz-bihotzez maite duzuen ikusteko...» (Dt, 13,4), horrek ez du adierazi nahi 'Jainkoak jakin dezan' (gorets bedi!), Berak hori ongi baitzekien, baina beste testu honen antzekoa da: «Jakin dezazuen ni naizela, Yhwh, santifikatzen zaituztedana» (Irt 31, 13). Horren zentzua honako hau da: 'nazioek jakin dezaten', hurrengo honetan bezala (cf. Dt 13, 2): «Baldin agertzen bada gizaki bat bere buruarentzat profezia-dohaina hartzen duena, eta, horren kanpoko seinaleak ikusita, egia dioela sinestarazten badute, orduan jakinen duzue, Jainkoak, horren bidez, nazioei jakinarazi nahi ukan diela zuek Legean noraino sarturik zaudeten, zenbateraino gai zareten Jainkoaren egiazko izaera ulertzeko, ez duzuela utziko inpostore baten gezurkeriak engaina zaitzaten, eta Jainkoarengan duzuen fedea ez dela astindua izan; eta horrek egia bilatzen duten guztiei euskarritzat balioko die, halako moldez non horiek sinesgai aski sendoak bilatuko baitituzte, horien presentzian mirarigileei inolako begirunerik ez egiteko». Izan ere, berorrek ezin daitekeena sinestera bultzatuko luke, baina ez dago mirariaz baliatzerik, zerbait posible aldarrikatzen denean izan ezik, *Mišnèh Tôrah*-n⁵¹ erakutsi genuen bezala. Horretara, bada, לַדַּעַת *le-da'at* esaera 'jakiteko', hor 'gizakiek jakin dezaten' adierazten duenez gero, gauza bera gertatuko da mana-ri buruz ere: «Zu zigortu eta probatzeko, zure bihotzeko asmoak ezagutzeko, eta haren aginduak betetzen dituzun ala ez jakiteko» (Dt 8,2), hau da, jendeek jakin dezaten eta mundu osoan heda dadin Jainkoa (gorets bedi!) gurtzera beren burua ematen dutenek beren elikadura ezusteko moduan jasotzen dutela. Adiera berberean, lehen aldiz manaren erortzeaz mintzatzean, honela erraten da: «Nik proban jar dezadan, ene Legearen arabera ba ote dabilen ala ez jakiteko» (Irt. 16,4), erran nahi baitu, 'bakoitzak hortik ikaskizuna atera dezan eta nork bere burua Jainkoa gurtzera ematea

baliagarria den ikus dezan, eta hori nahikoa den ala ez'. Manari buruz hirugarrenean dioenaz: «Berak, zure arbasoek ezagutu ez zuten mana jaten eman dizu. Probatu egin zaitu, bai, egoera latzean jarritz, baina zure onerako izan da azken batean» (Dt 8,16), pasarte horrek sinetsaraz lezake Jainkoak inoiz gizakia nahigabetzen duela, horrela berorrek, ondoren, are sari handiagoa jaso dezan; baina, egia esateko, ez da inondik ere horrela. Pasarte horrek gehiago ondoko adiera biotako bat adierazten du: 1) Manari buruz lehen eta bigarren pasartean agerturiko ideia errepikatua, hau da, jakin dadin aski den ala ez Jainkoari burua eskaintzea elikadura segur ukaiteko eta lan eta atsekabeetatik babesturik egoteko; eta 2), edo bestela נִסְתָּחָה *nasôtèkâ* hitzak (= 'zu probatuz') hor 'zu ohituz' erran nahi du, beste testu honetan bezala: «[Emakumerik gozo eta atseginenak ere] oinazpia lurrean jartzen probatzeko ere gauza ez zenak...» (*ibid.* 28,56), erran balu bezala: Jainkoak (gorets bedi!) lehenik basamortuan penatzera ohitu zaituzte, horrela [Kanaango] herrira sar zaiteztenean ongizate are handiagoa goza dezazuen; eta hori egia da, atseginagoa baita minetik sosegura iragatea, beti ere soseguan egotea baino. Era berean, gauza jakina da basamortuan miseria eta nekea sufritu ez balituzte, ez zuketela herrialdea konkistatuko, ez eta borrokatuko ere; Torah-k horrelaxe dio: «Jainkoak ez zuen filistindarren lurralderako bidetik eramane, nahiz hura motzena izan, borroka egin beharrean aurkituz gero, jendeak Egiptora itzuli nahi zuela uste baitzuen. Horregatik Itsaso Gorrira daraman basamortuko bidetik itzulia eginarazi zien» (Irt 13,17-18). Izan ere, ongizateak sendotasuna gutxitzen du, baina gabetasunak eta nekeek, ordea, hura handiagotzen, eta horixe da, hain zuzen, pasarte horrek etorkizunerako agintzen diena. Eta beste pasarte honi doakionez: «[Jainkoak herria] probatu nahi du» (Irt 16,4) Deuteronomio 13,4ko esangura bera dauka, jainko faltsu baten izenean profetizatzen duenaz hau erranez: «Horrela probatu nahi zaituzte Yhwh-k, zeuen Jainkoak» (Dt 13,4), horren esangura jada azaldua izanik. Beraz, hor, Sinai mendiko agertokian honela diotse: «Ez beldurrik izan, ikusi duzuen agerkizun harrigarri honek ez baitu beste helbururik: zeuen begiez egiazko sinestea eskuratzea, eta baldin Yhwh-k, zuen Jainkoak zuen fedea agerian gera dadin, entzun duzuen lardaskatzera inbitatuko zintuzketen profeta faltsuren baten bidez probatuko bazintuzte, zuek irmo iraun dezazuen, zalantzan ibili gabe. Izan ere, zuek nahi zenuten bezala,

ni zuengana profetatzat agertu banintz, eta erran zitzaidekeena zuei helarazi, zeuek [pertsonan hura] entzun gabe, gerta liteke beste batek kontatuko lizukeena ere egiatzat ematea, neronek esandakoa ezabatzeraz etorri arren, ikuskari horretan hori zeuek zuzenik entzuna ez zenuketelako».

Abraham gure aitaren historiaz den bezainbatean, Isaaken sakrifizioari dagokiola, horrek bi ideia handi dauzka barruan, erlijioan funtsezkoak. Lehena Jainkoarenganako maitasunak eta beldurak noraino heldu behar duten jakinaraztea da. Agindu zitzaion [Abrahami] aberastasunen eta bizitzaren sakrifizioarekin ere ezin konpara daitekeen gauza bat; hori munduan gerta daitekeen gauzarik neurritz gainekeena, giza izaerak onar dezakeenik ezin sinestekoa. Pentsa ezazue haurrik gabeko gizon bat, umeak ukaiteko gogo bizi-biziarekin, ondasun handiak dauzkana, eta estimua ere bai, bere leinua nazio bat bilaka dadin irrikaz: seme bat baldin badu, halakorik izateko esperantza galdu ondian, zer maitasun, zer-nolako grina ez du seme horrengana ukanen!

Halere, Jainkoaren beldur eta Haren agindua obeditu nahirik, jaramon gutxi egiten dio seme maite horri, berorrengandik espero zuen guztiari uko egin eta, zenbait egunetako bidaia egin ondian immolatzeko prest da. Eta, izan ere, hori agindua jaso zuen une berean egiteko lana izan balitz, buru-nahaste eta presakeriazko egintza izan zitekeen; baina horrelako gauza bat agindua jaso eta egun batzuk geroago burutzea besterik zen; egintza horrek [luzaro] pentsatzea eta gogoeta heldua eskatzen zuen, Jainkoaren aginduak merezi zuen errespetua, Jainkoarenganako maitasunaz eta beldurraz gainera. Ez da beste zirkunstantziak izan zirenik uste izan behar, ez eta beste inolako inpresiorik ere; izan ere, gure aita Abraham ez zen abiatu Isaak sakrifikatzeraz, Jainkoak, bestela, hilaraziko zuela edo bedurrez ez ote zuen behartsu bihurtuko, hilkorren betebeharrak Jainkoa maitatu eta Haren beldur izatea delako baizik, sariak jasotzeko esperantzak eta zigor-beldur oro alde batera utzirik, hainbat tokitan azaldu dugun bezala. Beraz, aingeruak baldin badiotso: «Orain badakit Jainkoari begirune diozula» (Has 22,12), erran nahi baita: egintza honek, zeinengatik «Jainkoaren beldurpekoa», gizakien artean nagusia, deitua izanen zaren, gizaki hilkor guztiei erakutsiko die Jainkoaren beldurak norainokoa izan behar duen. Jakiteko duzu

ideia hori Torah-n erakutsia eta berretsia izan dela, eta, hor ezartzen denez, Legearen osotasunak, horren baiezko eta ezezko aginduek, promesek eta kontakizunek xede bakarra dutela, hots, Jainkoaren beldurra (gorets bedi!). Hona hemen testua: «Liburu honetan izkiriatuak dauden xedapen guztiak arretaz betetzen ez badituzu, eta izen ospetsu eta beldurgarria duen zuen Jainkoari begirunerik ez badiozu...»(Dt 28,58). Hori da Isaaken sakrifizioa(ren kontakizunea)n gogoan izan diren ideia bietako bat.

Bigarren ideia haxe da: Jainkoaren aldetik goi-agerpenak dakarkiena profetek egiazkotzat hartu behar dutela, ez baita pentsatu behar, halako goi-agerpena jasotzean, ametsetan zein ikuspenean, eta irudimenaren bitartez, hortik segitzen denik profetek entzundakoa edo parabola batean aurkeztu zaiena gerta daitekeela egiazkoa ez izatea, edo, gutxienez, hor zalantzazko zerbait tartekaturik egotea. Hortaz, jakinarazi nahi zaigu profetak ikuspen profetikoan ikusi duen oro berarentzat egiazkoa eta erreala dela, ez duela horretaz guztiaz inolako zalantzarik, eta zentzuen edo adimenaren bidez hautemaniko gauza erreal guztiak bezala kontsideratzen duela. Horren frogatzat, Abraham presaka abiatzen da «hain maite zuen seme bakarra» sakrifikatzerara (Has 22,2), agindu zitzaionez, agindu hori amets batean edo ikuspen batean heldua zitzaion arren. Baina amets profetikoa profetentzat iluna izan balitz, ikuspen profetikoan hautematen zutenaz zenbait zalantza edo ezbai gelditu balitzaie, ez ziratekeen abiatuko giza izaerari higuina ematen diona presaka betetzera, eta Abrahamek ez zukeen onetsiko, zalantzan zelarik, hain larritasun handiko egintza hori konplitzea.

Egia esan, komeni zen gertaera hori, hau da, aipaturiko sakrifizioa, Abraham bezalako gizon baten bitartez heltzea, eta Isaak bezalako gizon batekin, gure aita Abraham Jainkoaren batasuna jakinarazten aritu zen lehena izan baitzen, eta profetismoa ezartzen, horrela sineste hori iraunarazi eta gizakiak horra erakartzen, erra den bezala: «Berau hautatu dut bere seme-alabei eta etxekoei Yhwh-ren arabera bizitzen irakasteko, on eta zuzena dena eginez» (Has 18,19). Eta harengandik jasoriko iritzi egiazko eta probetxuzkoei jarraikitzen zitzaizkien moduan, era berean, haren eginetatik segitzen ziren iritziei atxikitzen zieten, eta batez ere profeziaren egiaren oinarritzko hastapena sendotzera etorri zen egintza horri, eta horren bidez Jainkoaren beldurrak eta maitasunak noraino heldu behar duten jakinarazi zigun.

Horrelakoak dira probez eduki behar diren ideiak, eta ez da sinetsi behar Jainkoak gauza bat probatu eta esperimentatu nahi duela, horrela lehenagotik ez zekiena jakiteko. Bera askoz gorago baita, gizaki ezjakin eta ergel horiek beren pentsamendu gaiztoetan uste dutena baino! Horretan sakondu beharra duzu.

כח HOGEITA BOSGARREN KAPITULUA

[Gizakiaren eta Jainkoaren egiteak; funtsezko ezberdintasuna]

Egintzak, beren helburuari begira, lau motatan bereizten dira: *zereginik gabekoak*, *arinkeriazkoak*, *alferrekoak* eta *onak* edo *baliagarriak*. *Alferreko egintza* deitua halako helburu baterako betetzen da, baina, halere, ez da hori burutzea lortzen, eragozpen batzuk horren aurka jartzen direlako. Sarritan norbaiti hau erraten entzunen diozu: «Alferrik nekatu naiz», aurkitu ez duen pertsona bat bilatzen nekatu ondoan, edo bidaia nekagarri bat egin denean, merkataritza-tratuan etekinik lortu gabe. Honela ere erraten da: «Eri honengatik gure ardura eta nekea alferrik izan dira», berorrek osasuna berreskuratu ez duenean. Gauza bera gertatzen da helburu bat lortzeko egiten diren egintza guztiekin; *[alferreko] egintzak* deitzen zaie xedea lortzen ez denean. *Zereginik gabeko* egintzak ez du inolako helbururik, jende batzuk, gogoetan ari direnean, beren eskuekin jolasten ari direnean bezala, pertsona arretagabeek eta buruarinek beren keinuekin egin ohi dutenez. Arinkeriazko egintzak garrantzi gabeko xedea du helburu, erran nahi dut, beharrezkoa ez den zerbait eta estimatzeko moduko mesederik ez dakarrena; konparazione, ariketa bera kontuan hartu gabe dantzan diharduenarena, edo barre eragiteko gauzak egiten direnean: bistan da egintza horiei «arinkeriak» irizten zaiela. Baina, horien artean bada alderik, beroriek betetzen dituztenen asmo eta balioen arabera; izan ere, gauza asko pertsona batzuen begietarako beharrezkoak eta oso baliagarriak dira, beste batzuen ustez, horien premiarik izan ez arren. Horretara, kasu, medikuntzan dakitenen begietarako, gorputz-ariketa mota ezberdinak premiazkoak dira osasuna ongi kontserbatzeko, eta, jakintsuen begietarako, izkiriitzea gauza oso baliagarria da. Hortaz, bere osasunari begira, era horretako ariketak egiten dituenak, hala nola pilota-jokoa, esku-borroka, ukabilka-borroka, arnasari eustea, edo, izkiriatze-aldera, kanabera⁵² zorrozten edo papera prestatzen

duenak, ezjakinen begietarako behar ez diren arinkeriak burutzen ditu, baina hori ez da inolako arinkeria jakintsuen begietarako. Egintza ona eta baliagarria helburu noble bat erdiesteko burutzen da, erran nahi dut, beharrezkoa edo mesedegarria, eta helburu hori erdietsarazten du. Sailkapen horren aurka, iruditzen zaidanez, ezin daiteke inolako eragozpenik jar. Izan ere, edonolako egintza burutzen duenak begietan halako xede bat dauka jota, edo ez dauka batere xederik; eta begiz jotako xede hori bai noblea, eta bai garrantzirik gabea izan daiteke, eta erdietsia edo erdietsi gabea gertatu. Beraz, sailkapen hori behar-beharrezkoa da.

Azalpen horren ondoan, nik hau diot: Gizaki adimentsuak ezin erran dezake Jainkoaren edonolako egintza bat alferrekoa, *zereginik* gabekoa edo arinkeriazkoa denik. Moises Gure Maisuaren legearen jarraitzaileon iritziz, Haren egintzak oro onak eta baliagarriak dira, errana den bezala: «Eta egin zuen guztia oso ona zela ikusi zuen Jainkoak (Has 1,31). Beraz, Jainkoak (gorets bedi!) halako xede mugatuaz egiten duen guztia beharrezkoa edo oso baliagarria da begiz jo duen gauza horren existentziarako. Horretara, esaterako, elikadura beharrezkoa du animaliak bere kontserbaziorako, eta begiak horretarako oso baliagarriak dauzka; era berean, elikadurak ez du beste xederik animalia halako denbora batez kontserbatzea baino, eta zentzuen helburu bakarra berauen hautemateek animalari dakarkioten baliagarritasuna besterik ez da. Horixe da, halaber, filosofoen iritzia ere, hau da, gauza fisikoetan ez dela *zereginik* gabeko bat bera ere, hau da, artifiziala ez den guztiak aldean nolabaiteko xedea dakarrela, eta guk xede hori jakitea, edo ez jakitea, axolarik gabekoa dela. Baina, Jainkoak gauza bat beste gauza bati begira ez duela inoiz egiten uste duten pentsatzaileen arteko sekta horren arabera, ez dela ez kausa ez ondoriozik pentsatuz, eta, aitzitik, Jainkoaren egintza guztiak Haren borondate hutsaren ondorio besterik ez direla, ez zaiela helbururik bilatu behar, ez eta galdetu zergatik halako gauza bat egin duen, berak nahi duena egiten baitu, eta hori ez dela Haren jakinduriaren ondorioa, halakoen arabera [diot nik] Jainkoaren egintzak (gorets bedi!) *zereginik* gabeko gauzen kategorian sartuko lirateke, edo, hobeki esan, *zereginik* gabeko gauzen kategoriaren azpian leudeke. Izan ere, halako egintza baten egileak inolako xederik ez duela egia bada ere, gutxienez ez da egiten duenaz arduratzen; baina Jainkoak, haien iritziz, ongi daki zer

egiten duen, eta, halere, hori inolako helbururik gabe egiten du, eta ezertarako baliagarri ez denean ere bai.

Baina Jainkoarengan (gorets bedi!) *arinkeriazko gauzen* kategoriako egintzak gerta daitezkeela, lehen ikuspegitik, ezin onartuzkoa da, eta ez zaio kasurik egin behar tximinoa gizakiaren jostagarri izateko sortua zela baietsi dutenen erokeriari. Horrelako ideiak, sortzearen eta usteltzearen izaera ez jakiteak ekarri ditu, eta oinarritzko hastapen bat ahantzirik izateak, hau da, izan daitezkeen gauza guztiak, guk dakuskitun bezala, Jainkoak asmoz sorrarazi dituela; Haren jakinduriak ez du nahi izan horiek bestelakoak izan zitezela, eta, beraz, hori *ezinezkoa* litzateke, gauzek Haren jakinduriak eskatu zuen bezalakoak izan behar dutelako. Eta Jainkoak, egin duen guztian, ez duela batere xederik ukan diotenei buruz, horiek, nahitaez horra eramanak izan dira izatearen osotasuna beren iritziaren ikuspegitik kontsideratuz; izan ere, munduaren existentziaren xedea, beren osotasunean zein izanen litzatekeen beren buruei galdetuta, nahitaez hau erantzun dute, munduaren berritasunaren aldeko guztiek egiten dutenez: «Horrela izatea nahi ukan du, bestelako arrazoirik gabe». Ondoren, unibertsoaren xehetasun guztiei buruz, arrazoitzeko era honekin segitu dute, eta horretara, adibidez, betseinaren zuloak eta kornearen gardentasunak ikuste-izpirituari iraganarazteko xedea zutela, horrela hautematea gerta dadin, onartu beharrean, aitzitik, ukatu egiten zuten hori ikustearen kausa zela. Mintz hori ez da ikustearen kausaz zulatua izan, ez eta gainean dagoena garden bihurtu ere –zioten–, baina Jainkoak horrelaxe nahi ukan duelako, bestela izan balitz ere ikusterik izan zitekeen arren. Baditugu Bibliako pasarte batzuk, hitzez hitz harturik, lehen begiradan behintzat, antzeko ideia adieraz lezaketenak. Esate baterako, honela errana da: «Yhwh-k nahi duen guztia egiten du» (Sal 135,6); «Zer nahi, hura egiten du» (Job 23,13); eta beste toki batean: «Nork erranen dio: Zer egiten duzu?» (Qoh 8,4). Baina pasarte horren eta antzeko beste batzuen esangura honako hau da: «Jainkoak nahi duena, nahitaez egiten da, eta ezerk ezin dezake eragotz Haren nahia bete dadin. Halere, Jainkoak (gorets bedi!) daitekeena besterik ez du nahi; baina ez, soilik daitekeena, Haren jakinduriak eskatzen duena baizik. Era berean, Jainkoak egin nahi duen lan absolutuki ona ezin dezake ezein ere oztopok geldiaraz, eta ezerk ezin du hura eragotzi. Hori da teologo oren eta filosofoen iritzia, eta

gurea ere bai; izan ere, mundua sorrarazia izan dela sinesten dugun arren, gure doktore eta jakintsu guztiek ontzat ematen dute egintza hori ez dela gertatu Jainkoaren borondate bakarragatik; baina hau diote, Jainkoaren jakinduriak, guk ezin uler dezakegunak, unibertso oso honen existentziaren beharra ukan duela, berau existentziara heldu zen unean, eta jakinduria aldagabe horrek ezereza behar ukan zuela munduak existitu baino lehen. Ideia hori doktoreengan maiz errepikaturik aurkituko duzu, esaterako pasarte honen azalpenean: «Gauza guztiak egoki egin ditu bakoitza bere sasoian» (Qoh 3,11)⁵³. Horrekin guztiarekin saihestu nahi zen, izan ere, saihestea komeni dena, hots, eragileak (hau da, Jainkoak) egintza bat burutu ahal zuela [onartzea], ikusmenean edonolako helbururik ukan gabe. Hori da gure Legearen Doktoreen sinestea, eta gure profetek aldarrikatu dutena ere bai, hots, Naturaren egintzak, beren xehetasun txikienetara ere, zuhurki arautuak eta batzuk besteekin loturik daudela, horiek guztiok [batzuk besteen] kausak eta ondorioak direla, horietako bat bera ere ez dela zereginik gabea, ez arinkeriazkoa, ez alferrekoa; aitzitik, jakinduria hobeinezko egintzak direla, erran den bezala: «Bai ugariak, Yhwh, zuk eginak! Guztiak jakinduriaz egin dituzu» (Sal 104,24); eta beste leku honetan: «Haren lan guztia egiaren arabera» (*ibid.* 33,4) eta honetan ere bai: «Yhwh-k jakinduriaz oinarritu zuen Lurra» (EsZah 3,19). Horrelako adierazpenak ugariak dira, eta aurkako iritzia ezin daiteke ontzat eman. Espekulazio filosofikoak berak ere erabakia du Naturaren obra guztietan ez dagoela deus zereginik gabea, ez arinkeriazkoa ez alferrekorik ere, eta are arrazoi handiagoaz zeruko esferen naturan, horiek, beren materia noblearengatik, are sendoago eta ordenatuagoak direlako.

Jakin behar da azken kausaren ikerketetan horrenbeste alderraitasun ekarri duten iritzi oker gehienek, dela unibertsoaren multzoaz, dela horren atal bakoitzaz ere, ez dutela beste iturririk hauek baino: alde batetik, gizakiak bere buruaz daukan iritzi okerra, unibertso osoa berarentzat besterik ez dela existitzen uste baitu, eta, beste aldetik, bai beheko materia horri buruz eta bai Sortzailearen lehen helburuari buruz ere, existi zitekeen guztia existiaraztea alegia, existitzea zalantzarik gabeko ongia baita. Horrelako okerretik eta gauza bi horiek ez jakitetik sortzen dira dudak eta alderraitasuna, eta horren kariaz iruditzen zaie Jainkoaren egintzen artean (gorets bedi!) badirela

arinkeriazkoak, *zereginik gabeak* edo alferrekoak. Jakizu absurdokeria horretara etsi zutenek, halako moldez non, horientzat Jainkoaren egintzak *zereginik gabeen* parekoak diren, hots, batere xederik gabeak, horrekin ekidin nahi ukan dutela horiek jakinduria baten menekoak zirela onartu beharra, horrek munduaren betierekotasuna onartzera ez ote zituen eramanen beldurrez; beraz, iritzi horri atea itxi diote. Baina jada jakinarazi dizut horri buruz gure Legearen iritzia zein den, eta iritzi hori dela, hain zuzen, onetsi behar dena. Izan ere, guk ez diogu inolako absurdorik egintza horien guztion izatea eta ez izatea Jainkoaren jakinduriapean (gorets bedi!) daudelako iritzia eusten diogulako; baina maiz ez dugu jakiten jakinduria hori Haren eginetan nola ageri den. Iritzi horrexetan datza, hain zuzen, Moises gure Maisuaren Lege osoa. Hasieran honela dio: «Eta egin zuen guztia oso ona zela ikusi zuen Jainkoak (Has 1,31), eta azken aldean haxe dakar: «Bera da Harkaitza! Hark egina benetan bikaina» (Dt 32,4). Honetan ongi sakondu behar duzu. Doktrina hori aztertzen baduzu, bai eta filosofoen iritzia ere, Tratatu honetako aurreko kapitulu guztiak ikertuz, gai horri dagozkionak, haxe aurkituko duzu: iritzi biak ez direla elkarrengandik aldentzen unibertsoaren xehetasun txikienetako batean ere. Kausituko duzun ezberdintasun bakarra guk jada lehen azaldua da, hau da, haien [= filosofoen] ustez mundua betierekoa da, baina, gure aburuz, ordea, sorrarazia. Ongi uler ezazu hau.

HOGEITA SEIGARREN KAPITULUA

[Jainkoaren Legeko hamar aginduak Jainkoaren Jakinduriaren eta nahimenaren adierazle]

Jainkoaren egintzak (gorets bedi!) Haren jakinduriaren menekoak ala Haren borondate hutsaren menekoak ote diren, inondik ere helbururik ukan gabe, Teologo espekulatiboak bat ez datozen bezala, era berean ezberdin pentsatzen dute Hark agindu dizkigun legeak kontsideratzeko moduan ere. Izan ere, badira lege horiei inolako arrazoirik egozten ez dietenak, lege guztiak [Jainko] aren borondate hutsaren menean daudela erranez; baina badira beste batzuk, aldiz, agindurik edo galarazirik dagoen guztia Jainkoaren jakinduriaren menean eta nolabaiteko helburura begira dagoela uste dutenak, lege guztiek beren arrazoia dutela eta nola edo halako

baliagarritasunagatik ezarriak izan direla. Halere, gu [israeldarrok], gizaki arruntak zein jakintsuak izan, guztiok arrazoi bana dutela sinesten dugu, baina neurri batez arrazoiok ez dakizkigula, horiek Jainkoaren Jakinduriarekin bat zertan datozen jakin gabe. Eskriturako pasarteek argiro diote: «Lege eta erabaki zuzenak» (Dt 4,8); «Yhwh-en erabakiak egiazkoak dira; guzti-guztiak bidezkoak» (Sal 19,10). חֻקִּים *ḥuqqîm* deritzen estatutu edo araubideak, adibidez, osagai ezberdinez eginiko oihalei, esnetan egosiriko haragiari, aker mezulariari buruzkoak eta doktoreek (bedeinkatua izan bedi haien oroitzapena!) honela hitz egin dutenak: «Agindu dizkizudan gauzak, horien ganean gogoeta egitea zilegi ez zaizula, Satanek kritikatzan eta jentilek ezeztatzen dituztenak» (*Yômā* 67b). Araubide horiek doktoreek, oro har, ez dituzte inola ere arrazoirik gabeko gauzatatz hartzen, helbururik bilatu beharko ez balitzaie bezala, izan ere, horrek jada erran dugunez, [Jainkoari] *zereginik gabeko* egintzak egoztera eramango gintuzke eta. Aitzitik, doktore guztiek sinesten dute [araubide horiek] nahitaez arrazoiaren bat daukatela, erran nahi baitut baliagarritasunezko helbururen bat; baina arrazoi hori joan egiten zaigu, gure adimenaren ahulezia edo ikasterik ezagatik. Haien ustez, beraz, manamendu guztiek beren arrazoiak dute, hau da, agindu edo galarazpen bakoitzak arrazoi bana du. Batzuetan baliagarritasun hori begien bistakoa dugu, hiltzeko edo ebasteko galarazpena bezala; beste batzuetan baliagarritasuna ez da hain ageria, hala nola, arbolen lehen fruituak erabiltzea edo mahastia [beste arbola batzuekin] nahastea galarazten denean. Mundu guztia rentzat probetxu nabarmena dakarten aginduei מִשְׁפָּטִים *mišpāṭîm* deritze (= ‘epaiak, legeak, arauak’), eta eskuarki hain erabilgarritasun nabarmena ez duten gainerakoei, aldiz, חֻקִּים *ḥuqqîm*, hots, ‘estatutu’ edo ‘araubideak’. Maiz honela erraten dute: «Ez baita alferreko gauza zuentzat» (Dt 32,47), eta, alferrekoa bada, zuen aldetik izanen da; erran nahi baita: Legeria hau ez da alferreko gauza bat, helburu probetxugarriarik gabea, eta agindu batzuei buruz halakoa dela iruditzen bazaizue, hori zuen ulermenaren errua da. Zuk badakizu gure artean hain hedaturik dagoen tradizio hori, hau da, Salomonek bazekiela agindu guztien arrazoiak, «behi gorria»ri buruzkoak salbu; eta doktoreek horretaz uste zutena ere bai, hau da, Jainkoak aginduen arrazoiak ezkutatu zuela, horrela konplitu gabe gera ez zitezen, Salomoni arrazoi bereziki adierazia duten hiru aginduekin gertatu zitzaionez⁵⁴.

Hastapen hori beren mintzaldi guztietan etengabeki aldarrikatzen dute, eta liburu sakratuen testuek ere berdintsu erakusten dute. Halere, *Berēšīt Rabbāh*-n (44) honako pasarte hau aurkitu dut eta, lehen begiradan, badirudi erran nahi duela agindu batzuek zerbait manatzea beste arrazoirik ez zutela, bestelako xederik ez egiazko baliagarritasunik gabe. Hona hemen dioena: «Zer ardura dio Guztiz Santuari animaliei burua lepotik moztea ala garondotik egitea?». Beraz hortik atera dezakegu aginduek ez dutela beste helbururik gizakiak garbitzea baizik, errana den bezala: «Yhwh-ren hitza garbitzailea da» (Sal 18,31). Berba horiek aski bitxiak diren arren eta doktoreak beste inon horrela mintzatu ez badira ere, nik neuk, entzunen duzunez, honela ulertarazi ditut, berek etengabeki aldarrikatu duten doktrina bazterrean utzi gabe eta guztiok akort gaudeneko hastapenetik urrundu gabe, hots, agindu guztiek badutela helburu benetan mesedegarria: «Ez baita alferreko gauza zuentzat» (Dt 32,47), eta beste leku batean erraten denez: «Ez naiz mintzatu ezkutuan, lur-zoko ilunen batean; ez diet esan Jakob en ondorengoei: Bila nazazue ezerez hutsean, Ni Yhwh naiz, zuzen dena iragarri eta bidezkoa adierazten dudana» (Is 45,19).

Arrazoimen zuzeneko gizaki orok horri buruz sinetsi behar duena oraintxe erranen dut: aginduen xedapen orokorrek badute, nahitaez, beren arrazoia, eta halako mesede bati buruz agindu izan dira; baina bana-banako xedapen bereziek, ordea, erran denez, ez dute beste helbururik zerbait agintzea ez bada. Horrela, konparazione, ongi elikatzeke premiagatik animaliak hiltzeko agindua begien bistako baliagarritasuna dauka, erakutsiko dugunez⁵⁵. Baina erraten baldin bada lepoa moztu behar zaiela samaren goialdetik eta ez behealdetik⁵⁶, eta hestegorria eta eztarria halako toki berezitik ebaki behar zaiela, xedapen horiek eta antzeko beste batzuek ez dute beste helbururik gizakiak araztekoa baizik. Horrela argi gertatuko zaizu haien adierazteko eratik, «burua lepotik edo garondotik moztea»-ri buruz. Izan ere, etsenplu hori aipatu dizut doktoreen pasartean hitz hauek irakurtzen direlako: «Burua lepotik edo garondotik motz dakiela»; baina arazoari ongi begiratzen bazaio, hona hemen zertan datzan: Animalien haragitik elikatu beharra dagoenez, nahi izan da heriotzarik lasterrean eman eta, aldi berean, hori erarik erraztenetik lortzea –burua mozteko, ezpata bat edo antzeko tresna bat beharko litzatekeelako, baina samatik hiltzeko, ordea, edozerekin hil daiteke eta– eta heriotza

errazago ekartzeko ganibeta ongi zorrotza izateko baldintza jarri da. Bana-banako xedapenen adibide are zehatzago bat oparian ageri da. Izan ere, opariak eskaintzeko aginduak baliagarritasun handia dauka, azalduko dizudanez⁵⁷. Baina, opagaia bildotsa edo aharia izatea, eta opagaien kopurua honenbestekoa izatea, inoiz ezin azalduzko gauzak dirateke. Ene ustez, xehetasunezko xedapen horietako batzuen arrazoiak bilatzen arduratzen diren guztiek erokeria nabarmena erakusten dute, eta horrekin haien absurdokeria baztertu beharrean, hori handitu besterik ez dute egiten. Halaber, xehetasun horiek arrazoiez azal daitezkeela uste duena, agindu orokorrak egiazko baliagarritasunik ez duela pentsatzen duena bezain urrun aurkitzen da egiatik.

Kontuan izan behar da Jainkoaren Jakinduriak nahi ukan duela –edo, horrela nahiago baduzu, beharrianak hala eskatu duela erranen duzu–, izan zitezela xehetasunezko xedapen horiek, horien arrazoia ezin azalduzkoa izan arren, eta, neurri batez, halabeharrezkoa zen Legean era horretako gauzak izatea. Eta halabeharrezkoa diot, zeren galdetuko bazenu, esaterako, zergatik [eskaini behar zen] bildots bat eta ez, adibidez, ahari bat, galdera berbera egin zitekeen aharia erran balitz bildotsaren orde, nolako edo halako abere mota behar zen eta. Era berean, galdetuko bazenu ea zergatik zazpi bildots, eta ez zortzi, galde berbera egin liteke baldin zortzi, edo hamar, edo hoge erran balitz, nolanahi ere edonolako kopurua behar zen eta. Horrek, nolabait, daitekeenaren izaeraren antza du, hor nahitaezkoa baita daitekeen gauzen artean bat gertatzea, eta ez dago zertan galdetu zergatik gauza hori izan den halako beste baten lekuan; izan ere, horren orde, izan zitekeen beste edozein gauza izan balitz, galdera hori berdin egin litekeelako. Ideia honetan ongi sakondu beharra dugu. Eta doktoreek maiz erraten dutenean agindu orok bere arrazoiak dituela, eta, era berean, Salomonek arrazoi horiek bazekizkiela, halako aginduaren baliagarritasunaz ari dira, hura bere orokortasunean harturik, eta ez haren xehetasun guztiak banan-banan kontsideraturik.

Gauzak horrela, pentsatu dut seiehun eta hamahiru aginduak zenbait sailetan banatzea, eta sail bakoitzean era bereko edo, gutxienez, elkarren antzeko agindu kopuru bana jartzea. Sail horietako bakoitzaren arrazoia jakinaraziko dizut, horrek dudagabeko eta ezin erantzunezko baliagarritasuna duela erakutsiz. Ondoren, sail horrek besarkatzen dituen aginduetako bakoitzaren gainera itzuli eta horren arrazoia

azalduko dizut, eta horrela agindu kopuru txiki bat besterik ez da geldituko, horien motiboa, orain arte, ez dakidana. Era berean, agindu batzuei doazkien xedapen bereziak eta baldintzak azaltzea lortu dut, horien arrazoia ematea posible denean. Hori guztiori geroago ikusiko duzu. Baina [aginduen] motibo horiek guztiok ezingo dizkizut azaldu, lehenik zenbait kapitulu eman gabe, ikusmiran dudan gaia prestatzeko aurretiko baliagarriekin. Hastera noa, bada, kapitulu horiek.

𐤇 HOGEITA ZAZPIGARREN KAPITULUA

*[Legearen xede orokorra bai gorputzari
eta bai izpirituari dagokienenean]*

Torah-ren multzoak, bere osotasunean, helburutzat bi gauza ditu, hau da, arimaren eta gorputzaren ongizatea. Arimaren ongitasunari doakionez, gizaki guztiek, zeinek bere gaitasunen arabera, oinarritzat ideia zuzenak ukan behar dituzte lehenik. Horri buruz Eskritura bai hitz argiekin eta bai alegorien bidez mintzo da, ez baitago gizaki arruntentzako helmenean horrelako gai bat bere benetako errealitatean ulertu ahal izateko gaitasuna edukitzerik. Eta gorputzaren ongizateaz den bezainbatean, hori gizakiak elkarrekin bizitzeko modua hobetuz lortzen da, eta ondorio horretara bide biotatik heltzen da: *lehenengo eta behin*, gizaki batzuek besteekin darabilten indarkeria desagerraraziz, halako moldez non gizabanakoak ezingo duen bere gogara eta daukan boterearen arabera jardun, baina guztientzat baliagarria dena egitera beharturik; *bigarrenik*, banako bakoitzari gizarte-bizitzarako ohitura probetxugarriak eskuraraziz, horrela gizarte osoaren interesak ongi arautuak izan daitezten.

Jakin behar da [Legearen] bi helburu hauetatik lehenengoa, ez bairik gabe, maila goragokoa dela, hau da, arimaren ongizatea, edo ideia zuzenak erdiestea. Baina bigarrena aurretik da naturaren eta denboraren ordenan; hori gorputzaren ongizatea da, eta gizartearen ongi gobernaturia izatea eta bera osatzen duten banako guztien egoera ahalik eta gehien hobetzea du helburu. Bigarren xede hau premiazkoagoa da, eta xehetasun guztiekin azalduz gelditu da, ez baitago lehenengoa lortzerik, aurretik bigarren hau erdiesten ez bada. Izan ere, frogatu izan denez, gizakiak hobekuntza bikoitza eskura dezake, hau da, lehen

hobekuntza, gorputzarena, eta azken hobekuntza, arimarena, alegia. Lehenengoa osasun ezin hobe edukitzea da gorputzaren osotasunean, eta hori ezin erdiets daiteke, beti, bilatzen denean, premiazkoa aurkituz ez bada, hots, elikagaiak eta gorputzaren erregimenari dagozkion gauza guztiak, hala nola jantzia, bainua, etab. Gizaki bakar eta isolatuak ezin lezake helburu hori erdiets, eta banakoa ezin daiteke horraino hel gizartean elkarturik ez bada, esaera jakina baita gizakia, bere izaeraz, izaki taldekoa dela. Bigarren hobekuntza [gizakia] egitez arrazionala bilakatzea da, hau da, adimena egitez edukitzea, eta bigarren hobekuntza horren bitartez, existitzen den guztiaz gizakiak eduki dezakeen ezaguera edukitzea. Begien bistan dago bigarren hobekuntza honetan ez daudela egintzak ez eta portaera ere, ideia hutsak baizik, gu horietara espekulazioak eramanez izanik, gogoetaren ondorioaz. Garbi dago, halaber, ezin hel daitekeela azken hobekuntza goren honetara lehenengoa erdietsi ondoan baizik; izan ere, ezinezkoa baita, minak, goseak, egarriak, beroak edo hotzak tormentaturik dagoen gizakia inolako ideiarik jaso eta ulertzeko eran egotea. Are arrazoi handiagoarekin, nola sor litzake [egoera horretan ideia horiek] bere kabuz sortzea? Baina, behin lehen hobekuntzara helduz gero, bigarrenera ere hel daiteke, eta berori, duarik gabe, nobleagoa da, gizakia soilki berari esker baita hilezin.

Egiazko Legea, lehenago erran dugunez, bakarra dena⁵⁸, erran nahi baitut, Moises Gure Maisuaren Legea, ez zaigu eman hobekuntza bikoitz hori lortzeko baizik: alde batetik, gizakien arteko harremanak arautzen ditu, haien baitan elkarrekiko indarkeria etenaraziz eta eskuzabaltasunaren eta ohitura nobleen bitartez haiek leunduz, horrela lurtarrak ugaltu ahal izan daitezen, beren artean harreman egonkorrak ezar daitezen, eta horrela gizabanako bakoitza lehen hobekuntzara heldu ahal izateko; beste aldetik, sineskerak hobetzen eta ideia zuzenak sorrarazten ditu, horien bitartez azken hobekuntzara iristeko. Eskriturako testua batz eta besteaz mintzo da, eta Lege osoaren helburua bi hobekuntza horietara heltzea dela irakasten digu. Hor honela erran da: «Yhwh-k agindu digu lege horiek guztiak eginetan jar ditzagun, Yhwh, gure Jainkoaren beldur izateko, beti zoriontsuak izan gaitezen eta Hark bizia kontserba diezagun» (Dt 6,24). Hor, batez ere, azken hobekuntzaz mintzo da, hori nobleena delako, jada erran dugun bezala, hori azken helburua delako. Hori hitz hauekin

adierazten da: «Beti zoriontsuak izan gaitezen»; izan ere, zerorrek dakizunez, doktoreek (bedeinka bedi haien oroitzapena!) Eskriturako berba horiek «Zoriontsu izan eta luzaro bizi zaitezen» (*ibid.* 22, 7) honela azaltzen dituzte: «Zoriontasun osoko munduan zoriontsu izan zaitezen, eta luzaro bizi zaitezen betiko iraunen duen munduan» (*Qidduṣīn* 39b). Era berean, gure pasarte honetan «Beti zoriontsuak izan gaitezen» hitzek ideia berbera adierazten dute erabat, hau da, zoriontasun eta egonkortasun osoko mundura iristea, erran nahi baita, betiko iraunkortasunera (= hilezintasunera), baina beste hitzok, «eta Hark bizia kontserba diezagun» gorputzezko lehengo bizitzari buruzkoak dira, denbora batez dirauenaz, eta horren ordena bikaina gizarte-elkartearen bidez baizik ezin ezar daiteke, erakutsia dugun bezala.

כ הOGEITA ZORTZIGARREN KAPITULUA

[Legea eta egia metafisikoak;

Jainkoaren maitasunean nola integratzen diren]

Zure arreta gauza baten gainera erakarri beharra dago: azken hobekuntzara garamatzaten egia metafisikoak direla eta, Legeak ez digu puntu garrantzitsuenak besterik jakinarazi, oro har hori sinestera gonbidatuz. Puntu horiek honako hauek dira: Jainkoaren existentzia (gorets bedi!), Haren batasuna, Haren zientzia, Haren ahalmena, Haren borondatea eta Haren betierekotasuna. Ideia horiek guztiok [zientziaren] azken helburuak dira, eta ezin daitezke xehetasunez eta garbiro uler, ez bada beste ideia asko jakin eta gero. Legeak, halaber, gizartearen antolakuntza onerako zenbait gauza sinestera ere bultzatzen gaitu, esate baterako, Jainkoa (gorets bedi!) desobeditzen diotenen aurka txit haserre jartzen delako sineskera, eta hori dela eta Haren beldur izan eta errespetatu behar dela, Bera desobeditzetik urrunduz. Maila metafisikoko beste egiei dagokienez, zeintzuetan zientzia espekulatiboak oinarritzen diren, eta azken helburua eratzen duten kontzeptuetarako eustazpirako balio duten, Legeak, horiek, besteak aldarrikatu dituen argiro aldarrikatu gabe ere, berba hauetan laburbildu ditu; «Yhwh maitatzeko». Eta badakizu maitasun hori nolako oldarraz adierazten den: «Zeure bihotz osoaz, zeure arima osoaz eta zeure ahalmen guztiekin» (Dt 6,5). Jada *Mišnèh Tôrāh*-n erakutsia

dugu maitasun hori ezin gerta daitekeela izate osoaren ezaguera sakon eta egiazkoaren bitartez eta hor ageri den Jainkoaren Jakinduriaren kontenplazioaren bidez besterik, eta gai honetan doktoreek erakutsiko interesa ere nabarmendu dugu.

Gai honetaz orain arte erran dugun guztitik ondorio hau ateratzen da: agindu batek, baiezkoa zein ezezkoa izan, helburu hauetako bat daukanean, hots, elkarrekiko indarkeria etenaraztea, edo gizarte harreman onetara daramaten ohitura onak sarraraztea, edo onartu beharreko ideia egiazko bat iradokitzea, dela beragatik, dela indarkeria eteteko premiazkoa delako, edo ohitura onak eskuratzeko ezinbestekoa delako, agindu horrek arrazoi nabarmena eta onura ageria dauzka, eta ez da zertan galdetu horren xedea zein den. Izan ere, ez da inoiz inor hain alderrai aurkitu Jainkoa bat dela sinestea zergatik manatu zaigun galdetzeko punturaino, edo zergatik debekatu digun inor hiltzea eta ebastea, edo zergatik galarazi digun mendekua eta talioa egitea, edo zergatik manatu digun elkar maitatzea. Baina gizakiak nahastu eta jendeak alderrai jarri dituzten aginduak, horiez askotariko iritziak sorraraziz –horrela pertsona batzuek [agindu] horiek, zerbait agintzeaz gain beste inolako helbururik ez zutela esanez, eta beste batzuek, aldiz, guretzat ezezaguna den probetxua zeukatela pentsatuz–, horiek dira, hitzez hitz harturik, gu mintzatu izan gareneko hiru gauza horietarik baterako ere baliagarri ez diruditenak, erran nahi baitut, inolako ideiarik iradokitzen ez dutenak, ez ohiturak noblearazten, ez eta indarkeria eteten ere. Irudi luke, izan ere, agindu horiek ez daukatela zer ikusirik ez arimaren zorientasunaz, sinesgairik batere eskaintzen ez dutelako, ez eta gorputzaren ongizatearekin ere, politika edo ekonomiarako arau probetxuzkorik ere ematen ez dituztelako. Horrelakoak dira gai ezberdinetako ehunak galarazten dituztenak, era anitzetako haziak, haragia esnetan egostea⁵⁹, odola estaltzeko agintzen dutenak, txahalaren burua haustea, astoaren lehen kumea salbatzea, eta antzeko beste batzuk⁶⁰. Baina aurrerago, manu horiez guztioz nire azalpena jasotzeko aukera ukanen duzu, eta horien arrazoi egiazko eta ongi frogatuak emanen dizkizut, xehetasunezko agindu batzuk salbuetsiz, jada erran dizudanez. Erakutsiko dut manu horiek guztiok, eta antzeko beste batzuek ere, harremanetan egon behar dutela lehen hitz egin dugun hiru gauza horietako batekin, bai sineskera bat zuzentzeko, edo bai gizartearen egoera hobetzeko,

eta hori bi gauza hauetako batez baizik ez da lortzen: elkarrekiko indarkeria etenaraziz eta ohitura onak eskuraziz. Gogoan ukan behar duzu sineskerez erran duguna, eta hor sakondu: aginduak inoiz egiazko sinesgai bat ikasarazi nahi du, berbera helburu bakarra izanik, hala nola Jainkoaren batasuna, betierekotasuna eta gorpuzgabetasuna; beste batzuetan, ordea, sinesgai bat da, elkarrekiko indarkeria etenarazteko premiazkoa, edo ohitura onak eskurazteko, esaterako, Jainkoa (gorets bedi!) indarkeria erabili duenaren aurka guztiz haserre dagoelako sineskera, errana den bezala: «Ene haserre piztuko da eta hilko zaituztet» (Irt 22,23), eta Bera (gorets bedi!) zapalduaren edo etsiaren otoitza behingoan entzuten duelako sineskera ere: «Dei egiten badit, bera entzunen dut, ni bihozbera bainaiz» (*ibid.* 26. bert.)

כ HOGEITA BEDERATZIGARREN KAPITULUA

[Hebrearren zeremonia batzuen jatorria eta horien azalpena]

Gauza jakina da gure aita Abraham [bakea bego haren gainean] sabearren erlijioan hezia izan zela, argizagiez gainera beste jainkorik ez dela sinesten dutenen artean. Kapitulua honetan haien liburuen berri emanen dizudanean, arabierara itzulirik orain gure esku artean aurkitzen direnak, haien antzinako urtekariak bezala, eta dokumentu horien laguntzaz haien doktrina eta haien kontakizunak agertuko dizkizudanean, ezagutuko duzu hor espresuki aldarrikatzen dutela argizagiak direla jainkotasuna osatzen dutenak, eta Eguzkia dela jainko nagusia. Zazpi planeta guztiak, diote bestetik, jainkoak dira; baina argitsu biak [Eguzkia eta Ilargia] guztiotarik handienak dira. Ikusiko duzunez, argiro diote Eguzkia dela goiko eta beheko mundua gobernatzen dituenak; horixe da haiek hitzez hitz diotena.

Haien liburu eta urtekarietan, gure aita Abrahamen historia aurkituko duzu, haiek honela kontatua: Abraham, *Kūthā*-n hezia, guztien aurka jarri zen, Eguzkia ez bezalako beste eragile bat [unibertso osoarena] bazelako iritziari eutsiz; haren aurka argudio asko atera ziren, eta, beste froga batzuen artean, Eguzkiak unibertsoaren gainean duen eragin argi eta nabaria aipatu zitzaion. «Arrazoia duzue, erantzun zien Abrahamek, egurgileak eskuan darabilen

aizkora bezalakoa da». Ondoren haien aurka berak errandako beste argudio batzuk ekartzen dira, eta, kontakizunaren amaieran, erregeak gure aita Abraham (bakea bego Harengan!) presondegian sarrarazi zuela azaltzen da, eta berak, preso egonik ere, luzaro jardun zuela haien iritzien aurka egiten. Azkenean, erregeak, Abrahamek haren gobernuari kalte egin eta bertako jendeak beren erlijio-sinesteak urrunaraziko zituelako beldurrez, Siriara erbesteratu zuen, haren ondasun guztiak konfiskatu eta gero. Horra hor haiek kontatzen dutena, eta istorio hori, bere luzapenekin, *Nabatear nekazaritza*-n⁶¹ irakurri ahalko duzu. Ez dute inolako aipamenik egiten gure egiazko tradizioek [Abrahamez] diotenaz, ez eta heldu zitzaion goi-agerpenaz ere, haiek, beren iritzi kaltegarrien aurka zegoelako, gezurtizat jotzen zuten eta. Mundu guztiaren sineskeraren aurka zegoenez, ez da dudatzekoa, nik uste, gizaki alderrai horientzat madarikagarria, gaitzesteko eta mespretxatzeko modukoa zela. Halere, hori Jainkoaren amoreagatik pairatzen zuenez, egia aintzat hartzea maiteago bere burua ohoraturik ikustea baino, honela erran zitzaion: «Bedeinkatzen zaituztenak bedeinkatuko ditut, eta madarikatzen zaituztenak, berriz, madarikatuko, eta zure bitartez bedeinkatuko dira Lurreko nazio guztiak» (Has 12,3); eta, izan ere, gaur egun badakusagu Lurraren bizilagun gehienek, elkar harturik, hura loriatzen dutela, beraren oroitzapena bedeinkatuz; halako moldez non haren arrazakoak direnak ere berarengandik datozela erakusten ahalegintzen dira. Honezkero ez du aurkako gehiagorik eta guztiek aitortzen dute haren handitasuna, erlijio ahitu horren azken sektakideek izan ezik, esaterako, ipar muturreko turko sinesgogorrek eta hego muturreko hinduek, eta horiek sabearren erlijioari atxikirik segitzen dute, erlijio horrek Lur osoa besarkatzen zuen eta.

Garai haietako filosofoen espekulazioak lortu zuen mailarik gorena honako hau zen, Jainkoa zeruko esferaren izpiritua dela pentsatzea, hau da, zeruko esfera eta argizagiak gorputza direla, eta horren izpiritua Jainkoa dela (gorets bedi!). Horixe da *Abū Bakr Ibn al Sāʿid*-ek, *Akroasis*-ari buruzko bere iruzkinean, dioena; horrexegatik, sabear guztiek munduaren betierekotasuna onartzen zuten, zerua, haien ustez, Jainkoa delako.

Adam gizon eta emakume batengandik jaioriko pertsona zelako iritziari eusten diote, hots, gainerako giza banakoak bezalakoa;

baina goretsi egiten dute, hura profeta eta Ilargiaren apostolua zela erranez, Ilargia gurtzera gonbidatu zuela eta nekazaritzaz liburuak izkiriatu zituela. Era berean, sabearrek Noe nekazaria zela diote, eta ez zuela idoloen gurkera onesten; horrexegatik, sabear guztien iritziz, Noe gaitzesgarria zen, horrek ez zuela behin ere idolorik batere adoratu erranez. Beren liburuetan badiote, halaber, bere burua Jainkoa gurtzera ematen zuelako, gaizki kolpatua eta kartzelaratua izan zela, eta antzeko beste kontu batzuk ere bai. Set-ek bere aita Adamek Ilargiaren gurkeraz zuen iritziaen aurka egin zuela baitesten dute, eta gezur erabat barregarriak tartekatzen dituzte, arrazoitzeko urritasun nabarmena salatzen dutenak, halakoak filosofiatik gainerako gizakiak baino urrunago zebiltzala erakutsi; eta, egia erran, haien ezjakintasuna oso handia zen. Kontatzen dute, adibidez, Adam, Eguzkiaren klimatik irtena, Indiatik hurbil, eta Babiloniako herrialdera sartuta, aldean gauza miresgarriak eraman zituela; horien artean urrezko zuhaitz bat, hosto eta abarrekin hazten zena; antzeko beste bat, harrizkoa, eta zuhaitz-hosto berde bat, suak ezin erre zezakeena. Bai eta, berak [= Adamek] halako zuhaitz batez hitz egin zuela, [bere gerizan] hamar mila pertsona babes zitzakeena, gizon baten garaiera besterik ez zuen arren; aldean horren orri bi ekarri zituen, eta horietako bakoitzak bi pertsona inguratuz bil zitzakeen. Eta era honetako beste istorio mordoa ere kontatzen dute, eta harrigarria da, mundua betierekoa dela sinesten duten jende batzuek, halere, gauza horien existentzia onartzea, ikerketa fisikoetan dihardutenek horiek berez ezinezkotzat hartzen dituzten arren. Haiek Adamez diotenak eta berari egozten dioten guztiak ez du beste helbururik haiek munduaren betierekotasunaz duten iritzia sendotzea baino, hortik argizagiak eta zeruko esfera jainkotasuna direlako ondorioa ateratzeko. Baina *munduaren zutabea* izanen zena hazi zenean, eta ezaguturik badela Jainko berezitu bat, ez gorputz bat ez eta gorputz baten barruko indar bat ez dena, eta argizagi horiek guztiak eta esfera horiek oro haren obra zirela, eta hezia izan zenean kontatu zizkieten alegia guztien absurdotasuna ulerturik, haien doktrina errefusatzen eta haien iritzien faltsutasuna erakusten hasi zen; publikoki haien aurkari agertu zen eta «Unibertsoaren Jainko Betierekoaren izena» aldarrikatu zuen (Has 21,33), aldi berean, Jainkoaren existentzia eta Jainko berberorrek mundua sorrarazi duela jakinaraziz.

Sabear iritzi horiekin bat, argizagiei estatuak altxarazi zizkieten, Eguzkiari urrezko estatuak eta Ilargiari zilarrezkoak eraiki zizkieten, eta metalak eta klimak planeten artean banatu zituzten, halako planeta halako klimaren jainkoa dela erranez. Tenpluak eraiki eta bertan estatuak ezari zituzten, eta planeten indarrak estatua horiei isurtzen zitzaizkiela sinetsarazi nahi zuten, eta ondoren estatua horiek mintzatzen, ulertzen, pentsatzen eta gizakiei iradokitzen zieten, baliagarria zena jakinaraziz. Zentzu berean mintzo ziren planeta horiei egokiaraziriko zuhaitzez ere, honela erranez: baldin halako zuhaitza halako planetari sagaratzen bazaio, berorren izenean landatuz eta harentzat eta harekin prozedura hau edo hori erabiliz, planeta horren indar izpirituala zuhaitz horren gainean isurtzen da, gizakiei iradokitzen eta, lo daudela, hitz egiten die. Hori guztiori haien izkribuetan hitzez hitz aurkituko duzu, eta horien gainean zure arreta ekarriko dut. Horrelakoak izan ziren *Ba'al*-en profetak eta *'Ašērāh*-ren profetak ere, horiez gure artean mintzatu zen eta beroriengan ideia horiek sendotuak ziren, halako molde, non «Baztertu egin dute Yhwh» (Is 1,4), eta oihu egin zuten «O Baal, erantzun!» (1 Erg 18,26). Horren kausa izan zen iritzi horiek oso hedatuak izatea, ezjakintasuna erabat zabaldurik zebilela, eta orduko mundua, oro har, gisa horretako irudikeria eroetan murgildua zegoela, eta horregatik hebrearren artean ideia batzuk eratu ziren, hortik aztiak, iragarleak, belagileak, liluratzaleak, aieru-ekarleak, magoak eta nekromanteak jaioaraziz.

Mišnèh Tôrāh ⁶² geure lan handian erakutsia dugu jada gure Aita Abraham iritzi horiek argudioekin gezurtatzen hasi zela, bai eta gozotasunez aseriko predikazioaz ere, eta horrek gizakiak bereganatzen zizkion eta Jainkoa gurtzera erakartzen, eta jende horiek onginahiaz tratatzen zituen. Geroago, profeten printzea agertu zenean, [Abrahamen] asmoa bete zuen, gizaki idolatra horiek hilarazteko, berorien oinatzak desagerrarazteko eta sustraia suntsitzeko aginduz («Bota itzazue haien aldareak...» (Irt 34,13, Dt 7,5) eta haien ohiturei jarraitzea erabat galaraziz («Ez bizi zuen aurretik botatzen ditudan herrien legeen arabera... (Lb 20,23). Badakizu, Pentateukoaren anitz pasartetatik, Legeak, batez ere, idolatria geldiaraztea zuela helburua, horren antza ezabatu, berorrekiko lotura guztiak desagerrarazi, haren oroitzapena eta guztiz, eta haren praktiketako batera eraman dezakeen guztia ere bai –hala nola gogoraraztea, magia, surtatik iragatea,

asmatzea, etorkizuna auresateko eta auguratzeo antzea, aztikeria, sorginkeria eta nekromantzia– eta, azkenik, praktika horien itxura egitetik ere gorde beharra dagoela, eta, are arrazoi handiagoagatik, horiek imitatzetik. Pentateukoan bereziki adierazten da, haien ustez beren jainkoei gurkera eskaintzen zieten gauza guztiak, horien bitartez haiengana hurbiltzeko, Jainkoarentzat gaitzesgarri eta higuingarriak zirela, pasarte honek dioen bezala: «Izan ere Yhwh-rentzat higuingarri eta gorrotagarri dena egin dute beren jainkoen ohorez» (Dt 12,31). Ezagutaraziko dizkizudan beren liburuetan aurkituko duzunez, kontatzen da, egoera batzuetan, Eguzkiari, beren jainko gorenari, zazpi kakalardo, zazpi sagu eta zazpi saguzar eskaintzen zizkiotela. Noski, hori nahikoa da giza izaerari nazka emateko. Beraz, idolatria eta berorren meneko guztia, hara eraman dezakeena, edo harekin loturikoa, galarazteko xedea duten agindu guztiek begien bistako probetxua dute; halako guztien helburua gu iritzi kaltegarri horietatik babestea baita, horiek hobekuntza bietara iristeko baliagarri den guztitik desbideratzen baikaituzte, eta gure asabak haziak izan zirenean jasoriko zentzugabeko kezka haiek sorrarazten: «Zuen arbasoak, *Terah*, Abrahamen eta *Nahor*-en aita, Eufrates ibaiaren beste aldean bizi ziren antzina, eta beste jainko batzuk gurtzen zituzten» (Jos 24,2), eta egiazko profetak horiez mintzatu dira, erranez: «Ezertarako balio ez duten gauzen ondoren joan dira» (Jr 2,8, 1Sm 12,2). Beraz, handia da oker larri horretatik babesten eta egiazko sinestera biltzen gaituen agindu ororen baliagarritasuna, hau da, badela Jainko bat, gauza guztien egilea, eta bera adoratu, maitatu eta berari beldur izan behar diogula, eta ez irudimenezko jainkotezako horiek, eta egiazko Jainkoarengana hurbiltzeko eta berorren ongi nahia erakartzeko, praktika nekagarri horiek ez direla inondik ere beharrezkoak, aski baita Hura maitatu eta Beraren beldur izatea, bi gauza hauek Jainkoaren gurtzearen egiazko helburua osatzen dutelako, erakutsiko dugunez: «Eta orain, Israel, zer da Yhwh zure Jainkoak eskatzen dizuna?» (Dt 10,12). Aitzinerago, ideia horren gainean gehiago luzatuko naiz. Eta neure gaira berriz ere itzuliz, badiot agindu kopuru handi baten esangura ulertarazi eta horien izateko arrazoia konpreniarazi didana, sabearren doktrinez, berorien praktikez eta berorien gurkerako zeremoniez egin dudana azterketa izan da. Horixe ikusiko duzu agindu horiek zerk motibarazi dituen erakutsiko dizudanean, ustez inolako arrazoirik gabeak badira ere. Beraz, orain neronek sabearren doktrinez eta iritziez dakidan guztia

zerorrek ere zeintzuk liburutan ikas dezakezun erranen dizut, agindu horiek motibatzekeo erranen dizudan guztia egia delako ziurtasuna erdiets dezazun.

Gai honi buruzko obrarik handiena *Nabatear nekazaritza* da, *Ibn Waḥašiyya*-k itzuliriko lana. Hurrengo kapituluak jakinaraziko dizut zergatik sabearrek beren erlijiozko doktrinak nekazaritzako tratatuetan sartu dituzten. Horrela, solasean darabilgun liburua idolatren burugabeko ideiez beterik dago, eta jende arrunten izpirituak erakarri eta gatibatzekeo moduko kontuez; hor talismanez hitz egiten da, [argizagien] izpirituen lankidetzaz, magia, demonioez eta basamortuetan bizi diren banpiroez. Noizik behinka erokeria handiak kontatzen dira, gizaki burutsuei barre eragiten dietenak, eta horien bidez mirari nabarmenak belztu nahi ziren, [mirari horiek] Lurreko bizilagunei Jainko bat badela jakinarazten dietelako, guztiak gobernatzen dituen, errana den bezala: «Jakín dezazun Yhwh-rena dela mundua» (Irt 9,29), eta beste pasarte honetan ere: «Jakín dezazun ni Yhwh naizela, lurralde honen erdian» (*ibid.* 8,18). Kontatu egiten da, halaber, Adamek, lehen gizakiak, bere liburuan aipatzen zuela bazela Indian zuhaitz bat, eta haren abarrak hartu eta lurrera jaurtiz gero, higitu egiten direla bakoitza narras ibiliz, sugeen antzera; badela beste zuhaitz bat, sustraia giza itxurakoa duena, eta hots zakarra egiten duela, hitz banaka batzuk erranez; gizaki batek halako belar baten hostoak harturik –eta berori deskribatzen da– eta bere golkoan sarturik, ikusezin bilakatzen dela, eta halatan ezin ikus daiteke nora sartzen ez nondik irteten den; eta, azkenik, belar berberorrekin aire zabalean ihintzatzerik egiten bada, kea igotzen ari den bitartean, atmosferan hots eta boz ikaragarriak entzuten direla. Era honetako alegia ugariak erantsiz joaten dira, berez landareen nolakotasun nabarmenen eta Naturaren berezitasunen erakusketa soila besterik ez denaren estiloan, eta horrela badirudi horiek mirariei eginiko irainak direla, beroriek artifizioen bidez egiten zirelako itxura sinetsaraziz.

Liburu horretako [= Nabatear Nekazaritza] alegia horietako bat, *Althaea* zuhaixkari dagokio, adierazi nizunez, 'Ašērôt-tzat erabiltzen zenari. Kontatzen denez, berori, hamabi mila urte Niniven landaturik egon ondoren, kereila bat ukan zuela tokia hartu nahi zion mandragora batekin, eta zuhaixka horrek (= *Althaeak*) iradokitzen zuen pertsonaia denbora batez bere goi-agerpenik gabe egon zela; geroago, berriz

ere iradokitzen hasi zitzaion, eta kontatu zion lanpeturik ibili zela mandragorarekiko auzian, eta kaldearre⁶³ izkiria ziezaiela manatu zion, beroriek haien arteko eztabaida epaitu eta, landare bietatik, *althaea* ala mandragora, magiarako egokiagoa eta maizenik erabiltzen zena zein zen ebatz zezaten. Alegia oso luzea da, eta irakurtzen baduzu, horrekin juzgatu ahalko duzu garai hartako gizakien adimenaz eta haien zientzien egoeraz. Halakoxeak ziren ilunpe-garai haietako Babiloniako jakintsuak, hemen aipatuak, horiexek izan zirelako haiek haziak izan zireneko erlijio-sineskerak. Jainkoaren existentziaren sineskera gaurko erlijioetan hain orokorki onartua ez balitz, gure egunotan are ilunpe lodiagoak leudeke garai haietan nagusi zeudenak baino, halere, badira oraindik beste ikuspegi batzuetatik. Baina itzul gaitezen geure gaira.

Erraniko liburu horretan, idolatriaren profeten arteko pertsonaia batez, *Tammuz* zeritzonaz, kontatzen da behin halako errege bat inbitatu zuela zazpi planetak eta Zodiakoaren hamabi zeinuak adoratzera. Errege horrek hura bihozgabeki hilarazi zuen, eta kontatzen denez, hil zen gauean, munduko herrialde guztietako idoloak Babiloniako tenpluan bildu omen ziren Eguzkia irudikatzen duen urrezko estatua haundiaren ondoan. Estatua hori, zeruaren eta lurraren artean zintzilikatua, tenpluaren erdian kokatu zen, eta gainerako guztiek beraren inguruan. Tammuzen aldeko hil-otoitza egiten eta gertatu zitzaiona adierazten hasi zen; idolo guztiek negarrez eta aiheneka jardun zuten gau osoan, eta biharamun goizean hegaz egin eta beren tenpluetara itzuli ziren Lurreko herrialde ezberdinetara. Hortik dator Tammuzen gainean intziri eta negar egiteko ohitura hori, Tammuz hilabetearen lehen egunean ('Uztailean'): emakumeak dira hargatik negar egin eta hilondoko goraipamena eskaintzen diotenak. Egizu horretaz guztiaz gogoeta, eta horrela ulertu egingen duzu garai haietako ideiak nolakoak izan ziren, Tammuzen legenda hori antzina-antzinakoa baita sabearren artean. Aipaturiko liburu horren bidez sabearren burugabeko ideia gehienak jakin ahalko dituzu, bai eta haien praktikak eta jaiak ere.

Adamen abenturaz, sugeaz, ongiaren eta gaizkiaren jakin-duriaren zuhaitza kontatzen dutenaz —eta hor orduan janzteko zera-bilen modu aski zaharkitua aipatzen da—, ez duzu horregatik zeure izpiritua kezkatu behar, haiek kontaturikoa⁶⁴ Adami edo beste edozeini

inoiz gertatu zitzaiera pentsatuz. Ez da inondik ere benetako historia, eta gogoetarik arinenak ezagutaraziko dizu berek alegia horretan kontatzen duten guztia gezurra besterik ez dela. Konturatuko zarenez, Pentateukotik kopiatu duten historia da. Liburu hori erlijio-sekten artean hedatu zenean, eta horiek, sortzapenaren kontakizunaren testua entzun zutenean, oso-osorik hartu zuten hitzez hitzezko adieran, eta [sabeurrek] erraniko istorio hori asmatu zuten, horrela, hura entzuten zuten esperientzia gabeko gizakiak bultzatuak izan zitezen mundua betierekoa dela sinestera, eta kontakizun hori, Pentateukoak dakarrena, benetan berek kontatzen zuten bezalaxe gertatua zela. Zu bezalako gizon batek oharpen horren premiarik ez duen arren –dutzen zientziak aski ongi baitakizu zeure izpiritua bridatzen, sabeurren alegiei eta kasdear eta kaldearren erokeriei jaramonik ez egiteko, horiek guztiok zientzia izena benetan merezi duen guztitik gabetuak dira eta–, halere, uste izan dut abisu eman behar nuela besteak babesteko, jende arruntak alegiak sinesteko joera handiegia izaten du eta.

Liburu horien artean bada *Istimakis* deritzona ere, Aristotelesi leporatua, baina horretarako oinarririk gabe; era berean, talismanei buruzko izkribuak, esaterako, **טומט** *Tomtom* liburua, Al-Sarb liburua, «Zeruko esferaren graduen eta gradu bakoitzean ageri diren figuren liburua», talismanei buruzko beste liburu bat, berori ere Aristotelesi egotzia, beste bat, Hermes-ek eginga omen dena, eta azkenean *Isḥaq* sabeurren liburua, horien erlijioaren xehetasun ezberdinez, haien jaez, haien sakrifizioez, haien otoitzez eta erlijiozko beste gaiei buruz.

Zerrendatu dizkizudan liburu horiek guztiok idolatriazkoak dira, arabierara itzuliak. Dударик gabe, horiek ez dute [literatura horretako] atal txiki bat besterik osatzen, itzuli izan ez direnekin edo jada existitu ere egiten ez direnekin alderatuz gero, urteak joan urteak etorri galduak edo ezereztuak direlako. Gaur egun oraindik gurean ditugunek barruan sabeurren iritzi gehienak gordetzen dituzte, bai eta haien praktikak ere, neurri batean, munduan oraino hedaturik dirautenak; erran nahi dut, tenpluen eraiketa, horietan altxatzen diren metalezko eta harrizko estatuak, aldaregintza, bertan sakrifizioan eskaintzen dena edo elikagai mota ezberdinak, jaien ezarpena, tenplu horietan otoitz egiteko edo beste zeremonia batzuetarako egiten diren bilerak; han haiek ohore handitan dauzkaten lekuak erreserbaturik

daude, berek *forma adigarrien* kaperak deituak, eta «mendi gailurren gainean» (Dt 12,2) ezartzen dituzten imajinak, 'Ašērôt-ei eskainiriko ohoreak, oroitarri handiak eraikitzea, eta, azkenean, beste gauza batzuk, zure arreta pizteko aipatu dizkizudan liburuetan irakurri ahalko dituzunak. Iritzi eta praktika horiek jakitea erabat garrantzitsua da [Jainkoaren] aginduen arrazoiak konturatzeko; izan ere, gure Legearen oinarria eta bera biratzen deneko erro-ardatza, izpirituetatik iritzi horiek ezabatu eta oroitarriak desagerraraztea da; «izpirituetatik horiek ekortzea», errana den bezala: «Ez dadila zuen bihotza lilura» (Dt 11,16), «eta ez dadila horren bihotza gaur hastan» (*ibid.* 29,17), «eta haien oroitarriak desagerrarazi» erran zen bezala: «Haien aldareak bota, (...) eta haien zutoin sakratuak moztuko dituzue» (Dt 7,5), «Eta haien izenen oroitzapena bera ere desagerraraziko duzue» (*ibid.* 12,3). Puntu biok anitz pasartetan errepikaturik ageri dira, horixe baita Legearen multzo osoaren xedea, doktoreek hitz hauez eman diguten azalpen tradizionalean jakinarazi digutenez : «Agindu hauek guztiok, Yhwh-k Moisesi adieraziak eta haren bidez zuei emanak» (Zkiak 15,23); «hortik atera dezakezu –diote– idolatriari darraionak Legea osorik ukatzen duela, eta idolatriari uko egiten dionak Legearen osotasuna onartzen duela» (cfr. *Sifri*). Horretan ongi sakondu behar duzu.

𐤇 HOGEITA HAMARGARREN KAPITULUA

[Paganoek mundu honetako giza arazoez dituzten sineskerak, eta, horien aurka, Moisesek irakatsia]

Iritzi zaharkitu eta arrazoirik gabeko hauek kontsideraturik, ontzat emanen duzu bazela ideia bat, gizakien artean eskuarki hedatua, hots, argizagiak gurtzearen ondorioa lurraren probetxua eta herrialdeen emankortasuna izaten zirela. Jakintsuek, garai horietako gizaki bertutetsu eta erlijiosoen bezala, orduko jendeei horrela adierazten zieten, haiei irakatsiz, nekazaritzak, gizakien oinarritzko elikabide nagusiak, ezin zezakeela bere helburua bete, ez eta aurrera atera ere, Eguzkia eta gainerako planetak adoratzen ez baziren, eta, haiei desobeditu eta haserraraziz gero, herrialdeak basamortu bihurtu eta hondaturik geldituko zirela. Haiek [sabearek] beren liburuetan

kontatzen dutenez, Jupiterrek leku desertu eta landugabeak bere haserreaz joak zituen, eta, horrexegatik ur eta zuhaitzik gabe geldituak ziren, banpiroen bizileku bihurturik. Nekazariak eta laborariak ohoratzen zituzten, beroriek lurra lantzeaz arduratzen zirelako, horrela argizagien borondateari erantzunez, eta horri jarduera atsegina iritziz. Idolatrek idiak horrenbeste estimatzeko arrazoia beroriek nekazaritzarako zuten probetxua besterik ez zen. Gainera, esaten zuten ez zela zilegi haiei lepoa moztea, indarrez hornituak izan arren, laborantzarako, gizakiaren menera plegatzen direlako⁶⁵. Horrela egiten badute, hots, beren indarra gorabehera gizakiaren menera etortzen badira, hori [haiek ziotenez] nekazaritzan haien zerbitzua jainkoen gogokoa delako besterik ez da. Uste horiek oso hedaturik zeudenez, idolatria nekazaritzarekin lotzen zuten, berori, gizakiarentzat eta hainbat animaliaarentzat, bizirik irauteko ezinbestekoa zelako. Apaiz idolatrek tenpluetan bilduriko jendeei predikatzen zieten eta ideia hori sinetsarazten, hots, [argizagien] gurkera horren bidez, euriak jaitsiko zirela, zuhaitzek fruituak ekarriko zituztela eta lurrak emankor eta jendetsuak bilakatuko zirela. Irakurgarria da *Nabatear Nekazaritza*-n mahastiaz mintzatzen den lekuan jartzen dena; hor sabearren esanak hitzez hitz aurkituko dituzu: «Antzinako jakintsu eta profeta guztiek bete beharrekoztat agindu zuten musika-tresnak jai-egunetan idoloen aitzinean jotzea; arrazoiak zioten, horrekin jainkoek atsegina hartzen dutela eta sari ederra eta ugaria ematen dietela hori egiten dutenei. Egintza horregatik anitz promes on egin dituzte, besteak beste, bizitza luzatzea, zorigaitzak urruntzea, gaixotasunak desagertzea, hazien emankortasuna eta fruituen ugaritasuna». Horiexek dira sabearren bana-banako berbak.

Hortaz, iritzi horiek hain hedaturik egonik, egiazkotzat hartzen ziren, eta Jainkoa (gorets bedi!), gureganako bihozberatasunagatik, gure izpirituetatik oker hori ezabatu eta gure gorputzak pena horietatik arindu nahi ukan zituenez, alferreko zeremonia nekagarri horiek kenduz, Bere Legeak Moises Gurea maisuaren bitartez emanez (bakea bego haren gainean!), beronek, Jainkoaren izenean (gorets bedi!), iragarri zigun argizagi horiek eta idolo horiek adoratuz gero, horiek gurtzeak, ondorioz, euririk eza ekarriko zuela, zorua suntsitua izanen zela eta ez zuela deus ere emanen, zuhaitzetako fruituak eroriko

zirela, zorigaitz horien ondorioz eta pertsonen gaixotasunengatik gizarte-harremanak hondatuko zirela, eta giza bizitza laburtuko zela. Horra hor Yhwh-ren ituneko hitzen esangura (Dt 28,69). Gai berbera aurkituko duzu Pentateukoan errepikaturik, hau da: argizagiak gurtzeak euririk eza dakarrela, zoruaren hondamena, giza harremanak apurtzea, gorputzeko eritasunak eta bizitza laburtzea; baina haiek gurtzeari uko eginez eta Jainkoaren gurkera (gorets bedi!) besarkatuz gero, ordea, horrek euriak dakartza, lurraren emankortasuna, gizarte-harremanen hobetzea, gorputzaren osasuna eta bizitzaren luzapena. Hori da jainko faltsuen adoratzailiek, haien gurkera hedarazteko, predikatzen zutenaren aurkakoa, Torah-ren helburu nagusia sineskera hori sustraitik atera eta haren hatzak ezabatzea baita, azaldu dugun bezala.

Ⲭ HOGEITA HAMAIKAGARREN KAPITULUA

*[Jainkoaren aginduei buruzko sineskera faltsuak
eta horiek nola gezurta]*

Jende batzuek higuin diote [Jainkoaren] edozein legetan motibo bat ikusteari, eta nahiago dute agindu eta debekuetan arrazoimeneko zentzurik batere ez aurkitzea. Horra daramatza beren ariman sentitzen duten nolabaiteko ahuleriak, baina horren gainean ezin dezakete arrazoitu, berori azaltzen ere ez dakitela. Hona hemen pentsatzen dutena: Legeek (denborazko) existentzia honetan probetxu egin beharko baligute, eta halako eta holako motiboarengatik eman balitzaizkigu, litekeena zen gizaki jenial baten gogoetaren edo pentsaeraren emaitza gertatzea; eta, aitzitik, gauza batek uler daitekeen zentzurik batere ez badauka eta inolako probetxurik ez badakar, orduan, zalantzarik gabe, Jainkoarengandik heldu da, giza gogoetak ez baileramake horrelako ondoriorik. Esan liteke, izpiritu ahul hauen arabera, gizakia bere sortzailea baino osamaituagoa dela, zeren [haien iritziz] hitz egin eta jarduten baitu halako helburu bati begira, baina Jainkoa, era horretara jardutetik urrun, aginduko liguke, ordea, guri inolako probetxurik ez dakarkiguna, eta batere kalterik eginen ez liguketen egintzak galaraziko. Urrun dago Harengandik horrelako ideiarik! Gertatzen dena, hain zuzen, kontrakoa da, eta betiere gure

ongia da Jainkoak bilatzen duena, guk Eskrituraren hitzekin erakutsi dugunez: «Betiere zoriontsuak izan gaitezen eta Hark bizia gorde diezagun, orain arte egin den bezala» (Dt 6,24). Eta beste leku batean ere hau errana da: «Lege horiek guztiok jakitean honela erranen dute: Egia, nazio handi hau herri zuhur eta adimentsua da» (*ibid.* 4,6). Hor argiro erraten da estatutu (edo erregelamendu) guztiak ere nazioei jakinduriari eta adimenari jarioak bezala erakutsiko zaizkiela. Baina gauza batek motibo nabarmenik ez badauka, batere probetxurik ez badakar, eta ezein gaitzetatik babesten ez badu, zergatik erranen da gauza hori sinesteko gai edo portaera-arautzat ezarri duena, bera zuhur eta adimentsua dela eta goi-mailakoa? Zer ukan zezakeen bere baitan nazioak harritzeko?

Baina ez, gauza, zalantzarik gabe, guk erran dugun bezalakoa da, hau da, seiehun eta hamahiru aginduetako bakoitzak behar du, edo iritzi zuzena sortu, edo iritzi okerra desegin, edo justiziarako erregela bat eman, edo bidegabekeria eten, edo gizakia ohitura onen arabera hezi, edo bera ohitura gaiztoetatik babestu. Aginduen multzoa, hortaz, hiru gauzatara zuzentzen da: iritzietara, ohituretara eta gizarte-betebeharren praktikara. Eta hemen hitzak kontuan hartzen ez baditugu, hori da Eskriturak esateko agintzen edo galarazten dituen berbak, batzuk gizarte-betebeharren esparruan sartze direlako, edo bestela halako sineste eta ohiturak bultzatzen dituztelako. Hori dela eta, hemen xedea manu bakoitzaren motiboa erakustea denez gero, aipatu berri ditugun hiru mota horietara mugatzen gara.

לב HOGEITA HAMABIGARREN KAPITULUA

[Legearen lehen mailako xedea, eta horren zeremonia-praktikekiko bigarren mailako xedea]

Baldin Jainkoaren egintzak kontsideratzen badituzu, erran nahi baitut, Naturaren obrak, ongi ulertuko duzu zer-nolako aurreikusmena, nolako jakinduria erakutsi duen Jainkoak izaki bizidunak sortzean, horien soin-atalen mugimenduen banaketan eta hauetako batzuek besteeikiko duten kokaeran; era berean, Jainkoaren jakinduria eta aurreikusmena ezagutuko dituzu (animalia) banako bakoitzaren

osotasunean elkarren ondoren garatu behar diren gaitasun ezberdinetan. Horren mugimenduen banaketari eta organoen elkarrekiko jarrerari dagokienez, ondoko adibidea jarriko dizut: garunaren aurreko aldea guztiz biguna da, eta atzekoa, aldiz, sendoagoa; bizkar-muina are sendoagoa da, eta, hedatzen den neurrian, areago sendotzen da. Nerbioak sentipenaren eta mugimenduaren organoak dira; ondorioz, zentzuen hautemate hutserako edo zailtasun txikiko mugimendu baterako balio dutenak, adibidez, betazalarena edo masailarena bezalakoak, garunetik datoz, baina soin-atalen mugimenduetarako behar direnak, ordea, bizkar-muinetik heldu dira. Halere, nerbioek, bizkar-muinetik jalgitzen direnek ere, beren biguntasunagatik, giltzadurak mugiarazterik ez luketenez, Jainkoak (gorets bedi!) hori honela erremediatu du: nerbioak zuntzetan abarturik daude, eta horiek, behin haragiz bete eta gero, gihar bilakatzen dira; ondoren, nerbioa, giharraren ertza gainditu eta hor nahasiriko lokailu-zatiez finkaturik, tendoi bihurtzen da. Tendoia hezurrari gogorki atxikitzen zaio, berorri lotuz: horrezkero, mailaz mailako eraldatze horren ondorioz, nerbioak gorputz-atal hori mugiaraz dezake. Etsenplu bakar bat besterik ez dut aipatu, berori baita nabarmenena *Gorputz-atalen baliagarritasuna* deritzon tratatuan azaltzen diren gauza miragarrien artean, horko guztiak, adimen zorrotzaz aztertzen dituenarentzat, argiak, ageriak eta ongi jakinak izanik. Era berean, aurreikusmenaz baliatu izan da Jainkoa ugaztunetako banakoekin ere, beroriek, erabat ahulik jaiotzen direnez, ezin elika daitezke janari lehorrez, eta horregatik esnea ematen duten ugatzez hornitu ditu, jangai urtsuaz elikatzeko, beren atalen izaerari egokia, beroriek pixkanaka sendo eta gogor bilakatu arte.

Gure Legeko beste gauza asko ere antzera moldatu ditu Arautzaile nagusiak (gorets bedi!). Izan ere, ertz batetik bestera supituki iragatea ezinezkoa denez, gizakiak, bere izaeraren arabera, ezin litzake bere ohitura guztiak bat-batean alda. Horrela, Jainkoak Moises gure maisua bidali zuenean, gu, Jainkoaren ezagutzari esker, «apaizen erresuma eta herri santua» (Irt 19,6) izan gintezen, hitz hauekin aldarrikatu duenez: «Jakin dezazun ikusarazi zaizu hori guztia...» (Dt 4,35), «Aitortu, beraz, gaur, eta izan beti bihotzean...» (*ibid.* 39. bert.), eta bera gurtzeko jarraitzaile suhar egin gaitezen, errana denez: «Bihotz-bihotzez Bera zerbitzatuz» (*ibid.* 11,13), «Yhwh zerbitzatuko duzu, zeure Jainkoa» (Irt 23,25) «Jarraiki Jainkoari, eta izan begirune

Hari» (Dt 13,5), orduan [diot nik] ohitura oso hedatua baitzen, mundu guztiarentzat ezagun-ezaguna –eta gu geu ere gurtze orokor horretan heziak gara– idoloak ezartzen zireneko tenplu horietan animalia mota batzuk eskainiz, horiek adoratzuz eta berorien aurrean intsentsua errerik. Erljiosoak eta aszetak ziren argizariei sagaraturiko santutegi horien zerbitzura burua eskaintzen zuten bakarrak, erran dugun bezala. Ondorioz, Jainkoaren jakinduriak, berorren aurreikusmena bere sorkari guztiengan nabaritutuz, ez zuen uste komeni zenik guk era horretako gurtze guztiak gaitzetsi, bertan behera utzi eta erabat ezaba genitzan, hori orduan giza izaerari onartezina irudituko zitzaiokeelako, betiere ohiturei hain atxikia izanik. Beraz, orduan horrelako zerbait eskatzea, garai hauetako profeta batek, Jainkoa gurtzera hots eginez, hau erratera baletor bezalakoa zatekeen: «Jainkoak berari otoitzak bidaltzea galarazten dizue, barau egitea, eta zoritxarraldietan Haren laguntza eskatzea; aldiz, zuen gurkera meditazio hutsa izanen da, inolako praktika gabea».

Jainkoak horrexegatik jasan zituen gurkera mota horiek, baina horiek gauza sortuei eta irudimenezkoei, errealitate gabe, eskaini beharrean, Bere izenari (gorets bedi!) eskualdatu zizkion, guri Bere ohoreaz praktikatzeko aginduz. Hortaz, tenplu bat eraiki geniezaiola agindu zigun: «Egidazu santutegi bat» (Irt 25,8), eta Haren Izenean aldare bat eraiki zezatela: «Eraiki iezadazu buztinezko aldare bat» (*ibid.* 20,24), Hari erre-opariak egiteko: «Zuetako batek Yhwh-ri oparia eskaini behar dionean» (Lb 1,2), Haren aitzinean makurtu eta aurrean intsentsua erretzea. Eta beste inori egintza horietarik batere ez egiteko: «Yhwh ez beste jainkoren bati sakrifizioak eskaintzen dizkiona suntsitua izanen da» (Irt 22,19); «Ez ezazu adora nitaz beste jainkorik» (*ibid.* 34,14). Tenpluaren zerbitzurako, apaizak izendatu zituen, zioela: «Ene zerbitzurako apaizak izan daitezen» (*ibid.* 28,41); eta tenpluaz eta erre-opariez arduraturik zeudenez gero, nahitaezkoa zen haiei ordain nahikoa egokiaraztea, «lebitarren eta apaizen eskubideak» deitua. Jainkoaren aurreikusmen honen ondorioz, idoloen gurkeraren oroitzapena ezabatu eta gure fedeko hastapen handi eta egiazkoa sendotu zen, hau da, Jainkoaren existentzia eta batasuna, ordura arte oso ezagun eta hurbilak sentitzen zituzten zeremoniak baztertzean haien izpirituek gaitzespenik eta beldurrik izan gabe, horietatik landa besterik ez zekiten eta.

Jakin badakit, hasieran, zure izpirituak ez duela ideia hori onartu nahiko, eta horrek higuina sentiaraziko dizula, eta zeure barrutik galdera hauek eginen dizkidazu: Nola onartu agindu batzuk, debeku batzuk, garrantzi handiko egintzak, zehatz-mehatz azalduak, garai berezi batzuetarako xedatuak, baina beren baitan helbururik ez luketenak, beste gauza batean baizik, hots, Jainkoak asmatutako baliabide bat balira bezala, beraren helburu nagusira heltzeko? Zerk eragozten zion, beraz, bere helburua nagusi hori zein zen guri [zuzenik] jakinaraztea eta gu helburu hori ulertzeko gai egitea, zure ustez bigarren mailako xedea besterik ez duten bide horiek erabili beharrik gabe?

Entzuzu, ordea, emanen dizudan erantzuna; horrek bihotzetik kezka hori kenduko dizu, eta ohartarazi dizudanaren egia erakutsiko. Izan ere, Torah-ren testuak berak antzeko zerbaitek aurkezten du, dioela: «Jainkoak ez zituen filistindarren lurraldeko bidetik eraman, nahiz eta motzena hura izan (...). Horregatik Yhwh-k Itsaso Gorria daraman basamortuko bidetik itzulia eginarazi zien» (Irt 13,17-18). Beraz, Jainkoak, beren gorputzak berez ezin gaindi zezaketen oztopoaren beldurrez, aurretik begiztatua zuen bidetik beste bide batera saihestarazi zituen bezala, horrela xede nagusia lor zedin, era berean, arimak berez ezin pentsa zezakeena haiei zuzenik agertzeko kezkaz, aipatu ditugun lege horiek agindu zizkien, helburu nagusia erdiets zedin, hau da, egiazko Jainkoaren nozioa bururatzea eta idolatria ezeztatzea. Izan ere, gizakiaren izaera ez da naturala, menpeko lanetan jardun ondoren, hala nola buztingintzan, adreilugintzan, etab., beren esku lohituak bat-batean garbitzera joan eta «Anaq-en ondorengoen aurka» (Zkiak 13,22) borrokatzera abiatzea; eta, era berean, bestelako gurkera askotan eta eguneroko praktikan heziak izan ondoren, zeintzuekin izpirituak hainbat ohitzen diren, eta nolabait [praktika horiek] haien lehen nozio bihurtzen diren, ez da naturala gizakiaren izaera lehenagoko usadio horiek berehalakoan alde batera uztea. Alde batetik, beraz, Jainkoak aurreikusmenaz jokatzeko du, basamortuan gizaki horiek hara eta hona ibilaraziz, harik eta sendotu arte, jakina denez, bizimodu latz horrek eta gorputz-gabeziek azkartasuna baitakarte, alderantzizkoak bigunkeria sorrarazten duen bezala, eta, gainera, beste batzuk ere jaio ziren, zerbitzari eta menpeko izatera ohitu gabeak. Hori guztiori Jainkoaren aginduekin gertatu zen, Moises gure maisuaren bitartekotasunaz emanak: «Yhwh-ren agindura etxolaratzen ziren eta Haren agindura

abiatzen, betiere Yhwh-ren agindua gordez, Yhwh-k Moisesi errana zion bezala» (Zkiak 9,23). Bestaldetik, era honetako legeak Jainkoaren Aurreikusmenak emanak izan ziren, jada ohiturik zeudeneko praktika mota hori kontserba zezaten, eta horren bidez haien fedea indar zedin, horixe baitzen helburu nagusia.

Galde egin zenezake, halaber: «Zein zen, bada, Jainkoari bere helburu nagusia guri zuzenik agertzen eta gu xede hori ulertzeko gai egiten eragozten ziona?». Baina bigarren galdera hau zure aurka bihur liteke, hau esanez: «Zerk debekatzten zion Jainkoari [israeldarrei] filistindarren herrirako bidea harrarazi eta gerrak egiteko gai egitea, «Eguargiz hodei-adarrean, bidean gidatzeko; gauez suzko adarrean, argi egiteko» (Irt 13,21-22)? Era berean, hirugarren galdera hau egin dakizuke, Lege guztiari buruzko promes eta mehatxuen xehetasunak direla eta, honela esanez: «Jainkoaren helburu nagusia eta Haren asmoa guk Lege hori onetsi eta agintzen dituen praktikak bete genitzan zenez gero, zergatik ez digu betiere xede hori buruan izateko ahalmena eman, horren arabera jokatzeko, zeharkako bide bat erabili beharrean, hots, geure obedientzia sarituko zigula eta desobedientziagatik, aldiz, zigortuko gintuela? Eta zergatik sari horiek guztiok eta gaztigu horiek guztiok egin behar? Hori ere guregandik Haren helburu nagusia lortzeko zeharkako bide bat delako. Beraz, zerk eragotz ziezaiokeen Berak gura zituen bihozberatasun-egintzak betetzeko, eta gaitzesten zituen bekatuak higuintzeko, berezko joera naturala guregan ezartzea?

Hiru galdera horiei eta antzeko beste guztiei erantzun orokor bakarra egin dakieke; honako hau: Mirari guztiak existitzen diren gauzen arteko edonolako izaki baten izaeraren aldatzea den arren, Jainkoak, halere, ez du gizakien izaera mirarien bidez aldatzen. Garrantzizko hastapen hori dela eta, honela errana da: «O! beti bihotz hori edukiko balute!» (Dt 5,29). Horra hor aginduen, debekuen, sarien eta zigorren zergatia. Geure obretako anitz tokitan funtsezko hastapen hori erakutsia dugu, eta horren aldeko frogak eman ere bai. Hastapen horren aldekoak bagara, ez da edozein giza banakoren izaera aldatzea Jainkoarentzat (gorets bedi!) zaila iruditzen zaigulako; aitzitik, hori egin daitekeena da, eta [Jainkoaren] ahalmenaren menean da. Halere, Pentateukoaren Legean dautzan hastapenen arabera, ez du hori inoiz egin nahi ukan, eta ez du sekula nahi ukanen; izan ere, giza banako batengandik erdietsi nahi duenaren arabera, banako horren izaera

aldatu nahiko balu, profeten misioa eta lege gintza osoa alferrekoak lirateke eta.

Neure gaira berriro ere itzuliz, hauxe diot: Era horretako gurkerak –sakrifizioez ari naiz– bigarren mailako xedea besterik ez zuenez, hel egiteak, otoitzak eta gurtzeko bestelako praktikak xede nagusira gehiago hurbiltzen eta bera erdiesteko beharrezkoak direnez, Jainkoak alde handia ezarri du bitariko gurkera moten artean. Izan ere, lehen motako gurkeraz –erran nahi baita sakrifizioenaz– berori Jainkoari (gorets bedi!) zuzentzen zitzaion arren, ez zaigu agindu hasieran zen bezala egiterik, hau da, opariak toki eta aldi guztietan eskaintzea. Ezin zitezkeen tenpluak edonon eraiki, ez eta sakrifikatzailetzat lehen agertua onar, ez eta nahi zuenak funtzio hori betetzerik ere «Kargu hori gogoko zuen edonor sagaratu...» (1 Erg 13,33). Aitzitik, hori guztiori Jainkoak galarazirik zeukan, eta Berak tenplu bakarra ezarri zuen: «Yhwh-k aukeratuko duen lekura eramango dituzue» (Dt 12,26); eta ez zen zilegi beste inon sakrifikatzea: «Gorde zaitetz holokaustoak eskaintzetik gogoak ematen dizun toki guztietan» (*ibid.* 13. bert.), eta ez zegoen familia berezi bat besterik apaizgorako gaitua zenik. Horrek guztiorrek horrelako gurkera murriztea zuen helburu, eta, Jainkoaren jakinduriaren iritziz, erabat baztertu behar ez zenari ere irauten uztea. Baina deiak eta otoitzak, aldiz, edozeinek egin ditzake edozein lekutan; eta gauza bera erran daiteke צִיִּצִית *šîšîṭ*, מְזוּזָה *mezûzāh*, תְּפִלִּין *tefillin*⁶⁶ eta gurkerarako gainerako gauzekin ere.

Agertu dizudan arrazoi horregatik, profeten liburuetan maiz gizakiei eginiko erantzukiak aurkitzen dira, sakrifizioak egiteko erakusten zuten lehia handiagatik, eta erraten zaie beroriek ez dutela berez funtsezko den helbururik, eta Jainkoak ez duela horien premiarik. Samuelek honela erran zuen: «Atseginago ote ditu, bada, Yhwh-k erre-opariak eta sakrifizioak beraren esana egitea baino?» (1 Sm 15,22). Eta, era berean, Isaiasek: «Niri zer, dio Yhwh-k, zuen sakrifizio multzo horrek? (Is 1,11). Jeremiasek ere badio: «Zuen arbasoak Egiptotik atera nituenean, ez nien ezer agindu erre-opari eta sakrifizioei buruz, ez nituen aipatu ere egin. Hauxe agindu nien bakar-bakarrik: «Aditu nire mintzoa, eta ni izango nauzue zeuen Jainko eta zuek izango zaituztet neure herri» (Jr 7,22-23). Pasarte hori zaila iruditu zaie ikusi ditudan edo beren mintzaldiak entzun dizkiedan guztiei. Nola –diote– erran zezakeen Jeremiasek, Jainkoak ez digula deus ere manatu holokausto

eta sakrifizioez, agindu kopuru handi bat horri buruzkoa besterik ez bada? Pasarte horren zentzua nik azaldukoan laburbiltzen da: «Ene helburu nagusia –dio berak– zuek ni hautematea eta nitaz beste inor ez adoratzea: *ni izango nauzue zeuen Jainko eta zuek izango zaituztet neure herri*». Sakrifizioak eskaintzeko eta tenplura joateko xedapenak ez zuen beste helbururik funtsezko hastapen hori ezartzea baino, eta horrexegatik eskualdatu ditut zeremonia horiek neure izenean, idolatria kutsua ezabatzen eta nire batasunaren hastapena sendoki ezarria izan zedin. Baina zuek xede hori alde batera utzi eta bitartekoari besterik ez diozue eutsi, ene existentziaz ere duda eginez: «Uko egin diote Yhwh-ri, esanez: [Jainkorik] ez da» (Jr 5,12); zeuen burua idolatriari eman diozue: «Baal-i intsentsua erre, zuekin zerikusirik ez duten jainko arrotzen atzetik ibili, eta, ondoren, nire aurrera zatozte niri sagaratua dagoen tenplu honetara» (*ibid.* 7,9-10); tenplura etortzen eta sakrifizioak egiten segitzen duzue, hori aldeztu aurretik pentsaturik zegoen helburua izan ez arren.

Badut oraino bertset hori ulertarazteko beste era bat, era berean, erakutsi berri dugun ideia daramana. Izan ere, testua eta tradizioa honetan bat datoz: agindu zitzaizkigun lehenbiziko legeetan ez zen inon holokaustoez ez sakrifizioez mintzatzen; ez baita hor *Egiptoko Pazko-bildotsaz* pentsatu behar, horrek arrazoi argi eta nabarmena daukalako, erakutsiko dugunez⁶⁷, eta, bestalde, Egipton bertan agindu zen, baina [Jeremiasen] bertset horretan aipatzen den legeria behin Egiptotik irten eta gero agindu zitzaigunaz ari da. Hori dela eta, bertset honetan honako murrizte berezia egiten da: «Egiptoko herritik irtenarazi zintudan egunean», behin Egiptotik irten eta gero eman ziren lehen aginduak Mara-koak izan zirelako, erran zigunean: «Yhwh, zure Jainkoaren, mintzoa arretaz entzuten baduzu» (Irt 15,26), «Hantxe eman zizkion herriari arauak eta legeak» (*ibid.* 25. bert.). Egiazko tradizioak hau dio: «Mara-n *Šabbat*-a eta lege zibilak xedatu ziren» (*Šabbat* 87b); beraz, araua erratean, hemen *Šabbat*-a (= '*larunbata*') aipatzen da, eta lege gisa, lege zibilak, bidegabekeria kentzea helburua dutenak. Hor, beraz, helburu nagusiaz ari da, erakutsi dugun bezala, erran nahi baitut, hasteko, fedearen egia gorenak, munduaren berritasuna, adibidez; izan ere, badakizu *Šabbat*-aren legea, batez ere, oinarritzat hastapen hori sendotzeko agindu zaigula, Tratatu honetan⁶⁸ azaldu dugun bezala. Egiazko ideietatik landa, gizakien

arteko injustizia eteteko helburua ere bazuen. Hortaz, argi dago, lehenbiziko legeetan kontua ez zirela holokaustoak ez sakrifizioak, horiek ez baitute bigarren mailako helburua besterik betetzen, jada erran dugun bezala. Jeremiasek adierazten zuen ideia bera Salmoetan ere adierazia da, nazio osoari egindako aholku moduan, berorrek ez baitzekien orduan bigarren mailako helburu hori: «Entzun, Israel, ene herri, zure kontra egingo dudan aitortpena. Neu naiz Jainkoa, zure Jainkoa! Ez zaitut salatzen zeure sakrifizio eta erre-opariengatik: aurean ditut beti. Baina ez dizut eskatzen zeure ukuiluko zekorrik, ez zure eskortako akerrik» (Sal 50,7-9). Ideia hori errepikatzen den guztietan, erran dizudan helburua eduki da gogoan. Eduki ezazu ongi kontuan eta egizu horretaz gogoeta.

ⲁⲗ HOGEITA HAMAHIRUGARREN KAPITULUA

[Legearen xedea grinei eta desirkundeei buruz. Legeak agintzen duen kanpoko garbitasunaren bigarren mailako balioa]

Lege hobezinak, beste gauza batzuen artean, geure burua ukatzea eta geure nahikeriak gaitzestea zeuzkan helburutzat, behar-beharrezkoraino horiek ahalik eta gehien hertsatuz. Badakizu jendetzaren nahikeria ohikoena, jan-edanetan eta haragizko maitasunean gertatzen dela: horrexek hondatzen du gizakiaren azken hobekuntza eta kaltegarria da lehen hobekuntzarako ere, gizarteko eta etxeko harreman gehienak ere ustelaraziz. Izan ere, nork bere grina hutsari jarraikiz, ezjakinek egiten duten bezala, aspirazio espekulatiboak birrintzen dira, gorputza usteltzen da eta gizakia hil egiten da haren eraketa fisikoak hori eskatu baino lehen; ardurak eta kezak ugaltzen dira, jeloskortasuna eta elkarrekiko gorrotoa handitu eta elkar jotzeraino heltzen da, elkarren lapurretan. Hori guztiori pertsona ezjakinak, erdietsi behar den oinarritzko xede bakarra atsegina dela uste izatetik dator. Horregatik Jainkoak (gorets bedi!) aurreikusmena erabili du xede hori suntsitzeko, horretatik gure pentsamendua era askotan urruntzeko lege egokiak emanaz. Gutiziara eta atsegin hutsera daraman guztia galarazi digu, eta horixe da lege horren ezaugarri nabarmenetako bat. Ez al dakusazu Legearen testuko hitzek agintzen dutela jan-edan ederren plazerera joera handiegia

erakusten duena hilarazteko? Hori da «Seme ez esanekoa eta bihurria» (Dt 21,18), «sabeldarraio eta hordia» deritzona (*ibid.* 20. bert.). Holakoa harrika hiltzeko eta berehala gizartetik kentzeko agintzen da, arazoa larriagoa egin baino lehen, pertsona horrek jende asko hil eta, haren nahikeria bortitzagatik, gizaki bertutetsuen egoera hondatu baino lehenago.

Legeak gogoan bazuen beste xede bat, guri gozotasuna eta otzantasuna iradokitzea; eta horrela, gizakia, gogorra eta arrunta izan ordez, aitzitik, atsegina, diziplinadun eta amore emaile guri gozotasuna eta otzantasuna iradokitzea zen; eta horrela, gizakia, gogorra eta arrunta izan ordez, aitzitik, atsegina diziplinadun eta amore emaile izatea nahi zuen. Badakizu Jainkoaren agindua: «Zeuen bihotzen prepuzioa erdainduko duzue eta ez duzue zuen lepoa gehiago gogortuko» (Dt 10,16); «Zaude isilik, Israel, eta entzuzu» (*ibid.* 27,9); «Zuek esanekoak izan nahi baldin baduzue...» (Is 1,19). Nahitaezkoa dena onartzeko otzantasunaz mintzatuz, esaera hau erabiltzen da: «Eraman gaitzazu zure atzetik herrestan, gu zure atzetik laster dagigun» (Kant 1,4)⁶⁹.

Legeak kontuan hartzen zuen beste xede bat garbitasuna eta santutasuna zen, hots, haragizko maitasuna ekidin eta hartara ahalik eta gutxien jarduteko, geroago azalduko dudanez. Jainkoak (gorets bedi!), Legea hartzeko, herria santifikatzeko agindu zuenean, erraten den bezala: «Gaur eta bihar santifikatuko dituzu» (Irt 19,10), erran zuen: «Ez zarete ezein ere emakumerengana hurbilduko» (*ibid.* 15. bert.), horrela santutasuna haragizko maitasuna zapaltzean datzala adieraziz. Era berean, ardotik hasantzea santutasuna dela aldarrikatzen da, *nazireutzaz* honela mintzatzen da eta: «Santua izanen da» (Zkiak 6,5). *Sifrā'-n* (שפרא) hau irakurtzen da: «Santifikatuko zarete eta santuak izanen zarete» (Lb 11,44), aginduen bitarteko santifikazioa alegia. Eta aginduak obeditzeari Legeak santutasuna eta garbitasuna deitzen dien bezala, era berean, aginduak hausteari eta egintza lotsagarriei satsutasuna deritze, erakutsiko dudanez.

Jantzien garbitasuna, gorputza ikuztea eta zikintasunak xahutzea, halaber, Legeak kontuan izandako gauzak dira, baina horiek egintzen garbitasunaren eta bihotza ideia eta ohitura satsuetatik xahutu ondoan datoz. Kanpoaldea garbi edukitzera mugatzea, burua ikuziz eta jantziak xahutuz, aldi berean atseginen nahikeria eta oturuntzetan

eta haragizko maitasunean murgildurik iraunez, oso gaitzesgarria litzateke. Isaiasek, honetaz, hau dio: «Lorategietan santu eta garbi agertzen direnak, baina oso bestela barrutik, txerriak jaten dutenak...» (Is 66,17); erran nahi baitu horiek leku ageri eta publikoetan garbi eta santu azaltzen direla, baina ondoren, beren geletan eta beren etxeen barruan, beren bekatueta diraute, gauza debekatuak jatera joanez, hala nola urdea, arratoia eta beste satsukeria batzuk. Gerta daiteke **אחת בתוך אחר** *'aḥar 'aḥat bā-tāwek* ('barruan den baten atzean') hitzen bitartez adierazi nahi izatea, bakartasunean, amodio debekatuan aritzen direla. Guztira, erran nahi izan dena hauxe da, haien kanpoaldea xahu dagoela, eta garbitasuna eta araztasuna erakusten, baina barruan segitzen dutela beren grinetan eta gorputzaren atseginetan. Ez da hori, ordea, Legeak nahi ukan duena, aitzitik, bere helburua, nagusiki, grina zapaltzea izan da, eta kanpoaldearen garbitasuna barrukoaren ondokoa izan dadila⁷⁰. Salomonek, jada, agiraka egiten die beren gorputza ikuzi eta beren jantziak xahutzeaz arduratzen direnei, aldiz, eginak satsu eta ohitura gaiztoak dituztelarik: «Arraza bat –dio Berak– burua garbi duela uste duena, eta, halere, ez da bere zikinkeriatik ikuzi; begiak gora begira daramatzen arraza bat, betazalak altxaturik» (EsZah, 30, 12-13).

Kapitulu honetan aipatu ditugun [Legearen] asmoak kontsideraturik, agindu askoren arrazoiak ulertuko dituzu, asmo horiek jakin aurretik ezezagunak, ondoren erakutsiko dizudanez.

ל' HOGEITA HAMALAU GARREN KAPITULUA

[Bai goitik irakatsiriko Legeak eta bai lege naturalak ororen ongitasunari begiratzen diote, eta ez bana-banako kasuei]

Oraindik jakiteko da Legea ez dela salbuespenezkoari begira egoten. Legeriak ez dio behatzen bakanki gertatzen denari; izan ere, ideia, ohitura eta egintza mesedegarriei dagokienez, [Legeak] ez ditu gogoan eduki maizenik jazotzen diren kasuak besterik, bakanki gertatzen denari begiratu gabe, eta halako erabaki eta holako lege-egoeratik banako bakarrari hel dakioken kalteri kasurik egiteke. Izan ere, Legea jainkozko gauza bat da, baina kontuan hartu behar dira Legeko abantaila orokorrak besarkatzen dituzten Naturako gauzak,

horietarik, halere, kalte partikularrak etor daitezkeelako, bai guk eta bai beste batzuek ere erakutsi dugunez.

Gogoeta hau egin eta gero, ez zaitu harrituko Legearen helburua banako bakoitzean ez konplitzeak. Aitzitik, nahitaez izanen dira banako batzuk Legearen erregimen horrek erabat osamaitzen ez dituenak, espeziearen forma fisikoek ere, banako bakoitzean, beharrezkoa den guztia ekoizten ez dutelako; gauza horiek guztiak Jainko bakarrari, eragile bakarrari, jarioak zaizkiolako, eta «artzain bakarrak emanak izan direlako» (Qoh 12,11). Kontrakoa ezinezkoa litzateke, eta jada errana dugu, ezinezkoak izaera egonkorra daukala, behin ere aldatzen ez dena.

Gogoeta honi darraionez, Legeak ezin dira zehatz-mehatz gizabanakoen eta denboren zirkunstantzietara egokitu, eta, medikuen trataera bezala, banako bakoitzean berak une horretan daukan temperamentu bereziaren araberkoa izan behar du. Horregatik, lege-erregimenak absolutua izan behar du eta [pertsonen] gehiengoa besarkatzea, nahiz eta, litekeena izan, banako batzuei komeni izan arren, beste batzuentzat, ordea, komenigarria ez gertatzea; izan ere, bana-banakoei egokituko balitzaie, multzoak sufritu egin lezake eta «Gauza erlatibo bat eginen duzu» (Šabbat 35b). Hori dela eta, Legeak helburu nagusizat daukana denbora eta leku [zirkunstantzietatik] loturarik gabe dago; Lege-xedapenak absolutuak eta orokorrak dira, errana den bezala: «O batzarra! Lege bakar bat izanen da zuentzat Yhwh-ren aurrean» (Zkiak 15,15), eta oro har eta kasu ohikoenen baliagarri dena besterik ez dute kontsideratu, jada erakutsi dugunez.

Eta aurretiko ohar horien ondoren, pentsaturik neukan gaiari ekingo natzaio.

לה HOGITA HAMABOSGARREN KAPITULUA

[Pentateukoan ageri diren aginduak hamalau sailetan banatuak eta horietariko bakoitzaren arrazoi nagusiak]

Xede horretarako, agindu guztiak hamalau sailetan banatu ditut.

Lehenengo sailak funtsezko ideiei dagozkien aginduak hartzen ditu bere baitan; horiek dira יסודי התורה *Yesōdê ha-Tôrâh* ('Legearen hastapenak') tratatua banan-banan aipatu ditugunak. Sail horretakoak dira penitentzia eta barauak ere, azalduko dudanez. Legea sinestea iradoki behar diguten egia goren horiek txertarazteaz ari garenean, ez da galdetu behar hori zertan den baliagarria, jada erakutsi dugunez.

Bigarren sailak idolatria galarazteari dagozkion aginduak besarkatzen ditu, eta horiek dira עבודה זרה *Ābōdāh zārāh* ('Idolatriaz') tratatua aipatuak ditugunak dira. Jakin behar da askotariko osagaiez eginiko ehunei doazkien aginduak, zuhaitzen lehen ekoizpenei eta mahastia [beste landare batzuekin nahasteari], era berean, sail honetan sartzen direla, erakutsiko denez. Sail honen motiboa ere ongi igartzen da, oro har, beronen xedea egiazko ideiak sendotu eta herriarengan urteetan zehar iraunaraztea da eta.

Hirugarren sailak ohiturak hobetzeko aginduak dauzka, eta horien zerrenda דעות *Dē'ôt* ('Etika-arauak') deritzon tratatua jarri ditugu. Gauza jakina da ohitura onen bitartez gizakien arteko tratua eta harremanak hobetu egiten direla, gauza beharrezkoa berau gizarte-egoera ongi arautua izan dadin.

Laugarren sailak limosnei, maileguei, eskuzabaltasunei eta horien eranskinei loturiko aginduak biltzen ditu, hala nola balioespenak, eta sagarapenak, maileguei eta esklaboei buruzko erabakiak eta זרעים *Zerā'im* ('[ereiteko] Haziak') liburuan aipatzen diren agindu guztiak, heterogeneoak eta zuhaitzen lehen fruituak salbuetsirik. Agindu horien guztien arrazoiak begien bistan dago: hortik gizaki guztiek probetxua ateratzen dute eta. Izan ere, norbait gaur aberatsa baldin bada, gerta dakioke bihar eskeko izatea, bera edota beraren ondorengoak; eta gaur pobre baldin bada, bihar aberats izan daiteke, bera edo beraren ondorengoak.

Bosgarren sailak helburuz indarkeria eta injustizia baztertzeko helburua duten aginduak hartzen ditu. Horiek dira נזיקין *Nezīqîn* ('Kalteak') gure tratatuaren mamia osatzen dutenak. Sail honen baliagarritasuna nabarmena da.

Seigarren saila zigorra ezartzeko legeei dagokie, esaterako, ebastea, bide-lapurretak, lapurreta, gezurrezko lekukotza eta, oro har, שופטים *Šōfetîm* ('Epaileak') izeneko liburuan jarri duguna. Horren

baliagarritasuna nabaria eta ageria da; izan ere, erruduna zigortuko ez balitz, bidegabekeria ez litzateke etenen, eta indarkeria besterik arnasten ez dutenak ez lirateke geldituko. Izpiritu ahulek ez bestek uste dute zigorrak abolitzeak gizakientzako errukia lekarkeela. Hori haiekiko egiazko gogortasuna litzateke eta gizartea bera haustea. Errukia, aitzitik, Jainkoak emandako agindu honetan datza: «Epaileak eta legelariak ezarriko dituzu zeure hiri guztietan» (Dt, 16,18).

Zazpigarren sailak gizakien arteko [merkataritza-] harremanei dagozkien jabetza-eskubideak hartzen ditu, hala nola maileguak, alokairua ordaintzeko tratua, gordailuak, salmentak, eta קנין *Qinyān* ('Erosketaz') eta משפטים *Mišpātîm* ('Eskubideak') liburuetan banan-banan aipatu ditugun aginduak dira. Sail honek mesede argi eta garbia dauka, diruzko tratu horiek Estatu bakoitzeko gizakientzat beharrezkoak direlako, eta nahitaezkoa da harreman horietan bidezko arau zuzenak ezartzea, probetxuzko begiespenaren menean.

Zortzigarren sailean egun santuei buruzko aginduak sartzen dira, erran nahi baita larunbatei eta jai-egunei doazkionak. Eskriturak azaldurik utzi ditu horietako bakoitza eta izateko duen arrazoia, hau da, halako ideia bat jaioaraztea, edo gorputzarentzako atsedena ematea, edo ondorio biok batera ekartzea, geroago azalduko dugunez.

Bederatzigarren sailean guztioi dagozkigun gainerako kultu-praktikak aurkitzen dira, esaterako, otoitza, שמע *Šema* ' irakurtzea eta אהבה *'Ahābāh* ('Jainkoaren maitasunaz') liburuan aipatu ditugun gainerako gauzak, *Erdaintzea* izan ezik. Sail honen baliagarritasuna ageri-ageria da, praktika horiek guztiok Jainkoaren maitasunarekiko loturiko ideiak sendotzeko balio dutelako, bai eta Hari buruz sinetsi behar dena eta egotzi behar zaiona ere.

Hamargarren sailean santutegiari buruzko aginduak sartzen dira, hango tresnei eta zerbitzariari doazkienak. Horiek עבודה *'Ābōdāh* ('Kultuaz') deritzen liburuaren zati batean aipatuak ditugu. Aurretik ere sail honen mesedegarritasunaz mintzatuak gara.

Hamaikagarren sailak erre-opariei doazkien aginduak dauzka; hortxe dautza עבודה *'Ābōdāh* ('Kultuaz') eta קרבנות *Qorbānôt* ('Erre-opariak') liburuetan aipatu ditugun agindu gehienak. Lehenago ere (32. kap.) sakrifizioen aginduak, oro har, zer-nolako baliagarritasuna duen azaldu dugu, bai eta garai hartan horren beharizana zein zen ere.

Hamabigarren sailean garbitasun- edo satsutasun-kasuei dagozkien aginduak biltzen dira. Agindu horiek guztiok zeukaten xedea, oro har, satsutasun-egoeretan santutegia ez bisitatzea zen, haren handitasuna barneraino sarturik sentitzeko, hura beldur eta errespetuzko objektua izan zedin, erakutsiko dizudan bezala.

Hamahirugarren sailean elikagai batzuen debekua eta berorien ingurukoei buruzko aginduak daude. Horiek מאכלות אסורות *Ma'ākālôt 'āsûrôt* ('Elikagai galaraziak') tratatuan zerrendatu ditugun elikagaiak dira, baina botoei eta nazireutzari doazkion erabakiak, era berean, sail honetakoak dira. Horrek guztiorrek elikagai guztiz finak bilatzera bultzatzen gaituen grina eta janari gozoak eta edaria bizitzaren helburua izatea eragozteko xedea dauka, משנה *Mišnāh*-ri buruzko iruzkinean, אבות *'Abôt* tratatuaren sarreran, erranik utzi dugunez.

Hamalaugarren sailak bizikidetasun batzuk galarazteko aginduak dauzka. Horrelakoak dira נשים *Nāšîm* ('Emakumeak') liburuan eta אסורי ביאה *Issûrê bi'āh* ('Zilegi ez diren elkertasunak') izeneko tratatuan jarri ditugunak; era berean, [espezie bitako] animalien nahasketa sail honi dagokio. Agindu horiek emakumeekiko harremanak gutxitzeko xedea dute, ahal den neurrian mugagabeko sexu-nahia murriztuz, horretan jarri gabe, ergelek egiten dutenez, giza existentziaren helburu nagusia, אבות *'Abôt* tratatuaren iruzkinean erakutsi genuen bezala. Sail honexetan sartzen da, halaber, erdaintzea bera ere.

Gauza jakina da agindu guztiak bi zatitan bana daitezkeela, bata gizakien arteko harremanei buruz, eta bestea gizakiak Jainkoarekin dituen harremanei buruzkoa. Gure sailkako banaketa honetan, bosgarrena, seigarrena, zazpigarrena eta hirugarren sailaren zati bat gizakiek beren artean dituzten harremanez ari dira; gainerakoak, gizakiek Jainkoarekin dituzten harremanei dagozkie. Izan ere, agindu oro, baiezkoa zein ezezkoa izan, gu halako nolakotasun moralaz edo ideiaz hornitu, edo gure egintzak zuzentzea helburutzat duena, gizabanakoari begira, berori hobetu nahirik, doktoreek «gizakiaren eta Jainkoaren arteko harremana» deitua dute, batzuetan gizakion arteko komunikaziora lerratzen den arren; baina azken kasu hau tarteko gauza askoren ondoren eta ikuspuntu orokorretatik besterik ez da gertatzen, eta lehen ikuspegitik ez da deus nabaritzen gainerako gizakiei uki diezaiekeenik. Eduki ezazu hau ongi gogoan.

Eta [aginduen] sail ezberdin hauen arrazoiak jakinarazi eta gero, sail horietako bakoitzean gorderiko aginduak jorratzen segituko dut, batez ere, zenbaiten ustez, inolako baliagarritasunik gabeak, edo oinarri arrazionalik gabeko agindutzat hartzen direnak. Hortaz, arrazoiak eta erabilgarritasun-kasuak azalduko ditut, kasu gutxi batzuk salbuetsirik, horien helburua, orain arte bederen, ez baitut aurkitzerik izan.

17 HOGEITA HAMASEIGARREN KAPITULUA

[Lehen saila: erlijio eta moral aldeko funtsezko ideiei buruzko agindua. Orotariko gogoeta batzuk]

Lehen sailean sarturiko aginduak, hau da, ideiak, eta *Yesōdê ha-Tôrāh* (= ‘Legearen Oinarriak’) tratatua aipatu ditugunak, guztiak argiro motibatuak dira. Horiek banan-banan aztertzen badituzu, hor beti aurkituko duzu egiazko egia bat, frogatzeko modukoa. Era berean, ikasteko eta irakasteko bultzada eta pizgarri den guztiak begien bistako baliagarritasuna dauka, zeren zientziarik eskuratu ez bada, ez da bertute praktikorik egonen, ez eta ideia osasungarrikeria ere. Bide beretik, begien bistako baliagarritasuna dauka «Legearen zutabeak» direnak ohoratzeak, horiek gizakien aurrean oso aintzat hartuak ez badira, ez zaie beren haitzak entzunen, berek gure pentsaera eta gure egintzak gidatu nahiko dituztenean. Hitz hauetan adieraziriko aginduan: «Jaiki zaitetz buru-zuriaren aurrean» (Lb 19,32), modestiaz ibili beharra ere sarturik dago.

Lehen sail honetakoak dira, halaber, haren izenean zin egiteko manatzen diguten aginduak eta zina haustea debekatzen digutenak, edo alferretan zin egitea. Horrek guztiorrek badu arrazoi ageria, eta Jainkotasunari zor zaion errespetua du helburu, horiek baitira Haren handitasunean sinestea sendotzen duten egintzak.

Sail honi dagozkio, halaber, larrialdietan Jainkoari dei egiteko agindua, errana den bezala: «Tronpetak joaraziko dituzue» (Zkiak.10,9); horrek egiazko ideia bat sendotzeko balio duelako, hau da, Jainkoa (gorets bedi!) gure egoeraz konturatzen dela, Beraren esku dagoela hori hobetzea, baldin obeditzen badiogu, eta hura okerrago bihurtzea hari desobedituz gero, eta ez dela horretan zoriaren ondorioa edo akzidente huts bat ikusi behar. Horixe da berba hauen zentzua:

«Oraindik enekin bazabiltzate zoriaren bidean» (Lb 26,21), honetara aditu behar dena: «Zuek zigortzeko, zuen gainera eroraraziko ditudan ezbehar horiek zori hutstzat hartzen badituzue, usteko zori hori handitu egingen dizuet daukan gauzarik larrienean eta ankerrenean» errana denez: «Oraindik enekin bazabiltzate zoriaren bidean» (*ibid.* 27-28. bert.). Izan ere, haiek hor zori hutsa besterik ez zelako sinesteak beren iritzi kaltegarrietan eta beren erlijioaren aurkako egintzetan irauteko ondorioa eduki behar zuen, errana zen bezala: «Jo dituzu, eta ez dira dolutu (= ikaratu ere ez)» (Jr 5,3). Horrexegatik agindu du Jainkoak dei degiogula, Harengana jo dezagula eta zoritxar bakoitzean geure eskariak Hari zuzentzeko.

Agerian da, halaber, penitentzia ere sail honi dagokiola, erran nahi baitut, gizarte erlijioso ongi antolatua egon dadin, onartu behar den ideia multzoaren atal bat osatzen duela [penitentziak]. Izan ere, ezin daiteke gizakiak bekaturik ez egitea eta ez behaztopatzea, dela ezjakinez, iritzi edo portaera gaitzesgarriren bat onartuz, dela konkupiszentziak edo grinak bera garai dezan utziz. Hortaz, gizakiak sinets ahal baleza gaitz hori betiko konponezina dela bere okerrean iraunen luke, eta, beharbada, are bekatu gehiago egingen lituzke, hori konpontzeko modurik ez lukeelakoan; baina penitentzian sinetsi gero, bere burua zuzendu eta hobetu egingen da, eta are bekatu egin baino lehenago baino osamaituagoa ere. Horregatik egiazko eta probetxuzko ideia hori sendotu behar duten eginak ugariak dira: konfesioez mintzatu beharra daukat, bai eta okerrengatik eta nahita eginiko bekatuengatik eskainitako erre-opariez, eta barauengatikoez ere. Penitentziaren ezaugarri nagusia, oro har, bekatu bakoitzetik askatzea da, eta horra jotzen du, helburuz, ideia horrek. Gauza horiek guztiok, beraz, begien bistan denez, probetxugarriak dira.

לז HOGITA HAMAZAZPIGARREN KAPITULUA

[*Bigarren saila: idolatriari eta sabeismoari buruzko aginduak.
Magia-sineskerak eta paganoen ohiturak*]

Bigarren sailak gordetzen dituen aginduak guk עבודה זרה
'*Abōdāh zārāh* ('Idolatriaz') tratatuan zerrendatu ditugun guztiak

dira. Begien bistan dago horien guztion helburua idolatriaren okerretatik eta idolatriak aldean dakartzan beste ideia faltsuetatik gu babestea dela, hala nola iragarpen, aztikeria, sorginkeria, liluratze eta antzeko beste gauzetatik. Aipatu dizkizudan liburu guztiak irakurriko dituzunean, argiro ikusiko duzu *magia* deritzon hori kasdearren eta kaldearren praktikak direla, batez ere egiptoar eta kanaandarren artean maiz erabiliak. Sinetsarazi nahi zuten, edo halaxe sinesten zuten berberek, praktika horiek mirarizko edo ohi ez bezalako eragina zutela munduan, bai banakoarengan, eta bai hiri bateko bizilagunengan ere; baina logikak eta arrazoimenak ezin eman dezakete ontzat magoen praktikek edonolako ondoriorik dakartenik, esate baterako, halako une batean halako landare bat bildu nahi denean, edo gauza batetik halako kopuru bat eta beste gauza batetik halako beste kopuru bat hartzen dutenean. Horiek era askotako prozedurak dira, eta nik neuk hiru motatan laburbilduko nituzke: 1) edonolako izakiari buruzkoak, berori animalia, landarea zein minerala izan; 2) halako denbora finko bati buruzkoak, praktika horiek orduantxe egitekoak izanik; 3) gizakiek egindako egintza batzuk, hala nola dantzatzea, eskuekin txaloak jotzea, oihu egitea, barre egitea, hanka baten gainean jauzika aritzea, lurrean etzatea, zerbait erretzea edo nolabaiteko keztatzea egitea, edo halako hitz ulergarri edo ulertezinak erratea. Holakoxeak izaten dira eragiketa magikoak.

Eragiketa magiko batzuk egintza horiek guztiak batera egiten direnean besterik ez dira betetzen. Horretara, esaterako, honela erraten dute: Halako landaretik honenbesteko edo horrenbesteko hosto kopurua hartuko da, Ilargia zodiakoaren halako zeinuaren pean aurkitzen denean, ekialdean edo beste puntu kardinaletako batean; era berean, halako animaliaren adarrak hartuko dira, edo haren gorotzetik, edo haren ile edo odoletik honenbesteko kopurua, esaterako, Eguzkia zeruaren erdian edo beste toki jakinean aurki dadinean; azkenean, halako metal bat erantsiko da, edo metal batzuk, eta horiek halako zeinuaren eraginpean urtuko dira, hain zuzen argizagiak halako egoeran aurkitzen direnean; ondoren, hitz egingen da edota halako gauza erranen da, eta hosto horiekin, edo dena delakoarekin, metalezko figura hori keztatuko [edo ihinztatuko] da, eta horren guztiorren ondorioz halako zerbait gertatuko da. Baina beste eragiketa magiko batzuk, haiek sinesten dutenaren arabera, hiru eragiketa horietako bakar batez

betetzen dira. Eragiketa magiko horietako gehienetan beharrezko baldintza hau jartzen dute emakumezkoek betearaziak izatea. Horretara, adibidez, ura jalgi dadin, nahitaezko baldintzatzat hauxe eskatzen da, hamar emakume birjina, bitxiz apainduak eta gorritz jantziak, dantzan aritzea, eta aurrera edo antzera ibiliz hurbiltzea, elkarrengana joanez, Eguzkia ikusten utziz, etab. Era honetara, iruditzen zaienez, ura jalgiko da. Diotenez, halaber, lau emakumek, bizkar gainean etzanik, hankak altxatu eta elkarretarik aldentzen badituzte, eta lotsagabeko jarrera lizun horretan halako hitzak erran eta halako egintza egiten badute, txingorra eten eta ez dela leku horietan eroriko. Badira oraino absurdokeria eta erokeria horietarik beste asko, horien praktika, beren nahitaezko baldintzaren arabera, espresuki emakumeei dagokiela. Ariketa magiko guztietan, halaber, argizagien egoerari behatu behar zaio, haien ustez holako landarea, zoriaren arabera, halako argizagiari baitagokio, eta, era berean, mineral bakoitza halako beste astro banari. Halaber, haien iritiz, magoek egindako praktikak halako edo holako argizagiari eskainiriko gurtze modua da, eta, praktika horretan, hitz horietan edo halako keztatzeko erari atsegin harturik, ondoren gugatik nahi duguna egiten du.

Hasierako ohar honen ondoren, haien liburuak irakurritz, honezkero gure eskuetan aurkitzen diren eta jada ezagutarazi dizkizudanak, entzuzu erranen dizudana: Legearen helburua eta, horrela adierazteko, erdigunea osotzen zuena, idolatria suntsitzea zen, horrexen arrastorik ere utzi gabe; [Legeak] ez zuen nahi pentsa zedin edonolako astro batek eragin bat, kaltegarri edo mesedegarria, gizakiei dagokien ezertaz ere ukan zezakeenik, sineskera horrek astrolatria ekarri zuen eta. Horren ondorioz, magoak oro hiltzera eramane behar ziren; magoa, zalantzarik gabe, idolatriara emana delako, horretarako bide bereziak eta bitxiak erabili arren, jende arruntak jainko faltsuak gurtzeko segitzen dituenak ez bezalakoak badira ere. Hortaz, jarduera magiko horietan guztiotan, edo gehienetan bederen, emakumeek eraginak izan behar dutela baldintza nagusitzat jarri denez gero, honela errana da: «Ez utzi sorginik bizirik» (Irt 22,17). Ondoren, berezko errukiak gizonezkoei emakumezkoak hiltzea galarazten dienez, idolatriari buruz berariaz erran da: «gizon nahiz emakume» (Dt 17,2), eta berba hauek errepikatu egiten dira «gizona nahiz emakumea» (*ibid.* 5. bert.), larunbataren profanazioaz ez beste

ezein aginduz ere inoiz erabiliak izan ez arren. Horren arrazoia emakumeek, lege naturalagatik, iradokitzen duten erruki handian datza. Magoek beren arteari hain eraginkortasun handia egozten zioten beren antzeari, non uste baitzuten, beren jardueren bidez, landetatik animalia arriskugarriak egotz zitzaizketela, hala nola lehoiak, sugeak, etab. Era berean, beren magiaz, landareak era guztietako gaitzetatik bermatu ahal zituztela baitesten zuten, eta arterio batzuk zerabiltzaten, horien bidez, ustez, txingorra erortzen eragozteko, eta beste batzuk, berek ziotenez, mahastietako harrak hiltzeko, haiek suntsi ez zitezen. Sabearrek, *Nabatear Nekazaritzako* liburuan xehetasun handietan sartzen dira mahastietako harrak hiltzeko eraz, jadanik aipatu ditugun *amorrear* usadio horien bitartez. Era berean, ziotenez, ba omen zituzten halako baliabide batzuk zuhaitzetako hostoak eta fruituak eror ez zitezen. Orduan oso hedaturik zeuden sineskeria horientatik guztiongatik, Itunaren hitzetan (Dt 28,69), erraten da, besteak beste, jainko faltsuak gurtzea eta horrelako eragiketa magikoak, zeintzuen bidez arriskuak uxatu uste zutenak, gertatzen zirela, hain zuzen, zorigaitz horien kausa. Adibidez, honela erraten da: «Basapiztiak bidaliko dizkizuet aurka: seme-alabarik gabe utziko zaituztete» (Lb 26,22); «txikituko dituzten basapiztien haginak bidaliko dizkiet eta hauts gainean herrestan dabiltzan sugeen pozoia» (Dt 32,24); «zuen zuhaitz eta lurreko fruitu guztiak larrotiak hondatuko ditu» (*ibid.* 28,42); «Mahastiak landatu eta landuko dituzue, baina ez ardorik edango, ezta mahatsik bilduko ere, harrak jango baititu» (*ibid.* 39. bert.); «Zeure lurralde guztian ukanen dituzue olibondoak, baina ez zarete oliboz gantzutuko, olibak erori egingo baitira» (*ibid.* 40. bert.). Guztira, jainko faltsuen adoratzaileek, haien gurkera iraunarazteko, asmatu-arterio horien guztien aitzinean, bide horien bidez zoritxar batzuk saihestu eta zenbait abantaila lor daitekeela gizakiei sinetsaraziz, Itunaren hitzetan aldarrikatu da, jainko horien gurkeraren ondorioz, abantaila horiek faltako eta zoritxarrak, aldiz, helduko direla. Orain ulertuko duzu, irakurle horrek, zergatik Eskriturak madarikazio horiek eta bedekinkazio guztiz berezi horiek, Itunaren hitzetan gordeak, behin eta berriz aipatzen dituen, besteen gainetik nabarmenaraziz, eta horien baliagarritasun handiaz konturatuko zara.

Magiazko eragiketa guztietatik urrunarazteko, oro har, idolatren ohitura horietarik edozein praktikatzan debekatu zigun, bai

eta nekazaritzako eta artzaintzako praktikei dagozkienak eta horien antzekoak ere; erran nahi dut, haien iritziz, mesedegarria den eta halako indar ezkutuen ondorioz heldu dena, hor fisikaren ikerketak inolako zerikusirik ukan gabe. Horri dagokio Eskrituraren testu hau: «Ez bizi zuen aurretik botatzen ditudan herrien legeen arabera...» (Lb 20,23), eta hori da doktoreek «Amorrearren usadioak» deitzen dutena. Izan ere, horiek magoen praktika batzuen abarrak besterik ez dira, holakoak ez baitira arrazoiketa fisikotik heldu diren gauzak, eta bai ariketa magikoetara gidatzen dutenak, horiek, noraezean astrologian oinarri harturik, argizagiak gorestera eta beroriei gurkera eragitera heltzen dira eta. Doktoreek honela diote bereziki: «Medikuntzako erremedio gisa praktikatzan den guztia ez da Amorrearren usadiotzat hartzen» (*Šabbat 67a*); erran nahi baita: Fisikaren azterketak eskatzen duen guztia sori da, baina gainerako praktikak galarazirik daude. Horrexegatik, hau esan ondoren: «Fruituak erortzen zaizkion zuhaitza, harriz zamatu eta klera gorriaz markatzen da», praktika horri ondoko objektzioa egiten zaio: «Harriz zamatzeari dagokionez, horren izerdia gutxitzeko da; baina zergatik markatu behar da klera gorriaz? Beraz, argi dago horrekin debekaturik legokeela klera gorriaz markatzea, edo arrazoirik gabeko beste gauza antzeko bat egitea, hori amorrearren usadioetariko bat litzatekeelako. Modu berean, «animalia sakratuen umekia, lurperatu behar dena» (*Hulin 4,7*), hau erraten da: «Ez da zilegi hura zuhaitz batetik esekitzea, ez eta bidegurutze batean ehorztea ere, horiek amorrearren usadioak direlako». Hortik antzeko kasu batzuei buruzko ondorioak atera daitezke. Hortaz, ez zaituzte harrituko zilegitzat jotzen ziren beste gai batzuek, esaterako, urkatuaren iltzeak eta azeriaren haginak, garai haietan holako gauzak esperientziak frogaraziak zirelakoan. Beraz, sendagaien kategorian sartzen ziren, gure artean epileptikoaren gainean peonia zintzilikatu ohi den bezala, edo zakur-gorotza eztarriko hanturaren kontra erabiltzen den bezala, eta ozpin- eta markasita-ihintzaldiak tendoien tumore gogorren aurka. Izan ere, horrelako erremedio guztiok esperientziak frogatuak dira, oso arrazionalak izan ez arren, eta zilegi da horiek erabiltzea, sendagaien kategorian sartzen baitira, purgatzeko erremedioen maila berean. Ongi sakondu behar duzu, irakurle, egin berri dizkizudan ohar garrantzitsu hauetan, eta zeure gogoan gorde: «Edertu egingo zaituzte, koroak burua eta idunekoa lepoa bezala» (*EsZah, 1,9*).

Adatsaren eta bizarraren ertzak mozteko debekuaz den bezainbatean geure obra nagusian jada erakutsia dugu hori apaiz idolatren ohitura zela. Arrazoi berberagatik galarazi dira askotariko osagaiez eginiko ehunak, hori apaiz idolatren ohitura baitzen, janzteko zerabiltzaten ehunetan landare- eta animalia-gaiak batera biltzen zituztelako, eta aldi berean eskuan edonolako mineralaz eginiko zigilu bat eramatea. Hori, hitzez hitz, haien liburuetan aurkituko duzu.

Era berean, [idolatriaren] arrazoi berberagatik, hau errana da: «Emakumeak ez du gizonezkoen jantzirik erabiliko, ezta gizonak ere emakumezkoen soinekorik jantziko (Dt 22,5). Hori *Tomtom* liburuan ikus dezakezu, zeinek agintzen baitu gizonezkoak, Artizarraren planetaren aitzinean agertzean, emakume-jantzi ñabarraz egin behar duela, eta emakumezkoak, Marteren aurrean aurkeztean, koraza batekin eta gerrarako harmekin horniturik egon behar duela. Galarazte horrek, ene aburuz, badauka bestelako arrazoa ere: egintza horrek grinak kitzikatzen eta arinkeria mota guztietara bultzatzen duelako.

Idoloetatik edonolako probetxua ateratzeko debekuari dago-kionez, horren arrazoa garbi dago: izan ere, inoiz, horiek hausteko hartuz gero, gorde litezke eta ondoren tranpa bihurtu. Behin horiek hautsi eta urtu eta gero, edo pagano bati saldurik, galarazirik legoke hortik lorturiko diruaz baliatzea. Izan ere, jende arruntak gauza akzidentaletan maiz kausa esentzialak ikusten ditu. Horretara, adibidez, maiz aurkituko duzu halako gizon bat erranez, halako etxean bizi denetik, edo holako zamaria edo altzaria behin erosi ondoren, aberastu egin dela eta ondasun handiak erdietsi dituela, eta objektu horiek harentzat bedeinkatua izateko kausa gertatu zaizkiola. Beraz, litekeena da pertsona batek, merkatalgoan, ausaz, ondasun handiak lortzea, edo [idolo horien] prezio horregatik diru asko irabaztea, eta horren *kausa* hortxe ikustea, salduriko estatua horren prezioari lotutako bedeinkazioak ondorio hori ekarri diola uste izatea. Pertsona horrek, ondorioz, Lege osoa kontra egiten saiatzen den zerbait sinetsiko luke, Pentateukoaren testu guztietatik ateratzen denez. Arrazoi berberagatik debekaturik dago gurtze-objektu bat estaltzen duten apaingarrietatik probetxu ateratzea, bai eta idolatriako ontzi edo eskaintzetatik ere, iritzi oker horretatik babesturik egon gaitezen, garai hartan argizagiengan sinestea gogorki sustraiturik egoten zelako. Uste zen astroek bizi edo hil eragiten zutela, eta on-gaitz guztiak haiengandik zetozela. Hori

dela eta, Legeak, iritzi hori bazter dadin are segurago izateko, Itunaren sinboloak erabili ditu, lekukoen deia, uko eta arnegu bortitzak, jada aipatuak; eta Jainkoak errana digu idoloenik ez dezagula ezer har, eta hortik inolako probetxurik ez eskuratzeko, eta jakinarazi digu ezen, baldin horietatik jasoriko preziotik den zatirik mendreena gizaki baten ondasunekin nahasiko balitz, horrek ondasun horren galera eta hondamena lekarzkeela. Horixe da berba hauen zentzua: «Ez eraman, beraz, ezer higuinarririk zeure etxera, zu ere idoloak bezala, anatema izan ez zaitezen» (Dt 7,26); are arrazoi handiagoarekin, ez duzu sinetsi behar hor inolako bedekaziorik dagokeenik. Beraz, idolatriari buruzko aginduei xeheki bazarraizkie, begien bistan aurkituko duzu horien arrazoa iritzi kaltegarri horiek etenarazi eta gure pentsamenduak beste norabait gidatzea dela.

Era berean, azpimarratu beharra dugu funtsik eta probetxurik gabeko iritzi faltsu horien egileek haxe lortu nahi dutela, uste horiek onar eta sendoaztea, horretarako, gizakien artean honako hau hedaraziz, egintza zehatz bat beteko ez lukeen pertsona –halako sinestea iraunarazteko balioko lukeena– nola edo halako zoritxarrak jo dezakeela. Hori norbaiti kasualitatez hel dakioke ustekabea, eta horrela halakoak egintza hori bete nahiko du, dena delako sineskera hori onartuz. Gauza jakina da, oro har, gizakien izaeran badela beren ondasunak eta seme-alabak galtzeko beldur ikaragarria, eta izu-laborria. Hori dela eta, orduko denboretan, suaren adoratzailak aldarrikatu zuten «bere semea eta alaba surtatik iraganaraziko ez lukeenak» (Dt 18,10) bere haurrak hiltzen ikusiko lituzkeela. Sineskera absurdo horrek, zalantzarik ez, bakoitzak egintza hori konplitzen ahalegintzeko ondorioa ekarri zuen, nork bere haurren zoriaz sentitzen zuen erruki eta beldur handiagatik; are gehiago egintza hori oso txikia eta erraza zelako, ez baitzitzaien *surtatik iraganaraztea* besterik eskatzen⁷¹. Erants diezaiozun horri ume txikien ardura emakumeen kargura uzten dela, eta gauza jakina da beroriek nolako hunkiberak izaten diren, eta berorien adimena eskuarki zeinen ahula izaten den. Hori dela eta, Legea egintza horren aurka oso gogorki mintzatu da, eta idolatriaren gainerako erak baino bortitzago gaitzetsi du, dioela: «nire santutegia kutsatu eta nire izen santua profanatzegatik» (Lb 20,3). Era berean, (egiazko) profetak, Jainkoaren izenean, jakinarazten du egintza hori betetzean beren haurren bizitza luzatzen dutela sinesten

badute ere, Jainkoak horrela ari direnak hilarazi eta berorien arraza suntsituko duela: «Neuk esku hartuko dut haren kontra eta haren familiaren kontra» (*ibid.* 5. bert.). Jakizu egintza horren aztarnak, munduan zehar hain hedatuak, gaur arte kontserbatu direla. Emaginak ikus ditzakezu, haur jaioberriak pixoihaletan hartzen, suaren gainean hala-holako usaineko intsentsua botatzen, haurrei intsentsuaren gainean eraginez, suaren gainean darabiltzatela. Hori, zalantzarik ez, *surtatik iraganarazteko* era bat da, galarazirik dagoen praktika, alegia. Badakusazu, beraz, ideia honen egileak zer-nolako gaiztakeriaz baliatu izan diren, eta kimera baten bidez hura iraunarazi dute, horrela, Legeak aurka egiten dion arren, milaka urte geroago ere haren arrastoa oraindik ezabatu gabe dago.

Idolatriaren aldekoek era berean jardun dute ondasunei buruz ere. Beren gurkeraren helbururako, halako zuhaitz bat sagaratzea agindu dute, hots, *ʾāšērāh* deritzona, eta horren fruituak jaso, horien zati bat eskaintzak egiteko eta gainerakoak idolatriaren tenpluan janak izateko, *ʾāšērāh*-ren erritueta azaldu den bezala. Gauza bera egiteko agindurik dago elikatzeko fruituak ematen dituzten zuhaitz guztiekin ere, erran nahi dut, zati bat eskaintzetan erabiltzeko, eta beste zatia idolatriaren tenpluan jateko; eta sineskera hau ere hedarazi dute, zuhaitz oro, lehenbiziko ekoizpena horretarako erabili ez balitz, ihartuko litzatekeela, edo bere fruituak galduko, edo gutxi emanen lukeela, edo beste edonolako zorigaitzak joko lukeela, surtatik iragan gabeko haur oro hilko litzatekeelako ideia ere zabaldu duten bezala. Gizakiak, beraz, beren ondasunen beldur, horretara jarduten ahalegintzen ziren, Baina Legea horrelako ideien aurka altxatu zen, eta Jainkoak fruta-arbolak hiru urtean ekoitziko lukeen guztia erretzea agindu zuen; izan ere, arbola batzuek urte baten buruan ematen dute, beste batzuek bi urteren ondoan ekartzen dituzte beren lehen fruituak, eta beste batzuek, azkenik, hiru urte eta gero ekoizten dituzte. Hori da landatzen denean gehienetan gertatzen dena, eskuarki egiten den bezala, hiru era ezagunetako batez, hau da, landaketa, belaunketa eta txertaketa. Ez da hemen aurreikusi hezurra edo hazia erein duenaren kasua, Legearen erabakiak ez baitira kasu ohikoenez besterik ari, eta landaketak, Palestinan, bere lehen ekoizpena, beranduenik, hirugarren urtean ematen duelako. Jainkoak, hortaz, promes egin digu, lehenbiziko fruitu horren galtze eta usteltzearen ondorioz, arbolak askoz gehiago

emanen zuela, errana den bezala: «Horrela egiten baduzue, gero eta ugariagoak izango dira zuen uztak» (Lb 19,25); eta laugarren urteko fruitua Jaunaren aurrean jateko agindu digu, lehenbiziko fruituak idolatriaren tenpluan jateko usadioaren kontra, erakutsi dugun bezala.

Antzinako idolatrek, halaber, *Nabatear Nekazaritzan* kontatzen dutenez, banan-banan aipatzen dituzten substantzia batzuk usteltzen uzten omen zituzten Eguzkia ekliptikako zeinu batzuetan sartzen zela ikustean, eta magiazko jarduera askotan buru-belarri aritu. Ziotenez, bakoitzak prestakuntza horiek egin behar zituen, eta fruta-arbola bat landatzen zen bakoitzean, zuhaitzaren inguruan, edo berak bete behar zuen tokian, nahaste usteldu horren zati bat banatu behar zuen; modu horretara [haiek ziotenez] zuhaitza lasterrago erne eta fruituak ohi baino epe askoz ere laburragoan emanen litzuke. Hori –segurtatzen dute– prozedura miresgarria da, talismanen mailakoa, eta magiak dituen eragingarrienetako bat fruituen ekoizpena ahalik eta gehien bultzatzeko, ekoitzi ahal den guztian. Adierazia dizut jada zer-nolako izu larriaz begiratu dien Torah-k horrelako jarduera magikoei; horregatik debekatu zuen fruta-arbola horiek hiru urtean zehar, landatu ziren egunetik hasita, ekoizten duten guztia. Ez da beharrezkoa, beraz, ekoizpena bultzatzea, horiek nahiko luketenez, Sirian fruta-arbola gehienek, Naturaren ibilbideari jarraikiz, beren fruituak hiru urteren buruan ezin hobeki ematen dituztelako, eta haiek zerabilten magiazko eragiketa ospetsu horretara jo beharrik gabe. Ongi jabetu behar duzu ohar garrantzitsu honetaz.

Beste iritzi bat, garai haietan oso hedatua eta sabearrekin iraunarazia, honako hau da, espezie ezberdinetako zuhaitzen txertaketa dela eta, txertatzeko unean halako konstelazioaren eraginpean jardunez, halako ihintzatzearekin eta holako araoa ahoskatuz, haien iritziz, txertaketa horren ondorioa ikuspegi askotatik oso baliagarria izanen zela. Kontu horrek duen gauzarik nabarmenena berek *Nekazaritzaren* hasieran erranikoa da, olibondoaren txertoa limoiondoaren gainean ezartzeaz. Neure aldetik, ez dut zalantzarik egiten *Sendagaien liburua-k*, Ezekiasen baztertuak⁷², bere baitan antzeko gauzak zeuzkala. Oraino badiote ezen, espezie bat beste espezie baten gainean txertatu nahi bada, beharrezkoa dela neska gazte bat, eskuan txertatu nahi den abarra daukala, azaltzen den era lotsagarriaz gizon batekin elkartzea, eta, egingtza hori betetzen duten unean, emakumeak abarra

zuhaitzaren gainean txertatzea. Usadio hori dudarik gabe oso hedaturik zegoen, eta inork ez zuen bestelakorik egiten; are gehiago hor, batera, maitasunaren atsegina eta onura handiagoa biltzen direlako. Hori dela eta, bi espezie elkarrekin nahastea galarazi da, hau da, zuhaitz baten txertoa beste espezie bateko zuhaitzaren gainean jartzea, idolatriara eraman gaitzakeen guztitik urrun egon gaitezen, bai eta Naturaren kontrako maitasun gaitzesgarriotatik ere. Txertoaren kausaz galarazirik dago edozein landareren bi espezie elkarrekin biltzea, bai eta bata bestearengana hurbiltzea ere. Talmudaren tradizioak agindu horretaz dioena aztertzen baduzu, aurkituko duzu, Lege izkiriatuaren arabera, txertatzea beti gorputzeko gaztiguaz zigortzekoa dela, horixe baita galaraztean eduki den xede nagusia, baina mota ezberdinetako haziak nahastea, hau da elkarren ondoan jartzea, ez dago debekaturik Herrialde Santuan besterik.

Nekazaritza liburu horretan bereziki errana da bazela, halaber, oloa eta mahastia elkarrekin ereiteko ohitura, hori mahastiari mesedea egiteko prozedura bakarra zelakoan. Horrexegatik galarazi zuen Legeak mahastia [beste landare batzuekin] nahastea, eta osoa erretzeko agindu, paganoen ohiturak, zeintzuei zenbait propietate ezkutu egozten zitzaien, galarazirik zeudelako, horiek idolatriatik inolako kutsurik ez zeukatenean ere, doktoreen pasarte honen inguruan azaldu dugunez: «Ez da zilegi hura zuhaitz batetik esekitzea, etab.» Ohitura horiek guztiok, *Amorrearren usadioak* deritzenak, debekatu izan dira, idolatriarantz bultzatzen zutelako. Baldin nekazaritzari buruzko haien ohiturak aztertzen badituzu, lur-lantze horretan halako izarretarantz zuzentzen direla kausituko duzu, eta beste halako batean, argizagi nagusietarantz [Eguzki eta Ilargirantz]. Sarritan ereinaldirako, [zenbait konstelazioen] goranzkoak hautatzen dituzte, eta ihintzaldiak egiten, eta landatzen edo ereiten ari dena biribilean ibiltzen da; batzuek bost planetentzat bost itzuli egin behar dituztela uste dute, eta beste batzuek pentsatzen dute zazpi bete behar dituztela, bost planetentzat eta argidun bientzat. Horretan guztian bertute bereziak daudela ikusi uste dute, nekazaritzarako oso probetxagarriak, gizakiak argizagiak gurtzera erakartzeko. Horrexegatik galarazi dira, oro har, jentilen ohitura horiek, errana den bezala: «Ez bizi zuen aurretik botatzen ditudan jendeen legeen arabera...» (Lb 20,23); eta oso ezaguna edo oso hedaturik zegoena, edota bereziki idolatren gurkera motatzat

izendatua, debeku bereziaz galarazi izan da, esaterako zuhaitzen lehen fruituak, era askotako hazien nahastea eta mahatsaren nahasketa [beste landare batzuekin]. Harrigarria da, noski, rabbi Yošiyah-ren iritzia, mahastia nahasteari buruz, doktrinazko erabakitzat onartua, hauxe dioena. «Inor ez dela erruduna, baldin, eskukada batez, garia, oloa eta mahats-haziak erein ez baditu» (*Berakôt* 22a). Zalantzarik gabe, nonbait irakurria zuen prozedura horrek bere jatorria *Amorrearren usadioetatik* hartua zuela.

Beraz, argi dago, eta zalantza orotatik kanpo ere bai, askotariko gaiez eginiko ehunak, zuhaitzen lehenbiziko ekoizpenak eta hazi ezberdinak nahastea galarazirik egon badira, paganismoarengatik besterik ez dela izan, eta erraniko ohitura pagano horiek debekaturik egon direla idolatriara daramatelako, erakutsi dugun bezala.

לח HOGITA HAMAZORTZIGARREN KAPITULUA

[*Hirugarren saila: gizarteko ohiturei buruzko aginduak*]

Hirugarren sailak dauzkan aginduak דעות *Dē'ôṭ* (= 'Etika-arauak') Tratatuan banan-banan aipatu ditugu. Horiek guztiok begien bistako baliagarritasun nabaria dute, eskuarki giza harremanak hobetzeko ohiturei buruzkoak direlako, eta hori hain argi dagoenez gero, ez daukat hor gelditu beharrik. Jakin behar da badirela, halaber, agindu batzuk, ohiturak garbitzeko xedea eduki arren, itxuraz helbururik gabeko egintzak manatzen dituztenak, eta horiek «Legearen nahikeria» hutstzat har litezke. Horiek, aparte, zein bere lekuan, azalduko ditugu; baina *Dē'ôṭ* Tratatuan kontatu ditugunak bereziki aipaturik agertzen dira, eta [gizarteko] ohitura noble horiek dauzkate helburu.

לט HOGITA HEMERETZIGARREN KAPITULUA

[*Laugarren saila: ongi egiteari buruzko aginduak:
berori betetzeko erak*]

Laugarren sailean dautzan aginduak זרעים *Zerā'im* 'ereiteko haziak' deritzon geure liburuan aipatu ditugunak dira, *askotariko haziak* salbuetsirik; horrek badauzka bere baitan begiespen eta

sagaratzeei dagozkien legeak ere, מלוח ולוח *Malwèh we-lówèh* ('Prestatzailea eta mailegatzaila') tratatuan jarri ditugun aginduak eta עבדים '*Ābādīm* ('Esklaboak') tratatuan ezarrikoak ere bai. Agindu horiek guztiok banan-banan ikertzen badituzu, begien bistako baliagarritasuna aurkituko diezu, zoritxarreko eta behartsuei buruz, erruki-sentimenduak sorrarazteko, eta txiroei era guztietako laguntzak emateko, premian dagoena ez zapaltzeko eta zoritxarreko egoeran aurkitzen direnen bihotza ez atsekabetzeko.

Behartsuei emateko beharra berez azaltzen den gauza da. Bereizketak (apaizentzakoak) eta hamarrenak egiteko zergatikoa argiro azaldua da: «Lebitarra etorriko da, zuek ez bezala, tokamenik ez seniparterik hartu gabea» (Dt 14,29); eta zuk badakizu zein zen horren arrazoia: Tribu hori [lebitarrak] oso-osorik gurtza eta Legea ikertzera kontsakra ahal zedin, laborantzaz eta uzta biltzeaz arduratzeko premiarik ukan ez zezan, eta soilik Jainkoarentzat izan zedin, erran den bezala: «Zure erabakiak irakasten dizkiote Israeli, zure legea Jakoben herriari» (*ibid.* 33,10). Pentateukoaren anitz pasartetan honelako hitzak aurkituko dituzu: «lebitarra, arrotza, umezurtza eta alarguna» (*ibid.* 33,10), eta lebitarra, jabetzarik gabea izanik, betiere behartsuen artean kontatzen da. Bigarren hamarrenari dagokionez, Jerusalem barruan⁷³ soilik janaritan gastatzeko agindu da, eta horrek, nahitaez, limosnetarako erabiltzea zekarren; izan ere, janaritan besterik ezin erabil zitekeenez, erraza zuen bakoitzak hura apurka-apurka banatzea. Toki bakar batean biltzeak gizakien artean anaitasun eta maitasunezko harremanak ezartzea ukan behar zuen helburu.

Laugarren urteko fruituari buruzko aginduez den bezainbatean, hasierako ekoizkinekiko loturarengatik, idolatria garaiko usadioari dagokio, errana dugun bezala, eta, beraz, hori lurraren emaitza eta ogi-orearekin egiten den bereizketari, lehen fruitu helduei eta artilehasikinei dagozkien erabakien mailan sartzen dira, hasikinak, oro har, Jainkoari kontsakratuak egoten direlako, gudan eskuzabaltasuna sendotu eta zakartasuna eta diruzalekeria gutxitzeko. Arrazoi berberetatik apaizak sorbalda, kokospea eta urdaila⁷⁴ jasotzen ditu: kokospea animaliaaren gorputzaren zati nagusietako baten osagaia delako; sorbalda, hau da, eskuinaldekoa, gorputzetik banatzen den lehen abarra da, eta urdaila heste guztietako lehena.

Hasikinen⁷⁵ aurkezpenari lagundu behar dion irakurketan, bada, halaber, apaltasun-erakuspen bat, bere bizkar gainean saskia daramanak⁷⁶ egina. Hor Jainkoaren ontasunaren eta berorren onuren aitorpena adierazten da, gizakiak, ugaritasunean dagoenean, bere estualdiez gogoratzea erlijiozko betebeharra duela jakin dezan. Legeak horretaz behin eta berriro dio: «Izan gogoan zeu ere esklabo izan zinela...» (Dt 5,15 eta 15,12), ugaritasunean hazi diren guztien ohiko usadioen beldurrez, hala nola, harrokeria, hanpuruskeria eta ideia egiazkoekiko axolagabekeria: «Ez dadila gerta, ase arte jatean... zure bihotzean harrotu ez zaitezen» (*ibid.* 8, 12-14); «Gizendu zen Jexurun eta ostikoka hasi» (*ibid.* 32,15). Beldur hori dela eta, agindu zen hasikinen irakurketa hori Jainkoaren aitzinean eta bere Maiestatearen presentzian urtero egitea. Badakizu, halaber, Legeak bortizki gomendatzen duela egiptoarren gainera erori ziren izurriez gogoratzea: «Horrela, bizitza osoan izango duzu gogoan Egiptotik irten zineneko eguna» (*ibid.* 16,3); «eta zuk kontatu ahal izango diezu zeure seme eta bilobei» (Irt 10,2). Baziren horrela jokatzeko arrazoi sendoak, horiek profeziaren egiazkotasuna berresten duten gertaerak direlako, bai eta sariaren doktrina ere. Horrela, bada, mirarietako bat gogorarazteko edo halako sinestea iraunarazteko balio duen agindu oro probetxu nabarikoa da. Hori gizakien eta animalien lehen jaioaren [sagaratzeari] buruz bereziki errana da: «Faraoiak irtetea galarazten zigulako... horregatik hil eta Yhwh-ri eskaintzen dizkiogu» (Irt 13,15). Batez ere idia, abere xeheak eta astoa aipatzen direneko arrazoia oso argia da, horiexek baitira leku gehienetan hazten eta izaten diren etxe-abereak, batez ere Sirian, eta guztiz gain israeldarren artean, guztiok artzainak izan ginen eta, aitarengandik hasi eta aitonaganaino: «Gu eta gure gurasoak artzain izan gara betidanik» (Has 47,3). Baina zaldiak eta gameluak ez dira eskuarki izaten artzainen artean; eta, esaterako, Midian-en ibilaldia irakurtzen baduzu, hor ez duzu aipaturik aurkituko, abereen artean, idia, abere xeheak eta astoa besterik. Izan ere, astoaren espeziea gizaki guztiek dute beharrezkoa, eta bereziki baserriko lanetan ari direnek: «Baditut idiak eta astoak, artaldeak...» (Has 32,6), baina gameluak eta zaldiak eskuarki pertsona batzuen artean eta zenbait lekutan besterik ez dira aurkitzen. Astoaren lehen kume jaioaren garondoa hausteko aginduz (Irt 13,13), horren arrazoia da hura nahitaez berrerosteko premia dakarrela; horrexegatik errana baita: «Berrerosteko aginduak

hobespena eduki behar du garondoa hausteko agintzen duenaren gainetik» (*Berakôt* 1,7).

Guk שמטה ויובל *Šemittah we-yôbêl* (= ‘Sabat-urtea eta Jubileua’) tratatuan aipatu ditugun agindu ezberdinen helburua, alde batetik, gizaki guztientzako errukia eta eskuzabaltasuna eragitea da, izkiriaturik dagoenez: «herriko behartsuek jango dute, eta gainerakoa basapiztiek irentsiko» (Irt 23,11), eta lurra, atsedenal Diaz, are emankorrago egitea; bestetik, esklabo eta behartsuenganako onginahia bultzatzea, erran nahi baitut zorrak barkatu eta [hebrear] esklaboak askatzea; bai eta bizitzeko gauza beharrezkoak betiko bermatuz ere, lurra besterendu ezineko funtsa eginez, eta, halatan, absolutuki ezin saldua izan dadin: «Ez da zilegi lurrak behin betiko saltzea» (Lb 25,23), eta, ondorioz, gizaki bakoitzaren ondasuna bere eta bere oinordekoentzako funts-tzat gera dadila, eta, hartaz, gozamenaz ez besterik ezin baliatzea. Honetara, *Zerā’im* gure liburuak daukan guztia justifikatu dugu, askotariko animalien nahasteak izan ezik, eta horren arrazoia geroago erakutsiko dugu.

Bestalde, ערכים וחרמים *‘Ārākîm we-ḥārāmîm* (= ‘Begiespenak eta sagaritzeak’) tratatuan aipatu ditugun aginduek, ere berean, helburutzat emaitzak dituzte. Horietako batzuk apaizei doazkie; beste batzuk tenplua konpontzeko dira. Horrekin, gizakia eskuzabala izaten ohi izaten da, ondasuna gutxien ikasten du, eta, Jainkoaz ari denean, zikoitza ez izaten; gizarteak nahasten dituzten gaitz gehienak aberastasun-egarririk baizik ez datoz, ondasunak gehitzeko eta irabazteko irrikatik. Era berean, *Malwêh we-lôwêh* (‘Prestatzailea eta mailegatzzailea’) tratatuan ezarritako agindu guztiak banan-banan aztertzen badituzu, zoritxarrekoenganako onginahia, errukia eta barkaberatasun darizkiela aurkituko duzu; galarazirik dago edozeini berak bizitzeko behar duen gauza baliagarriak kentzea; esaterako: «Ez duzu bahituran hartuko, ez errotako bi harriak, ez eta gaineko errotaria ere» (Dt, 24,6).

Halaber, *‘Ābādîm* ‘Esklaboak’ tratatuan aipatu ditugun aginduak errukiaz eta onginahiaz aserik daude zorigaitzekoarekiko. Gizatasun handia erakusten du, batez ere, kanaandar esklaboak, soin-atal batez gabetua denean, aske utzi beharrak, horretara haren esklabotasuna atal-mozte bategatik are larriagoa gerta ez

dadin, hortz bat besterik galdu eragin ez bazaio ere, eta are arrazoi handiagoaz bestelako zauririk egin bazaio. Bestaldetik, ez zaio, halaber, jabeari zilegi hura jotzea, idizilaz, makilaz edo antzeko gauza batekin izan ezik, *Mišnèh Tôrāh*-n azaldu dugun bezala; eta, oraindik, hura bortizki jotzen badu, hiltzeko punturaino, heriotzara zigortuko da, [hura jo izan zezakeen] beste edozein gizaki bezala. «Ez itzuli jabeari berarengandik ihes eginiko esklaboa» (Dt 23,16) hitzek, [esklaboentzako] errukia gomendatzeaz gainera, beste agindu bat ere gordetzen dute, oso baliagarria, hau da, babesa eskatzen diguna geure gerizan jartzeko, haren alde egiteko eta ihes eragin dionaren eskuetan ez jartzeko eskuzabaltasuna eduki behar dugula. Ez da aski, gainera, hari babes hutsa eskaintzea, baina haren premiei erantzuteko eta ongi egiteko beharra duzu, eta ezin dezakezu, ez eta berba batekin ere, haren bihotza nahigabetu. Horixe da Jainkoak dioena: «Zurekin biziko da berak aukeraturiko zuen hirietako batean, gogokoen izango duen tokian; ez duzu nekaraziko» (*ibid.* 17. bert.). Eta gizakirik beheren eta doilorrenari buruz, hau da, esklaboarekiko, betebeharrak hori gainetik jarri bazaigu, zer izanzen da balio handiko gizaki batek zure babesa eskatzen badu? Zer ez duzu haren alde egin beharko? Baina, bestetik, era berean, laguntza eskatzen digun erailea, fedegabea, ez da babestua izan behar, ez errukipean hartua izan, ez eta merezi ukan duen oinazea inola ere arindu, pertsonarik argienaren eta gorenaren babespean jar baledi ere. Horixe da Eskriturak hitz hauekin adierazten duena: «Nire aldre ondoan babesten bada ere, handik hartu eta heriotzara emango duzu» (Irt 21,14), zeren, halakoa Jainkoaren babespean jarri eta Haren izenean sagaraturiko objektu baten ondoan aterpe bila joan bada ere, ez baitu Jainkoak babesten, baina, aitzitik, agintzen du justizia eskatzeko gai denarengana, zeinengandik ihes egin duen, eraman dadila. Are arrazoi handiagoarekin, gizaki baten laguntza eskatzen duenak [erruduna baldin bada] ez du horrengandik babesik ez errukirik ere aurkitu behar, gizaki fedegabe eta eraileekiko errukiak, mundu guztiaren aurrean, gizagabetasuna erran nahi duelako. Horiek dira, segurki, estatutu eta ordenamendu zuzenen artean hartu behar diren bidezko ohiturak; ez dute paganoen ohiturekin inolako antzik, horien artean azken helduaren alde kartsuki jartzea, berori zapaltzailea zein zapaldua izan, harro egoteko bertute txalogarritzat jotzen baita, edonon, haien kontakizun eta poesietan, ageri denez⁷⁷.

Horrela, beraz, sail honetako agindu guztiak zergatiko argia dute, eta baliagarritasun nabarmena.

𐤀 BERROGEIGARREN KAPITULUA

*[Bosgarren saila: Eginiko min eta kalteak; betebeharrak
eta erantzukizunak]*

Bosgarren sailak dauzkan aginduak 𐤍𐤁𐤏𐤓 *Nezîqîn* ('Kalteak') deritzon liburuan zerrendatu ditugu; horiek guztiok bidegabekeriak etenarazi eta [inori] kalterik egitea eragozteak dute helburu. Besteri kalterik egitea ardurarik handienaz ekiditeko, gizakia bere ondasunetatik heldu diren kalte guztien erantzulea da, edo bere eginez sorraziena, baldin eta hori saihestu eta minik ez egiteko neurriak erabiltzea posible izan bada. Hori dela eta, gu geure abereek eginiko kalteen erantzuleak gara, horretara jagon ditzagun, bai eta suak edo hobiak eragindakoenak ere, beroriek gizakiaren obra baitira, eta, beraz, berak begiratu eta zain ditzake, hortik kalterik batere sor ez dadin. Halere, neurri horiek halako gogo-berdintasunera behartzen gaituzte, eta horretaz arreta erakarri behar dut. Horretara, kale-plazetan ez dago hortz edo hankaren erantzukizunik; horren aurka ezin baitaiteke aurretik inolako neurririk har, eta, bestalde, bitxia da horrelako leku batean kalterik heltzea. Kale-plazetan zerbait uzten duena bere buruarekiko erantzulea da eta bere ondasuna galtzera arriskatzen da; ez da inor hortz eta hankaren erantzule izaten, kaltea pairatzen duenaren jabetzan gertatzen ez baldin bada. Baina adarrarekin edo antzeko beste gauza batekin eginiko kaltea, edonon aurreikus daitekeena, horren aurka bidetik dabiltzanek arretarik ezin har dezaketelarik, leku guztietan lege berberari loturik dago. Hemen, ordea, abere otzanaren eta nabarmenki arriskugarriaren artean bereiztu beharra dago. Egintza hori salbuespenezkoa baldin bada, kaltearen erdiaren erantzulea izanen da; baina gaitza egiten duen animaliak horretarako ohitura hartua badu eta horregatik ezaguna bada, kalte osoaren erantzulea izanen da.

Esklaboaren prezioa, oro har, eskuarki gizon burujabeak balio duenaren erdian estimatzen da; izan ere, gizonen balioespenetarako, gehiena hirurogei siklo izaten da, baina esklabo baten batez besteko balioa, ordea, hogeita hamar siklo zilar⁷⁸ (Irt 21,32). Gizaki bat hil

duen animalia hilaraz dadila agindu bada⁷⁹, hori ez da animalari zigorra emateko –heretikoek leporatzen diguten iritzi absurdoa berori–, haren jabea gaztigatzeko baizik. Horrexegatik galarazia da animalia horren haragitik probetxu ateratzea, berorren jabeak ardura handiz gorde dezan, ongi baitaki animaliak haur bat edo pertsona nagusi bat, burujabe zein esklaboa izan, hil baleza, nahitaez horren balioa galduko lukeela, eta animalia hori nabarmenki arriskugarria balitz, era berean isun bat ordaintzera beharturik legoke, haren prezioaren galerari eranstekoa. Arrazoi berberagatik, bestialismorako erabili den animalia⁸⁰ hilarazi behar da, haren jabeak horren ardura ukan eta bere familia bezala zain dezan, galdu nahi ez badu. Izan ere, gizakiak beren ondasunekin beren buruez bezain arduratsuak izaten dira, eta badira beren ondasunak beren pertsonak baino estimatzenago dituztenak ere, baina jende gehienek bai batzuk eta bai besteak maila berean jartzen dituzte: «Orain, gainera, oldartuko zaizkigu, esklabotzat hartzeko, geure asto eta guzti» (Has 43,18).

Sail honexetan sarturik dago, halaber, eseslea hiltzeko [aholkua]. Gomendio hau, erran nahi baitut, hilketa bat egitea pentsatzen diharduena hiltzea, hark krimena bete dezan baino lehen, bi kasu hauetako besterik ez zaie aplikatzen, hau da, norbaitek bere hurkoari jarraika esesten badio bera hiltzeko asmoz, edo pertsona baten atzetik joaten bada haren lotsaren aurka jotzeko, horiek, behin betez gero, konpondu ezinezko krimenak direlako. Heriotzako zigorra dakarten gainerako lege-hausteei dagokienez, esaterako, idolatria edo larunbataren profanazioa, horiek ez diete beste pertsonen inolako gaitzik egiten, eta ideiei besterik ez diete erasotzen; hori dela eta, [lege-hauslea] ez da hiltzera kondenatzen [hori egiteko] borondate hutsagatik, buruturiko egintzagatik baizik.

Nahia, jakina denez, galarazirik dago, gutiziara gidatzen duelako, eta horrek harrapakeriara daramalako; doktoreek horrelaxe erakutsia dute.

Galduriko gauza bat itzultzeko betebeharra berez azaltzen da. Gizarteari probetxua egiten dion bertute bikaina izateaz gainera, bada, aldi berean, elkarren mesederako ere: zerorrek beste batek galdurikoa itzultzen ez baduzu, ez zaizu itzuliko, halaber, zerorrek gal dezakezuna, hala nola, bere aita ohoratzen ez duena ez da bere semeak ohortua izanen. Antzeko kasuak anitz dira.

Nahigabeko hilketa bat egiten duena erbestera⁸¹ joatera kondenatzen bada, hori «odol-mendekatzailea»ren izpiritua lasaitzeko da, horren bistatik zorigaitzaren egilea kenduz. Berori [erbestetik] itzultzea Israelgo gizonik handienaren eta maitatuenaren heriotzaren arabera izanen da, gertaera horrek zenduaren ondikozko senidea lasaitu beharko du eta. Izan ere, giza izaeran da zorigaitz batek joak, beste batek pairaturiko antzeko zoritxarrean, edo are handiagoan, kontsolazioa aurkitzea; eta gerta dakizkigukeen heriotza-kasuetan, batere ez da zorigaitz handiagoa Apaiz Nagusia hiltzea baino.

Eta «*bigantxa bati lepo-hezurra hauste*»ko agindua (Dt 21,1)⁸² den bezainbatean, horrek begien bistako probetxua du; izan ere, betebeharrak hori hildako pertsona horren gorpua aurkitu den lekutik den hiri hurbilenari dagokio, eta, eskuarki, erailea bertako bizilagunetako bat izaten da. Hiri horretako zaharrek, beraz, Jainkoari hots egiten diote, eta Bera lekukotzat hartzen, erranez berek ez dutela inolako axolagabekeriarik ukan bideen kontserbazio eta segurtasunean ez eta bidaiarien babeserako ere, [tradiziozko] azalpenak dioenez. Beraz –diote–, hilarazia bada, ez da izan guk herri-interesak arduragabeki bazterrean utzi ditugulako; bestaldetik, ez dakigu nork hil duen. Nahitaez, kasu gehienetan, ikerketak, zaharren irteerak, [luze-laburren] neurketak eta bigantxaren aurkezpenak erran-merran ugari eta elkarrizketa ez gutxi eraginen dituzte; behin arazoa horrela hedatu eta gero, erailea zein den jakin liteke, hura lezaguekeen norbaitek, edo hartaz mintzatzen entzun lezakeen batek, edo halako zirkunstanzienatik horren zantzuren bat aditua lukeenak, honela erran lezake: hiltzailea Urlia da; eta pertsona batek, [salatzailea] emakume zein esklabo izan arren, erailea huraxe dela adierazten duen unetik, ez zaio bigantxari lepo-hezurra hausten. Egia esan, erailea [edozein pertsonaren] ezaguna balitz, horri buruz isiltasuna gordez eta, Jainkoa lekuko jarri ondoren, hura ez dela ezagutzen erranez gero, hor ausarkeria handia eta bekatu larria lirateke. Beraz, hura ezagutuko lukeenak, emakumea izanik ere, adierazi beharko du. Hura ezagutua denetik, helburua lortua da, epaimahaiak hiltzera kondenatuko ez balu ere, erregeak, gertagarritasunaren gainean kondenatzeko ahala daukanak, hilarazi egiten luke, eta erregeak hori egiten ez badu, odol-mendekatzailea izanen da hura hilarazi nahiko duena, eta amarruak erabiliko ditu ustekabeen harrapatu eta heriotza emateko. Beraz, argi dago bigantxari lepoa hausteko aginduak erailea aurkitzeko helburua

duela. Ideia hori berresten duena, honako hau da: zeremonia hori egiten den lekua ez da behin ere landu beharko eta han ez da inoiz ereinen. Beraz, lurraren jabeak era guztietako maltzurkeriak erabiliko ditu eta halako ikerketak egingen erailea nor den jakiteko, zeremonia hori inoiz egin beharrik ez izateko, horrela bere lurra betiko debekupean geldiz ez dadin.

𐌲𐌿𐌽𐌰 BERROGEITA BATGARREN KAPITULUA

[Seigarren saila: Zigortu beharrekoak; horri buruzko lege batzuk; lautariko lege-haustek; gerrari buruzko zenbait agindu]

Seigarren sailean gordetzen diren aginduak zigor-zuzenbideari dagozkio. Horien baliagarritasuna, oro har, nabarmena da, eta beroriez jada arduratu gara. So egiezu orain horien xehetasunei eta ager daitezkeen ohiz kanpoko kasuak epaitzeko moduari.

Bere hurkoaren kontra krimen bat egin duenari ezarri beharreko zigorra, oro har, honetan datza, berak hurkoarekin jokatu duen bezalaxe berarekin jokatzeari: baldin inori gorputzean lesio bat pairarazi badio, berak ere gorputz-lesio bat pairatuko du, eta norbaiten ondasunaren kontra eraso egin badu, gaztigua dirutan jasanen du, nahiz eta jabea eskuzabala izan eta hari barkatzea ere zilegi izan. Soilik eraileak, bere krimenaren izugarrikeriagatik, ez luke inola ere barkamena erdietsi behar, eta ez zaio inolako ordainik onetsi behar: «Hilketak profanatu egiten du lurraldea, eta isuritako odoletik lurraldea ezin garbi daiteke, hura isurarazi zuenaren odolarekin ez bada» (Zkiak 35,33). Hori dela eta, biktimak ordubete edo zenbait egun bizirik iraunen balu, mintzo delarik eta erabateko ezaguera ukanik, hau erranez: «Nahi dut ene hiltzailea askatua izan dadila, bera barkatu dut eta neure grazia eskaini diot», ez zaio horregatik entzunen. Aitzitik, hor nahitaez bizia biziaren truke jarri beharra dago, haurra eta heldua, esklaboa eta gizaki askea, jakintsua eta ezjakina berdintasun-maila berean jarriaz, gizakiaren krimen guztien artean ez baitago hori baino handiagorik. Beste bati gorputz-atal bat kendu dionari, gorputz-atal berberori kenduko zaio: «Norbaitek herritarra zauritzen badu, zauri berdina egingo diote berari» (Lb 24,20). Ez zaitu kezkatu behar, guk, kasu horretan, diruzko zigorra besterik ez ezartzeak, nik orain dudan helburua hauxe baita: Bibliako testuen motiboak azaltzea eta azalpen tradizionala

motibatzea⁸³. Gainerakoaz den bezainbatean, tradizio horretaz badut neure iritzi berezia, ahoz azaltzekoa besterik ez dena. Erabateko parekotasuna lortzea ezinezkoa zen zaurien kasuan, diruzko ordaina ematera kondenatzen zen: «Erasotzailea ez dago behartua sendaketaren eta geldi egonaren ordaina ematera besterik» (Irt 21,19).⁸⁴

Hortaz, norbaiten ondasunen aurka erasotzen duenak diruzko zigorra ukanen du, neurri berean zehazki: «Eta epaileek (edo Jainkoak) errudun aitortzen duenak bi halako ordainduko dio besteari» (Irt 22,8), hau da, ebatsirikoaren zenbateko osoa, horri ebaslearen ondasunetik beste horrenbeste erantsiz. Jakin behar da ezen, zenbat eta delitua maizago eta egiteko errazagoa izan, zigorrak ere are gogorragoa izan behar duela, jendeak hori egitetik begira dezan, eta zenbat eta bakanagoa izan, gaztigua ere bigunagoa izanen. Horregatik, ardiak lapurtzen dituenak ordaintzen duen isuna bi aldiz handiagoa da beste gauza garraigarriengatik ordaintzen dena baino, erran nahi dut, lau halako, betiere, ardi horiek salduz edo beroriei lepoa moztuz, berorietatik libratu bada⁸⁵. Izan ere, garai guztietan [ardiak] sarritan ebatsiak izaten dira, zelaietan ibiltzen direlako, eta hor ezin begira daitezke hirien barruko gauzak zaintzen diren bezala; hori dela eta, lapurrek [animalia horiek] lehenbailehen saltzeko ohitura ukaiten dute, beren etxeetan ezagut ez diezazkieten, edo lepoa moztu, arrasto guztiak ezabatzeko. Horrela, beraz, maizenik gertatzen diren kasu horietan isuna handiena da. Idi baten lapurretatik ordaindu beharreko isuna oraindik handiagoa da, lapurreta hori are errazagoa delako. Izan ere, ardiak larrean taldetan alhatzen dira, eta horrela artzainak begiz guztiak ikus ditzake batera, eta ezin ebats daitezke, gauean ez bada; baina idiak, *Nekazaritzako* liburuan ohartarazten denez, batzuk besteetatik oso urrundurik alhatzen dira, eta horrek eragozten dio itzainari guztiak bistaz besarkatzea, eta ondorioz sari askotan lapurtuak gertatzen dira.

Era berean, *lekuko faltsuei* buruzko legea haiek egin nahi ukan duten berbera berei egiten saiatzen da; inor hilaraztera kondenatzeko asmoa ukan badute, berak izanen dira hiltzera kondenatuak; zigorkolpeak emanarazi nahi ukan badituzte, berak izanen dira joak; isun bat ordaintzera kondenatu nahi ukan badute, antzeko isunarekin gaztigatuko dira. Horrek guztiorrek krimenaren pareko gaztigua emateko helburua du, eta zentzu horretan ere legeei *bidezkoak* deritze.

Bide-lapurrari ez zaio, isun moduan, gehigarritzat, zerbait ordainarazten –bosgarrena ez baita *lekukotasun falturako* garbitze bat⁸⁶ besterik–, eta hori da bide-lapurreta modua oso bakana izaten delako. Izan ere, ostuteko saioa, maizago gertatzen da: 1) ostutea edozein lekutan egin daitekeelako, baina bide-lapurreta hirien barruan ezin bete daiteke, oso nekez ez bada; 2) ostu, bistan eta nabarmen dauden gauzak egin daitezkeelako, edota ezkutuan eta zainpean direnak, baina bide-lapurreta, aldiz, ez dago egiterik ageriko eta begi aurreko gauzeekin ez bada, eta horretara, horren aurkako neurriak har daitezke, hari begira erne egon eta aurre egin, baina hori ez dago ohoinarekin egiterik; 3) bide-lapurra ezaguna izaten delako, eta beraz, justiziak deitua izan eta berak harturikoa itzultzea lor daiteke, baina ohoina ezezaguna izaten da. Arrazoi horiengatik guztiengatik, ohoina isuna ordaintzera kondenatzen da, baina horrelako gaztigurik ez zaio bide-lapurrari gaineratzen.

AURRETIKO OHARRA

Jakizu, bada, zigorrerako, bai larria eta kostu handikoa izanik, bai eta txikiagoa eta jasateko errazagoa denean ere, lau gauza hartu behar direla kontuan: 1) delituaren larritasuna; ondotik kalte handia egiten duten egintzek are gaztigu handiagoa dakartelako; baina kalte txikia besterik sorrarazi ez dutenak zigor bigunagoarekin gaztigitzen dira. 2) Kasuaren maiztasuna; sarriago gertatzen dena zigor handiagoaz gaztigatu beharra dagoelako; oso bakan jazotzen den deliturako, aldiz, gaztigu txikiagoa aski da. 3) Erakartzeko indarra; gizakia bereganatzen duen gauza horretatik, dela hartara bortizki bultzatzen duen grinagatik, dela ohituraren indarragatik, dela, azkenik, hori gabe dagoenean sentitzen duen oinaze handiagatik, ezerk ezin du deus egin hortik alden dadin, gaztigu larri baten beldurrak izan ezik. 4) Ezkutuan eta misterioz obratzeko erraztasuna, besteak horretaz konturatu gabe; horrelako egintzari ezin baitzaio eutsi zigor larri eta eragingarriaren bidez ez bada.

Ohar horren ondoren, jakin behar da Pentateukoak aipatzen dituen gaztiguen sailkapenak lau maila dauzkala: 1) [erruduna] epaimahaiak emandako heriotza-zigorrera kondenatzen duena; 2) *atzerapena* dakarrena, [guretzat] zigor-kolpetan gauzatzen dena,

baina delitu hori larrienetako bat dela onartuz⁸⁷; 3) zigor-kolpeak dakartzana, eta hor bekatua larrienetako ez baina lege-hauste arin hutstzat hartzen da, edo Jainkoak ekarririko heriotza-zigorra, eta 4) debeku batzuetara murrizten dena, aldean zigor-kolperik ekarri gabe. Azken mota horretakoak dira egintza bat gertatzen ez deneko lege-urratze guztiak; ondokoak, ordea, salbuetsirik daude: a) *alferreko zina*, Jainkoari zor zaizkion begirune handi eta errespetuagatik; b) *trukatzea* (sakrifikatzeko animaliena), horren bidez Jainkoari sagaraturiko sakrifizioak mespretxatzeko joerarik izan ez dadin; c) *nork bere hurkoaren aurka*, Jainkoaren izena aipatuz, *errandako madarikazioa*, eskuarki norbera sentiberagoa izaten baita madarikazioekin gorputzeko kolpadurekin baino. Salbuespenok kenduta, egintzarik gabeko lege-urratze guztiek kalte oso txikia besterik ezin dute egin. Bestaldetik, ez dago horietarik aurretik gordetzerik, hainak hitz hutsak izaten direlako, eta, holakoak zigortu beharra balego, gizakiak etengabeki gaztigupean aurkituko liratekeelako. Gainera, kasu hauetan, *abisatzea* ia-ia ezinezkoa izaten da. Eman beharreko kolpeak direla eta, zuhurtzia ageri da, kopurua gehienez mugatzen baita, baina, pertsonen dagokienez, mugagabe uzten da. Izan ere, banako bakoitza ezin jo daiteke berak jasan dezakeenaren arabera besterik. Halere, zigor-kolpeak ezin daitezke berrogei baino gehiago izan⁸⁸, ez eta [zigortuak] ehuneraino jasan litzakeen kasuan ere.

Heriotza-zigorraz den bezainbatean, ez duzu hori aurkituko elikadura galaraziei buruzko kasu baten ere, hortik ez baita gaitz handirik etortzen, gizakiak horra hain bortizki erakarriak izaten ez direlako, maitasunaren atseginetara izaten diren bezala. Zenbait janari erabiltzeak *atzerapeneko zigorra* dakar aldean, odola jatea adibidez⁸⁹, garai haietan bereziki desiragarria izaten zena, aldi berean, idolatren errito bat eginez, *Tomtom* liburuan azaltzen denez, eta horregatik zorrozki galarazia zen. Era berean, gantza erabiltzea *atzerapenarekin* gaztigatzen da, gizakiek horretan atsegin handia hartzen dutelako; horregatik sakrifizioan garrantzi handia ematen zaio, eta ohoratu nahi izan da horretara. Era berean, *atzerapenaren* zigorra ematen zaie Pazkoan ogi legamiaduna darabilenari eta barau nagusiko egunean elikadurarik jaten duenari, [gauza horiek galarazirik baitaude] bai guri gabealdi neketsua ezartzeko, eta bai gu federa gidatzeko ere; horiek erlijioaren oinarriak diren sineskerak sendotzeko balio duten egintzak

direlako; hots, alde batetik, Egiptoko irteera eta orduko mirarietan sinestea, eta penitentiari buruzkoa: «Egun horretan egingo baita zuen aldeko barkamen-ohikunea, garbi zaitezten» (Lb 16,30). Azkenik, atzerapenezko zigorrean erortzen da sakrifizioaren hondakinak edo sakrifizio profanatua jateagatik, edo, [norbera] lohtasun egoeran izanik, gauza santuak jateagatik, hori gantza jatea bezain kondenagarria da eta. Helburua, azkenean, sakrifizioari garrantzia ematea da, geroago azalduko denez.

Heriotza-zigorra ez duzu aurkituko kasu larrietan besterik, hala nola fedea suntsitzea edo [gizartearen aurkako] krimen oso larrietan; eta idolatriaz ari naiz, adulterio edo intzestuzko harremanez, odol isurtzeaz, eta ondokoak bezalako krimenetara daraman guztiaz: 1) Larunbataren profanazioa, heriotzaz zigortzekoa, munduaren berritasunaren sineskera sendotzeko balio duelako⁹⁰. 2) Profeta faltua eta doktore bihurria⁹¹, hedatzen duten ustelkeriagatik hiltzera kondenatuak. 3) Bere aita edo ama madarikatzen edo jotzen duena⁹², horrek gaiztakeria izugarria erakusten eta familien antolakuntza birrintzen duelako, Estatuaren oinarri nagusia. 4) Seme ez esaneko eta bihurria⁹³, denboraz zer bilakatuko den kontuan harturik, halakoa nahitaez gizeraile izaten amaituko da eta. 5) Gizaki baten bahitzailea⁹⁴, hiltzeko arriskuan jartzen duelako; bai eta 6) hausturaz ebasten duena, norbait hiltzera arriskatzen delako, doktoreek jada azaldu zuten bezala⁹⁵. Azken hirurok, hots, seme desobeditzailea eta bihurria, bahitzaile eta pertsona baten saltzailea eta hausturaz ebasten duena, azkenean seguru asko eraile bilakatuko dira. Ez duzu heriotza-zigorrik aurkituko, krimen larri horietatik landa, beste ezein kasutan. Ez dira heriotza-zigorraz gaztigatzen intzestu guztiak, egiteko errazenak baizik, edo lotsagarrienak, edo jendea gehien erakartzen dutenak; egoera horietan ez daudenak, atzerapenez besterik ez dira zigortzen. Era berean, ez dira idolatria mota guztiak heriotzaz gaztigatzen, gurtze horretako jarduera nagusiak baizik, esaterako, idoloak adoratzeta, haien izenean profetizatzea, [haurrak] surtatik pasaraztea, [jainko faltasuei] dei egitea, eta magia edo sorginkeria praktikatzeta.

Argi dago, halaber, gaztiguak nahitaezkoak direnez gero, beharrezkoa dela, era berean, epaileak jarri eta beroriek hiri guztietan banatzea. Lekukoak ezartzea ere beharrezkoa da, eta, azkenean,

beldurra eta errespetua zaion errege bat ere bai, hertsapen mota guztiak betearazi eta epaileen agintaritza indartu ditzakeena, eta horrela, bera ere, bere aldetik, epaileen bidez sendotua izanen da.

שופטים *Šôfetîm* ('Epaileak') liburuan izendaturiko agindu guztien motiboak behin erakutsi eta gero, Tratatu honen helburuarekin bat etorritz, bertan aipatzen diren xedapen batzuez arreta erakarri behar dugu, eta, zehazki, «doktore bihurria»ri buruzkoez. Beraz, hau diot: Jainkoak Legearen xedapenek, aldi eta leku guztietan, herrien, gertaeren eta zirkunstantzien aniztasunaren arabera, bai hedatuak eta bai hertsatuak izateko premia ukanen zutela jakinik, galarazi zen haiei ezer gehitu edo murriztea, eta honela erran da: «Ez erantsi, ez kendu ezer» (Dt 13,1), horrek Legearen xedapenak usteltzera eta Hura Jainkoarengandik ez zetorrela sinestera eraman zezakeen eta. Halere, Jainkoak mende bakoitzeko jakintsuei, erran nahi baita Epaitegi Nagusiari, baimena eman zien Legearen xedapen horiek sendotzeko neurriak hartzeko, aldaketak eragozteko arautegi berrien bitartez, eta jagoteko arreta horiek iraunarazteko, doktoreek diotenez: «Egizue hesi bat Legearen inguruan» ('*Abôt* 1,1). Era berean, ontzat eman zen, halako zirkunstantzietan edo halako gertaera bereziak kontuan harturik, Legeak aginduriko praktika batzuk bertan behera uztea, edo Hartan galaraziko beste batzuk onartzea; edonola ere, holakoak egin gabe uzteak ez zuen luzaroegi iraun behar, *Mišnâh-ri buruzko Iruzkina*ren *Atarikoan*, aldi baterako erabakiak direla eta, erakutsi dugunez. Prozedura horren bitartez, Legearen batasuna babesturik gelditzen zen, eta, aldi berean, jokaera-arautzat unean uneko zirkunstantziak har zitezkeen beti. Baina doktore bakoitzari horrelako gogoeta partzial horietan jarduten utzi balie, jendea banaketa eta zisma ugariren arriskupean gera zitezkeen. Horrexegatik Jainkoak doktore guztiei, Epaitegi Nagusiari salbu, galarazi zien holakorik egiten hastea, eta Epaitegi horren aurka eginen lukeen edozein pertsona hiltzera kondena zedila agindu, zeren, baldin pentsalari bakoitzak haren aurka altxatzerik ukan balu, aurretik begiztaturik zegoen xedea alferrik galduko baitzatekeen, eta [xedapen horien] abantaila suntsiturik geldituko.

Era berean, jakin behar da, Legearen debekuak urratzeko, lau kategoria ezar daitezkeela: 1.a) horretarako bortxaturik egotea, 2.a) oharkabean egitea, 3.a) aurrez pentsaturik betetzea, eta 4.a) errespetugabekeria betetzea.

Bekatu egitera bortxaturik dagoenaz, bereziki erraten da ez dela horregatik zigortuko eta ez duela bere gain inolako errurik. Jainkoak errana baitzuen: «Neskari ez diozu deus ere eginen, ez baitu heriotza-zigorrik merezi duen bekaturik egin» (Dt 22,26).

Oharkabeen bekatu egiten duenak falta bat egiten du, zeren, lasai izan eta begira egoteko ardura ukan balu, ez baitzukeen hutsik eginen. Halere, ezin da inola ere gaztigatua izan, baina hori zerbaitekin ordaindu beharra dauka, hots, sakrifizio bat eskainiz. Eta hor, Legeak ezberdintasuna egiten du gizaki pribatu, errege, apaiz nagusi eta Legeko doktorearen artean. Horrek irakasten digunez, bere doktrina pertsonalaren arabera diharduena, edo doktrinazko erabaki bat formulatzen duena –Epaitegi Nagusia edo Apaiz Nagusia ez baldin bada– aurrez pentsaturik bekatu egiten dutenen kategoriakoa da, eta ez da sartzen oharkabeen bekatu egiten dutenen artean; horregatik doktore bihurria hiltzera kondenatzen da, nahiz eta bere jardueran edo erabakiak ematean bere doktrina pertsonalaren arabera aritua izan. Epaitegi Nagusiko kideei ez besteri dagokie beren doktrina pertsonalaren arabera erabakitzea; hortaz, okertu badira, oharkabeen bekatu egin balute bezala kontsideratzen dira, errana den bezala: «Oharkabeen bekatu egiten duena israeldarren elkarte osoa bada...» (Lb 4,13). Hastapen horrekin bat etorritz, errana dute doktoreek: «Doktrina okerra aurrez pentsaturiko bekatutzat hartzen da» (*Abôt* IV.13), eta horrek erran nahi du, zientzia mugatua daukan arren, eta, halere, horren araberrako obrak egin edo erabakiak hartzen dituenak, aurrez pentsaturik bekatu egiten duenaren pare kontsideratzen dela. Izan ere, hau ez da giltzurrunen gantz puska bat, ahariaren buztaneko gantza delako ustean, jaten duenaren kasua, giltzurrunen gantza jakin ganean hartu baina galarazirik dagoela jakin gabe egiten duenaren antzera, azken horrek, ordaintze-sakrifizio bat besterik ezartzen ez zaion arren, ia borondatezko lege-hauste bat egiten duelako. Halere, lege-haustea berak ez bestek egiten duenean gertatzen da hori; aldiz, erabaki okerrak –bere ezjakintasunaren fruitu–, ematen dituenak, zalantzarik gabe, aurrez pentsaturiko bekak egiten duela kontsideratu behar da, [Legearen] testuak, erabaki okerragatik, errugabe Epaitegi Nagusiari besterik ez deritzolako.

Aldez aurretik pentsaturiko bekak egiten duenak agin-
duriko zigorra pairatuko du, heriotza-zigorra, zein zartadak edo

bihurrikeriagatiko kolpeak, legezko zartadekin ezin gaztiga daitezkeen lege-hausteen kasuan, edo, azkenean, diruzko isunarekin. Lege-urratze batzuetarako, aurrez pentsaturikoa oharkabean eginikoarekin berdintzen baldin bada, hori da bekatu horiek maiz eta erraz egiten direlako, eta hitz hutsetan mamitzen direlako, eta ez egintzetan, esaterako, lekukotasun-zina eta gordailuarena. Gauza bera gertatzen da andre esklabo ezkonduarekin izandako sexu-harremanaz ere, bekatu arinagotzat hartua baita, maiz gertatzen delako, berori [= andre esklaboa] sarritan horraino eramaten uzten duelako, ez baita guztiz esklabo, ez erabat libre, ez osorik senarraren boterepekoa ere, tradizioak, agindu hori azaltzean dioen bezala.

Bekatari errespetugabeak, aldez aurretik pentsatua betetzeaz gainera, aldi berean, arduragabekeriaz eta ausarkeriaz jokatzten du, Legea agerian eta jendaurrean hautsiz. Berorrek ez du grina hutsagatik bekaturik egiten, ez eta beraren ohitura gaiztoek Legeak galarazten dituen atseginak bilatzera bultzatzen dutelako ere, baina Legearen aurka jarri eta Harekiko errebeldian jardutearren. Horregatik halakoaz hau erran da: «Yhwh iraintzen du» (Zkiak 15,30), eta, dudarik gabe, heriotza merezi du. Horrela diharduenak bere iritzia egina du, eta, horri jarraikiz, Legearen aurka jotzen du. Hori dela eta, tradiziozko azalpenak dioenez, Eskriturak hemen idolatriari buruz hitz egiten du, sistema horrek Legea bere oinarritik zulatzen du eta; izan ere, inork ez dio argizagi bati gurtzerik eskainiko bera betierekoa dela sinesten ez badu, geure obretan asko aldiz erakutsi dugun bezala. Gauza bera gertatzen da, ene ustez, Legea irauli edo Haren aurka jartzeko asmoa ageri duen edozein urratzerekin ere. Ene ikuspegitik, israeldar banako batek esnetan egosiriko okela jan baleza, edo askotariko gaiez eginiko ehunekin jantziko balitz, edo adatsaren ertzak ebakiko balitu, debeku horiengatik daukan mespretxua agertu eta legeria horren egia ez duela sinesten erakusteko asmoz, Betierekoari birao egiteaz errudun izanen litzateke eta heriotza mereziko luke, baina ez [bere bekatuagatiko] zigor moduan, bere sinesgabetasunagatik baizik. Hiri bateko bizilagunak, [idolatriari] erakarriak, bere sinesgabekeriagatik hiltzera kondenatzen diren bezala, eta ez beren krimenaren gaztigurako, eta, arrazoi horregatik, haien ondasunak su-garretara emanak dira, eta ez dira haien ondorengoengana iragaten, hiltzera kondenaturiko gainerakoen kasuan ez bezala. Nik neuk beste horrenbeste erran nezake, guztiek

elkar harturik, edonolako agindu hautsi eta errespetugabeki ari den edozein israeldar erkidegoz ere. Horko kide guztiek heriotza merezi dute, eta horrela egiazta dezakegu Ruben-en eta Gad-en leinuen historia ikasita, haiez hau erran baitzen: «Eta israeldar elkarte osoa bildu zuten Šilon, leinu haiei erasotzeko asmoz» (Jos 22, 12). Emaniko abisuan azaldu zitzaenez, bekatu hori elkar harturik egin zutela eta, fedegabetasunagatik errudun bilakatuak ziren, erlijio osoaren aurrean bihurri agertuz, eta honela erraten zitzaien: «Horrela Yhwh-rengandik aldendu zarete» (Jos 22,16), horri haiek honela erantzunez: «Ongi daki Jainko Guztiahaldunak, Yhwh-k, (...) berarekiko desleial izan bagara» (*ibid.* 22. bert.). Ongi ohartu behar duzu krimenen zigorrei buruzko hastapen horiez.

Bestetik, *Šôfetîm* ‘Epaileak’ liburuak ‘Amaleq-en leinua suntsitzeko agindua dakar’⁹⁶. Izan ere, gizabanakoa zigortzen den bezala, era berean, leinu edo nazio osoa ere gaztigatu beharra dago, horretara leinu guztiak larderiatuak izan daitezen eta gaizkia egiteko elkarri lagundu ez eta beren buruei erran diezaiten: Gurekiko ere halako leinu horrekiko jardun duen bezala jardun lezake. Horretara, baldin haren erdian gizon gaizto eta suntsitzaile bat agertuko balitz, arima aski galdua lukeena, egiten duen gaizkiaz ardura gabe egoteko eta horren gainean gogoetarik ez egiteko, ez luke inor aurkituko bete nahi lituzkeen asmo gaiztoak betearaztera laguntzeko. ‘Amaleq bere ezpata zorrotik ateratzera abiatu zenean, ezpataz hilaraz zedila aginduz; baina ‘Amon eta Moab, zitalki jokatu eta kalte egiteko maltzurkeria erabili zutenak, ez zuten beste gaztigurik jaso israeldarrekiko ezkontzetatik baztertuak izan eta beren adiskidetasuna mespretxuz erantzunik ikustea baino. Xedapen horiek guztiok argi erakusten dute Jainkoak zigorrak mailakatu dituela, ez gogorregiak ez eta txikiegiak ere izan ez daitezen, baizik eta, berak bereziki erran zuenez: «Haren delituaren arabera merezi duen beste»(Dt 25,2).

Liburu honek [*Šôfetîm*-ek] badauka, era berean, toki baztertu bat (kanpalekutik aparte) eta makila bat prestatzeko agindua ere⁹⁷, Legeak helburutzat dauzkan gauzetako bat, jakinarazi dizudanez⁹⁸, garbitasuna [gorde] eta lohi eta zikinkerietatik urruntzea da, gizakiak animaliak bezalakoak izan ez daitezen. Agindu horren bitartez, gerlariengan sendotu nahi izan da Jainkoaren Maiestatea haien artean delako konfiantza, honelako egintzak xedatuz, agindu hau motibatzean

azaldu den bezala: «Leku santua izan behar du kanpalekuak, horren erdian baitabil Yhwh, zure Jainkoa» (*ibid.* 23,15). Horrek beste ideia hau ere iradokitzen du: «Hark zuregan deus lotsagarriarik ikus ez dezan eta bere begiak zuregandik urrun ez ditzan» (*ibid.*), eta hori lizunkeria ez lerratzeke abisua da, gerrako kanpamenduan, soldaduak beren etxeetatik luzaroegi egoten direnean, gauza jakina denez, hori oso maiz gertatu ohi da eta. Beraz, Jainkoak, gu jokabide horretatik babesteko, egiteko batzuk agindu dizkigu, Jainkoaren Maiestatea gure artean dela gogora dezagun, eta hau erran du: «Leku santua izan behar du kanpalekuak, zuregan deus lotsagarriarik ikus ez dezan» (*ibid.*). Eta «gaueko akzidente batez» besterik lohitu ez dena bera ere, kanpalekutik irten beharra dauka, eta Eguzkia sartu arte hara itzuli ez, bakoitzak ideia hau ongi barruan gorde dezan, hots, kanpalekua Betierekoaren santutegi bat bezalakoa dela, eta ez daukala misiotzat, paganoen armadek bezala, suntsitu, hondatu, besteei kalte egin eta haien ondasunak kentzea. Izan ere, guk, aitzitik, gizakiak Jainkoa gurtzeko prestatzea dugu helburu, eta haien artean ordena ezartzea. Jakinarazia dizut jada ez dizkizudala hemen aginduen motibazioak azaltzen, testuaren hitzez hitzezko zentzuan besterik.

Azkenik, *Šôfetîm* liburu berberorrek emakume eder gatibuari⁹⁹ buruzko legea dauka. doktoreek, zerorrek dakizunez, honela diote: «Legea hemen grinari buruz besterik ez da mintzatzen» (קְדוּשִׁין *Qiddušîn* 21b). Halere, ohartarazi behar dut agindu horrek moralezko irakaspen nobleak dauzkala, gizon bertutetsuek portaera-arautzat hartu beharrekoak. Horrela, meneratu ezineko grinapean badago ere, berak [gerlariak] emakume horrekin leku erretiratuan bakarrik egon behar du, errana den bezala: «Etxera eraman dezakezu» Dt 21,12), eta, gerrak dirauen artean, ez du indarkeriaz erabiliko, doktoreek erran dutenez. Ondoren, ez zaio zilegi harekin bigarren aldiz sexu-harremanik ukaitea, harik eta haren nahigabea ematu eta mina gutxitu arte, eta ez dio galarazi behar bere tristuran murgiltzea, bere garbi-ikuziari kasu ez egitea eta negarrez aritzea, izkiriaturik dagoen bezala: «Bere aita-amengatik negar egiten» (*ibid.* 13. bert.). Izan ere, tristuraz gainditurik daudenak, negar eginez eta beren mina kanpora atereaz, lasaitu egiten dira harik eta haien indar fisikoak arimaren bigarren astinaldi hori jasateko sorgortuegi egon arte, pozarren zorabiatuak daudenak jolas mota guztiekin lasaitzen diren bezala.

Hori dela eta, Legeak, [emakume] horrenganako onginahiaz beterik erabateko askatasuna ematen dio, negar egiteaz eta tristurapean egoteaz nekatu arte. Badakizu, [emakume hori] oraindik paganoa den bitartean, berarekin sexu-harremana ukan dezakeela behin. Era berean, hogeita hamar egunetan bere erlijioa agerian aitor dezake, eta idolatria praktikatu ere bai, denbora horretan, sinesmena dela eta, berarekin kereilarik jarri gabe. Gero, Legearen aginduetara bihur dadin lortzen ez badu, ez zaio zilegi bera saltzea, ez eta hartaz esklabotzat baliatzea ere. Legeak, beraz, emakume hori, bizikidetaz gero bortxaezin bihurturik, errespetatu egiten du, eta egintza hori nolabait bekatua denez, bera orduan paganoa baitzen, halere hau erraten da: «Ez diozu tratu txarrik emanen, zerorrek umiliatu duzulako» (*ibid.* 14. bert.). Badakusazu, beraz, zer-nolako moral noblea gordetzen den agindu horretan. Eta orain, liburu honetako agindu guztiak aski argiturik gelditzen dira.

מב BERROGEITA BIGARREN KAPITULUA

[Zazpigarren saila: Jabetzarako eskubidea: horren arauak; merkatalgo-tratuak; ondareak, familia-loturak; esker ona]

Zazpigarren sailak dauzkan aginduak, jabetza-eskubideei buruzkoak, משפטים *Mišpātîm* (= ‘Eskubideak’) liburuaren eta קנין *Qinyān* (= ‘Erosketaz’) liburuaren zenbait ataletan aipatu ditugunak dira. Horiek guztiok badute motibo nabarmena, beren baitan gizakien artean nahitaez gertatzen diren [salerosketako] harremanetarako egokidetasun-erabaki zuzenak dauzkatelako, eta elkarri laguntza probetxugarria eskaintzeko aholkuak ematea, interesatuetako batek guztiaren zatirik handiena eduki nahi ez dezan, eta alde guztietan onuradunena izan ez dadin.

Ororen aitzin, salerosketetan alde batera utzi behar da era guztietako iruzurra eta ohiko etekinak askietsi, onarturiko zilegitasunaz¹⁰⁰. Baldintza batzuk ezarriak izan dira salerosketa baliioduna izan dadin, eta iruzurra galarazi da, bai eta hitz hutsetan oinarriturikoa ere, gauza jakina denez.

Ondoren *lau gordetzaileei*¹⁰¹ dagokien legea dator, zuzentasun eta justizia nabarmenekoa bera. Izan ere, gordailu bat dohainik

gordetzen duena, arazo horretan inolako interesik gabe, eta poztasun hutsez arituz, ez da ezeren erantzulea, eta gerta daitekeen kalte guztiak jabearen kontura izan beharko du. Mailegatzailea, irabazi osoa jasotzen duen bakarra, jabeak mesedea egiten dion bitartean, ororen erantzulea da eta gerta daitezkeen kalte guztiak bere gain hartu beharko ditu. Norbaitek, alokairuaren truke, gordailu batez arduratzen bada, edo zerbait alokaturik hartzen badu, biek, gordetzaileak eta jabeak, hor interes komuna dute, eta, ondorioz, kalteak bien artean erdibanatu behar dituzte; zaintzean izandako arduragabekeriagatik gertaturikoak gordetzaileak ordaindu beharko ditu, esaterako, objektu hori ostua edo galdua denean, lapurretak eta galtzeak [gordetzaile] horrek bere lanean ardura handia eta aurreikuspen bikainik ez duela erabili erakusten dutelako; baina saihestu ezineko kalteak, hala nola, [prestatuturiko] animalia hori higatua, eramana, edo hila bada, ezin besteko kasuan, horiek jabeak hartu behar ditu bere gain.

Ondoren, [pertsona] alokatuari, berorren pobretasunagatik, zor zaion onginahia berresten eta horren alokairua berehala ordaintzeko agintzen da, zor zaionetik ezer ere kendu gabe, hau da, haren lanaren balioaren arabera saritzeko¹⁰². Harekiko onginahia hain doa urrun non ez zaion eragotzi behar, ez berari ez eta [lanean ari den] abereari ere, haien lanaren objektu diren elikagaiak jaten, lege horri dagozkion [tradiziozko] xedapenen arabera.

Jabetzari buruzko legeek ondareak ere besarkatzen dituzte. Moral onak eskatzen duenez, gizakiak merezi duenari ez dio ongi egitea ukatu behar. Beraz, hil zorian dagoenean, ez du bere ondarengoaren jeloskor izan behar, eta ez ditu bere ondasunak irion behar, baizik eta gizakien artean [horretarako] eskubiderik handiena duenari utzi, hau da, ahaiderik hurbilenari: «Bere familiako ahaiderik hurbilenari» (Zkiak 27,11). Jakina denez, espresuki errana da, hori, norbere lehenik, haurra dela, gero anaia, ondoren osaba (*ibid.* 8-10. bert.). Lehen lekua bere seme nagusiari eman behar zaio, bere maitasunaren lehen objektuari, eta ez da grinaz itsutu behar: «Ezingo dio lehen jaioaren eskubidea eman emakume maitareen semeari» (Dt 21,16). Lege zuzenak gudan bertute hau kontserbatu eta sendotu nahi ukan du, erran nahi baitut, senideak errespetatu eta babestea. Badakizu profetaren hitz hauek: «Bihotz-gogorrek bere senideari kalte egiten dio» (EsZah 11,17); Legeak, limosnez mintzatuz, honela dio: «Zure

anaiari, zure behartsuei, etab.» (Dt 15,11), eta doktoreek ere biziki laudatzen dute «bere senideenganako atxikimendua erakusten duena eta bere arrebaren alabarekin ezkontzen dena» (*Yebamôt* 62b).

Legeak erran digu bertute honen praktikan azken bururaino heldu behar dela, hau da, gizakiak bere senidearekiko begiramena beti gorde behar duela eta familia-loturak estimu handitan eduki; eta, senide hori berarengana etsai eta gaizto agertu balitzaio ere, eta izaera nabarmenki biziotsua erakutsi, halere, ahaidetasunari zor zaion begiramen guztiarekin tratatu beharra dago. Jainkoak honela errana du: «Ez duzu edomdarra gaitzetsi behar, zure anaia da eta» (Dt 23,8). Era berean, egun baten behar ukan duzun [pertsona], mesedea egin dizuna eta estualdi batean aurkitu eta lagundu dizuna, geroago txarren bat egin badizu ere, nahitaez iraganekoa eduki behar diozu kontuan. Jainkoak errana da: «Ez duzu egiptoarra gaitzetsiko, haren herrian atzerritarra izan zinelako» (*ibid.*). Halere, gauza jakina da egiptoarrek zenbat kalte egin ziguten. Badakusazu agindu horiek zenbat bertute noble irakasten dizkiguten. Azken bi pasarteak, egia da, ez dagozkio zazpigarren sail honi, baina, seniparteak [banatzean], ahaideei zor zaien begiruneaz mintzatzean, egoki iruditu zaigu egiptoarrez eta edomdarrez hitxo bat eranstea.

מג BERROGEITA HIRUGARREN KAPITULUA

*[Zortzigarren saila: Jaiak eta atsedeen-egunak;
Larunbata, jai nagusiak eta horiek ospatzeko era]*

Zortzigarren sailak besarkatzen dituen aginduak זמנים *Zemannîm* ('*Denborak*' edo '*Aldiak*') liburuan kontatu ditugunak dira. Guztiak, kopuru txiki bat izan ezik, argiro motibaturik daude [Bibliaren] testuan.

Larunbataren ezarpenari dagokionez, horren motiboa jakinegia da azaldu beharrik izateko. Alde batetik, badakigu atsedena dela; horrekin nahi izan da pertsona bakoitzak bere bizitzaren zazpirena atseginera ematea, eta inork, ez handik ez txikik, ihes egiterik ez duen nekeetatik atsedena hartzea. Beste alde batetik, belaunaldiz belaunaldi garrantzi handiko doktrinari iraunarazi nahi izan zaio, munduaren sortzapenarenari¹⁰³.

Barkamen-eguneko barauaren ezarpena (יום כפור *Yom Kippûr*) ere ongi motibaturik dago, penitentziaren ideia¹⁰⁴ ezartzeko balio duelako. Egun horretan profeten printzeak Sinaitik israeldarrei bigarren harlauzak ekarri eta beren bekatu handien barkamena¹⁰⁵ iragarri zien. Beraz, egun hori penitentzia-eguna bilakatu zen betiko, kulturako ez beste sagaratua. Horrexegatik egun horretan era guztietako gorputz-gozaldietatik eta interes materialei dagokien zeregin guztietatik gorde beharra dago, erran nahi dut industria-lanetatik. [Egun horretan] aitorpenetara mugatu beharra dago, hau da, nork bere bekatuak aitortu eta beroriez damutzeraz. Jaiegunak oso-osorik poztasunerako eta bilera atseginetan ematekoak dira, eskuarki gizakia errentzat beharrezkoak, eta badute, halaber, gizarte zibiletan gizakien artean landu behar diren adiskidetasunak oinarritzeko abantaila. Egun horietako bakoitza bereziki motibatua izaten da.

Pazko jaia (פסח היא *Pesah haya*) eta horren gaia oso jakina da; zazpi egunez dirau, eta hori da, zazpi eguneko aldia egun naturalaren eta ilargi-hilabetearen arteko aldia delako. Eta zuk badakizu aldi horrek gauza fisikoetan zerikusi handia duela. Horregatik erlijio-gauzetan ere berdintsua da, erlijioak beti Natura imitatu eta nolabait gauza fisikoak osatzen baititu. Izan ere, Naturak ez du pentsamendurik, ez eta gogoeta egiterik ere; baina erlijioa, ordea, Jainkoarengandik datorren erregela eta erregimena da, eta Berarengandik dauka izaki adimentsu orok bere adimena. Ez da hori, baina, kapitulu honen gaia; beraz, hemen arduratzen gaituzten gaietara itzuliko gara.

Asteen jaia Legearen goi-agerpenaren eguna da. Egun hori goretsi eta ohoratzeko, lehenbiziko jaiegunetik horrainoko egunak hartzen dira kontuan, bere adiskiderik hoberenaren etorreraren zain egonik, egunak eta orduak kontatzen dituenaren antzera. Horrexegatik kontatzen da עומר *ômer*-a Egiptotiko irteera-egunetik Legearen goi-agerpenaren eguneraino, berori irteera horren egiazko helburua zen eta: «Eta nola... niregana ekarri zaituztedan» (Irt 19,4). Ikuskari handi horrek ez zuen egun bat besterik iraun, eta, era berean, urtero horren gogorapena egun batez ospatzen da. Baina ogi legamiagabea egun batez besterik jan ez baledi, horretaz ohartu ere ez ginateke eginen, eta oroitarazi beharreko gauza ez litzateke nabaritutako, maiz gertatzen baita elikadura bera [jarraian] bizpahiru egunetan. Aldi osoagoan jaten iraunez gero, ordea, gauza horren helburua argiago ageri da, eta horren esangura nabarmendu ere bai.

Era berean, *urtearen hasierako* jaiak (רש השנה *Roš ha-šanah*) ez dirau egun bat besterik, egun horretan gizakiek penitentzia egin eta beren axolagabekieratik itzartu behar direlako. Hori dela eta, egun horretan שפָּר *šôfār*-a¹⁰⁶ jotzen da, *Mišnèh Tôrāh*-n azaldu dugunez, nolabaiteko prestakuntza moduan eta barau-egunerako sarrera gisa. Horretara, badakusazu tradiziozko usadioa dela, gure erkidegoan oso hedatua, urtearen hasieratik [bekatuen] barkamen-egunera arte (*Yom Kippûr*), lehen hamar egunak [betekizun horretarako] gordetzea.

Etxoletako jaiak, סכּוֹת *Sukkôt*) alaitasunari eta pozari eskainiak, zazpi egunez dirau, bere xedea ongi ezagutarazteko. Sasoi horretan ospatzeko arrazoia Legeak azaltzen du: «Zeure soroetako lanaren fruituak biltzen dituzunean» (Irt 23,16), hau da, ardurarik gabe, beharrezko lanetatik atsedena hartuko duzunean. Jadanik Aristotelesekin errana zuen bere *Etika*-ren bederatzigarren liburuan, hori, antza denez, ohitura oso hedatua zela antzinateko herrien artean. Hona hemen zer dioen. «Antzinakoen artean, erre-opariak eta hotsandiko bilerak uzta bildu ondoan egiten ziren; nolabait, atsedengatik eskerrak emateko opariak izaten ziren». Horiek dira haren hitzak. Ondoren oso erraz bizi daiteke סכּה *sukkāh* (= ‘etxola’) horietan sasoi horretan, ez baita bero handirik ez eta euri ezerosorik ere.

Etxoletako eta Pazkoko jai biek sineste eta ideia moral bana daukate. Sinesteari dagokionez, Pazkoak Egiptoko mirariak gogorarazteko helburua du, horren oroitzapena belaunaldi guztietan iraunaraziz, eta Etxolen jaiak basamortuko mirarien oroipena betiko iraunaraztea. Irakaspen moralaren arabera, gizakiak, ongizatean, zoritxar-egunez gogoratu beharra dauka, Jainkoari bere ezagutza aitortu eta hortik menekotasun- eta apaltasun-ikaspentak ateratzeko. Beraz, Pazko jaietan legamiagabeko ogiak eta belar mingotsak jan behar ditugu, gertatu zitzaigunaz oroitzeko. Era berean, gure etxeetatik irtenda, horiek utzi eta etxoletan egon behar dugu, baserri-basamortuetako bizilagun zoritxarrekoen antzera, horrela gure egoera behiala nolakoa izan zen gogora dezagun: «(zuen ondorengo belaunaldiek jakin dezaten) etxoletan bizitzen jarri nituela israeldarrak» (Lb 23,43), eta, Jainkoaren ontasunagatik handik atereak izan ginela etxe bikainetara bizitzera joateko, Lurreko herrialde ederren eta emankorrenetako batean, Berak gure arbaso Abrahami, Isaaki eta Jakobi egin zizkien promesen arabera, horiek guztiok beren sineste eta bertuteetan gizon

beteginak izanik. Izan ere, hori ere erlijioaren oinarrietako bat da, erran nahi baitut Jainkoak eskaintzen edo eskaini digun mesede oro patriarken merezimenduei zor zaiela, beroriek «Betierekoaren bidea gorde baitute, bertutea eta justizia praktikatuz» (Has 18,19).

Etcholetako jaia bigarren festa batez amaitzeko arrazoia, ixteko zortzigarren eguna denaz, hau besterik ez da, egun horretan etcholetan ezin egin litezkeen bozkarioak osatu ahal izatea, horretarako gela zabalagoak eta eraikuntza handiagoak behar izaten dira eta.

Eta לולב *lûlāb* osatzen duten lau landare motei doakienez, doktoreek arrazoi bat eman dute, דרשות *derāšôt*-en antzera, eta metodo hori errabinoen hitzak ulertzen dakiten guztiek ezagutzen dute; horiek beren artean alegoria poetiko hutstzat darabiltzate, eta ez dute horiekin erran nahi horixe dela, hain zuzen, testuaren zentzua. Bi eratara kontsideratu izan dira *derāšôt* horiek: Batzuek pentsatu dute doktoreek hor erran dutena testuen egiazko esanguraren azalpena dela; besteek, aldiz, azalpen horiek gaitzetsirik, irrigarri iritzi diete, ageri-agerian baita hori ez dela testuak erran nahi duena. Lehenbizikoek temati jo eta ke jardun dute, *derāšôt*-en egiazkotasunaren alde, beren iritziaren arabera, [Bibliako] testuaren benetako zentzua horixe baita, eta beraz, *derāšôt*-ei lege tradizionalei bezainbateko balioa aitortu behar litzaiekeelakoan. Baina alde bietako batek ere ez du ulertu nahi ukan hor alegoria poetikoak besterik ez direla, eta gizaki buruargiarentzat horien esangura ez dela inola ere iluna. Metodo hori erabat hedaturik zegoen garai haietan, eta mundu guztiak zerabilen, poetak poesiako esaera bereziaz baliatzen diren bezalaxe. Horretara, adibidez, doktoreek hau diote: «Bar Kappara-k irakatsi zuen hau erraten den lekuan «Aldaxka bat ukanen duzu zeure armaduraren parean» (Dt 23,14), hor ez dela אֶזְנֵךְ *’āzēnēkā* (= ‘zure armadura’) irakurri behar, *’ozneākā* (= ‘zure belarria’) baizik. Eta horrek irakasten digu gizakiak, gauza desegoki bat dantzunean, hatza belarrian jarri behar duela» (כתובות *Ketubôt* 15a). Nik, ordea, jakin nahi nuke, ezjakinen ustez, delako doktore horrek benetan sinesten ote zuen pasarte hori horrela ulertarazi beharra zegoela, eta agindu horren xedea horixe zela, eta יָתֵד *yātēd* (‘aldaxka’) hitza ‘hatza, erhia’ esangurarekin hartu behar zela, eta *’āzēnēkā* ‘belarriak’tzat. Ez dut uste zentzu oneko pertsona batek ere hori sinets dezakeenik. Hor alegoria poetiko oso ederra besterik ez da, eta horren bitartez moral noblea sartu nahi izan da,

hau da, hitz lizunak entzutea galarazirik dagoela, holakoak erratea ere debekaturik dagoen bezala; eta hori Bibliako testu batekin lotu nahi izan da, alegoria poetikoen antzera. Era berean, *derāšôt*-etan hau erraten den aldi guztietan: «ez da honela edo horrela irakurri behar, beste era honetara baizik», zentzu horrekin ulertu behar da. Neure gaitik urrundu naiz, baina oharpen baliagarria izan da, eta teologo eta errabino adimentsu guztiek zehatz dezakete bera. Banator, beraz, gure gaiaren haria hartzera.

Ene ikuspuntutik lau *lûlāb* motek hebrearrek basamortutik irtetea sentitu zuten poza eta alaitasuna irudikatzen dute, hargatik honela errana baitzen: «Hemen ezin da ezer erein, ezta pikondorik, mahatsondorik nahiz mingranondorik landatu ere, ez dago edateko urik ere» (Zkiak 20,5), handik irtetea fruta-arbolak eta ibaiak zeuden leketara joateko. Oroitzapena ospatzeko, toki horietako fruiturik ederrena eta usaintsuena hartzen zen, haien hostoak eta berdetasunik politena, hots, ibai-bazterretako sahatsenak. Lau mota horiek hiru berezitasunengatik nabarmentzen ziren: 1) Garai hartan Israelgo lurraldean oso maiz aurkitzen ziren, eta edozeinentzat erraza zen haiek eskuratzea. 2) Itxura ederrekoak dira, freskotasunez beteak, eta, alde batetik, usain atsegina darie, hala nola zedroa eta mirtoa; palmondoaren eta sahatsaren abarrei doakienez, horiei ez darie inolako usainik, ez txarrik ez onik. 3) Beren freskotasuna astebetetz gordetzen dute, zidrek¹⁰⁷, mertxikek, mingranek, irasagarrek, madariek, etab., ez bezala.

מ Berrogeita Laugarren Kapitula

[Bederatzigarren saila: Norbere baitan bete beharrekoak; otoitza, Jainkoari maitasuna eta beldurra ukaitea; zentzu morala]

Bederatzigarren sailak bere baitan dauzkan aginduak אהבה *'Ahābāh* 'Jainkoarenganako maitasuna' liburuan aipatu ditugunak dira. Guztiak argiro motibatuak dira, eta horren arrazoia nabarmena da, agintzen dizkiguten praktika erlijioso horiek guztiok betiere guri Jainkoarengan pentsaraztea dute helburu, Hura maitarazi eta gudan Beraren beldurra eragin, guri Haren agindu orokorrak obediari eta sinets dezagun gizon erlijioso orok Jainkoari buruz nahitaez sinetsi

behar duen guztia. Praktika horiek honako hauek dira: otoitza, שמע *Šema* irakurtzea, bazkariaren eta bere eranskinen bedeinkazioa, apaizen bedeinkazioa, filakteriak¹⁰⁸, מזוזה *mezûzâh*-ren izkribua ate-zangoetan, Legearen liburua erostea eta berori sasoi batzuetan irakurtzea¹⁰⁹. Praktika horiek guztiok gogoeta probetxugarriak sorraraztekoak dira; hori argi eta garbi dago, eta, beraz, alferrik litzateke horretaz hitz bat bera ere eranstea, ez bainuke errepikatu besterik eginen.

מֵהַ BERROGEITA BOSGARREN KAPITULUA

[Hamargarren saila: Santutegi nagusia eta horren arduradunak, historia eta deskripzioa; profanoentzako debekua; apaizak eta berorien janzkera-apaindurak eta betebeharrak; leku sakratuarekiko errespetua]

Hamargarren sailak dauzkan aginduak «Etxe hautatua» (edo «Santutegi Zentrala») tratatuetan zerrendatuak ditugu, «Santutegiko lanabesak eta haren ministroak» eta «Santutegiko Sarrera» deritzenetan. Sail honen baliagarritasuna, oro har, ezagutarazia dugu.

Jakina denez, idolatrek beren tenpluak eraiki eta beren idoloak jartzeko, aurki zezaketen tokirik gorena bilatzen zuten: «mendi gorenaren gainean» (Dt 12,2). Hori dela eta, gure aita Abrahamek מוריה *Moriah* mendia hautatu zuen, eskualde haietako mendirik garaiena, bertan Jainkoren batasuna aldarrikatu, *qiblah*¹¹⁰ seinalatu eta zehazki mendebaldera begira jarri zuen. Izan ere, Santuen Santua mendebaldean da, eta horixe da doktoreek hitz hauekin adierazten dutena: «Jainkoaren maiestatea mendebaldean da» (*Baba' Batra* 25a). Doktoreek berek erakutsi dute יומא *Yômā* tratatuaren גמרא *Gemara*-n gure aita Abraham izan zela *qiblah*, hau da, Santuen Santuaren kokapena erabaki zuena; eta, ene aburuz, hona hemen arrazoia: Eguzkia gurtu behar zelako iritzia orduan oso hedaturik zegoenez, hura Jainkotzat baitzuten, eta, zalantzarik gabe, otoitz egitean mundu guztia ekialdera biratzen zenez, gure aita Abrahamek *Qiblah*-tzat Moriah mendia hartu zuen, erran nahi baita santutegiaren lekua, mendebal aldea, Eguzkiari bizkarra emateko. Ez al dakusazu israeldarrek zer egin zuten, beren desertzio eta fedegabekeriak antzinako iritzi gaizto horietara itzularazi zituztenean?

«Yhwh-ren tenpluari bizkarra emanik eta aurpegia ekialdera begira; ekialderantz ahuspezturik Eguzkia gurtzen ari ziren» (Ez 8,16). Ongi barneratu behar duzu garrantzi handiko oharpen horretaz. Gainerakoaz, nik ez dut dudarik egiten Abrahamek ikuspen profetikoan hautaturiko leku hori Moises gure maisuak eta beste anitz pertsonak ere ezagutzen zutenik, Abrahamek toki hori gurtzerako sagara zedila gomendatu zuen eta, [kaldear] itzultzaileak bereziki dioen bezala: «Abrahamek toki horretan adoratu eta otoitz egin zuen, Betierekoaren aurrean erranez: Datozen belaunaldiek hementxe adoratuko dute» (Has 22,14). Eta Pentateukoan hori zehazki eta baieztatu eran erraten ez bada ere, eta [tokia] «Jainkoak hautatuko duena» hitzekin besterik aipaturik egon ez arren, baziren horretarako, iruditzen zaidanez, hiru arrazoi: 1) nazio paganoak leku horretaz jabetzen saia ez zitezen, hori eskuratzeko gerra gogorra sortaraziz, [israeldarren] erlijiorako munduko tokirik garrantzitsuena zela jakinik; 2) orduan [leku] horren jabeak zirenek suntsi ez zezaten, ahalik ere gehien hondatuz; 3) eta hau da arrazoirik sendoena, leinu bakoitzak eduki behar zuen lurralde-atalean toki hori sartzen eta konkistatzen ahalegin ez zedin, horrek eztabaidak eta nahaspilak ekarriko zituzkeelako, apaizgoari buruz ere izan zirenen antzekoak. Horregatik, erregetza ezarri arte santutegi zentrala ez eraikitzea erabaki zen, horrela ordenak bakar batek eman zitzan, liskar oro amaitzeko, שׁוֹפֵטִים *Šôfetîm* liburuan erakutsi dugun bezala.

Gauza jakina da gizaki haiek (= idolatrek) planetei tenpluak eraikitzen zizkietela eta haietako bakoitzean adoratzea erabaki zen eskultura jartzen zela, hau da, halako planetari sagaraturiko estatua bana, esfera baten partaide. Hortaz, Guztiz Gorenari tenplu bat eraikitzea agindu zitzaigun, eta bertan bi harlauzak gordetzen zituen Kutxa Santua ezarri, horietan [aginduok] zirela: «Ni naiz Yhwh...» eta «Ez izan ni beste jainkorik». Jakina da profeziari dagokion fedeko artikuluak Legean sinestea baino lehenagokoa izan behar duela, ez baitago Legerik profeziarik gabe. Profetak ez du goi-agerpenik jasotzen aingeru baten bitartekotasunaz ez bada; esaterako: «Eta Yhwh-ren aingeruak deitu zion» (Has 22,15); «Eta Yhwh-ren aingeruak hots egin zion» (*ibid.* 11), eta kontaezineko beste hainbat pasartetan. Moises bera bere misio profetikoan aingeru batek abiarazi zuen: «Han Yhwh-ren aingerua agertu zitzaion sasi artean pizturiko sugarretan» (Irt 3,2). Beraz, argi dago aingeruen existentzia sinestea profetismoaren

sinestea baino lehenago izan behar dela, eta azken hori ere lehenago Legean sinestea baino. Beraz, sabearek Jainkoaren existentzia ez zekitenez, iruditzen zitzaien betiereko Izakia, nahitaez eta betidanik existitu behar zuena, zeruko esfera zela, beraren argizagiekin, eta horien indarrak idoloen gainera isurtzen zirela, bai eta halako zuhaitz batzuen gainera ere, esaterako **אֲשֶׁרֹת** *’āšērôt* deritzenetan¹¹¹; horrela, profetei iradokitzen zietenak haien idoloak eta zuhaitzak zirela sinesten zuten, goi-agerpenak haiekin mintzatzean eskainiz, eta zer zen mesedegarria eta zer kaltegarria jakinarazten zietela; eta iritzi horiek, Baal-en eta *’āšērôt* izeneko zuhaitzen profetez hitz egitean azalduak ditugu jada. Baina gizakiei egia agertu zitzaientean, eta, frogen bitartez, jakin zenean badela izaki bat, ez gorputz bat, ez eta gorputz baten barruko indar bat ere ez dena, hau da, Jainko egiazko eta bakarra, eta, gainera, badirela beste izaki banatu eta gorputz-gabeak, jada erakutsi dugunez, eta, azkenik, izaki horiek guztiok zeruko esferatik eta berorren argizagietatik kanpoan aurkitzen direla, orduan profetei goi-agerpenak egiten zizkietenak aingeru horiek, eta ez idoloak eta *’āšērôt*-ak, zirelako konbentzimendua heldu zen. Horrela, aurrekoagatik, argi da aingeruen existentzian sinestea loturik dagoela helburuz Jainkoaren existentzian sinestearekin eta horrek goi-agerpen profetikoaren eta Legearen egia ezartzeko balio duela. Fedeko artikulua hori berresteko, Jainkoak kuxaren gainean aingeru biren imajinak ipintzeko agindu zuen, horrela herriarengan aingeruen existentzian sinestea sendoago zedin; eta hori sineste egiazkoa da, eta Jainkoaren existentzian sinestearen ondoren, [mailaz] bigarrena, profeziaren hastapena eta Legearena bezala, idolatria ukatzearekin batera, jada erakutsi dugunez. Hor figura bakarra izan balitz, horrek okerrerako bidea eman zezakeen, eta horrela figura horren pean Jainkoa adoratzeko zela sinetsaraz zitekeen, idolatrek egiten dutenez, edo bestela, ez zegoela aingeru banako bat besterik, eta horrek nolabaiteko dualismora eramane gintzakeen. Baina bi kerubin jarri zirenez gero, «Yhwh da gure Jainkoa, Yhwh bat bakarra da» (Dt 6,4) berariazko adierazpenaren ondoren, horrekin aingeruen existentziaren sinestea berresten zen, halakoak bat baino gehiago zirela finkatuz. Beraz, ez zegoen okertzeko eta haiek Jainkotzat hartzeko arriskurik, Jainkoa bat delako, [Adimenen] aniztasun hori sorraz duena bera izanik.

Aurreko aldean argimutilla jarririk zegoen, tenpluarentzako ohore eta errespetu-seinaletzat, tenpluak, betiere lanparek argituak

eta [קדש הקדשים] *Qodeš ha-Qodašim* = *Sancta Sanctorum*]-etik oihal batez banatuak, arima bortizki hunkitu behar zuen eta. Badakizu Legeak zer-nolako garrantzia ematen dion norbera santutegiaren handitasunagatik eta zor zaion errespetuak eraginik gelditzeari, hari begiratzean gizakiak bere ahultasunaren sentimendua ukan dezan eta apal bilaka dadin. Errana baita: «Izan begirune nire santutegiari» (Lb 19,30); eta, gomendio horri are indar handiagoa emateko, larunbata gordetzearekin lotu da. Lurrinen aldarea, holokaustoen eta berorien tresnen aldarea beharrezkoak ziren, begien bistan zenez. Eta mahaiari eta bertan etengabe ageri beharreko ogiari dagokionez¹¹², ez dakit horren arrazoia zein den, eta une honetaraino ez dut deus aurkitu erabilera hori zertan oinarri daitekeen jakiteko.

Aldarearen harriak lantzeko debekuaz den bezainbatean, badakizu doktoreek emandako arrazoia: «Ez da komeni –diote– bizitza laburtzen duena, bera luzatzen duenaren gainean jartzea» (*Middôt* III,4). Hori ona da *derāšôt*-en moduaren arabera, erran dugunez. Baina debeku horrek ba du beste arrazoi nabarmen bat ere. Izan ere, idolatrek aldareak harri landuekin eraikitzen zituzten. Beraz, haien antzera egitea galarazi da, eta imitazio hori baztertzeko, lurrezko aldarea egiteko agindu da, errana den bezala: «Egidazue lurrezko aldare bat» (Irt 20,24). Halere, harrizkoa egitea nahitaezkoa balitz, harri horiek beren berezko forma gorde beharko lukete, landuak izan gabe. Horrexegatik galarazi da, halaber, figurez apainduriko harriak eraiki eta aldarearen ondoan zuhaitzak landatzea ere¹¹³. Horrek guztiorrek helburu bera eta bakarra du, hots, paganoek beren jainkoizunei eskaintzen zizkieten bana-banako gurkera moduekin guk Jainkoa ez adoratzeko, eta hori, oro har, hitz hauekin galarazi izan da: «Nola zerbitzatzen dituzte jende horiek beren jainkoak? Nik ere horiek bezala egingen dut» (Dt 12,30), erran nahi baita, ez dela horretara jokatu behar Jainkoari buruz, ondoren eransten den arrazoi honegatik: «Yhwh-rentzat higuigarri eta gorrotagarri dena egin dute beren jainkoen ohorez» (*ibid.* 31).

Badakizu, era berean, zeinen hedaturik zegoen tenplu horietan *Pe'ôr* gurtzea, lotsariak agerraraziz ospatzen zena. Hori dela eta, apaizei berentzat galtzak egin zitatzela agindu zen, ofizioan ari ziren bitartean «Beren biluztasuna estaltzeko» (Irt 28,42), eta, halere, ez zuten aldarera harmailetatik igo behar «lotsariak agerian jar ez daitezen» (Irt. 20,26).

Tenpluak betiere zaindurik egon behar zuen, eta, ohoratu eta errespetarazteko, ingurutik erronda egin, profanoek, satsuek eta lohi zeudenek inbaditua gerta ez zedin, azalduko denez. Beste gauza batzuen artean santutegia loriarazi eta ohoraraztera laguntzeko, horrela gure errespetua ziurtatzeko eran, gizon hordi, satsu eta zikinei hara sartzen galarazten zitzairen, hau da, ileak desordenaturik eta jantziak urratuak zituztenei, eta ofizialakide guztiek eskuak eta oinak garbitu beharra zeukaten, santifikatzeko.

Tenplua ohoratzeko, halaber, agindu zen bertako ofizialakideak ohoratzea; [zerbitzurako] apaizak eta lebitarrak bereziki izendatu ziren, eta apaizei soineko guztiz ederra, bikaina eta dotorea eskaini: «Jantzi sakratuak, apaizgoaren ohore eta duintasuna adierazteko» (Irt 28,2). Ez zen zerbitzurako onartu behar gorputzeko akats bat zuena, eta hor ez da soilki gaixotasun batek jota zegoenaz ari, baina makertasunek ere apaizak [zerbitzurako] ezgai bihurtzen zituzten, agindu horren azalpen tradizionalen argitu denez; izan ere, jende arruntak ez du gizakia estimatzen bere egiazko formagatik, bere gorputz-atalen bikaintasunagatik eta bere jantzien edertasunagatik baizik. Horrek guztiorrek tenplua mundu guztiak ohorarazi eta errespetaraztea du helburu. Lebitarrak, ordea, apaizez erraten den bezala erre-opariak eskaintzeko ardurarik eta bekatuen barkamena eskatzeko kargurik ez zuenak: «Beraren¹¹⁴ aldeko garbikuntza-ohikunea egingo du» (Lb 4,26; 12,8, eta *passim*), eta kantikak kantatzea beste zereginik ez zuenez, ez zen zerbitzurako ezgai gelditzen ahotsa galtzen ez zuen bitartean. Izan ere, kantuaeren xedea hitzek arimetan are zirrara handiagoa eragitea da; alabaina, arimari zirrara ez diote melodia gozoez besterik eragiten, musika-tresnen laguntzarekin, santutegian beti egiten zen bezala. Zerbitzurako gauza ziren apaizei ere, santutegian zirenen artean, ez zitzairen zilegi bertan esertzea, ez tenpluaren barrura noiznahi sartzea, ez eta *Sancta-sanctorum*-ean sekula barneratzea ere, Apaiz Nagusia salbuetirik, hor garbitze-egunean lau aldiz, ez gehiago, sar zitekeen eta; eta hori guztiori santutegiarenganako errespetuagatik.

Izan ere, leku santu horretan egunero animalia askori lepoa mozten zitzairen, eta bertan haien haragiak ebaki eta erretzen ziren, haien hesteak ere hortxe uraz ikuziz, eta, egiazki, baldin egoera horretan utzi balitz, [santutegiari] harategikoa bezalako usaina jarioko zitzaion. Hori dela eta, han egunero bi aldiz lurrinak erretzeko agintzen zen, goizean

eta arratsaldean, bertan usain ona hedarazi eta han zerbitzua egiten zuten guztien jantziak lurrineztatzeko. Badakizu doktoreek zer dioten: «Jerikotik lurrinen usaina sentitzen zen» (*Tamid* 3,8). Horrek, halaber, santutegiarenganako errespetua gordetzera laguntzen zuen; izan ere, bertan usain atseginik izan ez balitz, edo alderantzizkoa gertatuz gero, hura errespetuaren kontrakoa zatekeen, usain gozoen aitzinean arima zabaldu egiten delako, eta haietara erakarria sentitzen; usain txarren aurrean, ordea, arima itxi eta haietatik ihes egiten du. Gantzutzeko olioia dela eta, horrek bustitzen zuen guztiari lurrin ederra ematen zion, eta gantzuturiko gauzetarako errespetua sorrarazi, eta hura santifikatzen eta mota bereko beste gauzen artean bera bereizten zuen, hura gizakia, soinekoa zein ontzia izan. Horrek guztiorrek tenplua errespetaraztera eramane behar zuen, eta horrek, bere aldetik, Jainkoarenganako beldurra iradoki behar; izan ere, hara sartzean, norbera hunkiturik gelditzen zen, eta bihotz gogorrek biguntzen eta gozatzen ziren. Horretarako, eta apal zitezen, Jainkoak bere *dekretu urrunetan* aurreikusteko jakinduria osoa erabili zuen, tenplura maiz joanez gero, Jainkoaren aginduetara, gidari ditugunetara, heltzeko, azkenean Jainkoaren beldur izatera ere iristeko, Pentateukoren testuan argiro erran den bezala: «Gariaren, ardo berriaren eta olioaren hamarrenak, abere handi nahiz txikien lehen kumeekin batera, Yhwh-k zuen Jainkoak bizileku eta gurtzelekutzat aukeratuko duen tokira eramango dituzue, eta han otordu sakratua egingo Jaunaren aurrean. Horrela zeuen bizitza osoan Yhwh-ri begirune izaten ikasiko duzue» (Dt 14,23). Orain ulertuko duzu, gauza horiek agintzean Berak zuen helburua zein zen. Gantzuketaren olioia eta lurrinak imitatzeke debekuaren arrazoia ezin argiagoa zen: alde batetik, usain hori toki sakratu horretan besterik ez sentitzeko, eta horrela, eragina are handiagoa gerta zedin; eta, beste aldetik, sinets ez zedin olio horrekin edo antzeko beste olio batekin igurtzirik zeuden guztiak gizaki nabarmenduak zirenik, horrek eragozpen larriak eta kereilak sorraraz zitzakeen eta.

Kutxa, bizkar gainea, eta ez gurdietan, garraiatzeko agindu zen, eta hori argi dago hari errespetua erakusteko izan zela; haren forman ez zen deus aldatu behar, ez eta barrak beren eratzunetarik atera behar ere. Era berean ez zen *efod*-aren¹¹⁵ eta bularrekoaren itxura aldatu behar, ez eta bata besteagandik urrundu ere. Apaizen jantzi guztiek atal banaz ehoak izan behar zuten, egokidurarik eta ebakirik

gabe, ehunaren forma ezertan antzaldatua izan ez zedin. Galarazia zuen santutegiko zerbitzari bakoitzak besteen zereginenez arduratzea, egitekoak pertsona askori uzten zaizkienean, nori bere betekizun berezia agindu gabe, guztiek horiek arduragabeki hartu eta erlaxatu egiten direlako. Bistakoa da, gainera, [santutegiko] toki ezberdinetarako jarriko mailaketak, tenpluaren mendirako xedapen bereziek, חֵל הֵל edo atarirakoak, emakumeen egontokirakoak, sarrerakoak eta, horrela, *Sancta sanctorum*-era heldu arte, horiek guztiok tenpluari omenaldi handiagoa ematea zuten helburu, eta hara sartzen ziren guztiengan errespetu handiagoa sorraztea.

Eta honekin sail honetan sartzen diren agindu berezi guztien motiboak azaldurik gelditzen dira.

מ BERROGEITA SEIGARREN KAPITULUA

[Hamaikagarren saila: Erre-opari batzuk; Pazko-bildotsa; bekatutik garbitzea; hiru jai nagusietako erromesaldia]

Hamaikagarren sailak bildurik dauzkan aginduak עבֹדָה ‘Ābôdāh (‘Kultuaz’) liburuaren gainerakoan eta קרבנות *Qorbānôt* (‘Erre-opariak’) liburuan aipatu ditugunak dira. Berorien baliagarritasun orokorraz jada mintzatu gara, eta orain horien arrazoiak xeheki azaltzen saiatuko gara, guk ulertu uste ditugun neurrian. Hona bada zer diogun.

Pentateukoaren testuan, Onqelosen azalpenaren arabera, antzinako egiptoarrek Ahariaren konstelazioa adoratzeko zutela irakurtzen da; hori dela eta, haien artean galarazirik zegoen ardiak sakrifikatzea, eta, hortaz, artzainak gaitzesten zituzten, errana den bezala: «Geure Jainkoari egiten dizkiogun sakrifizioak ez dira onargarri egiptoarrentzat» (Irt 8,22); «Higuingarri zaizkie egiptoarrei artzainak oro» (Has 46,34). Era berean, deabruak adoratzeko zituzten sabearren sekta batzuek horiek aker-itxura hartzen zutela sinesten zuten, eta horregatik deabruak akerrak deitzen zieten. Iritzi hori guztiz zabaldurik zegoen Moises gure maisuaren garaian: «Horrela israeldarrek ez diete aurrerantzean sakrifiziorik egingo akerrei (Lb 17,7); horregatik sekta horiek ez zuten akerririk jaten. Idiak sakrifikatzeari buruz, idolatra gehienek gaitzesgarri zeritzoten, eta guztiek estimu handitan zeukaten

espezie hori¹¹⁶. Horrexegatik aurkituko duzu, geure egunak arte, hinduek ez dutela inoiz oparitan abelgorriak hiltzen, ez eta beste espezie batzuk sakrifikatzen dituzten herrietan ere. Beraz, iritzi zentzugabe horien zantzuak ezabatzeko, bereziki hiru lauoineko espezie hauek sakrifika genitzala agindu zitzaigun: «Abere bat aukeratuko du, abelgorria nahiz abere xehea» (Lb 1,2), egintza horren bitartez Jainkoarengana hurbiltzeko, haiek gaiztakeriarik handiena kontsideratzen zuten arren, eta horretan, bekatuen barkamena bilatu. Horrela, ideia ustelduak, hots, giza arimaren gaixotasunak, sendatu nahi ziren, aurkako beste muturraren bidez. Helburu berberarekin, hain zuzen ere, agindu zitzaigun Pazko-bildotsa immolatzea, eta Egipton haren odolaz ateen kanpoaldea ihintzatzea, iritzi horietatik libratzeko eta, aurkakoak aldarrikatuz, [egiptoarrei] onetsaraz geniezairen berek heriotza zekarkeela uste zuten egintza hark, alderantziz, heriotzatik salbatzen zuela: «Eta Yhwh igaroko da, baina zuen ateen gain-alboetan odola ikustean, aurrera egingo du. Horrela ez dio suntsitzailari zuen etxeetan sartzen utziko, zuek hiltzera» (Irt 12,23), gurkera hori publikoki erabiltzean, idolatrek onarturiko absurdokeriak gaitzetsi izana saritzeko. Horixe da, beraz, hiru espezie horiek sakrifizioetarako bereziki hautatuak izateko arrazoi nagusia. Bestaldetik, horiek etxeko abere oso ugariak dira; idolatrek, aldiz, lehoiak, hartzak eta beste basapiztia batzuk sakrifikatzen zituzten, *Tomtom* liburuan irakur daitekeen bezala.

Jende gehienek lauoineko bat eskaintzeko erarik ez duenez, agindurik dago, halaber, Siriako hegaztirik ugarienak sakrifiziotzat eskaintzea, horiek hoberenak eta harrapatzeko errazena dira eta: usapalak eta usakumeak¹¹⁷. Hegaztirik batere eskaintzeko erarik ez zuenak gozokiak eskain zitzakeen, garai hartan egiten ohi ziren moduetako batez prestatuak, hots, surtan, plantxan edo zartaginean, eta gozokiak eramateko zailtasunik zuenak irin garbia eskain zezakeen¹¹⁸. Agindu horiek guztiok hori egiteko [eskaintzak egiteko] borondatea zutenei zegozkien. Ondoan, baina, espresuki erraten da, era horretako gurtzerik praktikatzen ez bagenuen, erran nahi dut, sakrifiziorik, ez genuela horrexegatik inolako bekaturik egiten: «Botorik egiten ez baduzu, ez zara errudun izango» (Dt 23,22).

Idolatrek beti ogi altxagarri duna eskaintzen zutenez gero, maiz gauza gozoak ere eramaten zituzten, beren eskaintzetan ezia ere

nahasiz, aipatu dizkizudan liburuetan sarritan irakur daitekeen bezala, eta haien eskaintzetako batean ere gatzik sartu gabe. Jainkoak, alde batetik, oparietan inolako legamiarik edo ezirik eskaintzea debekatu zuen (Lb 2,11), eta, beste aldetik, beti gatza eskaintzeko agindu: «Labore opari guztiei gatza botako diezue» (*ibid.* 13. bert.).

Oparigai guztiek akatsik gabeak izan eta egoerarik hoberenean egon behar zuten, sakrifizioa gutxietsia eta Jainkoari eskaini behar zitzaiona mespretxa ez zedin, errana den bezala: «Eskaini, bada, horiek zeure gobernariari, ea atsegin dituen edota aurpegi alaia jartzen dizun» (Mal 1,8). Arrazoi berberagatik galarazirik dago oraindik zazpi egun bete gabeko animalia bat eskaintzea, horren espeziea oraindik ongi zehazturik ez dagoelako eta higuin garri irizten zaiolako; hori, izan ere, kume-galtze baten antzekoa da. Arrazoi berberagatik debekaturik dago emagaldutako bati eginiko erregalia eskaintzea eta txakur baten prezioa, gauza bi horiek moduzkotatasunik gabeak direlako. Era berean, arrazoi berbera dela eta, usapal jada handi haziak eta uso gazteak eskaintzen ziren, batzuk eta besteak hoberenak direlako, uso handiek zaporerik ez daukate eta. Azkenean, arrazoi berberagatik eskaintzeko olioaz oraturik eta irin loreaz osaturik egon behar zuten, horixe baita bikainena eta gozoena. Eransten zen intsentsua bere keak toki horietan hedarazten zuen usain onagatik hautatzen zen, hor haragi erre usaina izaten zen eta.

Halaber, sakrifizioari zor zitzaion errespetuagatik, eta berari herraz eta nahigabez so egin ez zekion, agindurik zegoen holokaustoaren hondakinak handik kendu eta hesteak eta gorputz-abarrak ikuz zitezela, horiek oso-osorik erretzen ziren arren. Ikusiko duzunez, horrek beti kezkarazten zituen, hartatik babesteko gogoaz: «Zuek, ordea, honela diozue: Yhwh-ren mahaia nazkagarria da, eta bertako janariak mespretxagarriak» (Mal 1,12). Era berean, arrazoi berberagatik, gizon erdaindu gabea edo satsu batek ezin du sakrifiziotik jan; erre-oparia ezin jan daiteke satsutu denean, ez eta jarriko epearen ondoan, ez eta pentsamenduaz profanatua denean, eta jan, halako leku berezian egin behar da¹¹⁹. Holokaustoa, oso-osorik Jainkoari dagokiona, ezin daiteke inola ere jan; erru baten ordainetan eskaintzen dena, hau da, bekatuagatik sakrifizioa eta delituagatikoa, atarian jan behar dira, eta immolazioaren egunean eta hurrengo gauean besterik ez. Bakezko sakrifizioak, maila apalagokoak eta santutasun

txikiagokoak, Jerusalemeko hiri osoan besterik ezin daitezke jan, eta sakrifizioaren biharamunean ere bai, ez beranduago, behin epe hori iraganez gero, hondatu eta usteldu egiten direlako.

Era berean, opariak eta Jainkoaren izenean sagaraturiko oro errespetarazteko, Legeak errudun aldarrikatzen du gauza santuetatik atseginik hartu duen edonor; ordaintzeko sakrifizio bat eskaini eta, eranskinez, dirutan, bosten bat pagatu beharko du, bekatu hori oharkabean egina balu ere. Modu beretik, abere sakratuekin lan egitea edo haien ilea moztea debekaturik zegoen; eta hori guztiori sakrifizioei zor zaien errespetuagatik. [Animaliak] elkarren artean trukatzeko Legea aldeztu aurretiko neurri moduan emana da; izan ere, abere on baten lekuan beste txarrago bat ipintzeko baimena eman izan balitz, era berean ordezkaturiko zatekeen on batez akasduna ere, hura hobea zelako argudioarekin. Ondorioz, Legeak honako hau errana du: «Botoz eskainia Jaunari opaltzeko gai den aberea bada, sagaraturik gelditzen da. Ezin izango da, beraz, beste batez trukatu, hobea nahiz txarragoa izan; hala ere, trukatzeko bada, bai eskainiriko aberea, bai ordezkoa, biak geldituko dira sagaraturik» (Lb 27, 10 eta 33). Eta erabaki baldin bada jadanik sagaraturiko zerbaite berrerosi nahi duenak haren balioa bosten batean gehitu beharko duela, horren arrazoia bistakoa da. Izan ere, esaera zaharrak dioenez, «gizakiaren seniderik hurbilena berbera da» (*Sanhedrin* 10a), eta betiere, izaeraz, bere diruarekin zikoitza izatera makurtua izanik, ez du sagaraturikoaren prezioaz galdetuko, ez eta balioeste hertsipean jarriko ere, haren prezio zehatza jakitearren. Horrexegatik, gehigarri bat eskatuz, haren aurkako bermeak hartu dira, objektu sagaratua, balio duen prezioan, besteri saldu ahal izateko, eta hori guztiori Jainkoari sagaratu zaiona eta Haren mesedea erdiesteko balio behar diguna mespretxutik babesteko.

Apaizaren eskaintza erre behar zelako arrazoia, honako hau da, horietako bakoitzak bere eskaintza bere eskutik aurkeztu beharra zeukan; ondorioz, berak aurkezturiko eskaintza berberak jan balu, hori zatekeen deus ere eskaini ez balu bezala. Izan ere, banako partikular baten eskaintza orotatik, aldare gainean ez zen eskaintzen intsentsua eta eskukada bete irin besterik. Hortaz, sakrifizio horren urritasunari aski iritziz, eskaintzaileak hortik jan ahal balu, ez zatekeen hor gurtze-itxurarik ere izanen; hori dela eta, sakrifizioa erre beharra zegoen.

Pazko-bildotsari bereziki dagozkion xedapenak, hau da, ez dela jan behar ez bada *surtan errea*, *etxe berean eta haien hezurretako bat bera ere hautsi gabe* (Irt 12,8-46), arau guztiok dute arrazoï ageri bana. Izan ere, legamia gabeko ogia presak motibatua den bezala, [haragi] erreak berak ere presa zuen motiboa, ez baitzen astirik plater ezberdinak egiteko eta gisatuak prestatzeko. Hezurak hausten gelditzeko beldurra ere bazen eta haiei atxikiriko zatiak jateko; horregatik, hori guztiori laburbiltzeko, errana zen: «presaka jango duzue» (*ibid.* 11. bert.). Hortaz, presarekin, ez dago hezurak hausten aritzeko astirik, ez etxe batetik bestera abisuarekin inor bidaltzeko, eta mezularia noiz itzuliko den itxaroteko ere ez, egintza horiek guztiok axolagabekeria eta atzerapena erakusten dituztelako, helburu nagusia, presa eta lastertasunarengatik, salbu jartzea baitzen, inor atzeratzeke, multzoka iheska irteteko aukera galdu gabe, horrela inork, ustekabeen harrapaturik, kalterik egin ez ziezaion. Ohitura horiei, harrezkero, gertaeraren oroigarri, atxiki zitzaion, errana den bezala: «Horregatik, erabaki hau urtero beteko duzu ezarririko egunean» (*ibid.* 13,10). Eta «Pazko-bildotsa bertan parte hartzeko hautatuek besterik ezin jan zezaketela» (*Zebahim* 5,8) erran da, eta hori izan da hura erosteko beharra buruan sartzeko, eta inork konta ez zezan ahaide, adiskide edo bere burua eskain ziezaiokeen lehenbizikoarekin, berak alde z aurretik horretaz arduratu gabe. Erdaindu gabeei jaten emateko debekuaz, doktoreek jada hori azaldua dute (*Ex. Rabba'*, 19), erranez hebrearrek, Egipton emandako egonaldi luzean, erdaintzearen agindua alde batera utzixea zutela, horrela egiptoarren antzekoak izateko. Pazko-bildotsa agindu zenetik, horretarako baldintza hau jarritz, hots, inork ezingo zuela hura immolatu, erdaintzea nork bere buruarengan, bere haurrengan eta bere etxeko jendeen gainean praktikatu baino lehen, eta soilik orduan «hurbil zitekeela bera ere parte hartzera» (*ibid.* 12,48), haiek guztiak erdaintzera joan ziren. Erdainduen kopuru handiak, diotenez, erdaintze-odola Pazko-bildotsaren odolarekin nahastea ekarri zuen, eta hori da profetak aipatzen duena, hau dioenean: «Odoletan ikusi zintudan mugitzen» (Ez 16,6), hau da, Pazko-bildotsaren odolean eta erdaintzearenean.

Jakin behar da sabearrek odolari oso gauza satsu zeritzotela, eta, halere, jan egiten zutela, hori demonioen elikadura zelakoan, eta norbaitek hura jaten bazuen, horren bidez adiskidetasunezko

harremanak ukaiten zituela berarengana heltzen ziren izpiritu gaizto horiekin eta etorkizuneko gauzak jakinarazten omen zizkiotela, jende arruntak demonioei buruz pentsatzen duenez. Baziren, ordea, jende batzuk odola jatea gogor egiten zitzaienak, horrek giza naturari biguna ematen dio eta. Holakoek, beraz, behin animalari lepoa moztu ondoren, horren odola ontzi edo hobi batean biltzen zuten, eta animalia horren haragia jaten, haren odolaren aldamenean; horrela obratuz, iruditzen zitzaien deabruak odol hori jaten zutela, haien elikadura izanez, berek haragia jaten zuten bitartean, eta, horren bidez, demonioekiko adiskidetasuna lor zitekeela, guztiek elkartasunean mahai berean jaten zutelako. Haien iritziz, demonioak amets batean agertu behar zitzaizkien, gauza ezkutuak jakinarazi eta zerbitzuak eskaintzeko. Hori garai haietako ohiko usteak ziren, zalantzarik gabe onartuak eta edonondik zabalduak, eta horien egiazkotasuna, jende arruntaren begietarako, duda orotatik at zegoen. Lege osamaitua, bera ezagutzen zuten jarraitzaileen artean, gaixotasun sustraitu horiek eteten saiatu zen, odola jatea galaraziz; debeku horretan jo eta ke ekin zuen, idolatriaren debekuan bezainbeste; Jainkoak hau errana du: «Odola jaten duenari aurpegi (= 'haserre') emango diot» (Lb 17,10), Berak, bere ondorengoetakoren bat Molok-i eskainiko dionaz hau erran duen bezala: «Neure aurpegia horren aurka jarriko dut» (*ibid.* 20,6). Ez dago hirugarren agindurik horren aurka horrela mintzo denik, idolatriari emanak direnei edota odola jaten dutenei buruz erabiltzen denaren antzekorik; izan ere, berori janez, [pertsona] nolabaiteko idolatriara eramana izaten da, hori demonioen gurtzea da eta. Halere, [Legeak] odola garbia dela aldarrikatzen du, hura ukitu dutenentzat berarekin xahutzeko bidea eginez: «Hartu aldare gaineko odoletik eta gantzuketa-oliotik, eta zipriztindu Aaron eta beronen jantziak... Honela bai Aaron eta semeak, bai horien jantziak, sagaraturik geldituko dira» (Irt 29,21). Aldare gainetik zipriztintzeko agindu zuen, zeremonia osoa odola hedatzeaz, eta ez biltzeaz, antolatuz: «Eta aldarearen gainean isurtzeko agindu dizuet, barkamenerako» (Lb 17,11); eta hantxe hedatzen zen, errana den bezala: «Aldare ertzeko adarrak odolaz igurtziko ditu» (*ibid.* 4,18), eta beste leku batean: «Zeure sakrifizioetako odola Yhwh zeure Jainkoaren aldare gainean isuriko duzu» (Dt 12,27). Azkenik, lepoa mozten zitzaion animalia ororen odola hedatzeko agintzen zen, berori sakrifizio bat ez bazen ere, errana den bezala: «Lurraren gainetik isuriko duzu, ura bezala» (*ibid.* 12,16-24; 15,23). Ondoren,

odolaren inguruan biltzea eta hortik jatea galarazten da, errana denez: «Ez duzue haragia odolarekin jango» (Lb 19,26). Halere, haiek bekatu egiten eta heziak izan zireneko ohitura ongi jakinari segitzen ziotenez, hots, odolaren inguruan janez demonioekin adiskidetzen, Jainkoak basamortuan «*nahiaren haragia*» jaten absolutuki galarazi zien, baina nahi ukan zuen [kontsumitzeko zen animalia] guztia *bakezko sakrifizio*tzat eskainia izan zedin, horren arrazoitzat hau erranez: odola aldarearen gainean isuria izan zela eta ez zegoela inguruan biltzerik; hitz hauekin: «Israelgo seme-alabek ekar dezaten... eta aurrerantzean ez diete sakrifizio

rik egingo aker-irudietan gurtzen dituzten sasijainkoei» (*ibid.* 17,5-7). Baina hor gelditzen zen oraino basapiztiari eta hegaztiei buruzko [jokabidea xedatzea], basapiztiak ezin baitzuen sekula oparitzat balio, ez eta hegaztiak *bakezko sakrifizio*etan eskainia izateko ere. Beraz, Jainkoak, horren kariaz, xedatu zuen basapiztia bati edo edonolako hegaztiri behin lepoa moztu eta gero, horien haragia jatea zilegi denean, odola hautsez estaltzeko, odolaren inguruan jatera bil ez zitezen. Horrelaxe erdietsi zen egiazki [deabru] harturikoen eta berorien demonioen arteko adiskidetasuna erabat haustea. Jakin beharra dago sineskera hori, gutxi gorabehera, Moises gure maisuaren garaikidea izan zela, oso hedaturik zegoela eta horrek gizakiak alderrai zerabiltzala. Hori hitzez hitz aurki dezakezu **הַאֲזִינִי** *Ha'āzîni* kantikan: «Deabru, ez-jainkoei, eskaini zizkieten sakrifizioak, ezagutzen ez zituzten sasijainkoei...» (Dt 32,17). Doktoreek azaldua dituzte, halaber, «ez-jainkoei» hitzak: izaki errealak adoratzearekin nahikoa ez zutela, irudimenezkoak ere adoratzeko dituzte. Hona hemen **ספרי** *Sifre*-n zer adierazten den: «Ez dute aski Eguzkia, Ilargia, planetak eta konstelazioak adoratzeko, eta horien distira (**בָּבֹוֹהַ** *bābū'āh*) ere adoratzeko dute». Hitz horrek (*bābū'āh-k*) 'itzala' edo 'isla, distira' adierazten du. Eta orain berriro nator gure gaira. Jakin behar da «*nahiaren haragia*» basamortuan besterik ez zegoela debekaturik, hori orduan oso hedaturik zeuden iritzietako bat baitzen, hots, deabruak basamortuetan bizi zirela eta han mintzatu eta agertu egiten zirela, baina hirietan eta jendez beteriko tokietan ez zirela ageri, eta horrela, hirietako bizilagunetik erokeria horietako bat praktikatzen zutenak hiritik irten eta leku huts eta bakartuetara abiatzen ziren. Hori dela eta, [hebrearrek] *nahiaren haragia* jatea zilegi zuten, behin [Kanaango] herrian sartu eta gero. Gainera, gaixotasun hori harrezkero indarra galtzen hasi zen, eta iritzi horren aldekoak ere gutxituz joan ziren.

Bestaldetik, oso zaila izaten zen, eta ia-ia ezinezkoa, (etxe-) abere baten haragirik jan gura zuten guztiak Jerusalem joatea. Arrazoi horiengatik guztiongatik, «nahiaren haragia» ez zen basamortuan besterik debekatua izan.

Oraindik jakin behar da, zenbat eta bekatua larriago izan, horrek eskatzen duen sakrifizioak ere are balio gutxiago duela bere espezieari dagokionez. Horregatik, oharkabean eginiko idolatriako bekatuak ahuntza eskatzen zuen bereziki, eta banako batek egindako gainerako bekatuek ardia edo ahuntza eskaintzera behartzen zuten, espezie guztietan emeak arrak baino gutxiago balio duelako, eta ez da bekatu handiagorik idolatria baino, ez eta ahuntza baino beheragoko espezierik ere. Erregeak daukan maila gailenagatik, oharkabeko bekatu bategatik berorrek eskaintzen duen sakrifizioa akerra da; apaiz nagusiarri eta erkidegoari dagokienez, horien oharkabeko bekatua egintza pertsonal hutsa ez baina legezko erabakia izanez, horien sakrifizioa bereiztu egin da, zezenen eskaintza aginduz, eta, idolatriako bekatuagatik, aldiz, akerrak. אֲשָׁם 'Āšām-a ('delituagatiko sakrifizioa') eskaintzen zeneko bekatua apalagoa denez gero, חַטָּאת ḥāṭā'āh ('bekatuagatiko sakrifizioa') eskaintzen zaiena baino, 'āšām sakrifizioa ahari edo bildotsa izaten zen; hortaz, espezie eta sexu bikainagoak hautatu dira, eta hori ardien artetik ar bat izan da. Ez al dakusazu holokaustorako ere, berau oso-osorik Jainkoarena izanik, sexu bikainagoa aukeratu dela, eta hori ezin izan daitekeela ar bat besterik? Oinarri berberagatik, bekatariaren eskaintza eta bekatu-susmopeko emazte desleialarena apaingarri eta usain onik gabeak ziren, eta ez zen eskaintza horiekin batera ez olio ez intsentsurik ezarri behar. Edergailu hori kendu da, bera eskaintzen duen pertsonak portaera oso ederra eduki ez duelako, eta, damualdi bat ukan balu bezala, nolabait hau erraten zitzaion: «Zure gaizki eginengatik, zure eskaintza maila ere beheragokoa izanen da». Emazte desleialari dagokionez, horren egintza ohartu gabeko bekatua baino ahalkegarriagoa izanik, beraren eskaintza ere gai beheragokoaz egina da, olo-irinaz osatua izanik. Banan-banan aipaturiko xehetasun hauek esangura oso azpimarragarria dute.

Doktoreek diotenez, [apaizen] ezarkuntzaren zortzigarren egunean «Hartu zekor bat barkamen-oparirako» (Lb 9,2), eskaintzen zen, hura urrezko zekorarengatik barkamena eskatzeko, eta, era berean, barkamen-eguneko sakrifizioa bera ere «Barkamen-

oparirako zekorra» (*ibid.* 16,3), urrezko zekorratik barkamena eskatzeko egiten zen. Adierazi duten ideiaren arabera, iruditzen zait bekatuagatik sakrifizio guztiak, bai gizabanakoaren eta bai erkidegoaren kasuan, akerrak izaten ziren –erran nahi dut jaietan, neomenietan¹²⁰ eta barkamen-egunean eskaintzen ziren akerrak, bai eta idolatriako bekatuagatik eskaintzen ziren akerrak ere– eta horren arrazoia haxe da, erran dudanez, haien orduko bekatu nagusia akerrei (demonioei) sakrifizioak eskaintzea zelako, Eskrituraren testuak bereziki dioenez: «Horrela israeldarrek ez diete aurrerantzean sakrifiziorik egingo aker-irudietan gurtzen dituzten sasijainkoei» (Lb 17,7). Eta doktoreek pentsatzen dutenez, erkidegoaren bekatuen barkamenerako zeremonia betiere akerren sakrifizioaz egiteko arrazoia Israelgo erkidego osoak behiala egin zuen bekatuarekin lotzen dela. Hortaz, Josef zintzoaren saltzea aipatzen dute, horren historian haxe erran zen eta: «Orduan aker bat hil zuten...» (Has 37,31). Ez da arrazoi hori gutxietsi behar, egintza horien guztion xedea bekataria orok beti bere bekatua gogoratu eta aitortzeko duen beharraz bere burua konbentzitzea baita, errana den bezala: «Begi aurrean dut etengabe neure bekatua» (Sal 51,5), eta bai berak eta bai bere ondorengoek bekatu horren barkamena erdiesteko bidea bilatu behar dutela, bekatua bera bezalako erlijio-egintza baten bitartez. Hona, bada, zer erran nahi duan: Bekatua diruzko arazo batean egina badu, garbitzeko egintza bera ere diruzko sakrifizio batez kitatu beharko du; bekatua gorputz-atseginengatik egina bada, bere gorputza nekatu eta min ematen dion egintza erlijioso bat jarri behar dio buruari, barau eginez eta gaua beilan emanez; moralaren aurkako bekatua eginez gero, hori aurkako egintza moralaz garbitu behar du, דְּעוֹת *Dē'ôṭ* («Ohiturak») tratatua eta beste leku batzuetan erakutsi dugunez. Azkenik, falta espekulatiborik egin badu, hau da, ikerketan edo meditazioan jarduteko duen ezgaitasun edo ezjakintasunagatik, ideia faltsu bat onartu baldin badu, horren aurka egin behar du, hura bere izpiritutik egotziz eta beroni mundutar gauzetan pentsatzen eragotziz, adimenezko arazoez eta sinetsi behar diren gauzen azterketa serioaz arduratzeko. Zentzu horretan, gutxi gorabehera, errana da: «Nire bihotzaz sekretuki jabetu al ziren eta neure eskuaz musurik bidali al nien?» (Job 31,27), alegoriazko esaldia berori, ilun dagoenetik gorde eta horren aurrean gelditu behar dugula adierazten duena, Tratatu honen lehenengo liburuan erakutsi

dugun bezala. Horrela, dakusazunez, Aaronek urrezko zekorra eraikitzean oker jokatu zuenean, bai berari eta bai bera ordezkatu beharko zuten beraren leinuko guztiei ere zezen bana eta zekor bana eskaini beharra agindu zitzaien. Era berean, bekatuak aker batekin zerikusirik zuenean, egintza erlijiosoa aker baten bidez betearazten zen. Ideia horiez arima ongi jabeturik baldin badago, gizakia horrela bekatuarekiko izu-laborrian egonen da eta hartatik urruntzera joko, horretan eroriz gero, barka eske luze eta penagarririk jasan beharrik ez izateko; inoiz, gainera, barkatzeko ordaintzea ezingo da konplitu, eta horregatik gizakiak bekatua aurretik saihestuko du, hartatik ihes eginez, eta horrek, zalantzarik ez, oso mesedegarria da. Gai honetaz ongi jabetu beharra daukazu.

Uste dut hemen zure arreta gauza oso azpimarragarri batez erakarri behar dudala, tratatu honen helbururako arrotz irudi dezakeen arren. Neomenietan eskainiriko akerra «Yhwh-rentzako barkamen-oparia» deitzen den bakarra da (Zkiak 28,15), adierazpen hori ez baita inoiz erabiltzen jaietan eskainirikoekin, ez eta gainerako bekatu-oparietarako ere, eta horren arrazoia, ene ustez, oso argia da: Erkidegoak sasoi batzuetan eskaintzen zituen sakrifizioak, hau da, [jaietako] eskaintza gehigarriak, guztiak holokaustoak ziren, eta orduan egunero aker bana opatzen zen bekatuagatiko sakrifiziotzat. Aker hori jan egiten zen; baina holokaustoak, ordea, erabat kiskali arte erretzen ziren. Horrexegatik «Yhwh-rentzako suzko sakrifizioa» deritze, baina ez da inoiz erraten «Yhwh-rentzako bekatuagatiko sakrifizioa», ez «Yhwh-rentzako bakezko sakrifizioa» ere, sakrifizio horiek jan egiten zirelako. Bekatuagatiko erre-opariei ere, ezin zekiekeen «Yhwh-rentzako suzko sakrifizioa» erran, eta horren arrazoia kapitulu honetantxe azalduko dizut. Beraz, are arrazoi handiagoaz, ez zegoen [jaietako] akerrei «Yhwh-rentzako bekatuagatiko sakrifizioa» deitzerik, haietatik jaten baitzen, eta ez ziren osorik erretzen. Baina neomenietako akerra Ilargiari eskainiriko sakrifiziotzat kontsideratuko ote zen beldur zirenez gero, egiptoarren antzera, berauek hilabete bakoitzaren hasieran Ilargiari sakrifizioak eskaintzen zizkietelako, aker horretaz mintzatzean bereziki erraten da «Jainkoari» sagaratzen zitzaiola, eta ez Ilargiari. Ezin zitekeen beldur hori izan, ordea, jaietan eta beste egun ospetsuetan eskaintzen ziren akerrengatik, egun horiek

ez baitziren hilabetearen hasierakoak ez eta Naturaren ezein fenomenok seinalatuak ere, Legearen dekretuek ezarriak baizik. Ilargi-hilabeteen hasierak, ordea, ez ziren Legeak ezarriak; baina jendeek egun horietan Ilargiari opariak eskaintzen zizkioten, Eguzkiari ere, altxatzen zenean eta [ekliptikaren] zenbait gradutan sartzen zenean, eskaintzen zizkioten bezala, [sabearren] liburuen bidetik jakiten denez. Hori dela eta, [neomenietako] aker horretaz mintzatzean, esamolde berezia erabiltzen da, «Yhwh-rentzat» erantsiz, [israeldarren] bihotz larriki gaixotueta sustraituriko okerrak suntsitzeko. Gogoeta egizu ideia garrantzitsu horretaz.

Jakin behar da, halaber, bekatuagatiko sakrifizio oro, horrekin bekatu larriak barkarazten direla sinestarazten duena, edota baita bekatu bakarra ere, hala nola «ezjakintasunagatiko bekatua» eta beste antzeko batzuk, hori oso-osorik erretzen dela, esparrutik kanpoan, eta ez aldarearen gainean; aldarearen gainean holokaustoa eta horren antzekoa besterik erretzen ez delako, eta horrexegatik deitu izan zaio «Holokaustoaren aldea» (Irt 30,28 eta *passim*). Izan ere, holokausto erre *Jainkoaren gogoko usaina* zen, eta *אֶזְכָּרָה* 'azkarah¹²¹ orori ere «Jainkoaren gogoko usaina» zerien. Horrela izan behar zuen, zalantzarik ez, zeremonia horrek idolatren sineskeriak suntsitu behar baitzuen, azaldu dugun bezala. Baina [jada aipatu ditugun] «bekatuagatiko sakrifizio» horiek erretzeko ohiturak ez du hau besterik erran nahi, halako bekatuaren arrastoa desagertua zela, erre berri zen gorputz horren antzera, eta ez zela egintza horren aztarnarik gelditzen, garrek suntsitua zuten bekatuagatiko sakrifizio horren arrastorik geratzen ez zen bezala. Ondorioz, horri, erretzen ari zenean, ezin zekioken Jainkoaren «gogoko usainik» jario; aitzitik, ke hura Jainkoak gaitzetsi eta higuindu behar zuen; eta horrexegatik erretzen zen erabat «esparrutik kanpoan». Ez al dakusazu emakume adulteriogilearen eskaintzan, haxe erraten dela: «Susmo txarra dela-eta bekatua salatzeke eskaintza baita» (Zkiak 5,15) eta ez ongi harturiko zerbait denik?

Aker mezulariak bekatu handien barkamen osoa lortzeko helburua zuen, eta halatan ez da bekatuagatiko ezein ere sakrifizio publikorik hark bezainbeste barkarazten duenik eta, nolabait, aldean bekatu guztiak daramatzanik; horregatik ez zitzaion lepoa moztu, ez erre, ez sakrifizioan eskaini, baizik eta ahalik eta gehien urrundu eta *נִזְרָה*

gezērāh deritzon eremu batera (Lb 16,22) jaurti, hau da, bizitokietatik baztertura. Mundu guztiak badaki bekatuak ez direla gizabanako baten lepotik beste baten lepora garraia daitezkeen gorputzak. Baina egintza horiek guztiak ez dira arimaren gainean zirrara egiteko sinbolo hutsak besterik, zirrara horrek penitentziara bultza dezan; erran nahi baita, geure aurreko egintza guztien zamatik arinduak gara, horiek geure atzera, oso urrunera, jaurti ditugu eta.

Ardoaren eskaintza dela eta, horrek orain arte alderrai narabil. Nola agindu ote da eskaintza hori egiteko, idolatrek berek ere aurkezten bazuten? Hori nola azaldu ez dut jakin, baina beste batek honako arrazoi hau eman zidan: *apetitu-ahalmenak*, bere iturria giblean daukanak, ez du haragia baino deus hobeagorik; *bizitzeko ahalmenak*, iturria bihotzean daukanak, ardoa baino ezer bikainagorik ez du; era berean, burmuinean iturria daukan ahalmenak, hau da, *ahalmen psikikoak*, atsegin hartzen du musika-tresnekin lagunduriko kantuetan. Horregatik ahalmen bakoitzak Jainkoarengana hurbiltzea bilatzen du, berak maiteen duen gauzaren bitartez, eta horrela [Jainkoari] haragia, ardoa eta soinuak eskaintzen zaizkio, hau da, kantuak.

Erromesaldiak baliagarritasun nabarmena dauka, eta motibazioa honetan datza, elkarrekin biltzeak eta horrek eragiten duen inpresioak, ondorioz, Legearenganako kartsutasun berria sortu eta gizakien arteko anaitasuna ezartzen du. Gauza bera gertatzen da, batez ere, herria bileran elkartzeko aginduarekin¹²², horren arrazoia oso argi adierazten baita: «Guztiek entzun dezaten». Bigarren hamarrenarako ematen zen dirua hor xahutua izateko zen, jada azaldu dugunez. Gauza bera egiten zen laugarren urteko fruituaz eta abereen gaineko hamarrenaz ere. Horretara, beraz, bazen hamarrenaren haragia, laugarren urteko ardoa eta bigarren hamarrenaren dirua, eta halatan janariak hor ugariak izaten ziren, ez baitzen zilegi horretarik ezer saltzea, ez eta horiek aro batetik bestera atzeratzea ere; aitzitik, Jainkoak erran duen bezala: «Urtero» (Dt 14,22). Beraz, horretaz baliatuko da, nahitaez, limosna egiteko, eta, izan ere, jaietan limosna eskuzabaltasunez egitea gomendatzen da, erranez: «Zeuen seme-alaba eta morroi-mirabeekin eta zurekin hiri berean bizi diren lebitar, etorkin, umezurtz eta alargunekin batera ospatuko duzue festa» (*ibid.* 16,14).

Honezkero, sail honi dagozkion aginduak zehazki ikuskatuak ditugu, eta horien xehetasun asko ukitu ere bai.

מ BERROGEITA ZAZPIGARREN KAPITULUA

[*Hamabigarren saila: Legezko lohitasuna;*
agindu horien arrazoia; motak]

Hamabigarren sailak dauzkan aginduak טהרה *Tōhōrāh* ('Araztea', 'garbitzea') liburuan zerrendatuak ditugu. Horien erabilgarritasunaz jada gainetik mintzatu naizen arren, hemen azalpen handiagoak eman behar ditugu, eta, sail honetakoen motiboak komeni den bezala erakutsi ondoren, xehetasun horien arrazoia eskainiko ditut, neuri neroni argi gertatzen zaizkidan neurrian.

Beraz, badiot: Jainkoaren Lege honek, Moises gure maisuari emanak eta berari esleitu zaionak, ez zuen beste xederik gurtzezeremoniak errazagoak egin eta zama arintzea baizik, eta hor nekagarri eta oso astun irudi dakizukeenik baldin bada, garbi da ez dakizkizula garai haietan zer-nolako usadioak eta errituak izaten ziren. Konpara bedi, hortaz, bere haurra erretzen duen gizakiaren gurkera, usakume bat erretzen duenaren gurkerarekin! Pentateukoan errana da: «Beren jainkoen ohorez, beren seme-alabak jainkoentzat erretzeraino iritsiz» (Dt 12,31); horra hor haiek beren jainkoei eskaintzen zieten gurkera, eta horren analogoa, gure kultuan, hots, usakume bat edo, baita eskukada bat irin-lore ere. Ikuspegi horretatik agirika egin zitzaion bere matxinaldian, honela erranez: «Ene Herri, zer egin dizut nik zuri, zertan natzaizu nekagarri? Erantzun mesedez!» (Mik 6,3); zentzu berean, hau erran da gainera: «Israel, basamortu soil bihurtu ote naiz zuretzat? Ala beti ilunpe beltzean dagoen lurraldea? Zergatik dio ene herriak: aske gara, ez gara zure atzetik gehiago joanen?» (Jr 2,31), erran nahi baita: zein da, bada, Lege horretan ikusi duten zama pisua, horretatik hantantzeko?¹²³ Beste toki batean, Jainkoak erantzuki egiten digu, dioela: «Zertan huts egin nien zuen arbasoei, nigandik alden zitezen?» (*ibid.* 5. bert.). Pasarte horiek guztiok helburu bera eta bakarra dute.

Hasierako oharpen horren ondoren, garrantzizkoa bera, eta begien bistatik galdu behar ez duzuna, badiot: Erakutsia dugu jada santutegiaren bidez erdietsi nahi zen guztia, bera bisitatzera zetorrenarengan halako zirrara eragitea zela, hari beldurra eta errespetua iradokitzea, errana den bezala: «eta izan begirune ene santutegiari»

(Lb 19,30). Baina edozein objektu errespetagarrirekin etengabeko tratua erabiltzen denean, hark arimaren gainean sorrarazten duen eragina gero eta txikiagoa izaten da, eta berarengandik jasotzen den zirrara ere apalagoa. Doktoreek ere gai horren gainean arreta ekarri dute, erranez ez dela ona santutegira noiznahi sartzea, eta hitz hauek aipatzen dituzte, lagungarri moduan: «Ez joan gehiegitan auzoaren etxera, zutaz aspertu eta gorrota ez zaitzan» (EsZah 25,17) (*Hāgîgāh* 7a). Asmo horrekin debekatu zien satsuei santutegian sartzea, eta, lohitasun kasuak ugari-ugariak izanik, ez zen erraza izaten pertsona aratz bat aurkitzea. Izan ere, norbera sarraski bat ukitzetik gorde ahal izan arren, ez zen erraz libratuko etxean jausi eta janari-edarietan maiz agertzen diren zortzi narrastietako bat¹²⁴ ukitzetik, horiekin sarritan ustekabeen topo egiten gara eta. Hori ekidin arren, litekeena da hilekoarekin dagoen edo odol-jarioa duen emakume bat ukitzetik ezin saihestea, edo gonorrrea pairatzen duen gizon bat, legenardun bat edo berorren ohantzea ukitzetik; eta horiek guztiok gainditurik ere, beti ezingo litzateke ezkontidearekiko elkarbizitza edo gaueko hazi-isurtzea saihestu. Lohitasun horietatik araztuko balitz ere, ez litzaioke haizu izanen Eguzkia gorde baino lehenago tenplura sartzea. Eta tenplura gauean ezin sar litekeenez, *Middôt* eta *Tāmîd* tratatuetatik ateratzen den ondorioaz, gerta liteke [arazturik] zegoen denbora gehienez bere emaztearekin etxean pasatzea, edo lohitzeko beste kausa horietako bat heltzea, eta, horrela, biharamunean, bezperako egoera berean legoke.

Horrek guztiak, noski, santutegitik hastandurik egotera eta bertara txitean-pitean ez sartzera laguntzen zuen. Badakizu, bestalde, doktoreek zer dioten: «Inork, aratzik egonik ere, ez du, aurretik bainatu gabe, atarira sartu behar, gurtza egiteko» (*Yômā'* 3,3). Egintza horiek, beraz, errespetua lantzeaz gainera, helburuko deboziora eramateko zirrara sorrarazteko balio zuten. Lohitasun kasua maizago heltzen zen neurrian, hartatik araztea eta garbitzea are zailago gertatzen zen eta luzaroago zirauen. Hildakoen gorpuekin, eta batez ere senide eta auzoenekin, etxepe berean egotea maizago gertatzen da beste edozein lohitasunena baino; beraz, hortik araztasuna ezin berreskura zitekeen *behi gorriaren errautsekin* besterik, oso arraroak beroriek, eta hori zazpi egunen buruan. Jarioa (odolarena edo gonorrearena) eta hilekoak sarriago gertatzen dira gauza lohiren bat ukitzea baino; horregatik satsutasun horietatik

aratz gelditzeko zazpi egun behar izaten ziren, eta harremanagatik horiei ukitu ziena egun bakarraz gelditzen zen lohi¹²⁵. Gonorrea zuen gizonaren arazketa, odol-jarioaz zegoen emakumearena eta erdiberriarena erre-opari baten bitartez baizik ez dira sendatzen, eta hori da kasuok hilekoa baino gutxiagotan izaten direlako. Lohitasun horiek guztiok, erran nahi dut, hilerokoarena, gonorrearena, odol-jarioarena, legenarrarena, gorpuarena, sarraskiena, narrastiaarena eta haziarena (= espermarena), gauza oso zikinak dira. Horiei buruzko lege-xedapenek, beraz, askotariko helburuak dituzte. 1) Guregandik zikinkeria guztiak urruntzea, 2) santutegia babestea; 3) norbera ohitura arrunt aski hedatuetatik zaintzea, honen ondoan berehala jakinen baituzu sabearrek beren buruei zer-nolako zeremonia mingarriak jartzen zizkieten lohitasun kasu horietan; 4) zama nekagarri hori arindu eta aratz edo lohi zer den delako kontuak gizakia bere ohiko zereginetan ez oztopatzea, arazo hori ez baitagokio santutegiari eta gauza santuei besterik: «Berak [= amak] ez du ezer santurik ukituko, ezta santutegian sartuko ere» (Lb 12,4). Gainerakoaz den bezainbatean, norbera ez da ezein bekaturen erredun gertatzen, nahi adina denboraz lohi gelditu arren eta lohitzat jotako gauza profanoez nahi adina elikatuz ere. Sabearren artean Ekialdeko herrietan gure egunak arte hedaturiko ohituren arabera, erran nahi baitut, oraindik gelditzen diren mago gutxien artean, hilekoa duen emakumea gela batean bakarrik gelditzen da, bera dabileneko tokiak suaz arazten dira, hitz egiten diona lohi geratzen da, eta handik jotzen duen haizea emakumearen eta gizon aratz baten gainetik iragaten bada, gizona lohi geratuko da. Badakusazu, beraz, usadio horiek noraino urrun dauden guk diogunetik: «Emazteak bere senarrantzat egiten dituen lan guztiak, bera hilekoarekin egonik, berdin-berdin egin ditzake, aurpegia garbitzea izan ezik...» (*Ketubôt* 4,b); ez zaio harekin egoten galarazten haren satsutasun- eta lohitasun-egunetan besterik. Sabearren artean gaur arte zabalduriko beste ohitura bat honako hau da: horiek lohi deritzote gorputzetik aldentzen den guztiari, ile, azkazal zein odola izan; horregatik, haien artean, bizargile oro¹²⁶ lohia zen, odola eta ileak ukitzen zituelako¹²⁷. Bizarra mozten duen orok iturri bati jauzika darion uretan murgildu beharko du. Ohitura ezeroso horietarik anitz dituzte; baina guk, ordea, aratz eta lohi denaz, gauza santuei eta santutegikoei buruz besterik ez diegu jaramonik egiten.

Halere, Eskriturak honela dio: «Gorde garbi zeuen buruak, santu izan zaitezten, ni santua naiz eta» (Lb 11, 44); hori ez doa aratz edo lohi denaz edo ez denaz; *Sifra* liburuak hor «aginduen bitartezko santutzea» dela dio bereziki, eta doktoreek ere, «Santu izan zaitezte» (Lb 19,2) hitzak direla eta, aginduen bidezko santutzea dela diote. Horrexegatik aginduak hausteari *טומאה* *tum'āh* ('zikintasuna, lohikeria') ere erraten zaio, oinarritzko aginduekin erabilia, hots, idolatria, intzestu eta eraillketaz. Horrela, adibidez, idolatriaz mintzatzean, hau erraten da: «Bere haurretako bat Molok-i eman diolako, santutegia lohitzu» (Lb 20,3); intzestuz honela dio: «Ez zaitezte kutsa horrelako jokaerez» (*ibid.* 18,24); eraillketaz, berriz: «Ez kutsatu bizi zareteneko lurraldea» (Zkiak 35,34). Badakusagu, beraz, *tum'āh* hitza homonimoa dela, hiru adiera ezberdinetan erraten dena. Hauez erabiltzen da: 1) aginduak desobeditze edo hausteaz, eginez zein iritziz izan arren; 2) zikintasun eta lohikeriez: «Soinekoei erantsia zeraman bere lohikeria» (NKant 1,9); 3) lohitzat harturiko gauzez, erran nahi baitut, horrelako gauza bat ukitu edo aldean eramaten denean, edo gauza horrekin etxepe berean egoten denean. Hirugarren adiera honetan honela erraten da: «Legearen hitzak ezin kutsa daitezke lohikeriaz» (*Berakôt* 22a). Era berean, *קדושה* *qedûšāh* ('santutasuna') homonimotzat erabiltzen da, hiru adieratan, lehen errandakoen aurkako zentzuan.

Gorpu batek sorturiko lohitasunetik handik zazpi egunera arte garbitzerik ez dagoenez, eta horretarako behi gorriaren errautsak aurkitu behar direnez gero, eta, beste aldetik, apaizek santutegian erre-opariak eskaintzeko etengabeki sartu beharra dutenez, bereziki debekatu zaio apaiz orori gorpu batengandik datorren lohitasunaren ondoan izateko, behar-beharrezko kasuren batengatik ez balitz, hots, harekin ez egotea giza izaerari gaitzesgarri gertatuko litzaiokeen kasuan, erran nahi baitut, aitaren, amaren, haurren eta anaia-arreben gorpua ez ukitzea ez bada. Apaiz nagusia santutegian etengabeki egotea beharrezkoa izanik, honela errana da: «[diadema] beti haren bekokiaren gainean izanen da» (Irt 28,38), eta gorpu batekin lohitzea erabat galarazirik dauka, beren gurasoena balitz ere. Ez al dakusazu debeku hau ez dela emakumeengana heltzen? «Aaronen semeak» erraten da, eta ez «alabak», erre-oparien zerbitzuan emakumeen beharrik ez dagoelako.

Lohitasunez ukiturik dauden pertsonak, oker bategatik, santutegira sartzea edota, beren lohitasun-egoeran, gauza santuetatik

jatea ezin saihestuzkoa denez –eta batzuetan badira hori aurrez pentsaturik egiten duten pertsonak, fedegabeko gehienek lege-hauste handienak berariaz egiten dituzte eta–, santutegiaren eta gauza santuen kutsadura garbi dadila eta erre-opariak eskain daitezela manatu izan da, eta horiek askotarikoak dira: batzuk aurrez pentsaturiko bekatuarengatik, besteak ohartzeke eginikoarengatik. Horiek jaietako akerrak dira, neomenietakoak¹²⁸ eta aker mezulariak, bere lekuan azaldu den bezala, horrela, apropos bekatu egin duenak pentsa ez dezan Betierekoaren santutegia lohitzean ez duela bekatu handirik egin, eta, alderantziz, bere bekatua akerraren sakrifizioaz garbitua izan dela jakin dezan, errana den bezala: «beren kutsadurengatik, horiekin santutegia lohitzeagatik, hil ez daitezen» (Lb 15,31); «eta Aaronek bere gain hartuko ditu israeldarrek gauza santuez egindako bekatu guztiak...» (Irt, 28,38), maiz errepikaturiko ideia berori.

Legenarraren lohitasunaz, horren esangura argiturik utzi dugu jada. Doktoreek ere azaldua dute eta, lehen batean, gaixotasun hori gaizki erratea zigortzeko gaztigua zela jakinarazi ziguten (עֲרִכִּין *'Arakîn* 16b). Lehenengo eta behin, bestelakotzea hormetan ohartarazten da; gizona damutzen baldin bada, helburua lortua da; baina bekatu egiten segitzen badu, bestelakotzea haren ohera eta haren etxeko tresnetara hedatzen da, eta bere bekatuan areago tematuz gero, haren soinekoetara eta ondoren haren gorputzera hedatzen da. Hori [gure] nazioan irauten zuen miraria zen, adulteriogileztat harturiko emakumearen ur mingotsena bezala. Agerian da hori sineste oso baliagarria zela, batez ere legenarra kutsakorra dela eta gizaki guztiek hartaz berezko higuina sentitzen dutela gogoan izanik. Arazketa egiteko zedro-egurra, isipua, artile gorrimina eta bi txori erabili beharra *Midrašōt*-etan azaldu da; baina hori gure xedetik at gelditzen da, eta orain arte ez naiz horretaz guztiaz ondo ohartu. Ez dakit, halaber, zer dela eta erabiltzen den behi gorriaren zeremonian zedro-egurra, isipua eta artile gorrimina, ez eta, Bazko-bildotsaren odolaz ihinztatzea egiteko, zergatik isipu-abar bat erabiltzen den ere. Ez dut deus aurkitzen espezie horiei emaniko hobespena justifikatzeko.

Behi gorriari חֲטָאָה *hăṭṭā'āt* ('bekatuagatik erre-oparia') deitzen zaio, [sakrifizio horrekin] gorpu batez kutsatu denaren arazketa amaitzen delako, horretara santutegira berriro sartu ahal izateko; erran nahi dut, norbait gorpu batez kutsaturik gelditzen den unetik, santutegira

sartzea eta gauza santuak jatea betiko galaraziko litzaizkiokeela, bekatu hori [sinbolikoki] daraman behi hori hor ez balego. Hori [Apaiz Nagusiaren] diademarekin gertatzen dena bezalakoa da, lohikeria garbiarazten duena, eta erretzen diren akerrak bezala. Horrexegatik behi gorriaz eta erre beharreko akerrez arduratzen zenak bere jantziak lohi uzten zituen, akerrak mezulariaren kargua zuenaren antzera, ustez eramane behar zituen bekatu handiengatik, bera ukitzen zuten guztiak lohi uzten zituen eta.

Horrela, bada, sail honetan, gure ustez, motiboak igarri dizkiegun agindu guztiak azalduz utzi ditugu.

מַחַם BERROGEITA ZORTZIGARREN KAPITULUA

[Hamahirugarren saila:

Janariak eta baraua; kasu ezberdinak; botoak; nazireutza]

Hamahirugarren sailak gordetzen dituen aginduak honako tratatu hauetan aipatuak ditugu: מַאֲלֻכּוֹת אֲסוּרוֹת *Ma'ālōt 'āsūrōt* ('Janari galaraziak'), שְׁחִיטָה *Šehîṭāh* ('Animaliei lepoa mozteko eraz') eta נְדָרִים וְנִזְרִים *Nedārîm u-nezîrûṭ* ('Botoak eta Nazireutza'). Tratatu honetan zehar eta 'Abôt-i buruzko iruzkinean aski eta luze erakutsi dugu sail honen baliagarritasuna. Oraingo honetan are azalpen zabalagoak emanen ditugu, hor aipatzen diren agindu berezietan zehar ibiliz.

Errana dut jada Legeak debekatu dizkiegun janari guztiak osasunaren aurkako elikagaiak direla. Galarazi zaigun guztian ez da ezer, txerria eta koipea salbu, kaltegarritzat hartzen ez denik¹²⁹; baina egiazki ez da horrela, txerriak behar baino [elikagai] hezeagoa baita, eta joriegia ere bai. Legeak hori gaitzesteko duen arrazoi nagusia honetan datza: abere hori oso zikina da, eta gauza lohiak jaten ditu. Badakizu Legeak zer-nolako arreta duen zikinkerien ikuskaria baztertzeko, bai baserri aldean bai gerra-zelaian eta, are arrazoi handiagoarekin, hirien barruan ere; baina, txerrien haragiaz elikatuz gero, kaleak eta etxeak ere estoldak baino kiratsagoak lirateke, orain frankoen herrian ageri denez. Badakizu doktoreen errana: «Urdearen muturrak lohikeria ibiltarien antza du» (*Berakôt* 25a).

Era berean, erraietako gantzak elikagarriak dira, digestioari kalte egiten diote eta odol hotz eta lodia sorrazten; horregatik hobe

izaten da halakoak erretzea. Era berean, odola eta (heriotza naturalaz) hildako animalia digeritzeko zailak dira, eta elikadura oso txarra eratzen dute; eta gauza jakina da aberea טרפה *terēfāh* (Irt 22,30) ('urratua') dagoenean animalia hil-hurran aurkitzen dela. [Animalia aratz baten] ezaugarri nabarmenei buruz, hau da, lau oinekoentzat, hausnartzea eta apatxa erdibitua edukitzea, eta, arrainentzat, hegala eta ezkata edukitzea, jakin behar da seinale horiek izatea ez dela horiez elikatzea zilegi egiten duen arrazoa, ez eta seinale horiek ez izatea animalia horiek debekatzekoa ere. Horiek espezie ona txarretik bereizteko seinale hutsak dira. Nerbio ziatikoari buruzko aginduaren arrazoa Eskrituren testuan izkiriaturik dator (Has 32,33). Animalia biziaren atal bat jaten galarazteko arrazoa¹³⁰ honako hau da: horrek gogorkeriara ohitzen duelako. Garai haietan paganoen erregeek horrela jokatzten zuten, eta idolatren praktika da, halaber, lauoineko bati gorputz-atl bat ebaki eta berori jatea.

Haragia esnetan egosia jateko debekuari dagokionez, hori elikadura oso lodia, [odol] gehiegi sorrazten duena, izateaz gainera, ez da bazterrean uztekoa hor idolatria nonbait sarturik egotea. Daitekeena da idolatren halako zeremonia batean edota paganoen jaietako batean horrela jatea; uste horretan sendotzen nau, Legeak haragia esnetan egosia galarazten duen lehenengo aldi bietan, ondoren erromesaldiari buruzko aginduaz hitz egiteak: «Urtean hiru aldiz...» (Irt 23,17). Erran balu bezala: Zuen erromesaldian, Betierekoaren, zeuen Jainkoaren, tenpluan sartzean ez duzue deus ere egosaraziko erran den moduan, idolatrek egiten duten bezala. Hori da, nik uste, galarazpen horren arrazoirik onargarriena; baina ez dut horri buruz inolako pasarterik aurkitu irakurri ditudan sabear liburuetan.

Animaliei lepoa mozteko agindua beharrezkoa da. Gizakiaren elikadura naturala ezin osa daiteke landarekiez eta animalien haragiaz besterik, eta haragirik onenak jatea zilegi zaizkigunak dira, edozein medikuk ondo dakien bezala. Hortaz, elikadura ona izateko, animalia hiltzea beharrezkoa izaten denez, hura erarik errazenean hil dadin nahi izan da, bera oinazepean erabiltzea galaraziz, dela sama gaizki ebakiz, dela lepoaren beheko alde zulatuz, dela gorputz-atl bat moztuz, erakutsi dugun bezala. Debekaturik dago, halaber, egun berean amari eta berorren kumeari lepoa mozte, kumeari amaren begien aurrean hil ez dadin kontuz ibiliz; animaliak, kasu horretan, min handiegia

hartuko luke eta. Izan ere, arlo horretan, ez dago ezberdintasunik gizakiak pairatuko lukeen sufrimenduaren eta beste animalienaren artean, ama batek bere umearengana dituen maitasuna eta samurtasuna arrazoimenaren pean ez direlako, irudimenaren eraginpean baizik, eta hori animalia gehienek gizakiok bezain ongi [garaturik] daukate. Gomendio hori bereziki behi eta ardiei buruz emana da, eta hori da holakoak jatea zilegi zaigun etxe-abereak direlako, eta eskuarki jaten ditugunak, eta espezie horiek dira, era berean, ama eta bere kumea elkarrengandik bereizten dakigunak. Txori-habiatik ama askatzeko aginduak antzeko arrazoa dauka. Izan ere, txitatzeako beroturiko arrautzak eta amaren premia duten txorikumeak ez dira jateko onak; hortaz, ama askatu behar bada, hegaz alde egin dezan, bere kumeak harrapatzen ikusteko mina ez izateaz gainera, maiz horrek dena bertan behera uztera bultzatzen du, hortik har daitekeena, eskuarki, jateko ona ez delako. Legeak arimako min horiez kezkatzen bada, lauoinekoak eta txoriak direnean, zer ez da izanzen giza banakoak direnean? Ez du hemen balio doktoreek diotena niri aurpegiratzea: «Zure errukia hegaztien habien gaineraino hedatzen da... dioenak» (*Berakôt* 5,3); hori, izan, jada mintzatu gareneko iritzi bi horietako bat da, hau da, Legeak [Jainkoaren] borondateaz landa beste motiborik ez duela pentsatzen dutenen ustea; gu, ordea bigarren iritziarekin gatoz bat.

Erakutsia dugu jada Legeak berak azaltzen duela zergatik odola estali behar den, eta arau hori basapiztia hutsei eta hegazti hutsei doakiela. Halako elikagai batzuk erabiltzea debekatzeko eman zaizkigun arauaz gainera, janari batzuk [nahita] uzteko botoei buruzko manu batzuk ere agindu zaizkigu. Norbaitek erraten baldin badu, «ogi hau, haragi hau, debeku izan bekit», galarazirik dauka holakoak jatea. Horrek guzti horrek gizonarengan neurritasuna bultzatu eta jan-eta edan-nahia gutxitzea du helburu. Doktoreek honela erran dute: «Botoak abstinentziaren inguruko hesia dira» (*Abôt* III, 13). Baina emakumeak, sentiberak eta arima ahulekoak izanik, eta grinatzeko errazak direnez, etxean zailtasun larriak iskanbilak eta desordena izanen lirateke, baldin haiek botoak egiteko gai balira; izan ere, halako elikagai mota jatea zilegi litzaioke senarrari, baina galarazia emazteari, eta beste halako bat, aldiz, debekatua luke alabak, eta haizu, ordea, amak. Horregatik kontu hori etxeko jaunaren esku utzi da, berorri dagokiokeen guztian. Beste alde batetik, dakusazunez, bere

burua gobernatzen duen emakumea, etxeko jaun baten manupean ez dagoena, botoei dagokienez, gizona zkoen erregela berberaren menean dago; erran nahi baitut, senarrik ez aitarik gabea, edo pubertarora heldu dena, eta halakoari בוגרת *bôgèret* deritzo (*Nedarîm* 70a,b).

Nazireutza (נזירות *nazirut*) oso argi seinalaturiko motiboa da, berori ardoa edateari uko egitea baita, aldi orotan biktimak sorrarazten ditu eta: «Hark hildakoak ugari eta sendoak ziren. Haiek ere zabuka dabilta, ardoagatik» (Is 28,7). Nazireutzari buruzko legeak, ageri denez, beste batzuen artean, «ez du mahatsez eginiko ezer jango» (Zkiak 6,4) dio, hor gehiegikeria nabarmenaz mintzatuz, gizakiek behar-beharrezkoaz aski ukan dezaten. Izan ere, ardoari uko egiten dionari santu erraten zaio eta Apaiz Nagusiaren santutasun-maila berean jartzen da, eta horrela, azken hori bezala, ez da bere aitaren edo amaren [gorpua] ukitzeaz lohitzeko arriskuan jarriko. Handitasun hori gutzia edariari uko egitetik heldu da.

מט BERROGEITA BEDERATZIGARREN KAPITULUA

[Hamalau garren saila: Sori ez diren sexu-harremanak; kastitatea; erdaintzea. Senideen arteko maitasun-loturak; prostituzioa, ezkontza, ezkontza-haustea, adulterioa, bortxaketa, leviratua, intzestia. Erdaintzeari buruzko gogoetak; ezkontza-debekuak. Hamalau sailei buruzko gogoeta batzuk.]

Hamalau garren saileko aginduak נשים *Nāšîm* ('Emakumeak') liburuan eta בִּיאָה אִסּוּרִי *Issûrê bî'âh* ('elkartze ez-zilegiak') eta בְּהֵמָה כִּלְאִי *Kil'ê behēmāh* ('Bi motatako animalien nahasteaz') tratatuetan aipatuak dira; sail honetakoa da, halaber, erdaintzeko agindua ere. Lehenago erazagutua dugu sail honen xedea; orain xehetasunei nagokie.

Beraz, badiot: gauza jakina da gizakiak bere bizitza osoan adiskideak behar izaten dituela, Aristotelesekin Etikaren bere IX. liburuan jada erakutsi zuenez¹³¹. Osasun eta zoriontasunezko uneetan, haien lagunartekotasunaz goza daiteke; ezbeharraldietan babesa eskaintzen diote; azkenean, zahartzaroan, gorputza ahultzen zaionean, haien ondoko sorospena bilatzen du. Abantaila horiek are maila handiagoan

aurkitzen ditu gizakiak bere seme-alabengan, eta bere senideen artean ere. Anaitasuna, adiskidetasuna eta elkarrekiko buru-ukatzea ez dira bikaintasunez existitzen familia beretik irtendako senideen artean besterik, halako moldez non asaba komun berbera –berau urruna bada ere– duten leinu bateko gizakiak elkarrenganako maitasunaz, buru-ukatzeaz eta begikotasunaz beterik daude, eta hori Legearen joera nagusietako bat da. Horregatik, hartan prostituzioa galarazten da, familiaren hondamena alegia, holako jatorria duen haurra guztien begietarako arrotza baita, ez da familiakotzat ezagutzen, eta ez du bere senideetarik inork halakotzat hartzen, eta egoera hori erabat haserregarria da bai harentzat eta bai beraren aitarentzat ere. Bazen, gainera, beste arrazoi larri bat prostitutekin harremana galarazteko: inor maitasun fisikora grina handiegiaz eta ekintasunez emana izatea eragozte. Izan ere, prostituzioan diharduten pertsonen ugaritasunak grina handiago egiten du, gizona ez baita berdin kitzikatzen pertsona bakar batekin, jada aspaldian ohiturik dagoenarekin, nola egiten baita beste pertsona batzuekin, beti ezberdinak aurpegiz eta maneretan. Azkenean, prostituzioa galaraztean bada baliagarritasun handi bat, zoritxarrak baztertzea, zeren, prostituta batekin era horretako tratua onartuko balitz, ausaz zenbait gizon joan balitezke aldi berean emakume berarengana, eta horrek nahitaez kereilak sorrazaziko lituzke eta, oso maiz, batzuek besteak hil, edo emakumea bera hiltzea, gauza jakina eta askotan gertatzen zena: «Emagalduren etxera zalapartan joan ziren» (Jr 5,8). Beraz, zorigaitz handiok ekidin eta ororen ongia, hots, familiaren ezagutza dena, zaintzeko, Legeak prostitutaren eta bezeroaren arteko sexu-harremana galarazten du, eta halatan, maitasun fisikokoan jarduteko, norberarentzat emakume bat hartu eta bera jendaurrean esposatzea beste biderik ez dago. Izan ere, harekin bakarrik geratzea aski balitz, maizenik gizonak bere etxean aldi baterako prostituta bat hartuko luke, harekin akort geldituz, eta hura emaztea duela erranen luke. Horregatik, lotura bat eta egintza bat xedatu dira, horren bidez gizonak emakumea bereganatzeko, eta hori ezkongaialdia da, eta ondoren jendaurreko ekitaldia, ezteia, alegia: «Eta Boozek, orduan herriko hamar gizon hartu zituen lekuko...» (Rut 4,2). Batzuetan gerta daiteke haien batasunean erabateko harmonia ez ukaitea, eta haien bizikidetasuna ongi ordenatua ere ez izatea, eta horregatik dibortzioa onartu da. Baina, baldin dibortzioa hitz soil batekin, edo emakumea etxetik kanpora bidaltze hutsez, bete ahal balitz,

emakumea zain legoke bera inork ikusten ez duen unean [etxetik] alde egiteko, arbuiatua izan delako aitzakiarekin; edo gizon batek haragizko harremanik ukan balu harekin, berak eta seduzitzaileak [emakumea] lehenagotik [bere senarrak] arbuiatua zelako aitzakia jar zezaketen. Hori dela eta, Legeak, dibortzioa balioduna izateko, erabakia du beharrezkoa dela horren lekukotasuna ematen duen izkribua egotea: «Dibortzio-agiria izkiriaturio dio» (Dt 24,1).

Desleialtasun-susmoa eta horri buruz emakumeaz sor daitezkeen zalantzak sarritan gertatzen direnez gero, Legeak adulterio-susmopean dagoen emakumeaz xedapen batzuk¹³² ezarri dizkigu, eta prozedura horrek nahitaezko ondorioa zuen emakume ezkondu orok, *ur mingotsen* beldurrez, bere burua erabateko arduraz zaintzea, bere senarraren bihotzean halako nahigaberik sortu gabe. Izan ere, emaztea garbia balitz eta [bere senarra] horretaz guztiz lasaitu ahal baleza, gizonik gehienek gogo onez eman lezakete beren ondasun guztia emazteak pairatu behar lukeen egintzatik urruntzeko, eta heriotza bera nahiago lukete desohore handi hori pairatzea baino, hau da, emaztearen burua agerian utzi, haren adatsa desordenuan jarri, beraren jantziak urratu, bularrak agerian utzi arte, eta santutegiari itzulingurua egin jendearen aurrean, gizona zkoen eta andrazkoen begien bistan, Epaitegi Nagusiaren aitzinean. Horrela, beldur hori sorraraziz, etxe askotako ordena nahas lezaketen gaitz handiak aurretik begiratu dira.

Neska gazte birjina hel daitekeen lehenarekin ezkon daitekeenez gero, ez zaio haren seduzitzaileari eskatu harekin ezkondu beharra besterik, horixe baita bera birgaitzeko gehien komeni zaion ezkontza, eta ez beste batek neskarekin egin lezakeena. Baina neskak, edo haren aita, hori onartzen ez badu, seduzitzaileak, halere, מוֹהַר *mōhar*-a ordainduko du. Eta bortxatzaile errudun aitortuari eransgarri bat ezarri zaio, zigortzat: «Eta ezin izango du hura bizitza osoan arbuiatu» (Dt 22,29).

Lebiratuaren izateko arrazoia dela eta, [Pentateukoan] izkiriaturik dagoenez, hori antzinako ohitura da, Legearen goi-agerpena baino lehenagokoa, eta berorrek irauten utzi duena. Zapata *eranztearen* zeremoniari dagokionez, horrelako egintzei, garai haietako ohituren arabera, oso laidogarri zeritzeten, eta horregatik, koinatuak, egintza horiek ekiditeko, lebiratua konplitzea erabaki zezakeen. Hori

argi ageri da Torah-ren testuan: «Hara zer egiten zaion bere anaiari familia eman nahi ez dion gizonari. Eta halakoaren etxeari ‘Oinutsaren etxea’ deituko diote israeldarrek» (Dt 25, 9-10).

Judaren historiaren bidez, portaera prestua ukaiten eta jarduteko moduetan zuzentasuna gordetzen bultza daiteke, haren hitzak gogoan izanik: «Bada, har ditzala beretzat; barregarri utz ez gaitzan» (Has 38,23). Hona hemen horren azalpena: [Moisesen] Legegintza baino lehenago, prostituta batekiko harremana Legegintza horren ondoko ezkontza bezalakoa zen, erran nahi baitut, egintza hori zilegi zen, eta horregatik ez zela inolako higuinik sentitzen. Puta bati aurretik itunduriko alokairua ordaintzea, hura orain emazteari dibortzio-kasuan ematen zaion ordaina bezalakoa zen, erran nahi baita, emakumearen eskubide bat, gizonak pagatu beharrekoa. Beraz, Judak hau erran zuenean: «barregarri utz ez gaitzan», horrekin irakasten digu lotsagarri gertatzen zaigula, oro har, bizikidetasunari dagozkion gauzez mintzatzea, berori zilegi izanik ere, eta, aitzitik, hobe dela isilpean gorde eta ezkutatzea, horrek aldean diru-galtzea balekar ere. Hori da, zerorrek dakusazunez, Judak egin zuena, zioela: Hobe dugu galera bat pairatu eta berak eskuratu duena gorde dezan, geure bilaketa azaldu eta horregatik lotsagarri agertzea baino. Horixe da historia horretatik ikas dezakegun lotsa oneko portaera. Hortik atera dezakegun zuzentasun-ikasgaiari dagokionez, emakumearekiko era guztietako bortxakerietatik garbi dagoela bermatzeko, ez duela bere hitza jan, dio, ez eta harekin itunduriko saria gutxitu ere: «Dena den, bidali diot antxumea, etab.» (*ibid.*); izan ere, antxume hori, inolako zalantzarik gabe, alerik hoberenetakoa baitzen, eta horrexegatik הַזֶּה *ha-zèh* ('honako hau') erakuslea darabil. Horixe da, beraz, Jakobek, Isaakek eta Abrahamek etsenplutzat eman zieten zuzentasuna, hau da, ez dela emaniko hitza aldatu behar, ez eta promesa aldatu ere; zor dena oso-osorik ordaindu beharra dagoela; ez dela diferentziarik inork, mailegu edo gordailu gisa, inork zure gomendio utzi duen ondasunaren, eta zerorrek, edonola, alokairu moduan edo bestela, zor duzunaren artean; eta, azken buruan, emakume ororen ezkon-saria mertzenario guztiena bezalakoa dela, eta, halatan, bere emazteari zor diona atxikitzen duena, mertzenarioaren alokairua atxikitzen duena bezain erruduna dela; izan ere, ardura gutxi

du langile alokatuarekin merkezurrian jokatu eta soldata gabe igortzeko aitzakiak bilatzeak, edo norbere emaztearekin horrela jokatzek, zor zaion emaitza gabe bidaltzeko.

Hemen *estatutu eta agindu egoki* horien zuzentasun handia (Dt 4,8) azpimarratu behar dizut, bere emaztearen difamatzailearen aurka emandako epaian. Zalantzarik gabe, gizabanako horrek ez zuen maite difamatua zuen emakumea, eta itsusi zeritzon; hortaz, emaztea arbuiatzen duten guztien erara, harengandik dibortziatu nahi ukan balu, ezerk ez ziokeen hori eragotziko; baina dibortziatu balitz, eskubidez zegokiona ordaindu beharko ziokeen. Beraz, hark kontu horretaz asmo txarrak zeuzkan, [emakume] harengandik, ordainik gabe, libratzeko; hura kalumniatu eta bere gezurrekin belztu zuen, horrela emakumeak harengandik eskubidez eskatzeko zuen diru kopuruari atxikitzeko, zilarrezko berrogei שקל *šeqel*¹³³ alegia, birjinen מוֹהַר *mōhar*-a dena, Legeak ezarria. Horrexegatik Jainkoak «zilarrezko ehun *šeqel*» (*ibid.* 22,9) ordaintzera kondenatu zuen, hastapen honi jarraikiz: «Jainkoak (edo epaileek) errudun aitortzen du(t)enak bi halako ordainduko dio besteari» (Irt 22,8), lekuko faltsuen aurkako epaiarekin bat etorritik, jada erakutsi genuenez. Berdintsua da difamatzaile horren kasua, horrek emakumeari zor dizkion berrogeita hamar *šeqel* horiek beretzat gorde nahirik, horregatik ehun ordaintzera kondenatzen da eta. Horrenbestekoa du isuna, ezarria zitzaion kalte-ordaina atxiki nahi ukaiteagatik, hartaz jabetzeko asmoz; baina emakumearen ohorearen kontra eraso nahi izateagatik eta haragizko bekatua egiteko salaketa egitearren, [gizonak] berak bere burua zigor-kolpeekin desohoraturik ikusi behar zuen: «senarra atxilotu eta zigorra ezarriko diote» (Dt 22,18). Azkenean, bere sexu-grinari obeditu eta bere atsegin hutsa besterik ez bilatzeagatik izandako gaztigua harekin [emaztearekin] betiko kateaturik gelditzea zen: «Emaztetzat onartu beharko du eta ezin izango du bizitza osoan arbuiatu» (*ibid.* 19. berts.), gertaturiko guztiaren kausa, hark emazteari itsusi zeritzolako zen eta. Horrela sendatzen dira ohitura txarrak, horiek medikutzat Jainkoaren agindua dutenean, eta Lege honen xedapen guztietan, horiei ondo behatuz gero, alde guztietatik zuzentasun ageri eta nabarmena ikusiko duzu etengabeki. Ohar zaitez ongi nolako berdintasuna jarri den kalte-ordainari atxiki nahi ukan dion difamatzailearen epaiaren eta inoren

ondasuna eraman duen lapurraren epaiaren artean, eta kaltea egin nahi zuen lekuko faltsua –hori lortu gabe baina– nola tratatu den, kalte egin eta indarkeria erabili duenaren antzera, erran nahi baitut, lapurra eta difamatzailea bezalaxe, hirurok *lege berberaren eta zuzenbide berberaren* arabera epaituz. Jainkoaren legeen jakinduriak Berak bere obretan hedatu duen bezalako mirespena iradoki behar du: «Bera babes-harkaitza: Hark egina benetan bikaina, Haren bideak zuzen-zuzenak» (Dt 32,4). Horrek hauxe erran nahi du: Haren obrak guztiz bikainak diren bezala, Haren legeei ere erabateko justizia darie, baina gure adimenak ahulegiak dira Hark eginiko guztiaren bikaintasunaz eta dekretatu duen guztiaren justiziaz jabetzeko, eta guk animalien gorputz-ataletan eta zeruko esferen mugimenduetan Haren obretako mirari batzuk ulertzen ditugun bezala, era berean Haren legeetako batzuen justizia ere konprenitzen dugu. Baina arlo bietan ezkuturik gelditzen zaiguna askoz ere handiagoa da agertzen zaiguna baino. Baina itzul gaitezen kapitulu honen gaira.

Zilegi ez diren batzeei buruzko agindu guztiek bizikidetasuna bakanago bihurtu eta horregatik higuina sentiaraztea dute helburu, eta horren bila ahalik eta gutxien joatea. Pederastia eta bestialismoa galaraztea dela eta, horren motiboa begien bistakoa da; izan ere, norbera elkartze naturalera higuinez eta premia besterik jotzen ez badu, are arrazoi handiagoaz [ihes egin behar du] Naturaren bidetik kanpo dagoenetik eta limurtasun hutsa beste helbururik ez duenetik. Berekin ezkontzea galarazirik duten emakumeak [ahaidetasunaren kausaz], guztiak egoera berean aurkitzen dira, hau da, kasu gehienetan horietako bakoitza gizonarekin etxe berean egoten da etengabeki. Beraz, emakumeak haren nahiari erraz men eginen dio, hartua izateko prest egonen da, eta gizonak bere aurrera nekerik gabe etorraz dezake, ezein epailek gizonari ezer ezin aurpegiratuz emakume hori berarekin bizi delako. Beraz, senitarteko emakume horren kasua beste edozein emakume ezkongaberena bezalakoa balitz, hau da, berarekin ezkontzea zilegi balitzaio, eta gizon horrek galarazirik ez balu, emaztea ez duelako ez bada, gizon gehienak horrelako emakumeekin sexu-harremanak izateko arriskupean leudeke etengabeki. Baina horrelakoekin bizikidetzan egotea erabat galarazirik dagoenez, erarik gogorrean horretarako debekua dugunez, hiltzeko edo atzerapeneko zigorraren mehatxupean¹³⁴, eta horrelako emakumeekin batzeko

inolako biderik ez dagoenez, seguru egon zitekeen gizona ez zela haiengana hurbiltzen saiatuko, eta bere pentsamenduak haiengandik urrunduko zituela.

Aipaturiko [harreman] erraztasun hori dela eta, argi dago hori badela [gizonak] ezkontzeko zilegi ez dituen emakume guztiekiko. Izan ere, oso gauza jakina da, gizonezkoak emazte bat hartu duenetik, beronen ama, amona, alaba, biloba eta ahizpa denbora gehienez senar horren inguruan aurkitzen ohi direla, une guztietan horiekin topo eginez, sartzen, irteten eta bere zereginetan ari denean; era berean, emazteak maiz tratua edukitzen du bere senarraren anaiarekin, haren aitarekin eta semearekin. Gauza jakina da, halaber, gizona sarritan bere arrebeekin, aitaren eta amaren aldeko izebeekin, bere osabaren emaztearekin aurkitzen dela, eta maiz haiekin hazirikoa izan dela. Horiek guztiok emakume senideak dira, eta horiekin ezkontzea galarazirik dauka; eta horretaz gogoeta egiten baduzu, aurkituko duzu aipaturikoa [= barrukotasuna] senideen arteko ezkontza galarazirik egoteko arrazoi bat dela. Nik lotsa-kontuetan ere beste bat aurkitzen dut, lotsagabetasun handia behar baita aipaturiko egintza hori enborraren eta abarraren artean burutzeko, eta [gizon bat] norbere amarekin edota norbere alabarekin horrelako harremanetan bizitzeko¹³⁵, erran nahi dut. Horregatik, enborraren eta abarraren arteko elkarrekiko harremana galarazi egin zen, eta ardura gutxi du enborrak abarrarekin ezkontzeak zein enborrarekin ezkontzen dena abarra izateak, edota enborra eta abarra hirugarren pertsona berberarekin ezkontzeak, hau da, pertsona berberak enborrarekin eta abarrarekin batera bizikidetzak egiteak. Horregatik debekaturik dago aldi berean emakume bat eta horren ama hartzea, eta aitaren edo semearen emaztearekin ezkontzea, kasu guztietan enborraren eta abarraren biluztasuna agerian uzten delako. Neba-arrebak ere enbor eta abarrekin berdindurik daude, eta, beraz, norbere arrebarekin ezkontzea galarazirik dagoen bezala, debekaturik dago, halaber, norbere emaztearen ahizparekin eta berorren nebaren emaztearekin ere ezkontzea, era horretara enborra eta abarra bezalakoak diren bi pertsona horiek, biak hirugarren pertsona berberarekin ezkonduko lirateke eta. Neba-arreben arteko elkartzak zorrozki galarazirik dagoenez, eta enbor-abarrekin berdindurik direnez, edo, hobeki erran, neba eta arreba pertsona bakar bat balira bezalakoak izanik, debekaturik dago, halaber, amaren aldetiko izebarekin

ezkontzea, amaren mailakoa baita, eta aitaren aldetiko izebarekin ere, aitaren mailakoa delako. Baina norbere osabaren edo izebaren alabarekin ezkontzea galarazi ez den bezala, era berean, analogiaz, ez dago inondik ere debekaturik norbere anaiaren alabarekin ezkontzea, edo arrebaren alabarekin ezkontzea. Osabari bere lobaren emaztearekin ezkontzea zilegi bazaio, lobari bere osabaren emaztearekin ezkontzea galarazten zaion arren, hori lehen arrazoiarengatik azaltzen da. Izan ere, loba sarritan bere osabaren etxean aurkitzen da, eta bere osabaren emaztearekin harremanetan egoten, bere anaiaren emaztearekin harremanetan egoten den bezala; baina osaba ez da hain maiz egoten bere lobaren etxean eta ez du loturarik ukaiten berorren emaztearekin. Ez al dakusazu aita bere semearen emaztearekin loturik egonez, semea bere aitaren emaztearekin dagoen bezala, ezkontza biak era berean galarazirik daudela eta heriotza berberaz zigortzen direla?

Hilekoarekin dagoen emakume batekin, edo emazte ezkondu batekin, sexu-harremanetan jarduteko debekua dela eta, horren arrazoia nabarmenegia da, horren bila joan behar izateko. Badakizu, halaber, debekaturik dugula, Legeak, nolanahi ere den, galarazten digun emakume batekin gozatzea, bai eta atsegin hutsagatik hari begiratzea ere, *'Issûrê bî'âh* ('elkartze ez-zilegiak') tratatuan azaldu dugun bezala. Han errana dugu gure Legeak ez duela inola ere uzten gure pentsamendua maitasun fisikoaz arduratzea, ez sexu-grina nola edo hala kitzikatzea, eta, bere gogoz kontra bada ere, kitzikaturik sentitzen bada, bere izpiritua bestelako pentsamenduekin ardurarazi eta gogoeta beste zerbaitez egin behar duela, harik eta kitzikadura hori iragan arte. Hona hemen doktoreek, beren erranetan, gizaki bertutetsuak ere hobetzeko balio duten hitzekin, zer dioten: «Kirastu horrek aurkitzen bazaitu, eramazu bera ikastetxera; burdinazkoa bada, urtu egingen da, eta harrizkoa bada, hautsiko, errana denez: «nire hitza sua bezala da –dio Yhwh-k–, harkaitza txikitzen duen mailua bezala» (Jr 23,29) (*Qidduûîn* 30b)». Doktoreak hemen bere semeari portaera-erregela hau ematen dio: Sexu-grinara kitzikaturik sentitzen bazara, eta horregatik sufritzen baduzu, jo ezazu ikastera eta irakurtzera, galde egizu eta utz ezazu galde degizuten, eta sufrimendu hori, zalantzarik gabe, ezereztu egingen da. Azpimarratzekoa da «kirastu hori» errateko modua, eta, izan ere, ez da deus kiratsagorik. Moral hori ez da, soilki, erlijioak agindurikoa, filosofoek ere gomendatua

baizik. Aristotelesen esanak hitzez hitz aipatu dizkizut jada, dioela: «Guretzat lotsagarria den zentzu hori», ukimenari dagokiola, horrek janari ona eta maitasun fisikoa bilatzera gonbidatzen gaitu eta. Bere izkribuetan maitasun fisikora eta oturuntzetara emanak diren jendeak abjektuak deitzen ditu, eta bere gaitzespena eta iseka egozten dizkie, haren Etikako tratatuan eta Erretorikakoan aurki dezakezunez. Geure ahalegin guztiekin helburutzat hartu behar dugun jokabide bertutetsu horren ikuspegitik, galarazi egin digute doktoreek «Lauhankakoei eta txoriei beren [sexu] elkartzearen unean» begiratzea (*‘Abōdāh zārāh* 20b). Ene aburuz, arrazoi berberagatik galarazirik dago espezie ezberdinetako animaliak [estaltzeko] elkartzea, gauza jakina baita eskuarki espezie bateko banakoak higuin duela beste espezie batekoa estaltzea, horretarako indarrez bultzatua ez bada, mandoak sorrarazi nahi dituzten gizaki abjektu horiei maiz praktikatzten ikusten zaienez. Legeak, baina, ez du nahi ukan israeldarra horrelako praktikara jaistea, horrenbesteko abjekzio eta lotsarik eza erakusten duenera, ez eta aipatzea bera ere erlijioarentzat lazgarria zen gauzetaz arduratzea, eta arrazoi handiagoarekin horiek betearazteaz, premiak horretaturik ez bada; baina horrelako elkartzeak egiteko ez dago beharrianik batere. Iruditzen zait, halaber, edonolako lan egiteko, bi espezie elkarrekin lotzeko debekuak bi espezieren arteko estalketatik urruntzea duela helburu; eta horregatik hau erran bazen: «Ez dituzue idia eta astoa uztarri berean lotuko, goldaketan jarduteko» (Dt 22,10), hori izan zen, elkarrekin jarritz gero, bata bestea estaltzera hel litekeelako. Horren frogatzat gogoan ukan xedapen horrek, idia eta astoaz gainera, bestelako animaliak ere besarkatzen dituela: «Ez du ardura idi bat eta asto bat edo bi espezieetako beste animalia batzuk izateak; Eskritura baina, ohikoaz mintzo da» (*Baba ’Kamma* ’ 5,7).

Era berean, uste dut erdaintzearen motiboetako bat bizikidetzat gutxitu eta [sexu-] organoa ahultzea dela, horren egintza murriztu eta bera ahalik eta gehien lasai uzteko. Batzuk erdaintzearen helburua naturak amaitu gabe utzia zuena bukatzea zela erakusten saiatu dira, eta horrek [agindu hau] kritikatzera eramanez du; izan ere, erraten zen, nola gerta daiteke Naturaren gauzak osamaitu gabeak izatea, kanpotik etorririko amaiera behar izateko punturaino, eta are gehiago, prepuizioa gorpuztut-atat horrentzat onuragarria dela baldin badakigu? Baina agindu horrek ez du akats fisiko bat konpontzeko xedea; aitzitik, akats

moral bat erremediatzea besterik ez da. Egiatzko helburua atal horri eman beharreko gorputzeko mina da, banakoaren kontserbaziorako behar diren funtzioak ezertan ere eragozten ez dituen, ugaltzea ere ezereztan ez duena, baina bai sexu-grina eta nahikunde handiegia gutxitzen. Erdaintzeak grina ahultzen eta inoiz limurtasuna ere txikitzen duela zalantzarik gabeko gauza da, zeren, jaiotzetik bertatik atal horri odola jarioarazten bazaio, estalkia kenduz, bera, dudarik ez, ahulago izanen baita. Doktoreek bereziki errana dute: «Erdaindu gabe batekin maitasunean jardun duen emakumea nekez alduko da berarengandik» (*Berēšit Rabba* '80); horixe da, ene ustez, erdaintzearen motibo nagusia. Eta nork praktikatu zuen, lehenik, egintza hori? Ez ote zen, bada, Abraham bera, bere kastitateagatik hain goraiatua? Doktoreek pasarte honetan dioten bezala: «Adizu, badakit emakume ederra zarela» (Has 12,11).

Erdaintzeak badauka, iruditzen zaidanez, garrantzi handiko beste motibo bat: berari esker bereizten dira Jainkoaren batasunaren ideia honi darraizkionak, guztiei gorputzean ezarri zaien seinale berberagatik, eta horrela, haien arteko partaide ez denak, ezin dezake bere burua haietakotzat agertu, arrotza izanik; izan ere, gerta liteke horrela ari direnek hortik etekina atera nahian edo erlijio horren kideak engainatzeko asmoz jardutea. Ezein gizonek ez du egintza hori bere buruarekin edo semearekin beteko, egiatzko uste osoa ez badauka; kontua ez baita hanka batean eginiko ebaki bat, ez eta besoaren gaineko erredua bat, gauza biziki latza baizik. Gauza jakina da gizakiek elkar nola maite duten eta bata besteari laguntzen dioten guztiek bereizgarri berbera dutenean, hori haientzat nolabaiteko aliantza eta itun-marka da eta. Erdaintzea bera ere Abraham gure aitak Jainkoaren batasunaren sinesmenean eginiko ituna da, eta horrela, erdainarazten diren guztiak ez beste sartzen dira Abrahamen itunean, itun horren bidez batasunean sinesteko konpromisoa hartuz: «Zure eta zuren ondorengoen Jainkoa izango naiz» (Has 17,7). Horra hor, oraindik, erdaintzeko aipa daitekeen beste motibo bat, axola handikoa, eta agian lehena baino garrantzitsuagoa.

Erljioa ezin daiteke egiatzki praktikatu, ez eta iraunarazi ere, erdaintzea haurtzaroko urteetan egiten ez bada, eta hori hiru arrazoiengatik: 1) Haurrari [erdaintzea egin gabe] hazten uzten bazaio, litekeena da berak gero hura ez praktikatzea. 2) Haurrak ez du

sufritzen pertsona nagusi batek sufrituko lukeen beste, mintza biguna baita eta oraindik irudimen ahula duelako; pertsona nagusiak, orde, horri, gertatu baino lehenago ere, izugarri eta krudel deritzo, bere irudimenak aurretik pentsatzen duenaren arabera. 3) Jaiotzen den unean gurasoek ez dute oraindik haurragatik atxikimendu handirik sentitzen, umearenganako maitasuna sorarazten duen irudimenezko forma aita-amengan oraindik sendotu gabea delako. Izan ere, irudimenezko forma hori ohiko harremanei esker handitzen da, eta haurra hazten den neurrian handituz doa, eta askoz geroago hasten da gutxitzen eta ezabatzen. Horregatik aita eta ama ez dute jaioberriagatik sentitzen urtebeteko haurragatik sentitzen dutena, eta ez dute urtebeteko haurra maitatzen sei urteko umea maite duten bezala. Beraz, bi edo hiru urteko umea [erdaindu gabe] utziz gero, horrek erdaintzea alde batera uztea ekar lezake, umearenganako maitasun eta atxikimenduagatik. Baina jaio berritan, irudimenezko forma hori, oso ahula izaten da, batez ere aitarengan, agindu hau betearaztea, hain zuzen, berorri dagokio eta.

Erdaintzea zortzigarren egunean egiteko arrazoia honako hau da: animalia oro, jaiotzeko unean oso ahula da, eta erabat biguna, oraindik bere amaren sabelean balego bezala; zazpigarren egunera arte ez da airearekiko harremanetan aurkitzen. Ez al dakusazu, bada, lauoinekoentzat ere zirkunstantzia hori kontuan hartzen dela: «Zazpi egunez amarekin geldituko dira...» (Irt 22,29). Epe hori baino lehenago ume-galtze gisa hartzen da, eta era berean, gizakia bera ere ezingo da erdaindu zazpi egun iragan arte. Horretara, egitekoa finko gelditzen da, eta «ez duzu aldakorrik ezer egingo».

Sail honetan sartzen da, halaber, animalia ar ororen sexu-organoak mozteko debekua, galarazpen hau *estatutu eta agindu egokien* hastapenarekin lotua baita (Dt 4,8), hau da, gauza guztien erdigune bidezkoarekin; ez da maitasun fisikora gehiegi makurtu behar, erran dugun bezala, baina, era berean, ez da hura erabat ezereztu behar ere. Ez al du Jainkoak, bada, agindu hau eman: «Hazi eta ugal zaitezte!» (Has 1,22). Organo hori, beraz, erdaintzeaz ahuldu beharra dago, erabat deserrotu gabe baina; aitzitik, berez naturala dena bere naturan utzi behar da, baina, halere, beharrezkoa da gehiegikerietatik gordetzea. Zikiratuak eta irenduak debekaturik dute emakume israeldar batekin ezkontzea, hori alferreko eta xederik gabeko bizikidetzat litzatekeelako, horrelako ezkontza bai

emakumearentzat eta bai bera bilatzen duenarentzat ere behaztopa-harri bilakatuz; argi dago hori.

Elkarte ez-zilegietatik aldenarazteko xedeaz, sasikumeari israeldarraren alabarekin ezkontzea debekatu zaio. Horrela nahi izan da adulterioa egiten duten gizonak eta emakumeak ongi jakin dezaten egintza hori burutzean beren haurrei behin ere ezin konponduzko orbana ezartzen dietela aurretik. Bastartak, nazio guztien ohiturari jarraikiz, mespretxuaz jota daude, eta Israelgo arrazari nobleegi iritzi zaio halakoekin loturik egoteko. Beren nobletasunagatik, apaizei kortesana batekin ezkontzea galarazi zaie, bai eta emakume dibortziatu batekin edo holako ezkontza batetik jaieriko emakume batekin ere; Apaiz Nagusiak, apaizen arteko nobleena denak, debekatua du, gainera, alargun bat edo birjina ez litzatekeen emakume bat esposatzea ere. Horren guztiorren arrazoa bistakoa da: «Yhwh-ren erkidegoan» sasikumeak onartzea debekaturik badago» (Dt 23,3), are arrazoi handiagoarekin gizon eta emakume esklaboak ere. Jentilekiko aliantzak egiteko debekua dela eta, Pentateukoko testuan motibatzen da: «Zeure semeentzat haien alabak hartzeko arriskua zenuke (Irt 34,16).

Arrazoa jakiten ez diegun estatutu [edo agindu] gehienek ez dute beste xederik gu idolatriatik aldenaraztea baizik. Xehetasun batzuen kasuan, horien zergatiak ezezagunak badituz, eta holakoen baliagarritasuna ez badakit ere, horren arrazoa da ez dela gauza bera kontu batzuk tradizio hutsez jakitea, eta horiek norberak ikusiak ukaitea. Horrexegatik sabearren iritzietatik dakidan apurra, liburuetan irakurria dudalako, ezin konpara daiteke haiek, egintzak ezagutzen zituztenek, zekitenarekin, ikusiak zituztelako, eta oso bereziki orain, haien iritziak aspaldiko bi mila urte edo lehenagotik desagertuak direnean. Baldin eta egintza horien berezitasun guztiak bagenekizki eta haien iritzien xehetasun guztiak entzun bagenu, ulertuko genuke sakrifizioei, lohikeriei eta abarri buruzko praktiken zehaztasunetan zenbat gauza zuhur ezkututzen diren, horren arrazoa [konprenitzeko] erraza iruditzen ez zaidan arren. Ene aburuz, zalantzarik gabe, horrek guztiorrek gure izpirituetatik ideia faltsuok ezabatu eta balio gabeko praktika horiek eteteko helburua zuen, gure bizitzako denbora zeregin hutsal eta alferretan galtzera eramaten zuten eta. Horrelako ideiek ez zuten besterik egiten giza izpirituak adimenaren kontzepzioak, edo egintza baliagarriak, bilatzeko eragozpenak jartzea baizik, gure

profetek erakutsi dutenez, ziotela: «Probetxu gabeko huskeriei jarraiki zaizkie»; Jeremiasek honela dio: «Gurasoek utzi digutena gezur hutsa da, zentzugabekeria, eta ez ezertarako on» (Jer 16,19). Ongi ulertuko duzu noraino zen hura guztia kaltegarria eta, kosta ahala kosta, eten beharrekoa. Horretara, beraz, agindu gehienek, erakutsi dugun bezala, ez dute beste helbururik iritzi horiek baztertu eta jende haiek, gurtzea egiteko, beren buruen gainean ezartzen zituzten zama handi eta pisutsu haiek, nekeak eta itobeharrak arintzea baizik. Ondorioz, Legearen agindu orok, baiezkoa zein ezezkoa izan, arrazoa ez dakizun arren, gaur egun, Jainkoari eskerrak, jada ezagutzen ez ditugun gaixotasun horietako bat sendatzea beste xederik ez dauka. Horixe sinetsi behar du gizaki beteginak, Jainkoaren hitz honen egiazko zentzua ulertzen duenak: «Ez diet Jakoben ondorengoei esan: Bila nazazue alferrik» (Is 45,19).

Orain, banan-banan, sail ezberdin hauetan sarturiko agindu guztiak ikuskatu ditugu, eta horien arrazoiak eman ere bai. Motiboa ezin aurkitu ukan diedan banaka batzuk besterik ez dira gelditzen, garrantzi gutxiko berezitasun batzuekin batera; baina, egia esan, horien arrazoa birtualki azalduz gelditzen zaio, era eskuragarriaz, edozein gizaki ikasizale eta adimentsuri.

1 BERROGEITA HAMARGARREN KAPITULUA

[Pentateukoaren ikuspegi historiko batzuk eta erlijio aldetik duten egiazko esangura]

Badira oraindik beste gauza batzuk «Torah-ren misterioetari-koak» direnak, eta anitz pertsona kezkatu dituztelako, argitu beharra dute. Horrelakoak dira Pentateukoan dauden kontakizun batzuk, horietan ez baita inolako probetxurik ageri, esaterako, Noerengandik heldu diren jendeak zerrendatzen direnean, haien izenak eta bizilekuen tokiak emanez (Has 10. kap), «Horiek ziren Seir horrearraren semeak, bai eta Edom-go herrian errege izandakoak ere (Has 36,20-31 eta hurr.) eta beste antzeko kontakizunak ere. Doktoreek diotenetik, zerorrek dakizunez, Manases fedegabeak bere kontseilu zitala etengabeki pasarte hauek maiseatzean ematen zuen: «Han eseririk zegoen –diote–

exegetarena eginez, *Haggādôt*-ak parodiatuz, adibidez, honelakorik zioela: «Beharrezkoa al zen Moisesek hau izkiriitzea?»: «Lotan-en arreba Timna' izan zen» (*ibid.* 22. bert.).

Lehenik hastapen nagusi bat jakinaraziko dizut, eta ondoren xehetasunetara itzuliko naiz, aginduen motibazioak ematean egin dudanez. Jakizu, Pentateukoan edonolako kontakizuna aurkitzen duzun bakoitzean, horrek nahitaez federako baliagarritasunen bat daukala, bai erlijioaren funtsezko ideiaren bat berresten digulako, bai portaera-arauren bat irakasten digulako, gizakien artean elkarrekiko indarkeriarik, ez eta injustiziarik ere, egon ez dadin. Orain kasu ezberdin batzuk jorratuko ditut. Mundua sorrarazia dela erlijioaren funtsezko sinestea denez, hasieran gizakion espezieko banako bakarra, hots, Adam, besterik ez zela sorrarazi, eta antzinako garaiek, Adamengandik Moises gure maisuarenganainokoek, gutxi gorabehera, bi mila eta bostehun urteko aldia besterik osatzen ez zutenez, gertakari horiek, horrela, huts eta sinpleki adieraziak, berehala zalantzan jarriko ziren, orduan jada gizakiak Lurraren muga guztietatik barreiatuak zeudelako, herri ezberdinak osatuz, hizkuntza ezberdinak mintzatuz, batzuk besteetatik oso urrunduak. Zalantza horiek isiltzeko, beraz, guztioi [jende] horien genealogia eta beren jatorria azaldu zitzaigun, haien arteko izen ezagunenak aipatuz, «Urlia, Sandiaren semea», beraien adina, bizilekua eta Lurraren muturretaraino barreiatuak izateko arrazoia ere; bai eta zergatik haien hizkuntzak hain ezberdinak ziren ere, hasieran [pertsona] guztiak toki berean eta mintzaira beraz hitz egin arren, gertatu beharko zen bezala, guztiak gizabanako bakarraren ondorengoak zirenez gero. Era berean, Uholdearen eta Sodoma eta Gomorraren historiaren kontakizunak ideia horren egiazkotasuna erakusteko helburua zeukan: «Bada, bai, sari bat zintzoarentzat; bada, benetan, munduan justizia egiten duen Jainko bat» (Sal 58,12). Bide beretik, bederatzi erregeen gerraren kontaerak mirari hori ezagutarazteko xedea du, hots, Abrahamek, gizon mordoxka batekin, berekin erregerik ez zutela, lau errege boteretsuen gainean lorturiko garaipena¹³⁶. Era berean, nola egin zuen bere senide Lot-en alde, bera bezalako sineskeraduna, eta nola, hura salbatzeko, gerraren arriskuei aurrea eman zien. Azkenik, norainoko zuhurra zen erakusten zaigu, bere nahiak meneratuz, irabazia mespretxatu eta eskuzabaltasunezko

ohiturak erakutsiz, errana de bezala: «Ez hari bat ez eta oinetakoaren lokarria ere» (Has 14,23).

Seirtarren leinu guztiak¹³⁷ kontatu eta berorien banan-banako genealogia erraten da, eta hori agindu bakar batengatik besterik ez da: Jainkoak Amalek-en leinua deusezta zedila bereziki agindu zuelako. Amalek, izan, Elifaz-en semea zen, Timna', Lotan-en arrebarengandik izana. Baina Jainkoak ez zuen agindu Esaturen gainerako semeak hiltzeko; halere, Esauk, seirtarrekin itunez elkartua izanik, Eskriturak argiro dioenez, arraza horretako haurrak ukan zituen. Haien gainean errege izan zen, beraren arraza haienarekin bat eginez. Horrek Seir-en herrialde guztia, bertako leinuekin batera, leinu nagusiari egokiaraztea ekarri zuen, hau da, Esaturen ondorengoanari, eta, bereziki, haietako nobleenari, hots, Amalek-enari. Hortaz, familia horiek guztiok banan-banan aipatu ez balira, gerta zitekeen, hutsegitez, erailak izatea. Hori dela eta, Eskriturak horien leinuak bereziki izendatzen ditu, hau erran nahirik: gaur egun Seir-ko herrialdean eta Amalek-eko erresuman dakuskizuenak ez dira guztiak Amalek-en ondorengoak, halakoaren eta holakoaren ondorengoak baizik; eta Amalekenganaino igoarazten badira, hori da berorren ama horien arrazakoa zelako. Horrek guztiak Jainkoaren justizia nabarmentzen du, ez baitu nahi izan leinu bat beste leinu batekin, bereizi gabe, hilarazia izatea; izan ere, Jainkoaren dekretuak ez zuen Amaleken askazia besterik jotzen. Erakutsia dugu jada neurri horretan zetzan zuhurtzia.

«Edomgo herrian agintzen zuten erregeak» (Has 36,31) aipatzeko arrazoia honela dioten agindu honetan aurkitzen da: «Ez zaizu zilegi atzerritarrik zeuen buru jartzea, zeure anaia ez dena» (Dt 17,15). Halere, zerrendan aipatzen diren erregeen artean bat bera ere ez zen Edomgoa. Ez al dakusazu haien familia eta haien herria ere bai, Urlia, halako tokikoa; Sandia, beste halako leku batekoa? Ene ustez, horien eginak eta historia eskuarki ezagunak ziren, erran nahi dut, Edomgo errege horien eginak, eta horiek Esaturen ondorengoak tiranizatu eta umiliatu zituzten; horregatik horien aierua aipatzen da. Erran balitz bezala: «Atera kontua zeuen anaiengandik, Esaturen jatorrikoengandik, erregetzat Urlia eta Berendia zituzten eta [horien eginak orduan ongi jakinak izanik]; ez baita sekula atzerritar arrazako gizaki bat herrialde bateko errege izan, bertan tirania handiagoa edo txikiagoa erabili gabe». Laburbilduz, gu orain sabearren antzinako

erlijio-usadioetatik¹³⁸ urruntzen gaituen tarteaz erran dizudana garai haietako historiari ere aplika dakioke, gaur ezezaguna gertatzen zaigunari; izan ere, [historia hori] bageneki, eta garai haietako gertaerak ezagutuko bagenitu, ondo jakin genezake, xehetasun askoren bidez, halakoak Pentateukoan aiparaziak izateko arrazoia.

Ongi ulertu behar da, bestalde, kontakizun izkiriatuak ez direla kontsideratzen norberak bere lekukotasunaz jasoriko gertakariak hartzen dituen ikuspegi beretik; azken horietan badirelako xehetasun batzuk, beharrezko segida dutenak, gehiegi luzatu gabe ezin konta daitezkeenak. Hori dela eta, gertaera horiek irakurtzean, irakurleak hor errepikatzeak edo hedaketak aurkituko ditu; baina kontatzen denaren lekukoa bera izan balitz, ulertu egingen luke erran dena beharrezkoa dela. Hortaz, Pentateukoan, legegintzazkoa ez den zatian, kontakizun batzuk ikusten dituzunean, inoiz, irudituko zaizu halako edo holako kontakizuna izkiriatzeko beharrik ez zegoela, edo zabalpenak edo errepikatzeak dauzkala; horren arrazoia hau da: zu ez zara izan horrelako kontaera egin den bezala egitera [egilea] eraman duten xehetasunen lekukoa izan.

Era horretakoa da egonlekuen zenbaketa ere. Lehen begiratuan irudi luke hor erabat alferreko zerbait kontatzen dela; eta agian pentsa litekeen ideia faltsu horregatik, honela erraten da: «Eta Moisesek bere irteera egonlekuen arabera izkiriatu zuen, Yhwh-ren aginduz» (Zkiak 33,2). Hori behar-beharrezkoa da, mirari guztiak, ikusi dituenarentzat, egiazkoak direlako; baina ondokoentzat, kontakizuna tradizio huts bilakatzen da, eta, halakoak dantzuzkienak erraza du gezurtatzea. Gauza jakina da ezinezkoa dela, eta ezin pentsatuzkoa ere bai, mirari bat mendeetan zehar gizaki guztiek ziurtatzea eta aintzakotzat hartzea. Horrela, Pentateukoak dakartzan mirarietako bat, handienetako bat bera, israeldarrek basamortuan eman zuten berrogei urteko iraunaldia da, eta hor mana egunero aurkitzen zutela. Basamortu hori, Pentateukoak dioen bezala, «Suge pozoitsu eta eskorpioiz beteriko basamortua, ur-tantarik gabeko eremu elkorra» (Dt 8,15) zen. Leku horiek giza izaerari legokiokeen laborantza-herrialde batetik oso urrun ziren: «Hemen ezin da ezer erein, ezta pikondorik, mahatsondorik nahiz mingranondorik landatu ere» (Zkiak 20,5). Toki horiei, halaber, «inor igarotzen ez den lurraldea» (Jr 2,6) deitzen zaie; eta Pentateukoaren testuak honela dio: «Ez duzue ogirik jan, ez ardorik ez edari bortitzik edan» (Dt 29,5).

Mirari horiek guztiok ageriak eta nabarmenak ziren. Halere, Jainkoak bazekien, etorkizunean, mirari horiei ere helduko zitzaizela tradizioei heltzen zaiena bera, eta pentsatuko zutela berak zeuden basamortua jendea bizi zen lekuetatik hurbil zela, gizakiak lasai egon daitezkeen lekuan, eta gaur egun arabiarrek bizi diren basamortu horien antzekoa zela, edo toki horiek laboratu, uzta bildu eta bertan aurki daitezkeen landare batzuetatik elikatzea badela, edo berezkoa zuela manak toki horietan etengabeki erortzea, edo leku horietan bazirela urez beteriko patinak. Horregatik, zalantza horiek guztiok kentzeko, mirari horien guztion kontara egonlekuen bana-banako aipamenarekin berretsi da, etorkizuneko belaunaldiek horiek ikusi eta ezagut dezaten giza espeziea berrogei urtean toki horietan bizirik irauteko eginiko mirari handia. Arrazoi berberagatik, Josuek Jeriko berreraikiko lukeenaren aurka betiereko anatema jaurti zuen, miraria ziurtatua eta egiaztatua izan dadin; izan ere, harresi hori lurpean sartua ikus dezakeen edozeinek uler dezan hori ez dela eraikin eraitsi baten horma, baizik eta mirariaz lurperatua zela.

Era berean «Yhwh-ren aginduz etxoletaratzen ziren eta Haren agindura abiatzen» (Zkiak 9,20) erraten denean, hori aski izan zitekeen kontakizunerako, eta, lehen ikuspegian, irudi zezakeen jarraian erraten zen guztia alferreko hedaketa besterik ez zela, esaterako, berba hauek: «Eta hodeia egoitzaren gainean luzaro gelditzen zenean..» (19. bert.); «Batzuetan hodeia gelditu egiten zen» (21. bert.); «edo bi egunez» (22. bert.). Xehetasun horien guztion motiboa ezagutaraziko dizut: kontara horretan ekin beharra zegoen, [atzerriko] nazioek orduan zuten iritzia ezeztatzeko, eta gaur arte ere mantentzen dutena, hau da, israeldarrak galdurik zebiltzala eta bidea ez zekitela, errana den bezala: «israeldarrak noraezean dabiltzala» (Irt 14,3). Hori dela eta, arabiarrek gaur ere basamortu horri **آلتيه** *Al-Tih* ('desbideratzea') deitzen diote, eta uste zuten israeldarrak alderrai' (**תער** *ta'u*) zebiltzala, bidea jakin gaberik. Beraz, Eskriturak erakusten duenez, horretan behin eta berriro ekinez, egonleku gorabeheratsuok, horien arteko batzuetara itzultzea, berorietako bakoitzean izandako egonaldi ezberdina –horrela, egonleku batean hamazortzi urte, beste batean egun bat eta beste batean gau bakarra emanez– hori guztiori [diot nik] Jainkoak dekretatua zen, eta ez bide-galtze huts bat, hodei-adarraren jasoeraren arabera baizik. Horrexegatik eskaintzen dira xehetasun guztiok,

Pentateukoan aldarrikatu ondoren, bide-tarte hori laburra zela, ongi ezaguna, jendez maiz ibilirikoa eta ez zela inor horren berri ez zekienik; erran nahi baitut, *Horeb* –horra apropos joanak baitziren, Jainkoak agindu zienaren arabera: «Jainkoa mendi horren gainean gurtuko duzue» (Irt 3,12)– eta קדש ברנע *Qādēš Barnēa*’ arteko tarte, jendea bizi den herrialdea hasten den tokia, Eskriturak dioenez: «Orain hemen gara, *Qādēš*-en, zure lurraldearen mugako hirian» (Zkiak 20,16). Bitarte hori hamaika egunez zeharka daiteke, errana denez: «Hamaika eguneko ibilaldia dago *Horeb*-etik *Qādēš Barnēa*’-raino» (Dt 1,2); beraz, ez da berrogei urtez inor alderrai ibil daitekeeneko bidea, eta, beraz, ez zaio hori beste ezeri egotzi behar, Pentateukoan bereziki izkiriaturiko kausei ez bada.

Hori dela eta, edonolako historia [Pentateukoan] zergatik kontatua den ulertzen ez duzun aldi bakoitzean, jakizu bazela horretarako arrazoi larri bat, eta horri guztiorri doktoreek nabarmendu duten hastapena aplika dakioke: «Ez baita funsgabeko gauza bat zuentzat» (Dt 32,47), eta funsgabekoa baldin bada, zuen aldetik izanen da.

BERROGEITA HAMAIKAGARREN KAPITULUA

*[Obra osoaren ondorio nagusiak. Jainkoaren ezagutza; mailak.
Jainkoaganako maitasuna eta harekiko batasuna]*

Orain eskainiko dugun kapitulu honek ez die deus berririk gehitzen Tratatu honetako beste kapituluaren edukiei. Nolabait, amaiera modukoa da, Jainkoarekiko praktikatu behar diren egiazko betebeharrak ulertzen dituenak, Haren benetako izaeraz ongi konturatu ondoren, nolako gurkera eskaini behar dion irakasteko. Horrek gizakia gidatu behar du, gizakiaren egiazko helburua den gurtze horretara irits dadin, eta Aurreikusmenak mundu honetan beraren gainetik jagoten duela jakinarazteko, betiereko bizitzara iragateko mementuraino.

Kapitulu honetan neure hitzaldia ondoko parabola erakusten hasiko natzaizu: Errege bere jauregian zen, eta haren menekoak, batzuk hirian eta beste batzuk hiritik landa aurkitzen ziren. Hirian zirenetarik, batzuek erregeren etxeari bizkarra ematen zioten, eta alde

batetik bestera zebiltzan; besteak erregeren egoitzarantz itzultzen ziren, hara sartu eta beraren aurrean aurkeztu nahirik, baina ordura arte ez ziren jauregiko harresiaz konturatu. Zetozen horietarik, batzuk, jauregiraino heldurik, ingurutik zebiltzan, sarreraren bila; beste batzuk jada sartuak ziren eta atarteetatik paseatzen ziren, eta beste batzuk, azkenik, jauregiaren barruko patiora heldu eta errege zegoen tokira iritsiak ziren, hau da, haren egoitzaraino. Horiek, baina, haraino helduak izan arren, ezin zezaketen errege ikus, ez eta hari hitzik egin ere, eta, egoitzaren barruraino sartuak ziren arren, oraindik nahitaezko beste egiteko batzuk bete behar zituzten, eta, behin horiek konplitu ondoren, aurkez zitezkeen erregeren aitzinean, urrundik edo hurbiletik ikusteko, haren hitza entzun edo berarekin mintzatzeko. Eta orain bururatu zaidan parabola azalduko dizut:

«Hiritik landa zirenak» inolako erlijio-sinesterik ez duten gizakiak dira, ez espekulatiborik ez eta tradizionalik ere, Ipar urruneko azken turkoak, Hego urruneko beltzak eta gure klimetan horien antzekoak direnak. Holakoak animalia adimengabetzat kontsideratzekoak dira; ez ditut gizakien mailan kokatzen, izakien artean gizakiarena baino maila beheragoa eta tximinoena baino goragoa dutelako, gizakien itxura eta soslaia daukatelako, eta tximinoarena baino bereizmen handiagoa.

«Hirian izan arren, erregeren etxeari bizkarra ematen ziotenak» iritzi bat eduki eta pentsatzen dutenak dira, baina egiaaren aurkako ideiak bururatu dituzte, dela beren espekulazioan heldu zaien errakuntza larri baten ondorioz, dela okerrean zeudenei jarraiki zaizkielako. Holakoak, beren iritzien ondorioz, ibiltzen ari diren neurrian, erregeren egoitzatik gero eta urruntzenago dira; lehenak baino askoz okerragoak dira, eta batzuetan holakoak hilarazi eta beren iritzien hatzak ezabatzeko premia izaten da, gainerakoak desbidera ez ditzaten. «Erregeren egoitzara itzultzen eta bertara sartzen ahalegintzen ziren arren, haren egoitza oraindik hauteman ez zutenak» gizaki erlijiosoen jendetza da, hau da, erlijioaren praktikez arduratzen diren pertsona ezjakinak. «Jauregiraino heldu eta haren inguruan ari zirenak», kasuistak¹³⁹ dira, tradizioz egiazko iritziak aintzat hartu eta gurtzaren praktikez eztabaida egiten dutenak, baina erlijioaren funtsezko hastapenen espekulazioan ezertan sartu gabe, edonolako sinestearen egiazkotasuna inola ere oinarritzen ahaleginik egiten ez dutela. Erlijioaren funtsezko hastapenei buruzko

espekulazioan murgiltzen direnak, horiek «atarteetaraino sartuak zirenak» dira, eta hor, zalantzarik gabe, maila ezberdinetan onarturiko gizakiak aurkitzen dira. Frogagarri den guztiaren froga ulertu dutenak, arazo metafisikoetan ziurtasunera, hori posible den guztian, heldu direnak edo, hara hurbiltzea besterik posible ez denean, segurtamenera bederen iritsi direnak, horiexek dira «egoitzaren barrura, erregeren ondoraino heldu zirenak».

Jakiteko duzu, ene semea, matematika-zientziez eta logikaz besterik arduratzen ez zaren bitartean, [erregeren] egoitzaren inguruan biraka dabilzanetarik bat besterik ez zarela, hor sarrera aurkitu nahirik, doktoreek, horretaz, alegoriaz diotenez: «Ben Zômá oraindik kanpoan da» (*Hagîgāh* 15a); behin fisikako gaiak ulertu eta gero, orduan egoitzan sartu eta bertako atarteetatik paseatzen zara; azkenean, fisika-zientziak amaitu eta metafisika ikasi ondoren, orduan sartzen zara erregeren ondora, barruko patiora, eta harekin areto berean aurkitzen. Azken maila hori egiazko jakintsuena da, baina hemen ere hobekuntza maila ezberdinak bereizten dira. Metafisika meneratu ondoren, badira beren pentsamenduan Jainkoaz besterik axolatzen ez direnak, beren buruak oso-osorik Hari eskainiz eta Harengandik landa dagoen orotatik urrunduz, beren adimenaren jarduera guztia [sorraraziko] izakiez erabiliz, berorietatik Jainkoaren existentziaren froga ateratzeko eta Hark nola goberna ditzakeen jakiteko; holakoak erregeren areto edo egotegian aurkitzen dira; profeten maila horixe da. Bazen bat, hain hautemate handikoa eta bere burua Jainkoarengandik kanpoan den guztitik hain ongi baztertzen jakin zuena, non hartaz hau erran ahal izan zen: «Eta han egon zen Yhwh-rekin» (Irt 34,28), galdezka, erantzunak jasotzen, mintzatzen eta [Jainkoaren] hitza bereganatzen egoitza santu horretan. Han hauteman zuenak ekarri zion poztasunagatik, «Ez zuen ezer jan, ez edan» (*ibid.*), eta adimenak erdietsi zuen gorentasunak gorputzeko ahalmen material oro ezereztu zituen, erran nahi baitut, ukimenaren ahalmen ezberdinak. Beste profeta batzuk ere izan dira, *ikusi* besterik egiten ez zutenak, batzuek hurbiletik, besteak urrundik, errana den bezala: «Jainkoa urrundik agertu zitzaion» (Jr 31,3). Profeziaren mailez jada lehenago mintzatu garenez¹⁴⁰, berriro gatoz kapitulu honen gaira, gizakia, bere pentsaeran, Jainkoaz besterik ez arduratzeraz bultzatzeko xedea duenera, Bera ezagutzen ikasi ondoan, erakutsi dugun bezala. Hortxe datza egia transzendentalak hauteman

dituztenei komeni zaien egiazko gurtza: zenbat eta Jainkoaz gogoeta gehiago egin eta beraren ondoan sarriago geratzen diren, are gehiago bihurtzen da Bera haien gurtzearen xedea. Eta Jainkoaz gogoeta egiten eta, zientziarik jakin gabe, Hartaz asko mintzatzen direnez, horiek, aitzitik, beren irudimeneko izaki huts bati buruz ari dira, edo tradizioz jaso duten sineste batez, eta holakoak, ene aburuz, jauregitik kanpoan eta Harengandik urrun aurkitzen direnez, ez dute egiazki Harengan pentsatzen, ez eta Beraren gainean gogoeta egiten ere. Izan ere, haien irudimenean besterik existitzen ez den eta haien ahoak hitzetan darabilen izaki hori ez dagokio inondik ere ezer erreali eta ez da haien irudimenaren asmazio bat besterik, atributuez mintzatzean erakutsi dugunez¹⁴¹. Ez da gurtze-modu horretara emana izan behar [Jainkoaren ideia] adimenaren bidez ondo bururatu arte; Jainkoa eta beraren obrak, adimenak eskatzen duen neurrian, behin ulertu eta gero eskaini ahal izanzen zatzaizkio Berari oso-osorik, Harengana hurbildu eta Haren eta zure arteko lotura, hau da, adimena, sendotuz, errana den bezala: «Yhwh dela Jainkoa jakin dezazun ikusarazi zaizu hori guztia...» (Dt 4,35), «Aitortu, beraz, gaur eta izan beti gogoan...» (*ibid.* 39. bert.), «Jakizu Yhwh Jainko dela» (Sal 100,3). Jadanik Pentateukoak erakusten du gurtze goren hori, zeinen gainean kapitulu honetan arreta eskatzen dugun, ezin dela gauzatu hautematearen ondorioz ez bada: «Yhwh, zuen Jainkoa maitatuz, eta bihotz-bihotzez eta gogo osoz zerbitzatuz...» (Dt 11,13). Askotan azaldu dugu jada [Jainkoarenganako] maitasuna hautematearen araberakoa dela, eta gurtze hori ezin daitekeela maitasun horren ondoan besterik etor, zeinen gainean doktoreek ere arreta erakarri zuten, ziotela: «Bihotzeko gurtzea da» (*Sifri*). Berori, ene aburuz, honetan datza: pentsamendua adimenaren gai nagusiari aplikatzea eta Hari, ahal den guztian, nork bere burua eskaintzea. Horrexegatik [Eskrituran] aurkitzen duzu Davidek, Salomoni bere azken nahiak diktatzean, batez ere bi gauza hauek gomendatzen dizkiola, hau da, Jainkoan ezagutzara heltzeko ahaleginak egitea eta, ondoren, [ezagutza horren araberako] gurtza ematea: «Zu, berriz, Salomon, ene seme hori, saia zaitez zeure aitaren Jainkoa ezagutzen: zerbitzatu bera... Haren bila bazabiltza utziko dizu bera aurkitzen» (I Kr 28,9). Aholku horrek ezin eduki dezake beste helbururik kontzepzio adigarriak baizik, irudimeneko gauzei buruzko pentsamenduak ez baitira דעה *dē'āh* deitzen ('ezagutza'), baizik eta כחכם העולה על הרוחם *hā-ōlāh 'al rūhākēm* «zuek pentsatzen duzuen» (Ez

20,30). Argi dago, beraz, behin Jainkoaren ezagutza lortu eta gero, xedea nork bere burua Hari ematea izan behar dela, pentsaera eta adimena etengabeki Berari zor zaion maitasunaren arduraz erabilirik. Eskuarki ez da horra heltzen bakartasunaz eta isolamenduaz besterik; horrexegatik goi mailako gizaki orok maiz isolatzea bilatzen du, inorekin elkartu gabe, premiazko kasuan ez baldin bada.

[*Oharra:* Erakutsi dizugu jada Jainkoarengandik guregana isurtzen den adimen hori gure eta Haren artean dagoen lotura dela¹⁴². Zure esku dago bai lotura hori sendotu eta gogortzea, eta bai bera ahuldu eta pixkanaka askatzea ere, desegin arte. Lotura hori ezin daiteke sendotu, Jainkoa maitatzeko eta Harengana hurbiltzeko, berori darabilgunean izan ezik, azaldu dugun bezala: eta ahuldu eta laxatu egiten da, ordea, zeure pentsamendua berarengandik kanpoan dagoenaz arduratzen denean. Jakin behar da, egiazko metafisikan gizonik jakintsuena bazina ere, zeure pentsamendua Jainkoarengandik urruntzen baduzu, eta oso-osorik zeure elikaduraz eta premiazko beste zereginenez arduratzen bazara, zure eta Jainkoaren arteko lotura hori ebakia duzula, eta jada ez zaudela gehiago Harekin, Bera zurekin ez dagoen bezala, zure eta Haren artean zen harreman hori une horietan, egitez, etenik gelditu delako. Horregatik gizaki gorenak ez zituzten une bakan batzuk besterik erabiltzen Hartaz gainerako gauzez arduratzeko, eta horretaz abisu honekin babestu nahi ukan gaituzte: «Ez zaitezte itzul zeuen pentsamendutik datorrenerantz» (*Šabbat* 149a). Davidek errana zuen: «Begi aurrean dut Yhwh etengabe; bera eskuinaldean dudala, ez naiteke koloka» (Sal 16,8); erran nahi baitu: Ez dut behin ere neure pentsamendua Jainkoarengandik saihesten, eta Bera ene eskuineko eskua bezalakoa da, une batez ere ezin ahantz baitezaket, haren mugimenduen lastertasunagatik; horregatik ez dut zalantzarik ukanen, erran nahi baita, ez naiz eroriko. Jakin behar da gurtzeko zeremonia guztiek, hala nola Torah-ren irakurketak, otoitzak eta beste aginduen praktikak ez dutela beste helbururik zu, munduko gauzez ez, baina Jainkoaren aginduez arduraraztea, eta nolabait errateagatik, soilik Jainkoaren, eta ez beste ezeren, arta ukaitea. Baina, baldin eta otoitz egiten duzunean ezpainak higitzen badituzu, hormara begira, saltzeko edo erosteko duzunaz pentsatzen duzun bitartean, edo Torah zeure ezpain hutsez irakurtzen ari bazara, zure bihotza zure etxearen eraikuntzaz kezkatutik dagoen artean, irakurtzen diharduzunaz

gogoetarik egiteke, edo, azken buruan, edonolako agindua zeure gorputz-atalekin praktikatzen baduzu, lurrean zulo bat egiten edo oihanean egurra ebakitzen duenaren antzera, praktika horren zentzuaz ez bera agindu duenaz, ez horrek duen helburuaz gogoeta egin gabe, orduan ezin sinets daiteke inolako xederik lortu duzunik; aitzitik, hau erran zitzaienen antzekoa zara: «Haien ezpainetan zaude, bai; ez, ordea, bihotzetan» (Jr 12,2).]

Orain, hain garrantzi handiko helburu horretara heltzeko, nola trebatu behar duzun irakatsiko dizut: Kontuan eduki behar duzun lehenbiziko gauza honako hau da, שְׁמָע *Šema* '-ren irakurketan eta otoitza egiten ari zarenean, zeure izpiritua beste edonolako gauzetatik libre edukitzea, eta *Šema* '-ren lehen bertseta eta otoitzaren lehen bedeinkazioa arretaz irakurtzea ez askiestea. Behin hori erdietsi eta gero, eta urteetan zehar horretarako ohitura eskuratu ondoren, zerorrek Pentateukoa irakurtzen duzun bakoitzean edo bera irakurtzen dantzuzun bakoitzean, zeure pentsamendu osoa irakurtzen edo entzuten ari zaren horren gainean gogoeta egiten ahalegindu beharra daukazu. Horretarako ohitura hori ere edukiko duzunean, Profetengandik irakurriko duzun guztietan, eta bedeinkazio guztietatik ere bai, ahaleginak egingen dituzu zeure izpiritua libre ukaiten, erranen duzun guztiaz hausnartzen eta horren zentzua ulertzen saiatuz. Behin erlijio-egintza hauek konplitu eta gero, eta zure pentsamendua, horiek praktikatzean, munduko arazo guztien arduratik garbi egon dadinean, orduan, eta ez lehenago, has zaitezke gauza premiazkoez edo bizitzako alferrikakotasunez arduratzen. Oro har, ez duzu zeure pentsamendua gauza mundutarren gainean aplikatu behar, jateko eta edateko mementuan besterik, edo bainuan aurkitzen zarenean, edo zeure emaztearekin edo zeure haur txikiekin hizketan diharduzunean, edota edozeinekin mintzatzen zarenean. Horrela, asti ugari eta sobera uzten dizut zeure intereseko arazoetarako, etxeko zereginetarako eta gorputzeko beharrian guztietan pentsatzeko; baina erlijio-kontuez ari zaren momentuetan, zure pentsamendu osoak egiten duzunari adi egon behar du, azaldu dugun bezala. Zerori bakar-bakarrik zaudenean, edo zeure ohean itzarri zaudenean, saia zaitez, une baliotsu horietan, Jainkoarengana hurbiltzen eta Beraren aitzinean aurkezten, jakinarazi dizudan egiazko eraz, eta ez irudimenaren ameskeriazko eraz, adimenezko

gurtze horretatik kanpoko beste ezein ere gauzatan pentsatu gabe. Muga horretara hel daiteke, ene iritziz, era horretako ariketarako prestatu den zientzia-gizon oro.

Gizabanako bat egia gorenak hautematera eta hauteman duenaz gozatzeraz helduko balitz, aldi berean gizakiekin mintzatu eta bere gorputz-premiez arduratuz, haren adimena oso-osorik Jainkoarengana zuzendua legokeen bitartean, kanpo aldetik gizakiekin izan arren, gutxi gorabehera honetaz eginiko alegoria poetikoetan erraten den bezala: «Lota nengoen, baina bihotza erne. Horra ene maitea, atean deika» (Kant 5,2), hori litzateke nik neuk profeta guztiei ere egotziko ez niekeen maila; areago, hori Moises gure maisuaren maila litzateke, zeinez hau erran baitzen: «Moises bakarrik hurbilduko da Yhwh-rengana, baina gainerakoak ez zaizkio hurranduko» (Irt 24,2), «eta bertan egon zen Yhwh-rekin» (*ibid.* 34,28), eta hari erran zitzaion: «Baina zu gera zaitez hemen, ene ondoan» (Dt 5,28), guk bertset horiei egotzi diegun zentzuaren arabera. Horixe da, halaber, patriarkek erdietsi zuten maila, haiek Jainkoarengandik hain hurbil izanez, haiengandik heldu baita Hark munduan ezaguna duen izena: «Abrahamen, Isaaken eta Jakobena Jainkoa; (...) horixe izango da nire izena betiko» (Irt 3,15). Haien adimenak Jainkoa hautemana zutenaz, Berarekin batu arte, hortik gertatu zen Hark haietako bakoitzarekin betiereko ituna egitea: «Orduan, Jakobekin, Isaakekin eta Abrahamekin eginiko itunaz oroituko naiz» (Lb 26,42). Izan ere, testu sakratuek argiro erakusten dute lau horiek, hots, patriarkak eta Moises gure maisua, Jainkoarekin bat eginik zeudela, hau da, Bera hautematen eta maitatzen zutela; era berean, Jainkoaren Aurreikusmenak haien eta haien ondokoen gainean arduratsu begiratzen zuen. Halere, haiek batzuetan gizakien gobernuaz arduratzen ziren, haien aberastasunak handitzeaz eta ondasunak bilatzeaz; eta horrek frogatzen du, ene aburuz, beren zereginetan zihardutenean, horretan beren gorputzez ez beste arduratzen zirela, haien adimena etengabeki Jainkoarekin zegoen artean. Iruditzen zait, halaber, lau pertsonaia horiek Jainkoarekiko harremanik hoberenean mantentzeko zituen eta Haren Aurreikusmenaren etengabeko babespean eduki zituen, bai eta beren ondasunak handitzeaz arduratzen zirenean ere, erran nahi dut, artzaintzan, nekazaritzan, etxekoan administrazioan buru-belarri zihardutenean, honako hau dela: egintza horiek guztiok Jainkoarengana ahalik eta gehien

hurbiltzea zuten helburu, haiek bizitza honetan bilatzen zuten xede nagusia Jainkoa ezagutzen eta adoratzeko zuen nazio bat sorraraztea zen eta: «Berau hautatu dut bere seme-alaba eta etxekoei Jaunaren arabera bizitzeko irakasteko, on eta zuzen dena eginez» (Has 18,19). Horregatik, garbi dago haien ahalegin guztiek helburu bakar horretara jotzen zutela, munduan Jainkoaren batasunaren sinestea hedatu eta gizakiak Jainkoarenganako maitasunera eramatea. Hori dela eta, heldu ziren hain maila gorenera, kezka horiek gurtze egiazkoa eta handia zirelako. Ni bezalako gizon batek ezin dezake gizakiak hain maila gorena erdiestera gidatzeko asmorik eduki, baina hau baino lehentxeago mintzatu garenekoa, ordea, erran dugun ariketaren bidez lortzera hel daiteke. Horretarako Jainkoari geure otoitz apalak helarazi behar dizkiogu, Harengandik urruntzen gaituzten oztopoak ken ditzan, horietako gehienak guregandik heltzen diren arren, Tratatu honetako kapituluetan erakutsi dugunez: «Zuen gaiztakeriek ezarri dute hesia zuen eta Jainkoaren artean» (Is 59,2).

Orain burura gogoeta bat datorkit, zalantza batzuk ezabatu eta misterio metafisiko batzuk agertzeko balio ukan lezakeena. Erakutsia dugu jada, Aurreikusmenari buruzko kapituluetan, Aurreikusmenak adimenaz horniturik dagoen izaki ororen gainean begiratzen duela, berorren adimenaren neurriaren arabera. Ondorioz, hautemate osamaitua daukan gizakia, zeinen adimena etengabeki Jainkoaz arduratzen den, betiere Aurreikusmenaren babespean da, baina, hautemate ezin hobea eduki arren, bere pentsamendua une batzuetan Jainkoaz arduratu gabe uzten duen gizakia, holakoa, aldiz, ez da Aurreikusmenaren babespean aurkitzen haren pentsamendua Jainkoarengan den bitartean besterik, gainerako ardurekin kezkatutik dagoenean Hark abandonatzen du eta¹⁴³. Halere, Aurreikusmenak ez du hura uzten, behin ere pentsatzen ez duen banakoa abandonatzen duen bezala; moteldu besterik ez da egiten, hautemate bikaineko gizaki horrek, bere kezkaldietan adimena egitez besterik ez baitauka, eta adimentsu, soilik, ahalmen hurbilean da, eskribau trebe bat, izkiriatzen ez duenean, izaten den bezala. Horretara, beraz, bere pentsamenduan Jainkoaz behin ere arduratzen ez denak ilunpean aurkitzen den eta sekula argia ikusi ez duena dirudi, hitz hauek direla eta, azaldu dugunez: «Eta gaiztoak ilunpetan dira galtzen» (1 Sm 2,9)¹⁴⁴; Jainkoa hautematen duena eta bere pentsamenduaren xede horretara

oso-osorik bere burua ematen duena Eguzkiaren argiaz inguraturik aurkitzen denaren antzekoa da. Azkenik, pentsatu bai, baina kezkatutik dabilena, bere kezkekin dagoenean, laino-egun batean aurkitu eta eguargia eragozten dioten hodeiengatik Eguzki izpiak jasotzen ez dituenaren irudikoa da. Horrexegatik iruditzen zait mundu honetako gaitzen batek jotako profeten edo gizaki jainkozale eta bikainen artean, ez zirela horrela joak izan berek Jainkoa ahanzten zuten unean besterik, eta zoritxarraren handitasuna ahanztura horren irautearen edo [gizon jainkozale horiek guztiok] ardurarazten zituen gauzaren duintasunik ezaren araberakoa izan zela. Egiazki horrela balitz, horrek konpondu egiten luke zailtasun handi hau, hots, filosofoak Jainkoaren Aurreikusmenak gizabanako bakoitza begiratzen duela ukatzera eta, alde horretatik, gizabanakoak animalien beste espeziekin berdintzera eramanez dituen; izan ere, horretarako argudiatzen duten frogak honako hau da: gizon jainkozale eta bertutetsuak batzuetan zoriz gaitz handiek joak izaten direla. Horren gainean den misterioa horretara argituz geldituko litzateke, baita filosofoen iritzien arabera ere. Jainkoaren Aurreikusmenak beti Jainkoaren jariatzen horrekin hornituriko gizakia babestuko luke eta berori lortzeko lan egiten duten guztiak saritu¹⁴⁵. Izan ere, gizakiaren pentsaera osotaro garbia denean, egiazko bideak erabiliz Jainkoa hautematen duenean, eta hautematen duenaz gozatzen duenean, ezinezkoa da inolako gaitz motak gizaki hori jotzerik, bera Jainkoarekin baitago, eta Jainkoa berarekin. Baina Jainkoarengandik aldentzen denean, nolabait Haren begiradetatik ezkutatuz, Jainkoa berarengandik aldentzen da, eta orduan gainera etor dakizkiokeen gaitz guztien menean gelditzen da, Aurreikusmenari dei egiten diona eta zoriaren uhinetatik salbatzen duena [Jainkoaren] adimenaren jariatzen hori baita, gizaki jainkotiar eta bertutetsu horrentzat halako denbora batez ezabatua, edo beste bati, biziotsu eta gaiztoa bera, behin ere iritsi ez zaiona, eta, horrexegatik, bai bata eta bai bestea zoriaren kolpeek astindu dituzte.

Nik uste dut sineste hori Pentateukoaren testuak ere berresten duela. Jainkoak honela erran du: «Neure aurpegia ezkutatuko diet, eta haien gainera gaitz eta atsekabe ugari helduko dira, eta orduan erranen dute: Ez ote dira gaitz eta zoritxar guztiok gertatu Jainkoa jada nigan ez dagoelako?» (Dt 31,17). Ageri-agerian da, Berak aurpegia ezkutatzen duela, eta horren kausa geu garela, eta [Bera

geure bistatik kentzen digun] belo hori gure obra dela, errana den bezala: «Eta nik egun horretan neure begitartea ezkutatuko diet, egin dituzten gaiztakeria guztiengatik» (*ibid.* 18. bert.). Zalantzarik ez, erkidego osoaz erranikoa lagun bakar bati ere aplika dakioke; beraz, argi dago giza banako bat zoriaren esku utzia bada, animalien antzera irentsia izateko arriskupean, horren kausa Jainkoarengandik belo batez aldendurik egotea dela. Baina baldin «bere Jainkoa berarengan bada», ezin hel dakioke inolako gaitzik, errana den bezala: «Ez izan beldur, zeurekin bainauzu; ez larritu, zure Jainkoa bainai» (Is 41,10), eta areago erraten denaz: «Uretatik pasatzen badituzu, zurekin izango naiz; ibaietatik igarotzean, ez zaituzte urperatuko» (*ibid.* 43,2), horren zentzua honako hau izanik: «urak nire konpainian zeharkatuko dituzunean ibaiek ez zaituzte herrestan eramanen». Izan ere, Adimen horren jariapen hori jasotzeko duin egin den guztia Aurreikusmenaren gerizan eta gaitz guztien aterpean aurkitzen da, erran den bezala: «Yhwh ene alde, zeren beldur izan naiteke? Zer egin diezadake gizonak?» (Sal 118,6), eta oraindik errana denez: «Adiskidetu, beraz, eta egin bakeak Jainkoarekin» (Job 22,21), hau da, itzul zaitez harengana eta gaitz guztietatik babestuko zara.

Baldin *Zorigaitzen Kantika* irakurtzen baduzu, bertan Aurreikusmen goren horretaz hitz egiten duela aurkituko duzu, gizakia jagoten duenaz, bera gorputzeko zoritxar guztietatik, babestuz, bai orokorretatik eta bai banako bakoitzaren zorigaitz berezietatik, inolako ezbeharrik hel ez dakion, oro har, ez izakiaren naturari datxezkionetatik, ez eta gizakien gaiztakeriari darizkionetatik ere. Hona hemen zer dioen: «Berak libratuko zaitu ehiztariaren saretik eta izurri galgarritik. Bere hegalpean emango dizu gerizpe, haren lumapea izango duzu babesleku, haren zintzotasuna ezkutu eta armadura. Ez diozu beldurrik izango gauaren izuari, ez egunez hegaz doan geziari, ez ilunpeetan dabilen izurriari, ez eta eguargian jotzen duen gaitzari ere» (Sal 91,3-7). Ondoren, [Jainkoak] gizakien gaiztakeriaren kontra eman duen babesari buruz, honela erraten da: Baldin gerta balekizu, bidean zoazela, borroka-zelai zabal batetik igaro beharra, non zure ezkerrean mila hildako erori, eta zure eskuinean hamar mila, ez zaizu batere txarrik gertatuko; baina begiratu eta zeure begiekin ikusiko duzu nola Jainkoak epaitu eta zigortu dituen heriotzak jotako gaizto horiek, eta zu, ordea, babestu zaituen. Horixe da berba hauen zentzua:

«Zure ezker aldean mila eta zure eskuinaldean hamar mila erorita ere, zu ez zaitu joko. Begiak zabaldu orduko ikusiko duzu gaiztoen zigor-ordaina» (*ibid.* 7 eta 8. bert.) Ondoren, pertsona zuzena nola babestua den xeheki azaldu eta gero, babes handi horren arrazoia ematen da, erranez Aurreikusmen Gorenak gizaki hori gainetik zaintzeko kausa dela: «Niri atxikia¹⁴⁶ dagoenez gero, onik aterako dut; toki seguruan jarriko dut, ene izena ezagutzen duelako» (*ibid.* 14. bert.). Aurreko kapituluetan azaldua dugu jada «Jainkoaren izena ezagutzea»ren esangura ‘Jainkoa bera ulertzea’ dela; beraz [salmistak] nolabait hau dio: Halako gizakiak ene babesa dauka, eta hori da ni ezagutzen ikasi eta ondoren ni kartsuki maite nauelako. Badakizu בֹּהֶה *bôhe*’ (= ‘maitatzaile, maitale’) eta חֶשֶׁק *hôšēq* (= ‘kartsu, suharra’) hitzen arteko aldea; maitasuna, halako muturreraino eramaten denean, non ezin duen objektu maitearengan besterik pentsatu, grina baita.

Filosofok ere aldarrikatu dutenez, gartzaroan gorputzaren indarrak nolakotasun moral gehienentzako oztopo izaten dira, eta are arrazoi handiagoaz, Jainkoa kartsuki maitatzera daramaten ideien hobekuntzatik sortzen den pentsaera huts horretarako. Ezinezkoa da gorputzaren humoreak irakiten ari diren artean pentsamendu hori sortzea, baina gorputzaren indarrak ahultzen eta nahien sua itzaltzen den neurrian, adimena sendotu, horren argitasuna handitu, berorren ulermenak gero eta argitasun handiagoa dauka, eta ulertu duenagatik are atsegin nabarmenagoa sentitzen du, halako moldez non, urteen pisuaz makurturik eta hiltzeaz dagoen gizakiarengan, ulermen horrek hazkuntza handia hartzen, ulertu duenagatik poztasun oso bizia ematen eta horren objektuarenganako egiazko grina iradokitzen baitu, harik eta, poztasun horren erdian, arima gorputzetik aldendu arte.

Egoera hori aipatu dute doktoreek, Moisesen, Aaronen eta Miryamen heriotzaz mintzatzean, hirurok musu banaz hil zirela erranez. Haiek diotenez, pasarte honek «Eta Moises, Yhwh-ren zerbitzaria, hantxe hil zen, Moab herrialdean, Yhwh-en ahoaz (= ‘borondateagatik’)

(Dt 34,5) Moises musu batez hil zela irakasten digu; hori bera erraten da Aaronez ere: «...Yhwh-ren ahoz (= ‘aginduz’) eta bertan hil zen» (Zkiak 33,38); eta gauza bertsua diote Miryamez ere, musu baten ondorioz hil zela, baina honetaz ez da erraten «Yhwh-ren ahoaz», hura emakumezkoa zelako, eta horregatik ez zen komeni harekin alegoria horretaz baliatzea (*Baba’ Batra*’ 17a). Horren bidez

adierazi nahi dute hirurak hil zirela ulermen horrek sentiarazi zien poztasunean eta maitasunaren bizitasunagatik. Pasarte horretan doktooreek metodo alegoriko ezaguna erabili dute, eta horren arabera ulermen horri, gizakiak Jainkoarenganako sentitzen duen maitasun bortitzaren ondorioari, «musua» deitzen zaio, erran den bezala: «Eman biezat musu, bere ezpainez musu!» (Kant 1,2). Heriotza mota hori, diote, zeinen bidez gizakiak benetako heriotzatik ihes egiten duen, Moisesi, Aaroni eta Miryami besterik ez zitzaien heldu; beste profetak eta gizaki jainkotiarrek maila honen azpitik daude. Baina guztiengan, adimenaren ulermena indartu egiten da [gorputzetik] aldentzean, errana denez: «Justizia izango duzu aurretik gidari eta Yhwh-ren presentzia atzetik babesgarri» (Is 58,8). Honen ondoren, adimen horrek egoera horretan dirau betiko, [xedera heltzea] eragozten zion oztopoa jada kendua izan delako; orduan berak poztasun handi hori etengabe sentitzen du, gorputzeko poztasunetatik guztiz ezberdina dena, geure obretan erakutsi dugunez eta beste batzuek ere gu baino lehenago ere erakutsia duten bezala.

Saia zaitez kapitulu hau ulertzen, eta egin zeure ahalegin guztiak Jainkoarekin egon zaitezkeen uneak ugaltzeko, edo Harengana igotzen jarduteko, eta beste gauzez arduratzen zareneko uneak gutxitzeko, Harengana heltzen bilatu gabe. Kontseilu hauek aski dira Tratatu honetan neukan helbururako.

[Gizakiak Jainkoarekin darabilen portaeraz, erlijio-praktikak, beldurra eta maitasuna]

Bere etxean bakarrik dagoen gizonak, eseri, mugitu eta zerbaitetan jardutean, ez du hori egiten, errege baten aitzinean eginen lukeen bezala; bere etxekoekin edo senideekin dagoenean, askatasunez eta bere gogara hitz egiten du, hau da, erregeren aretoan mintzatuko ez litzatekeen bezala. Hortaz, giza betegintza erdietsi eta egiazki Jainkoaren gizona izan nahi duenak ideia honetaz ongi jabetu beharra dauka: berari laguntzen dion eta beti lotzen zaion errege gorena are handiagoa dela edozein giza errege baino, berau David zein Salomon

izan arren. Laguntzen dion eta lotzen zaion errege hori gure gainera isurtzen den adimena da, gure eta Jainkoaren arteko lotura dena; eta era berean, Hura hautematen dugu Berak gure gainean isurtzen duen argiaren bitartez, errana den bezala: «zure argiaz ikusten dugu argia» (Sal 36,10); halaber, argi horren bidez behatzen digu eta horrexen bitartez dago betiere gurekin, bere begiradaz inguratzen gaituela: «Nor bait ezkuturik ezkutuenean gordeta ere, ez ote dut nik ikusiko?» (Jr 23, 24). Hori ondo ulertu beharra dago eta konturatu, gizaki beteginak, behin berori sakonki ikasi eta gero, egia-aren bideetatik, eta ez irudimenarenetatik, helduko direla halako debozio-, apaltasun-, Jainkoarenganako beldur- eta errespetu-maila batera, eta Jainkoaren presentzian hain lotsa handia sentituko dutela, eta halako moldez, beren barruan, beren emazteekin edo bainuan direnean ere, jendaurrean, gizaki guztien aitzinean arituko balira bezala jokatu-ko dute. Horrela, konparazione, haxe errana da gure doktore ospetsuek beren emazteekin erabiliriko jokabideaz: «zehe bat agertuz eta zehe bat estaliz» (נְדָרִים *Nedarim* 20a, b). Beste leku batean hau errana da: «Nor da gizon lotsorra? Gauean premia bat asetzen duena eguargiz eginen lukeen bezala» (בְּרָכוֹת *Berakôt* 62a). Badakizu, halaber, doktoreek galarazi egin zutela «tente ibiltzea», «Lur osoa Jainkoaren gloriaz beterik dago»elako» (Is 6,3) (קִדְדוּשִׁין *Qiddušin* 31a). Horrek guztiorrek jada mintzatu natzaizun ideia berresteko xedea du, hau da, gu beti Jainkoaren aurrean aurkitzen garela, eta Haren maiestatearen presentzian ari garela joaten eta etortzen. Doktorerik handienak are buru hutsik gelditzetik ere begirutzen ziren Jainkoaren Maiestateak gizakia inguratzen duelako. Arrazoi berberagatik gutxi mintzatzen ziren; 'Abôt tratatuan jada aski azaldu genuen zergatik gutxi hitz egitea ona den: «Zeruan baita Jainkoa, eta zu lurrean; ez egin, bada, hitz asko» (Qoh 5,1).

Zure arreta erakarri dudan ideiak badauka barruan, era berean, Legeak agintzen dituen praktika guztien helburua; izan ere, ohiko xehetasun horietan enplegatuz eta horiek errepikatuz, gizon bikain batzuk saiatu eginen dira giza betegintzara heltzeko, eta horrela, Jainkoaren beldur izanik, Bera errespetatu eta gurtu, haiekin nor den ezagutuz, eta horretara, ondoren, behar dena eginen dute. Jainkoak berak azaldu du Legeak agintzen dituen praktika horien guztien helburua haxe dela, horiexen bidez, egia gorenak dakizkitenek inpresio horiek

jasotzea, kapitulu honetan frogatu dugunez beharrezkoak dituzte eta, hots, Jainkoaren beldur izatea eta Haren aginduak errespetatzea. «Lege honen xedapen guztiak, liburu honetan izkiriatuak, arretaz betetzen ahalegintzen ez bazarete, Yhwh-ren izen lorios eta beldurgarria duen zeuen Jainkoari begirunea izanda.» (Dt 28, 58). Badakusazu argi dioela «Lege honen xedapen guztiek» ez dutela xede bakar bat besterik, hau da, *izen horrenganako beldurra sartzea*, etab., eta helburu hori praktiken bidez erdietsi behar dela, bertset honetako hitzek diotenez: «arretaz betetzen ahalegintzen ez bazarete», hor argi erraten baita hori praktiken ondorioa dela, hots, baiezko eta ezezko aginduak betetzearena. Eta Legeak irakasten dizkigun ideiei dagokienez, hau da, Jainkoaren existentzia eta Beraren batasuna, horiek Harenganako maitasuna sorrarazi behar digute, maiz erakutsi dugun bezala, eta zerorrek badakizu zer-nolako oldarraz ekiten duen Legeak maitasun horretaz: «bihotz-bihotzez, gogo osoz eta ahal guztiaz» (Dt 6,5). Izan ere, helburu bi hauek, hots, Jainkoarenganako maitasuna eta beldurra, bide bitatik erdiesten dira: maitasunera Legeak bere barruan Jainkoaren existentziaren egiazko doktrinaz dauzkan ideien bitartez heltzen da; beldurrera Legearen praktika guztien bidez ailegatzen da, erakutsi dugun bezala. Ongi ulertu behar duzu azalpen labur hau.

נ BERROGEITA HAMAHIRUGARREN KAPITULUA

[חֶסֶד ḥēsed ‘ontasuna’, מִשְׁפָּט mišpāt ‘justizia’ eta צְדָקָה ṣedāqāh ‘zintzotasuna’ hitzen azalpena]

Kapitulu honek argitu beharreko hiru hitzen azalpena dauka: *ḥēsed*, *mišpāt*, eta *ṣedāqāh*. Jada *’abôt* iruzkinean adierazi dugunez, *ḥēsed*-ek gauza guztietan ‘soberazkoa’ adierazten du, horiek edonolakoak izan arren, baina maizenik gehiegizko eskuzabaltasuna errateko erabiltzen da. Gauza jakina da eskuzabal izatea bi adieratan erraten dela: 1) ezertxo ere zor ez zaionari ongi egitea; eta 2) merezi duenari ongi egitea, baina merezi ukan duena baino gehiago eskainiz. Liburu profetikoek *ḥēsed* hitza gehienetan ‘deus zor ez zaionari ongi egitea’ adieran erabiltzen dute; hori dela eta, Jainkoarengandik datorren mesede orori *ḥēsed* deitzen zaio, errana den bezala: «Gogoratuko ditut Yhwh-ren mesedeak (חֲסֵד ḥasde)» (Is 63,7); eta horrexegatik unibertso

hau guztiau ere, erran nahi baitut Jainkoak eginiko sortzapena, *hèsed* deitzen zaio, erranaren arabera: «Jainkoaren ontasunak (דסח *hèsed*) eratu du unibertsoa» (Sal 89,3), erran nahi baitu ‘unibertsoaren sorrera mesede bat da’. Jainkoak areago dio, bere atributuak kontatzean: דסח ורב *we-rab hèsed* ‘onginahiez betea’ (Ir 34,6).

Bestalde, *ṣedāqāh* hitzaz den bezainbatean, צדק *ṣèdeq* berbatik dator, ‘[guztiekiko] zuzentasuna’ adierazten duenetik. Zuzentasunak esan nahi du [bere alde] eskubide bat argudia dezakeenari zuzena egitea, eta nori berea ematea, bere merezimenduen arabera. Halere, liburu profetikoetan, ez zaio lehen adierari *ṣedāqāh* esaten, hots, beste batekiko dituzkezun zorrak kitatzeari, zeren, soldatapekoari bere alokairua ordaintzen badiozu, edo zeure zorra kitatzen baduzu, hori ez baita *ṣedāqāh*. Hitz hori, aldiz, beste batekin, moral zintzoaren ikuspegitik, dituzun betebeharrak konplitztea adierazteko erabiltzen da; esaterako, edonolako gaitza sufritzen duena kontsolatzeta. Hori dela eta, bahituran harturikoa itzultzeko beharraz, hau errana da: «Eta Yhwh-k, zure Jainkoak, hori zuzentasun-egintzatzat hartuko du kontuan» (Dt 24,13). Izan ere, zerori bertute moralen bidetik bazabiltza, zeure arima arrazionalarekiko zuzena zara, horri buruz zeure eginbeharra betetzen duzu eta. Bertute moral orori *ṣedāqāh* izena ematen zaionez gero, honela erraten da: «Eta Abrahamek sinetsi egin zuen Yhwh-rengan, eta horregatik [Hark] zuzenetsi (*ṣedāqāh*) egin zuzen» (Has 15,6), hor fedearen bertutea aipatuz, beste pasarte honetan bezalaxe: «Eta guretzat zuzena (*ṣedāqāh*) izanen da Haren agindu guztiok betetzen saiatzea» (Dt 6,25).

Eta *mišpāt* hitzari dagokionez, horrela auzipean dagoenaz ematen den epai zuzenari deritzo, berori aldekoa zein aurkakoa izan.

Laburtzeko, *hèsed* berba erabateko eskuzabaltasunerako erabiltzen da; *ṣedāqāh* bertute moralaren ikuspuntutik egiten duzun edozein ongiri deritzo, horrekin zeure arima hobetzen duzula; eta, azkenean, *mišpāt* deituak ondorioz gaztigua zein saria ukan dezake. Errana dugu jada, [jainkozko] atributuak ukatzen mintzatu ginenean¹⁴⁷, profeten liburuetan Jainkoari egozten zaion atributu oro, *egintza-atributua* dela. Horrela, gauza guztiei existentzia ematen dien aldetik, חסיד *hāšîd* ‘ongilea’ deitzen zaio; izaki ahulengana duen biguntasuna kontuan izanik, hau da, bizidunak beren gaitasunen

bidez gobernatzen dituen neurrian, צדיק *ṣaddîq* ‘zuzena’ deritzo; azkenean, unibertsoan gertatzen diren hala-holako onen eta era bereko zorigaitz handien ikuspuntutik, horiek [Jainkoaren] jakinduriari darion epaitzearen ondorio izanik, שופט *šôfêṭ* ‘epailea’ erraten zaio. Hiru hitzok Pentateukoan ageri dira, esaterako: «Mundu osoaren epailea...» (Has 18, 25); «Zintzoa da, eta zuzena» (Dt 32,4); «Jainko bihozbera eta errukiorra» (Ir 34,6). Hitz horien esangura azaltzean, [irakurlea] hurrengo kapitulurako prestatzea genuen helburu.

נב BERROGEITA HAMALAU GARREN KAPITULUA

[חכמה *ḥokmāh* ‘jakinduria’ hitzaren lau balioak.
Gizakiaren egiazko jakinduria zertan datzan]

Ḥokmāh hitza (חכמה), hebreeraz, lau adieratan erabili ohi da: 1) Azken helburutzat Jainkoa hautematea duten (filosofiazko) egiak hautemateari erraten zaio, eta [adiera horretan] honela erraten da: «Baina jakituria (*ḥokmāh*) non aurkituko da?» (Job 28,12); «Eta bilatzen baduzu, zilarra bilatzen den bezala...» (EsZah 2,4), eta beste anitz pasartetan. 2) Edonolako arte, antze edo trebetasuna edukitzeari erraten zaio, adibidez: «zuen arteko artista [antzetsu, trebe, חכם לב *ḥākām leb*] guztiak» (Ir 35,10); «eta emakume trebe guztiak» (*ibid.* 25. bert.). 3) Bertute moralak eskuratzeari deritzo adibidez: «Eta agureei jakinduria irakastea [יחכם *yehākem*]» (Sal 105,22); «Jakinduria agureengan datza» (Job 12,12), zahartasun hutsez eskuratzen dena, bertute moralak jasotzeko gaitasuna baita. 4) Era berean finezia eta maltzurkeria esanguraz erabiltzen da, esaterako: «Tira, erabil dezagun maltzurkeria (נחכמה *nithākamah*) haren aurka» (Irt 1,10). Adiera horretan hau esaten da: «Eta handik emakume maltzur bat (אשה חכמה *išāh ḥokmāh*) ekarrarazi zuen (II Sm 14,2)», erran nahi baita: «fineziaz eta azkartasunaz hornitua». Gauza bera da pasarte honetan ere: «Gaiztakeriarako trebeak (= חכמים *ḥakamîm*)» (Jr 4,22). Litekeena da, *ḥokmāh* hitzak [antzina] hebreeraz ‘zolitasuna’ eta ‘pentsamenduaren aplikazioa’ erran nahi izatea, eta, horrela, zolitasun edo buruargitasun horrek bai adimeneko bertuteak, bai bertute moralak, bai arte praktikoko batekoak, bai maltzurkeriak eta bai trikimailuak ere eskuratzeko helburu izatea.

Horretara, argi dago *ḥākām* adjektiboa bertute intelektualak edo bertute moralak, edonolako arte praktikoa edota maltzurkeria eta trikimailuetarako trebezia dauzkanari aplikatzen zaiola.

Azalpen horren arabera, Lege osoan ikasia denari, eta horren egiazko zentzua dakienari, bi ikuspuntutatik *ḥākām* deitua da, aldi berean bertute intelektualak eta bertute moralak besarkatzen dituelako. Baina Legearen egia intelektualak tradizioz onartuak izaten direnez, metodo espekulatiboen bidez frogatuak izan gabe, profeten liburuetan eta doktoreen hitzetan Legearen zientziarekin aparteko gauza bat egiten da, zientzia absolutuarekin egiten denez. Zientzia absolutu hau da guk tradizionalki Legeaz ikasi ditugun egia intelektual guztietarako frogak eskaintzen dituen; eta Eskriturek zientziak dituen gauza handi eta miresgarriez eta berori daukaten pertsonen bakantasunaz hitz egiten duten bakoitzean, adibidez, «Ez dira asko jakintsuak» (Job 32,9); «Baina nondik aterako da jakinduria?» (*ibid.* 28,12), eta antzeko beste anitz pasarte ere bai, hor, betiere, Legean aurkitzen diren ideia [filosofikoen] frogantza ematen digun zientzia ageri da. Doktoreen esanetan ere hori oso maiz gertatzen da, erran nahi dut Legearen zientziarekin aparteko gauza bat egiten dutela, filosofiarekin ere beste gauza bat egiten duten bezala. Horrela, adibidez, Moisesez badiote hura «Legearen aita, zientziaren aita eta profeten aita» zela, (מגילה *Megillah* 13a) zela; eta Salomonez hau erratean: «Hura gizon guztietarik jakintsuena zen» (1 Erg 4,31, *item* 5,11), doktoreek ohar hau egiten dute: «Baina ez Moises baino jakintsuago» (ראש השנה *Roš ha-šana* 21b); izan ere, «gizon guztietarik jakintsuena» erratean hori haren garaikideez besterik ez da adierazi nahi izan; horregatik aipatzen dira Eman, Kalkol eta Dorda, *Maḥolen* semeak, orduan jakintsu ospetsuak zirenak. Doktoreek diotenez, gainera, gizakiari Legearen zientzia eskatzen zaie, ondoren filosofia, eta, azkenean, Legearen inguruko tradizioa, hau da, hortik portaera-arauak ateratzen jakitea. Horrek izan behar du ikasketen elkarren ondoko ordena: lehenik delako ideia tradizionalak ezagutu behar dira, ondoren horiek frogatzen jakin, eta, azkenik portaera ona eratzen duten egintzez kontu zehatza izan. Hona hemen zer dioten, hiru gauza horien inguruan, gizakiari elkarren ondoan egiten zaizkion galderez: «Gizakia zeruko epaitegiaren aitzinean aurkez dadinean, lehenik hau galdetzen zaio: Utzi al zenituen seinalaturik ordu batzuk, Legea estudiatzeko?

Zientziaz eztabaidatu al duzu? Ikasi al duzu gai batzuk beste batzuen bidez argitzen?» (*Šabbat* 31a). Beraz, agerian dago, haien ustez, Legearen zientzia gauza bat dela eta filosofia aparteko gauza bat dela: berau Legearen egiak egiazko espekulazioaren bitartez berrestea da. Eta aurretiko hauen guztien ondoan, entzuzu erranen duguna,

Antzinako eta oraintsuko filosofoek erakutsi dutenez, giza-kiarengan lau hobekuntza mota aurkitzen dira¹⁴⁸.

Lehen mota, baliorik txikiena daukana –baina Lurreko bizilagunek horri beren bizitza osoa eskaintzen diote–, edukitze aldetiko hobekuntza da; horrek gizakiak ondasunetan, soinekotan, altzaritan, esklabotan, lurretan daukana besarkatzen du, eta errege-maila lortzea ere mota honetakoa da. Hobekuntza hori ez da pertsonarekin ezertan lotzen; nolabaiteko harremana baino ez da, eta, gehienez ere, ez dakarkio gizakiari irudimenezko poztasuna besterik, honelakorik erratekoa: etxe hau nirea da, esklabo hau nirea da, ondasun hau nirea da, tropa horiek nireak dira. Baina bere pertsona kontsideratuz gero, hori guztiori bere esentziatik landa dagoela aurkituko du eta bere edukietako bakoitza, berez badena besterik ez dela; horregatik, harreman hori eteten denean, lehenago errege handia zenaren eta gizakirik ezdeusenaren artean ez dela ezberdintasunik aurkituko da, horregatik harekin harremanetan zeuden gauzetarik batek ere aldaketarik izan gabe. Filosofoek erakutsi dutenez, era horretako hobekuntzak lortzeko ahaleginak egiten dituen irudimen hutsezko gauza batengatik besterik ez da nekatzen ari; hori egonkortasunik gabeko zer baita, eta baldin jabetza horrek bizitza osoan iraunen balio ere, horregatik bere esentzian ez litzaioke ezein ere hobekuntzarik helduko.

Bigarren motak, are lehenengoak baino gehiago, pertsonaren esentziarekin dauka harremana; gorputzaren eraketa eta egokieraren hobekuntza da, erran nahi baitut, pertsonak tenperamentua erabat berdina ukaitea, haren atalak proportzionatuak izatea eta behar adinako indarra edukitzea. Era honetako hobekuntza bera ere ezin har daiteke azken helburutzat, hori gorputzaren hobekuntza bat besterik ez baita, gizakiak gizaki den aldetik ez, baina animalia den aldetik daukana, eta animaliarik zitalenekin ere batera duena. Bestaldetik, gizabanako baten indarra bere goren punturaino heldua balitz ere, ez litzateke helduko mando sendo baten adinakoa izatera, eta are arrazoi

handiagoz, lehoi baten edo elefante batena. Hobekuntza horren bidez, erran berri dugunaren arabera, gehienez ere zama pisutsu bat edo hezur gogor bat haustera iristen da, edo beste antzeko gauzak egitera, baina horietan ez da gorputzarentzat baliagarritasun handirik izaten, eta, arimaren abantailei dagokienez, era honetako hobekuntzak ez dauka batere.

Hirugarren mota, bigarrena baino areago, bada giza esentziarako hobekuntza bat: bertute moralen hobekuntza, erran nahi baita, halako gizakiaren ohiturak onak direla punturik gorenean. Agindu gehienek ez dute beste xederik gu era honetako hobekuntzara helaraztea baino. Baina bera ere ez da prestakuntza gisako bat besterik beste hobekuntza batera iristeko, eta ez da berez helburua. Izan ere, bertute moral guztiak soilik gizakien arteko harremanei dagozkie, eta gizaki batek daukan hobekuntza moralak bera besteentzat baliagarri izateko egokiaraztea besterik ez du egiten. Horrela, esaterako, giza banako bakartu bat pentsatzen baduzu, inorekin zerikusirik gabea, horren bertute moral guztiak hutsalak eta alferrekoak direla konturatuko zara, ez duela horien premiarik behar eta ez dutela ezertan ere horren pertsona hobetzen; ez ditu behar eta ez du horietarik inolako probetxurik ateratzen besteeikiko harremanetan ez bada.

Laugarren mota egiazko giza hobekuntza da; eta bertute intelektualak eskuratzean datza, hau da, gauza ulergarriak bururatzea, horiek gai metafisikoez ideia zuzenik eman diezagukete eta. Horixe da [gizakiaren] azken xedea, giza banakoari egiazko hobekuntza dakarkiona; hori berari bakarrik dagokio, eta horri esker lortzen du berak hilezintasuna, eta berorrengatik da gizakia [egiazki] gizaki. Aurreko hiru hobekuntza horietako bakoitza kontsideratzen baduzu, mesede besteri egiten diotela aurkituko duzu, eta ez zuri, uste arruntan arabera horiek, probetxua, nahitaez, bai zuri eta bai besteri egiten dieten arren; baina azken hobekuntza hau zeuri ez besteri egiten dio mesede, eta beste inork ez du zurekin parterik hartzen probetxuan: «Izan bitez zuretzat bakarrik...» (EsZah 5,17). Horrengatik zuretzat gelditzen den gauza hori lortzeko irrikaz egon behar duzu, eta ez zaitez neka, ez ahaleginetan ibili besteri probetxu egiten dionagatik, zure arimaren kaltean, horren distira gorputz-gaitasunen nagusitasunaz lauso ez dadin. Zentzu horretan errana da, alegoria poetikoen hasieran, gai hauen gainean: «Neure nebek, nirekin haserre, mahastiak zaintzen jarri

naute. Eta neure mahastia utzi dut zaindu gabe!» (Kant. 1,6). Zentzu berean ere haxe errana da: «Arrotz edo bihozgaberen bati eman ez diezazkion zure ohorea eta bizia bera» (EsZah 5,9).

Profetek ere gai berberok erakutsi eta argitu dizkigute, filosofoek bezalaxe, erranez, ezen ez edukitzea, ez osasuna, ez ohiturak, direla inor bere burua harrotzeko moduko hobekuntzak, ez eta nahi izatekoak ere, eta harro sentiarazteko eta nahi izateko hobekuntza bakarra Jainkoaren ezagutza dela, egiazko zientzia horixe baita. Jeremias honela mintzo da lau hobekuntza hauei buruz: «Honela dio Jaunak: Ez bedi harro jakintsua bere jakinduriaz, ez indartsua bere indarraz, ezta aberatsa bere aberastasunaz ere. Harrotu nahi duena harro bedi honetaz: adimentsu izateaz eta ni ezagutzeaz» (Jr 9, 22-23). Konturatu bide zara nola aipatu dituen gauza horiek, hots, jende arruntak ematen dien balio-mailaren arabera. Izan ere, jende arruntarentzat hobekuntzarik handiena aberatsa izatea da; sendoa izatea bertute apalagoa da eta are estima txikiagoa du [jendearentzat] jakintsu izateak, hau da, ohitura onak dauzkana. Halere, berori ere ohoratzen du jende arruntak, [profetaren] mintzaldia berorri igortzen zaio eta. Horra hor zergatik ordena horretan aipatu dituen.

Doktoreek ere bertset hori guk aurkeztu berri ditugun ideien zentzuan ulertu dute, eta argiro diote kapitulu honetan erakutsi dizudana, hots: jakinduria nagusiaz (*hokmāh*) mintzatzen den guztietan, azken xedea berau, hori Jainkoaren ezagutza dela; gizakiak hain kartsuki desiratuak dauzkan altxorrak, zeintzuengatik uste baitu hobezen bilakatzen dela, horiek ez direla hobezeintasuna; eta, azken buruan, erlijioaren praktika guztiak, hau da, gurkera-zeremoniak oro, bai eta gizakiei, oro har, baliagarri zaizkien ohiturak ere, hori guztia ez da azken helburu horretara bideratzen, eta prezio berbera ere ez du, baina horiek xede horretara heltzeko prestatze-ariketak direla. Entzun itzazu haien hitzak berak, beren ideiak adierazteko erabiliak; *Berēšīt Rabba'*-ren pasartea da (35), non hurrengo irakurtzen den: «Gutiziagarri den guztia ez da haren parekoa» (EsZah 8,11), eta beste hau ere bai: «Haren pareko altxorrik ez da» (*ibid.* 3,15). «Gauza gutiziagarriak» izenaz aginduen praktika eta egintza onak adierazten dira; «Altxor» edo zure nahietako objektuak, harri bitxiak eta perlak dira; baina ez batzuek ez besteez balio dute jakinduriak adina; baina «Harrotu nahi duena harro bedi honetaz: adimentsu izateaz eta ni ezagutzeaz» (Jr

9,23) (*Berēšīt Rabba*’ 35). Ohartuko zara hitz hauek, beren laburrean, zein zehatzak diren, eta horien egilea ere noraino zen hobezin, azalpen luze baten eta aurretiko halaber luzeen bidez erran eta aurkeztu dugun guztitik ez baitu deus ere erran gabe utzi.

[Jeremiasen] bertset horretaz eta barruan dauzkan ideia azpimarragarriez mintzatu ondoren, eta gai honetaz doktoreek erran dutena aipatu eta gero, orain edukia osatuko dugu: Bertset honetan xederik nobleena zein den erakustean, profeta ez da mugatu Jainkoaren ezagutza seinalatzeraz, helburua hori ukan balu hau erran baitzezakeen: «Harrotu nahi duena harro bedi honetaz: adimentsu izateaz eta ni ezagutzeaz», eta hortxe geldituko zatekeen, edo bestela hau erran zezakeen: «*adimenaz, eta nitaz edukitzen den ezagueraz, [jakinez] ni bat naizela, edo nik ez dudala figurarik*», edo «*ez dagoela ene antzeko inor*» edo antzeko beste gauza batzuk; baina erran duena haxe izan da: «harrotu nahi izatekotan, ni ulertzeaz eta nire atributuak ezagutzeaz [egin bedi]», Jainkoaren egintzez mintzatuz, hitz hauen inguruan erakutsi dugunez: «Ager iezazkidazu zeure asmoak..» (Irt. 33,13)¹⁴⁹. Beraz, bertset horretan jakinarazi digu Harengandik ezagutu eta eredutzat hartu behar diren egintzak חסד *hēsed* (‘onginahia’), מִשְׁפָּט *mišpāt* (‘justizia’) eta צְדָקָה *ṣedāqāh* (‘gogo-berdintasuna’) direla. Ondoren, funtsezko beste ideia bat gaineratzen du, dioela: «בְּאֵרֶץ *bā-’āreš* (‘lurraren gainean’), eta ideia hori erlijioaren gontza da. Ez baita gertatzen, sinesgabeek dioten bezala, hots, Jainkoaren Aurreikusmena Ilargiaren esferan gelditzen dela, eta Lurra, bertan aurkitzen den guztiarekin, alde batera uzten duela: «Yhwh Lurretik urrundu da» (Ez 9,9)¹⁵⁰; baina aitzitik, Jakintsuen Printzeak jakinarazi digunaren arabera: «Jakin dezazuen Yhwh-rena dela mundua» (Irt 9,29), erran nahi baita, ikuspegi batzuetatik, Aurreikusmenaren objektua dela, zerua ere, beste ikuspegi batzuetatik, den bezala. Horixe da [Jeremiasen] hitz hauen esangura: «Ni Yhwh naiz, munduan errukia, justizia eta zuzenbidea egiten dudana» (Jr 9,23). Ondoren, ideia hori osatzen du, erranez: «Horiek ditut nik atsegin. Nik, Yhwh-k, errana» (*ibid.*); honela aditu behar dena: «Nire asmoa onginahia, bertutea eta justizia zuengandik Lurraren gainera jariatzea da», Jainkoaren hamahiru atributuei buruz¹⁵¹ erakutsi dugunez, hots, geure xedea horiek imitatu eta horiexen arabera geure portaera erregelatu behar dugu. Horretara, bertset horrek adierazteko zuen azken helburua haxe

zen, gizakiak benetan harro egoteko duen hobekuntza, zeinek bere gaitasunaren arabera, Jainkoaren ezagutza erdiestea dela, eta Berak, goitik bere sorkariak zainduz, darabilen Aurreikusmena, eta berori haiek sortu eta gobernatzen dituen era horretan agertzen dela. Holako gizakia, ezagutza hori eskuratu ondoren, betiere arituko da errukiari, berdintasunari eta justiziari begira, Jainkoaren egintzak imitatuz, Tratatu honetan behin eta berriz erakutsi dugunez.

Hona hemen, neure ustez Tratatu honetan jorratu behar nituen kontu guztiak, horien garapena zu bezalako gizon batentzat oso mesedegarria irudituko zait eta. Espero dut, horretaz gogoeta sakona eginez, ongi ulertuko dituzula hor, Jainkoaren laguntzaz, jorratu ditudan gai guztiak. Berak bete dezala guran eta gure anaia israeldar guztiengan, egin zigun promesa hori: «Orduan itsuen begiak zabalduko dira, eta gorren belarriak irekiko» (Is 35,5); «Ilunpetan zebilen jendeak argi handia ikusi du. Heriotzaren itzalen herrian zeudenak argitasun distiratsuak inguratu ditu» (*ibid.* 9,1). Amen.

Jainkoa, bide zuzenetik okertu gabe, Berari zintzoki dei egiten dioten guztiengandik hurbil da. Hura bilatzen duten guztiei uzten die Bera aurkitzen, eta horien aurrean zuzen, bidetik okertu gabe, dabilzanez ere bai.

ALDERRAIEN GIDARIA-REN HIRUGARREN ZATIAREN
AMAIERA

[...]Eta hizkuntza batetik beste batera itzultzen duzun bakoitzean, egizu beti Jainkoak, gorets bedi!, eman dizun adimenaren arabera, horrela metaforak, alegoriak, jakintsuen hitzak eta berorien enigmak ulertzeko. Mintzaira batetik beste batera itzuli nahirik, eta hitz bakoitza horri dagokion beste batekin, soilki, ordezkatzuz eta testuaren eta hitzen ordena gordez itzultzen saiatzen denak ahalegin handiak egin beharko ditu, azken buruan, itzulpen badaezpadakoa eta nahasgarria lortzeko. Bide hori ez da zuzena. Itzultzaileak, batez ere, pentsamenduaren garabidea argitu behar du; ondoren, hura izkiriatu, beraren iruzkina egin eta azaldu, pentsamendu berberori beste hizkuntzan argi eta ulergarria izan dadin. Eta hori erdiesteko, batzuetan aurreko eta ondoko guztia aldatu beharra dagoke, hitz bakarra berba gehiagoren bidez emanez eta berba batzuk hitz bakarrarekin itzuliz, zenbait esaera aparte utzirik eta beste zenbait elkartzuz, harik eta pentsamenduaren garapena erabat argi eta ordenaturik gelditu arte, egiten ari garen itzulpena helburuko hizkuntza horren esaldi ohiko eta jatorrez osaturik balego bezala. Horrela egin zuen Hunain ben Yishʿaq-ek Galenoren liburuarekin, eta horren seme Yishʿaq-ek Aristotelesenarekin ere...

Mošeh ben Maimonek

Šemuʿel ben Yēhudah ibn Tibboni eginiko gutunetik (1199).

Oharrak

BIGARREN ZATIA

¹ *Cfr. Metafisika*, XII, 6.

² Hitz honekin egileak ‘antagonista’, ‘aurkako iritzia daukan lehiakidea’ adierazi nahi du, eta ez, bereziki, ‘aurkaria’. Aristotelesez ari da, berorrek munduaren betierekotasunaz daukan ideia Maimonek aurreaxeago gaitzetsi egiten du eta.

³ *Ikus* aurreko kapitulua, 3. espekulazioaren azken aldean.

⁴ Alexandro Afrodisiarraren tratatu hori ez zaigu heldu jatorrizko hizkuntzan, hots, grezieraz, baina Casirik latinez aipatzen duen *De rerum creatarum principiis* delakoa dela ematen du. Horren arabierazko itzulpena, ordea, Escorialean kontserbatzen da: DCCXCIC arabiar eskuizkribua.

⁵ *Ikus* I. zatia 72. kap.

⁶ *Cfr. id.* XII, 8.

⁷ *Ikus lehenago*, I. zatia, 64. kap.

⁸ מדרש *midrás* ‘eskrituraren azalpeneko ulerker’ hitzaren plurala.

⁹ Bibliaren hebreerazko testuak ‘nahas-mahas’ kontzeptua emateko antzeko hitz adierazkorra darabil: *וְבוֹהוּ* *tohu we bohu*.

¹⁰ *Ikus lehenago*, I. zatia, 72. kap. *Item, beherago*, II. 10. kap.

¹¹ *Ikus* I. zatia, 2. kap.

¹² «Hau da, gizakiak, ospe handiko pertsonaiak barne, maila behereagian daude Jainkoarekin parekatuak izateko pentsa ez dezan, bere buruari epaile eta menperatzaile iritiz, Hura gorensten duela (Munk)».

¹³ Seguruenetik grezierazko *στράτευμα* *strateuma* berbaz ari da, ‘armada’ esanguraz gainera, pluralean ‘zerbitzariak’ ere esan nahi duenaz. Gogoan izan latinezko *familia* bera ere *famulus* ‘otseina, zerbitzaria, jopua’ hitzetik heldua dela.

¹⁴ Giza haziaz ari da, hots, espermaz.

¹⁵ Hemen Maimonek berriz ere bere jaioterria aipatzen du, garai hartan Al-Andalusen zegoen kultur eta zientzi giroaz ongi jabeturik zegoela erakutsiz.

¹⁶ Garai hartan, ezagutzen ziren bost planetak Merkurio, Artizarra, Marte, Jupiter eta Saturno ziren, Ptolomeoren iritziaz bat, Lurraren inguruan zebiltzanak. Horrelaxe aipaturik ageri dira, Zaragozan, 1717an Jaime Barón y Arín-ek argitaratu zuen *Luz*

de la fe y de la Ley, entretenimiento christiano entre Desiderio y Electo, maestro y discípulo, en dialogo, y estilo parabolico; adornado con varias historias y moralidades, para enseñanza de ignorantes en la doctrina cristiana izeneko liburuaren euskal itzulpenean ere, Bonaparte ondareko eskuizkribuen artean argitaratuan (Iparraldeko goinafarrera-2, Deustuko Unibertsitatea (DEIKER), Bilbo, 1995, 703. or.). Eskuizkribuaren letra motagatik XVIII.ekoa dela jakin arren, euskal itzulpen horrek ez dakar datarik, baina Urano planeta William Herschel astronomoak 1781era arte ez zuela aurkitu kontuan izanik, pentsa liteke, –horrelako itzulpena egin zuenak neurri bereko jakin-mina eta kultura interesa ukan behar zuela uste badugu bederen–, euskaratzea urte hori baino lehenagokoa izan zela. Edonola ere, ikus lehen zatia 226, 227 eta 232. ohararak.

¹⁷ Hebreeraz מַזָּל *mazzāl* hitzak eskuarki ‘planeta’ adierazten du eta ‘zoria’ ere bai, munduko izaki guztiek sortu ziren uneko konstelazioen jarreraren arabera, beren horoskopotik hemengo bizimodu, zorte eta gobernuan eragiten diena. Izarrek eta, oro har, argizagi edo astroek (behialako euskara zaharrean *asturu*) mundutarren bizitzak gidatzen dituztelako uste hori erabat hedatu eta ondo sustraiturik zegoen Erdi Aroan, gure eta ingurukoen hizkuntzetan oraindik erabiltzen diren hitz eta esaldietan ageri denez: *asturu*, *asturugaitz*, *asturugaizki*, *asturugaiztu*, *asturutsu*, *malastrado*, *desastre*, *nacer con buena o mala estrella*, *estrellarse*,

naitre avec bonne ou mauvaise étoile, etab.

¹⁸ «Egileak hemen Ilargiaz dioena, ez soilki itsasoan gainea, baina ibaien emarian ere omen duen eraginaz, jadanik antzinako autore batzuen lanetan aurkitzen den hipotesia da. Halere, Aristotelesengandik heldu zaizkigun izkribuen artean, ia ez da aipamenik egiten itsasoaren gora-beheraldiez» (Munk).

¹⁹ *Ikus*, adibidez, Rabbi Eliezer-en *Pirqê*, IV. kap. Hor esaten denez, Jainkoaren tronua lau aingeru-legioz inguraturik dago, aurrean lau arkanjelu dutela: Mikel, Gabriel, Uriel eta Rafael» (Munk). Gai honi buruz ikus *La angelologia en la literatura rabínica y sefardí*, G. Gonzalo Rubio, Barcelona, 1977.

²⁰ *Mišnèh Tôrâh* deritzonaz ari da.

²² Hori adierazteko, יָצַר הָרָע *yeser hara* ‘dakur hebreeraz.

²³ *Ikus* III. zatia, 15. kap.

²⁴ «Ageri denez, Maimonen iritziz, Platon eta Aristotelesen arteko aldea honako hau da: beronek lehengaiaren betierekotasuna ez eze, mugimenduarena eta denborarena ere onartzen du, baina Platonek, aldiz, materiaren eta Kaosaren betierekotasuna onetsirik ere, halere, uste du, munduak, den bezalakoak, hasiera ukan zuela eta zerua, Ilargipeko multzo osoa bezala, Kaosaren ekoizkina dela, eta, beraz, bai mugimenduak eta bai denborak ere hasiera ukan dutela. Era horretara ulertu da eskuarki, arabiar eta eskolastikoen aldetik, Platonen iritzia» (Munk). Munken ohar hau,

bere osotasunean, 76 lerrotaraino luzatzen da.

²⁵ «Egileak zazpi froga aipatuko ditu, peripatetikoek horiekin munduaren betierekotasuna erakusteko ustean erabiliak. Frogatzeko zazpi metodo horiek, Maimonen arabera aipatuak, Alberto Handiak gezuratu zituen. Ikus *Suma Theologiae*. P. II quest. V, partic. 3: «De septem viis quas collegit Tabbi Moyses, quibus probatur mundi aeternitas» (Munk).

²⁶ *Cfr. Ortziatz tratatua*, I,3.

²⁷ Hau da, silogismo dialektikoen bitartez.

²⁸ Hebreera klasikoan, zenbakiak adierazteko, alfabetoaren letrak erabiltzen dira, grezieraz edo latinez ere ohikoa zen bezala. Halere, 15 eta 16 zenbakiak eratzean, hurrenez hurren, יה eta יו sortuko lirateke, baina horiek, halaber, יהוה *Yhwh* 'Jainkoa' eta יושר *Yōšer* 'Sortzailea' hitzen laburdurak dira, eta, Jainkoarenganako errespetuagatik, טו (= 9 + 6) eta טז (= 9 + 7) formekin ordezkatzzen dira.

²⁹ *Cfr. Fisika*, VI, II, I.

³⁰ *Cfr. I*, 10.

³¹ Hots, 'Aristotelesenganako mirespenezko sutsutasunaz itsuturik'.

³² *Cfr. Topikoak I*, 11.

³³ Galenok mundua sorrarazia izan zen ala ez jakiteko galderari alferreko eta baliogabe deritzo (Ikus *De Hippocratis et Platonis dictis*, IX. Lib., 7. kap.)

³⁴ Hau da, mundua, Bibliak dioenez, sorrarazia barik, betierekoa dela.

³⁵ Honetan ere, Ben Maimon bere garaiko semea da eta, ezinbes-

tean, orduko jakite eta kontzeptuak darabiltza. Gogoan izan Antony Van Leeuwenhoek naturalista holandarrak (1632-1723) mikroskopioa aurkitu arte ezin izan zirela bizidunen ugaltze-zelulen egiazko izaera, forma eta zereginak egiazki aztertu.

³⁶ *Ikus lehenago*, 14. kap. 5. metodoa.

³⁷ *Ikus lehenago*, 14. kap. 6. metodoa.

³⁸ *Ikus lehenago*, 14. kap. 7. metodoa.

³⁹ *Ikus III. zatia*, 13 eta 17. kap. *Item I. zatia*, 69. kap.

⁴⁰ *Cfr. Ortziatz tratatua IV*, 4 eta 5.

⁴¹ *Cfr. Ortziatz tratatuz*, II,12)

⁴² *Cfr. בַּבָּא בַּתְרָא* *Baba' Batra'* 16 b. *Talmud*-aren arabera, Abrahamek astronomia arloan jakinduria handia zeukan eta Ekialde eta Mendebaldeko errege guztiak harengana joaten ziren, galde egitera.

⁴³ *Ikus lehenago*, I. zatia, 70. kap.

⁴⁴ *Cfr. Fisika II*,4.

⁴⁵ Munkek honela azaltzen du Maimonen pasarte honen esangura: «Aristotelesek, munduaren existentziari *halabeharrezko* baderitzo ere, ez du uste, halere, horregatik mundua saihetsezintasun itsuaren ondorioa denik, egiten duenaren kontzientziarik ukan gabe diharduen kausa batengandik sortua, itzala sortzen duen gorputza bezala, baina, aitzitik, Jainkoa adigarriaren [kausa] dela, hori holakoa den heinean, nahitaez adimenak pentsatu eta ulertua izanik».

⁴⁶ *Cfr. Metafisika XII*, 7.

⁴⁷ *Ikus lehenago*, 13. kap.

⁴⁸ Abraham eta Moises, lehentxeago aipatuak.

⁴⁹ *Ikus lehenago*, I. zatia, 63. kap. 186. oharra.

⁵⁰ *Ikus lehenago*, 19. kap.

⁵¹ Ptolomeo, Alexandrian, K.o. II. mendean bizi izandako astronomo, matematikari eta geografo ospetsuaren *Astronomia* liburuaren arabierazko itzulpenaren izenburua. Hor sistema geozentrikoa azaltzen da, egilearen izena daramana, Lurra unibertsoaren zentrotzat harturik, zeruko gainerako gorputzak horren inguruan biraka dabiltzala uste duena. Erdi Aroan hori izan zen eskuarki onartzen zen sistema, Mikola Kopernik-ek (1473-1543) Eguzkia zentroan zuen sistema heliozentrikoa erakutsi arte.

⁵² Kapitulu aski luze honetan Ben Maimonek bere tratatuaren hartzailearentzat idazten du (ikus I. zatia-aren Sarrera eta Atariko oharra). Jakin badakigu behin berau Magrebetik alde egin eta Alepon finkatu eta gero, Ben Maimonekin Kairo Zaharrean egotalditxo bat eman zuela, astronomia-ikasketetan murgildurik.

⁵³ Cf. *Almagesto*, XIII, 2.

⁵⁴ Arabieraz باطني *bāṭinī*, hau da, 'alegorista'; بطن *baṭn* 'sabela, barrukoa' berbatik eratorririko hitza.

⁵⁵ *Ikus lehenago*, 13. kap.

⁵⁶ Antzinako rabbiak zazpi gauza aipatzen dituzte, beren ustez munduaren sorrera baino lehenago

sortuak, eta horietako bat *loriaren tronua* da (Munk).

⁵⁷ «Moises Narbonakoaren arabera, egileak R. Eliezerrek, esaldi horren bidez, materia garbi eta distiratu adierazten duela azaldu nahi du, eta ez Jainkoaren atributu bat» (Munk).

⁵⁸ Pasarte hau hobeki ulertzeko, *ikus lehenago*, I. zatian, 28. kap.

⁵⁹ «Beste pasarte batzuetan jada ageri izan denez, Maimonek hilezintasuna pertsona zintzo edo gizaki gorenei ez besteri egozten die, hau da, bizitza honetan *adimen eskuratu*a-ren mailara heldurikoei, baina fedegabeen arimak, edo mundu honetan bertutearen edo zientziaren bitartez gorabidea bilatzen aritu ez direnenak, suntsitzera kondenaturik daude» (Munk). Hor Esaera Zaharren aieru bat nabari daiteke (EsZah, 25,2): «Jainkoaren Loria gauzak estaltzea da, eta erregearen ohorea, aldiz, haiek ikertzea»; antzinako rabbiak pasarte hori Hasierako lehen kapituluari dautzan misterioei aplikatzen diote.

⁶⁰ Zalantzarik gabe, kristau eta musulmanei buruzko aipamena.

⁶¹ Maimonek hebreerazko אבה *ābāh* 'nahi ukan, onartu' eta arabierazko أبا *'aba* 'gaitzetsi, ukatu, errefusatu' aditzak parekatzen ditu, biek berdin ahoskatzen dira eta.

⁶² Arabierazko esaera honako hau da: وقعت له السماء على الأرض *wa qa'at lahu as-sama'a 'alai al-ard*.

⁶³ Mesopotamiako errege bi horien jatorrizko izenak, hebreeraz שִׁנְכַרִּיב *Senhakerib* eta נְבוּכַדְנֶצַּר *Nebukadnetzar* gisa agertzen direnak, *Sin-ekkhhe-eriba* (K. a. 705-

681) eta *Nabu-kudurri-ušur* (K. a. 630-561) ziren akadieraz.

64 Hebreeraz שבעה *šaba'ah* 'zazpi = asko' honetaz, gogoan izan Ebanjelioan ere ageri diren adibideak, hots, bekatua, «bekatuak ez soilki zazpi aldiz barkatzeko, zazpi bider hirurogeita hamar aldiz baizik» (Mat 18,21-22) eta «Anaiak egunean zazpi aldiz faltatzen badu zure kontra» (Luk 17,4): Gure euskarazko *hamaika* antzera (Cfr. *hamaika aldiz, hamaika lagun, hamaikatxo bider*, etab.)

65 Isaiasenak, lehentxoago, kapitulu honetantxe, zenbait aldiz aipatuak.

66 Moisesen makilaz ari da, Faraoiaren aurrean suge bihurtua (Ir, 7,10-12), Niloko ura ere odol bilakarazi zuen bezala (*ibid.* 20. bert.).

67 Legenarra dela eta, Cfr. Lb 13.

68 Esaera Zaharren 25,2ko aipua: «Jainkoaren Loria gauzak estaltzea da, eta erregearen ohorea, aldiz, haiek ikertzea», antzinako rabbiiek Hasieraren lehen kapituluko misterioei dagokiela.

69 *Ikus* 1. zatia, 11. Oharra

70 Gogoan izan euskaraz *hastapen* hitza, jatorriz ekialdeko euskalkietakoa, gaurko hizkuntza estandarrean batez ere adiera metaforiko eta filosofikoan berezia bada ere, jatorrizko esanguraz *hasiera* besterik ez zela (Cfr. Duvoisinien itzulpenean: «Hastapenean zen Hitza, eta Hitza Jainkoaren baithan zen...» Joan, 1,1). Beraz, hemen Maimonek egiten duen erabilera hau hitz horrek erdara gehienetan (hebr. ראשית *rē'šīt*, esp. *principio*, fr. *principe*, ing. *principle*.)

dituen bi adieretan –a) hastea, hasiera, b) hastapena, hatsarrea, funtsa– oinarritzen da.

71 Argitasun hau egoki egina da. Izan ere, burua, bere jarreragatik, animaliaaren hasiera da, baina aurreko oharrean aipatu den adiera metaforikoan, antzinakoen iritzian, animaliaaren hastapena bihotza da.

72 בראשית *b're'šīt* 'Hasieran' hebreerazko Torah edo Pentateukoa hasten deneko hitza da, eta horrexegatik berba horixe erabiltzen dute guk *Hasiera* (erd. *Génésis, Genèse*, grezierazko *γένεσις*-tik 'sor-rera') deitzen dugun lehen liburua aipatzeko.

73 Talmudisten ustez, mundu edo unibertso horietako bakoitzak sei mila urteko iraupena dauka, eta horiei anabasa edo kaoseko zazpi-garren milaurteko bat darraie, ondoren, beste mundu bat sortzeko. Leon Hebreok (*Dialoghi di amore*) uste hori Platonen iritziarekin lotzen du, berorrek Kaosaren betierekotasuna aldarrikatzen du eta.

74 San Tomasek Maimonen azalpen hau honela aipatzen du: «Rabbi Moy-ses... ignem significatum esse dixit per tenebras, eo quod ignis in propia sphaera non luceat, et situs eius declaratur in hoc quod dicitur super faciem abyssi» *Vid. Quaest. Disp. De Creatione*, IV, 1. art. Zohar-en egileak ere aipatzen du» (Munk).

75 Rabbiak exegesirako erabiliriko lau metodoak direla eta, פֶּרֶדֶס PaR-DeS 'baratzeta' (Cfr. *paradisu* hitza) siglan era mnemoteknikoan laburbil-duak, hots, פֶּשׁוּט *pešāt* 'bakuna', רִמּוֹ *rémé* 'aipua', דָּרֶשׁ *dārāš* 'erakuspe-

na' eta סוד *sôd* 'misterioa', ikus David Gonzalo Maeso-ren: *El Legado del Judaismo español*, Ed. Nacional, Madrid, 1972.

⁷⁶ *Ikus lehenago*, 10. kap.

⁷⁷ Esaera Zaharren 11,13 aipamena: «Berritsuak isilpekoak ere azaltzen ditu».

⁷⁸ Hebreeraz pasarte honetan hitz berbera erabiltzen da, genero-alda-ketarekin, lehen gizaki biak aipatzeko: שׂא 'îš 'gizona' eta אִשָּׁה 'ishšâh 'emakumea'; hori dela eta, Bibliaren gaztelaniazko itzulpen batzuetan, joko hori imitatu nahirik, *varon/varona* berbak agertzen dira. Ikus, izen hauei buruz, egileak 1. zatian 6. kapituluaren dioena.

⁷⁹ Pasarte honen esangura, Munk-en arabera, honako hau izan daiteke: irudimenak, grinak iratzartzean, gizakia kutsatzen du; israeldarrak, haien grinak beheratu zituen Lege moralak jasotzean, orban horretatik garbiturik gelditu ziren, baina paganoak satsutzen iraun zuen».

⁸⁰ Munkek hori azaltzeko ohar hau jartzen du, hemen laburtua: Egileak bere ikasleari Kain, Abel eta Set izenen esanguraz eta Bibliaren testuan dautzan alegoriez gogoeta eragin nahi dio. Maimonek bere egiazko pentsamenduaz gordetzen duen isiltasuna justifikatzeko, azalpen batzuk eman dira. Iruzingileek, oro har, Biblian aipaturiko Adamen hiru semeen izenetan arima arrazionalaren ahalmenen sinboloak ikusi uste dute: Kainek *antze praktikoak* irudikatzen ditu; Abelek *gogoeta*; Setek *adimena*, bera baitzen Adamen semeen artean, aitarean antza zuen bakarra,

Jainkoaren irudira egina sortua, egileak 1. zatian, 7. kapituluaren oharrazten duenez.

⁸¹ Arazo honetaz Antzinateko hizkuntzalariak (orduko gramatikariak) arduratu ziren. Gauza bera egin zuten gurean, Joanes Uharte Donibaneakoak (Cf. *Zientzietarako argimenen azterketa*, VIII. Kap.) eta Joanes Etxeberri Sarakoak ere (Cf. *Lau-urdiri gomendiozko karta*).

⁸² Hau da, Maimonek bere idazlanean hasieran aipatzen duen irakurle aditu eta eskolatuarentzat.

⁸³ Agian egileak bere ikasleekin erlijio-betebehar batzuei buruz izandako elkarriketak aipatzen ditu.

⁸⁴ Dekalogoetan agertzen diren kausa biak berorien ondorioen bidez justifikatzen dira.

⁸⁵ «Egilea hemen arabiar peripatetikoez ari da, beroriek profetizatzeo dohaina arimaren ahalmen arrazional eta moralen garapenaren maila gorentzat jotzen dute eta. Horra heltzeko, gizakiak ez du bereziki ikasten jardun behar, baina bere izpiritua garbitu, mundu honetako gauzetatik urrunduz, era honetara bere burua adimen aktiboarekiko batasunerako prestatuz, horrek egitera iraganarazten baititu gure arimak ahalmenean dauzkan gaitasunak» (Munk)

⁸⁶ *Ikus* I. zatia, 24. kap. «Bigarren kausa».

⁸⁷ *Ikus* *Mišnâh*-ren lehen zatiaren atarikoa eta *Mišnêh Tôrâh I, Yesôdê ha-Tôrâh* VII. kap.

⁸⁸ «Gainerako zortzi aginduak ez dagozkio adimenaren esparruari eta, beraz, ezin litezke silogismo frogagarri baten objektu izan; *iritzi*

gertagarrien artean aurkitzen diren bertute eta bizioei, dagozkie, eta ongiari eta gaizkiari buruzkoak dira, eta inoiz gauza tradizional hutsak ere bai; laugarren agindua, adibidez, Larunbatari buruzkoa» (Munk). Gogoan izan hebrear Bibliako Dekalogoaren 4. agindua kristauen 3.ari dagokiola.

⁸⁹ *Ikus* I. zatia, 46. kap.

⁹⁰ Esan nahi du, herriko jende apalen mintzaeran, mundu guztiak ulertzeko modukoan, gure autore honek talmudari buruzko idazlanetan horixe darabil eta «(Munk).

⁹¹ Adibidez, Noe, Sem eta 'Eber-ena bezalakoa.

⁹² Gogoan izan Aristotelesek behin eta berriro esandakoa, hots, bertutea muturretatik alde egin eta erdialde egokian irautean datzal, goitiko eta behetiko gehiegikerietatik urrunduz.

⁹³ Cf. *Nikomakorentzako Etika* III, 13.

⁹⁴ Dirudienenez, 'bakarti'tzat egileak gizartetik alde egiten duen jakint-sua hartzen du, horrela gizarteko bizio-tentazioetatik urrun bizi eta bere gogoetan eragotzia ez izateko. Gauza bera aipatzen du Ibn Badya-k «Bakartiaren erregimenaz» deritzon bere tratatuan. Gizarte, kultura eta literatura besarkatzen dituen era zabalagoan, antzeko zerbait esan zuen Horatiok berak ere: «*Odi profanum vulgus et arceo*».

⁹⁵ Hau da, gauzak iraitzi edo kanporatzeko ahalmena.

⁹⁶ *Ikus* 2 Erg 3, 15; Ez 1,3 eta 3,22, 37,1 eta 40,1.

⁹⁷ *Ikus* lehenago, 32. kap. 3. iritzia.

⁹⁸ *Ikus* geroago, 45. kap.

⁹⁹ Elizen arteko Biblian ongi azaltzen denez (571. or) hebreeraz קָדָשׁ 'arbendolondo' eta קָדָשׁ 'erne egon' sustrai bereko hitzak dira eta, ebaki ere, antzera egiten dira.

¹⁰⁰ Elizen arteko Bibliak 'edertasun' eta 'batasun' gisa itzultzen ditu hitz horiek (786. or).

¹⁰¹ Zotz egiteko tresnak edo kutunak, beharbada, dadoak, horien bitartez Jainkoaren borondatea jakiteko. Cfr. Irt 28,15 eta Lb 8,8.

¹⁰² Hau da, erlijioz judu zirenen artean.

¹⁰³ *Ikus* lehenago, 43. kap.

¹⁰⁴ *Ikus* lehenago, 44. kap.

¹⁰⁵ *Ikus* lehenago, 44. kap.

¹⁰⁶ *Ikus* lehenago, 41, 42 eta 44. kap.

¹⁰⁷ Gogoan izan, Moisesen Legearen arabera, apaizek ezin zezaketela buruko eta bizarreko ilerik moztu.

¹⁰⁸ *Ikus* lehenago, 41. kap.

¹⁰⁹ *Ikus* I. zatia, 55. kap. eta *passim*.

¹¹⁰ Gaztelaniaz eskuarki *Nabucodonosor* eta frantsesez *Nebouchadneçar* deitua den Mesopotamiako errege honen izenaz *ikus* lehenago, 64. oharra.

¹¹¹ Errege honi frantsesez *San'herib* esaten zaio, eta espainieraz, aldiz, *Senaquerib*. Horren egiazko izenari buruz, *ikus* lehenago, 64. oharra.

HIRUGARREN ZATIA

¹ *Ikus* 1. zatiaren Atariko oharrrak eta 2. zatiaren 2. kap. Obra honen hartzaileei doakienez, lehena eta

nagusienaz gain, hots, Yosef b. R. Yehudah, irakurle aditu eta ikasiak dira «emaniko azalpenak hitz erdiz edo aieru hutsez ulertzeko gai direnak».

² *Ikus* 1. zatia, 34. kap.

³ Maimonek animalien eta gizakion artean, aurpegiaren fisonomiari dagokionez, egiten duen konparaketa hau dela eta, herri askotako hizkuntza eta literaturetan ere adibide ez gutxi aurki litezke.

⁴ *Ikus* 2. zatia, 43. kap.

⁵ *חַיָּיָה* *ḥayyāh* hitza singularrean dago. Hebreeraz genero femeninoa duten hitz gehientsuen antzera, plurala *חַיִּים* *-ôṭ*-ekin egiten da.

⁶ *Ikus lehenago* 1. zatia, 40. kap.

⁷ «Hau da, esferak dira Sortzaileak ilargipeko munduan egintzaren bat burutzeko izaki arduradunak. *Ikus* egileak *aiṅgeru* hitzari 2. zatian, 6. kapituluan emandako definizioa. Kerubinek, *ḥayyôṭ*-ek bezala, zeruko esferak irudikatzen dituzte» (Munk).

⁸ Hebreeraz *גִּלְגָּלִים*, hau da, ‘gurpilak’ edo ‘esferak’, singularrean *גִּלְגָּל* *galgal*.

⁹ Hitz hau, *תְּרִישִׁי*, eskuarki, ‘turkesa’ gisa itzultzen da.

¹⁰ Hebreeraz *גִּלְגָּלִת*; gogoan izan, esangura bereko mendixka famatuaren izena, hots, *Golgota*.

¹¹ Geroago, 7. kapituluan, egileak *h ašmal* hitz honi buruzko azalpenak ematen ditu. Berez, ‘anbarra’ da, hots, antzinako erretxina fosila, maiz itsas hondartzetan aurkitzen zena, grezieraz *ηλεκτρον* *ēlektron* deitua. Gai horrek, zituen propietate

elektromagnetikoengatik, gaurko elektrizitate hitza sortzeko oinarria izan da. Horregatik, gaurko hebreeraz, *ḥašmal* ‘elektrizitatea’ da, ‘anbar’ esateko *עֹנֵבֶר* *‘anbar* berba utzirik. Berori, Europako hizkuntza gehienetara ere iragana, jatorriz, arabierazko *عنبر*, ‘anbar-etik dator, hasieran kaxaloteen ‘anbar grisa’ adierazteko erabilia.

¹² «Egileak argitzen duenez «Zeruak irekin ziren» hitzak Ezekielen kontakizun guztiaren gakoak dira, begien bistan baita metaforikoak direla, Jainkoaren izpirituaren jariapena adierazteko, kontakizun osoa ikuspen profetiko bat dela erakutsiz, eta ez zentzuetarako gauza hautemangarriak» (Munk).

¹³ *Ikus lehenago*, 2. zatia, 41. kapituluaren hasiera.

¹⁴ Munkek ohar luze batean dioenez, Moises Narbonakoa eta, honi darraiola, Šem *Tôb*, pasarte hau, beraz aski iluna, era oso korapilatsuaz azaltzen saiatu dira, eta bera, egiazko esangura igartzen asmatu duena pentsatu gabe ere, bere azalpena ematen du (*ikus* III. lib. 36. or.).

¹⁵ Kapitulu hau hobeki ulertzeko, *ikus* 1. zatia, 17. kap.

¹⁶ Munk-ek dioenez, ben Maimonek hebreerari hizkuntza santua izena (*לֶשׁוֹן הַקֹּדֶשׁ* *lešon ha-qodeš*) dagokiola justifikatzeko darabiltzan oharrak kritikatuak izan dira, eta jada R. Mošeh ben *Nahman*-ek halaxe egin zuen *Irteera*-ri (30,13) egindako iruzkinean.

¹⁷ *Ikus* 2. zatia, 33. kap.

¹⁸ «Egileak jakinarazi nahi du,

esan daitekeela filosofoen arabera, gabeziek, oro har, ez dutela eragilerik behar, baina, beste aldetik, halako gaitasun edo nolakotasun positibo bat eteten duena gabeziaren egiazko eragiletzat ere har daitekeela, geroago azalduko denez» (Munk).

¹⁹ *Ikus* 2. zatia, Sarrera, 18. baiespenaren bukaeran.

²⁰ «Egileak, hemen mututasuna, gorrieria eta itsutasuna bezalako gabeziak Jainkoaren egintzari esleitzen dizkiola dirudien arren, hor ez da irudizko adierazpen bat besterik ikusi behar, Jainkoak, zeharkako egintza baten bidez, ikusteko, entzuteko eta ikusteko gaitasunak bertan behera uzten dituelako adieran» (Munk).

²¹ Beste adiera batean hau ere esana zen: «*Invitum qui servat, idem facit occidenti*» (Horatio, *Ars Poetica*, 467. bert.).

²² *Ikus* 1. zatia, 17. kap. eta 2. zatia, 8. kapituluaren hasiera.

²³ *Abū Bakr ben Zakariyya al-Rāzi*, Al-Muktadir kalifa abasiaren mediku nagusietako bat zen, Medikuntza, Matematika eta Filosofiari buruzko idazki askoren egilea da, azken horiek gutxitan aipatuak izan arreen, maisutasunik gabeak izanik. Hemengo lekukotasun honetatik landa, ben Maimon, Šemuel ibn Tibboni eginiko gutunean ere mintzo da horiez, betiere nolabaiteko gaitzespenez.

²⁴ Antzeko gogoetak, eta ia hitz berberekin aurki daitezke Bahya ibn Paquda-ren *Bihotzen betebeharrak* (= 'betebehar moralak') deritzon

liburuaren pasarte batean (II. lib. 6. kapituluaren bukaeran), Maimonek, dirudienez, kontuan izandakoa.

²⁵ *Ikus* 2. zatia, sarrera, 20. baiespena.

²⁶ «Filosofoek, gauza fisiko guztietan azken kausa bat ezaguturik, nahitaez kausen segidan zehar igo eta horrela azken amaierara heldu behar izan dute, hots, *adimenezko* edo *jainkozko* hastapenera, tartean, bata bestearen mesederako, diren kausa horien guztien kausa absolutua dena» (Munk).

²⁷ יום כפור *Yom Kippûr*, hots, 'Barkamen Egun'eko erritualeko azken otoitzetik (נִלְהַ *neîlâh*) jasoriko hitzak

²⁸ *Ikus* 1. zatia, 53. kap. eta hurr.

²⁹ *Ikus* 1. zatia, 26. kap. eta *passim*.

³⁰ *Ikus* 2. zatia, 30. kap.

³¹ *Ikus lehenago*, 2. zatia 11. kap.

³² Cfr. Berakôt, Jerusalemeko Talmuda I, 1.

³³ Hau da, Doktoreek zazpi esfera kontatzen dituztenez, hots, orduan ezagutzen ziren planetenak.

³⁴ «Garbi dago hemen egilea *ex nihilo*-zko sorreraz ari dela, fededunek onartuaz baina filosofoek gaitzetsiaz» (Munk).

³⁵ «Hemen, daitekeenaz eta absolutuki ezinezkoaz, kasu askotan duen zalantza aitortzen digu egileak, eta bere buruari galdetzen ea irizpidea soilki adimenean ala baita irudimenean ere ez ote datzan.

³⁶ *Ikus lehenago*, 12. kap.

³⁷ *Ikus lehenago*, 2. zatian, 20. kap.

³⁸ «Aristotelesen doktrinaren arabe-

ra, ez da pentsatu behar guk ulertzen dugun bezalako *Aurreikusmenean*. Hemen Ben Maimonek izen horrekin adierazten duena, Aristotelesen aipamena eginez, ezin izan daiteke Unibertsoaren Legea besterik, horren Lehen Kausa Jainkoa izanik» (Munk).

³⁹ Zeruko esferek Ilargipeko munduaren gainean duten eraginaz, *ikus* 2. zatia, 10. kap.

⁴⁰ 1 Erg 13,24an kontatzen den pasartearen aipamena.

⁴¹ Munk-ek ohar luze hau tartekatu du, hemen, latinezko aipamenak euskaratuz, jartzen duguna: «Age-ri denez, Maimonek ez du Aurreikusmen berezia onartzen, giza espezieko banakoei doakienean izan ezik, eta halako murrizpen hau ere gaineratzen du, ondoren esanez Jainkozko Adimenaren *Jariapen* horretatik zerbait heltzen zaionak ez bestek parte hatuko duela Aurreikusmenean, horretan parte hartze den neurrian». Ikus geroago 51. kap. eta Levi ben Gerson, *Jaunaren gerrak*, IV. Lib., 7. kap. Doktrina hau, noski, ez zuten inola ere gogoko rabbi ortodoxoek, eta kristau kristauen artean ere eragina ukan zuen. San Tomasek iritzi hori gezurresteko beharra sentitu zuen bere *Summa Theologica*-n, I. Zatia, 22. gald., 2. art.: «Beste batzuek uste zuten izaki ustelezinak ez beste daudela Aurreikusmenari lotuak, eta ustelkorrei dagokienez, espezieak ere halaxe daude, horiek, berenez, ustelezinak baitira, baina ez banakoak... Halere, *Rabbi Moisesek* izaki ustelkorren artean gizakia salbuetsi zuen, argiaren partaide

dela kontuan izanik. Halere, esan beharra dago izaki guztiak daudela Jainkoaren Aurreikusmenari loturik, eta ez soilki multzoan, partikularki baizik».

Halere, jada San Hieronimok, Aurreikusmena dela eta, Ben Maimonenaren antzeko iritziaren alde agertua zen. *Habakuk* (1,14)-ri egindako iruzkinean honela dio: «Absurdoa da Jainkoaren handitasuna horrenbeste beherratu nahi izatea, une bakoitzean zenbat eltxo jaiotzen edo zenbat hiltzen diren jakiteraino heldurik, Lurrean zenbat zimitz, arkakuso eta euli diren, uretan zenbat arrainek igerian egiten duten, eta txikiatarik zenbat jango dituzte nagusiek. Ez gaitzen Jainkoaren hain handiesle ergelak, Haren ahalmena huskerietaraino eramatean, geure buruarekin injustuak izateraino iritsiz, Aurreikusmena izaki arrazionalekin zein irrazionalekin berdina dela esanez».

Bukatzeko, gogora dezagun Sirakides jakintsuak 3,22-23an gomendatzen duena. Cfr. *Item* san Pauloren abisua Errom 12,3an. Eta rabbitar tradizio garbienean ikus, halaber, *Me'am Lo'ez Prolegómenos*, 35-36 orr. (Editorial Gredos, 1964).

⁴² Ben Maimonen arabierazko jatorrizko testuan «oihu egiten du» dioen arren, haren ikasle eta itzultzaile Š. Ibn Tibbon-ek bere hebreerazko itzulpenean 'arnasa egiten du dakar'.

⁴³ «Hemen aipatzen diren humore biak *beirazkoa* eta *urtsua* dira; mintzei dagokienez, egileak *koroidea* eta *kornea* gardena aipatzen dituela dirudi. Zuloa dela eta, egileak, noski,

betseina edo begi-ninia adierazten du» (Munk).

44 «Horretara, adibidez, hautatzeko ahalmen askea duelarik, bide ona edo txarra aukera dezake; Jainkoak aurretik badaki bietako zein hautatuko duen, baina horrek ez dio eragozten inola ere aukeratzeko askatasunik» (Munk).

45 *Hăgîgâh* 13a-tik harturiko esaera.

46 «Hau da, *Šem Tōb* iruzkingilearen arabera: horretaz erran nezakeena, errebelatzea zilegi ez zaizkidan misterioez argiro mintzatu gabe» (Mk).

47 Cf. *Sanhedrin* 91b.

48 Cf. *Nedarîm* 32b eta *Targum*-a, bertset berberaz.

49 Cf. *Hăgîgâh* 16a.

50 Ben Maimonek ondoren ematen duen azalpena gora behera, litekeena da, hautsa eta errautsaren pasarte hau antzinako juduek jendaurreko penitentzia egiteko erabiltzen zuten modua aipatzeko besterik ez izatea, Bibliako beste toki batzuetan bezala.

51 Cf. *Yesôdê ha-Tôrâh*, VIII. Kap.

52 Arabieraz *قلم qalam*, idazteko tresna, kanaberaz egina (Cf. grez. *κάλαμος kálamos*; hortik latinezko *calamus* eta arabierazko forma ere bai), hegaztien lumak baino lehen erabilia.

53 Cfr. *Berêšît Rabbâh* 9.

54 Hiru agindu horiek erregeei doazkie, horietan hau galarazten zaie eta: 1) zaldi kopuru handiegia ukaitea, horiekiko zaletasunak Egiptorekiko harremanak pitz litza-keelako; 2) emakume asko biltzea,

haienganako maitasunak beren betebeharretatik urrun eraman litza-keelako; 3) urre eta zilar asko metatzea, aberastasun ugariren jabe izateak harro bihur litza-keelako (ikus Dt 17,16-17) (Munk).

55 *Ikus beherago*, 48. kap.

56 Animaliei lepoa mozteko xedapen tradizionalak ikusteko: *Mišnâh*, tr. *Hul.lîn*, 2. kap.

57 *Ikus beherago*, 46. kap.

58 *Ikus lehenago*, 2. zatia, 39.kap.

59 *Ikus* Dt 22,11; Lb 19,19, eta Irt 23,19.

60 *Ikus* Lb 17,13; Dt 211-9 eta Irt 13,13.

61 *Ikus geroago*, kapitulu honetan bertan obra ospetsu honi buruzko xehetasun zabalagoak. Munkek, gai honetaz, ohar luze-luzea dakar (77 lerro).

62 Cfr. *Ābōdâh zārâh* I,3.

63 Izen hori hemen 'mago' esanguraz erabilia da. Cfr. Danielen liburua.

64 Maimonek, beste autore arabiar batzuen antzera, izen bi hauekin herri ezberdinak egiten ditu, baina, berez, biek jende berberak adierazten dituzte.

65 Varron-ek (*De re rustica*, II, 5) honela dio horretaz: «Hau gizonaren lankidea da nekazaritzan eta Ceres-en morroia. Antzinakoek ez zeritzoten sori haren gainean eskua jartzeari, eta halako bat hiltzen zuena heriotzaz zigortzen zuten». Era berean Columelak, izen bereko obra batean, hamabi liburutan (VI. Lib, *Praefat.*) horren antzera mintzo

da. Ikus, halaber, geroago, 46. kapituluaren hasiera.

⁶⁶ Hiru hitzok, hurrenez hurren, hau esan nahi dute: 'jantzien hegaletako litsak' (Zkiak 15,38); 'Bibliaren bertsetak, eskuarki pergamino gainean idatziak, kutxatila luzeetan gordeak, etxearen zutabe eta ate-zangoetan ezarriak' (Dt 6,9 eta 11,20); eta filakteriak, pergaminozko tiraxkak, Legearen zenbait agindurekin idatziak, kutxatiletan gordeak, ezkerreko besoan edo bekokian lotuak (Irt 13,9-16, Dt 6,8 eta 11,18).

⁶⁷ *Ikus geroago*, 46. kap.

⁶⁸ *Ikus lehenago*, II. zatia, 31. kap.

⁶⁹ «Antzinako rabbiak *Kantiken* pasarte hau, Sinai mendiko goi-agerpenean Israelgo erkidegoak bere jainkozko senarrari egin zion esanekotasun-promesari aplikatzen diote» (Munk).

⁷⁰ Hori da, hitz gutxitan, euskaraz *kanpolarrosa* deitzen duguna.

⁷¹ Surtatik iraganaraztea, Ben Maimonek zioenez, haurra bi suren arte-tik pasaraztea zen. Cfr. *Mišnèh Tôrâh* I, IV, 3.

⁷² Cfr. *Berakôt* 10b eta *Pesahîm* 56a.

⁷³ *Ikus* Dt 14,22-29; item *Mišnâh*, I. zatia, tr. *Ma'ăššer šenî*, 1-3. kap.

⁷⁴ *Ikus* Dt 18,3.

⁷⁵ *Ikus* Dt 26,3-10.

⁷⁶ *Ikus* *Mišnâh*, I. zatia, tr. *Bikkûrîm*, 3, § 4. kap.

⁷⁷ Abegikortasuna antzinako eta oraingo arabiarren bertuterik handienetakoa da. Cfr. item Has. 19. kap. Loten historia.

⁷⁸ Munk-ek honela dio: «Egileak hemen oker larria egin du, eta horregatik bere arrazoiketa bere oinarritik erortzen da, Lb 27,3 testuak, gatibuak berreskuratzeko, bereziki honela dio eta: «Pertsona hogeitertetik hirurogeita hamarrera artekoa bada, gizonezkoarentzat berrogeita hamar zilarrezko txanpon, santutegiko dirutan, eta emakumearentzat hogeita hamar txanpon ordaindu behar dira», Maimonek Berak bere *Mišnèh Tôrâh*-n berresten duenez, tr. *Ārākîm* 1. kap. § 3. Ohartzekoa da *Menahem*-ek, Israelgo erregeak, Ful-ek, Asiriako erregeak, eraso zionean, bere armadako gizonak 50na siklo zilarretan berrerosi zituela (2 Erg 15,20). Egia esan, sinesgaitza dirudi Maimonek hemen, ohartzeko, horrelako okerra egitea (Munk). Baina litekeena da okerra, Maimonena barik, erregeren etxeko kopiazailearena izatea, Erregeren medikua zen aldetik, horiez baliatzeko eskubidea zukan ere.

⁷⁹ *Ikus* Irt 21,28-29.

⁸⁰ *Ikus* Lb 20, 15-16.

⁸¹ Hau da, sei babes-hirietako batean gordetzera (Cfr. Irt 21,13; Zkiak 35,11-28)

⁸² Zeremonia hau, gizaki bat hilik aurkitzen zenean, inguruko hiri bateko zaharrek bete behar zuten. *Ikus* Dt 21-1-8)

⁸³ «Rabitar tradizioaren arabera, talioi-eskubidez Pentateukoak dakartzan pasarteak ez dira hitzez hitz hartu behar, eta lege-gileak diruzko ordaintzeaz besterik ez zuen hitz egin nahi izan. Joseforen arabera (*Antzin.* IV,8, 35) gutxienez,

zaurituaren esku zegoen diruzko kalte-ordaina askiestea» (Munk). Ondoren jartzen duenagatik: «Seguraski Maimonek gai horri buruz bazuen bere iritzia, bere adiskideei ez besteri adierazten ausartzen ez zena, hura gaizki ulertua izango ote zen beldurrez. Beharbada, adierazi nahi zuena haxe zen, rabbiak, gizatasunagatik, talioiko lege ezin argiagoa ematu zutela, horren interpretazioa Moisesengana beragana atzera eramanez» (Munk).

⁸⁴ Hau da, zauriturik egon den denboran ezin egin izan duen lanaren balioa.

⁸⁵ *Ikus* Irt 21,37 eta Sm 12,6.

⁸⁶ *Ikus* Lb 5,24.

⁸⁷ «Rabbiak *atzerapena* heriotza goiztiar baina naturalizat ulertzen dute» (Munk).

⁸⁸ *Ikus* Dt 25,3 *Mišnāh*, IV. Zatia, tr. *Makkôt* III. kap., § 10-11. Cf. halaber, Done Pauloren lekukotasuna II. Kor 11,24.

⁸⁹ *Ikus* Lb 7,26-27 eta *passim*.

⁹⁰ *Ikus* Irt 31,13-15.

⁹¹ *Ikus* Dt 18,20 eta 17,12.

⁹² *Ikus* Irt 21,15-17 eta Lb 20,9.

⁹³ *Ikus* Dt 21,18-19.

⁹⁴ *Ikus* Irt 21,16 eta Dt 24,7.

⁹⁵ *Ikus* Irt 22,1.

⁹⁶ *Ikus* Dt 25, 19.

⁹⁷ *Ikus* Dt 23 13-14.

⁹⁸ *Ikus lehenago* 33. kap.

⁹⁹ *Ikus* Dt 21,10-14.

¹⁰⁰ *Ikus* Lb 25,14-17.

¹⁰¹ «Hau da, lau gordetzaille motak, hau da: gordailu bat dohainik

gordetzen duena; edozein gauza mailegutan hartzen duena; kontsignazioaren bidez gordailu bat enkargatzen duena, eta objektu bat alokaturik hartzen duena. *Ikus* Irt 22,6-14 eta *Mišnāh*, IV. Zatia, tr. *Bābā' mesî'a*, VII. kap. § 8 eta *Šebuôt*. VIII. kap. § 1.

¹⁰² *Ikus* Lb 19,13 eta Dt 24-25.

¹⁰³ *Ikus lehenago*, II. zatia, 31. kap. Larunbataren ezarpenaren motibo bikoitzaz ere mintzatzen delarik.

¹⁰⁴ *Ikus* Lb 23,27 eta Zkiak 29,7.

¹⁰⁵ *Ikus* Irt 34, 27-29.

¹⁰⁶ Aker adarra, juduen zenbait erlijio-ospakizunetan joarazten dena.

¹⁰⁷ Zitriko mota bada da (אתרוג *etrog*) limoi antzeko fruitu handiak ematen dituen (Citrus medica 'zidroa').

¹⁰⁸ Hebreeraz תפילין *tefilin*, judu erlijiosok buruan esekirik eramaten zituzten tiratxoak, letra txikiz izkribu santuen zatiak zeuzkatenak, horrela «Jainkoaren hitza beti aurrean izateko».

¹⁰⁹ Israeldar orok *Tôrāh*-ren liburua eduki beharra rabbiaren tradizioaren arabera Dt 31,9 pasartearekin lotzen da. *Ikus* *Mišnēh Tôrāh*, II. lib, tr. *Séfer Tôrāh*, VII. kap. § 1.

¹¹⁰ قِبْلَة *qiblah* arabierazko hitz honek tenpluen orientaziorako erreferentzia adierazten du: juduentzat Jerusalemeko Moriah mendia, musulmanentzat, aldiz, Arabiako Meka.

¹¹¹ Zuhaitz horri, singularrean אשרה *ʾăšērāh* deritzo..

¹¹² *Ikus* Irt 25,23-30.

¹¹³ «Ikus Lb 26,1 eta 16,21. «Figurez apainduriko harriak» esaldia dela eta, horrekin, segur aski, obelisko eta inskripzio hieroglifikodun beste monumentuak adierazi nahi dira (Munk)»

¹¹⁴ ‘Gizonaren zein emakumearen alde’ alegia.

¹¹⁵ אֶפֹד *efod* hitzak Biblian hiru gauza adierazten ditu, tokiaren arabera: 1) Jainkoari galde egiteko erabiltzen zen antzinako tresna (Cfr. Ep 8,27; 1 Sm 14,18); 2) apaiz arruntak erabiltzen duen lihozko oihala, jantzia (Cfr 2 Sm 6,14); 3) Apaiz nagusiaren bularreko bat, gerruntze gisakoa (Cfr. Irt 28,6).

¹¹⁶ *Ikus lehenago*, 30. kap.

¹¹⁷ *Ikus* Lb 5,7 eta *passim*.

¹¹⁸ *Ikus* Lb 2,1-11.

¹¹⁹ *Ikus* Lb 7,16-21.

¹²⁰ *Neomenia*: grezierazko νέος *néos* ‘berri’ eta μήνη *méne* ‘Ilargi’. Ilberri-eguna, Ilargi-egutegiaren lehen eguna, Erromako *kalendas*-i zegokiena. Antzinako herri askotan egun horretan jai eta ospakizunak egiten ziren.

¹²¹ Honela esaten zitzaion aldarearen gainean erretzen zen eskaintza-atalari.

¹²² Herri osoa, hots, gizonezkoak, andrazkoak eta haurrak, zazpi urterik behin biltzeko aginduaz ari da, horrela Legearen irakurketa entzuteko (Dt 31,10-13, *item* Neh, 8. kap.)

¹²³ Jeremiasen pasarte honetaz, *ikus lehenago*, II. zatia, 39. kap.

¹²⁴ *Ikus* Lb 11, 29-30; hor zortzi patarixto aipatzen dira (satorra, saga

eta mota guztietako muskerrak, dragoitxoak (= gekoak), krokodiloa, arrubioa eta kamelehoia) horiek ukitzeak satsutasuna lekarkeela ohartaraziz. Ageri denez, hemen narraستي izenak zerrenda heterogeneo bat adierazten du, euskarazko *patari* edo espainierazko *bicho*, *sabandija* gisa). Sarraskia ukitzea dela eta, *ikus ibid.* 39-40. berts.

¹²⁵ Gaixotasun horietatik sendatzen ziren pertsonak zazpi egun gehiago behar zituzten beren buruei erabat aratz irizteko.

¹²⁶ Gogoan izan, lehenagoko bizargileek, garai hartan *barber(o)* deituek, ilea eta bizarra mozteaz gainera, odola atera eta garrantzi txikiko beste ebakuntzak ere egiten zituztela, *Peru Abarka* liburuko Maisu Juan ezagunak bezala.

¹²⁷ Cfr. pasarte honetarako, *Zend-Avesta*, T.1, 2. zatia.

¹²⁸ *Ikus* 120. oharra.

¹²⁹ «*Yishak* Israeli mediku juduak (X. mendekoak) txerrikia elikagai txit osasungarritzat gorai patzen du» (Munk).

¹³⁰ Rabbiak debeku hau Has 9,4 eta Dt 12,23an dakusate» (Munk).

¹³¹ «Autoreak aipatzen duen pasartea ez da aipaturiko IX. liburu horretan aurkitzen, *Nikomakorentzako Etikaren* VIIIan baizik, I. kapituluaren hasieran» (Munk).

¹³² *Ikus* Zkiak 5,11-31 eta *lehenago*, 47. kap.

¹³³ Israelgo diru txanpon honetaz, *ikus* lehen zatia *Atariko ohar*ak 34. orr. 13. oharra

¹³⁴ *Atzerapena* dela eta, *ikus* 41. kap. 87-89. oharrak.

¹³⁵ Azken kasu hori ez du Moisesen Legeak preseski aipatzen, ez eta parrizidioa ere, eta eskuarki onartzen den arrazoia begien bistakoa da: bidegabekeria hauen handitasunak legegileari zehazki beroriek aipatu beharra salbuesten zion. Gainera, Legeak gizon baten eta bere bilobaren arteko elkartzea galarazten badu (Lb 18,10), are arrazoi handiagoaz ulertu behar da beraren alabarekin ere debekaturik egotea. *Ikus Talmud bāblī*, tr. *Sanhedrin*, 76 fol. a

¹³⁶ *Ikus* Has 14,1-16.

¹³⁷ *Ikus* Has 36,20-30.

¹³⁸ *Ikus* aurreko kapitulua, amaiera aldean.

¹³⁹ Hitz honek *فقہ* *fiqh*-az edo Zuzenbide kanonikoaz arduratzen dena adierazten du, eta tradizioz erlijioaren funtsezko oinarriak onartzen ditu. Juduen artean, bereziki, horrela talmudistari deritzo.

¹⁴⁰ *Ikus lehenago*, II. zatia, 45. kap.

¹⁴¹ *Ikus lehenago*, I. zatia, 50. kap.

¹⁴² *Ikus lehenago*, II. zatia, 12 eta 37. kap.

¹⁴³ *Ikus lehenago*, 12. kap. eta hurr.

¹⁴⁴ *Ikus lehenago*, 18. kap.

¹⁴⁵ *Ikus lehenago*, 18. kap. Munkek hemen ohar luze bat ezartzen du, eta, besteak beste, hau dio: «Pasarte honetako gogoetak erlijio-mailakoak eta onbideratzekoak dira, eta ez zehazki filosofikoak; horregatik [Ben Maimonek] ezin zezakeen serioski sinets horiek gizabanakoarekiko Aurreikusmenak dakartzan zailtasun guztiak askatzeko balio zezaketenik, «baita filosofoen iritzien arabera ere».

¹⁴⁶ *קטשׁוּ* *hōšēq* (= ‘kartsu, suharra’)

¹⁴⁷ *Ikus lehenago*, 1. zatia, 53. eta 54. kapituluetan

¹⁴⁸ Cf. *Nikomakorentzako Etika* I, 8 eta ond.

¹⁴⁹ *Ikus* 1. zatia, 54. kap.

¹⁵⁰ *Ikus lehenago*, I. kap. bigarren iritzia.

¹⁵¹ *Ikus* 1. zatia, 54. kap.

Aurkibidea

BIGARREN ZATIA	9
SARRERA	11
LEHEN KAPITULUA	16
BIGARREN KAPITULUA	24
HIRUGARREN KAPITULUA	26
LAUGARREN KAPITULUA	27
BOSGARREN KAPITULUA	31
SEIGARREN KAPITULUA	33
ZAZPIGARREN KAPITULUA	37
ZORTZIGARREN KAPITULUA	38
BEDERATZIGARREN KAPITULUA	38
HAMARGARREN KAPITULUA	40
HAMAIKAGARREN KAPITULUA	44
HAMABIGARREN KAPITULUA	47
HAMAHIRUGARREN KAPITULUA	50
HAMALAU GARREN KAPITULUA	55
HAMABOSGARREN KAPITULUA	59
HAMASEIGARREN KAPITULUA	62
HAMAZAZPIGARREN KAPITULUA	63
HAMAZORTZIGARREN KAPITULUA	67
HEMERETZIGARREN KAPITULUA	71
HOGEIGARREN KAPITULUA	80
HOGEITA BATGARREN KAPITULUA	82
HOGEITA BIGARREN KAPITULUA	84
HOGEITA HIRUGARREN KAPITULUA	88
HOGEITA LAUGARREN KAPITULUA	90
HOGEITA BOSGARREN KAPITULUA	95

HOGIETA SEIGARREN KAPITULUA	97
HOGIETA ZAZPIGARREN KAPITULUA	99
HOGIETA ZORTZIGARREN KAPITULUA	100
HOGIETA BEDERATZIGARREN KAPITULUA	103
HOGIETA HAMARGARREN KAPITULUA	115
HOGIETA HAMAİKAGARREN KAPITULUA	125
HOGIETA HAMABIGARREN KAPITULUA	126
HOGIETA HAMAHIRUGARREN KAPITULUA	130
HOGIETA HAMALAUĞARREN KAPITULUA	132
HOGIETA HAMABOSGARREN KAPITULUA	133
HOGIETA HAMASEIGARREN KAPITULUA	135
HOGIETA HAMAZAZPIGARREN KAPITULUA	140
HOGIETA HAMAZORTZIGARREN KAPITULUA	142
HOGIETA HEMERETZIGARREN KAPITULUA	145
BERROGEİGARREN KAPITULUA	148
BERROGEİTA BATGARREN KAPITULUA	151
BERROGEİTA BIGARREN KAPITULUA	154
BERROGEİTA HIRUGARREN KAPITULUA	157
BERROGEİTA LAUGARREN KAPITULUA	159
BERROGEİTA BOSGARREN KAPITULUA	161
BERROGEİTA SEIGARREN KAPITULUA	168
BERROGEİTA ZAZPIGARREN KAPITULUA	171
BERROGEİTA ZORTZIGARREN KAPITULUA	174
 HIRUGARREN ZATIA	 177
LEHEN ZAZPI KAPITULUETARAKO SARRERA	179
LEHEN KAPITULUA	181
BIGARREN KAPITULUA	182
HIRUGARREN KAPITULUA	186
LAUGARREN KAPITULUA	187
BOSGARREN KAPITULUA	189
SEIGARREN KAPITULUA	191
ZAZPIGARREN KAPITULUA	192
ZORTZIGARREN KAPITULUA	194
BEDERATZIGARREN KAPITULUA	200
HAMARGARREN KAPITULUA	201
HAMAİKAGARREN KAPITULUA	204

HAMABIGARREN KAPITULUA	205
HAMAHIRUGARREN KAPITULUA	212
HAMALAU GARREN KAPITULUA	219
HAMABOSGARREN KAPITULUA	222
HAMASEIGARREN KAPITULUA	224
HAMAZAZPIGARREN KAPITULUA	227
HAMAZORTZIGARREN KAPITULUA	238
HEMERETZIGARREN KAPITULUA	240
HOGEGARREN KAPITULUA	243
HOGETA BATGARREN KAPITULUA	247
HOGETA BIGARREN KAPITULUA	249
HOGETA HIRUGARREN KAPITULUA	254
HOGETA LAUGARREN KAPITULUA	261
HOGETA BOSGARREN KAPITULUA	266
HOGETA SEIGARREN KAPITULUA	270
HOGETA ZAZPIGARREN KAPITULUA	274
HOGETA ZORTZIGARREN KAPITULUA	276
HOGETA BEDERATZIGARREN KAPITULUA	278
HOGETA HAMARGARREN KAPITULUA	286
HOGETA HAMA IKAGARREN KAPITULUA	288
HOGETA HAMABIGARREN KAPITULUA	289
HOGETA HAMAHIRUGARREN KAPITULUA	296
HOGETA HAMALAU GARREN KAPITULUA	298
HOGETA HAMABOSGARREN KAPITULUA	299
HOGETA HAMASEIGARREN KAPITULUA	303
HOGETA HAMAZAZPIGARREN KAPITULUA	304
HOGETA HAMAZORTZIGARREN KAPITULUA	314
HOGETA HEMERETZIGARREN KAPITULUA	314
BERROGEIGARREN KAPITULUA	319
BERROGETA BATGARREN KAPITULUA	322
BERROGETA BIGARREN KAPITULUA	332
BERROGETA HIRUGARREN KAPITULUA	334
BERROGETA LAUGARREN KAPITULUA	338
BERROGETA BOSGARREN KAPITULUA	339
BERROGETA SEIGARREN KAPITULUA	345
BERROGETA ZAZPIGARREN KAPITULUA	357
BERROGETA ZORTZIGARREN KAPITULUA	362

BERROGEITA BEDERATZIGARREN KAPITULUA	365
BERROGEITA HAMARGARREN KAPITULUA.	377
BERROGEITA HAMAIKAGARREN KAPITULUA	382
BERROGEITA HAMABIGARREN KAPITULUA.	393
BERROGEITA HAMAHIRUGARREN KAPITULUA	395
BERROGEITA HAMALAUGARREN KAPITULUA	397
OHARRAK	405